

Jakintza-arloa: Soziolinguistika

# Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza

Nafarroako euskararen historia  
soziolinguistikoa (1863-1936)

Egilea: **XABIER ERIZE ETXEGARAI**  
Urtea: 1997  
Zuzendaria: PELLO SALABURU ETXEBERRIA  
Unibertsitatea: UPV-EHU  
ISBN: 978-84-8428-281-2

### Tesia aurkeztu nuenetik (1997) hamabi urte igarota

Tesiaren izenburua *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. *Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Beraz, hiru atal nagusi bereizi daitezke eta hamabi urte hauetako bilakaera horien arabera laburbildu:

- Euskararen historia soziolinguistikoa.
- Soziolinguistika historikoa.
- Hizkuntza gutxituen bizitza.

**Euskararen historia soziolinguistikoa.** Alor zientifiko bezala, egin zaion ekarpen nagusia Euskaltzaindiaren babespean 2007. urtean aurkeztu zen “Hizkuntzen historia sozialak” egitasmoa da, “Etxeberri egitasmoa” izena duena (ikus Lionel Joly, 2009, “Hizkuntzen historia soziala: euskararen azterketarako eredua”, *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 70, 143-157. Proiektu honekin aurrerapen kualitatiboa eta kuantitatiboa egingo du euskararen historia soziolinguistikoak.

**Soziolinguistika historikoa.** Nazioarteko soziolinguistikan gutxi landua zegoen soziolinguistika historikoa, soziolinguistikaren gainerako arloen aldean, eta horrela segitu du. Gehien landu diren gaiak hizkuntzen barne bilakaerari loturikoak izan dira (historia linguistikoaren azalpen soziala nonbait), Laboven teoria “bariazionistaren” ikuspegiaren barruan kokatuta. Hizkuntzen arteko harreman makro-soziolinguistiko historikoak, berriz, oso gutxitan aztertu dira, eta are gutxiagotan egin dira horiek aztertzeko saio teoriko edo metodologiko sendoak.

**Hizkuntza gutxituen bizitza versus heriotza.** Euskararen eta herri hizkuntzei buruzko lan gehienek postulatu edo diskurtso implizitu bat zuten abiapuntu: herri hizkuntzen heriotza, edo heriotza bidea. Herri hizkuntzak ikertzea hizkuntza ordezkapena ikertzearen sinonimo bezala ulertzen zen kasik. Tesiaren arazo intelektuala hau izan zen: “euskararen heriotzaren” ohiko ikerkuntza-programatik atera eta bestelako ikuspuntua finkatzea. Garrantzirik handiena euskararen biziraupenari eta garai berriei egokitzeko erakutsi duen gaitasunari aitortu nien nire tesian, ez hainbeste bere atzerakadari, nahiz eta hau kontuan hartu beharreko gertaera izan. Euskararen kasuan gauzak aldatu egin dira, gero eta gehiago hitz egiten baita euskararen iraupenaz, ez bakarrik euskararen galeraz edo atzerakadaz. Nazioarteko soziolinguistikan, oraindik ere herri hizkuntzen heriotzaren diskurtsoaren lilura da nagusi. Adibidez, Googlen “Language Death” [Hizkuntza heriotza] bilatuta, 71.700.000 emaitza agertu zitzaizkidan 2009ko ekainaren 7an, eta “Language Loss” [Hizkuntza galera] bilatuta, 50.200.000. Egia da “Language Maintenance” [Hizkuntza iraupena] bilatuta, 42.400.000 emaitza agertzen direla, baina heriotzari edo galerari loturikoak bainoa askoz gutxiago.

**NAFARROAKO EUSKARAREN  
HISTORIA SOZIOLINGUISTIKOA  
(1863-1936)**

**SOZIOLINGUISTIKA HISTORIKOA ETA  
HIZKUNTZA GUTXITUEN BIZITZA**



# AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	13
ESKER ONAK .....	17
LABURDUREN ZERRENDAA.....	19
1. SARRERA.....	21
1.1 Soziolinguistika eta hizkuntz komunitatea: oinarrizko bi kontzeptu.....	22
1.2 Lanaren ezaugarri orokorrak .....	30
1.2.1 Lanaren arazo intelektuala.....	30
1.2.2 Epea: 1863-1936 .....	34
1.2.3 Nafarroako hizkuntz desoreka estrukturala.....	35
1.2.4 Hizkuntz komunitatearen azterketa.....	38
1.2.5 Metodologia.....	42
1.2.6 Teorien ebaluazioa.....	45
2. OINARRI TEORIKOAK: EUSKARAREN HISTORIOGRAFIAREN AZTERKETA KRITIKOA ETA SOZIOLOGIKAREN EKARPENAK .....	47
2.1 Euskararen historiografiaren azterketa kritikoa.....	47
2.1.1 Aurkezpena .....	47
2.1.2 Euskararen historiografiaren azterketa .....	51
2.1.2.1 Ohiko eredia .....	51
2.1.2.2 Lehentasuna atzerakadari eman zaio .....	53
2.1.2.3 Iraupenaren azalpenak .....	61
2.1.3 Mitxelenaren ekarpena .....	65
2.1.4 Euskararen historiografiaren azterketa: ondorioak ..	78
2.2 Gaztelaniaren eta frantsesaren historiografia gainerako hizkuntzen aurrean .....	79
2.2.1 Gaztelaniaren historiografia.....	80
2.2.1.1 Menendez Pidal.....	80
2.2.1.2 Rafael Lapesa.....	82
2.2.2 Frantsesaren historiografia.....	88
2.2.2.1 Ferdinand Brunot.....	88
2.2.2.2 Marcel Cohen.....	89
2.2.3 Ondorioak .....	91
2.3 Literatura soziolinguistikoa: hizkuntzen historiarako irizpideak .....	92
2.3.1 Soziolinguistika historikorako hurbilketak .....	92
2.3.1.1 Suzanne Romaine .....	94
2.3.1.2 Peter Burke.....	96
2.3.1.3 Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx” .....	98

2.3.1.4	Laburpena eta ondorioak.....	101
2.3.2	Soziolinguistika historikorako irizpideak literatura soziolinguistiko orokorrean .....	102
2.3.2.1	Uriel Weinreichen aitzindaritza.....	103
2.3.2.2	Hizkuntzen iraupenaren eta ordezkapenaren ikuspegi bateratua.....	110
2.3.2.2.1	Joshua Fishman .....	110
2.3.2.2.2	Ralph Fasold .....	121
2.3.2.2.3	Charlotte Hoffman .....	130
2.3.2.2.4	Juan G. Cobarrubias .....	132
2.3.2.2.5	Laburpena eta ondorioak.....	133
2.3.2.3	Jose Maria Sanchez Carrion "Txepetx" .....	134
2.3.2.4	Hizkuntz ordezkapenaren ikuspegia.....	142
2.3.2.4.1	Louis Jean Calvet .....	143
2.3.2.4.2	Pierre Bourdieu .....	147
2.3.2.4.3	Lluis Vicent Aracil.....	151
2.3.2.4.4	Hizkuntz ordezkapenaren ikuspegia: laburpena eta ondorioak .....	154
2.4	Nafarroako euskararen historiografia, hizkuntzen historia eta literatura soziolinguistikoaren ekarpenak: oinarri teoretikoak.....	156
3.	EUSKARAREN BILAKAERA IRAUPEN LUZEKO BOST GAIREN ARGITARA.....	161
3.1	XIX. mendearen ezaugarri orokorrak .....	165
3.2	Herri hizkuntzen biziraupena: Frantzia XVIII. mendean (azterketa konparatiboa).....	172
3.3	Erdal eta euskal kulturen arteko ukipena: indoeuroparren ideologiaren hastapenak .....	187
3.4	Erdal komunitatearen hizkuntz politika: Frantziako hizkuntz politikaren eredia.....	198
3.5	Nafarroako hizkuntz eta kultur tradizioa .....	211
4.	EUSKARAREN GEOGRAFIA ETA DEMOGRAFIA NAFARROAN: 1863KO ETA 1936KO EGOERAK.....	253
4.1	1863ko egoera geografikoa .....	253
4.2	1863ko euskararen demografia .....	259
4.3	Euskararen egoera geografiko eta demografikoa 1936. urtean .....	264
4.4	1863 eta 1936 bitarteko bilakaera: laburpena eta ondorioak .....	267
5.	EUSKAL HIZKUNTZ KOMUNITATEA BONAPARTE PRINTZEAREN ETA BERE LAGUNTZAILEEN LEKUKOTASUNEN ARABERA.....	271

5.1 Bonaparte printzearen lekukotasunak .....	272
5.1.1 Bonaparteren lekua euskararen gizarte-bilakaeran ..	272
5.1.2 Hizkuntzaren ezagutza Nafarroan Bonaparteren le-	
kukotasunen arabera .....	274
5.1.3 Hizkuntz jarrerak .....	276
5.1.4 Hizkuntz hautaketa eta hizkuntz erabilera.....	281
5.1.5 Hizkuntz hautaketa eta erabilera: emakumeak, gizo-	
nak eta euskara.....	286
5.1.6 Hizkuntzaren gaineko ekintzak .....	292
5.2 Bonaparteren laguntzaileen lekukotasunak .....	295
5.2.1 Bonaparteren Nafarroako laguntzaileak.....	295
5.2.2 Bonaparteren laguntzaileen esanahi soziolinguisti-	
koko lekukotasunak .....	299
5.2.2.1 Hizkuntz ezagutza Nafarroan Bonaparteren	
lankideen arabera.....	300
5.2.2.2 Hizkuntz jarrerak.....	301
5.2.2.3 Hizkuntz hautaketa eta hizkuntz erabilera .	303
5.2.2.4 Hizkuntzaren gaineko ekintzak.....	307
5.2.3 Laburpena.....	309
6. EUSKAL HIZKUNTZ KOMUNITATEAREN SISTEMA: UITZIKO (LARRAUN IBARRA) LANDA-IKERKETA .....	311
6.1 Uitziren ezaugarri historikoak.....	313
6.2 Metodologia. Ahozko historia eta teknika kualitatiboak:	
eztabaida taldea .....	319
6.3 Lekukotasun esanguratsuenen sailkapen eta aurkezpena .	322
6.4 Lekukotasunen esanahia: Uitziko euskal hizkuntz komu-	
nitatearen sistema.....	342
6.4.1 Baloreen maila: Uitziko sistema etnolinguistikoa eta	
uitziarren berarekiko adostasuna .....	343
6.4.2 Hizkuntz harremanen sarea.....	343
6.4.3 Uitziko hizkuntz portaeraren sistema .....	347
6.4.4 Euskal hizkuntz komunitatearen egitura .....	352
6.4.5 Hizkuntz komunitatearen ugalketa .....	356
6.4.6 Euskaldunak eta Nafarroaren ideia-oren onarpena ....	359
6.5 Ondorioak.....	361
7. ERDAL HIZKUNTZ KOMUNITATEA ETA EUSKARA..	365
7.1 Erdaldunen besteekiko harremanei buruzko ikuskera .....	365
7.2 Erdal munduaren kezak eta euskara .....	369
7.2.1 Estatu espainolaren itxuraldatzea.....	370
7.2.2 Foruen eztabaida.....	372
7.2.3 Nabarrismo politikoa eta euskara .....	377
7.3 Erdal komunitatearen euskarari buruzko diskurtsoak.....	380
7.3.1 Diskurtsoen azterketa.....	380

7.3.2	Nafarroako erdaldunen euskarari buruzko mentalitate orokorra.....	384
7.3.3	Ideologia edota iritzi arrazoituak .....	398
7.3.3.1	XIX. mendeko hizkuntz ideiak .....	398
7.3.3.2	Espainiatik zetozen iritziak .....	402
7.3.3.3	Nafarroan sortutako iritziak.....	408
7.4	Irakaskuntza sistema eta euskara .....	418
7.4.1	Sarrera.....	418
7.4.2	Hezkuntza sistemaren zeregina.....	420
7.4.3	Kasu eredugarri bat: Iturengo maisuaren izendapena (1900).....	422
7.4.4	Erdal irakaskuntzaren nafar sustraiak: 1841 aurreko eta ondorengo egoeren jarraitasuna .....	436
7.4.5	Euskararen aurkako zigorren esanahia .....	444
7.4.6	Diputazioa, udalak eta eskolaren erdaltasuna .....	448
7.5	Erdal hizkuntz komunitatea eta euskara: ondorioak.....	453
8.	EUSKARAREN ALDEKO LAN ETA MUGIMENDUAK .	459
8.1	Abiapuntua: bi tradizioen uztardura egoera mingarri bati aurre egiteko .....	460
8.1.1	Egoera mingarria: 1876ko krisialdia eta euskararen atzerakada .....	462
8.1.2	Euskal tradizioaren korrontea.....	465
8.1.3	Nazioarteko korrontea: herri hizkuntzen aldeko mugimendu eta ideologiak .....	465
8.2	Nafarroako mugimendu euskaltzaleen ideologia eta egitasmoa .....	470
8.2.1	Ideologia orokorra.....	470
8.2.2	Hizkuntz ideiak .....	475
8.2.3	Euskaltzaletasunerako egitasmoa .....	477
8.2.4	Nafarren hizkuntz irizpideak: euskararen batasuna eta garbizaletasunaren auzia.....	482
8.2.5	Ondorioak: Arturo Campionen, Sabino Aranaren eta karlisten arteko erkaketa.....	494
8.3	Ekimenak .....	496
8.3.1	Ezaugarri orokorrak .....	496
8.3.2	Ekimen nagusien taula .....	499
8.3.3	Euskararen aldeko ekimenak: iruzkina .....	508
8.4	Nafar euskaltzaletasunaren mugak .....	513
8.4.1	Mugimendu euskaltzalearen ahultasuna .....	513
8.4.2	Ahultasunaren zergatiak .....	515
8.5	Laburpena eta iritzi orokorra .....	520
9.	ONDORIOAK.....	523



ERANSKINAK.....	539
1. taula. 1863ko eremu euskalduna udalerrika.....	539
2. taula. 1935eko eremu euskalduna udalerrika.....	543
3. taula. 1863ko eta 1935eko egoeren arteko alderaketa udalerrika.....	547
4. taula. Herri euskaldunetako maisu-maistren izendapena praktikan: Elizondo, Gares, Irurtzun, Leitza eta Otsagi (1830-1876).....	551
BIBLIOGRAFIA.....	555

## ESKER ONAK

Lana egiten lagundu didaten irakasle, adiskide eta lagun guztiei nire eskerrik beroenak adierazi nahi dizkiet.

Lehenik, Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx”-i, berarekin izandako lan-saio eta elkarrizketa aberasgarriengatik. Guztiz bestelakoa izango zen lan hau bere iradokizun, ekarpen eta sustengurik gabe.

Koldo Zuazori, bere iritzi kritiko zorrotzengatik eta zirriborroen irakurketa eta zuzenketa arretatsuengatik.

Pilar Marini, zirriborroak sakonki irakurri eta ulertzeagatik eta bere aholku orokorregatik.

Carlos Vilchesi, Uitziko ikerketarako irizpide tekniko-metodologi-koengatik. Halaber, Pedro Jose Ariztimuño, Jose Migel Oreja, Maria Angeles Azpirotz, Justo Jimeno, Juantxo Zabaleta eta Arantza Azpirotzi, eta, oro har, Uitziko ikerketan parte hartu duten eta laguntza eman didaten pertsona guztiei.

Beren denbora eta iritziak eskaini dizkidaten Yolanda Arana, Jon Arrizabalaga, Iñaki Azkona, Xabier Barber, Andoni Esparza, Angel Garcia Sanz, Xabier Idoate, Jose Maria Jimeno Jurio, Emilio Majuelo, Rosa Silva, Kath Speedy, Andres Valentin, Pedro Yrizar eta gainerako lagunei.

Tesiaren zuzendaria izan den Pello Salabururi, hartu duen arduragatik, eskaini didan denboragatik eta egin dizkidan ekarpen baliotsuengatik.

Nafarroako Gobernuari, tesia egiteko hiru urteko diru-laguntza eman didalako, Ikertzaileen Prestakuntzarako Programaren baitan.

Eta, azkenik, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiari liburua argitaratzeagatik.

## LABURDUREN ZERRENDA

<i>ASJU</i>	= <i>Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”</i>
<i>BAP</i>	= <i>Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País</i>
<i>BON</i>	= <i>Boletín Oficial de Navarra</i>
<i>ET</i>	=Uitziko Eztabaida Taldea
<i>FLV</i>	= <i>Fontes Linguae Vasconum</i>
<i>GEN</i>	= <i>Gran Enciclopedia Navarra</i>
<i>IEA</i>	=Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa
<i>IJSL</i>	= <i>International Journal of the Sociology of Language</i>
<i>IUA</i>	=Iruñeko Udal Artxiboa
<i>JM eta M</i>	=Jose Migel eta Marianen elkarrizketa (Uitzi)
<i>JMMD</i>	= <i>Journal of Multilingual and Multicultural Development</i>
<i>LGEV</i>	=La Gran Enciclopedia Vasca
<i>LH</i>	= <i>Lengua e historia</i> (=Mitxelena 1985)
<i>NAA</i>	=Nafarroako Artxibo Administratiboa
<i>NAN</i>	=Nafarroako Artxibo Nagusia
<i>PJA</i>	=Pedro Jose Ariztimuñoren elkarrizketa (Uitzi)
<i>PT</i>	= <i>Palabras y textos</i> (=Mitxelena 1987a)
<i>SHLV</i>	= <i>Sobre historia de la lengua vasca</i> (=Mitxelena 1988c)
<i>UPA</i>	=Uitziko Parrokiako Artxiboa

## 1. SARRERA

Sarrerak bi zati ditu. Lehen zatian lanaren hasiera-hasieratik erabiliko diren oinarrizko bi kontzeptu aurkezten dira: soziolinguistika eta hizkuntz komunitatea. Ondoren, 1.2 atalean, lanaren ezaugarri orokorrak azaltzen dira.

Hiru ohar, bestalde. Aurrenekoa Nafarroa hitzari buruz. “Nafarroako euskararen historia” dio izenburuak, baina egitan Nafarroa Garaiko bilakaera aurkeztera mugatu naiz. Nafarroa Beherea azalpenetatik kanpo geratu da gehienetan, batez ere ezin nuelako dena besarkatu. Hala ere, Nafarroako bi zatien arteko lotura ukaezina da eta, harira zetorrenean, lotura hori nabarmentzen saiatu naiz. Horretaz gain, garbi dago Nafarroa bere osotasunean hartzeak dimentsio berri bat ematen diola euskarak bertan duen tokia ulertzeko moduari: Nafarroa Garaia zein Nafarroa Beherea, bakoitza euskara gehi gaztelania edo euskara gehi frantsesa (eta gaskoia) terminoetan irudika badaitezke, Nafarroaren batasuna, ordea, ulertezina da euskara alde batera utziz gero, euskara baita, hain zuzen ere, bi aldeek komun duten hizkuntza.

Bigarren oharra *gutxitzearen* kontzeptuari buruzkoa da, lanaren izenburuak “hizkuntza gutxiak” aipatzen baititu. Kontzeptu honek, ukaezinezko abantailekin batera, alde txar garbiak ere baditu eta ez du egiazko errealitatea ongi islatzen. Alegia, gutxitzearen edo minorizazioaren ideia normaltasunarekiko erreferentzian ulertzen da, eta, jakina, egoera normaltzat hizkuntza nagusia hartzen dugu inplizitoki. Baina bilakera historikoa alderantzizkoa izan da neurri handi batean. Normaltzat hizkuntzaren jatorrizko neurriak hartzen baditugu, berriz, hizkuntza nagusiek normaltasunetik aldendu eta gainhedapen edo *hipertrofia* izan dute. Ikuspegi horretatik euren neurriei eutsi dieten hizkuntzak eta hizkuntza hipertrofiatuak ditugu. Aldi berean, egia da euskara eta bere antzeko beste hizkuntza asko alboko hizkuntzen hipertrofia pairatu eta txikituz eta mendeko egoeran geldituz joan direla, eta horregatik saihestezina zaigu gutxitzeaz hitz egitea —zentzu teknikoan, gutxiengo etniko edo kulturalak “son grupos subordinados o cuya posición es vulnerable a la subordinación” (Harris 1993: 394)—, baina minorizazioa bezain garrantzitsua da gainhedapenaren ideia gogoan izatea. Hizkuntza “gutxiak” esan beharrean beste aukera batzuk hizkuntza “ez-menderatzai-leak”, “ez-hegemonikoak”, “mendekoak”, “txikiak”, eta abar, izan litezke, baina adjektibo hauek ere ez naute guztiz asetzen.

Hirugarren oharra bibliografi erreferentzien ingurukoa da. Egilea-urtea sistema erabili dut, baina zenbait argitasun eman beharrean nago. Autore gehienek kasuan hitzez hitzeko aipuak<sup>1</sup> jaso dira eta horrek, egilea eta urtea ezezik, orrialdea ere aipatzea —Campion (1911: 4), adibidez— eskatzen du. Hori dela eta, lehentasuna erabili dudana argitalpenari ematen diot bibliografi erreferentzietan. Argitalpen hau aurrenekoa denean ez dago arazorik, baina argitalpen berriagoren bat erabiltzen ari banaiz, orduan amaierako bibliografian lehenengo argitalpenaren urtea, ezaguna bada, erantsi dut parentesi artean. Lehendabiziko argitalpenaren data esanguratsua denean, orduan testu barruan ere adierazi da.

Esan, azkenik, lanak idazkera ulerterraza duela oro har eta gaian interesa duen edonork, arreta apur bat jarritz gero, irakurri ahal izango duela arazorik gabe. Liburuak barne batasun handia du, kapitulu guztiek berezko tokia dute argumentazio orokorrean eta helburu berbera dute: Nafarroako euskararen bilakaera ulertzen laguntzea, argia toki desberdinetatik eginez. Gomendagarriena, beraz, liburua osorik segitzea da, baina, aldi berean, irakurketa maila desberdinak onartzen ditu eta, irakurleak horrela nahiago baldin badu, kapituluka edo atalka ere har daiten bere ulergarritasuna gehiegi kaltetu gabe.

## 1.1 Soziolinguistika eta hizkuntz komunitatea: oinarrizko bi kontzeptu

Lana soziolinguistikaren barruti zientifikoa kokatzen da, alde batek, eta bestaldetik, euskararen historiaren oinarrizko unitatetzat euskal hizkuntz komunitatea hartzen da. Biak, soziolinguistika eta hizkuntz komunitatea, tradizionalki oso kontzeptu eztabaidatuak izan direnez, komeni da ezer baino lehen zein esanahitan erabiltzen ditudan zehaztea.

### *Soziolinguistika*

*Soziolinguistika* hitza bere adierarik zabalenean erabiltzen dut, hau da, hizkuntzaren eta gizartearen<sup>2</sup> arteko harremanak aztertzen dituen hizkuntzalaritzaren adar edo azpidisziplina gisa.

Beraz, nire lana euskararen historia soziolinguistikoa dela diodanean, bi gauza esan nahi ditut: (a) soziolinguistikaren kezka eta arauen barru-

---

1. Aipuen jatorrizko ortografia hitzez hitz errespetatzen saiatu naiz, baita egungo ortografi arauekin bat ez datozen ere, baina, dena den, baliteke nik neuk ere hutsak egin izana.

2. Gero eta ahots gehiago entzuten ari dira *gizarte* hitzaren ordez *gizonezkoak* eta *emakumezkoak* besarkatzen dituen besteren bat —sozietate, jendarte...— erabiltzearen alde. Lanean, hala ere, arazoaren garrantzia ukatu gabe, normalean *gizarte* erabili dut, egungo ohituraren arabera.

tian kokatzen dela, ez bakarrik hizkuntz bilakaeraren gizarte-testuingurua hartzen dela kontuan<sup>3</sup>, eta (b) hizkuntzalaritzaren esparru orokorreko lana dela, ez, adibidez, soziologiakoa, bere ezaugarri nagusietako bat disziplinantekotasuna izan arren.

Goikoa da, hain zuzen ere, soziolinguistikaren definizioa Suzanne Romaineren hitzetan:

Sociolinguistics is the subdiscipline of linguistics which deals with the relationships between language and society.

(Romaine 1994: 4.005)

Zentzu berean mintzatu da Peter Trudgill ere:

A term used to describe all areas of the study of the relationship between language and society other than those (...) which are purely social scientific in their objectives. Sociolinguistic research is thus work which is intended to achieve a better understanding of the nature of human language by studying language in its social context and/or to achieve a better understanding of the nature of the relationship and interaction between language and society.

(Trudgill 1992: 68)

Bi definizioek ideia bera azpimarratzen dute: soziolinguistikaren berezko ikergaia hizkuntza da —edo giza lengoia, oro har— eta bere tokia hizkuntzalaritzan aurkitzen du, ez bestelako gizarte-zientzietan<sup>4</sup>, nahiz eta harreman estuak izan hauekin. Alegia, linguistikaren arduretako bat hizkuntzaren gizarte-egoera da, edo beharko luke izan, hizkuntza, Joxe Azurmendik (1987: 122) esan bezala, “bere egiazko bizileku naturalean, hitzunen ahotan aurkitzen da”-eta.

Baieztape hauek *Ferdinand de Saussure*ren<sup>5</sup> berarengan ere aurki lezakete babesa: “es menester una *masa hablante* para que haya una lengua. Contrariamente a las apariencias, en ningún momento existen éstas

---

3. Bereizketa garbi adierazi zuen, esate baterako, Gonzalez Ollek (1978: 229): “Me refiero a estudios cuya orientación básica se declara de modo explícito y específico como *sociolingüística*; no a cualesquiera otros, ya que precisamente uno de los rasgos metodológicos característicos de la escuela lingüística española ha consistido en su atención habitual a las circunstancias extralingüísticas”.

4. Soziologiatik ere iritzi bera adierazi da: “no estoy sosteniendo que la lingüística deba ser satélite de la sociología y, desde luego, tampoco la sociolingüística. Una y otra han de ocuparse, como es obvio, del lenguaje, que es un objeto con identidad propia que requiere un tratamiento científico diferenciado” (Beltran 1991: 150).

5. Asko dira soziolinguistikaren ikuspegitik Saussurek erakutsitako bideari buruz jardun duten ikertzaileak. Hona hemen izen batzuk, zerrenda batere agortu gabe: Sanchez Carrion (1981 eta 1985), Labov (1983), Calvet (1987 eta 1993a), Fishman (1988b), Rotaetxe (1988), Zuazo (1988), Fairclough (1989), Giglioli (1990), Beltran (1991) eta Villena (1992).

al margen del hecho social, porque la lengua es un fenómeno semiológico. *Su naturaleza social es uno de sus caracteres internos*” (bigarren etzana nirea da) (Saussure 1980: 116). Hizkuntzalaritza hizkuntza aztertzen duen zientzia dela garbi utzi eta gero, hizkuntzalaritzaren sailkapena egiteari ekin zion: “División interior de las cosas de la lingüística” (ibid.: 48, 25. oin-oharra). Hemen, linguistikaren barruko sailkapenean sistemaren eta kanpoko faktoreen arteko bereizkuntza ezaguna —eta eztabaidagarria— egin zuen: “lingüística externa = todo lo que concierne a la lengua sin entrar en su sistema” (ibid.: 48, 25. oin-oharra), nahiz eta ondoren ñabardura bat gehitu beharra sumatu: “¿Se puede hablar de lingüística externa? Si se tiene algún escrúpulo, se puede decir: estudio interno y externo de la lingüística” (ibid.: 48, 25. oin-oharra). Transmittitu zaigun hizkuntzaren barne eta kanpo elementuen arteko etena Saussurek egin zuen bereizketa baino bortitzagoa gertatu dela esan daiteke, eta neurri batean ez zaio berari zor, *Cours*-aren argitaratzaileei (ibid.: 48, 25. oin-oharra) eta ondorengo jarraitzaileei baizik. Kanpo hizkuntzalaritzaren esparruko gaiak hala ere garrantzi handikoak iruditzen zitzaizkion Saussureri —“esta lingüística se ocupa, sin embargo, de cosas importantes” (ibid.: 48)— eta bertan, hizkuntzaren gizarte-alderdiak ezezik, fonetika (ibid.: 62) eta dialektologia (ibid.: 49) disziplinak ere kokatu zituen, egun hizkuntzalaritza barruko estatusa eztabaidatzen ez zaien arren.

Hasierako harira itzuliz, soziolinguistikak honako gai hauek ukitzen ditu: eleaniztasuna, hizkuntzen iraupena eta ordezkapena, hizkuntzarekiko jarrerak, hizkuntz hautaketa, hizkuntz plangintza, hizkuntz aldaketa, dialekto sozialak, eta abar. Era horretan, soziolinguistikaren esparruan ondoko disziplina hauek sailkatu ditu Trudgillek (1992: 68): hizkuntz antropologia, dialektologia, diskurtsoaren azterketa, hizketaren etnografia, geolinguistika, hizkuntz ukipenaren azterketak, William Laboven linguistika sekularra (“secular linguistics”), hizkuntzaren psikologia soziala eta hizkuntzaren soziologia. Zentzu berean mintzatu da Dell Hymes (1996: 184) soziolinguistikaren arlo orokorra aurkeztu eta disziplinarteko lanaren ideia nabarmentzean, betiere hizkuntzalaritzatik abiatuta: “A general sociolinguistics, uniting the various phenomena of language in social life (...), integrating the skills of linguistics, ethnography, sociology, and social history (...) might provide the framework and coherence that would gather the diverse threads and opportunities of the present time into a significant force”. Asmo bera aurkitzen dugu, azkenik, 1997ko otsailean atera den *Journal of Sociolinguistics* aldizkari berriaren aurkezpenean.

Batzuetan, soziolinguistika *makro-* eta *mikro-soziolinguistikan* banatzen da, irizpidea aztertzen ari diren talde edo egoeren neurria izanik, baina, nolana ere, makro eta mikro ikuspegiaren arteko bereizketa ez da batere garbia eta biak nahasi egiten dira maiz. Adibidez, bi lagunen arte-

ko elkarrizketa bat mikrosoziolinguistikari dagokiola esan daiteke, baina bata euskalduna eta bestea erdalduna baldin badira, baliteke haien elkarrizketan bi hizkuntz komunitateen arteko harreman orokorrak islatuta agertzea, eta, orduan, makroarekin topo egingo genuke. Halaber, makrosoziolinguistikari *hizkuntzaren soziologia* deitu ohi zaio —“*sociology of language* A branch of *sociolinguistics* which deals on a large or *macrosociolinguistic* scale” (Trudgill 1992: 69; orobat, Labov 1983: 235, Romaine 1996)—, baina, Louis Jean Calvet-ek esan duenez, ez makro/mikro ez soziolinguistika/hizkuntzaren soziologia bereizketek ez dute munta teorikorik: “*les distinctions entre sociolinguistique et sociologie du langage, entre approche micro et approche macro, n’ont aucune pertinence théorique*” (Calvet 1993a: 109)<sup>6</sup>.

Kontrajarpenaren iturrietako bat Joshua Fishmanen idazlanetan jarri ohi da, honek hizkuntzaren soziologia terminoa erabili baitu nagusiki. Baina Fishmanek berak ere hasieratik sinonimo gisa baliatu izan ditu maiz soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologia —sinonimiaren leku-kotasun goiztiar bi aipatzearen, ikus 1969ko “The Sociology of Language” (Fishman 1990)—, eta azken aldiko lanetan (1989, 1991, 1996, kasu) jadanik, autore gehienekin batera, soziolinguistikaz mintzatu da, nahiz eta noizean behin bi terminoak erabili.

---

6. Badaude, hala ere, soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologia kontrajarri nahi dituztenak ere. Kontrajarpenaren adierazle garbia Humberto Lopez Morales (1993: 25-30) dugu. Haren ustez, soziolinguistika hizkuntzalaritzaren alorrekoa da eta hizkuntza, hizkuntzaren alde soziala, du objektutzat, hizkuntzaren soziologia, berriz, soziologiaren alorrekoa den eta gaitzat gizartea, gizartearen alde linguistikoa, duen bitartean. Euskal Herrian Maria Jose Azurmendik (1987: 218), adibidez, ontzat eman zuen soziolinguistikaren eta hizkuntzaren soziologiaren arteko bereizketa, nahiz eta lehenago (1982: 387) soziolinguistika hitza hobetsia zuen.

Beste aldean hizkuntzalaritza eta soziolinguistika berdintzen dituztenak ditugu: William Labov, Jose Maria Sanchez Carrion eta Louis Jean Calvet, batez ere. Laboven ustez egin daitekeen linguistika bakarra hizkuntzaren alde soziala aintzat hartzen duena da eta, ondorioz, ikuspegi horri soziolinguistika baino gehiago huts-hutsean hizkuntzalaritza deitu beharko litzaiokeela dio: “Si no fuese necesario contrastar este trabajo con el estudio del lenguaje fuera del contexto social, preferiría decir que se trata simplemente de *lingüística*” (Labov 1983: 236).

Antzeko iritzia adierazi zuen SANCHEZ CARRIONEK, ez dagoela hizkuntza hitzuenengandik bereizita aztertzerik argudiatuz: hizkuntza ez da hiztunik gabe existitzen, ez eta gizakiak hizkuntzarik gabe ere. Horregatik, “sólo la ciencia que toma esta perspectiva del lenguaje merecería llamarse «lingüística» o, mejor, «ciencia del lenguaje»” (1985: 332).

Hari beretik tiratu zuen Calvetek ere. Bere ustez egiazko hizkuntzalaritza soziolinguistika da eta ohiko linguistikak haren adar bat baizik ez luke izan beharko: hizkuntzen barne funtzionamendua aztertzen duen atala: “la linguistique 1 [ohiko linguistika] n’aurait alors plus aucune raison d’être, sauf à la considérer comme la partie de la sociolinguistique qui décrirait le fonctionnement interne des langues” (Calvet 1993a: 124).



*Hizkuntz komunitatea*

*Hizkuntz komunitatea* terminoa ere bere oinarriko esanahian erabiltzeko da: hizkuntza<sup>7</sup> berean hitz egiten duten lagunen multzoa<sup>8</sup>. Nafarroako bilakaeran, honenbestez, bi hizkuntz komunitate aurkitzen ditugu: euskal eta erdal hizkuntz komunitateak.

Hizkuntz komunitatearen kontzeptuak ere eztabaida franko sortu ditu eta ñabardura ugari erantsi zaizkio<sup>9</sup> denboran zehar, baina oraindik azalpenik iradokitzaileenak Max Weber-ek 1922. urtean, soziologiaren alorrean, eta Leonard Bloomfield-ek 1933.ean, hizkuntzalaritzarenean, eman zituztenek segitzen dute izaten.

*Max Weber*-entzat bi ezaugarri ditu hizkuntz komunitateak: giza talde batek hizkuntza bera edukitzea eta, aldi berean, talde horrek komunitate bat osatzaren sentimendua izatea:

Tan sólo la aparición de contrastes conscientes con respecto a terceros puede crear para los partícipes en un mismo idioma una situación homogénea, un sentimiento de comunidad y formas de socialización —sociedad— el fundamento consciente de la existencia de los cuales es la *comunidad lingüística*.

(etzana nirea da) (Weber 1993: 34)

Komunitatea, bestalde, gizarte-harreman mota jakin bat da eta esanahi tekniko zehatza du Max Weberren pentsaeran: “Llamamos *comunidad* a una relación social cuando y en la medida en que la actitud en la acción social (...) se inspira en el *sentimiento* subjetivo (afectivo o tradicional) de los partícipes de *constituir un todo*” (ibid.: 33).

Beherago, hizkuntz komunitatea eta botere politikoa ez doazela beti lotuta aipatuz, hizkuntz komunitateen adibide batzuk eman zituen: txikiak, hungariarra, txekiarra edo greziarra bezalakoak, nahiz handiak, batasunaren aurreko alemana bezalakoak:

Este (...) orgullo por el «poder» político abstracto que posee o al que aspira la comunidad, puede estar más extendido en una «pequeña» (cuantitativamente) comunidad, como la comunidad lingüística de los húngaros, checos y griegos que en otra cualitativamente igual, pero mucho más gran-

7. Hizkuntza hitzaren konnotazioak (hizkuntza/dialektoa, esate baterako) saihestu eta mintzaira mota guztiak besarka ditzakeen termino neutro batez baliatzearen *barietate* hitza erabili ohi da (Fishman 1988b: 47; Trudgill 1992: 77). Lan honetan, ñabardura beharrezkoa den tokietan izan ezik, hizkuntzaz mintzatuko da normalean.

8. Lagunen multzoa diot, gizartearen izaerari buruzko eztabaidetan —gizartearen pertsonen batuketa ala pertsonen arteko elkarrekintzaren emaitza ote den— sartu gabe.

9. Literatura soziolinguistikoari buruzko ataleko (2.3) bibliografiaz gain, ikus Hudson (1981: 35-40).

de, por ejemplo, en los alemanes de hace siglo y medio, que entonces constituían también una comunidad de lengua (...)

(ibid.: 327)

Hizkuntz komunitatea, beraz, bere izaera berezia duen *gizarte-egitura* edo harremana da Max Weberrentzat, halako sentimendu edo *balore* jakin batzuetan oinarritzen da, bere *ekintza soziala* garatzen du eta bere sozializazio edo *ugalketa* mekanismoak ditu. Bestalde, hizkuntzatik abiatuturiko desberdintasunaren kontzientzia inon argi egon baldin bada Euskal Herrian<sup>10</sup> izan da: euskaldunak/erdaldunak. Ondorioz, hizkuntz komunitatearen kontzeptua, Max Weberren adiera soziologikoan, guztiz egokia suertatzen da, oro har, euskararen egoera soziala aztertzeko.

Hizkuntzalaritzaren alorrean, aurreneko definizio<sup>11</sup> gisa *Leonard Bloomfieldek* 1933. urtean eman zuena aipatzen da:

A group of people who use the same system of speech-signals is a *speech-community*.

(Bloomfield 1973: 29)

Hizkuntz komunitatea hizkuntz zeinu-sistema bera —hizkuntza bera, azken finean— erabiltzen duen giza-taldea da, alegia. Max Weberrekin bat datorren definizio honi hainbat ohar eta zehaztapen interesgarri gehitu zizkion Bloomfieldek hurrengo orrialdeetan. Gure ikuspuntutik adierazgarrienetako bat hizkuntz komunitateari berezko *izaera soziala* aitortu izana da. Gizaki egiten gaituena lengoia izanik, *gizarte-elkarte* motarik garrantzitsuena hizkuntz komunitatea dugu:

A speech-community is a group of people who interact by means of speech (§ 2.5)<sup>12</sup>. All the so-called higher activities of man —our specifically

---

10. Baina ez soilik Euskal Herrian. Hizkuntzan oinarritutako autoidentifikazio bereizgarria gizadiaren joera zaharra da eta ugariak dira bere erakusleak. Ikus, esate baterako, Fishmanek (1989: 327, 19. oin-oharra) emandako adibideak.

11. Aurreneko definizioa diot, baina hizkuntz komunitatearen terminoaren erabilera lehenagotik zetorren eta jadanik Saussure (1980: 272), Sapir (1991: 174) edo Meilleten (*Linguistique historique et linguistique générale*, 1926: 80. Aipatua in Romaine 1988: 1.464) lanetan, esaterako, agertua zen.

12. Bitxia da Bloomfielden hizkuntz komunitatearen definizioarekin gertatu dena. Berarentzat jatorrizko definizioa 29. orrialdean emandakoa zen eta beste hau, 42. orrialdekoa, bestearen parafraasia besterik ez zen, bertara bidaltzen duen ikurrak —“(§ 2.5)”— erakusten duenez. 29. orrialdekoa zehatza eta ulergarria den bitartean, 42. orrialdekoa, ordea, nahasi samarra da eta gaizki-ulertuetara eramán gaitzake. Adibidez, R.A. Hudsonen ustez, Bloomfielden definizioak “deja abierta la posibilidad de que algunos se interrelacionen por medio de una lengua y otros por medio de otra” (Hudson 1981: 36). Baina oker dago. Arazoa da Hudsonen 42. orrialdeko azalpena jaso duela, eta ez jatorrizko definizioa.

human activities— spring from the close adjustment among individuals which we call society, and this adjustment, in turn, is based upon language; *the speech-community, therefore, is the most important kind of social group.*  
(etzana nirea da) (ibid.: 42)

Giza taldeak irizpide desberdinen arabera era daitezke, noski, baina ez dira eskuarki hizkuntz komunitateekin bat etortzen:

Other phases of social cohesion, such as economic, political, or cultural groupings, bear some relation to the grouping by speech-communities, but do not usually coincide with it (...)  
(ibid.: 42)

Bata bestarekin alderatuta, hizkuntz komunitateen neurriak oso desberdinak izan daitezke eta hor ehunka milioi hiztun dituzten hizkuntz komunitate txinatar edo ingelesa, alde batetik, eta ehunen gutxi batzuk besterik ez dituzten herri indiarrek, bestetik, muturreko adibidetzat hartuta, sartzen dira (ibid.: 43), Max Weberrek ere esan zuenez.

Ez da aski hizkuntza bera edukitzea komun. Hizkuntza ezezik, berau erabiltzeko arauak<sup>13</sup> ere partekatu behar dira: “Obviously, the value of language depends upon people’s using it in the same way” (ibid.: 29).

Hizkuntz komunitatearen barnean mintzamolde desberdinak izaten dira, geografikoak eta sozialak batez ere (ibid.: 47 eta 52), eta, haien ondorioz, zail izan daiteke batzuetan, lagunak banan-banan hartuta, zein den hizkuntz komunitateko partaide eta zein ez esaten: “The difficulty or impossibility of determining in each case exactly what people belong to the same speech-community, is not accidental, but arises from the very nature of speech-communities” (ibid.: 45).

Bigarren hizkuntza ikasi duen bat, zehaztu beharko litzatekeen nahikotasun maila erdietsiz gero, hizkuntza horren hizkuntz komunitateko partaidetzat jo zuen Bloomfieldek (ibid.: 45).

Bloomfieldeen oharrekin luzatu baldin banaiz, 1933az geroztik hizkuntz komunitatearen gaiaz jardun duten autore gehienen nabardurak Bloomfieldek berak adierazitakoen inguruan egin direla esango nukeelako da.

Ralph Fasoldek oharpen interesgarri bat egin zuen 1990. urtean: jendeak, dakizkiten hizkuntzen arabera, hizkuntz komunitate bat baino

---

Hudson, bestalde, ez da hizkuntz komunitatearen definizioztat bigarren esaldi hau hartu duen bakarra eta, gainera, gaiaz aritu diren autore frankok, Bloomfieldegana jo gabe, Hudsonen iturritik edan dutenez, gaizki-ulertua eta handik sortutako arazoak nonahi aurkitzen ditugu.

13. Arauak egun era bikoitzean ulertzen dira: Chomskyren *hizkuntz gaitasuna* gehi Dell Hymesen *komunikazio gaitasuna* (“communicative competence”) (Giglioli 1990: 15).

gehiagokoak izan daitezke aldi berean, eta dira, normalki: “People can be, and normally are, members of several speech communities at the same time” (Fasold 1993: 42).

Peter Trudgillek, John Gumperz eta Dell Hymes-en ildotik, *hizkuntz erreperitorio*-aren eta *komunikazio gaitasuna*-ren ideiak bildu zituen:

A community of speakers who share the same verbal repertoire, and who also share the same norms for linguistic behaviour (...)

(Trudgill 1992: 69)

Zehaztasunak zehaztasun, berriro hizkuntz komunitatearen ikuspegi zabalera itzuli da azkenaldian:

The terms «speech community» and «linguistic community» are widely used by linguists and other social scientists to identify communities on the basis of their languages (e.g. Swahili speech community, English speech community, linguistic communities of India). (...) speech community, like another often-used term, «dialect», cannot be defined rigorously. True, all users of a language seem to know what speech community (or communities) they belong to, or not belong to.

(Braj B. Kachru 1994: 4.176)

Definizio guztiek hizkuntzatik abiatzen den komunitate mota baten nabarmentzea dute komun, ikusi dugunez, eta nik neuk ere bide horretatik joko dut, Pierre Bourdieu soziologoak (1985: 19), bestalde, egin duen bezala. Badaude, ordea, azentua komunitatearen esanahi soziologiko zabalean ipini eta irizpide linguistikoari hertsiegizat jo dutenak. Ikus, besteak beste, Benjamin Tejerina soziologoa (1992: 60-5) eta Louis Jean Calvet hizkuntzalaria (1993a: 86-91).

Ondorioz, hizkuntzalaritzaren eta soziologiaren tradizio teorikoetan uztartzen den eta Nafarroako egoerarako egokia den hizkuntz komunitatearen adiera sinple eta zabala erabiliko dut: hizkuntza berean hitz egiten duten lagunen multzoa. Bestalde, Max Weberrek eta Bloomfieldek erakutsi bezala, hizkuntz komunitatea berezko izaera soziala duen entitate dugu. Azkeneko ideia hau, hizkuntz komunitatea berezko gizarte-instituzioa dela dioena<sup>14</sup>, alegia, bereziki emankorra gertatu zait azterketa osoan zehar eta hurrengo atalean gehiago garatuko da.

---

14. Hizkuntz komunitateari gizarte-entitatearen izaera aitortu dioten beste bi Jose Maria Sanchez Carrion, hizkuntz komunitatea bere sistemaren erdigunean jarriz (ikus gure 2.3.1.3 eta 2.3.2.3 atalak), eta Lluís Aracil izan dira. Azken honek dioenez, hizkuntz komunitateak “son poblaciones (en el sentido literal) y sistemas sociales” (Aracil 1986: 448). Halaber, “tienen su propia cohesión global y se mantienen y renuevan gracias a mecanismos de reproducción social” (ibid.: 448).

## 1.2 Lanaren ezaugarri orokorrak

Euskara, eta, oro har, euskal kultura, Nafarroa izeneko gizartearen bi osagaietako bat izanik, bere bilakaera azaltzeak berebiziko garrantzia du Nafarroako historiarentzat. Euskararen historiatik nabarmenena ez da bere atzerakada —oso garrantzitsua bada ere—, bere biziraupena eta mundu modernoko erronkei erantzuteko izan duen ahalmena baizik. Ikergetzat zentzua duen eta arazo horiek ulertzen laguntzen digun osotasun bat hartu dut: Nafarroako euskararen historia barne batasuna duen aldi luze batean (1863-1936). Hautapen honek, aberastasunarekin eta onurekin batera, begi-bistako zailtasunak ere ekartzen ditu berarekin. Herri, lagun, erakunde eta mota askotako gertakari, pentsamolde eta ekimenak, sarritan euren arteko ageriko loturarik gabeak, bildu eta aztertu behar izan ditut eta erronka kaos —“el caos es una distribución bruta de elementos” (Ibañez 1992: 27, 10. oin-oharra)— horretako elementuei zentzua ematen dieten hari nagusiak aurkitu eta aurkezpena hari horien inguruan antolatzea izan da. Gaiaren konplexutasunari sakontasunez eta alderdi anitzeko azterketa eginez erantzun nahi izan diot, bide berriak jorratzen saiatuz eta, aldi berean, jarrera horrek ekar liezazkidakeen arrisku intelektualak onartuz.

Lan zientifiko bati aurreko lanen azterketatik abiatzea, gauzak azaltzeko gaitasuna, sinpletasuna eta konplexutasuna uztartzea, errealitatearekiko egokitasuna eta eztabaida kritikoak jasateko ahalmena eskatzen zaio. Espero dut nireak ere baldintza horiek bete izana.

Euskal taldea beste kulturekiko harremanetan egon da antzinatek Nafarroako eremuan bertan eta bere bilakabidearen ezaugarri iraunkorra gizarteke botere politiko, erlijioso eta kulturaletik bazterturik gelditu —edo utzi— izana da, Iruñeko erresumaren iturburuan baskoia egon arren. Nafarroak historikoki ezagutu dituen kulturak (euskalduna, zeltiberiarra, erromatarra, erromantzea —nafar erromantzatuak, frankoak...—, musulmana, judutarra...), behin musulmanak eta juduak zokoratu eta gero, Aro Berriaren hasieran bitan gelditu ziren: euskal kulturako giza taldea eta orduko jadanik gaztelaniaz mintzatzen zen kultura erromantzekoa. Nafarroako euskararen bilakaera sozialaren azterketa, beraz, bi kultura hauen arteko ukipenaren testuinguruan kokatuko dugu. Baldintza hauetan, *lanaren eginkizunak* soziolinguistika historikorako irizpideak zehaztu, ikuspuntua finkatu, Nafarroako bilakaera garaiko gertakariekin harremanetan jarri, euskararen bizitza —iraupena nahiz atzerakada— azaldu, euskarak eman dituen fruituak ezagutu eta, funtsean, hizkuntz eta kultur aniztasunaren aurrean Nafarroako euskal zein erdal komunitateek erakutsi dituzten jarrera eta portaerak ulertzea dira.

### 1.2.1 Lanaren arazo intelektualak

Zientzien filosofian paradigma edo ikerkuntza-programa, zientzia “normala” eta paradigma aldaketa bezalako kontzeptuak erabiltzen dira,

besteak beste (ikus, adibidez, Popper 1992 edo Kuhn 1995). Paradigmak, gutxi gorabehera, onarpen orokorreko teoriak, arazoak eta irtenbide-ereduak dira. Zientzia “normala” egitea paradigma horietan mugitzea da. Zientzia normalaren ezaugarri bat ikertzaileen gogo bere programako arazoetara mugatu eta bertan agertzen ez diren arazoak ikustezin bihurtzea da, Thomas Kuhnek (ibid.: 53) esan duenez: “a los fenómenos que no encajarían dentro de los límites mencionados frecuentemente ni siquiera se los ve”.

Euskararen eta herri hizkuntzen historiografian ere ikerkuntza-programa edo paradigma moduko bat egon da indarrean hamarkada askotan zehar (ikus 2. kapitulua). Programa hau atzerakadaren ideiarekin inguruan eratu zen eta ikerketa gehienak arazo hori azaltzera bideratu ditu orain arte. Gure artean finkatu zuena Arturo Campion izan zen. Egiazko arazo-ei erantzuten zien programa horrek sortu zenean, eta horregatik ulertzen da izan duen arrakasta. Programa edo paradigma horri euskararen edo herri hizkuntzen “heriotzaren ikerkuntza-programa” deitzen diot.

Nire lanera etorrita, Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa egin gabe zegoen, nahiz eta ekarpen baliotsu ugari izan (ikus 2.1 atala: historiografiaren azterketa), eta hori, berez, erronka bat zen. Baina urrutirago joan nahi nuen. Lanak plazara dakarren arazo intelektual nagusia *ikuspuntua finkatzea* da: ohiko moldeak gainditu eta euskararen historia euskaratik bertatik egitea, bilakabidearen subjektu edo protagonistatzat euskaldunak —euskal hizkuntz komunitatea— hartuz. Horrela esanda begi-bistakoa eman lezakeen ideia hau, hizkuntza baten historiaren subjektua bere hitzunik direla, alegia, ez da euskararen historiografian ia batere erabilia izan eta, ikusiko dugunez, sakontasun handiko ikerbideak irekitzen ditu. Hortik, halaber, herri hizkuntzen bilakabide historiakoaren azterketarako ondorio orokorrak ere atera daitezke.

Historia idazterakoan fokalizazio bat egiten dugu: “¿Historia de qué o de quién? ¿Cuál es el sujeto histórico fundamental?” galdetu du Sanchez Carrionek (1992: 109). Era berean, historiagileak darabilen ikuspegiaren arabera, egiten duen fokalizazioaren arabera, alegia, anitz dira subjektu historiko posibleak (Ferro 1990: 468): estatua, egitura politikoak, ekonomia, gizarte-klaseak, eliteak<sup>15</sup>, mugimendu abertzaleak, talde baztertuak, eta abar. Hizkuntzaren gizarte-historia, Mitxelena 1964. urtean jadanik esan zuenez, “no es otra que la del pueblo al cual ha servido de vehículo principal o único de comunicación, y la del territorio donde ha estado en uso” (Mitxelena 1988c: 23)<sup>16</sup>. Mitxelenari

15. Elitearen kontzeptua bere esanahi soziologiko teknikoan erabiltzen da: “la élite comprende a las personas y a los grupos que, dado el poder que detentan o la influencia que ejercen, contribuyen a la acción histórica de una colectividad, ya sea por las decisiones que toman, ya por las ideas, los sentimientos o las emociones que expresan o simbolizan” (Rocher 1990: 521-2).

16. Era berean: Mitxelena (1985: 179).

jarraikiz, Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa Nafarroako euskaldunena —eta Nafarroako euskal eremuarena— izango litzateke. Historia gizakiek egiten dute, ez da berez eta inork eragin gabe gertatzen den zerbait, eta euskararen historia euskaldunek egin dute, egokitu zaizkien egoerei erantzunez, jakina. Erakutsi nahi dena, horrenbestez, euskal hizkuntz komunitatearen bilakabidea da, berez eta erdal hizkuntz komunitatearekiko harremanetan<sup>17</sup>.

Alderantziz esanda, euskararen historia ez da estatuen, Nafarroako Diputazioaren, Elizaren edota irakaskuntza sistemaren euskararekiko ekintza edo ideien historia, ez nafar gizarteak osotara —erdaldunak eta euskaldunak bereizi gabe— euskararekiko erakutsi dituzten jarrera eta portaeren historia, ez eta elite euskaldunen edo mugimendu euskaltzaleen historia ere, nahiz eta aipatutako guztiak aztertu beharreko gaiak izan, lan honetan egin dudana bezala. Horietan gelditzea, euskararen eta beste hainbat hizkuntzaren historiografian normalean egin den bezala, Ruiz Olabuenagak ohartarazi zigun murriztapenaren akatsean erortzea litzateke: “la reproducción de una etnia no implica necesariamente ni puede quedar subsumida por la reproducción de sus movimientos étnicos. Esta es más amplia en su contenido y más larga en el tiempo” (1989: 133).

Oro har, ez klabe politikoek ez klabe sozial orokorrek ez digute euskararen, hizkuntzaren historiaren gakoa argitzen. Muina erakusten diguna klabe linguistikoa da: hizkuntz komunitateen terminoetan egindako arterketa.

Herri hizkuntzei buruzko lan gehienak hainbat *postulatu implizitotatik* abiatzen dira, adierazten eta eztabaidatzen ez diren arren, onartutzat hartzen direnak, 2. kapituluan ikusiko dugunez. Hona hemen postulatu nagusiak, neure modura laburbilduta:

-Herri hizkuntzen heriotza, edo heriotza-bidea. Herri hizkuntzak ikertzea hizkuntz ordezkapena ikertzearen sinonimo bezala ulertzen da iaia. Adibide bat: 1980-90eko hamarkadetan aipatuenetako bat, merezimendu osoz, bestalde, lan bikaina baita, Susan Gal-ek (1978 eta 1979) Austriako Oberwart herrialdean egindako ikerketa dugu —Oberwartekoa hungarieraz mintzatzen den gutxiengoa da—. Izenburua guztiz adierazgarria da: *Language Shift. Social Determinants of Linguistic Change in Bilingual Austria*. Eta oraindik adierazgarriagoa bertako hizkuntzaren iraupenaz dioena: “These exceptions constitute the maintenance of the older no-switch pattern” (1979: 165), non bertako hizkuntzak bizirik segitzeari “ez-aldaketa”, eredu zaharra eta salbuespena izatea irizten zaion<sup>18</sup> funtsean.

17. Azterketan bi hizkuntz komunitateak bereizi izanak, guztiz logikoa izateaz gain, babesa du, besteak beste, Uriel Weinreich klasikoaren gogoetetan: “El uso característico de las lenguas en las diversas funciones debería ser descrito preferentemente con respecto a cada grupo de lengua materna y no simplemente con respecto a la comunidad (...) en general” (Weinreich 1974: 189).

18. Herri hizkuntzen heriotzarekiko liluraren azkenaldiko adibidea *Bat* aldizkaria-

-Herri hizkuntzak iraganarekin eta baserritar munduarekin lotzea, hizkuntza nagusiak industri gizartearekin eta modernitatearekin lotzen diren bitartean. Hortik dator modernitateak ezinbestean herri hizkuntzen desagertzea dakarrela egi objektiboa balitz bezala sinestea.

-Herri hizkuntzetako hiztunek ez omen dute euren buruaren, euren hizkuntzaren kontzientzia izaten, itsasoko arrainek uraren kontzientzia ez duten era berean, erdeinu doinua darion konparaketa eginez. Hizkuntza horretan mintzatzen badira, beti horrela izan delako da, inertziagatik —inertzia, inerte...—, isolaturik biziz beste aukeren berri jakin ez dutelako, betiko hizkuntzan begetatu egiten direlako.

-Oro har, herri hizkuntzen hiztunak objektu pasibo eta galtzaileak dira, ez dira beren historiaren subjektuak.

Ikuspuntua euskal hizkuntz komunitatean finkatu izanak, berriz, metodologi erronka garbia suposatzeaz gain (1.2.5 atala), diskurtso inplizito hori kolokan jarri edota gezurtatzera garamatza, eta garrantzia handiko hiru ondorio ditu, besteak beste:

-Euskararen bizitza, bere biziraupen historikoa, ikergai bihurtzea, orain arte egin ez dena. Bide honetatik, inertzia edo isolamenduaren gisako sasiatzalpenak baztertu —“dejemos el cliché del «perpetuo aislamiento» (...). Para repetir lugares comunes no vale la pena de estudiar”, eskatu du Caro Barojak (1980: 8)<sup>19</sup> — eta euskal hizkuntz komunitatearen egitura, baloreak, portaera linguistikoen sistema eta ugalketa bezalako gaiak ikertzeari ekiten diogu (ikus 1.2.4-5 atalak).

-“Euskararen heriotzaren” *topos* edo diskurtsoa gainditzea. Diskurtso honekin, errealitatea desitxuratzeaz gain —euskara bizirik dago—, euskarari eta euskaldunei protagonismoa kendu eta, goian esan bezala, objektu pasiboa direlako mezu izkutua ematen da aditzera zeharbidez. Nire asmoa, beraz, euskararen historia atzeritarren zapalkuntzaren, bertakoen utzikeria edo saldukeriaren, euskaltzaleen ahaleginen eta baldintza sozio-politiko “objektiboen” muturren artean kokatzen duen, maiz biktimismo kutsua duen eta azentua atzerakadan ipintzen duen programa gainditu eta molde berrietan abiatzea da.

-Nafarroan bi hizkuntz komunitateren arteko ukipena gertatu dela ulertzea: euskalduna eta erdalduna. Bi komunitateek guztiz portaera

---

ren 19. zenbakiko “Hizkuntz heriotza” izeneko dossierra dugu, Elordui (1996) eta Junyent (1996) artikuluek osatua. Halaber, Dressler (1996).

19. Hauxe da Caro Barojaren pasarte osoa:

*Dejemos el cliché del «perpetuo aislamiento»*, que explica fácil pero engañosamente la conservación de una lengua, que, sin duda, es lo más peculiar del vasco. Porque en la Europa occidental tal aislamiento es y ha sido físicamente imposible y el país vasco está en una de las más complicadas encrucijadas del continente. *Para repetir lugares comunes no vale la pena de estudiar.*

(etzana nirea da) (Caro Baroja 1980: 8)



desberdinak izan dituzte elkarrekiko —zeharo desberdinak izan dira euskaldunen erdaldunekiko jokamoldeak eta erdaldunen euskaldunekikoak— eta ikerketaren zeregina, biak ezagutu eta bereizi ondoren, bakoitzaren sustraiak bilatu eta ulertzea da, bi kulturen arteko konparaketa eginez.

Bi hitzetan esanda, ikergai berri bat proposatzen da: euskararen bizi-tzaren sustrai historikoak, eta horrekin batera, orain arte kasik jorratu ez diren iker-bideak ere iradokitzen dira: euskal hizkuntz komunitatea, bere portaera-arauak, bere egitura, bere baloreak eta bere mundu sinbolikoa. Bestalde, esan beharrik ez dago, euskararen jarraipena aztertzeak atzerakadaren arrazoiak ere ulertzea eramaten gaitu.

### 1.2.2 Epea: 1863-1936

Abiapuntutzat ongi deskribaturiko aldi bat hartu dut: Bonaparte printzearen garaia. 1863. urtea Bonaparteren *Carte des sept provinces basques* mapak daraman argitaratze urtea<sup>20</sup> da eta, funtsean, data honen bidez Bonapartek 1856-1869 bitartean Euskal Herrira egin zituen bost bidaien ondorioz euskarari buruz eskaini zizkigun albiste eta azalpenak adierazi nahi izan ditut.

Amaiera urtea 1936koa da. Espainiako Gerra Zibilak euskal kulturaren bilakaeran eta, noski, Nafarroako euskararen historian, eragin zuen etena ez da azaldu beharrik. Berarekin aro oso bat bukatu zen eta, hitzetan gehiago luzatu gabe, guztiz justifikaturik dago ikerketa urte horretan mugatzea.

Azpi-periodifikazioa eginez gero, bi aldi bereiziko nituzke: 1863-1876 eta 1876-1936. 1876ra arte XIX. mende hasieratik zetozen gizarte-joerak —gizarte tradizionalaren pitzadura, modernotasunaren garapena, Espainiako Estatuaren sendotzea, euskararen atzerakada azkarra Nafarroako Erdialdean eta biziraupena Mendialdean, kontzientzia euskaltzalerik eza...— dira nagusi. 1876tik aurrera, aldiz, joera horiei beste bat erantsi behar zaie: bigarren Gerra Karlistaren ondorioak ikusita, euskararen egoera larriak akuilatuta eta Europako hainbat herri hizkuntzaren aldarrikapenak gogoan edukita, euskara eta euskal nazioa piztu nahian, eta Nafarroako “Asociación Euskara” aitzindari izanik, Hego Euskal Herriko lau probintzietan hazi zen mugimendu euskaltzalea.

---

20. Mapak 1863 badio ere, bere benetako argitalpen data asko eztabaidatu dute ikertzaileek aipaturikoa zalantzan jarritz. Julien Vinsonnek 1869an argitaratu zela esan zuen (1983, I: 321). Georges Lacombe, berriz, 1871ren amaiera edo 1872aren hasiera aipatu zituen (1924: planche 7) eta Pedro Yrizarrek (1981: 105, 26. oin-oharra) nahiz Koldo Zuazok (1988: 92, 23. oin-oharra), adibidez, ontzat jo dute Lacomberen proposamena.

Ezarririkako periodifikazioa testuinguru orokorrago batean kokatu behar da. Kulturen historia egiterakoan bi ikuspegi<sup>21</sup> desberdin erabil daitezke Bertrand Badieren (1992: 344-5) ustez: iraupenaren kontzeptio bakarra duen eta denei ezartzen zaien ikuspegi eurozentriko edo mendebaldarra, bata, eta kulturen aniztasuna aintzat hartu eta bakoitzari bere izaera berezia aitortzen dion ikuspegi, bestea. Horren arabera, Mendebaldez kanpoko kulturak egoera bikoitzean aurkitzen dira egun: “marcadas por la superposición de dos historias y, además, de dos construcciones del tiempo: la suya y la del mundo occidental” (ibid.: 344). Sanchez Carrionek ere arazo berari heldu dio. Kulturen historian bi aro bereizi behar direla dio, bakoitzak bere erritmoari eutsi dion aroa, aro asinkronikoa, eta, Mendebaldeko kultura nagusituz eta gainerakoei bere parametroak ezarriz joan ahala, hedatu den aro sinkronizatzailea (Sanchez Carrion 1992: 131). Adibide garbia Amerikako indioena da: han aldi asinkronikoa zurien etorrera baino lehenagokoa eta sinkronikoa zurien ondokoa izango liriateke.

Gure kasuan, egin nahi dudun paralelismoa ulertzeko, kultura bat euskal kultura litzateke eta bestea, eurozentrismoaren parametroetan oinarritutakoa, erdal kultura. Euskal Herriko aldi asinkronikoa, hau da, besteen gurpilean irentsia izan gabe berezko bilakaera eraman zueneko, oso ezezaguna zaigu, Antzin Arotik harremanetan egon da-eta kultura indoeuroparrekin. Geroztik Mendebaldeko kultura nagusiekiko aldi sinkronikoan bizi izan dela esan daiteke, nahiz eta euskararen historia azalzerakoan esanguratsuak diren gorabehera handiak —Erromatar inperioa hondatu zenekoa, esate baterako— izan. Sinkronia/asinkronia irizpideen arabera, mailaketa bat egin daiteke erdal kulturaren esku hartzeari dagokionez: XIX. mendera arteko gizartea, alde batetik, eta, bestetik, industri gizartea, zeinak beste kulturak asimilatzeke joera areagotu egin baitzuen. Ikerketaren urteak (1863-1936), beraz, Nafarroako euskaldunen gaineko sinkronizazioa edo eragin berdintzailea gehitu zen aldian kokatzen dira.

### 1.2.3 Nafarroako hizkuntz desoreka estrukturala


“Nafarroako hizkuntz eta kultur tradizioa” atalean (3.5) azaltzen denez, Nafarroa gizarte eta egitura politiko konplexua da, bi komunitate biltzen ditu bere baitan, euskalduna eta erdalduna, eta bertan talde erdaldunak bere pisua du antzinatek. Are gehiago, Nafarroako erakundeak eta gizarte-dinamika orokorrak komunitate erdaldunaren ingu-

---

21. Historiagileek darabiltzaten ikuspegiez ikus, esaterako, Marc Ferro (1990) liburu argigarria.

ruan eta bere zerbitzura antolatuak izan dira mendeetan zehar<sup>22</sup>. Ideia edo hipotesi honi “Nafarroako hizkuntz desoreka estrukturala” deitzen diot. Euskararen gutxitzearen sustraiak Nafarroan bertan daude gehienbat, bertako kultura erdaldunaren ezaugarri eta portaeretan, eta Espainiatik etorritako korronteez, alde horretatik, bat egin dute Nafarroan sortutakoekin. Aralargo San Migel santutegiko 1076ko kronikagilearentzat euskaldunak —“rusticis”— eta “gu”—“Nos”, latinez edota erromantzez mintzatzen zirenak— talde desberdinak baldin baziren (Lacarra 1957: 24), euskararen bazterketaren oinarri ideologiko eta sozialak neurri handi batean ezarrita zeudela esan daiteke, Erdi Aroko hizkuntz egoera zehatz-mehatz ezagutzea zaila bada ere.


Erdal taldearen kasuan egokitasun osoa egon da hizkuntz komunitatearen, gizarte-erakundearen eta hauek hedatzen zuten hizkuntzaren artean, baina egokitasuna erabateko *desoreka* bihurtzen da euskal taldearen kasuan: Nafarroako euskal hizkuntz komunitateari ez zaio bere gainean eta bere hizkuntzan eratutako egituraketa politiko edo sozialik egokitu. Irudietan azalduta, hau dugu:



1. irudia. Egoera orekatua: hizkuntz komunitatearen, gizarte-erakundearen eta hizkuntzaren arteko adostasuna

22. Hizkuntz komunitatea eta komunitate politiko bat etorri ez eta egitura politiko berean hizkuntz komunitate bat beste baten mende dagoen egoerei buruz luze mintzatu da hizkuntzalaritzan. Ikus, klasiko bat besterik ez aipatzearren, Bloomfieldek gaiaz egin oharra (1973: 42-3).

1. irudiak egoera orekatua islatzen du. Bertan hizkuntz komunitatea, gizarte-egiturak eta hauek garatzen duten hizkuntza adostasunean daude. Bi muturreko geziek elkarrekintza adierazten dute.



2. irudia. Nafarroako hizkuntz eta gizarte-egituraketa desorekatua

2. irudian Nafarroako egoera erakusten da. Gizartean, piramidearen behealdean, bi hizkuntz komunitateak daude, euskalduna eta erdalduna, baina erdialdean, gizarte-egiturak eta agintzen duten taldeak erakusten dituen partean, eta goialdean, erakundeek lantzen duten hizkuntzarenean, soilik erdaldunak eta gaztelania agertzen dira. Euskal hizkuntz komunitateak, berriz, ez du Nafarroa mailako euskal erakunderik eratzetik izan, ez eta euskara piramidearen goialdean jartzetik ere. Erdaraz osaturiko sarea egiazkoa denez, gezi "beteez" adierazi dut; eta euskaraz osaturiko balizko sarea gauzatu gabeko posibilitate hutsa denez, gezi "hutsez" marraztuta agertzen da. Euskal hizkuntz komunitateak Nafarroako erakundearen eta gaztelaniaren eragina jasaten du, baina berak, ordea, ez du ia haiengan eragiterik, mutur bakarreko geziek erakusten dutenez.

### 1.2.4 Hizkuntz komunitatearen azterketa

Esan bezala, ikerketaren *oinarrizko unitatea hizkuntz komunitatea* da eta berari dagokio euskararen historiaren subjektu edo aktorearen rola. Hizkuntz komunitatea gizarte-errealitate edo unitate bat da —“a social unit”, Fasold (1992: 44) hizkuntzalariaren hitzetan— eta, Max Weberren eskutik, bere izaera duen *gizarte-egitura* dela, kohesioa sentimendu edo *balore* jakin batzuetan aurkitzen duela, bere *ekintza soziala* garatzen duela eta bere *ugalketa* mekanismoak dituela ikusi dugu, azterbide soziologikoko oinarritzko ideiak bildurik. Ideia horiek abiapuntu hartuta, eta soziolinguista nagusien ekarpenak eta soziologia alorreko hainbat kontzeptu uztartuz, hizkuntz komunitatearen azterketarako eredu bat osatu dut. Bertan, hizkuntz komunitatearen bilakaera bere konplexutasunean azaltzean gogoan izango diren mailak jasotzen dira, eta, halaber, hizkuntz komunitatean eragina duten faktoreak ere eredu honen arabera aztertu ahal izango dira.

#### Hizkuntz komunitatearen azterketarako ereduak

1. maila: aparatu sinbolikoa, baloreak...
2. maila: hizkuntz komunitatearen egitura: rol edo talde soziolinguistikoak
3. maila: hizkuntz portaeraren sistema (hizkuntz komunitatearen gizarte-ekintza)
  - hizkuntzaren ezagutza, edo hizkuntz gaitasuna
  - hizkuntzarekiko jarrerak
  - hizkuntzaren hautaketa
  - hizkuntzaren erabilera
  - hizkuntzaren egoera aldatzeko ekintzak (aldeko zein kontrako mugimenduak, azterketa zientifikoak...)
4. maila: komunitatearen ugalketa

#### *Ereduaren azalpena*

*Gizarte-errealitateak* elkarri uztarturik dauden bi atal edo azpisistema ditu: *sistema soziala* eta *kultur sistema*. Sistema soziala praktikan gauzaturiko gizarte edo antolakuntza da: “individuos humanos reales que forman colectividades concretas compuestas por miembros determinados” (Talcott Parsons 1961. In Parsons et al. *Theories of Society*, I, 34. New

York: The Free Press of Glencoe. Aipatua in Rocher 1990, 371)<sup>23</sup>; hau da, goiko gizarte-egitura, gutxi gorabehera.

Gizartearen kultur sistema, aldiz, gizarte horren balore, ezagutza eta ideologiaren multzoa da, hots, gizarteari eta bere ekintzei oinarria ematen dien aparatu sinbolikoa: “El sistema cultural abarca los valores, los conocimientos, las ideologías; es decir, en líneas generales, el conjunto del *aparato simbólico* en que se inspira toda acción social” (Rocher 1990: 371). Biak lotuta daude eta gizarte bat ezin da kultur edo sinbolo aparaturik gabe bizi: “Un sistema social no puede existir sin un sistema cultural que le proporcione los elementos simbólicos esenciales” (ibid.: 371). Aparatu sinbolikoan garrantzi berezia dute *baloreek* — “[valor es] una manera de ser o de obrar que una persona o una colectividad juzgan ideal y que hace deseables o estimables a los seres o a las conductas a los que se atribuye dicho valor” (ibid.: 70)—, eta zeregin hirukoitza betetzen dute: gizartearen arau edo erduei koherentzia ematea; pertsonen batasun psikikoa bermatzea, bere buruaren eta munduaren pertzepzioaren elkarlotuz; eta gizarte-integrazio edo adostasunari oinarria ematea (ibid.: 84-5).

Kultur sistema, aparatu sinbolikoa, gizartearen *gune sinboliko* deiturikoan (ikus Sanchez Carrion, 2.3.2.3 atalean) gauzatzen da, Edward Shilsek azaldu duenez:

La sociedad tiene un centro. Existe una zona central en la estructura de la sociedad. (...). La cualidad de miembro de la sociedad (...) está constituida por la relación con esta zona central. (...) la zona central, como tal, no es un fenómeno localizado espacialmente. (...). El centro o zona central es un fenómeno del reino de los valores y las creencias. Es el centro del orden de símbolos, de valores y creencias, que gobiernan la sociedad. (...). El centro es también un fenómeno del reino de la acción. Es una estructura de actividades, de papeles y de personas, dentro de la red de las instituciones. Es en estos papeles donde los valores y creencias que son centrales están encarnados y presentes.

(Edward A. Shils 1961. Center and Periphery. In *The Logic of Personal Knowledge. Essays Presented to Michael Polanyi*, 117-31. Londres. Aipatua in Tejerina 1992: 38)

Gizartearen egituratzailea eta balore eta sinboloen itxuratzailea den heinean, berebiziko garrantzia du erdigune sinbolikoak. Talde menderatu edo desegituratuen kasuan, aldiz, bere erdigunerik ezean erdigunea

---

23. Bibliografian bakarrik esku artean erabili ditudan lanak ematen ditut. Badira, ordea, bigarren eskutik jasotako aipu edo erreferentziak, Talcott Parsons-en hau adibidez, eta orduan hemen bezala egingo dut: jatorrizko autore eta lana, iturriarekin batera, testuan bertan eskaini, bibliografi zerrendan gehitu gabe.

kanpoan, beste talderen batean bilatzen dutela gertatzen da, Lluís V. Aracilek adierazi duenez: “un grup marginal, subordinat a l’ordre establert, pateix una singular paradoxa topològica: té el centre fora d’ell mateix” (1982. *Papers de sociolingüística*, 149. Bartzelona: La Magrana. Aipatua in Mollà eta Viana 1991, III, 31). Gertakari mota hau *alterzentrismo* izenez ere aipatu ohi da gizarte-psikologian (Morales eta Paez 1996: 16).

Hizkuntz komunitateak, beraz, aipaturiko bi osagaiak dituela esan daiteke: *gizarte-egitura* eta *aparatu sinboliko edo kulturala*, bere gune sinbolikoarekin. Hortaz, gizarte-erakunde guztiek bezala (Rocher 1992: 372-5), izaera egituratua du hizkuntz komunitateak, hots, egitura bat da edo, beste hitzetan esanda, gizarte-sistemaren postulatuak dioenez, sistema baten ezaugarriak ditu (ibid.: 66-7 eta 322). Era berean, bere jarduera edo *gizarte-ekintza* garatzen du, eta jarduera hori ere sistema egituratu bezala azter daiteke (ibid.: 66):

La *acción social* es toda manera de pensar, de sentir y de obrar cuya orientación es *estructurada* de acuerdo con unos modelos que son colectivos, es decir, que son compartidos por los miembros de una colectividad de personas.

(etzana nirea da) (Rocher 1992: 42)

Euskararen kasuan, euskal hizkuntz komunitateak halako gizarte-ekintza —pentsamenduak, sentipenak gehi eginak— garatu zuen bere kideek komun zituzten ereduak jarraikiz: *hizkuntz portaeraren sistema* deitu dudana. Euskal hizkuntz komunitatearen ekintza sozialaren sistema ez da beti, jakina, toki guztietan bera eta bakarra izan eta gure zeregina alde komunekin batera azpiereduen berezitasunak argitzea izango da, gogoan izanik, alabaina, sistema edo ereduaren azalpen-ahalmenak mugak dituela eta gertakari anitz haren koherentzia orokorretik kanpo gelditu daitezkeela.

Hala ere, begi-bistakoa den eta eredu soziologikoen eraikuntzarako oinarritzakoa den goiko baieztapena, hau da, aztertutako errealitateak sistema baten ezaugarriak dituela, gehienetan ahaztuta gelditu da euskararen bilakaera aztertzean, erdal komunitateari izaera egituratua aitortzen zaion bitartean. Ahazte horren adierazpenik gardenena, nire ustez, euskarak inertziaz iraun duela dioen teoria da. Bertan ez dute tokirik ez hiztunek, ez hizkuntz komunitateak, ez eta bien ezaugarriek ere.

Edgar Morinek azaldu duenez, sistema edo egituren *iraupena* —eta hizkuntz komunitatea egitura bat da— antolaketa lan aktiboen emaitza da, ez inertiarena<sup>24</sup>:

24. Halaber, Jesus Ibañezen hitzetan, edozein formaren iraupenak ezaugarri sistema egonkorra dagoela esan nahi du: “la persistencia de cualquier forma implica una codificación, una marca o sistema de marcas estable” (Ibañez 1992: 27, 10. oin-oharra).

La permanencia del ser de los átomos, moléculas, astros *no corresponde a la inercia*, sino a la *organización activa*. (...). Repitémoslo: la permanencia no es una consecuencia de la inercia, la pesadez, la «fuerza de las cosas». Hemos visto que todo sistema está amenazado por desórdenes exteriores e interiores. Es decir, que todo sistema es también una organización contra la anti-organización (...). Así la formidable organización viva comporta gastos, trabajos, refinamientos inauditos abocados únicamente a mantener su *mantenimiento*, es decir, a esta tautológica finalidad de permanencia: sobrevivir.

(etzana nirea da) (Morin 1993: 156-7)

Nire ardura, honenbestez, hizkuntz komunitatearen egituraren zer-nolakoa, bere gizarte-ekintza edo portaera eta bere ugaltze eta desegite bilakabideak azaltzea izan da, arreta berezia jarriz, aldi berean, euskal eta erdal komunitateen aparatu sinboliko edo baloreetan.

Hizkuntz komunitatearen *egitura* Sanchez Carrionen rol edo talde soziolinguistikoen bidez azaldu dut (ikus 6.4.4 atala). Bestalde, hizkuntz komunitatearen *hizkuntz portaera sisteman*, Fishman, Fasold eta Sanchez Carrionen ekarpenak jasota, azpisail hauek bereizi dira: hizkuntzaren ezagutza, hizkuntz jarrerak, hizkuntz hautaketa, hizkuntzaren erabilera eta hizkuntzaren gaineko ekintzak —egoera aldatzera zuzenduriko ekintzak—.

Hizketa ekintzak hautaketan —jakinaren gainean nahiz oharkabean eginak— fruitu direla jakinik<sup>25</sup> (ikus 2.3.2 atala), gakoa egin ziren hautaketan zergatia aurkitzea da, hots, zergatik eta zein irizpidetan oinarriturik aukeratu zituzten Nafarroako euskaldunek hartu zituzten bideak eta ez aukeran zeuden beste batzuk. Era berean, hautaketan sailari garrantzia emateak onura “filosofiko” bat du: gizakiei beren askatasuna edo pertsona-izaera aitortzen zaie, gizarte-baldintzen mekanizismo itsuan erortzeko arriskua saihestuz<sup>26</sup>.

25. Arrazoi osoa du Anjel Lertxundik (1995) hiztun oro irizpideduna eta hautatzailea dela dioenean: “hautatu beharra daukat aukera on eta hobeen, txar eta txarra- goen, on eta kaskarren artean. Hitztun oro irizpideduna da. Hautatzaile. Hizkera esaten duenak, tradizioa esaten du; tradizioa esaten duenak, hautamena”. Hautaketak “esperientzia amankomunaren partaide” izateak baldintzaturik egiten ditugu, baina “esperientzia amankomun hori ez da beti bera eta bat” eta hor norbanakoen hautamena agertzen da.

Hiztunen hizkuntz hautaketa ederki islatu zuen Damaso Intzak Araitz ibarreko esareren iruzkinean: “«Dendariak euskeraz itzegiten du». Alegia, erosleai zeñi bere izkuntzan mintzatzeko; ori komeni zaio saltzallari” (1974: 28). Oro har, hiztunari komeni zaionaren arabera hizkuntza bata edo bestea hautatzea, edozein euskaldunek barneratu duen portaera da.

26. “Nosotros hacemos nuestra historia, pero en primer lugar con premisas y condiciones muy determinadas”, esan zuen Engelsek (1977: 592), historia pertsonen borondateen elkarrekintzaren emaitza dela gaineratuz: “el resultado final proviene



### 1.2.5 Metodologia

Metodologia ikerketaren lehengaiak biltzeko eta hauek aztertzeko bideen multzo bezala ulertuta, *erronka* nagusia euskal hizkuntz komunitatearen iraganeko ezaugarriak ezagutu eta sakonki azaltzeko bide egoiak aurkitu eta baliatzea da, eta honek, ikuspegia finkatzean bezala, metodologi mailan ere *berrikuntza* eskatzen du.

Ikergai historiko gisa arazoak aurkezten dizkigu euskal hizkuntz komunitateak, euskaldunek, oro har, erdaldunen aldean, gutxi idatzi dutelako, hiztunen intuizioek kasu honetan gutxi laguntzen digutelako, eta dauden lekukotasunak eliteek sortuak direlako; eta, jakina, idazki hauek beren egileen kezken lekuko dira lehendabizi, ez zuzenean herri euskaldun xehearen kezka edo pentsamoldeen adierazle. Hortik dator iturri idatziak erabiltzearen arazorik handienetako bat, historialariak, beren mugetan geldituz gero, aztertu nahi duen egoerari bere egiazko orokortasunean heldu beharrean, agiri idatziak utzi dituzten taldeen aldeko desoreka islatu eta ugaldtu baizik ez duelako egiten, historia objektiboa egiten ari delakoan, Alfonso Ortik (1996: 81-2), esate baterako, ohartarazi duenez. Arazoa konpontzeko teknika eta ikuspegi ohi baino zorrotzagoak erabili behar izan ditugu.

Erdal komunitatearen euskararekiko portaerak eta pentsamoldeak argitzeak ere bere berezitasun metodologikoak eskatzen ditu, bi arrazoi-rengatik: batetik, alde handia zegoelako jeneralean erdaldunen euskarari buruzko sakoneko mentalitatearen eta formalki —agiri ofizialetan, prentsan...— adierazten ziren iritzien artean, eta, bestetik, Nafarroako erdaldunen jokamolde orokorrak ulertzeko ez delako aski administrazio-erakundeen edo intelektualen ideologia eta ekintza hutsen azterketan gelditzea.

Arazoa, batez ere euskal hizkuntz komunitateari dagokionez, ez da makala eta antz handia du E.J. Hobsbawm historialariak nazionalismoen azterketan aurkitu zuenarekin: “Esa visión desde abajo, es decir, la nación tal como la ven, no los gobiernos y los portavoces y activistas de

---

siempre de conflictos entre gran número de voluntades individuales, cada una de las cuales está hecha a su vez por un cúmulo de condiciones particulares de existencia. Hay pues innumerables fuerzas que se entrecruzan, una serie infinita de paralelogramos de fuerza que dan origen a una resultante: el hecho histórico” (ibid.: 592-3). Baliteke hiztunak oso baldintza hertsia pairatzea eta, orduan, hautaketaz baino gehiago beharraz hitz egin beharko genuke, hautamenik ezaz (Levi Strauss 1993: 77), alegia. Baina horrelakoetan ere hiztunak, bere borondatez nahiz behartuta, bide jakin bat hartzen du, eta ez beste bat, eta gure zeregina erabaki hori azaltzea da. Dena dela, bat nator funtsean Guy Rocherren honako hitzekin: “El margen permitido a la decisión de los individuos y de los grupos puede ser mayor o menor, según las sociedades y según las situaciones; puede también ser más o menos aparente. Pero existe siempre en toda sociedad” (1990: 63).

movimientos nacionalistas (o no nacionalistas), sino las *personas normales y corrientes* que son objeto de los actos y la propaganda de aquéllos, es *difícilísima de descubrir*” (etzana nirea da) (1991: 19). Hiztun edo herritar xumeen asmo eta portaerak ezagutzearen garrantziaz ohartu diren beste ikertzaile batzuk ere badaude: Gellner (1988) eta Breuilly (1990), kasu. Baina betebeharraren zailtasunak ikusita, sakontasuna galdu eta hari nagusitik desbideratzen ari direla jakinik ere, ageriago eta dokumentatuago dauden beste gai batzuk —mugimendu abertzaleak, hizkuntzaren aldekoak, euskararen aurkako erasoak...— jorratzeari makurtu zaizkio eskuarki. Gure kasuan, ordea, ikerketa ez badugu zeharo desitxuratu nahi, ez dago halako murriztapenik egiterik: Nafarroako euskararen historiaren mamia hiltzeko nahitaez euskaldunen multzo orokorrera jo beharra dugu.

Eredu eginik ezean, neure *hautapenak egin behar izan ditut*, denen artean eskema metodologiko emankorra osatzeko asmoz. Ez dira gutxi egoera berean aurkitu diren ikertzaileak eta ziur nago gehienek, nik neuk ere bai, noski, bat egingo luketela Ferdinand Brunotek *Histoire de la langue française*-n adierazitakoarekin: “Il va sans dire qu’obligé de me créer de toutes pièces une méthode pour cette philologie sociologique, je ne me flatte pas de l’avoir portée à la perfection” (Brunot 1967, VII: 3). Soziolinguistika historikorako laguntza eske auzo-zientzietara jotzen dugularik, haien arazo metodologikoak antzekoak direla ikusten dugu. Soziologia historikoak, esaterako, mende laurden luzeko ibilera du eta eginkizun konparatibo garrantzitsuei ekiten die, baina metodo arazo handiak aurkitzen ditu, Bertrand Badiék (1992: 342) agertu zuenez: “el método sociohistórico parece carecer por ahora de definición”. Metodologi hutsuneez ez dute, hala ere, ikerketa eragotzi behar: “Sin embargo, la magnitud de estas dificultades metodológicas no debería impedir el florecimiento de la perspectiva sociohistórica: su utilización no tiene sustituto en ciencias sociales y no se ha igualado el esclarecimiento comparativo que es capaz de aportar” (ibid.: 349). Gauza bera esango genuke historia soziolinguistikoaz.

Esandako erronkek *berrikuntza metodologikoa* eskatzen dute eta, ildo horretatik, erabili dudan metodologiak *hiru ezaugarri nagusi* ditu:

(1) soziolinguistika sinkronikoaren ekarpenak —kontzeptuak, teknikak...— bilakaera diakronikoaren azterketara egokitzea;

(2) disziplinarreko lana izatea, oso anitza, soziolinguistika eta hizkuntzalaritzaz gain, historia, soziologia edota etnografia zientzietara joaz sarritan;

(3) lan konparatiboa da, Nafarroako euskararen bilakaera beste hizkuntza eta lurralde batzuetakoekin alderatuz.

Helburua —edo argitzeko arazo intelektuala— euskaldunek subjektu bezala euren hizkuntzarekiko izan duten portaera ulertzea dela esan dugu, eta, honi lotuta, erdaldunek euskararekiko izandakoa.

Horretarako hainbat gai jorratu behar izan ditut, zein bere iturri eta metodo bereziekin.

Euskal hizkuntz komunitatearen baloreen, egituraren, portaera linguistikoen sistemaren eta ugalketa bideen azterketaren muina eta goian azaldutako arazoei aurre egiteko giltza Uitziz herri euskalduneko<sup>27</sup> landa-ikerketak ematen digu (6. kapitulua). Ikerketa hau Ralph Fasoldek (2.3.2.2 atala) hizkuntz bilakabideen hurbilketa antropolinguistikoa deitu duenaren parametroetan koka daiteke oro har, eta praktikan teknika soziologiko kualitatibo<sup>28</sup> eta ahozko historiako tekniken erabilerran oinarritu da bereziki: 65 urtez gorako pertsonekin egindako eztabaida taldea eta subjektu pribilegiatuen elkarrizketak. Horiei artxibo lana eta gainerako datu eta argibide bilketa gehitu zaizkie. Bigarren iturri bezala Bonaparte printzearen eta bere laguntzaileen idazki eta eginak (5. kapitulua) izan ditut. Bonaparteri buruzkoa artxibo lana izan da batik bat eta nire zeregina, orain arte ezagutzen ez ziren hainbat laguntzaileen izen berriak aurkitzeaz gain, materialen interpretazio soziolinguistikoa egitea izan da. Bestalde, ahal izan dudan guztietan herri literaturaren lekukotasunetara jo dut. Nafarroako euskal hizkuntz komunitatearen bilakaera egoera bereko beste komunitateenarekin alderatu nahi nuen eta, eskura nituen kasuen artean, Frantziako herri hizkuntzen XVIII. mendeko bilakabideaz Ferdinand Brunotek bildu zituen lehen eskuko argibide aberatsak suertatu dira argigarrienak (3.2 atala). Euskal hizkuntz komunitatearen zati txiki bat “mugimendu euskaltzaleak” ditugu: egoera aldatu nahi zuten lagun eta elkarteak. Haiei 8. kapitulua eskaini diet eta iturri bezala beraien idazkiak eta garaiko prentsa eta aldizkariak erabili dira.

Alderdi kuantitatiboak ere landu ditut. Bi hizkuntz komunitateen bilakaera geografiko eta demografikoa 4. kapituluan aurkeztu da. Iturriak Bonaparte eta Angel Irigarayren 1863 eta 1935eko egoera geo-

---

27. Uitziz, euskarari eutsi dioten Nafarroako gainerako herrien aldean, ez du aparteko berezitasunik eta, horrexegatik hain zuzen ere, mota bereko beste herri batzuei buruzko ikerketek kontraktorik esaten ez duten bitartean, han erdietsitako argibideak besteetara ere heda daitezkeela uste dut. Are gehiago, Uitzizko berezitasunen bat aipatzekotan, ohiko faktore erdalduntzaileek —hezkuntza, komunikabideak, inguru erdaldunarekiko harremanak, hiriarekiko eta industri zibilizazioarekiko ukipena, etab.— herrian izan duten eragin handi eta iraunkorra —beste toki batzuetakoa baino handiagoa— nabarmendu beharko genuke, baina, hala eta guztiz ere, bizi eta sendo iraun du euskarak bertan. Uitziz eta ez beste edozein herri euskaldun bat hautatzeko arrazoia oso pragmatikoa izan zen: bertan ditudan adiskideek ikerketaren alde praktikoak antolatzerakoan eskainiko zidaten laguntza.

28. Metodologia kualitatibo eta kuantitatiboaren arteko bereizketa ohikoa da eta bere azalpena edozein testu-liburutan aurki daiteke. Ni neu Colectivo Ióe (arg.) (1990), Órti (1990) eta Ibañez (1991 eta 1992) lanetan oinarritu naiz.

grafikoen deskribapenak eta garaiko erroldak izan dira, haien gainean neure zenbakiak eginez, Pedro Yrizarrek ezarritako irizpideen arabera.

Erdal hizkuntz komunitatearen euskararekiko portaera eta jarrerak 7. kapitulu jorratu ditut. Erdal komunitatearen errotulopean erdal mundu osoa hartzen da: nafar erdaldun arruntak ezezik, Nafarroako eliteak, Diputazioa, irakaskuntza sistema, Eliza, alderdi politikoak..., eta Espainiako Estatua, intelektualak eta gainerako erakunde edo faktoreak ere kokatu ditut, denek hizkuntza beraren izenean eragiten baitzuten. Gai ugari, beraz, eta beraiei heltzeko hainbat teknika eta iturri erabili dira. Lehentasuna erdaldunen euskararekiko diskurtsoei, batetik, eta irakaskuntza sistemari, bestetik, eman diet. Diskurtsoetan iritzi edo ideologia egituratuak (7.3.3 atala) eta sakoneko mentalitateak (7.3.2 atala) bereiziz, azken hauek ezagutzeko, garaiko testuetatik abiatu eta diskurtsoak aztertu eta deskodetzea izan da bidea. Irakaskuntza sistemari (7.4 atala) hainbat aldetatik heldu diot: herrian herriko gertakariak, erakunde jarrerak, Espainiako eta Nafarroako legediak, nazioarteko argibideak, ikasketa-programak, zigorrak, maisu-maistren izendapenaren auzia eta gurasoen jarrerak, besteak beste, sarritan lehen eskuko iturriak erabiliz. Irakaskuntzari buruzko ohiko iritzi ugari kolokan jarri edota gezurtatuak gertatu dira. Bestalde, azalpen bila harantzago joanez, erdal gizar-tearen euskararekiko portaera eta jarrerek hiru iturburu zuten: iturburu hurbila Frantziako Iraultzaren hizkuntz politikan dugu (3.4 atala), lehenagotik Nafarroako erresumaren hizkuntz tradizioa zetorren (3.5 atala) eta denaren azpian Erromatik eta, funtsean, indoeuroparren eskema ideologikoetatik datorren gizarte-hierarkizazioaren ideia dugu (3.3 atala). Iturriak hauek izan dira: Frantziako Iraultzaren hizkuntz politikarako, Brunoten frantsesaren historia; Nafarroako tradizioarako Mitxelena, Jose Maria Lacarra eta Julio Caro Barojaren lanak; eta indoeuroparren ideologiarako Georges Dumezil-en ikerketak.

### 1.2.6 Teorien ebaluazioa

Herri hizkuntzen bizitza historikoa —beren indarra eta beren ahultasuna— azalduko lukeen teoria beharko genukeen, eta helburu horrekin aztertu da literatura soziolinguistikoa, baina horrelako *teoria osaturik ez dago*, ez eta, neurri handi batean, soziolinguistika mailako teoria orokorrik ere (Fasold 1993: viii; Romaine 1996: 13). Aldi berean, soziolinguistikaren beste ezaugarri nagusietako bat *heterogenotasuna* da, kezka, helburuak, kontzeptuak eta lanabesak franko aldatzen baitira autore batetik bestera; eta oraindik gehiago soziolinguistika historikoa egin nahi izanez gero. Soziolinguistika historikoa oraindik finkatu gabe dagoen disziplina dela esan daiteke.

Hizkuntzen historiarako teoria edo eredu osaturik ezean, literatura soziolinguistikoa gure ikerketarako ekarpenik emankorrenak (teorien

aurkezpen eta azterketarako ikus 2. kapitulua) Jose Maria Sanchez Carrionen —azentua hizkuntz komunitatean eta hizkuntzaren osotasunaren ideian ipintzen duena— eta Joshua Fishmanen —hizkuntzen iraupenaren eta ordezkapenaren ikuspegi bateratua darabilena— teoriak gertatu zaizkit. Biei Ralph Fasolden azalpen teoriko eta metodologiko orokorrak, Fishmanekin bat datozenak, gehitu behar zaizkie. Hirurek, halaber, hizkuntz prozesuen dimentsio komunitario eta kulturala nabarmentzen dute, eta hau ezinbestekoa da Nafarroako bilakaera ulertzeko.

Mugatuagoak gertatzen zaizkigu, berriz, ordezkapenaren ikuspegitik garatutako ereduak —Louis Jean Calvet eta Pierre Bourdieu frantsesena, Lluís V. Aracil eta hainbat katalanena, Euskal Herrian nagusiki erabilitako moldeak..., gehi mundu zabaleko lan gehienen abiapuntu inplizitoak— hizkuntzen historia desorekatu eta alderdi bakar bat aintzat hartzera baikaramatzate, nahiz eta beren esparruan, ordezkatzeko mekanismoen azterketan, oso argigarriak izan.

Auzo-disziplinetan, historia alorrean lagungarriena mentalitateen historiaren korrontea (ikus 3. kapituluaren sarrera) suertatu zait, bere kezka eta metodoek bete-betean erantzuten baitiete euskaldun xehen portaera eta mentalitatearen azterketatik abiatzen den gurea bezalako historiaren beharrei. Soziologia mailako kontzeptuak Guy Rocher —gizarte-unitateen azterketarako tresnak, nekazari gizartearen ideia, hainbat kontzeptu orokor...— eta Pierre Bourdieu —*habitus*-a, pedagogi lana...— autoreengandik hartu ditut gehienbat eta bereziki baliagarri eta sendoak gertatu zaizkit ikerketaren erronkei aurre egiterakoan.

Azkenik, Nafarroa bere konplexutasunean ulertzeko, iradokitzaileenak Julio Caro Baroja, Jose Maria Lacarra eta Koldo Mitxelena izan dira, nor bere esparruan.

## 2. OINARRI TEORIKOAK: EUSKARAREN HISTORIOGRAFIAREN AZTERKETA KRITIKOA ETA SOZIO-LINGUISTIKAREN EKARPENAK

Ikerketaren erronka intelektual eta metodologikoez nahiz neure bidea eratu beharrak eraginda, tarte ohi baino luzeago eta, batez ere, konplexuagoa eskaini diot oinarri teorikoen kapituluari, sarreran azal dutako arrazoiengatik. Oso garrantzitsua zaigu arloko ikerketen egoera ezagutzera bai euskararen historiografian eta baita literatura soziolinguistikoa ere.

Kapitulua lau ataletan banatzen da:

2.1 Euskararen historiografiaren azterketa kritikoa

2.2 Gaztelaniaren eta frantsesaren historiografiak gainerako hizkuntzen aurrean

2.3 Literatura soziolinguistikoa: hizkuntzen historiarako irizpideak

2.4 Ondorioak.

### 2.1 Euskararen historiografiaren azterketa kritikoa

#### 2.1.1 Aurkezpena

Ikerketa bibliografiko honek Nafarroako euskaraz ezezik Euskal Herri osokoaz ere idatzi diren hainbat lan ukituko ditu. Euskararen historiak asko idatzi da, baina, Nafarroari gagozkiolarik, hutsune handiak ere badaude.

Hutsunerik handiena, eta esanguratsuen, oharkabean gelditu ohi da: Nafarroari buruzko historiografia orokorrak euskararekiko erakutsi duen ardurarik eza. Hau da azpimarratu beharreko lehen ideia. Nafarroako historiografiak ez du normalean euskararen gaia ukitu, edo, gehienez ere, aipatu duenean euskararen ikertzaile berezituak ekarpenak laburtzera mugatu da. Lanak erdal mundutik eginak daude batik bat, euskararen atzerakada azpimarratzen dute eta, objektibotasunaren itxurapean, oso ulertor agertu ohi dira gaztelaniaren hedapenaren aurrean, bai gaztelaniaren beraren bikaintasunagatik —“el vehículo de comunicación de mayor prestigio en Europa occidental y lengua del «Imperio español»” (Floristan 1994: 109)— eta baita euskaldunen “nahiatatik” —“los deseos de las propias familias cuando se esforzaban en erradicar

una lengua que no les abría las puertas de la burocracia, que era para lo que podía servirles el castellano” (Andres Gallego 1982: 62)— ere.

Beste alde batetik euskararen historiari eskainitako lanak ditugu. Hauen kasuan, euskararen bilakaeraren gizarte-alderdiei buruzko kezka lan gehienetan agertzen da eta horien artean, bestalde, zuzenean euskararen historia soziala aztertu dutenen saila ez da batere txikia.

Multzo hautatu baten azterketa egin dut. Nafarroako euskararen historiaren berri, zuzenean nahiz zeharka, ematen duten egileak ondoko zerrendan jasotakoak baino gehiago dira, dena den, eta horietako asko lanean zehar agertuz joango dira. Azterketa historiografikoaren helburua, autore bakoitzak eskaintzen dituen argibide edo materialak aipatzea baino gehiago, erabili diren galdera, ikuspegi eta ideia nagusiak ezagutu, beren balorazioa egin eta aurrerantzean jorratzea komeni diren bideak zehaztea da.

Horrela, orain artekoen lanen ebaluazioa abiapuntutzat hartuta, errazago izango da nire burua euskararen gizarte-historiaren korrante orokorrean kokatu, nire kezkek azaldu eta jorratu nahi ditudan alorren esanahia argitzea.

Autore bakoitzak ikertzeko hartu duen gai nagusien arabera sailkatuta, hona hemen atal honetan aztertu diren lanak:

*Euskararen historia orokorrak*: Nafarroako euskararen historiak lehenengo liburua izateaz gain, bere interesa gorde du Jose Anjel Irigarairen *Euskera eta Nafarroa-k* (1973). Euskal Herriko historia orokorraren barnean kokatuta, euskararen historiaren sintesi bat Jose Miguel Azaolak egin zuen: *Vasconia y su destino II. Los vascos ayer y hoy I* (1976). 1977. urtean bi lan argitaratu ziren, Joan Mari Torrealdaireren *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas* (1977) eta Euskaltzaindiak sustaturiko *El libro blanco del euskara* (1977). Lan hau, bere sakontasunagatik eta ukitzen dituen gaien ugaritasunagatik, ezinbesteko erreferentzia da euskararen historia ikertu nahi duen edonorentzat. Joseba Intxaustik bi lan argitaratu zituen 1990. urtean: *Euskara, euskaldunon hizkuntza* (1990a) eta “Nafarroako euskararen historiak” (1990b). Euskararen historia orokorra da, halaber, Benjamin Tejerinaren “Los procesos histórico y social del euskara”, *Nacionalismo y lengua* liburuko bigarren kapitulua (1992: 73-137). Garrantzia handikoa da bilakaeraren ikuspegi orokorra eskaintzen duen Jose Maria Larrearen *Euskaldungoa erroizturik* (1994) lana. Euskararen historia orokorraren aurkezpen egoki eta orekatua Koldo Zuazoren “The Basque Country and the Basque Language: An overview of the external history of the Basque language” (1995) artikuluak eskaintzen du. Izaera orokorra du, orobat, eta urte askotako lana biltzen du Jose Maria Jimeno Jurioren *Navarra. Historia del euskera* (1997) liburua. Azkenik, Blanca Urmenetaren tesia dugu: *Navarra ante el vascuence. Actitudes y actuación*

*nes (1876-1919)* (1997). Arabako euskararen historiarako, ikus Zuazo (1997).

Oro har, aipamen berezia merezi du Auñamendi argitaletxearen *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* bildumak, non hainbat eta hainbat argibide eta azterketa eskaintzen zaigun.

Ondoren, alde bat edo beste nabarmenduz hurbilketa partzialak eskaini dituztenen berri emango da.

*Hizkuntz geografía*: euskararen geografía historikoaren bideak jorratze lanean Arturo Campion (1884) dugu aitzindari. Honek zehaztasun historikoa bilatzen zuen eta, zehaztasunarekin batera, euskararen hedapena egungoa baino askoz zabalagoa izan dela demostratzea, lekukotasun historiko eta toponimikoetatik abiatuta. Ondoren etorriko zirenek, gaur egun arte, Campionen helburuei eutsi zieten neurri handi batean. Julio Caro Barojaren “Límites de la lengua vasca: sus dialectos y variantes” (1990: 7-32) lana 1945ekoa da. Hainbat autoreren artikulua, Campionenak eta Angel Irigarayrenak tarteko, *Geografía histórica de la lengua vasca (Siglos XVI al XIX)* (Askoren Artean 1966) liburuan bildu ziren. Angel Irigarayren ia berrogeita hamar urteko lanen fruitu heldua *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra* (1974) dugu. Pedro Yrizarren ikerketa geografiko-demografiko-historikoak *Contribución a la dialectología de la lengua vasca I* (1981) liburuan ditugu. Arazoaren sintesia *Euskararen galera Nafarroan (1587-1984)* (E. Elgoibar et al. 1987) da. Ikus, halaber, Txillardegi (1996).

*Aroz aroko ikerketak*: Erdi Aroko Nafarroako euskararen egoera Jose Maria Lacarraren *Vasconia medieval. Historia y Filología* (1957) gaur egun oraindik gairitu gabe dagoen lan klasikoak aztertu zuen. Euskararen egoera XVIII. mendean Andoni Sagarna (1984) lanean aztertzen da. Bonaparte printzearen garaiko egoera Koldo Zuazoren “Euskararen egoera Bonaparte-ren garaian” (1991) eta Xabier Erizeren “Euskararen egoera soziolinguistikoa Nafarroa Garaian, Bonaparte printzearen lanetan” (1992) lanek erakusten dute. XIX. mendearen hasierako egoeraz, ikus Beñat Oyharçabal (1992a eta b). Nafarroako XIX. mendearen bigarren aldiko mugimendu euskaltzaleak Erizek (1996) aztertu ditu.

*Euskararen eta hizkuntza erromantzeen arteko ukipena*: lan klasiko eta Nafarroako bilakaera bereziki aztertzeraz zuzendua Fernando Gonzalez Olleren *Vascuence y Romance en la Historia lingüística de Navarra* (1972) dugu. Sintesi orokorra Maria Teresa Echeniquek egin zuen, *Historia lingüística vasco-románica* (1987) lanean. Hizkuntz aniztasuna Ricardo Cierbidek azpimarratu zuen bere “Plurilingüismo histórico en Euskal Herria” artikuluan (1990). Euskararen eta latinaren arteko harremanak bere orokortasunean Caro Barojak *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* (1990) liburuan aztertu ditu.



*Euskararen estandarizazioa:* euskararen estandarizazioaren historia osoa Koldo Zuazoren *Euskararen batasuna* (1988b) ikerlanak eskaintzen du. Bertan toki handia egiten zaie bilakaeraren alde orokorreire.

*Eskualde jakin batzuetako hizkuntz egoera edo bilakaerak:* Jose Maria Satrustegik Lizarrerriko euskararen bilakaera historikoa aztertu du (1991). Jose Maria Jimeno Juriok hainbat tokitako egoerak aztertu ditu: Urraulgoiti 1785. urtean (1991), Galipentzu eta Oibar ibarra 1571. urtean (1992a), Agoitz XVII-XIX. mendeetan (1992b eta 1992c), Iruñea XVII. mendean (1993a), Zaraitzu ibarraren eta Nabaskozeko almiradioaren arteko mugaren egoera 1605. urtean (1993c), Allin ibarreko atzerakada (1994b), Iruñerriko egoera 1790.ean (1994c), Iruñeko hizkuntz bilakaera orokorra (1995a eta b) eta Eguesibarreko XIX. mendeko atzerakadaren azterketa (1996). Lehen mailako iturriak erabili dituzenez, denetan oso argibide baliotsuak eman ditu.

*Nafarroako euskal idazleak edota euskal testuak:* Angel Irigarayk Enrike Zubiri "Manezaundi" eta P. Fermin Irigaray "Larreko" idazleen lanen hautaketa bat *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca* liburuan (1958) erakutsi zigun. Beranduago autore beraren *Noticias y viejos textos de la "Lingua Navarrorum"* (1971) etorri zen eta, azkenik, *Escritores navarros en "Euskara"* (1980). Jose Maria Satrustegik *Bordel bertsularia* (1965) eta *Euskal testu zaharrak I* (1987), besteak beste, argitaratu ditu. Jose Maria Larrea eta Pedro Diez de Ultzurrunek *Nafarroako euskal idazleak I* (1987) argitaratu zuten eta Jose Maria Larrearena da *Nafarroako euskal idazleak II* (1995). Halaber, Rosa Miren Pagolak presaturiko Enrike Zubiri "Manezaundi"-ren *Artikulu bilduma* (Zubiri 1990) eta Iñaki Caminok argitatutako P. Fermin Irigaray "Larreko"-ren *Lekukotasuna* (P.F. Irigaray 1992a) eta *Nafarroatik* (P.F. Irigaray 1992b) bildumak ditugu, azken biak Larrekoren garaia (1869-1949) ongi erakusten duen Iñaki Caminoren sarrerez (1992) hornituta. Larrekori buruz, ikus, orobat, Antoñana (1991 eta 1994).

*Hizkuntz ideiak eta euskararen historia:* sail honetan ospe handia lortu duten bi liburu ditugu, Antonio Tovar-en *Mitología e ideología sobre la lengua vasca* (1980) eta Joxe Azurmendiren *Españolak eta euskaldunak* (1992b).

*Euskal eta nafar literaturaren historiak:* euskal literaturaren historia orokorrez gain, Fernando Gonzalez Olleren *Introducción a la historia literaria de Navarra* (1989) dugu.

*Euskararen historiaren ikuspegi etnografiko-antropologikoa:* sail honetan, berez euskararen historia egitera zuzenduak ez egon arren, Julio Caro Barojaren lan sakon, zoragarri eta iradokizunez beterikoak aipatu beharra daude. Horien artean, *Etnografía histórica de Navarra* (1971-1972), *Los Pueblos de España II* (1976) eta *Los Vascos* (1978) aztertu ditut bereziki. Ikus, halaber, Jose Anjel Irigarairen "Aspectos de antropología socio-cul-

tural en la evolución diacrónica del euskara” (1977) artikulua eta Jose Maria Satrustegiren *Antropología y Lengua* (1989) liburua.

*Diagnostiko historikoa*, hau da, egoera jakin baten azalpena eta hartara eramán duten arrazoen aurkezpena: alor honetan ere gaurkotasuna gordetzen duen aitzindaria Arturo Campion dugu. Ondo umotutako arrazoiak *Gramática*-ren sarreran (1884) eta “El euskara en Sarasaitzu” (1911) artikuluan eman zizkigun. Bilakaeraren egungo arrazoibideak ezarri zituen<sup>29</sup> Jose Maria Sanchez Carrionen *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra* (1970) (1972) ikerlana izan zen. Egile beraren ikuspegi eguneratua “Panorama actual del conflicto” (1993) artikuluan dugu. Arrazoiak aztertzen dituen eta eragina izan duen beste lan bat SIADECOK Euskaltzaindiarako egin zuen *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (Euskaltzaindia 1979) txostena da. Goio Monrealek bilakaeraren alde juridikoak nabarmendu zituen (1990). Bestalde, Iñaki Larrañagak “Nafarroako egoera demolinguistikoa” (1990) artikulua lehen zatian ordura arte emandako arrazoen laburpena eskaini du.

*Koldo Mitxelenaren ikerlanak* dira, nire ustez, euskararen historia soziolinguistikoaren hainbat eta hainbat alderdi hobekien erakutsi edo iradoki dituztenak. Aukera bat haien berri goiko gaien arabera sailkatuta ematea izan zitekeen, eta horrela sail gehienetan bere lanen bat edo beste agertuko zen, baina lan bakoitzak ukitzen dituen gaien ugaritasunagatik eta beren konplexutasunagatik, eta Mitxelenaren ekarriaren koherentzia erakustearren, egokiago iruditu zait guztiak atal batean biltzea. Geroago azalduko zituen ideia anitz 1960ko *Historia de la literatura vasca*-n (1988b) aurkitzen dira jadanik. 1964 eta 1983. urteen artean euskararen historia-rekin zerikusia duten artikulua ugari idatzi zituen eta gehienak *Lengua e Historia* (1985), *Palabras y Textos* (1987a), *Euskal idazlan guztiak* (1988a) eta *Sobre Historia de la Lengua Vasca* (1988c) bildumetan berrargitaratu dira. Erabili ditudan artikulua bibliografian agertzen dira, baina aipua, besterik ez badut adierazten, esandako bildumetatik hartuko dira. Azkenik, laburra bezain interesgarria da 1983. urtean Maria Teresa Echenique (1987)-ri egin zion aurkezpena (Mitxelena 1987b).

## 2.1.2 Euskararen historiografiaren azterketa

### 2.1.2.1 Ohiko ereduak

Esandako ikertzaileek nork bere antolaketa egin eta azentua alde desberdinetan ipini arren, badaude euskararen historia gehienetan agertzen diren arrazoibideak, ondoko eran laburbil daitezkeenak:

29. Ondoko lanak honek “esandakoen baieztapen eta gaurkotzea edo eritzi eta jarretan sakontzea” (Larrañaga 1990: 51) dira gehienbat.

-Testuinguru sozioekonomiko eta politikoaren ezaugarri historiko nagusiak.

-Euskara inoiz ofiziala izan ez den eta jarduera administratibotik baztertuta egon den hizkuntza da.

-Baldintza horien pean, ia beti atzeraka etorri da euskara historian zehar (Erromatar inperioa erori zenean edo Erdi Aroko populazio mugimenduak izan ezik). Honen erakusgarri deigarriak XVIII. mendean Araban eta XIX.ean Nafarroan izandako gibelamendua eta Euskal Herria osoan, baita gunerik trinkoenetan ere, pairatutako higadura dira.

-Atzerakadaren arrazoiak testuinguru historikoan, kanpoko gobernuen eraso eta debekuetan, Euskal Herriko goi-klaseen jarrera eta erabakietan eta euskaldunen axolagabekeria bilatzen dira normalean.

-Euskaltzaleen ahaleginak nabarmentzen dira haren aurrean: euskal literatura, erabilera soziala areagotzeko saioak, euskararen estandarizazioa...

-Euskararen iraupena, hain baldintza txarretan, harrigarritzat hartzen da eta isolamenduarekin edo inertziarekin lotuta erakusten da batzuetan, eta euskaltzaleen ahaleginekin, beste batzuetan.

### *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa egiteke dago*

Ikusi dugunez, euskararen historia sozialaz idatzi dena hurbilketa partzialak edota irakurleko zabalarentzat egindako dibulgazio liburu edo artikulua dira, gehienak aurretik esan diren ideien aipamen edo laburpena. Lehen eskuko ikerketa sakonak gutxi dira eta hauek bilakabide orokorra baino gehiago alde hautatuak aztertzen dituzte, Koldo Zuazok (1988b) euskararen batasunaren eta estandarizazioaren historian, esate baterako, egin zuen bezala.

Nafarroara mugatuz, euskararen historiako lan orokorretan Nafarroari egiten zaion tokia txikia da, alde batetik, eta, bestetik, Nafarroa gaitzat zuzenean hartzen dutenak gutxi izan dira orain arte, eta, gutxi izateaz gain, oso txikia da nik hautaturiko epeari (1863-1936) eskaini dioten tartea, Jimeno Jurioren (1997) eta Urmenetaren (1997) lanekin gauzak aldatzen hasi badira ere.

### *Gainerako ezaugarriak*

Soziolinguistika alorreko kontzeptuak ez dira eskuarki erabili euskararen historiografian. Salbuespenak, hala ere, izan, badaude. Esanguratsuen Sanchez Carrion da, bere lanen ardura nagusia, hain zuzen ere, landa-ikerketak ahaztu gabe, eta hauetan ere bera izan dugu aitzindari (Sanchez Carrion 1972 eta 1981b), teoria garatzea izan baita. Ez da kasualitatea haren liburu nagusiaren bigarren izenburua *Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas* (1987) izatea.

Aipatzekoak dira, halaber, Mitxelena, Andoni Sagarna eta Koldo Zuazoren ahaleginak euren lanetan soziolinguistikaren ekarpenak kontuan izateko.

Bestalde, azterketa konparatiboak urri samarrak dira. Euskararen historia ulertzeko lagungarria da oso beste hizkuntzen bilakaerak gogotan hartu eta gurearena haienekin alderatzea. Zenbait autorek horrela egin dute, baina ez gehienek, ordea.

#### 2.1.2.2 *Lehentasuna atzerakadari eman zaio*

Arreta bereziki atzerakadan jarri dute euskararen historiagileek eta askoren ahaleginak gertaera hori azaltzera zuzendu dira, arestian esan bezala. *Zentzu komuna* ia denek naturalizat jo eta inplizitoki onartzen dutena baldin bada (Fairclough 1989: 2; Ibañez 1992: 21), ideologia nagusiaren emaitza “espontaneo” nonbait, euskararen historia euskararen atzerakadarekin berdintzen duen ikuspegiaren nagusitasunak ere bere zentzu komuna sortu du, euskal gizartean oso hedatua dagoena. Diodanaren erakusle tipikotzat, doktorego-tesi mailan, Benjamin Tejerinaren aipu hau ekar daiteke:

El proceso histórico del euskara ha sido definido como el proceso de retroceso de su función comunicativa. La reducción de su extensión geográfica, la pérdida de espacios sociales de utilización y el debilitamiento progresivo de los mecanismos de reproducción lingüística nos lleva a preguntarnos por los distintos factores sociales que han influido en este proceso.

(Tejerina 1992: 73)

Era berean, Baztango Udalak, adibidez, Euskara Teknikarirako oposaketaren programan horrela adierazi du euskararen historiari dagokion gaia: “10.— Retroceso lingüístico del euskara hasta el siglo XIX: Proceso histórico” (*BON* 107, 1994-9-5, 4.208. or.). Berdin gertatu da Iruñeko Udaleko Euskara Itzultzaileako (*BON* 58, 1996-5-13, 2.971) eta Malerrekako Euskara Teknikarirako (*BON* 106, 1996-9-2, 5.163) oposaketetan ere.

Dena dela, euskararen gibelatzeak garrantzi objektibo handia duela eta, adierazi dudanez, historiografian eskaini zaion leku pribilegiatuetatik, komeni da gaiaz eman diren azalpen nagusiak ezagutzea. Arrazoibideak hobekien bildu dituztenak, nire ustez, Arturo Campion (nahiko ezezaguna) eta Jose Maria Sanchez Carrion (nahiko ezezaguna) izan dira. Oihartzun handia izan du, bestalde, SIADECOK Euskaltzaindiarentzat 1979an egin zuen *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (Euskaltzaindia 1979) txostenak. Ikuspegi berritzailea Jose Maria Larreak (1994) eman du. Jose Miguel Azaolak (1976), bestalde, ohiko azalpideak kritikatu ditu. Banaka aurkeztuko ditut.

*Atzerakadaren arrazoiak Arturo Campionen iritziz*

Arturo Campionek 1910eko abenduaren 21ean hitzaldi mamitsu bat eman zuen Euskal-Esnalea elkarteak Gipuzkoako Diputazioaren aretoetan egin zuen biltzarrean. Hitzaldi hura “El euskara en Sarasaitzu” izenburuarekin argitaratu zen *Euskal-Esnalea* aldizkarian (Campion 1911). Zaraitzu ibarreko bilakaera azalduz, Nafarroa osokoa ezezik —“Nabarra, la antigua y admirada Baskonia, la gran matriz de los Baskos, está dejando de ser baska por momentos” (ibid.: 4)— Hego Euskal Herri osokoa ere badu gogoan: “¿Por qué desaparece el bascuense en el valle de Sarasaitzu? Poner la mano en esta llaga equivale á palpar el cáncer que está corroyendo á todo el país basko de la península, puesto que no se presenta allí con ningún signo de dolencia particular” (ibid.: 20).

Kanpo eta barne arrazoiaren artean bereizi zuen Campionek, hizkuntzen desagertzea azaltzeko eman ohi diren arrazoiak kanpo arrazoiaren artean kokatuz. Ohiko azalpen hauek hiru multzotan biltzen dira Campionen ustez:

Inbasioa edo menderatzea: “Invasión de numerosas gentes extrañas, más fuertes ó cultas que las invadidas, á quienes aquellas imponen (...) su idioma propio”. Baina, “No es éste el caso de Sarasaitzu; el valle ha estado siempre bajo el dominio de sus habitantes originarios” (ibid.: 20).

Erdal gizartearekiko harremanen ugaritzea: “Contacto continuo con gentes extrañas, directamente favorecido por el ejercicio del comercio, la explotación de industrias, la inmigración de veraneantes ó turistas y la facilidad de comunicaciones” (ibid.: 20). Horrekin lotuta karabiniereen eragina genduz: “Algunos amigos míos me señalan, como causante de la decadencia baska de Sarasaitzu, el influjo social de la brigada de carabineros, que vive de pupilo en las aldeas y propaga el castellano” (ibid.: 21), eta, horiez gain, “los viajes á la Ribera, las escuelas (...), los curas que no predicán ni enseñan el catecismo en uskara” (ibid.: 23). Baina arrazoi hauek ere ez dira aski (ibid.: 20 eta 23).

Espainiako Estatuaren erantzunkizuna: “La ventaja que en la lucha de las lenguas confiere á una de ellas el apoyo oficial. El estado español comete el delito contra el derecho y la historia, de favorecer á una sola en detrimento de todos los idiomas peninsulares. El castellano disfruta de una posición privilegiada y única” (ibid.: 21). Indar hau ukalezina bada ere, bere eragina euskaldunen beraien onarpenari zor zaiola dio: “Pero no prosperaría ni produciría efectos permanentes si el país mismo no le prestase el calor de su complicidad. También en Cataluña el castellano se apoderó en provecho exclusivo de la escuela; no obstante, los catalanes mantienen el catalán” (ibid.: 21).

Arturo Campionentzat goikoak kanpo-arrazoiak dira, lagungarriak, baina ez erabakitzaileak:

Las tres causas por mí enumeradas arriba, y otras que omito, son causas externas, coadyuvantes, pero no eficientes, de la catástrofe, á modo de esos microbios que únicamente infeccionan al organismo disminuído de sus medios naturales de resistencia y reacción. (...) si el espíritu basko reinase y dominase allá como hace doscientos años, maestros y curas y carabineros habrían de amoldarse á él y adaptarse por virtud de la regla universalmente admitida: «quien va á tierra extraña ó aprende la lengua ó se calla».

(ibid.: 22-3)

Aipu honetan ikerbide interesgarri bat erakusten digu, alegia, organismo baten edo, gure kasuan, komunitate baten “medios naturales de resistencia y reacción”, kanpotarrak beraietara egokitzera behartzeko adina indar dutenak, zein diren argitzearena. Honek, noski, euskararen iraupenaren auziarekin du zerikusia eta beherago aztertuko dut. Campionek, hala ere, ez zuen bide hori urratu eta beste mota bateko arrazoiak eman zituen.

Euskal Herrian bertan aurkitzen zituen *arrazoi erabakigarriak* barne arrazoiak ziren: alde batetik, euskaldunen kontzientziarik eza: “el baskuenze se extingue de una manera inconsciente, involuntaria, por flojedad, por dejadez, á la buena, digo mal, á la mala de Dios” (ibid.: 23); eta, bestetik, agintari eta goiko klaseen jarrera, bizkarra emanda baitzioten euskarari: “Faltaron allí, como en otros muchos puntos de nuestra tierra, autoridades sociales empapadas de un patriotismo vivo, culto, sabedor de la altísima significación que en la caída de un pueblo posee su idioma (...). La única clase social (digo clase, no individuos) que en Navarra podía haber mantenido la grande y sana tradición del baskuenze, se desentendió de ella” (ibid.: 23). Goi klaseen bazterketaren ondorioa garbia da: “Nadie ha cuidado de convertir su baskismo [euskaldunena] inconsciente, puramente natural, en baskismo consciente y voluntario, capaz de resistir y sobreponerse á las causas externas que le habían de socavar” (ibid.: 23). Bi arrazoiak, euskaldunen utzikeria orokorra eta goiko klaseen bazterketa, batean biltzen dira: “Faltan el nervio, la vitalidad, nombrémosle con su nombre propio, el patriotismo basko” (ibid.: 23).

Laburpena: Campionek kanpo eta barne arrazoiaren artean bereizi zuen, nagusitasuna barne faktoreei —euskaldunen utzikeriari eta goi-klaseen jarrerari— emanez. Bigarrenik, eta honi garrantzitsuago deritzot, bilakabide bat azaltzerakoan, bilakabide hori baldintzatu duten faktoreak erakustea ez dela aski erakutsi zuen. Azterketa zehatza egin behar da, toki jakin batean ondorio batzuk eman dituen faktoreak beste batean ez ditu-eta ondorio berdinak ematen.

*Atzerakadaren arrazoiak Jose Maria Sanchez Carrionen iritziz*

Jose Maria Sanchez Carrionen azterketa (Sanchez Carrion 1972) ezagunagoa izan da, bere laburpen egokia Iñaki Larrañagak eman zuen (1990: 46-8) eta honen ustez ondoko ikertzaileek, Sanchez Carrionekin parekatuz, ez dute “gauza berririk azaltzen” (ibid.: 51). Euskararen atzerakada ondoko faktore erdalduntzaileen bidez azaltzen da nagusiki:

Eskola: “La escuela. Es el principal, pero no es el único” (Sanchez Carrion 1972: 199). Hala ere, nahiz eta eskolak erdara zabaldu, beste faktorerik ezean horrek ez du berez euskararen galera ekartzen.

Inmigrazioa: inmigrazioa masiboa bada oso arriskutsua da euskararentzat, ez, ordea, lagun bakan batzuen denean, ez baita arraroa hauen seme-alabek euskaraz ikasi izana (ibid.: 199-200).

Egiazko faktore eragileak, ostera, faktore psikologikoak dira: “Los principales factores son, con todo, los psicológicos, que producen la desvalorización de la lengua materna en el individuo, incitándole a desprenderse del idioma propio” (ibid.: 200).

Euskararen gutxiespena “baserritar-komplexuan” eta kultura erdarari lotuta datorrela uste izatean erakusten da (ibid.: 200) eta Sanchez Carrionek aipatzen dituen zenbait gertaeraren ondorioa da: erdaraz mintzatzen diren gunee edo lagun batzuen presentzia (administrazio- edo finantza-burokrazia, profesio liberalak), gaztelaniazko komunikabideen areagotzea (irratia, telebista, prentsa), garraioen ugaritzea, eta abar (ibid.: 200).

Tokian tokiko eragina izan duten bestelako faktore batzuk ere aipatu zituen Sanchez Carrionek: apaizen predikuak eta haurren katekesiak erdaraz izatea, udatiar erdaldunen etorrera... (ibid.: 200-1).

*Atzerakadaren arrazoiak Hizkuntz borroka Euskal Herrian liburuan*

Arturo Campionen eta Jose Maria Sanchez Carrionen eskemak berdintsuak direla —azentua faktore psiko-sozialetan eta Nafarroako bertako arrazoietan ipiniz— esan badezakegu, SIADECO-Euskaltzaindiak 1979an plazaratutakoa (Euskaltzaindia 1979), ordea, lehentasuna arrazoi sozio-politikoari eta Espainiako hizkuntz kolonialismoari ematen dien azalpen motaren adierazle tipikoa da.

Ikerlan honek bi atal bereizten ditu, besteak beste: “Area gaztelaniaztatuak” (ibid.: 23) eta “Ukipen-areak” (ibid.: 39), bakoitzean gertatutakoari berari dagokion azterketa eskainiz.

“Area gaztelaniaztatuei” buruzko azalpenarekin hasita, eremu hauen erdalduntzea “azken batean, zentralismo espainolak euskaraz hitzegiten zen Euskal herriko lurraldeetan jaso duen emaitza” (ibid.: 38) besterik ez dela diote. Abiapuntu gisa “Euskal herri osoa mintzatu izan da euskaraz” (ibid.: 23) baieztapena dugu; eta Nafarroara gatozlarik, “Erromatarren

garaiko lehen testigantzek diotenez, Nafarroan hitzegiten zen hizkuntza euskara zen<sup>30</sup> (ibid.: 27) eta “Lehen atzerapena I. eta VI. mendeen artean burutu zen” (ibid.: 25), “Ebro iberaiaren eskuineko urbazterra” (ibid.: 25), Tuteraz haratagoko eskualdea, alegia, hondatuta geldituz. VI. eta XVI. mendeen artean “agian” Nafarroako Erriberatik jarraitu omen zuen atzera (ibid.: 25-26) eta Nafarroaren Hegoaldea “XVI. mendetik XIX.aren erdialderaino, Bonaparte printzearen ikerketa linguistikoaren garaia berau” (ibid.: 26) irentsia geratu omen zen.

Erdalduntzean zerikusia izan duten faktoreak honako hauek izan omen dira:

-Euskal Herriko erakundeetako administrazio-hizkuntza latina hasieran eta erromantzea gero izan ziren, bai Nafarroako erresuman, eta bai “Gaztelarekin tratuan hasiak ziren beste herrialdeetan” ere (ibid.: 31). Horrela, “herri euskaldun elebakarrak ulertzen ez duen hizkuntza ofizialek urrun jarraitzen du” (ibid.: 30).

-Hirien sorrera, diglosiak jo zituen lehen gunek hiribilduak izan baitziren (ibid.: 31-2).

-Jarduera ekonomikoei loturiko “kanpoarekiko komunikazioa”, gehienbat euskararen kaltetan joan zena (ibid.: 32).

-“Euskal nobleziaren Gaztelarekiko lotura” (ibid.: 32) eta agintariak “ofiziale errealak” (ibid.: 34) izatea.

Bilakaera guztiari “Gaztelaniaren euskararekiko inposaketa” (ibid.: 35) deitzen diote, sei zatitan banatuz: (1) Erdi Aroaren bukaera: XIII. mendea; (2) Austriak (XV. mendearen bukaera); (3) Borboiak (XVIII. mendea); (4) Foruen Abolizioa (1839 eta 1876); (5) Diktadura Frankista (1936-1975) eta (6) Postfrankismoa (ibid.: 35-37). Ikusten dugunez, Erdi Aroarena izan ezik, gainerako aldi guztiak Espainiako Estatuaren gorabeheretan, edo, gutxienez, gorabehera horiek Euskal Herrian izan zuten eraginean, oinarrituriko periodifikazioa da.

Egileek ateratzen dituzten ondorioak honako hauek dira:

(1) Hizkuntzen arteko ukipena ez da elebitasuneko egoera nola-hala orekatu batez konpontzen; aitzitik, *hizkuntza batek bestea ordezkatuz bukatzen du*. Hortaz, beti ere biktima bat sortzen da, heriotz-zeinua berekin daramana.

(2) Gertaera hau *arrazoi extralinguistiko*en emaitza da, funtsean *arrazoi sozio-politiko*ena.

(3) Espainiako indar zentralak etapaz-etapako eta luzera handiko *kolonialismo linguistikoa* ezarri du, gaztelaniaz, beste hizkuntzekiko.

---

30. Egiako egoera zein ote zen, dena den, askoz ere ilunago dago, eta ez dago frogarik Euskal Herri osoan euskaraz mintzatu zela esateko, ez eta Nafarroako Erriberan euskaraz mintzatu zela esateko ere, Mitxelenak erakutsi zuenez (ikus 2.1.3 atala).



(4) Kolonialismo linguistiko hau Austriekin hasi zen, Borboiekin zorrotzu, eta *diktadura frankistaz izan du adierazpiderik basatiena*.

(ibid.: 37-8)

Beraz, “area gaztelaniaztatuak” izenekoan azterketaren muinean arrazoi sozio-politikoak eta Espainiako indar zentralen hizkuntz kolonialismoa ditugu.

“*Ukipen-areei*” buruzkoa dugu bigarren atala. Kontzeptu hau “area euskaldunen eta jadanik gaztelaniaztatuen arteko zona linguistikoak aipatzeko” (ibid.: 39) erabiltzen dute. Ordezkapen prozesuaren faktoreak, “lehentasun-mailaren arabera” (ibid.: 43), lau multzotan bildu dituzte liburuaren egileek:

Faktore sozio-politikoak: “Kolonialismo linguistikozko ikuspuntu orokor batetatik” (ibid.: 43), “Erregearen ordezkarien jokaera”, maisu-maistra nazionalak eta funtzionario publikoak (ibid.: 44) azpimarratzen dituzte.

Faktore sozioekonomikoak: industrializazioa eta jarduera ekonomikoan gertaturiko aldaketak, inmigrazioa eta, azkenik, aldaketa hauek familiako bizitzan ekarri zuten puskaketa (ibid.: 44-5).

Faktore instituzionalak: bi maila bereizi ondoren —kanpkoa, Erregearen Gorteak zekarrena, eta barrukoa, Euskal Herrian funtzionatzen zuena (ibid.: 45)— hiru instituzio aipatzen dituzte: lehena, Eliza, eragin bikoitza izan omen zuena, “ordezkapeneko prozesuan, baina baita euskararen kontserbazioan ere” (ibid.: 46). Bigarrena, “Junta Generaletan, Diputazioetan eta Udaletxeetan zeuden erakunde” euskaldunak (ibid.: 46) eta, hirugarrena, familia, “garairik larrienetan hizkuntzak aurkitu izan duen babeslekua” (ibid.: 46).

Faktore psiko-sozialak: mekanismo psiko-sozialek “aurreiritzi eta estereotipo bezala funtzionatu izan dute. Eta beti gaztelaniaren alde (...), irabazle izango dela jakina denaren alde” (ibid.: 47).

Ikusi dugunez, gune “erdaldunduetan” bezala, ukipen eremuetan ere lehentasuna kanpotikako zapalkuntzak eta berari loturiko faktore politiko-ekonomikoek hartzen dute *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* lanaren egileen arabera.

#### *Atzerakada Jose Maria Larrearen iritziz*

Jose Maria Larreak (1994) euskararen galtze prozesuaren azalpen berria eman nahi izan du bere liburuan: “Lan honetan azken bi mende-etako euskaldungoaren higatze, gutitze eta galtzearen prozesua ikertzen da” (ibid.: 13). Azentua kanpo faktoreetan ipintzen duten azterketamotak kritikatu (ibid.: 11), nahiz eta testuinguru historikoaz ez ahaztu (ibid.: 158-60), eta barne faktoreak argitzera jo du, euskaldunak erdal-duntzea onartzera eraman dituzten jarrerak (ibid.: 11), hain zuzen.

Bi motatako iturriak erabili ditu: ahozko tradizioari loturikoak, beren erabilerak dakarren berrikuntza azpimarratuz, eta ohiko iturri idatziak (ibid.: 12-3).

Liburuaren ekarpena gertaera historikoek euskaldunen jarreretan izan duten eragina erakustean, Sanchez Carrionen eta Aracilen teorien baliatzean eta ahozko tradizioari loturiko iturrien erabilpenean dago batik bat.

Ondorioa iradokitzailea da: “lan honek (...) oroitarazten du tradizionalki eta hasieratik euskaldun ez letratu baina akonplexatuagoak egon direnak eta (...) beheititze horretan bide urratzaile gisa jokatu dutenak euskaldun letratuak izan direla” (ibid.: 14).

*Jose Miguel Azaola eta euskararen atzerakada: ohiko moldeei kritika*

Interesgarria da, orobat, Jose Miguel Azaolaren iritzia, atzerakadaren eragiletzat jo izan diren faktoreen balioaren orokortasuna auzitan jartzen du-eta. Eskolarizazioa, inmigrazioa, industrializazioa, zapalkuntza linguistikoa eta zentralismoa euskararen gibeleratzean eragin duten faktoreak dira, zalantzarik gabe, baina ez dute denek toki guztietan emaitza bera eman.

Horrela, eskolarizazioak erdalduntzea bultzatu omen zuen Araban eta Nafarroan, baina Iparraldea oraindik ere eskolatuagoa izan da eta ez du euskara galdu<sup>31</sup>. Berdin Gipuzkoa eta Bizkaian (Azaola 1976: 97).

Inmigrazioak etorkin erdaldunak erruz ekarri ditu, baina Nafarroan eta Araban ez zen inmigratorik izan eta, hala ere, hor gertatu zen euskararen atzerakada nagusia. Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat tokitan, ordea, nahiz eta inmigrazioa jaso, iraun egin du (ibid.: 96-7).

Industrializazioa nahiz, beste muturrean, nekazari ekonomiaren iraupena ez dira zuzenean euskararen galera edo iraupenarekin lotu behar. Nafarroa eta Araba nekazari gizarteak ziren eta galdu egin zuten euskara. Iparraldea ere bai, baina eutsi egin dio euskarari. Bizkaia eta Gipuzkoa industrializatu egin ziren eta, hala ere, euskaldun izaten segitu zuten (ibid.: 98-9).

Idea bera hizkuntz zapalkuntza eta zentralismoaz. Hegoaldean eragina izan dute, baina Iparraldean zapalkuntza berdintsua eta zentralismoa askoz handiagoa izan dira eta euskarak iraun egin du (ibid.: 99).

---

31. Azaolaren lana 1976koa da. Azkenaldiko ikerketek (Aizpurua 1995; Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Euskal Kultur Erakundea 1997), aldiz, Iparraldean katea higatzen ari dela erakusten dute.

*Euskararen atzerakadari buruzko lanak: ondorioak*

*Euskararen heriotzaren topos-a.* Euskara gibelamendu azkarra pairatzen ari zen, hori errealitate ukaezina da, baina, aldi berean, euskararen heriotzarena gai autonomo gisa ulertu behar dugu, literaturako *topos* baten zeregina betetzen zuena. Ikus dezagun:

Aquella fatídica frase aplicada por el gran geógrafo francés Eliseo Reclus al pueblo Basko “Un peuple qui s’en va”, por muchas veces que la hayamos reargüido de falsa, hemos de reconocer que está trocándose en irrefutable axioma. (...) el pueblo Basko se va, y se nos escapará de entre las manos pronto, porque como cantó Bürger en su famosísima balada: “los muertos andan aprisa”.

(Campion 1911: 3)

Reclusen esaldia 1867koa da (Reclus 1929) eta Campionen hitzaldia 1911koa<sup>32</sup>. Bitartean, Vinsonen eta Hovelacqueren baieztapenak eta hauek Bonaparterekin izandako eztabaidak ditugu. Hego Euskal Herriko lehenengo Euskal Jaietan —Elizondo 1879— Felipe Arrese Beitiaren “Ama euskeriari azken agurrak” olerkia suertatu zen garaile. Beranduago Unamunoren hitzaldiak etorriko ziren. Denen ahotan euskararen heriotza hurbilaren gaia genuen. Bi argumentazio mota agertzen ziren, gai beraren bi aldaki moduan-edo: aurrerapenaren ize-nean euskararen eta gainerako hizkuntza ez-ofizial gehien heriotza iragartzen zutenena —Reclus, Vinson, Hovelacque, Unamuno— bata, eta, bestea, gaia euskaldunen kontzientzien pizgarri moduan erabiltzen zutenena.

Euskararen heriotzarena, beraz, egiazko gertakaria baino gehiago hamarkada haietako politika eta kultura alorretako topiko bat da, baina eragin zuzena izan zuen, eta izaten segitzen du, ikerketak bideratzerakotan, ikertzaileei hizkuntzaren heriotzaren unibertso kontzeptuala ezarri die-eta. Behin heriotzaren diskurtsoaren esparruan kokatu eta gero, azterketa bere mugei egokitzen zaie, errealitatearen alde bat bakarrik ikusiz —euskararen gibelatzea—, eta ahalegin guztiak hori azaltzera zuzentzen dira.

*Aldebakarreko azterketaren arazoak.* Hala eta guztiz ere, hainbat eskualdetako euskararen galera aztertu beharreko gertaera da dudarik gabe, eta are beharrezkoagoa Nafarroako XIX. mendea ulertu nahi baldin badugu.

---

32. Ideia, hala ere, ez zen ez berria eta ez orijinala ere, XIX. mendean denen gogon zegoen zerbait baizik. Humboldttek, 3.1 atalean ikusiko dugunez, jadanik 1801. urtean adierazia zuen eta, oro har, “Europan galtzear ikusten zen orduan [XIX. mendean] Euskal Herria” (Agirreazkuenaga 1993)

Kanpo eta barne arrazoen artean, kanpokoaz ahaztu gabe, euskararen galera hizkuntzaren transmisioaren katea etetean gauzatzen dela jakinik, barne arrazoen azterketa da biderik emankorrena. Hau da, guraso euskaldunak euren seme-alabei euskara ez irakastea hautatzera eramaten zituzten arrazoen azterketa.

Baina, lehentasuna atzerakadari eman izanak, euskararen heriotzaren *topos*-ak baldintzaturiko norabidea izateaz gain, baditu bere arazoak. Bi dira arazo nagusiak: lehena, soilik atzerakadari erreparatu eta aldebakarreko irudia ematen duen azterketa egitea. Bigarren arazoa euskararen historia baino gehiago erdaldunek —erdal kulturak— euskararekiko izan duten portaeraren historia egitean dago, eta bide horretatik gehienez ere euskaldunak kanpotiko eraginen aurrean nola makurtu diren aztertzeraz iritsiko ginatke. Badaude beste arrisku batzuk ere, hala nola guztia zapalkuntza edota saldukeriaren klabeetan azaltzea edo, Nafarroako gizartean, komunitate erdaldunak eta komunitate euskaldunak ez bereiztea, prozesu guztia euskaldunen arteko jokoak, gaur egun euskaldunak direnak eta iraganean izan zirenak —egun deseuskaldunduak—, gertatu delakoan.

### 2.1.2.3 Iraupenaren azalpenak

Atzerakada azaltzeak azken batean erdal taldearen jokamoldeetara bidaltzen bagaitu —hau da, erdal kulturak euskaldunekiko zer egin duen ezagutzera, baina subjektua betiere erdal kultura izanik—, iraupena azaltzeak, berriz, euskal komunitatearen ezaugarriak ezagutu eta aztertzea eskatzen du. Iraupenaren subjektua euskal kultura da, euskal hizkuntz komunitatea, eta galdera nagusia “zer izan da euskara euskaldunentzat?” dugu, eta ez hainbeste “zergatik iraun du?” itaun abstraktua.

Harrigarria bada ere, euskararen iraupena ez da normalean autoreen ikergai izan. Gehienen ardura atzerakada azaltzea izan da eta, beste zerbait erantsiz gero, euskaltzaleen ahaleginak nabarmendu dituzte.

Dena den, izan, badaude iraupena aipatu dutenak. Joseba Intxaustirentzat, “batez ere inertziak eta inguruko egokiera hobeei salbatu digute behin baino gehiagotan nafar euskara” (Intxausti 1990b: 31). Beste lan batean, bi arrazoi eman zituen: “Historiako arrazoi ilun eta oraindik gutxi ezagunei ezezik”, euskaltzaleen borondate argituari ere zor zaio gaur egun euskara bizirik izatea (Intxausti 1990a: 10), gertaera hau “Herri eta hitzungo baten iraun-ahalmena sakonean datorren egiturazko korrante iraunkorra dela” (ibid.: 10) erantsiz.

Joan Mari Torrealdaireren hitzetan, “se nos presenta como un hecho histórico-lingüístico sorprendente” (Torrealdai 1977: 86-7). *El libro blanco del euskara*-rentzat “es milagrosa esta larga supervivencia” (Euskaltzaindia 1977: 11) eta, halaber, “Es un caso insólito de terque-

dad vital” (ibid.: 661-2). Baina lan hauek guztiak, esan bezala, ez dira iraupenaz gehiago luzatu.

Interesgarriak dira Arturo Campionen iradokizunak. Iraupenaren funtsezko indarra gizartearen bizimodua giro euskaldun orokorrean garatzean ikusten zuen Campionek (1911: 23). Isolamendua, berriz, ez zitzaion euskararen iraupenaren lagungarri zenik iruditzen: “Anotemos al paso, la chica influencia que sobre el mantenimiento del baskuenze ejerce el aislamiento del territorio. El valle de Baztan, p.ej., situado en una arteria de comunicación nacional é internacional, siempre muy frecuentada, perdura en su baskismo” (ibid.: 21). Eta ideia bera garatuz, hauxe esan zuen Zaraitzu ibarrari buruz: “Parece que la naturaleza construyó allí un inexpugnable reducto para el Basko y sus cosas. (...). Allá no hay ferrocarriles, ni tranvías, ni paso de automóviles; el forasterismo y el turismo no tienen ocasión (...). Industriosos los habitantes, con sus propios recursos cubren sus necesidades de alimentarse, vestirse y alhajarse” (ibid.: 18). Baina, hala eta guztiz ere, oso isolatuta bizi bide zen Zaraitzu ibarrean euskara galtzen ari zen. Karlismoa ere, bestalde, ez zen iraupenerako arrazoa: “los salacencos, al revés de sus vecinos del Este los ronkaleses, y los del Oeste los aezkoanos, son carlistas, conservando la misma posición política que adoptaron el año 1823 al levantarse contra los constitucionales” (ibid.: 18).

Angel Irigarayk sen handiaz euskaldunen atxikimendua azpimarratu zuen iraupenaren oinarriko arrazoi bezala:

El *euskaldun* es o ha sido, contra la opinión actual de muchos, extraordinariamente apegado y amante de su lengua; no ha dejado de hablarla y estimarla, a pesar de ser castellano hace siglos todo lo que encontraba escrito (...)

(Irigaray 1935: 601)

Ildo beretik, Jose Anjel Irigarai bere semearen iritziz, euskararen iraupena nekazari bizimoduan hazitako atxikimendu eta bizitasunean bilatu behar dugu: “euskaldunengan datzala erranen nuke. Euskaldunak, alegia, euskerari atxikiak egon direla mendez mendez. Nekazalgoari lotua zegoen herriak abantxu atzo artio iraun du” (J.A. Irigarai 1973: 28), nekazari bizimodu hori baserriarena izanik: “euskera eta jatorrizko kultura —sozio ekonomiko baldintzak direla medio, noski— baserriari esker gorde dira” (ibid.: 42). Era berean mintzatu zaigu beranduagoko lanetan (1977: 289-91; 1988: 119). *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* liburuak (Euskaltzaindia 1979) ia oharkabean mota bereko arrazoa eman zuen: “eredu euskaldunean mamitutako mundu kulturalaren barruan” (ibid.: 45) gertatu zen euskararen iraupena, transmisioaren giltza familian aurkitzen dela gaineratuz (ibid.: 46). Baina, zoritxarrez, oso emankorrak gerta zitezkeen intuizio horiek ez dute segidarik izan ikerketa mailan.

Iraupenaren auzia erantzun beharreko galderatzat jo dutenak Koldo Mitxelena, Jose Maria Sanchez Carrion eta Jose Miguel Azaola ditugu<sup>33</sup>. Mitxelenari buruz geroago mintzatuko naiz eta Azaolaren azalpenak ere Mitxelenarekin batera agertuko ditut. Oraingoan, beraz, Sanchez Carrionen iritziak jasoko dira. Oihartzun handi eta iraunkorra (ikus, esate baterako Larrañaga 1990: 48-9) lortu zuten 1972. urtean eman zituen arrazoiek.

Sanchez Carrionek isolamendua aipatu zuen orduan euskararen iraupenaren faktore nagusi bezala eta, horrekin lotuta, gaztelaniaz ez jakitea:

La razón primordial que preserva al vasco es el aislamiento, más que un género de vida tradicional agrícola-ganadero. Lo que ocurre es que aquél es consecuencia de éste. Por esto donde se mantiene el vascuence por excelencia es en el habitat de los caseríos, pues el caserío es por antonomasia la vivienda aislada que practica una economía de pura subsistencia. (...). En consecuencia, debemos concluir que el factor principal que mantiene el vasco es el desconocimiento del castellano.

(Sanchez Carrion 1972: 201)

Bizilagunek gaztelaniaz ere bazekitenean, orduan honako arrazoi hauek aurkitzen zituen:

-praktikotasuna: “Cuando hay una razón práctica para conservar el vascuence se mantiene con una enorme vigencia” (ibid.: 202);

-euskararekiko atxikimendu erreflexua, ez kontzientea, eta inertzia: “Apego a la lengua. Pero este apego en la mayoría de los casos no es consciente, sino meramente reflejo. (...). Este apego, es lo que queremos señalar aquí, no es, en la mayoría de los casos, más que inercia” (ibid.: 202);

-lelebitasuna: “Libera al individuo de prejuicios y lo protege de complejos infundados” (ibid.: 202);

---

33. Aipagarria da, orobat, Roger Collins historialari ingelesaren ikuspegia. Bere lehenengo asmoa “profundizar en este tema de la inveterada independencia de los vascos de la montaña y su permanente oposición a los poderes de las tierras bajas” (1989: 17-8) zen. Lanean ari zela, “descubrí que empezaba a alimentar ciertas reservas” (ibid.: 18) eta Euskal Herriaren iraupenaren gakoa, atzerritarrekiko borrokan baino gehiago, euskal gizartearen oinarrizko egituretan bilatu behar zela adierazi zuen: “la supervivencia vasca no era el producto de una obstinada resistencia, sino que más bien descansaba sobre ciertas *estructuras básicas de su propia sociedad*” (etzana nirea da) (ibid.: 18). Isolamenduarena ere ez zitzaion azalpen egokia iruditu: “Los vascos no han sobrevivido desde la remota antigüedad porque hayan marginado al mundo, sino que es esa supervivencia lo que representa su mayor y más incuestionable proeza” (ibid.: 18).

-hizkuntz kontzientzia: “Es justamente lo contrario a este apego reflejo que hemos referido más arriba. Pero es actualmente excepcional” (ibid.: 204);

-besterik: tokian tokiko eragina izan duten faktoreak, hala nola “la introducción de las funciones litúrgicas en lengua vernácula” (ibid.: 204).

Txepetxek 1972an emandako arrazoi horien artean, izan duten eragin handia gogorazteaz gainera, azentua gaztelaniaren ezjakintasunean, isolamenduan eta inertzian ipini zuela nabarmenduko dut, dena, azken batean, baserriarren munduaren “itxitasunari” lotuta erakutsiz. Elebitasun pertsonala, beste autore batzuen lanetan ez bezala, euskararen iraupenaren faktore lagungarritzat jotzen zen. Hizkuntz kontzientziak, aldiz, zeregin txikia izan du euskararen iraupenean. Azkenik, bizi-modu tradizionalaren arazoia baztertuz, euskal mundu sozial eta kulturalaren iker-bidea ez zuela sumatu esan daiteke.

Hogeita bat urte igaro eta gero, berriz, 1993. urtean, beste modu batean aurkeztu zituen Sanchez Carrionek euskararen iraupenaren arazoak. Nire lana egile honen bilakabidea azaltzea ez denez, garai batean eta bestean esandakoak objektiboki jaso besterik ez dut egin.

1993ko azalpenen arabera, euskal hizkuntz komunitatearen jarraitkortasun historiko tradizionala, egun arte nagusi izan den eredu, alegia, ondoko prozedura eta ekintzen emaitza izan da (Sanchez Carrion 1993: 51-2):

- euskaldunen bere buruarekiko begirunea;
- ohituren indarra: “La fuerza de la costumbre (...), esto es la acomodación o concordancia a unas pautas sociales dentro de las cuales el uso y presión social del Euskera seguían siendo necesarios como señal de identificación y conformidad social”;
- euskararen bidez sortzen ziren talde barneko lotura afektiboak;
- familia bidezko transmisioa, aurreko mekanismoei lotuta;
- hazkunde demografiko handia, euskal hizkuntz komunitatearen belaunaldiz belaunaldiko ugalketa bermatzen zuena;
- nazio kontzientzia, nazioa bere esanahi linguistikoan ulertuta.

#### *Euskararen iraupenaren azalpenak: laburpena*

Euskararen historiografian hizkuntzaren iraupenari buruz eman diren azalpenak lau multzotan bil daitezke:

- (a) inertzia, isolamendua, atxikimendu erreflexua, gaztelaniaren ezjakintasuna...;
- (b) euskaltzaleen borondatea, hizkuntz kontzientzia...;

(c) bizimodu eta mundu kultural jakin baten emaitza, horrek sortzen duen hizkuntz atxikimendua, famili transmisioa, talde barneko lotura afektiboak...;

(d) besterik: elebitasuna (gaztelaniaren ezagutza), euskaldunen bere buruarekiko begirunea, jarrera politikoak, eta abar.

Bereziki gogoan izatekoak dira, bestalde, Campionen isolamendua bezalako arrazoibideen kritika eta Sanchez Carrionen (1993) azalpenak.

### 2.1.3 Mitxelenaren ekarpena

Koldo Mitxelenak ez zuen euskararen historia sozialaz teoria oso bat eman, ez eta azalpen borobildurik ere, baina bere ezagutza sakonean eta bere sen zorrotzean oinarrituta, gainontzeko autoreek emandako azalpenekin alderatuz gero, beste ikuspegi berri bat eskaini zuela esan daiteke. Ikertzailearen eginbeharra lehenagokoen lanen ezagutza eta kritikan oinarritzea baldin bada, gero aurrerago jo ahal izateko, zeregin hau ez da inorekiko argiagoa Mitxelenarekiko baino.

Guztien ezaguna denez, ardua berezia erakutsi zuen Mitxelenak euskararen historiaz, bere burua “un historicista que se ha ocupado de historia de lenguas” gisa (1985: 192) hartzeraino iritsiz. Horrela, euskararen, eta beste hizkuntza askoren, historia sozialaz azterketa, gogoeta eta iradokizun ugari utzi zizkigun: “he conseguido reunir una cierta cantidad de información, y perdón por la inmodestia, sobre el pasado y el presente de lenguas muy diversas, sobre la situación lingüística actual de países más o menos familiares y sobre la historia interna y externa de sus lenguas, antiguas, medias, modernas y contemporáneas” (1985: 192).

#### *Soziolinguistika, soziolinguistika historikoa eta beste*

Mitxelenak ontzat eman zuen hizkuntzaren barne eta kanpo historien arteko bereizkuntza epistemologikoa (1988c, I: 23), baina bereizkuntzak “no tiene por qué ser un divorcio” (ibid.: 23), gaineratu zuen. Hala ere, zioen, hizkuntzen bizitzaren baldintza sozialen ikerketa hizkuntzalaritzaz kanpoko auzitzat jo izanak ukaezinezko arriskuak ditu eta ez dute hizkuntzalari guztiek onartzen:

El lingüista no tiene por qué ser un experto en esta clase de problemas, que puede considerar, con alguna razón (aunque la razón parezca absurda al común de los mortales), extralingüísticos; esto no es cierto, me apresuro a añadir, para un pequeño grupo, que va creciendo al parecer, de ellos. La consecuencia es que (...) los conocimientos de un lingüista sobre aspectos esenciales de las lenguas —ya que son factores determinantes de su fortuna o de su decadencia, de su pervivencia o de su desaparición— son a menudo superficiales (...)

(1985: 181)



Era berean, “sorprende la parquedad de las investigaciones sobre la situación concreta de una lengua, como medio vivo de comunicación, en un país y en un momento determinados” (ibid.: 181).

Hizkuntzalarien arreta txikia izan bada, historiagileentzat ere iker-tzen ari diren herria zein hizkuntzaz mintzatzen zen ia oharkabean igaroden auzia izan da:

En efecto, no me parece injusto pensar que los historiadores, como grey y con muy señaladas excepciones (...), no se suelen preocupar gran cosa de las lenguas de las gentes que estudian y de la diversa fortuna, determinante a veces de hechos de muy otro carácter, que aquéllas pudieran tener. Como muestra, diré que nunca he conseguido enterarme, a pesar de mis esfuerzos, de qué clase de lengua hablaban los hunos (...). Insisto, sin embargo, en que las lenguas no son entidades que los historiadores puedan pasar por alto sin daño para su trabajo.

(1987a: 169-70)<sup>34</sup>

Hizkuntz ordezkapen bilakabideak gogoan eduki zituen Mitxelena, haietan kanpo indarrek izan ohi duten eragina azpimarratuz, 1971ko testu honetan bezala:

Toda lengua es eminentemente apropiada para la cultura a la cual sirve de vehículo. La adecuación deja de existir, y las dificultades (dificultades tan graves que pueden conducir al cambio de lengua) empiezan cuando las condiciones de vida de la comunidad cambian bruscamente siempre o casi siempre por la injerencia de factores exteriores.

(1985: 152)

Bestalde, euskararen historiaren erdigunean, arestian aipatu bezala, euskal hitzunen taldea jarri zuen.

Jendeek erakutsi ohi dituzten hizkuntz jarrerez ere mintzatu zen Mitxelena: hizkuntzen desagertpenaren aurrean ager daitezkeen bi mutur-rak (1985: 182-3), giza taldeek euren lehen hizkuntzaren aurrean izaten dituzten portaerak (ibid.: 187) eta, azkenik, botere publikoek horrelako arazoan aurrean erakutsi ohi dituztenak.

### *Euskararen historiaren atalak*

En nuestro caso nos hallamos con la lengua de una pequeña comunidad sometida durante siglos a una influencia exterior tan fuerte como podría desearse incluso en un ensayo experimental. ¿Cuáles han sido sus resultados? Se ve de inmediato, incluso sin mayor conocimiento de causa, que esa

---

34. Historiagileen hizkuntzen ahazteaz, ikus, halaber, Mitxelena (1985a: 181 eta 192, 1987a: 16 —Iruñeko 1276ko Nafarrerriko gerraren kondairaz— eta 1987b: 12).

lengua ha resistido con todo éxito a la presión (...). Por otra parte, se ha acercado a éstas [auzo-hizkuntzei] de mil modos y maneras (...)

(1988c, I: 41)

Aipu hau 1964koa da eta zuzenean euskararen eta latinaren arteko harremani buruz dihardu, baina eskema gisa guztiz erabilgarria da, euskararen historiak gogoan izan behar dituen hiru mailak adierazten ditu eta. Atal bat euskararen iraupenak —“ha resistido con éxito”— osatuko luke, beste bat kanpoko eraginek —“influencia exterior tan fuerte”— eta hirugarrena eraginaren emaitzek —“se ha acercado a éstas”—. Ukipenaren emaitzak linguistikoak izan direla diogun modu berean, soziolinguistikoak ere —bazterketa soziala, atzerakada...— izan direla esan genezake.

### *Euskara Antzin Aroan: Nafarroako Erribera*

Nafarroako euskararen historiaren nondik norakoa, eta Nafarroa bera ere zer den, ulertzerakoan, Erriberaren balizko euskalduntasun historikoa garrantzi handiko auzia da. Baskoien lurra Ebro ibairaino iristen zirela jakinik, oso zabaldua egon da lur horiek hasieran euskaldunak izan zirela eta gaur egun erdaldunduak daudela dioen ustea<sup>35</sup> (ikus 2.1.2 atala).

Guztiz bestelako iritzia adierazi zuen Mitxelena:

Guk dakigun garaian, azken bi mila urte honetan, lehen esan dudan bezala, Euskadiko eremua osorik hartzen baldin badugu, eskualde hori ez da inoiz —bi mila urte horietatik gora nik ez dakit zer gertatzen zen— osoro eta zeharo euskalduna izan. (...) guk besteren aurrean esaten dugunean Nafarroako Erriberak, Kaskantek esate baterako, euskara galdu zuela eta berreuskaldundu egin behar dugula, ez gara egiaz ari; guk dakigunez eta guk ezagutzen dugun garaian Kaskanten ez da euskaraz egin; hori da egia, egia huts hutsa (...)

(1988c, II: 684-5)

Aldi berean, Euskal Herriaren eleaniztasunaren sustrai historikoak nabarmendu nahi izan zituen: “gero Euskal Herri edo Euskadi bezala gelditu den hori ez da osorik euskalduna izan azken bi mila urteotan” (ibid.: 685), edo, lehentxeago esan zuenez: “eskualde horretan guztian ez zen euskaraz soilik egiten: euskararen aldamenean bazegoen beste hizkuntzaren bat” (ibid.: 684).

---

35. Uste horren adierazle Erribera hitza “Herri Beherea”-tik datorrela dioen sasiazalpena dugu. Bere arrastoak aita Jose Moret-enganaino (1677) bederen iristen dira: “Y bera en idioma vascónico es *baja*. Y de ahí *Erri-bera* la tierra baja de Navarra, que con ligera corrupción llaman *Ribera*” (1890-2, VIII: 125).

Baieztapen hauek 1981ekoak dira, baina tankera honetako azterketa jadanik 1960.ean plazaratua zuen, *Historia de la literatura vasca* liburuan: “La lengua vasca no ha llegado a ser en tiempos históricos el medio de expresión total de la vida del pueblo vasco” (1988b: 13), eta berdin 1964ko *Sobre el pasado de la lengua vasca* izenekoan: “podría desterrarse la idea a que todos propendemos de que los límites de la lengua vasca, aun suponiéndolos estables, coincidieron con los de la Vasconia histórica” (1988c, I: 26). Iritzi hauek, beraz, ikertzaile guztiek irakurri ahal izan dituzte eta, goian ikusi bezala, kontrakoei eustea erabakiz gero, gutxieneko zorrotzasun zientifikoak Mitxelenaren baieztapenen kritika egitea eskatzen du. Eta hori, nik dakidala, ez du inork egin.

Antzin Aroaz oso hedatua dagoen beste mota bateko topikoa latinizazioa berez gertatu zela eta denentzako onuragarria izan zela dioena da, beherago aztertuko dudan R. Menendez Pidalen testuetan (1985: 2-3) agertuko denez (ikus 2.2.1 atala). Mitxelena, ordea, ez dator bat ideia horrekin:

Se da por supuesto que la romanización, con la latinización como secuela, es una especie de inexorable proceso natural que se produce por el peso mismo de las circunstancias, sin que hubiera necesidad de forzarlas en ningún momento. También es corriente aceptar, adoptando el punto de vista de las fuentes (...), que ese proceso fue beneficioso, al menos “históricamente” beneficioso, para las poblaciones afectadas (...). No hay que olvidar, sin embargo, que la expansión romana fue una empresa colonizadora, llevada a cabo con métodos acaso no más drásticos, pero en todo caso no más suaves y humanos, que las colonizaciones modernas. Tuvo que suponer siempre una violenta imposición sobre los pueblos que la padecieron (...)

(1985: 207)

### *Kristautasuna. Eliza*

Kristautasunaren aurreko euskal kulturaren aztarnez ere arduratu zen Mitxelena, bereizten zailak direla erantsiz:

Parece natural, por ejemplo, que un pueblo cuya cristianización, al menos en las zonas centrales, se supone más bien tardía conservara gran copia de creencias y elementos paganos. Pero no ocurre así. Mejor dicho, los elementos precristianos de la cultura popular no siempre resultan fáciles de descubrir.

(1988b: 24)

Bestalde, Elizak euskararen historian izan duen eraginaren zenbait alderdiz behin baino gehiagotan mintzatu zen Mitxelena (1988b eta 1988c, II: 1.014-5, adibidez).

*Nafarroako erresumaren hizkuntz tradizioa*

Nafarroako erresumaz frankotan hitz egin zuen Mitxelenak, “nuestra mayor realización política” (1987a: 55) izan zenak latina eta erromantzearen aldeko apustua egin zuela erakutsiz, besteak beste. Ideia hau, oinarrizkoa izanik ere, ez da berria eta hor utziko dugu.

Bereziagoak dira, lehen azterketa Lacarrarena (1957) izan arren, Erdi Aroko euskaldunen eta erdaldunen arteko banaketa sozialaz esan zituenak. Horrela, euskara hainbat eskualdetako jendeen hizkuntza bakarra zen, beste batzuk euskaraz eta erromantzez mintzatzen ziren eta bazeuden beste multzo batzuk, zenbait eskualdetako bizilagun gehienak, erdaraz baizik ez zekitenak. Euskaldunek, “Por desgracia, no formaban parte de los grupos más influyentes del país” (1988b: 15), eta beherago zera erantsi zuen: “Basta una ojeada a documentos medievales para comprobar que las personas que en Navarra llevan nombres y patronímicos de tipo vasco (...) abundan entre los collazos y pecheros” (ibid.: 15, 2. oin-oharra). Erdi Aroko agirien azterketa bat 1969. urtean egin zuen, “Notas lingüísticas a «Colección diplomática de Irache»” artikuluan, ondorio berberetara iritsiz: “El oficio o condición aparece a menudo (...). Las denominaciones vascas son aquí escasas y reservadas por lo común a profesiones rústicas, mientras que los romances dan fe de la complejidad de la vida urbana” (1987a: 130).

Erromantzea Nafarroako ekialde eta hegoaldean garatu zen batik bat (1985: 218) eta agertu zenean, latina/euskara estratifikazioari beste osagai berri bat gehitu zitzaion: “hay una nueva estratificación con un tercer nivel: latín/romance (navarro)/vascuence” (ibid.: 218).

Euskara eta erromantzearen artean hierarkizazio sozial nabaria zegoen, baita lurralde elebidunetan ere:

Dos cosas parecen claras, en todo caso. Que vascuence y romance, en primer lugar, tuvieron que convivir a menudo en una misma zona, sin que las fronteras territoriales entre una lengua y otra estuvieran claramente marcadas (...). Y en segundo, que en esos lugares el vasco no era, en manera alguna, la lengua «superior». No lo era para los nobles y, sobre todo, no lo era para los eclesiásticos.

(1987a: 60-1)

Banakuntza, gizarte mailakoa ezezik, geografikoa ere bazen eta euskara alde batzuetan —“ante todo en lo que Julio Caro Baroja llama, apropiándose el término de Plinio, el *Saltus Vasconum*” (1985: 218)— oso sustraitua egon arren, gutxiengoan zegoen Nafarroako eremu zabal eta aberats batean: “era minoritario en una zona extensa y rica del Reino” (1987a: 80).

*Foru erakundeak eta euskara*

Auzi honi buruz garbi eta tinkoa da Mitxelenaren iritzia. 1971. urtean hauxe zioen: “La existencia de instituciones autónomas contribuía

también, aunque sólo fuera pasivamente, a la conservación de la lengua” (1985: 159). Bost urte geroago, J.M. Azaolari erantzunez, ideia berari eutsi zion (1988c, II: 1.019-20) eta 1983.ean berdin segitzen zuen: “Geurezko genituen eskubideak ez ziren (sekula, behar bada) etxeko hizkuntzaren alde erabiliak izan, gorengo gobernu mailan behintzat. Gure arbasoek ez zuten, halaz guztiz, gogor hartu hizkuntza, nik axalekotzat jotzen ditudan kasu batzuetan baizik. Ukatu izan didate hori horrela zela, baina lehengoan irauten dut eta iraungo, aski den adinako kontrako frogarik erakusten ez didateino” (1988c, II: 950).

Mitxelena bazekien Foru erakundeek behin baino gehiagotan euskararen aurkako agindu eta debekuak ezarri zituztela, eta aipatu ere egiten ditu (1988b: 17, 64 eta 91; 1988c, II: 691-2, 1.020, 30. oin-oharra), baina euskara eta Foru erakundeak lotuta ikusten zituen: “Azken finean, zergatik eta hargatik, geuregandikako legeekin batera ibili da euskara beheraka” (1988c, II: 951).

### *Mitxelena eta euskararen iraupena*

*Alde orokorrak.* Mitxelena zorrotasuna inon ageri bada euskararen iraupenaren auzia ukitzean da<sup>36</sup>.

Abiapuntua hauxe da:

Izan ere, mendebal-alde honetako gainontzeko eskualdeak hartzen baditugu konparaketarako, ez da gurea izan ezik aspaldietako hizkuntzarik mintzaira indoeuroparren bultzadaz, eta latinarenaz azkenik eta batipat ito ez denik. Nornahik aski harrigarri deritza iraute etengabe horri, eta horrela iritzi behar ere. Artean bederen ez du inork, jende pilo saiatu delarik, esplikazio oso-beterik aurkitu.

(1988c, II: 949-50)

36. Mitxelena “Euskararen bide luze bezain malkarrak” (1978a) lanean euskararen iraupenaz ari zelarik, Jose Miguel Azaolarengana bidaltzen gaitu, honek ematen dituen ideiekiko adostasuna agertuz: “Honen [iraupenaren] arrazoiak xurgatzeko azken azterketa José Miguel Azaolarena dugu (...) eta, oro har, ados egon gaitzke beronen alderdi kritikoarekin” (1988c, II: 1.016). Dena den, Azaolaren testua ezagututa, zenbait ohar egin daitezke.

Azaolak *Vasconia y su destino* lanaren bigarren liburukiaren lehen zatian (1976), Euskal Herriko historiaren arazoak arakatu zituen, bertan euskarari toki bat eginez. Bere eginkizuna bilketa kritikoa egitea izan zen batik bat, Mitxelena eta Antonio Tovarren idazlanetan oinarrituta, eta arazoa ulertzen laguntzen digun arrazoi sorta bat eskaini zuen (ibid.: 100). Bildu zituenak bereziki berriak ez diren heinean, ez du merezi berriro azaltzea.

Nire ikuspegitik, azpimarragarriena euskararen iraupena eta euskal kulturarena lotuta daudela (ibid.: 86) eta euskal kulturaren iraupena azaltzen duten arrazoi orokorre euskararena ere azaltzeko balio dutela (ibid.: 94) baieztatu izana da.

Hots, euskararen iraupena oraindik ongi erantzun gabeko eta garrantzi handiko galderatzat jo zuen Mitxelena, oinarrizko testuingurua Mendebaldeko zibilizazioaren eta indoeuroparren etorreraren aurreko mintzaira edo kulturen arteko ukipenean kokatuz. Bestalde, ñabardura txiki bat erantsi beharrean nago, alegia, iraupenaren gakoa ulertzen saiatu direnak “jende piloa” izan baldin badira, askoz gehiago dira, historiografiak erakusten duenez, iraupena ez, galera baizik, azaltzera jo dutenak.

Euskarak hizkuntzen bizitza baldintzatu ohi duten faktore ia guztiak aurka zituela ikusten dugularik (bere garaian Campionek ohartarazi zuenez), arazoaren neurria handiagotu egiten zaigu:

Queda por explicar (...) que no se produjera [euskararen uztea] a pesar de que todos los factores extralingüísticos, que son los decisivos, parecían conjurados para conseguirlo: lo exiguo del espacio, el corto número de hablantes, el grado de cultivo de la lengua, aparentemente también el prestigio social mismo cuya raíz última está en el poder económico de los hablantes.

(1985: 157)

*Isolamenduaren eta inertziaren azalpenei kritika.* Inertzian edo isolamenduan oinarrizko azalpenak ez zituen Mitxelena onartzen. Inertziari dagokionez, ez du euskararen iraupena azaltzeko balio: “una lengua [no] va a seguir siendo viva porque haya sido viva hasta entonces” (1985: 158).

Isolamenduaren esplikazioak hiru alderdi ditu behintzat, eta euskarak isolamenduagatik irau duela huts-hutsean esatea hirurak nahastea besterik ez litzateke izango. Hiru alderdiak hauek dira: (1) isolamendu linguistikoa (euskararen berezitasuna, alegia), (2) Antzin Aroko gertaerak eta (3) isolamendu geografiko-sozial orokorra. Azken hau eduki ohi da gogoan isolamenduaz hitz egiterakoan.

(1) Isolamendu linguistikoa —genetikoki uhartea izatea— Tovarrek eman omen zuen azalpen gisa, baina alde on eta txarrak ditu: “Se ha presentado un argumento, y creo que es Antonio Tovar el primero que lo ha formulado, según el cual una parte del mérito de esta conservación (...) ha de imputarse a la lengua misma y no a sus hablantes. Dicho de otra manera, la peculiaridad de la lengua, su diferencia con respecto a las lenguas indoeuropeas —el latín y sus sucesores, en especial—, facilitaba por sí misma su conservación. Esto, creo, tiene una parte de verdad, pero sólo una parte” (1985: 156-7).

Neurri batean egia da, “besteekiko izate bakanak, hizkuntzaren alde bulkatu du”, ez baitzitekeen “bere ezaugarriak galdu ahala inorenak bereganatzen dituela antzeko beste hizkuntzekin nahas” (1988c, II: 1.014). Baina beste neurri batean euskararen aurka bihurtu da ezaugarri hori: “idazketa zailtzen zion aldetik, lehendabizi, eta kanpoko laguntza ezak lantzea eragozten ziolako gero” (ibid.: 1.014).

Eta, oro har, bakantasunak ez ditu desagerpenerako bide guztiak ixten, batzuk itxi arren: «la alteridad» aumenta en las lenguas la posibilidad de pervivir, puesto que imposibilita que desaparezcan de cierta manera, aunque no naturalmente que desaparezcan” (1987a: 80-1).

(2) Isolamendua, geografikoa baino gehiago soziala, erromatarren garaiko iraupenaren arrazoietakoa bat da, zalantzarik gabe: “La principal defensa frente al latín debió estar no en la fuerza, sino en la misma debilidad del país y de las gentes. Sin ciudades importantes (...), el retraso cultural hizo menos seductora la tentación del latín, a la vez que la pobreza de buena parte del territorio incitaba poco a Roma a ocuparlo y explotarlo” (1988b: 40). Ez da, hala ere, arrazoi bakarra, euskararen iraupena bertako gizarte jentilizioaren mantentzearekin lotzen baita, gero ikusiko dugunez.

(3) Orokorki, ordea, *nekez mintza gaitzke Euskal Herriaren isolamenduaz*. Mitxelenaentzat, Euskal Herria ez da historikoki lurralde isolatua izan, alderantziz baizik, 1978. urtean *Euskararen liburu zuria*-n idatzi zuenez: “Diogun ere, gaztelu hurbilgaitzean baino areago pasabideko lurraldean mintzatua denez, beste edozeinek hainbat harreman izan duela gureak bi mila urteotan zehar bederen” (1988c, II: 1.013), eta berdin dio bi orrialde beherago ere. Nabarmenena, hortaz, inoiz isolatuta egon ez den lurralde batean euskarak iraun izana da.

Euskal Herriaren isolamenduari buruz, berari topikoak iruditzen zitzaizkion iritziak aspaldidanik salatu zituen Mitxelena, 1960an, 1796-1804 urteez ziharduelarik, esate baterako, zioenez: “Una vez más se demuestra que Vasconia ha estado muy lejos de ser el terreno impermeable a nuevas ideas y modos de vivir que algunos se figuran” (1988b: 113).

Eta isolamenduak berez ez dakarrela euskararen iraupena Erronkari ibar erdaldunduan erakusten da, euskarari eutsi dion Zuberoarekin aldeatuta: “En toda una serie de rasgos puede comprobarse que el valle permaneció durante siglos mucho más cerrado a toda influencia exterior que el país de Soule” (1988c, I: 13).

*Euskararen prestigioa*. Askotan errepikatu diren ideien artean, bada-go beste bat Mitxelena zalantzan ipintzen zuena: euskararen prestigioa eza euskaldunentzat. Mitxelena ez zuen horretan sinesten eta kontrako iritzia, hots, euskara euskaldunen artean prestigiodun hizkuntza zela, iradoki zuen horretaz mintzatzea egokitu zitzaion bakoitzean.

Erdi Aroko Nafarroaz ari zelarik, eta euskararen arazo orokorrez mintzatu ondoren, euskararen prestigioa garbi gelditzen zitzaion Mitxelena: “A mi entender, para resumir, el vascuence medieval no tuvo por qué ser una lengua sin prestigio, a pesar de su escasísimo cultivo escrito; lo que sucede es que el prestigio de que disfrutaba tenía que ser, por la fuerza de las cosas, un tanto *sui generis*” (1987a: 81). Era berean, “me permitiría sostener que la lengua no carecía, ni mucho menos,

de prestigio, es decir, de prestigio de cierta clase, puesto que esta noción no tiene por qué ser total y unitaria” (1985: 160).

Orokorkiago mintzatuz:

No se ha considerado detenidamente (con salvedades como Lacarra a un extremo y Sánchez Carrión al otro) cuál podía ser el ámbito y el rango de la lengua primera en distintas zonas y distintas épocas: que *su arraigo era fortísimo*, sean cuales fueren las limitaciones a que estaba sujeto su uso, se sigue de lo duradero de su implantación. Las esferas de uso estaban también condicionadas por factores extralingüísticos y es dudoso que los aspectos que hoy consideramos sin vacilar más importantes, por más “elevados”, lo hayan sido siempre en realidad.

(etzana nirea da) (1987b: 12)

Zer gertatzen da? Besteak beste, diglosia kontzeptuaren erabilpen mekaniko eta, nonbait, anakronikoa egiten ari garela:

Fergusonek ez zekien ongi zer gerta zitekeen hedatu zuen “diglosia” hitzarekin eta hitzak azaltzen edo estaltzen duen gogoetarekin (...). Diglosiak joa dagoen egoeran, ez zaio orain beheko maila baizik aitortzen gure hizkuntzari. Beldur naiz, haatik, ez ote ziren gauzak bestela gertatzen gurean, ez baitaiteke izan azpiko eta morrontzako hizkuntzarik mendez-mende iraungo duenik gureak bezala.

(1988c, II: 950)

Hizkuntz hierarkizazioa izanez gero, goi eta beheko eginkizunekin baino gehiago barne eta kanpokoekin du zerikusia eta garbi dago euskal gizartearen barneko zeregin gehienak, eguneroko beharrei loturikoak, euskaraz garatzen zirela:

Maila nagusiak eta apalagoak, uste dudanez eta Sánchez Carrión-en iriztari narraiolakoan nago, barren eta kanpo neurtu behar dira, ez goi eta behe, hemengo eta oraingo ohituraren arabera. Idatzi, noski, erdaraz idazten zen edonon (...). Baina eginkizun goitar eta dotoreago hauek ez ziren behar bada, ez ziren segur aski, deus asko eguna joan eta eguna etorri erabiltzen ziren oinarritzko eta premiazkoenen aldamenean. Halaz guztiz, egoera horrek berekin zeraman aldakortasuna (...)

(ibid.: 950)

Behin euskara ez zela euskaldunen artean prestigiorik gabeko hizkuntza argi utzi eta gero, euskararen iraupena ulertzeko iradoki zituen bideak aurkez daitezke.

*Euskararen iraupenaren giltza euskaldunen leialtasuna izan da.* Hizkuntza txikien iraupena beren hiztunen atxikimendu edo leialtasunari egotzi behar zaio batik bat, eta leialtasun hau, halaber, baldintza soziokulturalen arabera ulertzen da:



Si se han conservado, si van a continuar vivas, esto se debe al apego que les han demostrado y les demuestran gentes de toda edad y diversa condición. Es decir, a lo que en inglés suelen denominar *language loyalty* (...). Esta adhesión no es, sin embargo, un dato primitivo, un movimiento del espíritu que sopla donde quiere sin depender de algún sustrato de más baja condición. Está estrechamente condicionada y limitada por factores económicos, sociales, políticos (culturales, religiosos), etc.

(1985: 196-7)

Bide honi jarraikiz<sup>37</sup>, euskararen iraupenaren arrazoiak haren hizkuntz-bereztasunean baino gehiago euskaldunengan bilatuko ditugu, “por tratarse de una fidelidad de los hablantes, no de la lengua misma” (1985: 156).

*Iraupena oso trinkoa izan den gune geografiko jakin batean gertatu da:* “el núcleo de habla vasca (localizado en época histórica sobre todo en buena parte de Vizcaya, en Guipúzcoa y en la zona montañosa de Navarra), —más, naturalmente, el país vasco-francés, erantsi zuen 24. oin-oharrean— (...) parecía tan compacto y tan impermeable” (1985: 157-8)<sup>38</sup>. Gune hau erromanizatu gabe gelditu zen bera da (1987a: 15) eta, esan bezala, ez zuen Nafarroa osoa besarkatzen: lagun ugari “de habla materna románica” izateaz gain, euskara “era minoritario en una zona extensa y rica del Reino” (ibid.: 80).

Nafarroan, hortaz, historikoki hiru alde eratu dira euskarari dago-kionez: euskararen gune trinkoa, bazter eremuak, non gutxiengoan zegoen, eta alde erdalduna.

*Euskararen iraupena Erdi Aroan: euskal gizarte-antolaketaren iraupe-na.* Euskarari atxiki zaion lurraldea “hararteko bizimoduari eustea lortu zuen eskualdea” (1988c, II: 1.016) da. Era berean:

No es dudoso que el vascuence se conservó, ya desde la época imperial romana, en la medida en que no fue destruida la sociedad gentilicia a la que servía de instrumento de comunicación, y de instrumento muy útil a juzgar por el apego que le mostraron sus usuarios. Algo debió de quedar de esta sociedad gentilicia o tribal (...) en el reino de Navarra, a partir del siglo IX (...). A fin de cuentas, no se puede poner en duda que muchas huellas de la organización social tradicional han seguido vivas durante largo tiempo, puesto que al menos sus rastros han llegado hasta nuestros días.

(1985: 218)

37. Ikus, orobat, “Las lenguas y la política” artikuluan: “Se trata, en último término, de la adhesión o despego de una comunidad respecto a su lengua” (1985: 185).

38. “Euskararen bide luze bezain malkarrak” idazlanean ere “gune trinko bat” eta “listuz joan” diren ertzak bereizi zituen Mitxelenak (1988c, II: 1.016).

*Erro sendoak zituen euskarak euskal gizartean.* Gizarte-eredu horretan sustrai sakonak zituen euskarak eta haiek zer nolakoak ziren aztertzea ikergai gisa erakutsi du Mitxelenak: “Bistan daukagu euskarak erro sendoak zituela gure herrian landatuak, eta komeni genuke orain artekoak baino ikerlan sakonagoei ekingo bagenie zer-nolakoak ziren jakiteko” (1988c, II: 950).

*Barne erabilera handia eta prestigio soziala.* Barne erabilerak lehenago jaso dudak “barren” eta “kanpo” bereizketarekin du zerikusia. Euskara euskaldunen eguneroko hizkuntza omen zen, familia eta herri mailan bederen, nahiz eta idatzia izatera ez igaro:

El vasco era la lengua de la intimidad familiar y de las relaciones privadas, pero no intentó competir sino en muy escasa medida con el latín y luego con el romance en la vida pública. Para hablar de un modo más preciso, no es que el vascuence no tuviera su lugar, que en muchas partes y momentos debió ser casi exclusivo, en la administración municipal y aun en esferas más elevadas (...)

(1988b: 14)

Prestigioaz ez naiz gehiago arituko, baina garbi dago ezagutza ezezik, erabilera eta motibazioa —prestigioa, leialtasuna...— ere biltzea lortzen zuen tokietan, euskarak bere iraupena bermatu egiten zuela, neurri batean bederen.

*Euskararen transmisio naturala.* Hizkuntzaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa familian eta herrian bideratzen zen: “la transmisión de la lengua se producía antes en el ámbito natural de la familia y de la comunidad local” (1985: 227).

*Beste faktore batzuk: emigrazioak ekartzen zuen oreka demografikoa eta bertoko erakundeen babes.* Industri iraultza gertatu arte Euskal Herria emigrazioko lurraldea zen, ez inmigraziokoa, eta horrek gainpopulazioa arindu egiten zuen. Etorkinak gutxi ziren eta etortzen zirenak bertako ohiturei, baita hizkuntzari ere, egokitu egiten zitzaizkien (1985: 159). Bestalde, Euskal Herriak bere erakundeak XIX. mendera arte eduki izanak hizkuntzari babes eman ziola behin eta berriro adierazi du Mitxelenak, arestian ikusi dugunez.

### *Euskararen atzerakada*

Mendeetan zehar pairaturiko atzerakada gertaera nabarmena da euskararen historiari aritu diren guztientzat, baita Mitxelenarentzat ere. Honen aipamena ia bere idazlan guztietan aurki dezakegunez, erreferentzia bakar bat emango dut: “lo vasco —y aquí vasco significa siempre vasco de lengua— es un carácter recesivo, no dominante, y recesivo en varios sentidos” (1987a: 60), non alde geografikoak eta sozialak biltzen zituen.

Euskararen eremuetan gunea eta ertzak berezita, eta bereizketa, gero ikusiko dugunez, guztiz egokia da, gibelatzea “ertzetan listuz” (1988c, II: 1.016) gertatu da eta bere arrazoiak, erdararekiko ukipenez gain, XVIII. mendearen bigarren erdian hasi zen prestigioaren hausturan bilatu beharko ditugu: “está por estudiar, si se deja aparte la condición fronteriza, el motivo de que el prestigio que hemos atribuido a la lengua empiece a sufrir grave merma en Navarra, como en Alava, ya probablemente en la segunda mitad del siglo XVIII” (1987a: 82).

Nafarroako gibeleratzea eragin duten zenbait faktore erakutsi zituen Mitxelenak (1988c, II: 1.017): “Independentziako gerratea eta, are gehiago, hogeit urte ondotik darraion lehen karlistada”; Iruñeko galera, “luzarora (...), aldaketen arrazoi nagusia” izango zena; “1872-76.eko gerra zibila”; eta “azken urte honetako lege deuseztatzailea”, besteak beste.

Atzerakada, hala ere, ez da, erromatarren aroan eta duela oso gutxi-ko garaietan (frankismoan?) izan ezik, euskara desagertzeko zorian benetan jartzera iritsi: “Lo que sí quiero subrayar, porque acaso no se insiste lo bastante sobre ello, es que en el pasado la lengua vasca, hasta tiempos muy recientes, no ha conocido más que un momento en que el riesgo de desaparición fuera inminente: la época romana. (...) Lo que subrayo no es el riesgo, sino su inminencia” (1985: 157).

Ikertzaile gehienekin bat datozen arrazoi ugari ere eman zituen Mitxelenak, eta ez ditut errepikatuko. Dena dela, euskararen galeraren sakoneko arrazoiak bilatuko badira, eman ohi direnekin ez zen asetzen Mitxelena. Adibidez, utzikeriaren —euskaldunen utzikeria— eta zapalkuntzaren —kanpoko eta bertakoen zapalkuntza— artean mugitzen diren azalpenak, gehienak, egia esatera, ez dira aski: “Si pasamos a la decadencia o a la pérdida misma, es altamente probable que no hayan influido sólo en ello la imposición o la desidia, por muy reales que fueran” (1987b: 12).

### *Nafarroako euskararen historiak landu beharko lituzkeen gaiak*

Jadanik jasoak ditugun irizpide eta azterketa orokor baliotsuak eskaintzeaz gain, Nafarroako bilakaeran sakontzeko bide anitz erakutsi zituen Mitxelenak. Hona hemen horietako batzuk.

Erromatarren garaietatik datorren *Saltus* eta *Ager Vasconum* —lat. *saltus*= basoa, oihana; lat. *ager*= lurralde landuak, gutxi gorabehera— izeneko lurraldeen arteko bereizketa, Erdi Aroko banaketa sozial eta linguistikoa, Nafarroako erresuma eta hango eleaniztasun historikoa, guztiak Nafarroako hizkuntz historia sakonki baldintzatu duten gertaerak izaki.

Beste arazo bat XVIII. mendearen bigarren aldirian hasi zen euskararekiko jarrera aldaketa, prestigioaren puskaketa, dugu. Hau azaltzeak Nafarroako euskararen historiaren gunera garamatza eta Mitxelenak ikertu beharreko gaitzat jo zuen. Horri lotuta, XIX. mendeko gertaerak

eta euskararen bilakaeran eduki zuten eragina: 1808ko Independentzi gerra, gerra karlistak, Iruñearen erdalduntzea, 1876ko Foruen deusezta-pena...

Nafarrek ez dute euskara jasotzeko ardurarik erakutsi eta hau konstante historiko bat izan da: “Nafarroan, zoritxarrez, eta arrazoi-bila hasi beharko dugu noizpait, (...) ez zuten, halaz guztiz, hizkuntza jasotzeko lehia sutzurik agertu: ikus, adibidez, Beriain, Elizalde, argitaratuak zeuden eta argitaratzen ari diren dotrinak... Elkanoko Lizarraga bera zein ere garbizale eta landu agertu nahi duen hiztegiari buruz, ez du joseran Mendibururen urrutiko antzik ere” (1988c, II: 917).

Goikoez gain, Nafarroako euskal literaturaren urritasuna dugu azaldu beharreko beste gai bat (1987a: 82).

### *Mitxelenaren ekarpena. Laburpena*

Azterketa luze honek Mitxelenaren idazlanen hiru ezaugarri nagusi erakutsi dizkigu: (1) topikoak puskatu eta ohiko iritziez haratago joateko joera, (2) euskararen iraupena azaltzeko nahia eta (3) hipotesi eta ikerbide berrien adierazpena. Lehenengo biak jadanik aski azalduak ditugunez, Mitxelenak iradoki zituen ideia, hipotesi edota ikergai berrietara mugatuko naiz.

Maila orokorrean: azterketa soziolinguistikoaren beharra erakutsi ondoren, hizkuntzaren iraganeko gizarte-egoera desberdinak neurtzeko “diglosia” (goi/behe) baino kontzeptu egoki edo zehatzagoak behar direla argi utzi du. Adibidez: barne (komunitate barneko bizitza)/kanpo (komunitatetik kanpokoa) bereizketa.

Euskararen historian: bere subjektua hitzunak dira, euskaldunak. Iraupenaren arrazoiak sakoneko ikergaitzat hartu beharra. Euskararen sustriak euskal gizartean eta bertan zuen prestigioa zer nolakoak ziren zehaztu beharra. Euskararen nondik norakoa ulertzeko euskal kulturara jo beharra. Atzerakada azaltzerakoan zapalkuntzan edo utzikieran ez gelditzeko deia.

Nafarroako euskararen historian: Nafarroako Erribera eta euskara. Nafarroako hizkuntz eta kultur aniztasun historikoaren sustriak. Nafarroako erresuma eta euskara. Nafarroako hizkuntz eremu historikoak —eremu euskaldunaren gune trinkoa, eremu euskaldunaren ertzak eta eremu erdalduna— eta banaketa horrek izan dituen ondorioak, eremu bakoitzak dinamika berezia izan du eta. Prestigioaren galeraren hasiera XVIII. mendearen bigarren aldian. XIX. mendeko gertakarien eragina. Nafarren ekarpenaren urritasuna euskal literaturan zein euskara jasotzeko ahaleginetan.

Oro har, bai euskararen iraupenaz, bai bere atzerakadaz eta baita XX. mendera arteko aldietan izan duen gizarte-egoeraz ere, erantzun desegoki edo anakronikoak baztertu eta galdera eta arrazoi berriak adierazteko

eskatu du Mitxelenak. Beste hitzetan esanda, *euskararen historia sozio-linguistiko berrirako gai nagusiak* aurki ditzakegu Mitxelenaren obran.

Interpretazioaren ardatzak jadanik 1960-1964 urteetan adieraziak zituen, Nafarroako azterketaren muina 1971ko idazlanetan agertzen da eta, alde horretatik, 1983 eta 1984. urteetan plazaratu zituen ideiek berberak izaten segitu zuten azken batean. Gauzak horrela, harrigarriena Mitxelenak euskararen historiari adierazi zituen bidez ia inor ohartu ez izana da. Arrazoiak, Mitxelena egitan irakurria izan dela suposatuzat emanez, berarengana hurbildu direnen ikuspegiak bilatu beharko genuke. Gogoan ditugun kontzeptu edo ideien arabera arreta errealtatearen alderdi desberdinetan jartzen dugu, gainerakoak alde batera utziz, eta, gure kasuan, “euskararen heriotzaren” paradigmatik egindako irakurketek euskararen biziarekin erlazionaturako gaietan ez erraparatzera eraman dituzte ikertzaileak. Eta ez ohartzeko hau da, nire ustez, Mitxelenaren irakurketa soziolinguistiko zehatza egin nahi izan duen Jose Manuel Odriozolari (1992-1993) gertatu zaiona, adibidez.

#### 2.1.4 Euskararen historiografiaren azterketa: ondorioak

Zehaztasun handiaz egin dut euskararen historiografiaren azterketa, nire asmoa euskararen historiari jardun dutenen galdera nagusiak eta iker-guneak zein izan diren, zer azalpen motak eman diren eta agertzen diren ikergai berriak zein diren ezagutu eta neure burua korrante horren aurrean kokatzea baitzen.

Oro har, bi izen nagusi daude euskararen historiografian: Arturo Campion eta Koldo Mitxelena, Sanchez Carrion, azkenaldiko bilakaerari dagokionez, ahaztu gabe. Arturo Campionek orain arte indarrean egon diren hainbat bide interesgarri zabaldu zituen; beranduago Mitxelena etorri zen, ikuspegi desberdinak erabili eta aurrerapauso nabarmena emateko hipotesi eta oinarriak iradokiz, bere ekarpenak ia oharkabean gelditu arren.

##### *Landutako gaiak*

Gehien landu diren gaiak euskararen geografia historikoa eta atzerakadaren arrazoiak —kanpokoak nahiz barnekoak; politikoak zein sozialak— dira, Arturo Campion eta bere lankideek jadanik mende hasieran jorratuak zituzten arloetan segituz. Beste maila batean, mugimendu abertzaleak nahiko ikertuak izan dira: foruzaletasuna, Arturo Campionen ideologia, EAJren zenbait aldi...; ezagunak dira halaber, baina ez hainbeste, elkarte eta ekimen euskaltzaleak, eta aipatzen direnean maiz abertzaletasun orokorraren agerpenen artean izaten da.

##### *Ibiltzeko bide berriak*

(a) Euskararen historiografiaren hutsunerik deigarriena euskal hizkuntz komunitatearen ausentzia da. Nafarroan euskara izan bada, eus-

karaz minzatu den giza talde bat izan delako da. Nafarroako euskararen historia talde euskaldunaren historia da. Talde horrek egituraturik iraun duenean euskarak ere iraun egin du eta hizkuntz komunitatea desegituratu den lekuetan, euskara desagertu egin da. Euskal hizkuntz komunitatearen ezaugarri linguistiko-kulturalak ezagutu behar ditugu, hortaz, eta hizkuntzaren transmisio mekanismoak eta beren indarraren iturriak. Halaber, euskarak euskaldunentzat zituen balio praktikoa eta prestigioa ulertuko ditugu horrela. Ezagutu behar dugu, nola ez, transmisio mekanismoak nola puskatu diren eta zergatik. Hau da, azken batean hautapen kolektiboen aurrean gaudelako, zergatik hautatu den alde batzuetan seme-alabei euskara irakasten segitzea eta beste batzuetan, berriz, ez segitzea. Ezaugarri sozio-kultural berdinak ala desberdinak zituzten bi aldeek, euskara baztertzea erabaki zuenak eta euskarari eutsi dionak?

Ikergaiak, beraz, euskal hizkuntz komunitatea, bere ezaugarri etnolinguistikokoak, bere bizitza, ugalketa eta transmisio mekanismoak (irau-pena, azken batean) eta haien puskaketa (galera) dira. Halaber: talde euskaldunaren eta erdaldunaren arteko ukipena eta horren ondorioak.

(b) Ikergai zehatzagoak: Nafarroako hizkuntz tradizio historikoa; Foruak eta euskara; XIX. mendeko jazoerak; gertaera horien eragin material eta ideologikoa eta euskararen bilakaeran izandako ondorioak.

(c) Benetako aurrerapausoa izango bada, honako ezaugarri hauek eduki behar ditu Nafarroako euskararen historiaren ikerketak:

-ohiko azalpen ereduaz haratago joan nahi izatea, borondate hori aldaketa metodologikoan gauzatzen dela jakinik;

-soziolinguistika zientifikoaren barruan kokatzea;

-ikuspegi disziplinarteko eta konparatiboa garatzea.

## 2.2 Gaztelaniaren eta frantsesaren historiografia gainerako hizkuntzen aurrean

Gaztelania eta frantsesaren historia-liburuei alde askotatik hel bada-kieke ere, nik bi hizkuntzen historialari nagusiek erabili dituzten hizkera eta ikuspegiak aldetik irakurri ditut, euren hizkuntzei buruz nahiz gainerakoei buruz mintzatzen direlarik baliatzen dituzten hizkera motak eta hauen azpitik dauden ikuspegi ideologikoak argitzeko asmoz. Xedea ez da, beraz, eman dituzten datuen egiazkotasuna epaitzea, are gehiago, albiste gehienak, banaka hartuta, kalitate handiko ikertzaileengandik datozelarik, zuzenak direla esan genezake<sup>39</sup>. Helburua, esan bezala, jazo-

---

39. Esate baterako, ukaezina da Menendez Pidak euskararekiko erakutsi zuen arreta, iritzi orokorretan sartu gabe. Ikus, adibidez, 1918. urteko "Sobre las vocales ibéricas e y o en los nombres toponímicos" artikulua (Menendez Pidal 1952), non, besteak beste, Pirinioetako euskararen aztarnak aztertzen diren, Joan Corominasek geroago egingo zuen bezala.

eretara hurbiltzerakoan darabilten ikuspegia nabarmentzea da. Sintesi bat egin dut, eta, sintesi guztiak bezalaxe, sinplifikatzailea da neurri batean, baina, hala ere, jasotako adierazpenen jatorrizko zentzua faltsutu ez izana espero dut.

### 2.2.1 Gaztelaniaren historiografia

Gaztelaniaren historien adierazle gisa Ramon Menendez Pidalen *Manual de gramática histórica española* (Menendez Pidal 1985) eta Rafael Lapesaren *Historia de la lengua española* (Lapesa 1981) hartu ditut aztergai.

#### 2.2.1.1 Menendez Pidal

Menendez Pidak ek arreta gaztelaniaren eraketa fonetiko eta morfologikoari eskaini bazion ere, latin arruntetik datorren bideari so eginez batik bat (Menendez Pidal 1985: 30), gaztelaniaren bilakaera historiko orokorraz zenbait zertzelada aurkitzen ditugu bere historiaren lehenengo kapituluan. Hizkuntzaren izenari dagokionez, “castellano” baino “lengua española” nahiago du (ibid.: 2), 1920-30eko hamarkadetako eztabaidetan ere aldarrikatuko zuenez (Gonzalez Olle 1978). Zergatik? Espainiako beste erregioetako hizkuntzek baino literatura inportanteagoa eman duelako eta Leongo, Nafarroako eta Aragoiko erromantzeak irentsi zituelako:

El castellano, por servir de instrumento a una literatura más importante que la de las otras regiones de España, y sobre todo por haber absorbido en sí otros dos romances principales hablados en la Península (el leonés y el navarro-aragonés), recibe más propiamente el nombre de lengua española.

(ibid.: 2)

Edozein modutan, gaztelania “nuestro idioma” (ibid.: 30) da eta Ameriketara zabaldu eta gero, “ha venido a ser la lengua romance que ha logrado mayor difusión” (ibid.: 2). Beste une batean, arabierak gaztelanian utzitako aztarnei buruz ari zelarik (ibid.: 22-24), “gu”, “nuestra cultura”, kristauak, “cristianos”, gara eta “haiek”, “moros” edo, behin bakarrik, “conquistadores de lengua árabe” ziren, eta betiere, “conquistadores” edota “invasores”.

Gaztelania latinaren jarraipen modernoa da, are gehiago, “podemos decir que aun hoy día siguen hablándolo, claro es que muy transformado” (ibid.: 1) eta, ulertzera ematen zaigunez, latinak beste hizkuntzekiko jokatu zuen era berean jokatuko zuen bere ondorengoa zen gaztelaniak ere. Latinaren hedapena horrela gertatu zen Iberiar penintsulan:

(...) [erromatarrek] gracias a su poderío político, a su talento administrativo y a su cultura superior, romanizaban rápidamente las razas sometidas y les hacían ir olvidando su idioma nativo, que no podía menos de resultar pobre e insuficiente para las complejas necesidades de la nueva vida que la colonización traía consigo.

(ibid.: 2-3)

Gainera, latinaren inposaketak, aurreko hizkuntzen galera, “salvo el vasco” (ibid.: 15), bultzatu bazuen ere, funtsean, ezer baino gehiago onurak ekarri zizkien jatorrizko biztanleei:

Además, la imposición de una lengua tan difundida como el latín, aunque molestara cariños y vanidades patrióticas, resultaba cómoda y útil para el comercio y la cultura; así que los idiomas nacionales se olvidaron casi del todo (...)

(ibid.: 3)

Gaztelaniaren Iberiar penintsulako beste hizkuntzen gaineko zabal-kuntzaz ez da mintzatzen, baina bai, ordea, Amerikako kolonizazioaz. Han, latinak penintsulan lehenago egin bezalaxe, espainolak Amerikako hizkuntzak garaitu egin zituen, hizkuntza haien ahultasuna beren ugari-tasuna eta, gaztelaniarekin alderatuta, garapen txikiagatik azalduz:

(...) el descubrimiento y colonización de América puso al español en contacto con la muchedumbre de lenguas del Nuevo Mundo. Claro es que por su inferior desarrollo respecto del español y por su mucha variedad, las lenguas americanas no pudieron resistir la invasión de la española. Esta se propagó con relativa facilidad, pero sin eliminar por completo los idiomas indígenas (...)

(ibid.: 28)

Gaztelaniaren filologian bideak ireki zituen Menendez Pidalen hitzei mezu ideologiko garbia darie. Alegia, “gu” espainol eta kristauak gara eta espainolez mintzatzen gara. “Gure” kultur jatorria erromatarrengan dugu, ez haien aurreko kultura ahul desagertuetan, eta latinaren hedapena, bortxazkoa nahiz borondatezkoa, denentzat, baita garaituentzat ere, onuragarria izan zen bezalaxe, gaztelaniaren hedapena ere denentzat onuragarria da. Soilik kultura eta hizkuntza indartsuek irauten dute eta, garaian garaiko aurrerapenaren beharrei egokituak ez dauden hizkuntzen desagertpenaz kezkatuta, haien ezarpenari kritikak egitea hutsalke-rietan galtzea besterik ez da.

Euskarari dagokionez, aipamenak gutxi dira eta ez du hitz nabarmenik erabiltzen, baina, erromatarren aurreko hizkuntza denez, haien aje berberak jota dagoela uler dezakegu, hau da, “pobre e insuficiente para las complejas necesidades de la nueva vida que la colonización traía consigo” (ibid.: 3).



### 2.2.1.2 Rafael Lapesa

Rafael Lapesak irakasle izan zuen eta hitzaurrean babesa eman zion Menendez Pidalen ikusmolde berdinei jarraitzen die, baina, besarkatu-tako epea egun arte iristen denez, eta kontaktaren hari nagusian ematen dien garrantziagatik, ugariagoak dira gaztelaniaren historia sozialari buruzko iritziak.

Lapesaren *Historia*-ren subjektua gaztelania edota gaztelaniaz hitz egiten duen giza taldea dugu, gaztelaniaren hizkuntza komunitatea esango genukeena. Kontagaia hizkuntza horren garapen linguistikoa nahiz Gaztelako konderriko garaietatik Espainia eta Latinoamerikako hizkuntza bihurtu arte izandako hedapena ditugu. Gaztelaniaren hizkuntza komunitatea Lapesarentzat erdigunea Espainian duen eta herri hispanikoetara zabaltzen den giza taldea denez, garbi dago bere bilakabidean jauzi bat gertatu dela eta gaztelaniak hasieran ez zituen, alegia, beste hizkuntzetan mintzatzen ziren, hiztun multzo ugari bereganatu dituela. Bilakaera hori, jatorrizko mugak gainditu eta besteen eremuetara hedatu izana, Lapesak nola azaltzen duen argitzea da hurrengo paragrafoen zeregina. Arreta, ondorioz, gaztelaniari eta bere hiztunei emandako tratamenduan, alde batetik, eta gainerako hizkuntzei eta beren hiztunei emandakoan, bestetik, jarri beharko dugu.

Gaztelaniaren hedapenaren onespén eta gorai-pamena dira Lapesaren testuaren ezaugarri nagusiak, liburuaren aurkezpenean adierazten zaigun bezala:

(...) es la vida misma del español por excelencia —el castellano— lo que vemos surgir y desarrollarse, etapa tras etapa, desde sus humildes orígenes dialectales hasta ser la lengua de España y de la comunidad de los pueblos hispánicos.

(1981: atzeko azala)

Gaztelaniaren nagusitze bilakaerak bi alde ditu, Espainiako hizkuntza batasuna eta atzerriko zabalkuntza, 1492 inguruko une “zorionekoaren” iruzkinean azaldu digunez:

El proceso lingüístico de unificación y expansión coincidía con el afortunado momento histórico en que las energías hasta entonces dispersas se congregaban para fructificar en grandiosas empresas nacionales.  
(ibid.: 288)

### *Gaztelaniaren tratamendua*

Gu, subjektua, era desberdinetan izendatzen du Lapesak: “todo hispanohablante” (ateko azala), “todos los españoles” (ibid.: 192), “España” (ibid.: 291), eta abar. Espainiera —“la lengua española”—

horrenbestez, “nuestro idioma” (ibid.: 293) da, irakurlea ere barnean hartuz.

Subjektu hau hainbat balore, egitasmo edota ezaugarriekin lotuta agertzen da kontaketan zehar. Espainia eta kristautasuna hasieran, eta, zehazkiago, katolizismoa gero, guztiz lotuta agertzen dira. Horrela, erromatarren garaian “Hispania ofrendó a la fe salvadora la sangre de sus numerosos mártires” (ibid.: 65), XIII. mendean “el empuje cristiano” (ibid.: 190) areagotu egin zen eta XVI. mendean “[España] se empeña en la defensa del catolicismo” (ibid.: 291).

Bereziki azpimarragarria da, bere ondorio sakonengatik (ikus 3.3 atala) Espainiaren, Mendebaldeko zibilizazioaren eta latinaren artean ezarri duen segida. Erromako estatu unibertsalaren disziplinean jadanik osatua eta batua genuen “el Occidente europeo” (ibid.: 54), honek, Mendebaldeko zibilizazioak, “ha heredado el latín (...) como lengua hablada, madre de los idiomas románicos, y como vehículo universal y permanente de cultura” (ibid.: 107) eta Erdi Aroan zibilizazio honen defentsaren ardura Espainiak hartu zuen: “Durante la Edad Media, España había defendido la suerte de la civilización occidental” (ibid.: 291). Orobat, Aro Modernoan “se lanza con Carlos V a regir los destinos de Europa” (ibid.: 291). Haiek guztiak “gure” arbasoen —“nuestros mayores” (ibid.: 291)— eginak eta, halaber, “una aleccionadora afirmación de dignidad y hombría” (ibid.: 291) izan ziren.

Gaztelania goi mailako eginkizunei loturiko kultur eta literatur hizkuntza dela garbi uzten du Lapesak. Adibidez, XVI. mendearen hasieran literatur hizkuntza zen, katalaneraren kalterako: “La difusión del castellano como lengua literaria se intensifica en las regiones catalanas” (ibid.: 285). Berdin gertatzen zen Portugalen, non “Gil Vicente emplea el castellano en sus obras más elevadas y cortesanas” (ibid.: 285). Kristobal Kolonek berak ere “escogió el castellano como lengua de cultura” (ibid.: 286). Oro har, agerian zeuden garai haietan “los triunfos de nuestras letras en el extranjero” (ibid.: 292). Eta Espainian ere bai, gaztelania berehala “instrumento de comunicación y cultura válido para todos los españoles” (ibid.: 192) bihurtu baitzen eta, horren ondorioz, “la unidad lingüística del centro de la Península estaba casi consumada” (ibid.: 281). Era horretan, “el castellano, que había obtenido superior consideración social, era vehículo de amplia y brillante cultura” (ibid.: 463).

Gogoan hartzekoak dira, orobat, gaztelaniaren irakaskuntza gramatikala, ez soilik familiakoa, erabiltzera igaro zen garaiaz mintzatuz eman dituen arrazoiak, gaztelaniari bai eta euskarari, berriz, hainbat mendetan onartuak izan ez zaizkionak:

En agosto de 1492, salía de la imprenta la *Gramática* castellana de Antonio de Nebrija. El concepto de “artificio” o “arte”, esto es, regulación gramatical, estaba reservado a la enseñanza de las lenguas cultas, esto es, latín y griego: era una novedad aplicarlo a la lengua vulgar, pues se creía que,

aprendida de los labios maternos, bastaban la práctica y el buen sentido para hablarla debidamente.

(ibid.: 288)

Lapesak nabarmentzen duen gaztelaniaren beste ezaugarri nagusi bat bere bizitasuna da. Zertan nabaritzen da bizitasun hau? Bere hedatzeko ahalmenean, batez ere: “La crisis espiritual y política atravesada por el mundo hispánico a partir del siglo XVIII no ha restado vitalidad a nuestro idioma, que, lejos de manifestar síntomas de decadencia, ha quintuplicado su número de hablantes” (ibid.: 462). Gaztelaniaren bizitasuna erakusten duen bigarren ezaugarria bere batasuna da: “La vitalidad de la lengua española se revela no sólo en su creciente difusión, sino también en la fundamental unidad que ofrece, a pesar de usarse en tierras y ámbitos sociales tan diversos” (ibid.: 465).

Gaztelaniak bere garapen eta hedapenaren aldeko borrokan izan dituen erronken artean lau dira nagusi:

-Espainiaren konkista, Lapesaren ustez XVI. mendean burutu zena: “El castellano, lengua española” (ibid.: 297);

-munduaren konkista, nazioarteko hizkuntza unibertsala izatera iritsiz: “El español, lengua universal” (ibid.: 296);

-latinarekiko borroka;

-atzerriko hizkuntzen, eta, bereziki, frantsesaren, eraginaren aurreko defentsa (ibid.: 427, 456).

### *Gainerako hizkuntzen tratamendua*

Hierarkian gaztelaniaren kideztat jotzen dituen frantsesa, ingelesa edo alemana bezalako hizkuntzei buruz begirunez mintzatzen da Lapesa. Sarritan lehian egon da gaztelania hizkuntza horiekin eta, jakina, bere mugak zaindu beharra du, baina, hala eta guztiz ere, “como consecuencia del influjo francés en los más diversos órdenes de la vida” (ibid.: 454) galizismoak jasan behar izaten ditu. Ingelesaren eragina “primero con su literatura y pensadores, más tarde por prestigio social” (ibid.: 457) gertatzen da eta alemanarena, askoz txikiagoa bada ere, filosofia edo zientzien alorreko terminologian nabaritu da. Hizkuntza horiek, beraz, arrasto nabaria utzi dute gaztelanian, baina haiak “gure” hizkuntzaren mugak gainditzea lortu duten bezalaxe, “gu” ere harro egon gaitzke XVIII. mendera arte gaztelaniak beraietan izan zuen eraginaz: “Durante el Siglo de Oro los extranjerismos adoptados habían tenido por contrapartida la abundante exportación de voces españolas, representativas de nuestra profunda influencia en la vida espiritual y material de Europa” (ibid.: 460), hau da, “introducción de numerosos hispanismos en otras lenguas” (ibid.: 293).

Latinarekiko borroka amarekiko independentzia aldarrikatu nahi duen hizkuntza batena moduan ulertu behar da. Hor ez da inolaz ere

latinaren gutxiespena egiten. Latina “lengua común del mundo civilizado” (ibid.: 299) zen Berpizkundearen garaian eta gaztelania eta beste hizkuntza erromantzeen erronka zibilizazio esparruak bereganatzea zen. Latinarekin izan zuten lehia hizkuntz kontzientzia handiago baten adierazle (ibid.: 299) izan zen eta estatu modernoek sortze uneko asaldura nazionalistaren giroan ulertu behar dela dio: “la exaltación nacionalista que acompañó a la creación de los Estados modernos no podía menos de reflejarse en un mayor aprecio de las lenguas nacionales” (ibid.: 299).

Oso bestelakoa da, aitzitik, Lapesak penintsulako eta kanpoko beste herri eta hizkuntzekiko erakusten duen jarrera.

“Kristauok” “los moros” (ibid.: 190) kanporatzeko borrokatu ginela dio, Mendebaldeko zibilizazioa “de la amenaza musulmana” (ibid.: 291) babes-tuz. Karlos I.arekin katolizismoaren defentsan atera ginen, “frente a protestantes y turcos” (ibid.: 291) eta Ameriketako Isabel Katolikoak, Nebrijaren hitzetan, baina Lapesaren adostasunaz, “muchos pueblos bárbaros e naciones de peregrinas lenguas” (ibid.: 289) jarri zituen bere uztarripean.

Penintsulako hizkuntza eta herriei dagokienez, hauxe esan daiteke. Antzinako herrien erromanizazioa, euskaldunena izan ezik, borondatez gertatu zen (ibid.: 27, 56), Menendez Pidal bere maisuak esana zuenez. XII. eta XIII. mendeetako mozarabierak “hablas decadentes” omen ziren eta “no pudieron competir con las que llevaban los conquistadores, más vivas y evolucionadas” (ibid.: 189). Beranduago, “el castellano redujo las áreas de los dialectos leonés y aragonés, atrajo a su cultivo a gallegos, catalanes y valencianos, y de este modo se hizo instrumento de comunicación y cultura válido para todos los españoles” (ibid.: 192), eta, noski, leonera “habla rústica” zen (ibid.: 281). XVI. mendean “con el auge del castellano coincide el descenso vertical de la literatura catalana” (ibid.: 297-298) eta hainbat faktorek “acabaron por recluir al catalán en los límites del habla familiar” (ibid.: 298). Portugesez egiten zena “literatura vernácula” (ibid.: 298) zen eta “Gil Vicente emplea el castellano en sus obras más elevadas y cortesanas, mientras escribe en portugués las de carácter más popular” (ibid.: 285); era berean, “algunos elogian el castellano como lengua más universal que el portugués” (ibid.: 298).

Bilakabide osoan gaztelaniaren eraginak “ha actuado sin interrupción sobre las zonas de otros idiomas” (ibid.: 462) eta “en España no hubo región donde no ganara terreno el castellano” (ibid.: 463). Katalanaren beheerakada areagotu egin zen XVIII. mendean eta XIX.aren zati batean eta, oro har, “en contraste con la escasa o nula importancia de las creaciones vernáculas, las regiones bilingües dieron valiosas figuras a la literatura nacional” (ibid.: 463). Erromantizismoarekin “despertaron de su letargo las literaturas regionales” (ibid.: 463), baina “la elaboración literaria del catalán, la menos sostenida y menos extensa del gallego, y los intentos de capacitar al vascoense como lengua de cultura, no impidieron que continuara la aportación de las respectivas regiones a la literatu-

ra nacional en castellano” (ibid.: 463). Gaztelaniaren eragina gero eta handiagoa izan da “erregioetako hizkeretan” eta, euskarari dagokionez, “no es de extrañar, por tanto, que el área del vascuence sufra constante reducción” (ibid.: 464).

Estatu espainoleko hizkuntzetan, literatur garapenez den bezainbatean, mailaketa bat egin du. Gaztelania aurrena, noski —“la literatura nacional en castellano”— eta gero “erregioetako hizkuntzak”. Hauen artean, katalanak literatura bat sortzea lortu du, galizierak ere bai, nahiz eta urriagoa izan eta, azkenik, euskara dugu, kultur hizkuntza izatera iritsi ez dena, oraindik gaitasuna erdiesteko ahaleginetan omen dabilena.

Horrela gauzatu da, bada, kontra-azalean egin digun asmoen aurkezpena: “Asistimos, pues, a la evolución esencial de nuestro idioma (...) sin que se oscurezcan en ningún momento las relaciones íntimas con las demás lenguas —tan hermosas también— de la geografía española”. Penintsulako gainerako hizkuntzen “edertasunaren” aitortzea gogoan edukitzekoa da, antzeko aitortpenak erruz aurkituko baititugu XIX. mendeko idazleengan, baita erdaltzaleengan ere (ikus 7.3 atala).

Penintsulaz kanpoko hizkuntzen artean Europakoak eta Ameriketakoak daude. Europako hizkuntzekin edukitako harremanez dagoeneko hitz egin dugunez, Ameriketako hizkuntzak gelditzen dira. Hauek batzuetan “lenguas indígenas” edo “idiomas aborígenes” (ibid.: 537) dira, baina beste batzuetan ez omen dira “hizkuntza” izatera iristen eta “hablas indígenas” (ibid.: 551) baizik ez dira. Beste pasarte batean “lenguas generales” —hedapen orokorra zutenak: azteken nahuatla, inken kitxua...— eta “infinitas lenguas tribales” (ibid.: 541) edo “abigarrada multiplicidad de las lenguas aborígenes” (ibid.: 544) —hedapen txikikoak— bereizi ditu. Adjektibo hauek guztiak, funtsean, lehen aipatutako Nebrijaren ildotik doaz: “pueblos bárbaros e naciones de peregrinas lenguas”. Gauzak horrela, denok ulertuko dugu zer onuragarria izan den beraientzat “hispanohablantes” bihurtu eta “comunidad de pueblos hispánicos” osatzera iritsi izana, besteak beste, barbaro hutsak izatetik “250 millones de seres humanos” edo “hombres de todas las razas” (ibid.: 462) multzoen barruan onartuak izatera heldu ahal izateko.

Honaino iristen da Espainiako —Euskal Herria barne— hizkuntzalari belaunaldi bat baino gehiagoren maisua —“tuve, para ello, al mejor de los maestros: Rafael Lapesa” (Echenique 1987: 16)— izan den Lapesaren *Historia de la lengua española*-ko hizkeraren azterketa<sup>40</sup>. Liburu honek zein Menendez Pidalenak darabilten terminologia balore dikotomia garbian oinarritzen da: gauza bat opa diogu geure buruari eta beste bat, guztiz desberdina, besteei. Gurea bezalako hizkuntzek besteei

40. Agerian gelditu den pentsamoldea ez da salbuespen bat Rafael Lapesaren bila-kaeran. Ikus, adibidez, “España, creadora de una lengua universal” (Lapesa 1997) artikulua.

nagusitzeko eskubide osoa dute eta gurea bezalakoak ez direnei, berriz, mendekotasuna onartzea besterik ez zaie gelditzen. Azpian, honen paraleloa den beste dikotomia bat dago: Mendebaldeko zibilizazioa barbarotasunaren aurrean (indigenak, aborigeneak...). Eta funtsean, ortodoxia kristauaren defentsa, konkistaren ideia eta gaztelaniaren hedapenaren diskurtsoa lotuta agertzen zaizkigu. Errazago ikus daitezten, hona hemen sail bakoitzeko ezaugarriak taula batean bilduta:

Gaztelania	Gainerako hizkuntzak
“Nuestro idioma” latinaren oinordekoa “convertido en idioma nacional” “lengua universal” “más vivas y evolucionadas” “regulación gramatical” “lengua literaria” “vehículo de amplia y brillante cultura” “superior consideración social” “proceso lingüístico de unificación y expansión” “vitalidad”: “creciente difusión” eta “fundamental unidad” “hispanismos en otras lenguas” “reacción purista”	-Erromatarren aurrekoak: “pobres e insuficientes”, “idiomas primitivos” -Penintsulakoak: “hablas decadentes”, “no pudieron competir”, “habla rústica”, “descenso vertical de la literatura catalana” “habla familiar”, “craciones vernáculos”, “el área del vascuence sufra constante reducción”, baina “tan hermosas también” -Ameriketakoak: “muchedumbre de lenguas”, “inferior desarrollo”, “peregrinas lenguas”, “idiomas aborígenes”, “hablas indígenas” -Beste estatu-hizkuntzak: “influjo francés en los más diversos órdenes de la vida”, ingelesaren “prestigio social”, baina “extranjerismos”

Gu	Besteak
“España”, “comunidad de los pueblos hispánicos” “empuje cristiano” “defensa del catolicismo” “grandiosas empresas nacionales” “civilización occidental” “250 millones de seres humanos” “comunidad que abraza dos mundos y en la que entran hombres de todas las razas” “mayor conciencia lingüística”, “exaltación nacionalista” eta “aprecio de las lenguas nacionales”	-“Moros”, “conquistadores de lengua árabe”, “amenaza musulmana” -“frente a protestantes y turcos” -“pueblos bárbaros e de peregrinas lenguas” -“regiones bilingües”

Menendez Pidal eta Lapesaren terminologia hizkuntzen tratamenduan

## 2.2.2 Frantsesaren historiografia

Frantsesaren historiografiaren azterketarako Ferdinand Brunoten *Histoire de la langue française des origines à nos jours* (Brunot 1967) eta Marcel Cohenen *Histoire d'une langue: le français (des lointaines origines à nos jours)* (Cohen 1973) lanetan oinarritu naiz<sup>41</sup>.

### 2.2.2.1 Ferdinand Brunot

Ferdinand Brunoten *Histoire de la langue française* lan erraldoi eta klasikoak eskaintzen digun informazio aberatsa oso baliagarria izan zait beste zenbait gai aztertzerakoan —Frantziako hizkuntz eredia (3.4 atala) eta hizkuntzak nekazari gizartean (3.2 atala), kasu— eta frantsesaren bilakaeraz ezezik euskararenaz ere mintzatu zaigu lana osatzen duten liburukietan zehar. Alde horiek, beraz, geroago ukituko ditut eta oraingoan soilik erabili dituen hizkera eta ikuspegi lotuko natzaie.

Brunoten historia frantsesaren eta frantsesez mintzatzen direnen ikuspegitik garatua dago, gaztelaniaren historia bezala, eta ikuspegi horretan denak, hizkuntza, egilea nahiz irakurleak, sartzen ditu. Frantsesa “gure” hizkuntza da, “notre langue” (Brunot 1967, VIII: VIII. or.), “la langue de la France” (ibid., VII: 1) eta Frantziako gainerako hizkuntzak, berriz, “la foule des patois et des langues hétérogènes” (ibid., VII: 1) besterik ez ziren. “Patois” batean mintzatzen ziren lagunak “patoisants” (ibid., VIII: 1.072) ziren, eta frantsesez edo dialektoren batean mintzatzen ez ziren lurraldeak “provinces particularistes ou de langue hétérogène” (ibid., VII: 233). Bereizketa aseptikoagoa ere egin zuen: “Les pays à dialecte” eta “les pays à idiome” (ibid., IX: 164 eta 165). Frantsesez mintzatzen ez ziren Europako gainontzeko herriak, begirune handiagoaz, “pays de langue étrangère” (ibid., VIII: 1.198) ziren.

Frantsesaren historia, bada, bere konkisten historia da. XVIII. mendean “il conquérissait l'Europe, presque d'un élan” (ibid., VII: 1), eta batzuek “l'universalité de la langue française” (ibid., VIII: X) deitu zutena “langues concurrentes”-ekiko (ibid., VIII: 966) lehian, alemana eta ingelesarekikoan bereziki, gauzatu zen, nahiz eta Iraultzaren erasokortasunagatik “des fautes de divers ordres contribuèrent à précipiter le déclin de notre influence” (ibid., XI: 48). Frantzia osoaren konkista, geldoa XVIII. mendean eta azkarra XIX.ean, borroka bikoitz baten emaitza izan zen: “lutte contre le latin” eta “prévaloir sur les patois” (ibid., VII: 3).

41. Mota bereko ikuspegiaren oihartzunak harrigarriro William F. Mackeyrengan berarengan ere aurki daitezke (1994b). Guztiz bestelakoa da, ordea, frantsesaren bilakabidez Louis Jean Calvet-ek (1981b) eman duen azalpen kritikoa, baina lan hau eredu orokorra baieztatzen duen salbuespentzat har daiteke hain zuzen ere.

Mundu zabalean ere saiatu zen frantsesa hedatzen eta orduan ikuspegia eta hizkera guztiz garbiak dira: harremanak “avec les sauvages” (ibid., VIII: 1.091) eduki zituzten eta haien hizkuntzak “langues indigènes” (ibid., VIII: 1.103) ziren. Esklabotasuna izan zen herrietan “le langage des esclaves et gens de couleur” (ibid., VIII: 1.125) dugu eta kreolerak gauzatzean gatazka sortu zen: “Conflit du français avec le créole” (ibid., VIII: 1.146).

#### 2.2.2.2 Marcel Cohen

Marcel Cohenen *Histoire d'une langue: le français*-ek (Cohen 1973, 1. argitalpena 1947) ere antzeko terminologia erabili zuen, oraindik argiagoa, agian. Bereziki esanguratsua da Coheni buruzko azterketa, frantsesaren historialaria ezezik, soziolinguistikaren sortzaileetako bat —*Pour une sociologie du langage* 1956koa da— eta, aldi berean, zapalkuntza prozesuen kritikatzailer garbia ere badelako. Baina etxetik kanpo erakusten zuen zorroztasuna, nonbait, zeharo kamustu zitzaion bere hizuntzaz, frantsesaz, hitz egiterakoan.

Haren hitzetan, frantsesaren historiaren egitekoa batean biltzen diren bi bilakabideren berri ematea da, alegia, frantsesa Frantziar jabeztza lehena, eta, bigarrena, hiritarrek frantsesaren ondasuna bereganatzea: “Coup d’œil d’ensemble sur la conquête de la France par le français et la prise de possession du français par les Français” (ibid.: 404). Konkistaren ideia aski ikusia dugu Brunoten aipuetan nahiz gaztelaniaren kondairetan, baina ez hainbeste, ordea, bigarrena, frantsesaren hedapena demokratizazioaren izenean defendatzea: “Et maintenant, cette langue française cultivée (...) est devenue le bien de tout le monde; tout le monde en France, à Paris comme ailleurs, accède à ses richesses, à ses raffinements” (ibid.: 408-9).

Brunoten eta gaztelaniaren historiagileen antzera, Frantziako hizkuntzekiko eta latinarekiko borrokan kokatu zuen Cohenek frantsesaren zabalkuntza (ibid.: 304). Borroka jadanik Erdi Arotik zetorren, eta monarkia jaun feudalei nagusitu zitzaien bezalaxe, frantsesa ere gainerako hizkuntzei nagusitu zitzaien: “le français «francien» les a petit à petit dominés, pénétrés, puis éliminés, comme la royauté elle-même a peu à peu soumis les grands féodaux” (ibid.: 405).

Egungo frantsesaren lehentasuna bere aurrekaria izan zen latinarena-ekin parekatu zuen. Biak, bakoitza bere garaian, zibilizazio hizkuntza dira eta biek beren tokia hizkuntza ahulagoen aurka borrokatuz zabaldu dute:

Le latin, grande langue de civilisation, est devenu, sur le sol de l’ancienne Gaule, le français, grande langue de civilisation (...). La Gaule avait été soumise par l’armée romaine. Le latin, langue des Romains, était l’organe d’une civilisation matérielle notablement supérieure à celle des vaincus



(...) avec toute une littérature écrite tandis que celle des Gaulois était restée orale (...)

(ibid.: 404)

“Hizkuntza garailea = idatzia” eta “hizkuntza galtzailea = ahozkoa” paralelismoa gogoan edukitzekoa da, hau hizkuntzen artean hierarkia justifikatzeko askotan erabili izan den irizpidea baita.

Hizkuntz borrokaren adierazpen nagusia zibilizazio hizkuntzen arteko lehia omen da gaur egun. Frantsesa besteak bezalako kide bat besterik ez da hizkuntza modernoan multzoan, eta haiekiko lehian dago, baina, hala ere, denen artean europar zibilizazioaren batasuna osatzen dute (ibid.: 408).

Frantsesa zibilizazio hizkuntza den bitartean, Frantziako gainerako hizkuntzak, aldiriz, zaharren eta baseritarren hizkuntzak baizik ez dira:

(...) il y a bien quelques vieux qui ne savent que leur patois.

Et les autres Français, ils ne parlent que français?

Non pas, beaucoup parlent plus souvent un patois campagnard qui ressemble plus ou moins à du français sans en être, ou bien breton, ou bien basque, ou bien alsacien, que sais-je encore.

(ibid.: 9)

Hizkuntza horietako elebakarrak “réfractaires isolés” (ibid.: 305) dira. Bestalde, hizkuntza edo nazio batzuen eta besteen aldarrikapenak ez bide ziren berdinak Cohenentzat. Azken boladako hizkuntzen aldarrikapena berriki esnatu diren nazionalismo suminduei zor zaie: “L’esprit récemment réveillé et quelquefois exaspéré des nationalismes linguistiques, même petits, n’a pas été sans se faire sentir en France; un esprit particulariste, sinon autonomiste” (ibid.: 306), eta, hauek gogoko ez dituen bitartean, XVII eta XVIII. mendeetan gertatu zena desberdina izan omen zen: “affermissement des divers nationalités d’Europe, chacune avec sa langue” (ibid.: 406). Testuinguru hartan, “le français s’est alors assis, intérieurement poli, clarifié” (ibid.: 406).

Euskararen aipamena ez da falta Cohenen liburuan. Euskarak ez du atzera egin —“Le basque n’a pas reculé en France de manière très sensible” (ibid.: 304-5)—, baina, hala ere, nahiz eta txikia izan, bere barne ezberdintasunek euskaldunak beraien artean ezin euskaraz ulertzera eramaten dituzte: “Les parlars d’autre origine (...) sont diversifiés chacun dans leur petit ensemble; ainsi tous les Basques ne se comprennent pas entre eux” (ibid.: 304). Lapesarentzat (1981: 465) gaztelaniaren bizitasuna bere neurriak handitzeko ahalmenean eta bere batasunean erakusten zela gogoan edukita, ezaugarri horiek ez dituen, hau da, txikia den eta barne zatiketa handia erakusten omen duen hizkuntza bat, euskara,

gure kasuan, gain behera doala ulertu behar dugu Cohenen hitzetan, bizitzeko indarrik ez duela, beste modu batean esanda.

Bi autoreek, Ferdinand Brunot eta Marcel Cohen, beraz, kontrakotasun sistema garbian oinarrituriko eta inolako kritikarik gabe onartutako<sup>42</sup> hizkera zerabilten, ondoko taulan laburbilduta ikus daitekeena:

Frantsesa	Gainerako hizkuntzak
“Notre langue” “l’universalité de la langue française” “grande langue de civilisation” “conquête de la France par le français” “le bien de tout le monde en France”	-Frantziako beste hizkuntzak: “langue hétérogène”, “patois”, “langues régionales”, “diversifiés chacun dans leur petit ensemble”, “dominés, pénétrés, puis éliminés”, “campagnard” -Kolonietako hizkuntzak: “langues indigènes”, “langage des esclaves et gens de couleur” -Beste estatu-hizkuntzak: “Langues concurrentes”, “luttres d’influence entre les différentes grandes langues modernes de civilisation”

Gu	Besteak
-“La France” “tout le monde en France” -“affermissment des divers nationalités d’Europe, chacune avec sa langue”	-“Provinces particularistes ou de langue hétérogène”, “pays à idiome”, “patoisants”, “pays à dialecte”, “réfractaires isolés”, “l’esprit exaspéré des nationalistes linguistiques” -“sauvages”, “esclaves et gens de couleur” -“Pays de langue étrangère”

Brunot eta Cohenen terminologia hizkuntzen tratamenduan

### 2.2.3 Ondorioak

Bi taulak, gaztelaniarena eta frantsesarena, guztiz antzekoak dira eta paralelotasun handia erakusten dute. Laburbilduz, gaztelaniaren eta frantsesaren historiografiaren *subjektu* edo protagonista esandako

42. “Obsérvese la falta de distanciamiento de Brunot, que prácticamente asume el punto de vista de las cosas que describe” (Calvet 1981b: 153).

bi hizkuntzak dira, eta, beraiekin batera, beren hizkuntz komunitateak; *objektu* edo gai, berriz, euren hizkuntz garapena, zabalkuntza eta beste hizkuntzen gaineko nagusitasuna lortzeko ahaleginak ditugu. Nagusitasunaren justifikazio ideologikoa *etiketazioaren*<sup>43</sup> bidez lortzen dute: euren burua zibilizatutzat jotzen duten bitartean, besteak basati bezala etiketatzen dituzte. “Gure” hizkuntza zibilizazio hizkuntza eta besteenak hizkuntza primitiboak direnez, “gure”, zibilizatuon, zeregina besteak zibilizaziora erakartzea da, hots, beren kultur ereduak deuseztatu eta, demokratizazioaren edo mundu modernoan integratzearen izenean, “gureak” ezartzea, beraientzako ere egokiagoak direlakoan. Gogoan duten zibilizazioa, noski, Mendebaldeko zibilizazioa da.

### 2.3 Literatura soziolinguistikoa: hizkuntzen historiako irizpideak

Atal honen helburua literatura soziolinguistikoak hizkuntzen historiako eskaintzen dituen lanabes, kontzeptu edota irizpideak aztertu eta, dagoeneko euskararen historiaren beharrak ezagututa (2.1 atala), geure lanerako egokienak hautatu eta finkatzea da. Garbi gera bedi, beraz, asmoa ez dela egungo soziolinguistikaren aurkezpen orokorra egitea, historia soziolinguistikoan —eta, bereziki, Nafarroakoan— erabilgarriak diren ekarpenak biltzea baizik. Nire ibilbidea behetik gorakoa izan da eta emaitzen aurkezpena ere modu horretan egingo da; alegia, autore sorta jakin baten irakurketa ordenatutik abiatu, bakoitzaren ekarpenik interesgarrienak nabarmendu (2.3 atala) eta, azkenik, ondorio orokorrak ateratzera igaro naiz (2.4 atala).

Literatura soziolinguistikoa den nahaspila txikian —egile bakoitza mundu bat da— aurkezpenaren ordena neure ikerketaren interesen arabera ezarri dut. Aurrena, historia soziolinguistikoaren arazo orokorretara hurbildu direnen lanak aurkezten dira (2.3.1 atala), ekarpen balioitsuak egin dituzte autore hauek, baina, jakina, ez dute gaia agortzen. Ondoren soziolinguista orokorren ekarpenak aztertzen dira, hizkuntzen bilakabidearen aurrean erakutsi dituzten ikuspegien arabera sailkatuta (2.3.2 atala). Ondorioak, esan bezala, 2.4 atalean biltzen dira.

#### 2.3.1 Soziolinguistika historikorako hurbilketak

Soziolinguistika historikorako eredu bila literatura soziolinguistikora jotzen dugunean, bere irakurketak agerian uzten duen ezaugarri nagu-

---

43. *Etiketazioaren teorian* (“Labeling Theory”) ikus Asher eta Simpson (arg.) (1994: 4.026-7). Teoria honen erabilpen emankorra Peter Burke-k (1987 eta 1988) egin du, besteak beste.

sia *urritasuna* da. Aztertu ditudan egile guztien artean soilik lauk hartu dute bere gain historia soziolinguistikoaren arazo orokorren eztabaida: Peter Burke (1988)<sup>44</sup>, Suzanne Romaine (1988), Jose Maria Sanchez Carrion (1992) eta Francisco Gimeno (1995)<sup>45</sup>. Berdin gertatzen da aldizkari berezituaren mailan: *International Journal of the Sociology of Language (IJSL)* aldizkariaren bilduma osoa egiten duten 123 zenbakietatik (1976-1997), gehienak gai hautatu bati buruzko monografikoak izaki, ez diote bakar bat bera ere soziolinguistika historikoari eskaini. Berdintsu gertatzen da Euskal Herriko *Bat* soziolinguistika aldizkariarekin (1990-1997), eta hutsune bera dute erabili ditudan *Language in Society* eta *Journal of Multilingual and Multicultural Development* aldizkarien urteek ere.

*Heterogenotasuna* da historia soziolinguistikoa jorratu duten lanen bigarren ezaugarria, bai arazo orokorrak eztabaidatu dutenen kasuan eta baita hizkuntza jakin batzuen bilakaera aztertu dutenenean ere —Gal (1978 eta 1979), Vallverdu (1984 eta 1986), Marchetti (1989), Aikio (1992), Comiti (1992), Abad (1994), Hagege (1994), Mehstrie (1994, erf.: Satyanath 1994), O Riagain (1994), MacAlevy (1996) eta Martinell eta Piñol (1996), adibidez—, kezkek, ikuspegiak, jorratutako gaiak eta aztertutako mailak guztiz desberdinak baitira batetik bestera.

Aurkezpena, dena dela, soziolinguistika historikoaren arazo orokorrek eztabaidatu dituzten lau autoreetara mugatu dut. Horrela, Romaine eta Gimeno William Labovek zabalduetako iker arloan mugitu dira: hizkuntz aldaketan —fonologia, morfologia, sintaxi eta semantika mailan batez ere— oinarri sozio-historikoak, elebitasuna edo hizkuntzen iraupen eta ordezkapen prozesuak bezalako gaiak hein handi batean alde batera utziz (Labov 1983: 235-6; 1996: 31-4). Burke prestakuntzaz historialaria da eta bere asmoa hizkuntzaren eta historiaren arteko harremanen ikerketarako oinarriak erakustea izan da. Sanchez Carrionen helburua hizkuntzen eta hizkuntz komunitateen existentziatik abiatzen den historia eredu berria plazaratzea dugu.

44. Lan honen berridazketa zabalduaren erdarazko itzulpena: Burke (1996: 11-49).

45. Aipatutako hiru izenei Lluís V. Aracil, bere *Història de les llengües d'Europa* lanarekin, erantsi beharko litzaieke. Hau 1992ko abenduan Institut de Sociolingüística Catalana-k antolatu eta Aracilek eman zuen ikastaro baten izenburua da. Antolatzaileen asmoa hitzaldiak argitaratzea zen, baina zenbait arazo zirela medio argitaratu gabe gelditu dira eta, behin baino gehiagotan jatorrizko bertsioren kopia eskatu arren, ez dut lortzerik izan. Ikastaroaren aipamena Aracil (1992) bibliografi erreferentziapen aurki daiteke.

### 2.3.1.1 *Suzanne Romaine*

Laboven irakaspenetan oinarrituriko soziolinguistika historikoaren adierazle nagusia Suzanne Romaine da (Lopez Morales 1993: 39, 9. oinoharra), eta bera hartu dut korrontearen eredu gisa, Francisco Gimenezoren kezkek, adibidez, neurri handi batean Romaineren gogoetetan jasota daudelakoan. Gaia behin baino gehiagotan azaldu du Romainek —1982ko *Socio-Historical Linguistics: Its Status and Methodology*, Cambridge: Cambridge University Press, lanean, adibidez—, baina bere ekarpenen aurkezpena 1988ko “Historical Sociolinguistics: Problems and Methodology” artikulutik abiatuta egingo dut.

Romaineren asmo nagusia, soziolinguistika historikoaren beharra erakutsi ondoren —“sociolinguistics must be a historical discipline (...) and historical linguistics must be a social discipline” (Romaine 1988: 1.453)—, disziplinaren helburu, metodologia eta arazoak finkatzea da.

Zentzu horretan, bi ardura nagusi adierazi ditu Romainek: hizkuntzaren aldaketa azaltzea eta hizkuntza bere testuinguru sozialean berre-raikitzea (ibid.: 1.453). Kontua, azken finean, hizkuntz aldaketari buruzko ikerketei eta, oro har, linguistika historikoari alde soziala erantsia da (ibid.: 1.466). Beraz, elebitasun egoeren bilakaera historikoa baino gehiago, hizkuntza jakin baten aldaketak azaltzea da Suzanne Romaineren xedea eta, zentzu honetan, bere linguistika soziohistorikoa lotura du filologiarekin (ibid.: 1.453). Hala ere, nahiz eta bere kezkek eta gure ikerketarenak itxuraz desberdinak izan, oso iradokizun interesgarriak eskaintzen zaizkigu bere lanean.

Soziolinguistika historikoaren *helburua* hizkuntz komunitate jakin batean aldaketa zein forma pean eta zein erabilpenetan erakusten den ikertzea litzateke eta,aldi berean, aldaketa mota desberdinak nola eta zein esparrutan garatzen diren:

The main goal of a sociohistorical linguistics would be to investigate and provide an account of the forms and uses in which variation may manifest itself in a given speech community over time, and of how particular functions, uses and kinds of variation develop within particular languages, speech communities, social groups, networks and individuals.

(ibid.: 1.453)

*Zeregin metodologikoak* hizkuntza bere gizarte-testuinguruan berre-raikitzeko prozedura sorta bat garatu, hizkuntz aldaketaren teoriari oinarria eman eta bi lan hauek soziolinguistikaren aurkikuntzen arabera egitea dira (ibid.: 1.453). Aldaketak azaltzeko soziolinguistika orokorraren aurkikuntzez —kontzeptuez eta tresneriaz, azken finean— baliatu beharrek zerikusirik handia du soziolinguistika historikoaren edozein alderdierekin, gurea barne, noski.

*Iturriei* dagokienez, iraganeko mota guztietako idazkiak dira erabilgarriak, zeren gure eginkizuna zuzenean eskuragai ez den edota galduta dagoen informazioa lortzea baita. Iturrien erabileran, behin materialak eskuratu eta gero, hurrengo urratsa haietatik esanahi soziala duten argibideak aurkitzea dugu, eta honek, jakina, metodologia egokia eskatzen du. Historia ez da, beraz, soziolinguistei betiko egina ematen zaien zer-bait; alderantziz, soziolinguistak nork bere ikuspegiarekin historia sortzen duten historiagile aktiboak bihurtzen dira (ibid.: 1.453).

Aurrera segituz, artikulua hiru atalera banatu da, “Txertakuntzaren arazoa: aldatetaren abiapuntu soziala” izenburukoak, gizarte-hierarkien eta hizkuntz aldatetaren arteko harremanen arazoa (ikus, halaber, Labov 1983) plazaratzen du. Garbi dago biak erlazionatuta daudela, baina harremanak ez dira beti berdinak eta, are gutxiago, beti goitik-beherakoak, behin baino gehiagotan azalpen mekanikoetatik urruntzera behartzen gaituzten ustekabeak sortzen dira-eta (ibid.: 1.459).

Hierarkien eta rol sozialen araberrako hurbilketa baino emankorra goa aldatetak kultur-gurutzaketaren ikuspegitik aztertzea izan daiteke, batez ere hizkuntza ez-ofizialen iraupenaren azterketan. Bertan, kontzeptu nagusia Lesley Milroy-ren “gizarte-sarea” (“social network”) dugu (ikus gure 6.4.2 atala).

Laugarren atala, hizkuntz hautaketan esanahi sozialari buruzkoa, oso iradokitzailea suertatzen da. Soziolinguistika historikoaren arazoetako bat haxe dugu: nola baloratu hiztunen hautapen jakin bat, hiztunek eskura zituzten aukera guztiak, aukera hauen prestigioa orduko gizartean eta beren erabilera antolatzen zuten arauak ezezagunak zaizkigunean?:

If the synchronic significance of language is to be seen at least in part in terms of choices made by speakers acting in larger social roles associated with class, ethnicity, sex, etc., the problem for socio-historical linguistics is how to evaluate correctly a choice when the full set of alternatives at the disposal of writers and readers is not known. We must ask the following: What prestige norms apply in a particular time? How do they change? How can one reconstruct who had access to which varieties?

(ibid.: 1.459)

Hautaketak, beraz, zerikusia du prestigio arauekin, baina prestigio arauak, Mitxelenak ere, Nafarroaz ari zelarik, arestian jasotako aipuan (1987b: 12) erakutsi zuenez, aldatu egiten dira (Romaine: 1.460). Kontua hautaketan esanahi sozial zehatza eta, oro har, prestigio arauak ahalik eta hobekien ezagutzen eta ulertzen laguntzen dituzten zantzu eta argibideak aurkitzea da (ibid.: 1.461). Hots, berriro ere goian aipaturiko iturrien arazo berarekin egiten dugu topo.

Esanahi soziohistoriko garbiko hautaketa izan zen, esate baterako, ingeles hizkuntzaren aldekoa latinaren aurrean, lehendabizi, eta frantzesaren aurrean, gero. Kasu honetan boterearen kontua agertzen da. Nork

du hautapena bideratzeko ahalmena? Ingelesaren kasuan, errege anglosaxoniarrak izan omen zuten ahalmen hori (ibid.: 1.461), nahiz eta beti ez den horrela gertatzen, beste askotan aldaketa behetik gorakoa baita.

Ondorioak zazpigarren atalean aurkeztu ditu eta horien artean azpimarragarriena, hizkuntzen iragana aztertzerakoan gizarte-baldintzak kontuan hartu eta soziolinguistikaren ekarpenetan oinarritzeak, behar-beharrezkoa izateaz gain, hizkuntzalaritza historikoaren suposizio tradizionalak aldatzera eramango gaituztela da (ibid.: 1.464).

### 2.3.1.2 Peter Burke

Historia soziolinguistikoa ulertzeko beste era bat Peter Burke historialari ingelesarena dugu. Bere asmo nagusia, hizkuntzaren historia sozialaren beharra erakutsi, hau ekimen bideraezina ez ote den galdera-eragozpenei erantzun eta, zeregin horretarako iturriak izan badaudela baieztatu ondoren (Burke 1988: 10), bere kide historialariei disziplina-aren hastapenak aditzera ematea izan zen.

Hizkuntzak berak zein hizkuntzen gaineko gatazkek zeregin handia bete dute historian zehar, zeren, azken batean, hitzen gainean agintzeak pertsonen gainean agintzea esan nahi baitu:

(...) struggles have been waged not just in language, but also over language; and (...) the history of revolutions, of professions, of nations, of relations between sexes, is inseparable from the part played by language in defining, stigmatizing, unifying and dividing. Power over words has often meant power over people.

(Burke eta Porter, arg., 1988: atzeko azala)

Hizkuntzaren historia soziala egiterakoan, soziolinguista eta etnolinguisten ekarpenetara jo behar du historialariak, bertan hizkuntzaren zereginen kontzientzia zorrotza ezezik, azterketarako sistema teoriko eta kontzeptual aberatsa ere aurkituko baitu (Burke 1988: 3).

Soziolinguistikak azpimarratu dituen eta hizkuntzaren historia sozialerako oinarritzekoak diren ideiak, gauza jakina direla iruditu arren, ez dituzte gizarte-historialariek oraindik bereganatu eta ondoren adieraziko diren lauetara laburbildu ditu Burkek (ibid.: 3-4): (1) talde sozial bakoitzak bere hizkuntz barietate(k) erabiltzen d(it)u; (2) pertsona berak ez du beti berdin hitz egiten: egoeren arabera barietate desberdinak erabiltzen ditu; (3) hizkuntzak gizartea islatu egiten du; eta (4) hizkuntzak gizartea itxuratu egiten du.

(1) Talde sozialen eta hizkuntz barietateen arteko harremani buruz, historialarientzat garrantzitsuena hizkuntz formek ez dutela beti gizarte-estatus berbera eduki jakitea da:

From a historian's point of view, the important thing is to note that linguistic status symbols are subject to change over time, so that words wich

are U [Upper] in one generation may not be so in the next. Regional accents have not always been non-U.

(ibid.: 5)

(2) Bigarren puntuaz —lagun berak, dagoen egoeraren arabera, barietate jakin bat erabiltzen duela dioen puntuaz— azpimarragarriena da hizkuntz aldaeren arteko aukeraketa ez dela kasualitatezkoa, une horretan gizartean indarrean dauden eta “eremu” kontzeptuaren inguruan antolatzen diren arau jakin batzuek baldintzatua baizik (ibid.: 7).

Barietate edo erregistro bat ala bestea hautatzeak esanahi desberdina du, baina historiagileak, dena den, ez baditu egoerak gaizki interpretatu nahi, aztertzen ari den kulturako hizketa arauak ongi ezagutu beharko lituzke (ibid.: 9).

Idazketaren erabilpenaren esanahi soziala ere ez da garai eta toki guztietan berdina izaten eta hura interpretatzerakoan oso erraz gerta daitezke gaizki ulertuak. Horrexegatik, norik idazten zuen, nori eta zertaz, argitzea beharrezkoa da (ibid.: 10).

(3) Hirugarren atalak hizkuntzak gizartea islatu egiten duela, edo, interpretazio mekanizistak saihesteko, bere oihartzuna<sup>46</sup> dela dio (ibid.: 11), eta hau bi moduz gertatzen da. Batetik, pertsonen hiztegia zein hitz egiteko modu orokorra beren gizarte-mailaren erakusle bikainak dira (ibid.: 11). Bestetik, kultura jakin batean, edo kultura multzo batean, erabiltzen diren hizkuntz formak eta hauen aldaketak ezagutuz, asko jakin dezakegu kultura horietako gizarte-harremanei buruz (ibid.: 11).

Zentzu honetan, nolako hizkuntz aldaera hautatu, halako talde leialtasuna eta halako urruntasuna adierazten ari gara, Europako goi klaseek XVII eta XVIII. mendeetan herri barietateei bizkarra eman eta beste batzuk hautatzean egin zuten bezala, adibidez (ibid.: 12).

(4) Laugarren tesiak, hizkuntzak gizartea eratu egiten duela dioenak, alegia, hizkuntza talde sozialek euren arteko borroketan maiz baliatzen duten indar aktiboa dela esan nahi du, ez dela soilik gizartearen emaitza pasiboa, islaren irudiak aditzera eman dezakeenez: “language is an active force in society, used by individuals and groups to control others or to defend themselves against being controlled, to change society or to prevent others from changing it” (ibid.: 13).

Hizkuntzak parte handia hartzen du errealitatearen eraikuntza sozialean (ibid.: 14) eta, horrexegatik, sakoneko gogoeta egin beharra dute

---

46. Oihartzunaren ideia interpretazio mekanizistak ekiditzeko erantsi du Burkek. Era berean, hizkuntzaren eta gizartearen artean zeharkako harremanak baizik ez daukela adierazi du beherago (ibid.: 13).



historialariek hizkuntzaren zereginaz aztertzen ari diren egoeren sorrera nahiz aldaketan (ibid.: 15).

Bestaldetik, hizkuntzaren historia sozialak zerikusi zuzena du aginte kontuekin (ibid.: 13) eta estatu modernoan garapenarekin (ibid.: 16).

Hizkuntzaren zereginaz, halaber, ikuspegi murriztatzaileetatik ihes egin eta askotan duen rol sinbolikoaz —boterea, nazio integrazioa, kultura...— jabetu behar dugu (ibid.: 16-7).

Peter Burkeren ondorioak bi dira: alde batetik, gizarte-historialariek arreta handiagoa eskaini behar diote hizkuntzari, eta bestetik, historialariek hizkuntzaren esparrua jorratu duten soziolinguistika bezalako disziplinetatik ikasi beharra dute (ibid.: 17).

### *2.3.1.3 Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx”*

Jose Maria Sanchez Carrionen lanak oso ugariak dira eta, aurrerago (2.3.2.3 atala) ikusiko dugunez, haietan plazaratutako hainbat ideia eta kontzeptu oso baliozkoak zaizkigu euskararen historia soziolinguistikoki ekiterakoan. Oraingoan, dena dela, egile honen idazki bakar bat hartu dut: hizkuntzen historia soziolinguistikoak bete behar-ko lituzkeen baldintzak azaltzeko asmo orokorra duen “Las lenguas vistas desde la historia versus la historia vista desde las lenguas (o el giro copernicano de un nuevo discurso social)” (Sanchez Carrion 1992) artikulua.

Lanaren helburua hizkuntz komunitateen existentzian oinarritzen den historia eredu edo paradigma berri bat proposatzea da (ibid.: 93). Kontua hau da: Txepetxek berak aurreko lanetan, 1987koan batez ere, garatutako aparatuek teorikoak baliatuz,

(...) ensanchar ahora nuestra percepción y apreciación del pasado. (...) producir una convulsión radical en la perspectiva de nuestras ciencias humanas tales como la historia, la antropología o la sociología: tan ignorantes o distorsionadas hasta ahora de la realidad de las comunidades lingüísticas, y del hombre como realidad hablante.

(Sanchez Carrion 1987: 19)

Bere asmoa, beraz, soziolinguistikaz haratago doa —giza kulturen biziraupena eta berdintasuna dira bere ardura nagusiak, berak dioenez—, baina, aldi berean, soziolinguistika historikorako eredu bat eskaintzen duela esan genezake.

### *Hizkuntzaz kanpoko ikuspegia eta hizkuntza barnekoa*

Ikuspegi zaharrari “hizkuntzaz kanpoko ikuspegia” eta berriari “hizkuntza barneko ikuspegia” deitzen die —“Las perspectivas extralingüística e intralingüística de la historia” (ibid.: 103)— eta bien arteko erka-

keta historia mota orok erantzun behar dituen galdera sorta baten inguruan egin du:

(...) hay una serie de interrogantes básicas a las que ambas deben responder y que son éstas:

-¿Historia de qué o de quién? ¿Cuál es el sujeto histórico fundamental?

-¿Es posible la objetividad histórica? ¿Cómo se logra?

-¿Qué importancia tiene el individuo dentro de la historia? (...) ¿Cómo se articula lo individual y lo colectivo?

-¿Hay un para qué de la Historia?

-¿Qué determina la división de los períodos históricos?

(ibid.: 109)

Badago beste galdera bat hizkuntza barneko ikuspegiaren berezkoa dena: zer nolako hizkera erabiltzen da historia idaztean? Errealitate berdina deskribatzeko hizkera berdina erabiltzen du historialariak, ala ez? (ibid.: 109). Adibidez, Leopold Von Ranke historiagile alemanaren *Historia de Francia*-ren bi pasarteren alderaketa dugu. Lehendabizikoan Frantziaren alboko herriekiko harremanak aztertzen ditu eta bigarrenen, berriz, Hexagonoaren barnekikoak: Estatu frantsesak bretoi eta euskaldunekiko izan zituenak. Zeharo hizkera desberdina erabiltzen du Von Rankek kasu batean eta bestean. Frantziari buruz aleman bezala hitz egiten du, distantzia kritikoa erakutsiz; bretoi eta euskaldunei buruz aritzean, aldiz, Estatu frantsesarekiko begikotasun nabaria dario, estatua eta erdirakoia izategatik, ez frantsesa izategatik (ibid.: 124).

Historiografia aztertzerakoan, beraz, honako hiru alde hauek argitu behar ditugu: zein hizkuntza motatan dagoen idatzia, zein hautatzen duen subjektutzat eta, hirugarrenik, zer deskribatzen duen (ibid.: 105, 10. oin-oharra).

Honen guztiaren arabera, hizkuntzaz kanpoko ikuspegiak hizkuntza akzidentetzat eta substantziatzat beste edozein gertakari hartzen du: harreman ekonomikoak, langile buruzagitza, estatua, aurrerapen teknologikoa, eta abar, nahiz eta jeneralean estatua hautatu subjektu historiko nagusi gisa: “elige como sujeto primordial al Estado, como la formación histórica más capaz de contener los aspectos de la realidad que se privilegian. El Estado es, pues, su *estructura* básica de análisis” (ibid.: 109).

Molde honetako historian estaturik gabeko herriek duten toki bakarra “bazter nazionalismoei” eskaini ohi zaien kapitulua —“la historia de los nacionalismos periféricos” (ibid.: 124)— izaten da.

Distortsioa, hala ere, ez da estatu garatuen kasuan soilik gertatzen, nazio menderatuetakoa historialariak ere akats berebearn erori ohi dira, Euskal Herriko historietan maiz ikusten den bezala:

Pero la distorsión afecta igualmente al historiador de la “nacionalidad irredenta” que utiliza —en diferente o distinta escala, según los propósitos—

para construir su historia, los mismos parámetros que la historia del Estado “opresor”. (...) ¿Hay alguna diferencia sustancial entre la Historia de España o de Francia que se remonta a las tribus prerromanas (...) y una historia de Vasconia englobando bajo su seno territorios que desde que tenemos noticia de ellos no constituyen una unidad racial, ni geográfica, ni lingüística, ni se nos aparecen en ningún momento históricamente documentable bajo la dependencia de una sólo unidad política?

(ibid.: 123)

Hizkuntza barneko ikuspegiarentzat, berriz, substantzia hizkuntza da, eta, era berean, subjektu historiko bezala hizkuntz komunitatea hartzen du, ez estatua:

(...) elegirá como sujeto histórico más relevante a la Comunidad de Lengua, ya que es ella la que establece el nexo entre hablante e idioma, socializando a aquél y dando a éste su concreción en el tiempo y en el espacio. Cualquier otra forma de comunidad, incluido el Estado, se verá en sus relaciones con ella. El Estado es, pues, su coyuntura (...)

(ibid.: 109)

Aipatutako distortsioa ekiditeko bidea hizkuntz komunitatetik abiatzea litzateke, goian esan bezala: “¿No tiene más sentido historiar la expansión, continuidad o retroceso espacio-temporal de los pueblos de lengua árabe, eúskara, castellana, francesa o bretona?” (ibid.: 123-4).

### *Denbora paradigma linealari kritika*

Hizkuntzaz kanpoko ikuspegiaren azterketan sakonduz, bere azpian dagoen paradigma lineal —aurrerapen etengabearen goraiapamena—, mendebaldar, eurozentriko eta kultura guztien sinkronizatzailea kritikatu du Txepetxek<sup>47</sup> (ibid.: 99), eta zera gaineratu du, Vandana Shivaren hitzak bere eginez:

El desarrollo ha interrumpido el desarrollo cíclico y lo ha sustituido por una carrera lineal hacia el “futuro”, el siglo XXI. (...) la imagen del occidente contemporáneo. La historia se ve reducida a la imitación de la cultura más desalmada, y esta imitación se define como modernización y progreso.

(V. Shiva 1988. *Staying Alive. Women, Ecology and Survival in India*. London: Zed Books. Aipatua in ibid.: 100)<sup>48</sup>

47. Antzeko kezka soziologia historikoaren metodoez arduratu den Bertrand Badieren “Análisis comparado y sociología histórica” (Badie 1992) artikuluan ere aurki daitezke, adibidez.

48. Gaztelaniazko itzulpena: V. Shiva (1995). *Abrazar la vida. Mujer, ecología y desarrollo*. Madril: horas y HORAS, Cuadernos inacabados.

### *Artikulazio puntua*

Txepetxen ideietan garrantzirik handiena ondoko honek du behar-bada: historia orain idazten dugu, iragana orainetik, geure oraingo ikuspegitik berregiten eta berreraikitzen ari gara etengabe; egin behar dugun historiak erdigune bat du eta bilakaera historikoa erdigune horren arabera baloratuko dugu:

Es en relación con ese punto, como la historia encuentra ella misma su centro, y en relación con el cual podría reinterpretar (como alejamiento o acercamiento) el ritmo, la secuencia, la concatenación lógica de los acontecimientos. Sin ese punto de vista la historia se vuelve lineal (descentrada), plana, elusiva, evasiva, ni psicológica (porque no entiende el centro del hombre) ni sociológica (porque no capta el núcleo simbólico del grupo: qué tiene o qué le falta, qué ha perdido o qué ha puesto la sociedad en su centro).

(ibid.: 98)

Zein da erdigune hori?: “un punto de articulación (...) que representa la integración entre arte, idioma y naturaleza. Es el momento de plenitud del hombre: el hombre en su centro” (ibid.: 98). Hizkuntzen kasuan, artikulazio puntua osotasuna —hizkuntzaren garapen osoa: ikasketa naturala eta ikasketa kulturala batera biltzea— lortzen duten unea genuke: “Lo que completa a un idioma es su conexión o articulación de lo natural (aprendizaje natural) con lo cultural (aprendizaje cultural)” (ibid.: 98).

Hizkuntzen bilakaera historikoa erdigune horren arabera azalduko genuke, osotasuna adierazten duen transmisio naturalaren eta transmisio kulturalaren uztarduratik zein hurbil edo zein urrun dauden agertuz (ibid.: 102).

Amaitzeko, eta orain artekoa esan eta gero berez sortzen den ondorioa besterik ez da, hizkuntzetatik egiten den historiaren interesgune nagusietako bat euren hizkuntzari eutsi dioten herriak dira: “desde luego que una historia desde las lenguas atraerá a su atención, como foco de interés relevante, la parte desempeñada en la historia común por los pueblos que han mantenido la continuidad de su lengua” (ibid.: 109).

#### *2.3.1.4 Laburpena eta ondorioak*

Aipatutako lau autoreak —Romaine, Gimeno, Burke eta Sanchez Carrion— dira arakatu ditudan guztien artean soziolinguistika historikoaren izaera orokorra azaltzen saiatu diren bakarrak. *Urritasuna* genuke, beraz, lehen ezaugarria.

Beste aldetik, norberak gaiari bere interesen arabera heltzen diola ikus daiteke. Suzanne Romainek —eta Francisco Gimenezek berdin— linguis-

tika historikoari alde soziala gehitzea bilatzen du, William Labovek erakutsitako bidetik joaz. Peter Burkeren ardura gizarte-historian hizkuntzari buruzko kezka txertatzea da. Eta, azkenik, Sanchez Carrionen lana ohiko historia moldeak kritikatu eta erdigunetzat gizakien eta hizkuntzen garapen osoa, giza taldeen ezberdintasunaren ezagutza eta, honenbestez, hizkuntza —gizaki egiten gaituena— eta hizkuntz komunitatea —hizkuntzatik sortzen den taldea— dituen historia proposatzea izan da. *Heterogenotasuna* litzateke, hortaz, bigarren ezaugarria.

Dena dela, disziplinarako hurbilketa gisa, ekarpen eta iradokizun baliotsuak utzi dizkigute, eta, autoreak banaka hartuta, honako ideia eta irizpide hauek iruditu zaizkit Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa egiterakoan gogoan hartu beharrekoak:

Suzanne Romaine: hizkuntz aldaketen gizarte-testuingurua; soziolinguistika sinkronikoaren ekarpenen erabilgarritasuna bilakabide historikoaren azterketan; iturrien arazoa; hizkuntz aldaketaren abiapuntuaren eta gizarte-hierarkiaren arteko harreman ez-aldebakarrekoa; hizkuntz hautaketan esanahi soziala; prestigio arauak eta haien aldakortasuna; hautapenak bideratzeko ahalmena: agintearen arazoa.

Peter Burke: hizkuntzaren historia sozialaren garrantzia; historialariak ez dira hizkuntzaz arduratu; oinarritzat soziolinguistikaren ekarpenak hartu beharra; iturrien arazoa; hizkuntz hautaketak “eremuetan” biltzen diren arau sozialen pean egiten dira; idazketaren esangura soziala ez da beti bera izan; hizkuntzak gizartea aldi berean islatu eta eratu egiten du; hizkuntza kontrolatzeko borroken garrantzia historian zehar; estatuen hizkuntza estandarren erabilera gainerako hizkuntzen kalterako.

Jose Maria Sanchez Carrion: historiografia aztertzeke irizpideak: zein hizkuntza edo hizkera motatan dagoen idatzia, zein den hautatzen duen subjektua eta zein deskribatzen duen objektua; hizkuntzaz kanpoko historia: estatuan oinarritzen den historia erdua; eredu honen kritika: estatuaren goraipamena, hizkera historikoaren manipulazioa, paradigma lineal, mendebalder, eurozentriko eta sinkronizatzailea; hizkuntza barneko historia: hizkuntz komunitateen existentzian oinarritzen den historia erdua; kulturen aldi asinkronikoa eta aldi sinkronikoa; historia egungo ikuspegitik berregiten dugu: hizkuntz komunitatearen garapen autozentriko eta osoaren baldintzak gogoan edukita; euren hizkuntzari eutsi dioten herrien historiaren garrantzia; norbanakoa eta gizartearen arteko elkarrekin-tza.

### 2.3.2 Soziolinguistika historikorako irizpideak literatura soziolinguistikoko orokorrean

Literatura soziolinguistikoa ez du historia bereziki landu, baina, goian erakutsi bezala, soziolinguista nagusien ekarpenak behar-beharrezkoak ditugu bide horretatik abiatu nahi izanez gero. Datozen orrial-

deetako asmoa historia soziolinguistikorako egokiak izan daitezkeen iker-arlo eta irizpideak ezagutu eta nabarmentzea izanik, autoreen aurkezpena ere ahal den neurrian bakoitzak jorratutako iker-arloen arabera sailkatuta antolatu dut. Horrela, lau ataletan bildu ditut:

2.3.2.1 Uriel Weinreichen aitzindaritzza;

2.3.2.2 Hizkuntzen iraupen eta ordezkapen prozesuak batera aztertu dituzten autoreak;

2.3.2.3 Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx”;

2.3.2.4 Arreta ordezkapen bilakabideetan jarri duten autoreak.

Egindako antolaketak ez du azalpen handirik behar: autore gehienak bi multzotan jaso ditut: hizkuntzen iraupena eta ordezkapena batera aztertzen dituzten autoreak, alde batetik, eta hizkuntzen ordezkapenaren ikuspegia darabiltenak, bestetik. Multzo horietatik landa, atal bana osatuz, ez batean eta ez bestean sailkaezinak diren bi autore gelditzen dira: Uriel Weinreich klasikoa eta Jose Maria Sanchez Carrion egungoa.

### 2.3.2.1 Uriel Weinreichen aitzindaritzza

Uriel Weinreich denek aitortzen duten soziolinguistikaren sortzaile-etariko bat<sup>49</sup> da eta bere lanik ezagunena den *Languages in contact* liburua (Weinreich 1974, jatorrizko edizioa ingelesez: 1953) klasiko bihurtu zen aspaldian eta berrogei urte luze igaro eta gero ez du ia gaurkotasunik galdu eta guztiz iradokitzailea izaten jarraitzen du. Soziolinguistika historikoa ez zuen bereziki landu, baina hizkuntz ukipenaren dimentsio diakronikoa aintzat hartzea ezinbestekotzat jo zuen, eta egin ere hala egin zuen. Orobat, geroagoko soziolinguistikak kon-tuan hartuko zituen irizpide eta metodo eta jorratuko zituen gai ugari, gehienak ez esateagatik, jadanik berak adieraziak zituela esan daiteke. Horrexegatik, ondo merezitutako tokia hartu du gure azalpenean.

Ikergaietat hizkuntz ukipen egoeretan hitzun elebidunen hizketan sortzen diren *interferentziak* eta hauek hizkuntza baten edo bestearen egituran eragiten dituzten aldaketak zituen Weinreichek (ibid.: 17). Aldi berean, bide berriak urratzen ari zela jakinik, bere lanari, ikerketa burururik uztea baino gehiago, ondorengoentzat baliagarriak izango ziren alde metodologikoak jorratu eta helburuak adieraztea ezarri zion xede bezala (ibid.: 234), funtsezko asmoa hizkuntzen arteko ukipenaren ikerketa hizkuntzalaritza eta gizarte-zientzien ekarpen zabaletan oinarritzea izanik (ibid.: 239).

---

49. Lluís V. Aracilen hitzetan, “Gaur egungo soziolinguistika (errotulua bezala) 1953 ingurukoa dugu” (Aracil 1987: 148), *Languages in Contact* liburua argitaratu zeneko urtea, alegia; eta, era berean, Toni Molla eta Àmadeu Vianarentzat (1991: 15) *Languages in Contact* “el que es considera el primer treball de conjunt de la sociolinguística moderna” da.

*Interferentziak eta hizkuntz ordezkapena*

Interferentzien definizio gisa hau eman zuen Weinreichek:

Los casos de desviación con respecto a las normas de cualquiera de las dos lenguas que ocurren en el habla de los individuos bilingües como resultado de su familiaridad con más de una lengua, es decir, como resultado de contactos, serán denominados fenómenos de *interferencia*.

(ibid.: 17)

Gauza bat da interferentziak izatea eta beste bat hizkuntz ordezkapena gertatzea, baina, Weinreichek berak esan zuenez, badago nolabaitteko paralelotasuna bien artean eta zilegi da interferentzien azterketa soziolinguistikorako eratu den bilbe kontzeptual eta metodologikoa hizkuntz ordezkapen bilakabideen azterketan ere erabiltzen saiatzea, ohiko sinplifikazio edo errazkeriak saihestuz, jakina (ibid.: 224)<sup>50</sup>. Horregatik, Weinreichen lanetik datozen orrialdeetan azpimarratuko ditudan ideiek, besterik ez badut esaten, interferentzietarako ezezik hizkuntz ordezkapen bilakabideetarako eta, oro har, ukipen egoeren azterketarako ere balio dutela ulertuko da.

Dena dela, goiko pasartetik ez dugu interferentziak eta ordezkapena beti lotuta agertzen direnik ulertu behar. Adibidez, interferentzien ugaritzea ez da beti hizkuntz ordezkapena gauzatzen ari den seinale —enpirikoki egiaztatu beharko litzatekeen auzia da hau— eta, zentzu berean, ordezkatzeko prozesuak ez du nahitaez interferentzien trantsiziozko etapatik igaro behar (ibid.: 149).

*Disziplinarteko metodologia: hizkuntzalaritzaren, antropologiaren eta psikologiaren elkarlana*

Metodologiaz den bezainbatean, ukipena sakonki ulertzeak ohiko deskribapen linguistikoetan agertzen ez diren argibideez baliatzea eskatzen duenez, disziplinarteko ikuspegia gomendatu zuen: “Sobre una base interdisciplinaria, la investigación de los contactos lingüísticos alcanza más profundidad y validez” (ibid.: 23).

Hizkuntz ukipena eta kultur ukipena elkarren antz handia duten gertaerak dira eta, nahiz eta hizkuntzalaritza eta antropologia bakoitzak bere esparrua jorratzen duten disziplinak izan, ukaezinezko paralelismoa dago bi alorren artean (ibid.: 25). Hizkuntzalariek interferentziak arautzen dituzten faktoreak ulertzeko antropologiaren beharra dute (ibid.: 27), eta biek psikologiarena, ukipenaren gunea norbanakoa den premisatik abiatzen dira-eta (ibid.: 28).

---

50. Ideia bera adierazi zuen Susan Galek ere (1979: 153), adibidez.

*Norbanakoengandik hizkuntzaren sistemara eta gizartera*

Azterketa gizabanakoen hizkuntz portaeran hasi —“Los individuos que usan las lenguas son (...) el punto de contacto” (ibid.: 17)—, hizkuntzaren sistematik pasa (ibid.: 17) eta gizartean —“el comportamiento lingüístico de los individuos bilingües (...) está condicionado por las relaciones sociales en la comunidad en la que viven esos individuos” (ibid.: 24)— bukatzen da<sup>51</sup>.

Arreta gizarte mailako faktoreetan jarri ezean, dio Weinreichek, ez dago interferentziaren azterketarik burutzerik (ibid.: 21), eta era berean: “el lingüista que hace teorías acerca de la influencia de las lenguas, pero no se preocupa por explicar el ambiente sociocultural del contacto lingüístico deja su estudio en el aire, por decirlo así” (ibid.: 24). Areago, hizkuntza baten bestearen gaineko eragina ezin da datu linguistikoko hutsen bidez azaldu (ibid.: 144). Kanpo faktoreen artean, banakoen ezaugarriak, gizartearen ezaugarriak eta denbora azpimarratu ditu:

(...) los factores externos incluyen ciertos rasgos individuales de los hablantes bilingües, algunas circunstancias de la situación lingüística (el bilingüismo de los interlocutores, la participación emotiva de los hablantes, etc.) y el contexto sociocultural del contacto lingüístico, donde funcionan factores de valor social, de purismo y otros semejantes. El elemento de tiempo, o duración del contacto, también puede intervenir.

(ibid.: 145-6)

*Gizabanako elebiduna: hizkuntza dominantea*

Gizabanako elebidunaren azterketa delako lagun hori bi hizkuntzen aurren nola kokatzen den argitzera zuzendurik dago. Azterketaren giltza psikologiako *hizkuntza dominante* (ibid.: 161) kontzeptua dugu, pertsona jakin batengan nagusitzen den hizkuntza zein den izendatzen duen kontzeptua, alegia —zehazkiago mintzatuz, hitzunen barne mailako hizkuntza dominantea<sup>52</sup>—. Kontzeptu hau oso konplexua da eta hitzunik

---

51. Gizakiaren eta gizartearen arteko harremani buruzko eztabaida etengabea da gizarte-zientzietan eta maiz irizpide metodologiko kontrajarrietara —indibidualismo metodologikoa *vs* determinismo soziala— eraman du, azentua norbanakoan ala gizarte-egituretan jartzen den arabera (Tilly 1992: 358; Giddens 1993: 739-42). Guy Rocher-ek, adibidez, abiapuntua bi pertsonen arteko harremanean ipintzen du: “hemos abordado la realidad social a partir de la unidad más reducida de observación en sociología: la relación entre dos personas, de la que hemos desprendido la noción de acción social, a partir de la noción de interacción” (Rocher 1990: 103). Biak uztartzen dituen ikuspegirako, ikus Leca (1992).

52. Dominante kontzeptuaren bikotea *errezesibo* dugu. Dominante/errezesibo binomioa barne/kanpo binomioarekin gurutzatu behar da eta orduan lau egoera



hizkuntza bakoitzean duen trebetasuna, hizkuntzak ikasi dituen hurren-  
kera<sup>53</sup>, emoziozko atxikimendua, prestigioa<sup>54</sup> eta hizkuntz jarrerak beza-  
lako irizpideez osaturik dago, Weinreichek *nagusigo-konfigurazioa* (“La  
configuración del predominio”) deitu zuena (ibid.: 169-70) eratuz.  
Normalean hizkuntza dominantea eta ama hizkuntza<sup>55</sup> bera izan ohi dira  
(ibid.: 161, 12. oin-oharra), baina arazoa goiko faktore horietakoren bat  
dela-medio hitzunarengan ama hizkuntza ez den beste bat nagusitu eta  
binomioa puskatzen denean sortzen da.

*Ukipenaren giro soziokulturala: gizarte mailako azterketa*

Abiapuntua norbanakoa bazen, taldera igarotzean sozialki baldintza-  
turiko hizkuntz ohiturak nabarmentzen dira eta hauxe da, hain zuzen  
ere, atal honen gaia: neurri handiko taldeen hizkuntz erabilera bidera-  
tzen duten arauak argitzea (ibid.: 177), edo, beste hitzetan esanda, hiz-  
kuntza baten nagusitasuna ezartzen laguntzen duten faktore soziokultu-  
ralak (ibid.: 161, 12. oin-oharra).

Pertsonen hizkuntza dominantearen kontzeptua gizartera ere heda  
daiteke:

Es evidente que los factores que hacen que una lengua se convierta en  
dominante para un individuo bilingüe (...), son factores que el individuo  
encuentra en el medio donde vive; por lo tanto, el *status* relativo de las len-  
guas posiblemente será el mismo para la mayoría de los individuos bilin-  
gües que viven en un ambiente no diferenciado.

(ibid.: 177-8)

---

desberdin gerta daitezke: barne mailako dominantea, kanpo mailako dominantea,  
barne mailako errezesiboa eta kanpo mailako errezesiboa.

Konbinazio guztiak dira posible. Adibidez, hizkuntza bat kanpo mailako domi-  
nantea, baina hitzunen barne mailako errezesiboa baldin bada, orduan nekez burutuko  
da ordezkapena, eta hauxe da, hain zuzen ere, euskarak iraun duen eskualdeetan ger-  
tatu dena.

53. “La diferencia de haber aprendido una lengua primero es tan grande que la len-  
gua que se aprende primero, la «lengua materna», es considerada como lengua domi-  
nante por definición” (ibid.: 163).

54. Prestigioaren kontzeptuaz, adiera zabalean eta adiera tekniko hertsian, ikus  
Weinreich (1974: 168, 34. oin-oharra eta 208, 50. oin-oharra).

55. “Ama hizkuntza” kontzeptua ez da oso zorrotza —ez baita beti amaren hiz-  
kuntza haurrak lehen ikasten duena— eta Weinreich arazo honen jakitun dago (ibid.:  
161, 12. oin-oharra), baina behin oharra egin eta gero, “lehen ikasitako hizkuntzaren”  
esanahi teknikoan erabiliko duela dio (ibid.: 189, 5. oin-oharra). Berdin egin zuen  
Unescok ere: “The Unesco Committee defined *mother tongue* as «the language which a  
person acquires in early years and which normally becomes his natural instrument of  
thought and communication» (Fasold 1992: 293). Nik neuk ere, besterik ez badut  
adierazten, sinonimo bezala erabiliko ditut “ama hizkuntza” eta “lehen hizkuntza”.

Hizkuntza jakin baten nagusitasuna bideratzen duten faktoreak —edo, barne/kanpo bereizketa kontuan hartuz, kanpo mailako dominante bihurtzen dutenak— sailkatu eta aurkezteko honako atal hauek eratu ditu Weinreichek, denak dinamika historiko soziolinguistikoa ulertzeko biziki baliaigarriak eta, ikusiko dugunez, bere ondorengo soziolinguistek abiapuntutzat hartuak: (1) hizkuntzen funtzioak talde elebidunean; (2) banaketa linguistiko eta soziokulturalen arteko adostasun edo kongruentzia; (3) hizkuntz leialtasuna; (4) hizkuntz ordezkapena (ibid.: 184-5); eta (5) denbora faktorea: ukipenaren iraupena (ibid.: 217).

(1) Hizkuntz funtzioak. Ez dago hauek sailkatzeko arau orokorrik (ibid.: 186), baina, besteak beste, hizkuntz ordezkapena eginkizunen galeran gauzatzen da eta, adibidez, “se podría crear una balanza para pesar las diferentes funciones en las que una u otra lengua predominan en la situación de contacto” (ibid.: 188-9). Hizkuntza estandarizatuia eskatzen duten eginkizunak (administrazioa, hezkuntza, komunikabideak, etab.) betetzeak iraupenari laguntzen dio (ibid.: 187) eta alderantziz (ibid.: 188).

Hizkuntz funtzioak eta ama hizkuntzako taldeak. Gizarte elebidun jakin bateko hizkuntz funtzioen banaketaren deskribapena zorrotzu eta beste irizpide bat gehitu behar zaio: ama hizkuntzaren faktorea (ibid.: 189). Komunitate elebidunean ama hizkuntza bateko eta besteko talde bana daude eta, seguraski, bi hizkuntzak batera ikasi zituztenen beste multzo bat ere bai. Horren arabera, bi hizkuntzen erabilpen-funtzioen azalpena ama hizkuntzako talde bakoitzean egin beharko litzateke, ez bakarrik denak multzo berean sartzen dituen gizarte osoaren mailan (ibid.: 189). Ideia hau, ama hizkuntzako talde bakoitzak bere hizkuntza nagusia duela erantsiz, beherago garatu du: “Evidentemente, cada grupo puede clasificar las dos lenguas independientemente y con resultados diferentes. Es completamente dudoso si vale la pena clasificar a toda costa dos lenguas en contacto como «superior» e «inferior», respectivamente” (ibid.: 207)<sup>56</sup>.

Oro har, eta berriro norbanakoekiko paralelotasuna ezarriz, hizkuntzarentzat ukipen egoeretan ama hizkuntzako talde sendo bat edukitzeak duen garrantzia azpimarratu beharrekoa da (ibid.: 190-1).

---

56. Nafarroan bi ama hizkuntzako talde ditugu: euskaldunak eta erdaldunak. Euskarak zeregin bat zuen euskaldunen artean eta beste bat —ia hutsa—, aitzitik, erdaldunen artean. Hortik dator, hain zuzen ere, euskararen historiaren ikerketa talde euskaldunean oinarritzearen ideia, zeren bestela, Weinreichek esan bezala, Nafarroako gizarteaz zehaztasunik gabe hitz eginez gero, errealitatea guztiz desitxuratuta aurkeztuko baikenuke.

(2) Banaketa linguistiko eta soziokulturalen arteko adostasuna. Normalean, hizkuntz ukipeneko egoeretan ama hizkuntzako taldeen arteko banaketa bat etortzen da beste hainbat ezaugarriren banaketarekin (ibid.: 191). Hona hemen hizkuntzarekin kongruente izan ohi diren bereizgarri zenbait: eremu geografikoak, talde kultural edo etnikoak, sexua, adina (ordezkapenaren diakroniaren isla sinkronikoa), estatus soziala, baserritarra/kaletarra oposaketa, eta abar (ibid.: 191-204). Bizimodu bakoitzak bere hizkuntz erabileraren patroï jakinak garatzen ditu (ibid.: 208) eta hizkuntz banaketari halako bereizgarriekiko adostasuna gehitzen bazaio, bizirauteko ahalmena berrindartu egiten dela esan daiteke, eta alderantziz:

La falta de divisiones socioculturales que refuercen la diferencia de lengua materna es no solamente uno de los factores que facilitan el cambio de lengua, sino probablemente también uno de los obstáculos en el camino del desarrollo de la resistencia a las interferencias lingüísticas, y, por lo tanto, contribuye a las influencias interlingüísticas.

(ibid.: 207)

(3) Hizkuntz leialtasuna. Honela definitzen du Weinreichek hizkuntz leialtasuna:

(...) el principio —cuyo contenido específico varía de caso en caso— en nombre del cual los individuos se reúnen consciente y explícitamente para resistir los cambios en las funciones de su lengua (como resultado de un cambio de lengua) o en su estructura o vocabulario (como consecuencia de las interferencias).

(ibid.: 210)

Hizkuntz leialtasunaren berezko iturria ia hiztun orok ama hizkuntzarekiko izan ohi duen atxikimendua litzateke: “Podría sospecharse que existe de manera natural en cada hablante de toda lengua” (ibid.: 210). Hizkuntz leialtasuna, halaber, hizkuntzak taldearen simbolo gisa funtzionatzen duenean erakusten da (ibid.: 211) eta, aldi berean, hizkuntzak pairatzen dituen mehatxuekin —egiazkoak zein irudimenezkoak— erlazionatuta dago (ibid.: 212). Leialtasuna, hala ere, maiz puskatzen da ukipenean dauden komunitateetan, eta, orduan, ama hizkuntzari zor zaion atxikimendua dela-eta barne zatiketak sortu ohi dira (ibid.: 214).

Leialtasunaren agerpenik garbiena hizkuntzaren estandarizazioa izaten da (ibid.: 215), baina mehatxuen aurrean, leialtasunezko erreakzioak bezain erraza da haiei men egin eta interferentziak edota eginkizunen galera onartzea (ibid.: 216).

(4) Hizkuntz ordezkapena. Hizkuntza aldatzea, ordezkapena, alegia, hizkuntza bat erabiltzetik beste bat erabiltzera egiten den aldaketa da

Weinreichen hitzetan (ibid.: 224). Aldaketa pertsonak egiten dute eta azpian, beraz, hiztunen hautaketa bat dugu, nahiz eta sozialki baldintzatu izan (ibid.: 229). Alderdi hau, hots, hizkuntza aldatzea hiztunek hartzen duten erabakia dela, maiz ahaztuta gelditzen da ordezkapenaren ikerketetan, baina, horretatik at, kontzeptuak ez du zailtasun berezirik. Kontua hizkuntz ordezkapena goiko (1), (2) eta (3) irizpideen argitara aztertzea da.

Aurrena, hizkuntz funtzioak ditugu:

Primero que todo, los cambios de lengua deben ser analizados en términos de las funciones de las lenguas en la situación de contacto, ya que un grupo de lengua materna puede cambiar de lengua en ciertas funciones y no en otras.

(ibid.: 224)

Eginkizunik erabakigarriena familia mailakoa da eta aldaketa hor ere gertatu denean jadanik burututako ordezkapenaren aurrean gaudela esan daiteke. Esate baterako, “en vez de examinar ese cambio función por función, Selk se concentró en el nivel familiar y, por consiguiente, analizó sólo el cambio total” (ibid.: 228).

Gogoan hartzeko bigarren irizpidea da ea ama hizkuntzaren arabera banaketa bat datorren ala ez beste banaketa batzuekin, azpialde bakoitzak jokamolde desberdinak erakuts baititzake hizkuntza berriaren aurrean (ibid.: 226).

Hirugarrenik, hizkuntz leialtasunaren ondorioak ditugu, baina hizkuntza baten iraupena ez dago mekanikoki ez leialtasunaren ez prestigioaren mende: “Muchas lenguas con poco «prestigio» han podido resistir contra las amenazas de cambio durante largos períodos” (ibid.: 227).

(5) Denbora faktorea: ukipenaren iraupena. Gaia ez zuen luze garatu, baina haxe da bere mezuaren mamia: “estudiar los cambios progresivos inducidos por los contactos en una lengua dada a lo largo del tiempo” (ibid.: 217).

### *Laburpena*

Uriel Weinreichen ekarpenetatik soziolinguistika historikorako baliagarriak diren irizpideak eta metodologiari buruzko aipamenak azpimarratu dira.

Irizpideak: abiapuntu bezala norbanako elebidunaren portaera dugu, bera baitugu ukipenaren gune, baina hurrengo urratsa gizarte-baldintzak aztertzea da. “Hizkuntza dominantearen” kontzeptua, pertsona nahiz gizarte mailan. Prestigioa. Ukipenaren giro soziokulturala. Hizkuntz funtzioak eta haien banaketa ama hizkuntzako taldeen arabera. Banaketa linguistikoa eta soziokulturalen arteko adostasuna. Hizkuntz leialtasuna. Estandarizazioa. Hizkuntz ordezkapena. Denbora faktorea.

Metodologiaz: disziplinarreko lana, hizkuntzalaritza, antropologia eta psikologiaren ekarpenak uztartuz.

### 2.3.2.2 *Hizkuntzen iraupenaren eta ordezkapenaren ikuspegi bateratua*

Atal honetan bilduriko egileek lotura garbia dute Weinreichen irakaspenekin eta lan bereziki sakon, aberats eta iradokizunez beterikoak eskaini dituzte. Ikuspegi eta metodologiaren aldetik ezaugarri bat dute komun: hizkuntzen dinamikaren bi aldeak jotzen dituzte ikergaitzat, ez soilik galera. Bi kasuetan, hizkuntzari eusten zaionean nahiz galtzen uzten denean, hizkuntz komunitateak ikertzaileak azaldu behar lukeen hautapen bat egiten du. Hautaketa, Ralph Fasoldek dioenez, ez da bat-batean gertatzen den zerbait, epe luzeko hizkuntz erabilpen eta hautapen eredu sendoen emaitza baizik: “Language maintenance and shift are the long-term, collective consequences of consistent patterns of language choice” (Fasold 1992: 239).

Alde honetatik, eta nik neuk guztiz egokia deritzot ideia honi, historia soziolinguistikoa zeregina hizkuntz komunitate batek bere hizkuntzari eusteko, elebidun bihurtzeko zein hizkuntza aldatzeko ibili dituen bideak eta egin dituen hautaketak azaltzea litzateke.

Ikuspegi orokor hau Joshua Fishmanek orain dela hogeita hamabi urte inguru (Fishman 1964) aldarrikatu bazuen ere, gutxi dira ildo horretatik abiatu diren ikertzaileak (Fasold 1992: 218)<sup>57</sup>, gehienak, hizkuntz ordezkapenak erakarrita, alde hau aztertzeraz lerratu dira-eta —“language shift has held more fascination for scholars than language maintenance has” (ibid.: 227)—, euskararen historiografian ere gertatu den bezalaxe, ondo dakigunez.

Hurrengo orrialdeetan Joshua Fishman, Ralph Fasold, Charlotte Hoffman eta Juan G. Cobarrubias egileen berri emango da. Antzeko ikuspegi eta kezka dituzte William Mackeyk (1976, 1991 eta 1994a, kasu) eta Einar Haugenek (1987 eta 1996, esaterako) ere —azken honi buruz ikus Fishman (1964, 3. oin-oharra; 1996)—, baina azalpenak gehiegi ez luzatzearren, oraingoan jaso gabe utzi dira.

#### 2.3.2.2.1 Joshua Fishman

Soziolinguistikaren arloan aurkezpenik behar ez duen Joshua Fishmanen lanak bi alde dituela esan dezakegu: ikerketa soziolinguistikoak, kontzeptu teorikoen garapena eta haien azalpen akademikoa, alde batetik, eta arriskuan dauden hizkuntzekiko ardura, bestetik. Lehen ata-

---

57. Gai honi buruz, ikus, halaber, *International Journal of the Sociology of Language*-ren zenbaki monografikoak: 25 (1980), 68 (1987) eta 69 (1988).

leko ekarpenak —soziolinguistika edota hizkuntzaren soziologiaren izaera zientifikoaren finkapena, diglosia ideia egoera elebidunetara hedatzea, diglosiaren eta elebitasunaren arteko harremanen sailkapena, hizkuntzaren erabilpen esparrua kontzeptua, eta abar, gure artean batik bat *Sociología del lenguaje* (Fishman 1988b) liburuaren bitartez zabalduak—oso ezagunak —eta, apika, sinplifikatuegiak ere bai— izan dira. Ez dira hain ezagunak, ordea —eta ezagutu direnean eztabaida izan da nagusi (Odriozola 1992, adibidez), aldeko iritziak ere jaso arren (Txillardeggi 1992 eta 1993; Aizpurua 1995)—, arriskuan dauden hizkuntzei buruzko aldeari dagozkion ekarpen heldu eta sakonak (Fishman et al. 1985; Fishman 1988a, 1989, 1991 eta 1994), nahiz eta bere pentsamenduan beste alderdiekin uztartuta egon:

My values in the area of language and ethnicity predate my professional career; indeed, I suspect that these values are responsible for my gravitating toward sociology of language as a whole and toward the study of language and ethnicity in particular. I was socialized by parents and by an organized, first-generation American immigrant sociocultural environment that pointed me toward minority ethnolinguistic goals, problems, and efforts from a very tender age. (...). I have spent a good bit of my intellectual life studying, testing, revising and theorizing or generalizing in connection with language and ethnicity.

(1989: 2-3)

*Hizkuntzen historia: iraupena eta ordezkapena ikuspuntu etnokulturaletik*

Gizartearen bilakaerak bi alde ditu Fishmanen iritziz —gizartearen aztertzaile zenbaitentzat bezala (Rocher 1990)—: iraupena eta aldaketa, eta biak beti elkarri lotuta ageri direla dio (1991: 34) eta behin baino gehiagotan aldarrikatu du biak aintzat hartzen dituen ikerketaren beharra (1991: 37, 6. oin-oharra).

Hizkuntzaren soziologiaren arazorik interesgarrienak esanahi sozial iraunkorreko bilakaera historikoei loturikoak dira, Fishmanen ustez: “I frankly tend to see the best problems of the sociology of language as those that are closely linked to historical developments of lasting social significance” (ibid.: 101). Fishmanen ahalegin soziolinguistikoaren helburua *hizkuntza, kultura, gizarte eta identitatearen belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren teoria eta eredia eratzea* izanik (1991: 396), historia soziolinguistikoaren zeregina transmisio prozesu horien, edota transmisioaren etenaren, berri ematea izango da hain zuzen ere. Ildo horregatik, azterketa historikoak “Language maintenance and language shift in ethnocultural perspective” (1989: 177) izenburupean aurkeztu ditu, eta bertan oinarritzeko kontzeptuak *sistema etnokulturala* (“ethnocultural system”) (ibid.: 177)

eta berau babesten duten *muga etnokultural autorregulatuak* (“self-regulated ethnocultural boundaries<sup>58</sup>) (1991: 357) ditugu.

Erdigunean, beraz, delako hizkuntza horretan mintzatzen den taldea dago eta azalpenak talde horren autorregulazio etnolinguistikoaren ideiarene gainean antolatzen ditu Fishmanek.

### *Hizkuntzaren iraupena*

Hizkuntzaren iraupena esandako mekanismoen bizitasunari<sup>58</sup> zor zaio:

Language maintenance, the process and pursuit of inter-generational linguistic continuity, is a reflection of sufficient indigenous control over and delimitation of ongoing inter-group interaction processes so that they do not overpower the indigenous ethnocultural system.

(1989: 177)

Kasu hauetan ere, nahiz eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa bermatuta egon, hizkuntz komunitatea ez da kanpotiko eragin etnolinguistikoei mugak jarri beharretik libratzen (1991: xii).

Halaber, orain arte iraun duten hizkuntz komunitate gehienek euren ama hizkuntzaren transmisioa, nagusiki ahozkoa izateaz gain, etxea-familia-auzoa-komunitatea multzoaren sendotasunean oinarritu dute (ibid.: 95), hots, “lehen mailako erakunde soziokulturalen bidez” (1988a: 14), eta Kataluniako edo Quebeceko egungo saio itxaropentsuek<sup>59</sup> aipaturiko transmisioa inoiz eten ez izana dute abiapuntu (1991: 374).

### *Sistema etnolinguistikoaren dislokazioa*

Hizkuntz ordezkapena azaltzeko *dislokazio* kontzeptuaz baliatzen da, binomioa talde dislokatuak/talde dislokatugabeak (egituratuak edo etnolinguistikoki autorregulatuak) izanik (1988b: 178-9). Alegia, hizkuntza aldatzea sistema etnolinguistikoa dislokatzen denean gertatzen da:

Language shift of any kind (...) is an indicator of dislocation. It implies the breakdown of a previously established societal allocation of functions; the alteration of previously recognized role-relationships, situations and

---

58. Goiko kontzeptuen kidea Howard Giles, Richard Y. Bourhis eta Donald M. Taylor-ek 1977. urtean plazaratutako *bizitasun etnolinguistikoa* (“ethnolinguistic vitality”) genuke. Ikus, adibidez, Giles eta Johnson (1987), Giles, Coupland eta Coupland (arg.) (1991) eta Harwood, Giles eta Bourhis (1994).

59. Ikus 10. kapitulua: “Three Success Stories (More or Less): Modern Hebrew, French in Quebec and Catalan in Spain”. In Fishman (1991: 287-336).

domains, so that these no longer imply or call for the language with they were previously associated.

(1989: 212)

Komunitatearen dislokazioa era askotakoa izan daiteke: fisiko eta demografikoa (1991: 57), soziala —aukera sozialak hizkuntza nagusiaz bideratzen direnean (ibid.: 59-60)— edota kulturala —independentzia psikologiko eta kulturalaren higadura (ibid.: 62)—. Ildo beretik, “hizkuntz hedapenari dagozkion ahaleginak dislokazio personal, sozial eta kulturalerako gertaera ageri edo ezkutuz ere beterik daudela” (1988a: 6) ohartuko garela esan du. Dislokazioa, ordezkapena, azken finean, ez da berez sortzen den zerbait, ukipenean dauden kulturetan indartsuenak ahulenean eraginda baizik (1991: 59).

Sistema soziokulturelez eta kultur ukipenez ari garelarik, oinarrian hainbat kultura mehatxatuk Mendebaldeko baloreetan oinarrituriko kulturarekin duten ukipena dugu (ibid.: 7). Mendebaldar kulturaren ezaugarrietako bat —“a prevalent worldwide phenomenon” (ibid.: 28)— hedazalekeria da, gainerako kultura eta bizimoldeen kaltetan. Eta goikoari lotuta, intelektual gehienak balore horien alde ateratzen dira: “Many modern intellectuals (...) are basically integrationists or assimilationists insofar as minority cultures are concerned (...) believing firmly that larger, wealthier cultures are obviously better” (ibid.: 29).

Azkenik, hizkuntzen txikitzea mundu modernoan gertatzen ari den bilakaera orokorra baten zatia da:

The destruction of languages is an abstraction which is concretely mirrored in the concomitant destruction of intimacy, family and community, via national and international involvements and intrusions, the destruction of local life by mass-market hype and fad, of the weak by the strong, of the unique and traditional by the uniformizing, purportedly «stylish» and purposely ephemeral.

(ibid.: 4)

Hizkuntza eta kultura, hala ere, ez dira gauza bera eta gerta daiteke hizkuntza galtzea, baina aldi berean kulturak irautea (1989: 673).

*Hizkuntzen historiaz gehiago: hizkuntza eta nazionalismoa eta hizkuntzaren aldeko mugimenduak*

Hizkuntzen historia baldintzatu duten beste bi gertakari (1) nazionalismoak eta (2) hizkuntzaren aldeko mugimenduak dira eta hauei ere eskaini die arreta Fishmanek.

(1) Lehenengoari liburu bat eskaini zion 1972.ean, *Language and Nationalism: Two integrative essays*, bi partetan banaturik: nazionalismoaren izaera (1989: 95-175) eta nazionalismoaren eragina hizkuntzan eta



hizkuntz plangintzan (ibid.: 269-367). Nazionalismoari buruz erabili dudan bibliografian interesgarrienetakoa da lan hau. Nazionalismoa, nazio-estatuaren ezarri edo sendotzera zuzenduriko ideologia politiko gisa aurkezten duten definizio tipiko edo estandarretatik aldenduz (ibid.: 100), nazionalitateek euren interes etnokulturalen alde antolatzen dituzten erakundeekin eta garatzen dituzten ideologia, sinesmen, ohitura eta baloreekin zerikusia duen hitza da Fishmanen ustez (ibid.: 107). Azterketan estaturik gabeko herrien nazionalismoari zein nazio-estatuarenari egin die tokia.

Bigarren zatian hizkuntz plangintza nazionalismoak baldintzaturiko zerbait zein neurritan izan den argitu nahi du, eta horri lotuta, nola eta zergatik gertatu izan den hainbeste aldiz hizkuntza nazionalismoaren helburuen osagarri bat izatea (ibid.: 102). Nazionalismoaren erroak jatortasunaren aldarrikapenean daude (ibid.: 270), hizkuntza nazionalismoaren mezua zati bat da (ibid.: 274) eta, aldi berean, nazionalismoak hizkuntz plangintzaren beharra dauka (ibid.: 287), baina ondorio nagusia hau da: XIX. eta XX. mendeetan bi joera kontrajarriren aurrean aurkitu gara: ezberdintasunak ezabatu eta uniformizazioa bultzatzen duen joera, batetik, eta ondo sustraitu eta besteengandik bereizituriko komunitatearen beharra, bestetik (ibid.: 318).

(2) Hizkuntzaren aldeko mugimenduei eta haien oinarri teorikoak sendotzera zuzentzen diren ahaleginei beste lan batzuk eskaini dizkie Fishmanek: *Reversing Language Shift* (1991) liburua nagusiki, eta Fishman (1994) bezalako artikulak beranduago.

Aurrenik, soziolinguistika zientifikoak mugimendu hauek aztertzeko duen beharra erakusten saiatu da, esandako mugimenduak munduan zehar miloika lagun biltzen dituzten gizarte-gertakariak dira-eta: “It is no exaggeration to say that millions of people throughout the world are consciously engaged in efforts to reverse language shift and that many hundreds of thousands do so as members of movements whose explicit goal is RLS [Reversing Language Shift]” (1991: 381). Duten garrantzia ikusita, gizarte-zientzietan eta, zehazkiago, soziolinguistikaren eskaini zaien arreta urria, edo arretarik eza, harrigarria ezezik, etikoki funsgabea eta intelektual eta praktikoki dezepzionagarria iruditzen zaio Fishmani (ibid.: 381).

Iraganeko eta egungo hainbat herritako esperientziak —Irlanda, Euskal Herria, Frisia, Estatu Batuetako navajo indioak, hispanoak eta juduak, Zeelanda Berriko maori herria, Australiako hizkuntzak eta nolabaiteko arrakasta erdiesten ari omen diren hiru hizkuntza: hebraiera modernoa, Quebecoko frantsesa eta katalana— eta ikerketa soziolinguistikoen ekarpenak gogoan hartuta, hizkuntzaren aldeko mugimenduen arazoan balantzea egin eta aurrerantzeko bidea iradokitzen du (ibid.: 1).

Fishmanen iritziz, gizateriaren aniztasun eta demokrazia etnolinguistikoaren beharrik sakonenekin bat datozen mugimenduak dira hauek:

RLS-efforts go on and on, paying homage to human persistence in building the kind of ethnocultural life that is more consistent with deeply held

ethnolinguistic convictions. Indeed, RLS is a peculiarly and admirably human endeavor (...) to rebuild society in accord with an ideal of cultural democracy, justice and equality, to meet felt responsibilities *vis-à-vis* one's identity (...)

(ibid.: 414)

Hortaz, erraz ulertzen da hizkuntzaren aldeko mugimenduen esanahia ez dela hizkuntzara mugatzen, hau da, ez dela hizkuntza hutsa bultzatzen dutena, kultura jakin baten eduki eta ereduaren baitan txertatuta dagoen zerbait baizik (ibid.: 17).

Proposatzen duen bideak honako osagai hauek ditu: demokrazia kulturalaren aldarrikapena, lehiaren dauden bi hizkuntzen artean eginkizunen banaketa egonkorra bermatzea —“the attainment of diglossic bilingualism”, bere hitzetan—, hiztunen bilketa, elkarlotze eta sendotze demografikoa eta muga etnokulturalen berrindartzea, lagunarte, familia eta komunitatean bereziki oinarrituta (ibid.: 5). Mugen barrutian hizkuntzak sozialki adostutako onarpen eta babesa bereganatuko lituzke. Mugek, baina, ez dute erabat isolatzaileak izan behar, ez eta nahitaez muga geografiko, politiko, ekonomiko edo sozialekin bat etorri ere (ibid.: 66). Esandako baldintzak lortuz gero, goragoko helburuak ezarriko lirateke (ibid.: 5).

*Zergatik aztertzen dira soilik ordezkapen prozesuak? Gizarte-zientzia ofizialen kritika*

Aipatuak ditugu jadanik gizarte-zientzialariengan nabarmentzen diren korronte uniformatzaileak nahiz hizkuntzen aldeko ahaleginen bazterketa. Gaian sakonduz, desoreka handia dago hizkuntz ordezkapen bilakabideei eskaintzen zaien arretaren eta iraupena bermatzea bilatzen duten saioen ahaztearen artean. Heriotzerako bideetan dena aztertuta dago, urrats guztiak zehatz-mehatz deskribatu nahi dituen izugarritzko terminologia sofistikaturatu eratu da: hizkuntz higadura-aldaketa-arriskualgalera-heriotza..., eta asko eta asko dira bakoitzari buruz kontu daitezkeen ikerketak. Hizkuntzen bizitasunari buruz, berriz, gutxi, zabalegia eta zehaztasunik gabea da idatzi dena:

(...) very refined terminological and conceptual distinctions are made with respect to the «minus» side of the ledger (we speak of language attrition-shift-endangerment-loss-death and can itemize many studies of each waystation along this increasingly negative progression), while the «plus» side remains rather gross and undifferentiated and studies of revival, restoration, revitalization and restabilization remain proportionately few and far between.

(ibid.: 381)

Desoreka hori ez da kasualitatezkoa, pentsamendu moderno, liberal eta razionalak bere egin baina aitortzen ez duen joeraren isla baizik: “The fact that all of the latter [language convergence, language attrition and language death] have already been closely studied by sociolinguists while RLS has languished in neglect is merely an indication that the modern, liberal, rational mind is generally biased in incorporative directions that it itself rarely recognizes” (ibid.: 65).

Arrazoi ideologikoak ezezik, intelektualen jarrera psikologikoak ere kontuan hartu beharrekoak dira, eta garbi dago intelektua haiek ez dituztela oso begiko gutxiengoan aldeko ahaleginak:

It is hard for self-serving mainstream intellectual spokesman and institutions to be sympathetic to the lingering, cantankerous, neither fully alive nor fully dead quality of many (perhaps most) efforts on behalf of receding minority languages (and the majority of sidestream scholars too are ultimately dependent on the mainstream for their perspectives, if not for their very livelihoods).

(ibid.: 382)

Adibidez, gutxiengo etnolinguistikoen heriotza hurbilaren iragarpena azken bi mendeetako konstante bat izan da, batzuetan krokodiloaren malkoak isuriz eta beste batzuetan haiek gabe, ezkortasuna baino gehiago funtsean iragarleek gutxiengo horiek lehenbailehen desager daitezten duten nahia adieraziz:

The impending demise of ethnolinguistic minorities has been prematurely predicted, with or without crocodile tears, over and over again during the past two centuries. Such predictions are no more than thinly disguised «death wishes» that urge threatened cultures to hurry up and die today (or to submit quietly to euthanasia) rather than tomorrow.

(ibid.: 414)

Bestalde, hizkuntz hedapenari buruzko ikerketak irabazleen ikuspuntutik eginak daude eta, honenbestez, baikortasun eta triunfalismoa darie: “Hizkuntz hedapenari buruzko estudioen aldarte-giroa baikorra<sup>60</sup> izan ohi da gehienetan, beren abiaburua ere hedatzen ari diren hizkuntzen perspektibatik beretik, eta horien babesleenetik, hartzen dutenez” (1988a: 6).

---

60. Gogoan izan, adibidez, lan honen 2.2 atala: “Gaztelaniaren eta frantsesaren historiografia”. Hizkuntz ordezkapenaren azterketetan, ordea, ezkortasuna gailentzen da: “Hizkuntz hedapenaren estudioari dagokion ukitu afektiboa triunfalista izaten den bezala, hizkuntz ordezkatze edo lerratzearen azterlanari dagokiona aski goibela gertatzen da sarritan” (1988a: 7).

*Aldakuntzaren lilura versus hizkuntzen iraupenaren defentsa*

Badago beste arrazoi bat: aldakuntzaren lilura, egungo gizarte-zientzietan nagusi dena. Lilura horrek ikertzaileei gizarteko prozesu guztiak, eta areago hizkuntzenak, iraupenaren eta aldaketaren arteko konbinazio bat direla ikustea eragozten die:

(...) they [RLS] are actually «change-agents on behalf of persistence». Very few social scientists indeed have been inclined to conceptualize and analyze the relationship between change and persistence, probably because of our modern fascination with the dynamics of change *per se*. But all change is interspersed with persistence as well, just as all persistence is interspersed with ongoing change. (...). The forces and processes of change coexist, *in a single process*, with the forces and processes of persistence (...)

(ibid.: 387)

Horri lotuta, hizkuntzen aldeko ahaleginak naturaren aurkakotzat (ibid.: 382), irrazionaltzat (ibid.: 383), modernizazioarekin bateraezintzat (ibid.: 384) eta atzerakoitzat (ibid.: 386) jo eta mesianismo eta milenarismoarekin (ibid.: 384) edo iraganaren nostalgiarekin (1989: 657-8) berdinduak izan dira mendebaldar gizarte-zientzien korronte nagusietan. Halako erasoak ez dira berriak, iraganean oso sustraituak baizik. Norberaren hizkuntza edo kulturaren aldeko mugimenduak jadanik XIX. mendean bai goitik —Lord Acton (1862), barregarritzat hartuz— eta bai behetik —Engelsen “historiarik gabeko herriak”, kasu— oldartuak izan dira (1991: 383) eta, ideia laburbilduz, “Again and again, ethnicity has been delegitimized in the West (by both secular and Church spokesmen) as anti-modern, anti-intellectual, irrational, anti-progressive and anti-civil” (ibid.: 383).

Herrien nortasunaren defentsak, hala ere, leku bat aurkitu du Mendebaldeko pentsamenduan, sustraiak XVIII. mendearen azkenaldian eta Herder eta Whorf pentsalariengan dituena (ibid.: 70, 11. oinoharra). Zentzu horretan, mundu kulturalki eta linguistikoki anitza bilatzen duten soziolinguistak Herder eta Whorfen segitzaileak dira, ohartuta zein oharkabea, eta Fishmanek berak ere Herder eta Whorfzaletzat jo zuen bere burua: “I too am a Herderian and a Whorfian” (1989: 3)<sup>61</sup>.

*Hizkuntz bilakabideak aztertzeke ereduak*

Fishmanen pentsamoldea, ikusi dugunez, konplexu samarra da eta nekez bil daiteke eskema batera. Hala eta guztiz ere, Fishman bera saia-

---

61. Arturo Campion ere herdertzalea izan zen (ikus 8.1.3 atala). Ikus, halaber, Berlin (1995).

tu da hizkuntzen bilakabidearen azterketa berau errazten duten ereduen arabera egiten. Bi dira saiorik aipagarrienak: 1964ko “Language Maintenance and Language Shift as a Field of Inquiry” (bigarren bertsioa in Fishman 1988b: 135-80), bata, eta, bestea, *Language and Ethnicity in Minority Sociolinguistic Perspective*-ko “Language maintenance and ethnicity” (1989: 202-23) atala, baina lehendabizikoa erabilgarritasun orokorragokoa denez, bigarrena eskematiko samarra den bitartean, soilik lehenengoa aurkeztuko dut hemen.

Hizkuntzen iraupenaren eta ordezkapenaren azterketa Fishmanek “hizkuntzaren soziologia dinamiko” deituriko sailean kokatzen da: “*la sociología dinámica del lenguaje*, intenta dar contestación al interrogante «¿qué es lo que explica las diferentes causas del cambio de la organización social del uso lingüísticos y del comportamiento ante el lenguaje?»” (1988b: 35). Abiapuntua diglosiarik gabeko elebitasuna<sup>62</sup> erakusten duten egoerak dira (1988b: 135), hau da, egoera batzuk non elebitasuna gertatu arren, hizkuntzen arteko oreka puskatuta egonik, aldakortasuna nagusi den (ibid.: 129).

Azterketaren helburua modu honetan adierazi du:

El estudio del mantenimiento y desplazamiento de la lengua (...) se ocupa básicamente de la relación entre el grado de cambio (o grado de estabilidad) en los modelos del uso lingüístico, por un lado, y, por otro, de los procesos psicológicos, culturales o sociales en marcha dentro de las poblaciones que utilizan más de un nivel lingüístico para fines de tipo interno o externo.

(ibid.: 135-7)

Iker-eremua hiru azpisailetan banatzea proposatu du: “(a) el uso habitual de la lengua en más de un punto del espacio o del tiempo; (b) los procesos psicológicos, sociales y culturales previos, simultáneos o posteriores y su relación con la estabilidad o el cambio en el uso lingüístico habitual; (c) conducta ante la lengua incluidos el mantenimiento dirigido o los intentos de cambio” (ibid.: 137).

Banaka hartuta, honako ezaugarri hauek ditu azpisail bakoitzak:

(a) Hizkuntzaren erabilera. Hizkuntzaren iraupenaren eta ordezkapenaren ikerketaren abiapuntua bere ohiko erabilpen eruedetan aldaketa gertatu denentz jakitea da (ibid.: 137). Neurketa kualitatiboa nahiz

62. Fishmanentzat, elebitasuna norbanakoei dagokien ezaugarria den bitartean, gizarteari dagokiona diglosia da (Fishman 1988b: 120). Bi kontzeptuen gurutzaketatik, maila pertsonala eta sozialaren nahastetik, alegia, sortzen diren lau aukerak —(1) diglosia gehi elebitasuna, (2) diglosiarik gabeko elebitasuna, (3) elebitasunik gabeko diglosia eta (4) ez diglosia eta ez elebitasuna— erakusten dizkigun taula ezaguna eratu zuen Fishmanek (ibid.: 121).

kuantitatiboa izan daiteke (ibid.: 138) eta erabilpen arauak ezagutzera-koan kontzeptu guztiz egoki eta emankorra “erabilpen eremua” dugu<sup>63</sup> (ibid.: 140).

(b) Prozesu psikologiko, sozial eta kulturalak. Faktore hauen multzotik axola duten aldagaiak hautatzerakoan disziplinarteko lana eta gizarte-zientzien laguntza behar dira, ez soilik ikertzailearen intuizioa (ibid.: 149 eta 178). Bestalde, askotan faktore berak egoera batean ondorio bat eta bestean aurkakoa izaten duela ikusita, nekez ezar daiteke baliagarritasun interkultural eta diakronikoa duen tipologiarik edo araurik (ibid.: 149-50). Erregularitasunen bilaketan metodo konparatiboa behar dugu alde batetik, hots, kulturen arteko alderaketa, eta, bestetik, aztertzen ari diren egoerak ahalik eta sakonkien ezagutzea (ibid.: 166-7).

(c) Jarrerak eta hizkuntzaren gaineko jarduerak. Atal honetan hiru gai aztertzen dira: jarrera afektiboak —leialtasuna, gorrotoa, aurriritziak...—, hizkuntzaren gaineko jarduerak —plangintza, eragozpenak...— eta, hirugarrenik, alde kognitiboak —kontzientzia, hizkuntz gaitasuna, norberaren taldearen pertzepzioa hizkuntzaren aldetik, interferentzien aurreko jarrera...— (ibid.: 167-76).

Oro har, azken bi mendeetako gutxiengoen historia linguistikoa honako bi muturren artean koka dezakegu: mutur batean ohiko egin-kizunei eutsi eta erabilpen esparru formalagoak irabaziz joan diren taldeak —Quebeceko frantsesaren antzera— genituzke (ibid.: 178), eta bestean eurena baztertu eta hizkuntza nagusiren baterantz —ingelesa Estatu Batuetan, errusiera Sobiet Batasunean, gaztelania Hego eta Erdialdeko Amerikan...— lerratu direnak. Dislokazioaren terminoetan hitz eginez, lehena dislokazio handirik pairatu ez duten komunitateetan gertatzen da eta bigarrena, berriz, komunitate dislokatuetan (ibid.: 178-9).

Arestian esan bezala, azalpenaren antolaketa mota honi, ukitu zenbait gorabehera, iradokitzailea eta bilakabideen konplexutasuna bildu eta adierazteko egokia deritzot eta Nafarroako nire azterketa egiterakoan gogoan hartzeko modukoa.

---

63. Erabilpen eremuak (“domain” ingelesez) hizkuntza edo barietate baten edo bestearen hautaketa baldintzatzen duten testuinguru sozial tipifikatuak dira. Norik hitz egiten du, zein hizkuntzaz, nori eta noiz? galdera ezagunari erantzunez eratzten dira batik bat. Eremuen sailkapena ez da behin betikoa eta, nahiz eta erregularitasunak izan, egoera bakoitzari egokitu behar zaio (Fishman 1988b: 140-5). Eman den zerrenda bat, esaterako, hauxe da: familia, lana, hezkuntza, erlijioa, aisialdia, komunikabideak eta politika (Fishman 1991: 44), eta hau edo eman daitekeen beste edozein zerrenda beti, funtsean, formala/informala mailaketaren arabera antolatuko da.

*Irizpide metodologikoak*

Aurkezpenean zehar sakabanatuta agertu dira metodologiarekin erlazioatutako anitz ohar, hala nola gizarte-aldaketa eta iraupena uztartzen dituen teoriaren beharra, ikuspegi konparatibo eta disziplinar-tekoa, esangura soziolinguistikoa duten lan etnokulturalak, teknika kuantitatibo eta kualitatiboen erabilera, triunfalismo edo goibeltasunez kutsaturiko molde psikologikoen saihestu beharra, eta abar. Horiek ahaztu gabe, arreta oraingoan ikerketa diakronikoaren arazo, metodologia eta tekniketari ipiniko da.

Ikerketa historikoen arazo nagusietako bat da garai desberdinetako hizkuntz egoerekin lan egin behar dugula, normalean A garaiko egoera abiapuntutzat eta B garaikoa helmugatzat hartu eta bien arteko konparaketa eginez. Konparaketa egin ahal izateko iraganeko egoera, hots, A egoera, ongi ezagutu behar da, eta hor hasten dira arazoak. B garaia oraina ez bada, orduan A-rako esan dugunak B-rako ere balio du. Mota honetako lanen erronka abiapuntu fidagarritzat har daitezkeen ikerketa egokiak, erroldak batik bat, eskura edukitzea da (1991: 41).

Oso gutxi dira halako azterketak eginak dituzten hizkuntza “zorionekoak” (ibid.: 41), baina euskara, hizkuntz egoera erakusten duen erroldarik ez badu ere, Bonaparte printzearen mapa eta lanei esker, horietako bat dela esan dezakegu.

Iraganean burututako ikerketek landa bada erabil daitezkeen beste iturri bat: hiztunen oroitzapenak: “In some such studies, the «then» data is sometimes based on (...) the memory of current respondents with respect to Xish language use at one or more points in the past” (ibid.: 41). Lekukotasun hauek arazo bat dute: datu edo argibide hutsekin batera lekukoek euren iritziak ematen dituzte, eta kontua ez da bakarrik iritzi subjektiboak gehitzen dituztela, baizik eta gizarteko momentuko joerei edota galdetzailearengan sumatzen dituzten nahiei egokitzearen iragana itxuraldatu egin dezaketela (ibid.: 41). Ikertzailearen zeregina arrisku hau teknika egokiez saihestea da<sup>64</sup>.

Ikerketa batean hoberena eskala handiko teknika zabalak eta eskala txikiko teknika zorrotzak elkartzeko da, aurrenekoek agerian utzi dituzten gaietatik gehien interesatzen zaizkigunetan bigarrenen bidez sakontzeko (ibid.: 43).

Azken ohar metodologikoa ikertzailearen ikuspuntuari dagokio: deskribapena aztertzen ari den esperientziaren barrutik eta bere aktoreentzat duen esanahia aintzat hartuz egiteko eskatzen du Fishmanek, ez

64. Seigarren kapituluaren ikusiko denez, Uitziko landa-ikerketari arazo hori ekiditzearen *eztabaida taldearen* teknikaz baliatu naiz, *ahozko historiaren* barruan.

kanpotik eta gertaeren berezko esanahia kontuan hartu gabe (ibid.: 392). Hau da, *emic* eta *etic* ikuspegien arteko bereizketaren arabera (*emic*: barrutiko ikuspegia; *etic*: kanpotiko ikuspegia. Ikus, esaterako, Harris 1993: 32-4), *emic*-aren aldekoa litzateke Fishman.

### *Laburpena*

Hizkuntzen historia soziolinguistikoa honako arlo hauek ukitzen ditu gutxienez: (1) hizkuntzen iraupena eta galera; (2) bien dimentsio etnokulturala; (3) hizkuntza eta nazionalismoa; eta (4) hizkuntzen aldeko mugimenduak. Azterketaren muina, hala ere, aurreneko biek osatzen dute. Aldi berean, Fishmanen ahaleginen iparra adierazten duena laugarrena da: ordezkatzeko prozesuei aurre egiten saiatzea, alegia.

Fishmanentzat garrantzi handia duen ikuspuntu etnokulturalean kontzepturik emankorrenak autorregulazio etnolinguistikoa, muga etnokulturalak eta dislokazioa dira.

Kultura txikien gibelatzearen atzetik Mendebaldeko baloreetan oinarrituriko kulturen hedazetasuna aurkitzen dugula erakutsi du. Halaber, gizarte-zientzien korrante nagusiak balore horiekin ideologikoki nahiz psikologikoki identifikatuak daude eta hizkuntza txikiez dihardutelarik hauek arrotz egiten zaizkiela argi erakusten dute.

Hizkuntzaren hautaketa —erabilpen eremuan— eta norbanakoen eta gizartearen mailen konbinazioa —elebitasuna eta diglosia— ideiek, nahiz eta oraingo azalpenean zeharka baizik ez ditudan ukitu, toki handia dute Fishmanen kontzeptuetan.

Azterketa eredu interesgarria: hizkuntzaren iraupen eta ordezkapenaren berri hiru azpisailetan banatuta ematea. Azpisaileak (1) erabilera, (2) prozesu psikologiko, sozial eta kulturalak eta (3) hizkuntz jarrerak eta hizkuntzaren gaineko jarduerak dira.

Metodologiaz: konparatibo eta disziplinar-tekoa, etnokulturala, barrutiko ikuspuntutik (*emic*) aztertu beharra, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak, eskala handiko ikerketa zabalak gehi eskala txikiko ikerketa zehatzak. Hizkuntz historiaren arazo bat: abiapuntu fidagarri bat lortzearen garrantzia. Iturriak: errolda zaharrak eta lekuko oroitzapenak.

### 2.3.2.2.2 Ralph Fasold

Ralph Fasoldek 1984. urtean *The Sociolinguistics of Society* (Fasold 1992) testuliburu<sup>65</sup> argitaratu zuen eta 1990.ean *Sociolinguistics of*

---

65. Liburuaren azterketa kritikorako ikus Fishman (1986).



*Language* (Fasold 1993), bien bitartez soziolinguistikaren arloa eratzen duten atal eta gaiak aurkezteko helburuarekin. Gizartearen soziolinguistikari eskala handiko arazoak eta hizkuntzaren soziolinguistikari, berriz, eskala txikikoak legozkieke (Fasold 1993: vii) sailkapen horren arabera, betiere soziolinguistika zientifikoaren esparrua biek batera osatzen dutela jakinik (Fasold 1992: ix-x).

Soziolinguistika historikoa ez du aipatzen eta gutxiengoaren arazoei ere ez die toki handirik egiten, baina hizkuntzen gorabeherak ulertzeko oinarri sendoak ematen dituzten azterketa eta lanabes kontzeptual eta tekniko ugari eskaintzen ditu Fasoldek. Halaber, Paraguay, India, Irlanda eta Oberwart —azken hau arestian aipaturiko Susan Galen (1978 eta 1979) ikerketan oinarrituta— lurraldeetako hizkuntz bilakaeren deskribapena dakar.

### *Soziolinguistikaren zeregina*

Soziolinguistikaren gaia hizkuntzak giza taldeentzat duen garrantzia ikertzea da eta garrantzi hori hiztunek egiten dituzten hautaketan esangura sozialetik —nortasunaren adierazle gisa, nonbait— dator:

The sociolinguistics of society is about the social importance of language to groups of people, from small sociocultural groups of a few hundred people to entire nations. (...) they [people] exploit the subtle and not so subtle aspects of language to reveal and define their social relationships with the people they are talking to, with people who can overhear them, and even with people who are nowhere around. In many countries of the world, a lot of this kind of social identity work can be accomplished simply by choosing one or another of the two or more languages a speaker knows.

(1992: 1)

Dena den, Fasoldek ez du teoria soziolinguistikoko orokor eta bateratua sinesten. Soziolinguistika, bere ustez, gehiago da elkarren artean lotuta dauden gai edo arazo multzoaren azterketa, teoria oso bat baino (1993: viii).

### *Hizkuntz jarrerak*

Atal hau gehi hurrengo biak, hizkuntz hautaketa eta hizkuntz iraupen eta ordezkapena, Fasolden azalpenen zatirik mamitsuenak dira gure interesetarako, hiruren artean lotura logikoa duen multzoa osatuz.

Hizkuntz jarreari toki garrantzitsua egin behar zaie soziolinguistikan (1992: 149) eta haien azterketarako norabidea, hautaketaren kasuan bezalaxe, norbanakoengandik hasi eta gizartera heltzea da, psikologia sozialaren ekarpenez baliatuz (ibid.: 147).

Fasoldek dioenez, hizkuntz jarrereri buruzko ikerketa gehienak psikologia sozialean ikuspegi mentalista deitzen zaionetik egin dira, eta Fasold bera ere horren alde agertzen da (ibid.: 146-7). Ikuspegi honen arabera, jarrera *pertsonaren prestasun egoera bat* da, pertsona hori estimulu baten aurrean era jakin batean eta ez bestean erantzuteko gertutzen duena<sup>66</sup>.

Hizkuntz jarrerren kasuan, hauek hiru motakoak izan daitezke: hizkuntzari berari buruzko jarrerak, hizkuntzaren hiztunekiko jarrerak eta, hirugarrenik, hizkuntzaren iraupenaren aldeko ahaleginetikiko jarrerak (ibid.: 148). Kontuan hartu behar da askotan hizkuntzarekiko jarrerak haren hiztunei buruz ditugun iritzien isla hutsa izaten direla (ibid.: 148).

Jarrerak pertsonen prestasun egoera subjektiboa izaki, beren ikerketan metodo arazoak sortzen dira. Jarrerak ezagutzeko bi bide nagusi daude: aitorten zuzena, bata, eta, bigarrena, lagunen portaeratik atzean zer jarrera motak dauden ondorioztatzea (ibid.: 147). Hizkuntz jarrera historikoak zehazterakoan, garbi dago bietara jo behar dugula.

### *Hizkuntz hautaketa*

Soziolinguistika existitzen bada, Fasolden hitzetan, hiztunok uneoro lengoaiaren erabileran aukera desberdinen artean bat *hautatzen dugulako* da, hots, gizartean eskura ditugun barietateen artean —bi erregistroren artean, bi hizkuntzaren artean, adibidez— hautapena egin dezakegulako (ibid.: 180). Hizkuntz hautaketaren azterketak egoera jakin batean jendea hizkuntza batean mintzatzera eramaten duena zer den ikertuko du (ibid.: 180). Galdera, beraz, ez da nolanhikoa eta hizkuntz bilakabideen muin-muinean dagoela esan daiteke.

Hizkuntz hautaketaren gaiari heltzeko hiru hurbilketa mota bereizi ditu Fasoldek: (1) soziologikoa, (2) psikosozilogikoa eta (3) antropologikoa (ibid.: 180)<sup>67</sup>.

(1) Hurbilketa soziologikoa. Tresna kontzeptual nagusia gizarte-egitura edo erakunde bat da: Fishmanen erabilpen eremua (ibid.: 183), kontua halako eremu batean zein hizkuntza aukeratzen den aztertzea izanik.

---

66. Ikuspegi mentalistaren aurrean ikuspegi *konduktista* genuke: jarrerak egoeren aurrean pertsonak ematen dituzten erantzunetatik ondorioztatuko genituzke besterik gabe (Fasold 1992: 147).

67. Ildo beretik, Pier Paolo Gigliolik, Laboven soziolinguistikari hurbilketa linguistikoz gain, hurbilketa antropologikoa eta soziologikoa bereiziak zituen 1972.ean, bakoitzari buruzko ohar interesgarriak erantsiz (Giglioli 1990: 8-13).

(2) Hurbilketa psikosozialak arreta norbanakoen motibazioetan eta hauen alderdi sozialean ipintzen du gehienbat. Hau azaltzeko bi eredu aurkezten ditu Fasoldek: Simon Herman-en *egoera teilakatuak* (“overlapping situations”)<sup>68</sup> eta Howard Giles-en *egokieraren teoria* (“accommodation theory”)<sup>69</sup> (ibid.: 187).

Hermanen egoera teilakatuen teoriak dioenez, hitz egiterakoan hiru egoera ditu hiztunak gogoan: bere beharrak —hobekien menderatzen duen hizkuntzan egiteko, batez ere—, mintzatzen ari den unean talde sozialak berarengandik espero duen hizkuntza (“immediate situation”) eta, hirugarrena, kanpoko talde batekiko kideetasunaren zein urruntasunaren adierazpena (“background situation”) (ibid.: 187). Esandako hiru egoerak teilakatzen direnean, hirurak bat etorri eta hizkuntza bera eskatzea edo bakoitzak hizkuntza desberdin bat eskatzea gerta daiteke. Kontua orduan zein gailentzen den, eta zergatik, ikertzea litzateke (ibid.: 187), batez ere hiztunaren beharra eta talde soziokulturalen eskeak kontrajarriak daudenean (ibid.: 188).

Gilesek hizkuntz portaeraren egokieraren teoria garatu zuen. Oinarrizko ideiak *konbergentzia* edo bateratzea eta bere kontrakoa, *dibergentzia* edo aldentzea, dira. Hots, konbergentzia hiztunak solaskidearen beharrei egokitzen zaien barietatea erabiltzen duenean gertatzen da, eta hau da ohikoena, baina beste batzuetan ez egokitzea gerta daiteke, eta orduan dibergentzia genuke (Fasold 1992: 188). Pertsona bat hitz egiten ari delarik bateratze maila desberdinak izan daitezke, konbergentziarik handienetik —aurrean duenaren hizkuntzaz mintzatzea— aldentzerik bortitzeneraino (ibid.: 189). Teoria hau erabilgarria da gutxiengo hizkuntz portaeraren azterketan, gehiengo portaerarenean ere bai, eta, besteak beste, horrela egin zuten 1977.ean Giles, Bourhis eta Taylor-ek (ibid.: 189-91).

(3) Hurbilketa antropologikoa. Aurrekoetan bezala, ikuspegi antropologikoa ere hizkuntz hautapena bideratzen duten baldintzak argitzen saiatzen da. Ikuspegi antropologikoaren ekarpena bikoitza da: ikerketaren orientazio edo nondik norakoa eta helburuak<sup>70</sup>, alde batetik, eta metodologia, bestetik. Metodologiaz beherago mintzatuko gara. Hurbilketa antropologikoaren orientazioaren berezitasuna hizkuntz por-

68. Egoera teilakatuen teoriaren jatorrizko azalpena: Herman (1977).

69. Egokieraren teoria Gilesen beraren hitzetan azaldua: Giles et al. (arg.) (1991). Teoria horren garapen bat “nortasun etnolinguistikokoaren teoria” dugu: Giles eta Johnson (1987).

70. Ez dira soziolinguistak antropologiaren laguntza bilatzen duten bakarrak. Ikus, esate baterako, historiaren alorrean, Le Goff et al. (zuz.) (1988: 567), non antropologiak eta etnologiak kulturen historian duten zeregina erakusten den.

taera komunitatearen baloreei lotuta esplikatzen ahalegintzean datza (ibid.: 192), eta, zehazkiago, komunitatearen hizkuntz baloreen ezagutza sakona bilatzean.

Aldi berean, ikuspuntu antropologikoak hizkuntz hautaketa, baloreen aldetik ezezik, partaidetza komunitarioren aldetik ere aztertzen du. Alegia, hizkuntza jakin batean hitz egitea hautatzen dugunean hizkuntz komunitate horretako kide garela —edo izan nahi dugula— adierazten ari garela hartzen da abiapuntu gisa hurbilketa antropologikoan (ibid.: 208).

Hizkuntz portaera balore eta arau soziokulturalekin eta komunitate bateko zein besteko partaidetza adieraztearekin uztartzen duen hurbilketa mota hau da Fasoldek gogokoen duena (ibid.: 207). Ez ditu ikuspegi antropologikoa eta aurrekoak, ikuspegi soziologikoa eta ikuspegi psikologikoa, kontraizartzen eta, antropologikoari sakonena iritziz, hirurak bateragarriak direla dio:

The contributions of the three social science disciplines all provide valuable insights into the phenomenon of language choice. Anthropology seems to provide the greatest explanatory depth of three (...). The most thorough understanding of language choice as a sociolinguistic phenomenon seems to come from incorporating the insights of sociology and social psychology into an anthropological framework.


(ibid.: 209)

Hizkuntz komunitatearen eta komunitate politikoaren arteko harremanez Fasoldek egin azterketa interesgarria da. Azterketaren abiapuntutzat ondoko ezaugarriak dituen egoera konplexu bat irudikatu du: bi hizkuntz komunitate erkidego batean bilduta, biak, noski, botere politiko beraren pean egonik. Aginpidea, bi komunitateetatik indartsuenak du, hau da, komunitate batek agintzen du eta besteak ez. Hemendik aurrera bi aukera daude.

Aurrena, bi komunitateak elkarrengandik bereizirik egotea, nahiz eta gizarte berean eta bata bestearen agindupean egon. Inork ez du bere burua aldi berean beste taldeko partaidetzat jotzen (ibid.: 193).

Bigarren kasuan ere bi komunitate dugu, baina behe mailakoak goi mailakoaren zatitzat jotzen du bere burua, partaidetza eta, ondorioz, leialtasun bikoitza-edo balute bezala. Leialtasun bikoitz horrek arazoak sortarazten ditu maiz, eta egoera korapilatsuaren aurrean mota desberdinetako erantzunak ematen dizkiote beheko taldeko kideek, hizkuntz ondorio ezberdinekin ere (ibid.: 193).

Irudietan, hauexek lirateke bi gizarte-egitura moten eskemak:



3. irudia. Gizarte-egitura mota bien eskema: (a) goi eta behe mailako komunitateak bereizirik; (b) behe mailako komunitatea goi mailakoaren zati aldi berean (Iturria: Fasold 1992: 194)

Nafarroarekiko erkaketa berehala datorkigu gogora eta garbi dago (a) eredu-egitura inoiz gertatu bada, Nafarroako erresumaz geroztik (b) eredu-egitura dugula. Alegia, euskaldunak, euskal komunitatekoak izateaz gain, Nafarroa izeneko eta erdaldunen ereduaren arabera antolatutako gizarteko kideak ziren eta horrela ikusten zuten euren burua: euskaldunak eta nafarrak (ikus 3.5 eta 6.4.6 atalak). Erdaldunek, aldiz, Nafarroa politiko osoa euren talde etnolinguistikoarekin berdintzen zen heinean, nekez onartuko zuten luzaroan erdaraz ez zekien nafarrik izatea.

### *Hizkuntzaren iraupena eta ordezkapena*

Hizkuntzaren iraupena zein galera hizkuntz hautaketa kolektiboaren epe luzeko emaitza dira (ibid.: 239) eta, ikuspegi antropologikotik, biak gertakari edo bilakabide mota beraren parte (ibid.: 213-4), nahiz eta orain arte ordezkapena aztertzea ikertzaileentzat iraupena aztertzea baino askoz erakargarriagoa suertatu (ibid.: 227), Fishmanek ere erakutsi bezala.

*Iraupena* komunitateak tradizionalki erabili d(it)uen hizkuntza(k) erabiltzen segituko d(it)uela erabakitzen duenean gertatzen da: “In language *maintenance*, the community collectively decides to continue using the language or languages it has traditionally used” (ibid.: 213). *Ordezkapenak* alderantzizko erabaki kolektiboa adierazten du: komuni-

tateko kideek hizkuntza berri bat hautatu dute ohiko hizkuntzaren ordeztu (ibid.: 213). Ordezkapena egiaz gertatzen ari den seinale gisa bi aipatu ditu Fasoldek: jarrerei dagokienez, hizkuntzari txarra, itsusia edota desagokia iriztea, eta transmisioari dagokionez, familia bidezko jarraipena etetea (ibid.: 238).

Iraupen eta ordezkapenaren alorrean, soziolinguistikaren egitekoa jendea, hizkuntz komunitatea, alegia, hizkuntzari eusteko edo hizkuntza aldatzeko hautapena egitera daramaten arrazoi multzoa agertzea da (ibid.: 214).

Hizkuntz ordezkapenaren eragiletzat gehien jotzen diren faktoreak aipatu ditu Fasoldek: migrazioa, industrializazioa edota ekonomi aldaketak, hezkuntza, gobernuaren presioak, urbanizazioa, prestigioa, demografia, eta abar (ibid.: 217). Baina aipamena egin eta ordezkapena sarri gutxiengoan kaltetan gertatzen dela esan ondoren, teoriak ahulak liratekeen hizkuntzek iraun izana, nahiz eta adierazitako faktoreak agertu, maiz gertatu dela erakutsi du Fasoldek (ibid.: 217).

Zientziaren kezka bat lege orokorrak aurkitzea izan ohi da, baina iraupen eta ordezkapen prozesuendako balio unibertsaleko azalpenak soilik komunitatez komunitate egindako ikerketa intentsiboen kopuru handi baten azterketa konparatibotik lor daitezke (ibid.: 214).

Denaren atzetik, eta Fishmanek adierazi bezala, *nortasun etnokulturalaren* gaiarekin egiten dugu topo, bai galera bai iraupena azaltzeko. Galera taldeak bere izaerari muzin egin eta talde handiago eta indartsuago bateko zati bezala agertu nahi duenean gertatzen da. Beste talde batzuek, berriz, aurrekoen gizarte-baldintza bertsuetan maiz, euren hizkuntza eta kultur nortasunari eusten diete (ibid.: 240).

### *Dell Hymes-en komunikazioaren etnografia*

Komunikazioaren edo hizketaren etnografia Dell Hymes-ek, hizkuntzalaritzak —erabilaren azterketa baztertuz— eta antropologiak —hizkuntza ahaztuz— uzten zuten hutsunea betetzeko asmoz, bultzaturiko iker arloa dugu, eta Fasoldek tarte bat eskaini dio. Disziplinaren definizioa, Dell Hymesen hitzetan, hauxe da:

The ethnography of speaking is concerned with the situations and uses, the patterns and functions, of speaking as an activity in its own right.

(Hymes 1968. The ethnography of speaking. Aipatua in Fasold 1993: 39)

Beraz, soziolinguistikari hurbiltzeko mota bat da komunikazioaren etnografia, zeinean hizkuntzaren erabilera balore sozial eta kulturalekin harremanetan jartzen den (Fasold 1993: 39). Soziolinguistikaren eta antropologiaren arteko mugetan ikusten du disziplina hau eta, arestian

ikuspegi antropologikoa gogoko zuen era berean, komunikazioaren etnografia ere biziki atsegin du Fasoldek (ibid.: ix).

Gizarte bateko hizkuntz aniztasuna ulertzeko *abiabururik argigarri-netako bat* Dell Hymesen ondoko baieztapenak ematen digu: hizkuntza batek irauten badu, gizartearen gainerakoek betetzen ez dituzten zeregin berezi batzuk dituelako dela pentsatu behar dugu:

The *heuristic assumption* is that their [of the kinds of codes employed in a community] separate maintenance implies some specific role for each which is not wholly duplicated by any other (...)

(etzana nirea da) (Hymes 1990: 31)

Komunikazioaren etnografiaren kontzeptu nagusiak hauek dira (Hymes 1990: 22; Fasold 1993: 40-7): hizkuntz komunitatea, deskribatzen duen taldea hizkuntz komunitatea delako; elkarrekintzaren unitateak: hizketa egoera, hizketa gertaera eta hizketa ekintza; eta hizketaren osagaiak —Roman Jakobsonen komunikazioaren teoritik eratorriak—: partehartzaileak, kanalak, kodeak, tokia, mezuen forma eta generoa eta gaia.

Komunikazioaren etnografiak ez du eredu teorikorik garatu, baina hizkuntzaz arduratzen diren gainontzeko gizarte-zientziekin erkatuta, nabarmentzen zaizkion ezaugarriak sakontasuna eta arazoak besarkatzeko ahalmen handia dira Fasolden ustez (1993: 62).

### *Irizpide metodologikoak*

Metodologiaren aurkezpenean oinarrizko banaketa metodo kualitatibo eta kuantitatiboen artekoa da. Ikuspegi kualitatiboan hizkuntzak betetzen dituen funtzioak eta funtzio bakoitza betetzeko zer ezaugarri behar dituen aztertzen da, besteak beste (Fasold 1992: 113). Metodo kuantitatiboek datuak batez ere errolda eta inkestetatik jasotzen dituzte eta estatistikaren erabilpen konplexua egiten dute. Arlo askotan erabiltzen dira (ibid.: 133).

Jarreraren azterketa mentalistan eskura dauden bideak aipatuak ditugu dagoeneko: subjektuen aitorten zuzena eta ikertzaileak behatzen dituen portaeretatik jarrerak ondorioztatzea.

Gainerako arloei —hizkuntz hautaketa, iraupena eta ordezkapena eta komunikazioaren etnografia— dagozkien metodologi irizpideak bateratuak aurkez daitezke.

Hurbilketa soziologikoak errolden miaketaz, inkestez, galdeketaz eta soziologian ohikoak diren metodoez baliatzen da. Metodo kuantitatibo eta estatistikoak dira nagusi (ibid.: 192 eta 215).

Hurbilketa psikologikoaren metodoez Fasoldek egin duen aipamen ia bakarra jendeen portaera kontrolpeko esperimentuetan aztertzearena

da (ibid.: 192), baina “egoera teilakatuen” nahiz “akomodazioaren teoriaren” irizpideak erabat erabilgarriak zaizkigu.

Arretarik handiena hurbilketa antropologikoaren metodoetan<sup>71</sup> jarri du. Hauetan, datu zenbakarriak erabiltzen badira ere, azterketa estatistiko konplexurik ez da egiten (ibid.: 193) eta bide nagusia behaketa da. Ikuspegi antropologikoak komunitatearen barruko ezagutza eta ulermena bilatzen du batez ere (1993: 47). Bi metodo gailentzen dira: “behaketa partehartzailea” (“participant observation”) eta “introspektzioa” (ibid.: 47). Halaber, beste metodo batzuk ere aipatzen dira, hala nola elkarrizketak, iturri idatziak —egungoak nahiz iraganeko deskribapenak— (ibid.: 47) eta galdeketak (1992: 239).

Behaketa partehartzaileak —antropologiaren metodo tradizionala— epe luzea eskatzen du. Ikertzailea komunitatearekiko arrotza da, ez da bertakoa, eta deskribapen egokia egin ahal izateko mundua komunitateko partaideek bezala ikusten saiatu beharko du, jasotzen dituen argibideak bere iritzien galbahetik iragazi gabe. Duen arriskua datuek bertako kulturaren duten esanahi zehatza gaizki ulertzea edota ulertzea ez iristea da (1993: 47-8).

Introspektzioak ikertzailearen lana bere komunitatean bertan egiten ari dela esan nahi du (ibid.: 48). Beraz, bi behaketa motaren aurrean gaudela esan daiteke, kanpotik etorritakoarena eta bertakoarena. Introspektzioa ez da lehen begirada batean eman dezakeen bezain erraza eta gutxieneko baldintzak bete behar ditu. Alde batetik, portaera asko begi-bistakoak eta automatikoak direnez, komunitateko kideentzat oharkabean igarotzen dira. Bertako ikertzaileak portaera horietako anitz berarentzat ere oharkabean gelditzeko arriskua du (ibid.: 48). Ikertzaileak, bestalde, komunitateko praktika eta sinesmenak ongi ulertzen dituela ziurtatu behar du (ibid.: 49). Azkenik, beste arrisku mota bat ikertzaileak bere komunitatean gogoko ez dituen aurkikuntzak egiten dituenean gertatzen da. Joera arriskutsu bat jasotako datu horiek ez onartzearena izan liteke (ibid.: 50); beste joera bat, beste muturrera joan eta masokismo ariketa batean txarizat jotzen diren ezaugarriak handitu eta areagotzearena genuke.

### *Laburpena*

Fasolden ekarpena soziolinguistikako sail guztien aurkezpen zehatzean, hizkuntz bilakabideak aztertzeiko ikuspegian eta eskaintzen dituen ohar metodologikoetan dago batik bat. Bere azalpenetatik, arreta hizkuntz jarrerren, hizkuntz hautaketaren eta hizkuntz iraupen eta ordezkapenaren ataletan jarri dut.

---

71. Metodo antropologikoak goraiatu dituen beste bat Charlotte Hoffman (2.3.2.2.3 atala) izan da. Berezi erakargarriak eta baldintza teknikoak ongi zainduz gero, balore handikoak iruditzen zaizkio (Hoffman 1991: 183).



Hizkuntzen bilakabideen erdigunean hiztunek, banaka nahiz taldeka, egiten dituzten hautapenak daude. Hautaketak jarrerren iragazkitik pasa ondoren hartzen dira eta hizkuntza irautera edo galtzera eramaten dute. Funtsean sistema etnokulturalekiko atxikimenduaren arazoa aurkitzen dugu.

Bilakabide hauek ezagutzeko bide desberdinak daude. Bide soziologikoaren kontzeptu nagusia erabilpen eremuarena da. Bide psikosozialak egoera teilakatuaren kontzeptua eta egokieraren teoria baliatzen ditu. Baina biderik sakonena eta, aldi berean, beste biak bere baitan uztartzeko gaitasuna duena antropologikoa da. Ez da portaera linguistikoaren deskribapenean gelditzen eta behaketak eskaintzen dizkion argibideak komunitatearen balore kulturalen arabera azaltzen eta, alderantziz, balore kulturalak hizkuntz portaeraren argitara ulertzen saiatzen da. Halaber, hizkuntzaren antropologiaren eta hizkuntzalaritzaren artean kokatuta, komunikazioaren etnografia disziplina dugu.

Metodologiaren bezainbatean: metodo kuantitatibo eta kualitatiboak; jarrerak ezagutzeko bideak: aitorpen zuzena eta portaera ikusita handik jarrerak ondorioztatzea; errolden erabilera eta inkestak; kanpoko ikertzailearen behaketa partehartzailea, bertako ikertzailearen introspektzioa —zientifikoki egokia izateko bete behar dituen baldintzekin—; elkarrizketak, idatzizko iturriak eta galdeketak.

### 2.3.2.2.3 Charlotte Hoffman

Hizkuntzen bilakaera iraupena eta ordezkapenaren ikuspegitik landu dutenen sailean hirugarrena Charlotte Hoffman dugu. Autore honek *An Introduction to Bilingualism* (Hoffman 1991) liburu orekatu eta ongi taxutua plazaratu zuen.

Elebitasuna norbanako zein gizartearen aldetik aztertu du, horren arabera liburua bi zatitan banatu —hurbilketa psikolinguistikoa eta hurbilketa soziolinguistikoa— eta bietan ideia eta azterketa egoki eta iradokitzaileak agertuz. Ideia gehienak, hala ere, Weinreich, Fishman eta Fasolden aurkezpenetan ezagutu ditugunen ildotik —disziplinarteko lana, gizabanako eta gizartearen uztardura, elebitasunaren soslaia, hizkuntz hautaketa, iraupena eta ordezkapena ikergaitzat hartzea, bilakabide hauen dimentsio etnokulturala...— doazela esan daiteke eta horrexegatik ez ditut berriro errepikatuko.

Haien lanekin erkatuz gero, aldiz, alderdi bat nabarmentzen da Hoffmanen lanean: liburu osoan erakusten duen gutxiengoenganako ardura.

### *Hizkuntz gutxiengoak*

Hizkuntz gutxiengoen azterketa Mendebaldeko Europara mugatu du Hoffmanek, baina European bertan egoera txit aberatsa dugu, ia estatu

guztietan hizkuntz komunitate bat baino gehiago baitugu (ibid.: 219). Gainera, estatuaren arteko egungo mugak irizpide kultural, etniko eta linguistikoa kontuan hartu gabe marraztuak izan dira eta muga politikoa eta linguistikoa bat datozen egoerak oso bakanak dira (ibid.: 224).

“Hizkuntz gutxiengoa” izena ez zaio asko gustatzen, lagun multzo txiki batek baizik ez duela hitz egiten aditzera ematen duelako, baina “hizkuntza etnikoa”, “hizkuntza erregionala” edo “nazio hizkuntza” bezalako terminoak ere ez dira hobeak (ibid.: 226). Hala ere, oharra egin eta gero, gehienetan “hizkuntz gutxiengoa” (“linguistic minority”) hitza erabiltzen du.

Hizkuntz gutxiengoaren definizioa eman (ibid.: 221), Frantziako Iraultzatik abiatzen diren lerro historiko zenbait marraztu (ibid.: 227-31) eta estatuak beren barrutian dituzten gutxiengoekiko jokamoldeak aurkeztu (ibid.: 235-6) ondoren, interesgarriena gutxiengoaren egoeraren ikerkuntzaren ezaugarriari eskaintzen dien atala da.

### *Hizkuntz gutxiengoaren azterketa*

Hizkuntz gutxiengoena ikergai berri samarra bada ere, Hoffmanek dioenez, bi aro bereiz daitezke bere bilakabidean. Lehen, banaka aztertzen ziren gutxiengoak, arreta bakoitzaren historia, hizkuntza eta tradizio soziokulturalean ipiniz<sup>72</sup>. Egun, ordea, hurbilketa *soziolinguistiko eta konparatiboek* hartu dute lehentasuna (ibid.: 244).

Elebitasunaren ikerkuntzak disziplinarterkoa izan behar du (ibid.: 245). Orobat, teknika mota desberdinak erabiltzen dira. Arazoa sintesi egoki batera iristea da, eta horretarako ekarpen guztiak bere baitan bildu eta kontzeptuak integratzeko gai den bilbe teorikoa eduki behar da (ibid.: 245). Bestalde, hainbeste izanik hizkuntzetan, beren hiztun taldeengan eta beren testuinguru historikoetan eragina izan duten faktoreak, beste arazo bat faktore guztien artetik munta duten aldagaiak ongi aukeratzea da.

Konparaketa dinamikoa eta emankorra izan dadin, ongi hautaturiko aldagaiez baliatzeaz gain, *dimentsio historikoa* gehitu behar zaio, azterketa historikoen hutsunea orain arte ia erabatekoa bada ere:

While, for example, it may be relatively straightforward to describe and compare language use among two given minorities, it may prove impossible to account for the fact that one has largely lost its native tongue although the other has not. One of the reasons for this difficulty is that *no long-term studies have ever been carried out in this area (...)*

(etzana nirea da) (ibid.: 245)

72. Oroitzen bagara, hauexek dira, hain zuzen ere, euskararen historiografiaren azterketak erakusten dituen ezaugarriak.

Hizkuntz gutxiengoei buruzko lanetan saihestu behar den arrisku bat subjektibismoa da, hots, emaitzak ikertzailearen iritzi subjektiboez kutsatzea (ibid.: 245). Azkenik, aurrekoek bezala, iturri eta datuen urritasunaren arazoa aipatu du Charlotte Hoffmanek (ibid.: 246).

### *Laburpena*

Weinreich, Fishman eta Fasolden ildotik doan Hoffmanen ekarpena hizkuntz gutxiengoen azterketan dago, eta hortik metodologi kontuez dioena nabarmendu dut: terminologiaren arazoa, hurbilketa soziolinguistiko eta konparatiboa, disziplinarreko lana, ikuspegi antropologikoren aberastasuna eta dimentsio historikoaren beharra.

Bestalde, lan honetan elebitasunaren alde indibidual eta sozialak jorratu ditu Hoffmanek. Gizabanakoei dagokien aldea psikolinguistikaren ekarpenetan oinarritu du eta bertan pisu handia eman zaio hizkuntz hautaketaren atalari.

Elebitasunaren alde sozialaren azterketa da soziolinguistikaren egitekoa, Hoffmanen ustez. Hizkuntzen iraupena eta galera funtsean haien hiztunen erabaki eta hautapen kolektiboen emaitza dela erakutsi ondoren, arreta hizkuntz gutxiengoengana zuzendu du.

#### 2.3.2.2.4 Juan G. Cobarrubias

Juan G. Cobarrubias hizkuntz plangintzaz egin ekarpenengatik da ezaguna batez ere, baina badu hizkuntz iraupen eta ordezkatzeko bilakabideak aztertzeko oso erabilgarria den kontzeptu bat: *etoglosia*.

### *Etoglosia eta hizkuntza menderatuen iraupena*

Etoglosia hizkuntzen estatusa azaltzea ahalbidetzen digun kontzeptua dugu. Zein da etoglosiaren definizioa?:

La etoglosia está dada por la combinación de funciones sociolingüísticas de una lengua y el arraigo correspondiente a cada función.

(Cobarrubias 1986b: 189)

Definizioan, beraz, hizkuntzaren eginkizunak eta haien errotze maila lotzen dira. Funtzioak instituzionalizatuak, instituzionalizatu gabeak eta mistoak izan daitezke (ibid.: 190). Funtzio baten errotze maila hainbat faktoreren emaitza da: hiztunen leialtasuna eginkizun horrekiko, funtzio horrek bideratzen duen komunikazioaren kalitatea, hiztunen portzentzia, e.a. (ibid.: 189). Cobarrubiasek dioenez, etoglosiarena kontzeptu dinamikoa da eta sustrai historikoak dituzten bilakabideak aztertu eta etorkizunerako hipotesiak luzatzeko abagunea ematen digu.

Hizkuntza menderatuen kasuan, beren iraupena etoglosia handia dutelako azaltzen da. Alegia, hizkuntza batek, eginkizun instituzionalizatuz betetzen ez duen arren, instituzionalizatu gabeko funtzioak irmoki sustraituak baldin baditu, euskarak bezala, mantentzeko aukera handia izango du:

(...) la etoglosia permite, por ejemplo, explicar que una lengua oprimida, es decir, una lengua carente de funciones institucionalizadas, pueda mantenerse con pocas funciones no-institucionalizadas de arraigo sólido, como nuestra propia experiencia [euskararena] bien nos lo demuestra.

(ibid.: 190)

#### 2.3.2.2.5 Laburpena eta ondorioak

Oso emankorra gertatzen da hizkuntzen historiako iraupen eta ordezkatzearen ikuspegia, berez —arreta bakarrik atzerakadaren arazotan jartzen duen ikuspegiaren aldean— eta, bereziki, plazaratzen dituen kezka orokorreatatik. Ikergai bezala Fishmanek erakutsi zuen hurbilketa mota honen arabera, historia soziolinguistikoaren gaia hizkuntzen iraupen eta ordezkatzeko bilakabideak, prozesu beraren alde zatietan gisa ulertuta, ditugu batera. Bide hau hartzen duten ikertzaileengan nabarmen-nabarmena da, orobat, hizkuntzen bilakaeraren dimentsio etnokulturalarekiko ardurak. Hauei lotutako gaiak hizkuntz jarrerak, hizkuntzen gaineko jarduerak —hizkuntzaren aldeko mugimenduak barne— ditugu, denen gizarte-baldintzak ahaztu gabe.

Iraupenaren nahiz galeraren atzean hiztunen hizkuntz hautapenak daude eta hauek dimentsio bikoitzean aztertzen dira: norbanakoen mailan eta maila kolektiboan.

Bestalde, hizkuntz hautaketa prozesuak aztertzeko hiru bide nagusi ditugu: bide soziologikoa (erabilpen eremuak), bide psikologikoa (egoera teilakatuak, egokieraren teoria) eta bide antropologikoa edo etnokulturala (portaera linguistikoa eta komunitatearen kultur baloreak harremanetan jarritik). Sakontasunik handiena bide antropologikoa eskaintzen digu, zeren hizkuntza baten nahiz bestearen aldeko apustuak komunitateko sistema etnokulturalarekiko atxikimenduaren aldetik azaltzen saiatzen baita. Aldi berean, beste bi ikuspegiak bere irazkian txertatzeko gaitasuna du hurbilketa antropologikoa. Bertan txertatuko genuke orobat Cobarrubiasen etoglosiaren ideia.

Analisia ikuspegi etnokulturaletik egiteak alor emankorrak jorratzera eramaten gaitu. Hizkuntzaren iraupena taldeak bere muga etnolinguistikoei eutsi egin dielako eta galera, honenbestez, mugak puskatu eta komunitateak bere gizarte-egituran dislokazioa pairatu duelako azaltzen bada, bi kasuetan subjektua taldea eta bere izaera etnokulturala dugu. Beste aldetik, kultura txikien desegituraketaren atzetik Mendebaldeko baloretan sustraituriko kulturen hedazetasuna aurkituko dugula erakusten zaigu.

Hizkuntz gutxiengoaren arazoek —historikoez nahiz egungoek— toki handia aurkitu dute sail honetako autoreen kezketan, diakronian baino gehiago sinkronian jardun duten arren.

Metodologia eta teknikak: konparatibo eta disziplinar-tekoa. Dimentsio etnokulturala. Eskala handiko eta txikiko ikerketen uztardura. Behaketan oinarrituriko teknikak. Metodo kuantitatibo eta kualitatiboak. Jarrerak ezagutzeko bideak. Iturrien arazoa.

### 2.3.2.3 Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx”

Teoria soziolinguistikoa berezko lekua du autore honek, baina erabili ditudan irizpideen arabera sailkaezina gertatzen da egiten ari naizen azalpenean, ez baita zuzen-zuzenean sartzen ez iraupena eta ordezkapena batera aztertu dituztenen artean, ez eta azentua galeran jarri dutenen artean ere. Alde batzuk —sakontasuna, hizkuntz gutxiengoenganako ardura, hizkuntzen bizitzaren aldarrikapena, etorkizun linguistiko orekatua bermatzea bilatzen duen teoria garatu izana, hizkuntzaren antropologiaz interesa<sup>73</sup>, eta abar— komun ditu Fishmanekin. Beste batzuk —ordezkapen mekanismoen azterketa zorrotza eta haien aldeko ideologien salaketa, estatuaren zereginari kritika, eta abar—, ordea, arreta minorizazioan jarri dutenekin (ikus 2.3.2.4 atala), eta zenbaitetan batez ere alde honetatik izan da ulertua. Teoriaren garapena eta kontzeptu nagusien adierazpena, berriz, jatorrizkoak ditu, eta, agian, aipatutako autoreak baino sakonago iristen da batzuetan kontzeptualizazio mailan. Orain arteko orrialdeetan Txepetx zenbait aipamen egin dira jadanik eta oraingo atalean bere ekarpen teorikoetatik hizkuntzen historia ulertzeko baliagarrienak direnak aurkeztuko ditut.

### *Hizkuntzaren garapen osoa*

Oroitzen bagara, soziolinguistika historikoaren egitekoaz aritzean (2.3.1.3 atala), Sanchez Carrionen ideia nagusienetarikoa bat iraganeko hizkuntz egoerak hizkuntzen garapen osoaz dugun ideien ikuspegitik aztertzea da. Zer ulertzen du Txepetxek hizkuntzaren garapen osotzat?: Egoera bat non hizkuntzak berezko hiru eskubide hauek bermaturik dituen:

---

73. Ikus, esate baterako, 1981eko pasarte hau: “Poco a poco he ido llegando al convencimiento de que el bilingüismo, huésped de muchas casas, permanece aún ajeno a una que le pertenece por derecho propio: la antropología de la vida cotidiana, o, en nuestro caso, la descripción antropológica del uso lingüístico diario, una de cuyas variantes lo constituye el uso lingüístico de las comunidades multilingües. De este modo, (...) mis intereses se han ido desplazando, progresivamente, desde la sociolingüística hacia la antropología del habla” (1981: 20-1).

Uno es el derecho de toda Lengua a ser en su territorio lengua completa de su comunidad lingüística. Otro, el derecho de toda comunidad lingüística a recibir y transmitir su lengua de modo completo. Y el tercero, el derecho de los padres a transmitir su lengua a sus hijos.

(Sanchez Carrion 1987: 304)

Definizio honen muina, ikus daitekeenez, osotasunaren kontzeptua da. Hizkuntza osoa transmisio naturala gehi transmisio kulturala biltzen dituena da (ibid.: 185), ikasketen teoriaren atalean ikusiko denez. Hizkuntza jakin baten aldi historikoak aztertzerakoan, beraz, erreferentzi puntutat transmisio osoaren ideia hartuko genuke. Alegia, hizkuntza horrek nahiz aldamenekoek aldi bakoitzean zer nolako garapen edo transmisioa duten ezagutzen saiatuko ginateke: soilik familia bidezkoa ala familia bidezkoa eta kulturala, eta, behin egoera ezagutu eta gero, konparaketa egiten eta egoeraren arazoak argitzen ahaleginduko ginateke.

### *Ikasketen teoria*

Teoria honen helburua hizkuntzen ikasketan egiten den ibilbidea eta betetzen diren baldintzak argitzea da. Emaitzak gizabanakoen, taldeen zein hizkuntzen egoerak erakusteko dira erabilgarriak.

Hizkuntza bat oinarrizko hiru faktore hauengatik ikasten dela dio: motibapena, ezagutza eta erabilera (ibid.: 35). Hirurak elkar lotuta daude zirkuito bat osatuz. Aldi berean, horietako bakoitza berezkoa ala induzitua —hausnarketaren bidez eragindakoa— izan daiteke. Horren arabera bi hizkuntz ikasketa mota ditugu: ikasketa primarioa —A ikurraz izendatua— eta ikasketa sekundarioa —B ikurraz—. Ikasketa primarioa haurtzarokoa da, non erabilera, ezagutza eta motibapena naturalak diren; ikasketa sekundarioa, aldiz, nerabezarotik gorakoa, non motibapena, ezagutza eta erabilera induzituak diren (ibid.: 36-7). Pertsona gehienek hizkuntzaren bi ikasketa prozesuak jasotzen dituzte: primarioa bizitzaren lehenengo urteetan eta sekundarioa edo kulturala hezkuntza sisteman. Horrela, hizkuntza baten hiztun osoa izateak hizkuntzaren pertzepzio bikoitza edukitzea dela batera esan nahi du: berezkoa eta kulturala (ibid.: 70). Hizkuntza horretako hiztun osoa, beraz, AB da, goiko ikurrez baliatuz. Hizkuntza bigarren hizkuntza gisa ikasi duena, berriz, BA da, hots, aurrena ikasketa sekundarioa egin du eta gero naturaltasuna bereganatu.

Talde mailan, ikasketaren ikuspuntutik, bost dira talde soziolinguistikokoak (ibid.: 203):

AB: jatorrizko hiztun kulturizatuak;

BA: heldu bertakotuak;

A: jatorrizko hiztun primarioak;

B: ikasten ari diren helduak, naturaltasuna lortu ez dutenak;

Ø: hizkuntza ez dakitenak.

Hizkuntzaren mailan, hizkuntza bat une historiko jakin batean halako egoera hauetako batean egon daiteke (ibid.: 185):

AB: naturalki eta kulturalki transmititzen denean;

A: soilik transmisio naturala duenean;

B: soilik transmisio kulturala duenean (latina, greziera klasikoa...);

Ø: mintzatzen ez dena.

Hizkuntza baten egoera orekatu eta osatua, jakina, AB da:

(...) las condiciones de existencia de una lengua manifiestan una situación equilibrada cuando recibe de sus hablantes una motivación espontánea junto a una motivación racional, una percepción natural junto a una percepción cultural o reflexiva. Y unas funciones *informales* o naturales junto a unas funciones *formales* o culturales.

(ibid.: 70)

Gainerako egoerak —A hutsa nahiz B hutsa—, ostera, desorekatuak eta osatugabeak dira eta hizkuntzaren garapen beharrez hitz egiten dugunean soil-soilik AB egoeraz ari gara (ibid.: 191).

### *Esparru edo funtzioen teoria*

Gizabanakoen hizkuntz portaera aldakorra baldin bada eta egoera sozial batetik bestera erregistroa, hizkuntza zein bien funtzioa aldatzen baldin badira, erronka talde sozialen hizkuntz portaera gobernatzen duten arau edo legeak azaltzea izango da. Azalpen hori ematera zuzendu zuen Txepetxek esparruen teoria (Sanchez Carrion 1981: 20 eta 22).

Esparruaren definizioa hauxe da: “Una unidad básica del campo lingüístico que condiciona, modula o modifica el comportamiento lingüístico y social de los individuos «ubicados» en ella en un momento dado” (ibid.: 75), Fishmanen erabilpen-esparruen kontzeptuaren oihartzuna agertuz, nonbait. Espazio edo esparru hauek ez dira fisikoak, buruzkoak baizik. Buru-kategoriak dira (ibid.: 22) eta oso lotuta daude hizkuntzak betetzen dituen eginkizunen banaketarekin. Esate baterako, esparru publiko eta pribatuak, ireki eta itxiak, barneko eta kanpokoak, eta abar, aipatu ditu Sanchez Carrionek (ibid.: 71). Batzuetan bat datoz esparru fisikoa eta mentala. Adibidez, herriko tabernaren esparruan hizkuntzaren lagunarteko erabilpen informala egingo da, baina batzarrea tabernan biltzen bada, orduan ez du tabernaren esparru fisikoak aginduko, batzarrearen buru-kategoriak baizik, eta hizkuntzaren erabilpen formalagoa egingo dute (ibid.: 71).

Oro har, une edo toki jakin batean hiru esparru mota daudela esan daiteke: soilik bertako hizkuntzaz betetzen diren esparruak, soilik kanpoko hizkuntzaz betetzen direnak eta bi hizkuntzez —bertakoaz eta


kanpokoaz— betetzen direnak. Hizkuntzen arteko lehia bata bestearen esparruak betetzean datza funtsean (ibid.: 144-5).

Espazioen teoria era garatuago batean 1987. urtean azaldu zuen Txepetxek, esparruak eta hizkuntz funtzioak elkar lotuta agertu eta zenbaitetan *funtzioen teoria* (1987: 225, 14. oin-oharra) sinonimoa erabiliz. Oinarrizko hizkuntz funtzioak, kategoriazko esparru mentalekin uztartuta, zazpitan bildu ditu: norberaren identitatea, famili hizkuntza, laneko hizkuntza, herriko hizkuntza, nazio hizkuntza, kultur hizkuntza eta, zazpigarrena, nazioarteko hizkuntza (ibid.: 354-5).

#### *Hizkuntz komunitatearen egitura*

Hizkuntz komunitatearen Bloomfielden definiziotik abiatuta (1992: 128), ohiko ikerketak baino harantzago joan, hiztuna, hizkuntza eta gizartea lotzen dituen eta ikertua izatea merezi duen unitate sozialtzat hartu (ibid.: 131) eta haren egituraren azterketari ekin nahi dio Sanchez Carrionek.

Hizkuntz komunitatea arestian aipaturiko bost talde soziolinguistikoek osatua dago, zirkulu zentrukideen moduan antolatuta (1987: 203): erdian jatorrizko hiztun kulturizatuak (AB taldea) ditugu; hurrena, heldu bertakotuak (BA taldea); kanpoalderago jatorrizko hiztun primarioak (A taldea); gero, egituraren azken mailan, hizkuntza ikasten ari diren helduak (B taldea); eta azkenik, kanpoaldean, hizkuntza horren hiztunak ez direnak ( $\emptyset$  taldea).




4. irudia. Hizkuntz komunitatearen egitura (Iturria: Sanchez Carrion 1987: 203)



Irudian ikus daitekeenez, kanpoko zirkuluak, atomoaren egiturarekin paralelotasunean (1981: 31), barnekoen inguruan antolatuta daude eta talde soziolinguistikoekin berdin gertatzen da. Hizkuntzarentzat, hizkuntz komunitatearen bizitasunerako, alegia, garrantzirik gehien duena AB taldea da. Gero BA taldea. Biek euskararen garapen osoa erakusten dute eta bien artean *gune simboliko* deiturikoa eratzen dute (1987: 203).

Hizkuntz komunitatearen gorabeherak ulertzeko erabilgarria da artikulazioaren eta desartikulazioaren ideia. Hizkuntz komunitate artikulatu edo egituratua AB+BA gunearen inguruan antolatuta dagoena da. Baina hizkuntz komunitatearen erdigunean AB eta BA taldeen ordez  $\emptyset$  taldea —hizkuntzaz ez dakitenak, hots— jarri eta besteak baztertu egiten badira, orduan artikulazioa puskatuta gelditzen da, komunitatea hutsune baten inguruan eratuta gelditu baita.



5. irudia. Hizkuntz komunitate desegituratua (Iturria: Sanchez Carrion 1987: 223)

### *Gune simbolikoa*

Gune simbolikoa, esan bezala, hizkuntzaren garapen osoa gauzatu eta hizkuntza horretan pentsatzen duten AB eta BA taldeek osatzen dute. Gune simbolikoaren definizioa, Txepetxen hitzetan, hauxe da:

Definimos el espacio simbólico como el núcleo de hablantes que dotan a su lengua de un desarrollo completo. O, correlativamente, el núcleo de hablantes que tienen un desarrollo lingüístico completo en esa lengua.

(ibid.: 65)

Hauek dira hizkuntzaren bihotza —hizkuntza batek, biziraungo badu, bere gune sinbolikoa behar du (1981: 29)— eta zenbat eta gune sinbolikoa handiagoa izan —hiztun osoen proportzioa— gero eta indartsuagoa izango da hizkuntzaren bizitasuna (1987: 65).

### *Hizkuntzaren iraupena eta ordezkapena*

Hizkuntzaren iraupen eta galtze prozesuen azalpen sakona esparru-funtzioen eta gune sinbolikoaren ideietan oinarrituta egiten du Txepetxek. Horri, beheago azalduko den estatu hedakorraren eragina gehitu behar zaio.

Esparru-funtzioen aldetik, ordezkapena kanpotikako hizkuntza bertako hiztunengan barneratuz eta haien hizkuntza funtzioz funtzio ordezkatzuz doanean gertatzen da. Azken batean, hizkuntz ordezkapena egin-kizunen ordezkapena da Txepetxen sisteman, eta iraupena, jakina, egin-kizunei eustea:

Desde la teoría de los espacios el problema de la sustitución y de la normalización lingüística consiste en analizar cómo puede un idioma pasar de ser inasequible, a ser asequible, de ser extraño a ser reconocido, de ser reconocido a ser aprendido, de ser aprendido a ser interiorizado, y de ser distinto a mí, a ser parte de mí. Este proceso tiene lugar a través de una sucesiva ocupación de los espacios categoriales, mediante un proceso de sustitución de funciones. Funciones desempeñadas en la lengua A van siendo sustituidas por funciones desempeñadas por la lengua B.

(1981: 131)

Gune sinbolikoari dagokionez, ordezkapena hizkuntz komunitatearen kanpo aldean hasi eta gunea hizkuntza berriaz betetzen denean gertatzen da. Gunerik gabe gelditu diren osagaiak —hiztun solteak edota talde soziolinguistikoak— beste gune berri batek erakarri eta bere inguruan hasiko dira jiraka, hizkuntza ordezkatzailerearen gunearen inguruan (ibid.: 33).

Hizkuntzaren iraupena, era berean, gune sinbolikoaren kalitate, indar eta gainerako hiztunengan eragiteko ahalmenaren arabera izango da:

La defensa del propio idioma, sobre todo si éste es minoritario y no goza de las garantías de un estado y a veces aun a pesar de estas garantías, está íntimamente ligada a la existencia de un grupo consistente de hablantes que desde ese idioma tenga una concepción cultural propia de ellos mismos y la proyecten hacia la comunidad idiomática propia (...)

(ibid.: 38)

### *Estatu hedakorra*

Hizkuntza bakan batzuen besteen gainean nagusitze bilakabideetan estatuak zeregin handia izan du eta Sanchez Carrionek horretara ere

zuzendu du bere azterketa. Denaren azpian giza antolaketan estatuak hizkuntz komunitateak ordezkatu eta estatuan agintzen dutenen hizkuntza nagusitu izana dugu (1987: 188).

Agintean dagoen taldearen hizkuntzari bere muga politikoen barrutian dauden gainerako hizkuntzen kalterako lehentasuna ematen dion estatu mota honi *estatu hedakorra* izena eman dio Txepetxek. Zein da estatu hedakorraren definizioa?:

Todo aquél cuya naturaleza hace posible que la minoría en el poder dentro del estado, se sirva, cuando tal cosa conviene a sus intereses, de la comunidad lingüística a la que se adscribe para degradar, desintegrar y aniquilar a las otras comunidades lingüísticas naturales atrapadas en su seno.

(ibid.: 206)

Estatu hedakorra nazio-estatuaz mozorratzen da eskuarki, bere baitan hizkuntza bakarra edukitzearen itxurak eginez (ibid.: 225, 14. oinoharra), eta, salbuespenak salbuespen —Islandia...—, Europako estatuen kasuan estatu hedakorraren aurrean gaudela uler daiteke.

Hizkuntz komunitatearen desartikulatze eta ordezkatzeko prozesuen azalpenean lehentasunezko tokia hartzen du estatu hedakorraren ideiak. Komunitatearen erdigunean, gizartearen guneez inguratu, gehiengoaren hizkuntzaz mintzatzen ez den elite berri bat kokatzen da. Erabakiak eta mezuak euren hizkuntzan adierazten dituztenez, jendeak elite agintariaren hizkuntza ikastera behartuta ikusten du bere burua, kanpoko hizkuntzaren hedapena bideratuz horrela (ibid.: 215).

Paraleloki, jatorrizko hizkuntz komunitatearen desegituraketak aldeantzik bidea egiten du:

En el centro, en lugar de estar los nativos cultos (*euskaldun osoak* AB) se incrusta el grupo Ø: es decir, monolingües erdaldunes. Estos son los que *emiten* los valores y la ley. Como la ley y los valores (y girando en torno a ellos “la cultura”) se emiten en erdara, los propulsores (...) pasan a ser también erdaldunes, o euskaldunes incompletos (*diglósicos*: con sólo el erdara como lengua completa) (...). La transmisión cultural de la lengua de este modo se extingue, porque queda situada marginalmente. Los monolingües completos euskaldunes (AB) son sin embargo identificados como ciudadanos incompletos, y toda la comunidad euskaldun gira en torno a un vacío que va creciendo a expensas de lo que todavía queda.

(ibid.: 217)

Estatu hedakorraz mintzatzean, euskararen kasuan, Espainia eta Frantziakoak datozkigu gogora, eta Txepetxek ere hori ematen du ulertzera. Baina, Nafarroarekiko paralelotasuna ezartzea zilegi da nire ustez. Estatu independentea (Nafarroako erresuma) hasieran, erregeorderrria (1512tik 1839ra bitartean) eta Foru Diputazioa gero, berezko nortasun politikoa izan duen egitura politikoa dugu Nafarroa. Erdara euskal hizkuntz komu-

nitatean txertatzeko ahaleginak Nafarroako “Estatuak” berak bideratu dituela da nire hipotesia, Espainiakoaren bultzada ahaztu gabe, noski.

*Ordezkapena eta normalizazioa biltzen dituen eskema*

Ordezkapenaz ezezik, hizkuntzaren normalizazioaz ere jardun du Txepetxek. Are gehiago, bere sormen teorikoa euskararen etorkizun normalizatua irudikatu eta erakustera zuzendu du: *Un futuro para nuestro pasado* (1987). Bi ibilbideetako urrats nagusiak laburtu eta gertatzen diren ordenan eskema batean azaldu ditu. Ordezkapenera daramaten mugarririk, behin bi hizkuntzen arteko ukipen unea —oklusio puntua— gertatu eta gero, hauek dira: hizkuntza menderatuaren funtzioen galera, hizkuntza menderatzailearen hiztunen aldebakarreko elebakartasuna, gutxiagotasun konplexua, hizkuntz komunitatearen desegituraketa eta bide berriak jorratzea debekatzen dion legezko diskriminazioa (ibid.: 393).

Normalizazioaren bidea haustura tentsioa gertatzen denean hasten da eta ondoko urrats hauen inguruan azaldu du Sanchez Carrionek (ibid.: 394): komunitatearen trinkotzea, legedia aldaraztea, hizkuntzaren eginkizunen berrirabaztea eta gutxiagotasun konplexuaren desegitea. Honek hizkuntza garatu eta hiztunen behar berriak asetzen joateko bidea irekitzen du eta dinamika berri bat hasten du.



6. irudia. Galera eta normalizazio bilakabideen eskema (Iturria: Sanchez Carrion 1987: 397)

*Laburpena*

Hizkuntzen historia ulertzeko oso baliagarria den tresneria garatu du Sanchez Carrionek: ikasketen teoria eta hizkuntzaren garapen osoaren kontzeptua; esparru edo funtzioen teoria; hizkuntz komunitatearen egitura; gune simbolikoa; egituraketa eta desegituraketa bilakabideak; estatu hedakorra eta bere kritika. Hizkuntzen aferak dimentsio soziokulturalean eta, lehen aurkezturiko autoreek bezala, hurbilketa antropologikoari garrantzia emanez aztertzen ditu.

Gogoan iraupen zein ordezkapen prozesuak ditu eta arreta bietan ipintzera garamatza: “la explicación del proceso de descompensación y equilibrio de cualquier lengua humana” (1987: 23), nahiz eta egin dituen azterketa gehienak desegituratze dinamikak agerian jartzera zuzenduak dauden.

Gainerako autoreekin alderatuz gero, zabaltasun, kezka eta interesen aldetik, parekotasunik handiena Fishmanekin du.

Bereizgarriena, ordea, hizkuntz komunitatearen aztertzeari aitortzen dion garrantzia dugu. Hizkuntz komunitatea, Txepetxen pentsaeran hitzunak, hizkuntza eta gizartea uztartzen dituen gizarte-unitatea izanik, ikergai nagusienetarikoa bat bihurtzen da eta hizkuntzaren zoria eta bere hizkuntz komunitatearena lotuta agertzen dira.

*2.3.2.4 Hizkuntz ordezkapenaren ikuspegia*

Literatura soziolinguistikoan hizkuntzen historiarako nabarmentzen diren moldeen azterketan azkenekoa, baina ugariena, hizkuntz ordezkapenaren ikuspegia dugu. Molde honen ezaugarri nagusia ikertzaileen indarrak hizkuntzen menderatze- eta minorizazio-bilakabideen mekanismoak agerian jartzera zuzendu izana da. Desagerpenaren deskribapen edo azalpen hutsezko lanak alde batera utzita, eta, ingelesezko bibliografian batez ere, asko dira hauek, zorrotasun eta sakontasun handiko azterketak sortu dira ikuspegi honetatik, hizkuntza ofizialen ezartze prozesuei dagokienez bereziki. Salaketa kutsu nabaria darie idazki hauetako askori eta, geografikoki, ezagunenak Frantzian, Katalunian eta Euskal Herrian (ikus 2.1 atala) sortutako lanak zaizkigu<sup>74</sup>.

---

74. Horiez gain, oso interesgarria da Dell Hymesen (1996: 177-8) historia soziolinguistikoaren zereginari buruzko lana, non sakontasun kritikoa hizkuntz heriotzaren —testu bereko beste pasarte batean hizkuntzen hilketaz (*linguacide*) mintzatzen da— ikuspegiaren azaltzen baitu:

The systematic history that we need would show, probably, a widespread effort to eradicate linguistic diversity and implant uniformity down to the last colorless detail (...). We need to know as fully as possible about past tension and struggle in the imposition of linguistic hegemony as well.

Muga nabariak ere badituzte ordezkapenaren ikuspegipeko lanek: interesen esparrua alde aurretik mugatuta dutenez, herri hizkuntzen ohiko bizitza, beren orain arteko biziraupena eta honek plazaratzen dituen galdera eta ikergai aberasgarri berriak ia oharkabean pasatzen zaizkie. Interesa bakarrik hiltzear bide daudenean sortzen dute, ez bizirik daudenean. Bestalde, beti menderatze prozesuak azpimarratuz errealitatea faltsutzen duen prisma bat zabaldu eta finkatzeko arriskua ere badago: alde batetik hizkuntza ofizial, nagusi, aktibo, guztiahaldun irabazleak genituzke, eta, bestetik, hizkuntza txiki, ezdeus eta baztertuak, objektu pasibo galtzaile direnak. Horrela, asmoa hizkuntza hauen zapalkuntza salatzea izan arren —eta ez beti—, alderantzizko ondorio psikologikoa atera daiteke maiz: arreta merezi duten bakarrak, onerako zein txarrerako, kritika-tuak nahiz gorapatuak izateko, hizkuntza ofizialak lirateke.

#### 2.3.2.4.1 Louis Jean Calvet

Louis Jean Calveten *Lingüística y colonialismo. Breve tratado de glotofagia* liburuak (1981b, jatorrizko edizioa frantsesez: 1974) eragin handia izan du Euskal Herriko<sup>75</sup> eta Kataluniako<sup>76</sup> soziolinguistikan —eta baita nazioarteko soziolinguistika kritikoa<sup>77</sup> ere—, hain handia ezen liburuan emandako hizkuntz ordezkapenaren eskema ia eredutzat hartua izatera iritsi den gai horri buruz aritzerakoan.

Lanaren ardatza hirugarren kapituluan da: “El proceso colonial lingüísticamente considerado” (ibid.: 53-80). Kolonizazioa dioenean, kanpokoenez ezezik, estatu barneko herrien kolonizazioaz ere ari da, eta zentzu horretan bretoiera edo okzitaniera bezalako hizkuntzek Frantziako zentralismoaren eskutik pairaturiko kalteek berezko lekua dute azterketan (ibid.: 77). Kolonialismoa alde ekonomiko, politiko eta sozialak dituen gertaera izanda ere, Calvetekek bere hizkuntz ondorioak aztertzeraz mugatu nahi du bere lana, hizkuntza menderatu eta nagusien arteko harremanen sakoneko mekanismo orokorrak argitzeko asmoz (ibid.: 54).

Aurreko kapituluetan hedapena justifikatzen duten teoriak —hizkuntzaren eta nazioaren teoriak (ibid.: 53)— erakutsiak ditu Calvetekek, eta teoria horien ondorioa Mendebalde kolonizazioaren abenturarako prest gelditu izana da: *jargoietan* mintzo diren lurralde basatietara bere *hizkuntzak* eramateko, alegia (ibid.: 30).

75. Aipamenak ez luzatzearen, ikus, lan nagusien artean, Euskaltzaindia (1977) eta Sanchez Carrion (1987).

76. Katalunian izan duen oihartzunerako, ikus han egindako soziolinguistikaren emaitzak bildu nahi dituen *Curs de sociolingüística* (Molla eta Palanca 1989; Molla eta Viana 1989-1991).

77. Ikus, esate baterako, Calveten aipamenak Singh (arg.) (1996) lanean.

Mendebaldar kulturaren eta besteen arteko ukipenaren lehen ondorio ideologikoa kultura menderatuen izendapena bera da. Besteenganako mesprezua da nagusi eta haien aurrean lehenagotik ez izenik eta ez izaerarik ez balute bezala jokatzeko dute kolonizatzaileek, euren buruari besteei izena ezartzeko eskubidea aitortuz (ibid.: 55). Adibidez: “En Gran Bretaña, en el siglo VI, mientras que los galeses se llaman a sí mismos *cymry* (en galés: «compatriotas»), los invasores anglosajones les dan un nombre que les quedará y que significa «extranjeros»: *Welsb* “ (ibid.: 54).

### *Hizkuntz kolonialismoaren hiru aldiak*

Behin ukipena edo, askotan, inbasioa gertatu eta gero, kolonizazio prozesua dugu, hiru zati edo alditan banaturik: (1) kolonialismo ezarri berria (ibid.: 58), (2) kolonialismo garailea (ibid.: 68) eta (3) glotofagia burutua (ibid.: 75).

Lehenengo aldiari, kolonialismo ezarri berriari, kolonizatzaileak beren hizkuntzako elebakarrak dira, menderatuak ere elebakarrak dira euren hizkuntzan eta soilik kolonizatzaileekin harremanetan jartzen diren, edo beren ordezkari bihurtzen diren, handikiak elebiduntzen dira (ibid.: 58). Faktore ekonomikoak garrantzi handia zuen estadio honetan eta hizkuntz banaketa sozialki bertikala zen, gizarte-klaseetan adierazten zen, bertako hizkuntzari muzin egiten zioten lehendabizikoak gordea, noblezia, burgesia, zerbitzariak eta merkatariak baitziren (ibid.: 68).

Bigarren aldia kolonialismo garailearena da eta bertan lehenengoaren banaketa sozialari banaketa geografiko-horizontala gehitu behar zaio: hiria/herria banaketa (ibid.: 69). Hizkuntza nagusiaren hedapenak sakoneko aldaketa eragiten du bi hizkuntzen ezagupenaren banaketan: goi-klaseak elebidun izatetik hizkuntza berriko elebakar bihurtzen dira eta hirietako klase xumeak elebidundu egiten dira. Bigarren aldiaren emaitza, beraz, hau da: agintarien klasea elebakarra, hirietako biztanleak elebidunak eta nekazari klaseak elebakarrak (ibid.: 69).

Galdu ez diren hizkuntza menderatu gehienak estadio honetan, hau da, hirugarrenera igarotzeko bidean, daudela adierazi (ibid.: 73), eta, okzitanieraren egoera adibidetzat jarri ondoren, hizkuntza nagusia bizimodu berri eta industrialari eta menderatua nekazari bizimodu atzeratuari lotzen zaizkiela dio Calvetek:

En todos los casos, la lengua dominante va asociada a las formas más “modernas” de economía (...) y la lengua dominada a las formas “arcaicas” de producción (es decir, a las formas de vida social más próximas a la tradición local). Y así, pues, encontramos tres parejas opositivas isomorfas:

Industria, comercio	-	agricultura
Ciudad	-	campo
Lengua dominante	-	lengua dominada.

(ibid.: 74-5)

Funtsean, azaldutako bilakabideetan, eta Calveten hitzetan beraietan ere, hiriari gizarte modernoan aitortzen zaion nagusitasuna islatzen da<sup>78</sup>.

Hirugarren aldia, glotofagia burutua, hizkuntza menderatuaren heriotza, aurreko bien dinamikaren ondorio zuzena baino ez da (ibid.: 75).

Beraz, Calveten azalpenaren ezaugarri nagusietako bat hiru aldien dinamikak, geldiezinezko prozesu batean, zuzenean hizkuntz ordezkapena burutzeraino eramaten gaituela da, eta ideia hau behin eta berriro errepikatzen da. Adibidez: “Esta organización de la diglosia, que participa también de la superestructura lingüística, lleva en germen la *desaparición de la lengua dominada a plazo fijo, cosa que sólo una conmoción social podrá evitar*” (etzana nirea da) (ibid.: 73).

Azkenik, bilakabide osoaren eskema kanonikoa aurkezten digu Calvetek:

La lengua dominante se impone según un esquema que pasa por las clases dirigentes, después por la población de las ciudades y finalmente por el campo, proceso que va acompañado de bilingüismos sucesivos allí donde la lengua dominada se resiste.

(ibid.: 76)

*Hizkuntza menderatuaren iraupenari Calvetek uzten dion bide bakarra: glotofagiaren aurkako erresistentzia*

Hiru aldiak estuki lotuak badaude ere, baliteke prozesua burutu gabe gelditzea, hirugarren aldira ez iristea (ibid.: 75). Noiz eten daiteke ordezkapen prozesua?: Hizkuntza menderatuan mintzatzen den herriak eutsi egiten dionean, goian eskatu duen inarrospen soziala gertatzen denean, alegia.

Oro har, glotofagiaz hitz egiteak glotofagiaren aurkako indarrez ere hitz egitea eskatzen du, bien arteko borroka izaten baita (ibid.: 77). Glotofagiari aurre egiten dioten indarren artean bat erlijioa da, hots, hizkuntza eta erlijioa baturik dauden egoera (ibid.: 77), baina bertako hizkuntzari eusteko bide nagusia, ziurrena, herri menderatuaren nazio kontzientzia genuke, zapaltzaile arrotzen aurkako jazarpena (ibid.: 77).

---

78. Hizkuntza menderatua nekazari bizimoduarekin eta hizkuntza nagusia modernitarekin berdintzen dituen zentzu komuneko inplizito bera aurkitzen dugu soziolinguistika anglosaxoniarrean ordezkapenaren azterketarik hoberenetariko bat bezala hartu ohi den Susan Gal-en Oberwart-eko hungarieraren galerari buruzko lanean (Fasoldek goraiatu zuen bera). Honen arabera, bi hizkuntzetan mintzatzen diren elebidunak gizarte-aldaketaren erdibidean daude eta arazoz beteriko, erabaki gabeko eta erraz manipula daitezkeen leialtasun edo baloreak omen dituzte: “Their values and loyalties with regard to the peasant/worker distinction are often problematic, undecided, manipulable” (1978: 237).



Hizkuntza eta herri gutxituen belaunaldiz belaunaldiko iraupena, beste autore batzuegan —Fishman, Fasold...— ezaugarri etnokulturalei loturiko ikergai sakon eta zabala iradokitzen zuen gaia, hain zuzen, ez zaio Calveti axola izan, “portaera” dela, eta ez “borroka antolatua”, argudiatuz:

¿En qué momento los hablantes de las lenguas minoritarias del hexágono empezaron a luchar por la conservación de su lengua? Indudablemente en todo momento, de una manera u otra, y *esta cuestión apenas tiene sentido*, pues el simple hecho de hablar su lengua era en sí una oposición (consciente o inconsciente) a los progresos del francés y una defensa (consciente o inconsciente) de lo vernáculo. Pero esto es un *comportamiento y no una lucha organizada* y clarificada.

(etzana nirea da) (ibid.: 166-7)

### *Hizkuntza menderatuen aldeko mugimenduei kritika*

Beren salbamenerako zer egin beharko luketen erakutsi zien Calvetek hizkuntza gutxituei (ibid.: 172-3), baina ez dirudi, ordea, hauek orain arte eraman dituzten borroka bideak oso gogoko dituenik. Horrela, XIX. mendean tokian tokiko hizkuntzekiko jakinmina piztu bazen ere, literatur interes hutsagatik eta Alemaniako erromantizismoaren anbiguotasunaren eraginpean gertatu omen zen:

Pero se trata de un interés literario por esas lenguas [bretoiera eta okzitania], tomadas como lenguas de cultura y no como lenguas populares. Y esa renovación es ambigua, muy influenciada por el romanticismo alemán, por los hermanos Grimm en particular y su noción de *poesía popular*, que sólo existía por oposición a la poesía culta (*Volk-kunst*).

(ibid.: 167)

Era berean, herriaren hizkuntzaren benetako arazoekin zerikusia ez omen zuten erudito edo intelektuaren kezka da Calvetek mugimendu haien abiaburuan aurkitzen duena (ibid.: 168).

Hogeigarren mendean, hizkuntzaren erreibindikazioa eruditoen eskuetatik mugimendu erregionalista edo nazionalistengana igaro zen, baina hauek ere ez bide zuten askoz argiago jokatu eta, esate baterako, hizkuntza hauek irakaskuntza sisteman txertatu behar zirela aldarrikatzen zutelarik, Aljeriako F.L.N.ren borrokarekin alderatuta, huskeria erreformistetan zebiltzala iruditzen zaio Calveti:

Finalmente, los movimientos regionales combatían en esos momentos porque se enseñara su lengua en la escuela, lo cual es una forma de aceptar el cuadro general del hexágono a fin de modificarlo (el F.L.N. tenía cosas más importantes que hacer, en Argelia, que reclamar la enseñanza del árabe en la escuela francesa), reivindicación que es completamente aceptable para el poder en cuanto que profundamente reformista.

(ibid.: 171)

*Laburpena*

Glotofagia, hizkuntz kolonialismoa eta Mendebaldeko kulturaren hizkuntz nagusitasunaren ideologiak, ideia hauen inguruan eratu da Calveten mezua. Hizkuntza nagusi eta menderatuen arteko harremanak ia irtenbiderik ez duten glotofagiaren hiru aldien burdinezko logikara biltzen ditu eta hizkuntza menderatuen iraupenari gelditzen zaion aukera bakarra gizarte osoa astinduko lukeen borroka latza omen da. Beste askorentzat bezala, Calvetentzat ere hizkuntza hauen iraupena ez da ikergai izan eta mantendu direnak oraindik ordezkapenaren katearen bigarren estadioan dauden mundu arkaiko eta tradizionalako hizkuntzak besterik ez dira. Portaerak, eta ez borrokak, erakusten dituzten neurrian ez zaizkio Calveti hizkuntza hauen gorabeherak interesatzen, baina mugimenduak antolatzen igarotzen direnean ere, gutxiespena nabaria da bere hitzetan.

Dena den, ukalezina da Calveten eskema atzeraka egin duten hainbat hizkuntzaren kasuak, Nafarroakoa barne, bere baitan biltzeko oso egozia dela.

## 2.3.2.4.2 Pierre Bourdieu

Pierre Bourdieu soziologo frantsesaren (Bourdieu eta Passeron 1970; Bourdieu 1972 eta 1985) ekarpen aberats eta iradokitzaileetan bi zati bereiz daitezke: kontzeptu orokorrak, alde batetik, eta haietatik hizkuntzaren azterketarako egin zuen egokitzapena, bestetik.

Bourdieuaren *praktika*, *habitus-a*, *erreprodukzio* edo *ugalketa* eta *lan pedagogikoa* bezalako kontzeptu orokorrez beranduagoko beste atal batzuetan baliatuko naizenez, bi hitzetan azalduko ditut oraingoan. Ideia, funtsean, zera da: gizartearen ezagutzan ez da aski gizartearen egitura eta aktore sozialen portaera edo praktika deskribatzea. Ikertzaileak praktika horiek nola sortzen diren azaltzea bilatu behar du, eta horri, hain zuzen ere, erantzuten dio *habitus*-aren kontzeptuak. Giza talde bateko kideek antzeko praktikak erakusten badituzte, funtsean beren bizitzan portaera eskema berdinak, hastapen berdinak, barneratu dituztelako da. Praktiken eta irudikapenen sortzaile —“principe de génération et de structuration de pratiques et de représentations” (Bourdieu 1972: 175)— diren portaera eskema horiei habitus (lat. “habitus”) izena eman die Bourdieuk, eta, nonbait, gizartearen egituraren eta jendeen praktiken arteko bitartekaritza egiten duen kontzeptua da. Habitusaren sinonimo gisa *kultur gaitasuna* (“compétence culturelle”) eta, hizkuntzaren alorrean, *hizkuntz gaitasuna*, (“compétence linguistique”) (ibid.: 183) aipatu ditu, Chomskyren hizkuntz gaitasunaren arabera eratuta dagoela agerian utziz.

Segida hauxe litzateke: gizartearen egiturak portaerak moldatzen dituen habitusa sortzen du eta gizartearen ugalketa —bere egituren zein

funtzionamendu arauen ugalketa— jendeek habitusa bereganatu izanak bermatzen du, habitusak egoera ezagun nahiz berrien aurrean erantzuteko portaeren eredu egonkorra ematen baitie denei. Habitüsaren transmisioa lan pedagogikoaren bitartez egiten du gizarteak, eta lan pedagogikoa bikoitza da: familiarena eta hezkuntza erakundeena.

Ikuspegi honetatik, gure lanak euskal eta erdal hizkuntz komunitateek erakutsi zituzten hizkuntz portaeren atzean zer nolako habitusak zeuden eta hauek nola eratu ziren eta nola transmititzen ziren argitzea izan beharko luke.

### *Hizkuntz azoka eta hizkuntz habitusa*

Goiko kontzeptuetan oinarrituta eta ekonomiaren metaforaz baliatuz, hizkuntz portaeraren azterketa burutu zuen Pierre Bourdieuk *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos* (Bourdieu 1985) liburuan.

Bourdieuaren arabera, hitz egiten dugunean gure produktua, hitza, jendaurreko azokan aurkezten dugula esan daiteke. Hizkuntz azokan, elkartruke harreman guztietan legez, hiztunen, edo haiek parte diren taldeen, artean dauden botere harremanak azalera ateratzen dira. Bertan, talde bakoitzaren indarren neurrian, halako balioztapen bat, onspena zein gaitzespena, ematen zaio gure hizkerari eta horrek materialak edota sinbolikoak izan daitezkeen etekin zein galerak ekartzen dizkigu (ibid.: 11). Merkatuak legitimotzat jotzen duenak —onargarritasun sozialaren legeen (onargarritasun gramatikala ere barne) arabera dena, alegia (ibid.: 50)— etekinak emango ditu eta legezkontrakotzat jotakoak, berriz, galerak. Hiztunek, ez badute galerarik pairatu nahi, euren hitz egiteko era eredu legitimotik ahalik eta hurbilen moldatzen saiatu behar dute, eta horrek zuzenean baldintzatu egiten du jendearen hizkuntz hautaketa:

(...) la coerción que el mercado ejerce mediante la anticipación de posibilidades de beneficio reviste naturalmente la forma de *censura* anticipada, de una autocensura, que no sólo determina la manera de hablar, la elección del lenguaje —el *código switching* de las situaciones de bilingüismo— o del “nivel” del lenguaje, sino también lo que podrá o no podrá decirse.

(ibid.: 51)

Estatu modernoetan, hizkuntza legitimoa estatuaren hizkuntza ofiziala da, eta hizkuntz azokaren barrutia, non hizkera bat onetsi eta besteak gutxietsi egiten diren, estatuaren mugek marraztutakoa dugu (ibid.: 19). Legitimotzat jo izan den hizkera, hizkuntza ofiziala, estatuaren erabateko babesa izateaz gain, kodifikazio, legitimazio eta ezarpen prozesu luze baten emaitza da. Bilakaera horretan hezkuntza sistemak berebiziko zeregina betetzen du (ibid.: 22).

Habitus linguistikoa, hots, hizkuntz portaera gobernatzen duen joera-sistema, azokaren eskaeren arabera eratzen dugu. Jaiotzen garenetik hizkuntz azokarekin egiten dugu topo, familiako azokarekin aurrena eta eskolakoarekin gero, eta horrela, pixkanaka-pixkanaka gizarteko arauetara egokitzen zaien eta egonkortasun aparta duen habitusa moldatuz goaz (ibid.: 55-6).

Aipatutako mekanismo hauek —azoka batua eta hizkuntza legitimoaren nabarmentzea, batez ere— hizkuntza ofizialaren nagusitasuna eta gainerako hizkuntza edota barietateen azpiratzea dakarte (ibid.: 20).

Azokak, hizkuntza ofizialaren nagusitasuna bideratzea ezezik, menderatuen berarekiko adostasuna —menperapen sinbolikoa— ere lortzen du:

El reconocimiento de la legitimidad de la lengua oficial (...) en la práctica, se inscribe en las disposiciones que se inculcan insensiblemente, a través de un largo y lento proceso de adquisición, por medio de las acciones del mercado lingüístico.

(ibid.: 25)

Eta guztiaren *ondorioz hizkuntza aldatzea* etor daiteke. Nahiz eta lagun askorentzat hizkuntza legitimoan hitz egitea, hots, hizkuntz gaitasun legitimoa edukitzea, zaila izan, delako hizkuntza legitimoa zein den guztiek dakite eta hartara jotzen dute, ederki baitakite hori dela erabili behar dena (ibid.: 36).

Menperapen sinbolikoa onartzera daraman habitusa oharkabea eta ageriko bortzarik gabe bereganatzen da, ezarpena/askatasuna dikotomiaz haratago dagoen dinamikan:

Lo propio de la dominación simbólica consiste precisamente en que, por parte de quien la sufre, implica una actitud que desafía la alternativa corriente de libertad - coerción: las “elecciones” de habitus (...) se realizan, inconscientemente y sin ninguna coerción, en virtud de disposiciones que, aunque sean indiscutiblemente producto de determinismos sociales, se constituyen al margen de toda intención consciente o coacción.

(ibid.: 25)

Horrexegatik, eta hizkuntz politika edo presio taldeen esku hartze zuzena bera ere arazoaren alderik azalekoena baizik ez direlako, hizkuntz bilakabideak aztertzerakoan ikertzailearen zeregina ez da aktore sozialen erantzunkizunak erakutsi edo azaltzera mugatu behar (ibid.: 25).

*Hizkuntza menderatuen iraupena: azoka nagusitik kanpo daudelako*

Hizkuntza ofizialaren ezarpena daramaten hain baldintza zabal eta indartsuen testuinguruan, nola azaltzen da mendeko hizkuntzen iraupena? Arazoak ez dio Bourdieuri kezka handirik eragin, baina gaia ukitu duenean, hizkuntza horien iraupena estatuak eratu eta babesturiko hiz-

kuntz azoka nagusitik at gelditu izanagatik gertatu dela esan du. Alegia, merkatuaren batasuna ez da guztiz burutzerara iritsi eta, ondorioz, bere barrutiaren barnean zenbait probintzia “franko” izan daitezke non hizkuntza gutxituek, hizkuntza “frankoek”, familia eta lagunartearen esparru pribatuen azoka txikietan gordelekua aurkitzen duten:

Cierto también que la unificación del mercado nunca es tan absoluta como para que los dominados no puedan encontrar en el espacio de la vida privada, entre familiares, otros mercados del que dependen las leyes de formación de precios que se aplican a los mercados más oficiales (...). Dicho esto, la ley oficial, así más provisionalmente suspendida que realmente transgredida, sigue siendo válida y se impone a los dominados en el momento en que salen de las *provincias francas* en que el *hablar franco* circula (...)

(etzana nirea da) (ibid.: 44-5)

Bazterreko gertaera diren hizkuntza horien adibide garbitzat “erregio” hizkuntzak jarri ditu Bourdieuk, familiako eta baserritarren arteko giroetara mugatuta omen daudenak: “Lo que se ve claramente en el caso de las lenguas regionales cuyo uso se reserva para las ocasiones privadas —es decir, principalmente en la vida familiar— y, en todo caso, para los intercambios entre locutores socialmente homogéneos (entre campesinos)” (ibid.: 44, 2. oin-oharra).

### *Laburpena*

Bourdieuk dimentsio historikoa duen arazo batean jarri du arreta: hizkuntza legitimoaren garapenaren arazoan, eta, horrexegatik, emandako azalpen nahiz erabilitako kontzeptuek, aberats eta iradokitzaileak izateaz gain, zeresan handia dute gure lanean.

Hizkuntza legitimoa estatuaren hizkuntza ofiziala da eta honen babes osoa du. Bere hedapenean berebiziko garrantzia du hezkuntza sistemak.

Hizkuntza legitimoak lehentasuna erdiesterakoan mekanismo nagusia ez da estatuaren bortxa edota agindu zuzenetan bilatu behar, hizkuntz azoka deiturikoan baizik. Hizkuntz azokak mintzaira onetsia zein den eta mintzaira baztergarriak zein diren erakusten die hiztunei. Hauek, hizkuntz azokan jardunaren jardunaz beren portaera linguistikoak gidatuko dituen, eta gizarteko eredu edo jokaerak ugaltzen lagunduko duen, habitusa bereganatzen dute. Habitusa barneratu izanaren ondorioa hizkuntza menderatuetako hiztunen adostasuna da, menderapen sinbolikoa.

Joera nagusia erakutsitako hau izanda, hizkuntza gutxitu zenbaiten iraupena azaltzea gelditzen da. “Erregio” hizkuntzek iraun baldin badute estatu mailako azoka batutik kanpo gelditu diren nekazarien hizkuntzak izateagatik izan dela dio. Dena den, haietaz mintzatzerakoan era-

biltzen duen terminologiagatik eta eskaini dien toki txikiagatik, badirudi hizkuntza hauek azokatik ezezik, Bourdieuren interesetatik ere kanpo gelditu direla.

Ikertzailearendako ondorio bat nabarmentzekotan, azterketa azaldu nahi dugun egoeraren atzean dagoen habitusa ezagutzera zuzentzea komeniko litzatekeela esango nuke nik. Gizarte jakin bateko mekanismo eta joeren ugalketaren azpian dagoen kontzeptua dela jakinik, oso emankorra dugu habitusaren ideia. Joera hizkuntz ordezkapenarena denean, horren berri emango digun habitusa bilatu beharko dugu, Bourdieuk egin bezala, baina hizkuntzak iraneuz gero, orduan ere beste habitus bat ezagutuko dugu: iraupena ahalbidetu duen habitusa.

#### 2.3.2.4.3 Lluís Vicent Aracil

Katalunian ezezik Estatu espainoleko nazionalitateetako soziolinguistikaren ere, Euskal Herrikoan barne, bideak urratu eta erakutsi dituen Lluís Vicent Aracilen lan pizgarri eta aberatsetatik hizkuntzen historiari dagozkion ideiak jaso ditut batik bat, bi ataletan banatuta: azterketa historikoak eta ikerkuntzaren arazoak.

##### *Orainaldiko historia linguistikoa: hizkuntz ordezkapenaren historia*

Historia soziolinguistikoaren beharra behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du Aracilek, baina bere azterketa zorrotzak gehienetan ordezkapen bilakabideak salatu eta azaltzera zuzendu ditu, soziolinguistika historikoaren ikergaia horixe baita bere ustez: “el desplaçament i la redistribució (=substitució) de les varietats i formes lingüístiques” (Aracil 1982: 84). Oro har, Aracilen hitzetan, hori izan da Kataluniako soziolinguistikak argitu nahi izan duen arazo historiko nagusia: “la castellanització (ençà de c. 1500) i, després, l’afrancesament de les comarques més septentrionals han estat, comprensiblement, el gran centre d’interès del pensament sociolingüístic català” (Aracil 1982: 117-8). Are gehiago: “La substitució lingüística és un camp en el qual els investigadors catalans poden fer les més originals i valuoses aportacions a la teoria sociolingüística” (ibid.: 119).

Beraz, bilakabide historikoa eta gutxiagotzea kontzeptu paraleloak dira bere pentsaeran, eta gaur egungo historiaren alderdi soziolinguistikoa ordezkapen prozesuak ikertzean omen datza: “Los procesos de substitución lingüística (que son un hilo importante de esa historia [Orainaldiko Arokoa]) pueden ser investigados y explicados bastante bien” (Aracil 1986: 449), eta denak minorizazioaren kontzeptu orokorraren baitan bilduko genituzke:

En suma: el éxito de la “lengua nacional” y la minorización de otras son dos aspectos estrictamente correlativos de *un* proceso histórico *global*—no

meramente político. Se trata en definitiva de la “minorización”, considerada necesaria (inevitable e indispensable) desde *circa* 1750.

(*ibid.*: 446)

Orobat, minorizarioak halabeharrez iraungipena dakarren bezala, elebitasunaren ondotik elebakartasuna dator erregulariki (*ibid.*: 452).

Historia eta gutxiagotze prozesua orokorrean Aracilek ia sinonimotzat jotzen baldin baditu, euskararen kasuan ez dira gutxiago. 1984. urtean, esaterako, horrela laburbildu zuen euskararen historia: “Funtsean, Euskal Hizkuntz komunitateak galtzera jokatu du” (Aracil eta Larrañaga 1984: 41) eta, noski, “Norabidea hizkuntz komunitate baten atzerapenezkoa izan da, salbuespenak salbuespen” (*ibid.*: 39). Horrela, nazio-estatuaren eraikuntza, irakaskuntza, administrazioa, lan mundua eta profesio liberalak, alor hauetako guztietako gertaerak euskararen galeraren ikuspegitik aurkeztu ditu.

Gibeleratzea elkar lotuta eta teilakatuta dauden bi prozesutan gertatu da: euskaldunen elebiduntzea, aurrena, eta, behin elebidundu eta gero, elebakarkuntza etorri da (*ibid.*: 39-40), hizkuntz bilakabide orokorrean diharduelarik arestian esan duen bezala.

Euskararen iraupena, aldiz, elebitasunetik elebakartasunera daraman bidea erabatekoa eta toki guztietan aldi berean ez delako izan suertatu omen da:

Prozesu guztiak —eta are gehiago bi prozesu batetan— desnibetan dartzate, desfasetan, dena ez da denbora berean gertatzen leku berean, e.a. (...). Justu desfaseak eta desnibelak daudelako iraupena dago; bestela instant batekoa litzateke eta beraz, noski, zonaldeak daude, tarteko zonalde geografikoak, mapatan projekta ditzakegunak. Zonalde literalak dira, lurralde zonaldeak, baina baita ere zonalde sozialak (...)

(*ibid.*: 40)

Prozesu nagusia, beraz, ordezkapenarena da eta arreta horretan ipintzen da. Bestea, euskararen iraupena, berriz, desfase eta salbuespenen ondorioz aurkitzen dugun azpiproduktua besterik ez da (ikus, halaber, Aracil 1982: 27).

Oro har, lehen, ordura arte, guztiz bideragarriak ziren hizkuntzak, XIX. mendearen hasieran bideraezinak bihurtu omen ziren: “Al principio, sin embargo, eran perfectamente viables — y llegaron más tarde a ser inviables, seguramente porque habían sido *antes* consideradas sacrificables” (Aracil 1986: 445).

Logikoa dirudien baieztapen honek, hala ere, huts nabarmena dauka: hizkuntza horiek ez ziren guztiz bideraezinak izatera iritsi, orain arte iraun izanak, hain zuzen ere, erakusten duenez. Orduan, ikergai berri eta emanorra izan zitekeena, euskara bezalako hizkuntzen bideragarritasuna zertan izan den azaltzea, oharkabean pasa eta estali egin du Aracilek.

Bide batez, herri hizkuntzen belaunaldiz belaunaldiko iraupenez kezkarik ezaren beste erakusle bat Toni Molla eta Amadeu Viana katalanen azalpena dugu (ikus, halaber, 3.2 atala). Hizkuntz komunitateak bi motatakoak omen dira: tradizionalak eta modernoak, eta bi mutur kontrajarri balira bezala aurkezten dituzte. Badirudi orain arteko iraupenaren gunea izan den komunitate tradizionala, modernoaren aldean, ezauzgarri ezkor eta atzerakoi guztien paradigma dela: “localistes (...) rurals, aïllades, petites, autosuficients, etc.” (Molla eta Viana 1989: 34). Halaber, Hans Kohn, Ralph Linton eta Rafael Ninyolesen hitzetan babesa bilatuz, komunitate tradizionalak hizkuntza jakin batean mintzatzearen kontzientziarik ez zutela (ibid.: 27) eta beren hizkuntzarekiko atxikimendua inkontzientea, begetala, tribala eta ohiturazkoa (“rutinària”) zela diote Molla eta Vianak (ibid.: 27-8). Horrelako “etiketazioaren” ondoren, nori bururatuko ote litzaioke, ikuspegia aldatu ezean, hizkuntzaren transmisioaren molde naturalaren azterketan murgiltzea?

### *Ikerkuntzaren arazoak*

Ikerkuntzaren erronka nagusia ohiko bide ibilietatik atera eta alor berriak jorratzea da Aracilen ustez:

Un nuevo discurso *descartará* pseudo-problemas consabidos y *descubrirá* cripto-problemas no-reconocidos. La investigación debe contribuir a aclarar y declarar una *nueva* problemática, muy distinta del repertorio de lugares comunes (...)

(Aracil 1986: 454-5)

Are gehiago, denboraren poderioz eztabaidatua ere izaten ez den zentzu komun bat eratu da eta ikerketa gehienak naturalak diruditen muga kontzeptual horietara makurtzen dira. Aracilek dioenez, metodoaren muina eztabaidatua ez dena auzitan jartzean datza hain zuzen ere: “El método consiste en enfocar lo que *no* es discutido” (ibid.: 444).

Soziolinguistikak ahalmena du ohiko diskurtsotik —zentzu komunak moldatutako diskurtsotik— irten eta argi berria ekartzeko, bai iraganaren bai egungo egoeraren azterketan:

Creo (...) que la investigación sociolingüística puede modestamente aventurarse fuera del marco de un multidiscurso notoriamente inconexo y confuso. Además de reconstruir y entender un pasado *real* pertinente (al menos un hilo importante de la Historia Contemporánea), puede iluminar el marasmo *actual* de esta crisis sin crítica y ayudar a explicitar los *dilemas* que las diversas rutinas y propagandas conspiran para eludir.

(ibid.: 448)

Ikerkuntzak, arnas berriak erdietsiko baditu, ikuspegi integratzailea izango du eta lan enpirikoa egiteaz gain, teorikoki ondo hornituta egon behar du:



Como cualquier otra investigación, la sociolingüística ha de coordinar la exploración empírica con la construcción teórica. Su dificultad inicial no es la “falta” de datos, sino más bien lo contrario: el escándalo de unos datos que “sobran” porque faltan absolutamente las *ideas* indispensables para sacar algo de ellos.

(ibid.: 448)

Hala ere, aitortu beharra dago “gaur egungo soziolinguistikak ez duela jakin izan bereziki gutxiengoaren egoerak zuzentzen eta esplikatzen. Okerrago oraindik: ez da arduratu ezta behar bezala enfokatu eta deskribatzen ere” (Aracil 1987: 148).

Aracilen kritikak historiografia ofizialari zuzendu zaizkio batez ere. Hau da, ordezkapena ontzat ematen duten diskurtsoen aurrean gutxiengoaren bilakaeraz arduratzen den beste ikuspegi berri bat aldarrikatzen du Aracilek. Baina beste urrats bat egin eta hizkuntz gutxiengoei buruzko ikerketen esparruan pausatuz gero, mota bereko hutsuneak —zentzu komunaren moldeak, betiko ideien errepikapena, irekitzen ez diren ikergaiak “ikusit” ere egiten ez direlako, eta abar— daudela ikusiko genuke.

### *Laburpena*

Aracil soziolinguista sakon eta eraginkorra dugu, baina bere pentsaeran gaur egungo historia linguistikoa hizkuntzen ordezkapenaren historiarekin berdintzen da. Kontzeptu nagusiak ordezkapena eta gutxiengo egoera dira. Bestalde, gertaera hauen erantzule nagusitzat nazio-estatuak jo du eta kritika zorrotza egin dio bere idazlanetan.

Hizkuntza gutxituen iraupena ez du ikergai gisa hartu eta gaiari buruz mintzatzea egokitu zaionean, euskararen iraupenari buruz, kasu, ordezkatzeko dinamikaren urratsetan desfaseak egon direlako gertatu dela esanez azaldu du. Alde horretatik, berak salatzen dituen akats metodologikoez guztiz libre ez dagoela esatera ausartuko nintzateke.

Azpitarragarria dira, bestalde, Molla eta Vianaren azalpenak, antzeko haritik tiratu eta isilean edo inplizitoak egon zitezkeen iritziak tolesgabeki azalerratu eta azken muturreraino eramanez baitituzte.

Ikerkuntzaren arazo nagusiak gizartean nagusi den zentzu komunikatibo ez atera eta ohiko azalpenen mugetan ibiltzean ikusten dituzte Aracilek. Benetako ikertzaileak alde aurretik onartuta dagoena zalantzan jarri eta, lanabes teoriko egokiez baliatuta, enfokatu eta azaldu egin beharko luke.

#### 2.3.2.4.4 Hizkuntz ordezkapenaren ikuspegia: laburpena eta ondorioak

Aztertu ditugun autoreen ezaugarria ordezkapen prozesuen azalpen sakon eta konplexua eman izana da. Hala Calveten glotofagia eta hizkuntz kolonialismoa, nola Bourdieuren hizkuntz azoka, hizkuntza legi-

timoa eta hizkuntz habitusa edo Aracilen hizkuntz ordezkapena eta guxtiengoko egoera, denak tresna guztiz egoki eta erabilgarriak dira hizkuntzen bilakaeratik arazo hauek ikertzerakoan.

Aldi berean, arreta soilik hizkuntzen nagusitze prozesuetan, hau da, estatuaren hizkuntza ofizialaren garapenean, jarri dutela esan behar da. Bakoitzak azalpen mota bat eman du, baina hirurek bilakaera jatorrizko hizkuntzaren elebakartasunetik trantsiziozko elebitasunera eta trantsiziozko elebitasunetik kanpoko hizkuntzaren elebakartasun berrira geldiezina dirudien logika hertsu batez aurkeztu izana dute komun.

Kritika gogorrak egiteko bada ere, bilakabidearen subjektutzat hizkuntza ofiziala eta honek baliatu dituen bitartekoak hartu dituztela esan daiteke. Gainerako hizkuntzen bizitza, aitzitik, bazter arazoak, hots, bilakabide nagusiaren salbuespenak, dira egile hauentzat, eman dituzten azalpenek —glotofagia burutu gabe izatea (Calvet), azoka nagusitik kanpo gelditzea (Bourdieu) nahiz desfaseak gertatzea (Aracil)— erakusten dutenez.

“Dentro del orden establecido, las situaciones minoritarias son «marginales» por definición”, eta “parecen ser «residuos» y «supervivencias»” dio Aracilek (1986: 447), baina badirudi ordena hori salatzen duten ikertzaileen artean ere hizkuntza horien biziraupena ez dela bazter izatera gainditzera iritsi. Diskurtso kritikoak kritikatu nahi duen egoeraren isla edo irudi simetrikoa eratu duela esango nuke. Alegia, errealitatean nagusia denak kritikan ere lehentasuna bereganatu du eta, era berean, mendekoa denak baztertuta segitu du, arretaz aztertua ez izanak erakusten duenez.

### *Hizkuntza gutxituen heriotzaren diskurtsoa eta bere eragina*

Funtsean hizkuntza minorizatuen heriotzaren diskurtsoa dei dezakegunarekin egiten dugu topo, aldagai desberdinetan gauzatuta. Bere agerpen nagusia, joko-arauak ezarri dituen, aurrerapenaren eta, horri lotuta, hizkuntza ofizialen izenean gainerako hizkuntzen heriotza iragarri eta onartu egiten duen diskurtsoa da. Galdutzat jotzen ditu hizkuntza horiek eta halabeharra da nagusi. Diskurtso arazle edo *performatiboa* dugu hau —baieztapen performatiboak “contribuye prácticamente a la realidad de lo que enuncia por el hecho de anunciarla, de preverla y de hacerla pre-ver, de hacerla concebible y, sobre todo, creíble” (Bourdieu 1985: 97)— eta errealitateari itxura jakin bat ematen dio: egia izan ala ez, berdin da, halako hizkuntzak hiltzear daudela egi objektibotzat hartuaraziko baitie gutiei.

Heriotzaren diskurtsoaren beste agerpen bat, hizkuntza ofizialaren hedapena ez onartu, baina hizkuntza menderatuen heriotza saihestezintzat jotzen dutenena da. Salaketa moduan azalduta egon arren, ondorio berberetara iristen da: etsipena eta heriotzaren halabeharrezkotasuna.

Hizkuntzak hiltzear daudela dioen baieztapenaren egiazkotasuna ez dute zalantzan ipintzen.

Hirugarren agerpena hizkuntza minorizatuetatik garrasi iratzartzaile moduan maiz sortu dena dugu. Salaketa eta mina adierazten dute, baina egoerari aurre egin ezean hizkuntza hauek heriotzara kondenaturik daudela onartzen dute.

Oro har, nagusitasuna atzerakadari aitortzen dioten ikerkuntza programak, euskararen historiografiari buruzko atalean ikusi bezala, hizkuntzaren heriotzaren diskurtsoak ezarritako adimen-mugetan mugitzen direla esan daiteke.

#### 2.4 Nafarroako euskararen historiografia, hizkuntzen historia eta literatura soziolinguistikoaren ekarpenak: oinarri teorikoak

Historia soziolinguistikoa, kontzeptuaren zentzu hertsian, gutxitan jorratu den alorra izateak eta, aldi berean, ongi finkaturiko ondorioak atera beharrak gaiaren egoeraren aurkezpen ohi baina luzeagoa egitera eraman naute, baina, hala ere, lana merezi izan duela uste dut. Bi motako eginkizunak bete dira: gaiari buruzko ikerketen egoera ezagutzea —euskararen nahiz beste hizkuntzen historiografiaren azterketa kritikoa, gaztelaniaren eta frantsesaren historiografiaren molde hierarkizatzaileak barne— eta, bigarrena, gure zereginari dagozkion joera teoriko edo metodologiko nagusiak aurkeztea.

Ondorioak (ikus, halaber, 1.2 atala) bi zatitan sailkatzen dira: (1) euskararen historiaren beharrak eta (2) literatura soziolinguistikoaren ekarpenak.

##### *Euskararen historiografiak agertzen dituen beharrak*

Euskararen historiografiatik honako ezaugarri hauek nabarmenduko nituzke: Nafarroako —eta Euskal Herri osoko— euskararen historia soziolinguistikoa egin gabe dago eta, oro har, gaiari buruz argitaratu diren lanetan soziolinguistikako kontzeptuen erabilera oso urria izan da. Beste toki batzuetako egoerekiko azterketa konparatiboak zenbait autorerengan ageri dira, baina beste askorengan, berriz, ez. Arreta euskararen gibelamendua azaltzera zuzendu da bereziki eta joera honek, ulergarria bada ere, arrisku handiak ditu. Adibidez, euskararen historia baino gehiago erdaldunen euskararen aurkako erasoen historia egitea genuke arrisku bat, euskaldunei euren historiaren protagonismoa kenduz; beste bat, bilakaera zapalkuntza *versus* utzikeria —eta saldukeria— klabe hertsi eta sinplifikatzailean aurkeztea. Euskararen iraupena, euskararen bizitza, azken finean, ez da normalean ikergai izan, eta horri buruzko azalpenak eman direnean, askotan nekazari munduaren jarraipenari

loturiko inertziaren edo isolamenduaren eta euskaltzaleen ahaleginen muturren artean kokatzen diren arrazoi kontrajarriak eskaini izan dira.

Erabat bestelakoa izan da Mitxelenaren arrazoibidea. Bere idazlanetatik hiru ideia hauek azpimarra daitezke: topikoak eta ohikeriak saihestu eta betiko iritziez harantzago jotzeko gogoia; euskararen iraupena sakonki azaltzeko nahia; eta, hirugarrena, ikergai berriak erakutsi izana. Denen artean euskararen historia soziolinguistikorako programa oraindik bete gabea marrazten dutela esan daiteke.

Historiografiaren azterketa egina eta Mitxelenaren iradokizunak kontuan hartuta, Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa honako oinarri orokor hauen gainean eraiki beharko litzatekeela esango nuke:

-ohiko azalpen ereduaz haratago joan nahi izatea, borondate hori aldaketa metodologikoan, besteak beste, gauzatzen dela jakinik;

-soziolinguistika zientifikoaren barruan kokatzea;

-ikuspegi disziplinarreko eta konparatiboa garatzea;

-euskararen historia euskaraz mintzatu direnen historia, hots, euskal hizkuntz komunitatearen historia, dela argi edukitzea. Nafarroako euskararen historiaren subjektua ez da Nafarroa osoa, ez dira nafar guztiak —erdaldunak eta euskaldunak nahasita—, bertako euskaldunak baizik, euren bilakaeran eta baita erdaldunekiko izan dituzten harremanetan ere;

-azterketan nagusitasuna euskal kulturako giza taldearen ezaugarriak, euskarak bere bizitzan betetzen zuen eginkizuna eta euskaldunentzat zituen balio praktikoa eta prestigioa ulertzeari emango zaio;

-aldi berean, erdal taldearen euskararekiko pentsamolde eta portaearen ezaugarriak ulertu behar dira. Horri lotuta, Nafarroako euskal eta erdal kulturen arteko ukipenaren zer-nolakoaren eta baldintzen azalpena dugu;

-goikoez gain, Nafarroako historiak aurkezten dituen hainbat galdera sakon ere gogoan edukitzekoak dira.

### *Literatura soziolinguistikoaren ekarpenak*

Nola erantzuten die literatura soziolinguistikoak Nafarroako euskararen historiaren beharrei? Erantzuna konplexua da eta bost puntutan bildu dut.

(1) Historia soziolinguistikoaren hastapenak. Historiari alderdi linguistikoa eta soziolinguistikari dimentsio diakronikoa txertatzen dizkien historia soziolinguistikoaren beharra autore moderno anitzek erakutsi dute —Aracil, Azurmendi, Burke, Fishman, Romaine, Sanchez Carrion, Villena, Weinreich...—, eta, haiek baino lehenagoko garaietara joanez, haren justifikazioa Saussureren beraren esanetan ere oinarri daiteke.

Hala ere, gauza bat da historia soziolinguistikoaren beharra adieraztea eta beste bat disziplina irizpide, metodologia eta eredu mailan garatzea, eredia minuskulaz balitz ere. Garapen falta hau da, hain zuzen ere, bibliografiak erakusten duen hutsunea. Aztertu ditudan artean lau autorek soilik arduratu dira historia soziolinguistikoaren oinarriak lantzeaz, eta bakoitza ikuspuntu ezberdin batetik: Suzanne Romaine eta Francisco Gimeno —hizkuntz aldaketaren gizarte-alderdiak, Laboven ildotik—, Jose Maria Sanchez Carrion —hizkuntz komunitateen existentziatik abiatzen den historiaren aldarrikapena— eta Peter Burke —hizkuntzaren garrantzia historia orokorrean—. Eskasiarekin batera heterogenotasuna nabarmentzen da, beraz.

(2) Soziolinguistika orokorrak ez du euskara bezalako hizkuntzen bilakaeraren azterketan zuzen-zuzenean erabil daitekeen eredu bat garatu. Soziolinguista gehienek ez dituzte gutxiengoak arretaz aztertu eta aztertu dituzten artean frankok —Aracil eta zenbait katalan, Bourdieu, Calvet, Gal, hainbat euskaldun...— menderatze prozesuak azaldu dituzte batik bat, nahiz eta interpretazio kalitatezko eta argigarriak eskaini. Horrela, hizkuntza horietan mintzatzen diren taldeak ez dira subjektutzat hartuak izan, objektu galtzaile pasibotzat baizik, eta bide horretatik paradoxa batera iristen da. Alegia, gutxiengoen orain arteko iraupenaz dihardutenean, ikertzaile askoren hitzei mesprezu doinua dariela dirudi, hizkuntza hauen iraupena funtsean nekazarien mundu “arkaikoaren” iraute pasiboaren emaitza besterik ez baita haien ustez.

Bestalde, soziologian, historian eta antropologian aritu diren ikertzaile gehienak ez dira hizkuntz aniztasunaz arduratu, euren abiapuntua gizarte linguistikoki homogenoa<sup>79</sup> izan baita. Horren ondorioz, ikusten den eta ikertzaileek gogoan edukiko duten hizkuntza bakarra toki bakoitzeko hizkuntza ofiziala da. Hizkuntz aniztasuna, beraz, haientzat existitzen ez den sasi-arazoa izanik, nola garatu egoera horiek azalduko lituzkeen metodorik?

Laburbilduz, gizarte-zientzietan eta baita, neurri batean, soziolinguistikan bertan ere, gutxiengoak edo ez dira existitzen —aipatu ere egiten ez direnean— edo objektu galtzaile dira —nagusitze/menperatze bilakabideetan—. Euren bizimodua daramatenean, berriz, subjektu direnean, alegia, ez dute ia interesik sortzen.

(3) Gure ikerketan lagungarri suertatzen diren osagai teorikoek, gutxiengoak aintzat hartzeaz gain, hizkuntz eta kultur ukipen egoera batean, elebitasun egoeran, beraz, atzeraka baina egun arte bere hizkuntzari eutsi dion giza komunitate baten aurrean gaudela hartu behar dute kon-tuan. Azalpenek, aberatsak eta sakonak izango badira, talde nortasuna-

79. Soziologiari dagokionez, ikus Giglioliren hitzak: “sociologists have considered language as an omnipresent and invariant feature of every society” (Giglioli 1990: 11).

ren alde etniko eta kulturekin lotuta egon behar dute. Halaber, egoera bakoitza ongi aztertzeko, hizkuntzen garapenaren garaian garaiko beharrak zein ziren ulertzen laguntzen duten elementu teorikoak behar ditugu.

Balio orokorreko eredu garaturik ez izanik, gure eginkizuna, handik eta hemendik ekarpenak bilduz, metodo egoki batez hornitzea da, aldi berean aurrerantzean ibili beharko liratekeen bideak ahal den neurrian erakutsiz.

(4) Ekarpentik interesgarrienak hizkuntzen bizitzaren bi aldeak —iraupena eta ordezkapena— aintzakotzat hartu dituzten autoreengan —Fishman, Fasold;...— eta Jose Maria Sanchez Carrionengan aurkitu ditut.

Lehenengo sailekoen arabera, iraupena zein ordezkapena hizkuntz hautaketaren eredu kolektibo iraunkorren emaitza izanik, historia soziolinguistikokoaren zeregina hizkuntz komunitate bat bere hizkuntzari eustera, hizkuntza aldatzera zein elebidun bihurtzera eraman duten portaera motak aztertzea litzateke. Hautaketa prozesu kolektiboa bada ere, bere abiapuntua norbanakoak dira. Hizkuntz hautapena hiru ikuspegitatik azter daiteke: soziologikoa, psikosoziala eta antropolinguistikoa, sakonena eta besteak bere baitan biltzeko ahalmenik handiena duena antropolinguistikoa izanik. Autore hauentzat, hortaz, garrantzi handikoa da giza talde baten bere ezaugarri etnolinguistikoekiko atxikimendua zertan den eta ukipenaren inguru etnokulturala zein den ongi eza gutzea. Hautaketaz eta alde etnokulturalaz gain, hizkuntzaren erabileraz, hizkuntz jarrez eta hizkuntzaren gaineko jardueraz arduratu dira.

Ildo horretatik, ohar metodologikoak ere alor horiek lantzeak sor ditzakeen arazoei aurre egitera zuzendu dituzte.

Gure ikerketaren interes orokorrekin bat datorren beste autorea Jose Maria Sanchez Carrion dugu, lehen aipaturiko soziolinguistika historikorako galdera eta irizpideez gain, hizkuntzen historia ulertzeko guztiz baliagarria den sistema kontzeptuala garatu baitu.

(5) Literatura soziolinguistikoa adierazi dituen erronka metodologikoak horrela aipa daitezke:

-gizakien erabaki eta hautapenak, gizarte-egituraren baldintzak eta bien arteko elkarrekintza ongi azaltzea;

-hizkuntzaren bilakaera testuinguru etnokulturean kokatzea, arazoa euskal muga etnolinguistikoa mantentzea edo puskatzea baita funtsean;

-erdal komunitatearen portaeraren abiaburuan dauden mentalitate eta ideologiak ulertzea, euskal hizkuntz komunitatearen bilakaeraren oinarrian erdal kulturarekiko ukipena baitago;

-kultur aniztasuna kontuan hartuz, guztiei ezarriko litzaikeen paradigma lineal bakarrean ez erortzea. Adibide bat: tradizioaren ostean

modernitatea etorri dela dioen eskema lineal kanonikoa (Badie 1994: 343) onartuz gero, eskema horri egokitzen ez zaion guztia, euskararen existentzia, esaterako, iraganaren hondakin gisa aztertuko litzateke;

-iker-unitatetzat hizkuntz komunitatea, ez eliteak eta ez erakundeak edo estatua, hartzen denez, ia lekukotasun idatzi zuzenik utzi ez duen herri xehearen hizkuntz jokaera eta mentalitateak ezagutzeko bide ego-kiak baliatzea;

-bilakabidearen abiapuntu ongi dokumentatu bat aurkitzea;

-iraganeko hizkuntz egoeren berri ematen duten iturri fidagarrien arazoa;

-eskura ditugun hainbat datu, albiste eta argibideren artean ordena ezartzen duen eta berriak integratzeko ahalmena duen eskema edo interpretazio eredua eraikitzea;

-eredu eginik ez dagoenez, lan honetarako berriaz eratutako metodologia disziplinarreko eta konparatiboa prestatu beharra.

### 3. EUSKARAREN BILAKAERA IRAUPEN LUZEKO BOST GAIREN ARGITARA

Aurreko kapituluetan esan bezala, lanaren gaia Nafarroako euskararen 1863-1936 bitarteko historia soziolinguistikoa dugu. Euskararen historia bere hizkuntz komunitatearena da eta gaiari Nafarroan erdal hizkuntz komunitatearekiko harremanetan egon dela kontuan hartuz heldu diot. Oraingo kapituluan bi hizkuntz komunitateen arteko ukipenaren oinarriak azaldu nahi ditut. Asmoa ez da testuinguruan kokatze hutsa, Nafarroako euskal hizkuntz komunitatearen bilakaera sakonki ulertzeko behar-beharrezkoak diren zenbait alderdi erakustea baizik.

#### *Iraupen luzea eta iraupen laburra*

Historialariek egin ohi duten *iraupen luzeko* eta *iraupen laburreko* denboren arteko bereizketa oso egokia da euskararen historiarako. Izan ere, datozen lerroetan erakutsiko denez, iraupen luzea/iraupen laburra ikuspegi-jokua onartuta, Nafarroako euskararen historiatik nabarmendu nahi ditudan gaiak mendetako sustriak dituzte nafar gizartean eta zeri-kusi handiagoa dute iraupen luzeko bilakabideekin denbora laburreko gertaerekin baino.

Arreta iraupen luzeko bilakaeretan jartzen duen ikuspegiak —Historia Berriaren korrantea, kasu— historiaren indar sakonek gehienbat denbora luzean eragiten dutela du gogoan: “La más fecunda de las perspectivas definidas por los adelantados de la nueva historia ha sido la de la larga duración. La historia avanza más o menos rápida, pero las fuerzas profundas de la historia sólo actúan y se dejan prender en el tiempo largo” (Le Goff 1988: 282). Bere ikergaia “lo que cambia lentamente” (ibid.: 283) da eta iraupenak nahiz aldaketak erakusten eta azaltzen saiatzen da (ibid.: 282), gurean antz handia duten ardurak erakutsiz, ikusiko denez. Psikologia kolektiboak eta izpiritu-gertakari historikoek erakarrita, iraupen luzeko ikuspegitik jorratu diren alor berrien artean ezagunenetarikoa bat *mentalitateen historiarena* da. Horrekin lotuta, iraupen luzearen historiak antzinatek datozen eta denbora luzean zehar irauten duten oinarriko portaerei buruzko gogoetak plazaratzen ditu: “Braudel, a partir de la reflexión etnográfica, ya se había preguntado si hay invariables históricas, rasgos elementales del comportamiento que se perpetúan en una tan *longue durée* (...) que se pierden en una intemporalidad real, o en orígenes tan lejanos que llega a significar lo mismo” (Vovelle 1985: 222).



Orobat, beste giza zientziekiko elkarlanean dihardu historia mota honek eta haien artean antropologia, edo etnografia, du solaskide pribilegiatua (Le Goff 1988: 290) eta, sakontasun bila, landu beharreko alorren artean irudikapen edo imaginario kolektiboarena azpimarratzen du: “una dimensión, fundamental, que todavía se echa de menos en gran parte en la historia es la de lo *imaginario*, esa parte del *ensueño* que, cuando desenredamos bien sus complejas relaciones con las demás realidades históricas, nos introduce tan a fondo en el corazón de las sociedades” (bigarren etzana nirea da) (ibid.: 292). Denbora-bitarteei dagokienez, iraupen luzearen kontzeptu pean oso epe desberdinak aztertu izan dira: hamarkada batzuetako aldiak —*La Méditerranée et le monde méditerranéen à l'époque de Philippe II* (Fernand Braudel)—, mendeak —*Le problème de l'incroyance au XVIe siècle: la religion de Rabelais* (Lucien Febvre)— eta mende multzoak —*Los tres órdenes o lo imaginario del feudalismo* (Georges Duby)—.

Iraupen laburraren ikuspegiak epe motzeko gertaerak ditu aztergai eta arreta aldaketa azkarretan ipintzen du. Iraupen laburreko gertakari bat Iraultza Frantsesa litzateke, adibidez, eta iraupen luzeko bilakaera bat nekazari klaseen portaera, Iraultzaren aurretik eta Iraultzaren ondoren ezaugarri komun ugari zituen, esaterako. Iraupen luzea herri-masen denbora geldoarekin parekatu ohi da eta iraupen laburra, berriz, eliteen denbora urduri eta aldakorrarekin (Vovelle 1985: 220). Bi denbora motak, baina, uztartuta daude eta historiagileak ez ditu kontrajarri behar, bien arteko harremana argitu baizik: “¿No sería conveniente no ya redescubrir el acontecimiento, sino definir, en la historia, una nueva dialéctica del tiempo corto y del tiempo largo?” (ibid.: 224).

Nafarroako euskararen historiarako hautatu dudak ikuspegia —euskal hizkuntz komunitatearen hizkuntz portaeraren ereduak, haien aldaketa nahiz gizaldiz gizaldiko jarraipena eta euskal eta erdal kulturen arteko ukipenaren ezaugarri sakonak, denak agerian jarri eta azaltzen saiatzea— bat dator iraupen luzeari buruzko ikerketek agertzen dituzten kezkekin, nahiz eta epe motzeko gertakariak —agintarien zein mugimendu euskaltzaleen ekimenak, esate baterako— ez ahaztu.

Ez da kasualitatea, nik uste, Julio Caro Baroja bere *Etnografía histórica de Navarra* (Caro Baroja 1971-2) lan ederrean Nafarroako historiaren denbora “luze eta beteaz”, orainean eragin handia duena, mintzatu izana: Nafarroako historiak badu “un Tiempo *largo y lleno*, históricamente hablando. ¿Lleno de qué? (...) de hechos concretos, varios, abundantes, ocurridos a lo largo de unos siglos en unos espacios muy determinados y con dimensiones y duraciones distintas: hechos que gravitan sobre nuestras vidas de maneras muy variadas también. Con una «simultaneidad» a veces muy enigmática” (Caro Baroja 1971-2, III: 460).

*Iraupen luzeko bost gai*

XIX. mendearen ezaugarri orokorren aurkezpen laburra (3.1 atala) egin ondoren, eta bertan aipatutako ezaugarri bakoitzak berezko azalpena mereziko lukeela jakinda ere, denbora luzearen ikuspegian kokatzen diren lau gai ukituko dira bereziki (3.2-3.5 bitarteko atalak). Ez dira aukera nitzakeen bakarrak eta, gainera, lehen begirada batean, elkarren arteko lotura logiko esturik ez dutela eman lezake, zertzelada sorta baten moduan aurkeztuak baitaude, nonbait, baina denek helburu komun garbia dute: Nafarroako euskararen historiari alde desberdinetatik argi ahalik eta indartsuena egitea. Beste toki edo garai batzuetako adibideak dira eta haien azalpena bakoitzaren barne koherentzia gordez eman nahi dut, desitxuratu gabe, baina, aldi berean, Nafarroako gertaerekiko duten parekotasun handia nabarmendu egingo dut behin baino gehiagotan.

Euskal hizkuntz komunitateaz, bere portaera eta hautapenen eta bere ugalketaren azpian eredu eta egitura jakin batzuk zeudela erakutsi nahi dut lanean zehar. Alegia, ez gaudela inertziatzko bilakaera baten aurrean, portaera egituratu baten aurrean baizik. Horretarako oso egoiak dira azterketa konparatiboak. Ez dut gai hau beste hizkuntzetan zuzenean azaltzen duen ikerketarik ezagutu ahal izan, baina bai analogiaz argia ekar diezagukeen deskribapen bat: Frantziako herri hizkuntzen bilakaera XVIII. mendeko eguneroko bizimoduan, Ferdinand Brunotek (1967, VII) erakutsitakoa<sup>80</sup>. Hizkuntza horiek frantsesaren presio handia jasan behar izaten zuten orduan jadanik eta muga nabarmenak zituzten, baina bizi-bizirik zeuden, eta ez kasualitatez. Beren egoeraren azterketak euskara bezalako hizkuntzen ugalketaren eredu tradizionala, hots, lehen mailako sozializazio agenteetan oinarriturikoa, marratzuko digu.

Erdal hizkuntz komunitatearen portaerak bi ikuspuntutatik argitu dira: bere sustrai ideologikoen ikuspuntutik eta hizkuntz politikarenetik. Erdal kulturaren ideologiaz mintzatzen garenean Mendebaldeko kulturaren ideologiaz ari gara funtsean eta haren ikerketak, iturriraino eramanda, lotura du Jacques Le Goffek gizartearen bihotz-bihotzean murgilduko gintuzkeen imajinarioaren edo amets sozialen azterketari ekite-

---

80. Bi adibide gehiago aipa litezke, baina ez dira Frantziako XVIII. mendekoa bezain argigarriak eta ez ditut orrialde hauetara ekarriko. Aurrena gaur egungoa da —ingelesaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa Holandan bigarren hizkuntza gisa— eta kultur eta harreman zereginak betetzen dituen eta, hala ere, ama hizkuntza ordezkatzera iristen ez den hizkuntza baten ugalketaren eredu egonkorra erakusten du: Fishmanen “The Intergenerational Transmission of «Additional» Languages for Special Purposes” lana (1991: 355-67). Bigarrena Genevieve Calame-Griauleren *Ethnologie et Langage. La parole chez les Dogon* (1982) liburua da, Mali aldeko Dogon herriaren gizarte eta hizkuntz egituraketaz egindako azterketa zoli eta borobildua.

ko egin zuen eskaerarekin (ikus Le Goffen goiko aipua). Bere hastape-  
nak mitologia eta epopeia indoeuoparretan aurkitzen ditugu. Ibiltzeko  
zaila eta emaitzetan abstraktuegia eman lezakeen bide hau urratuta dago  
jadanik eta Georges Dumezil-en ikerketek erabilgarritasun handiko  
ondorioak ateratzea ahalbidetzen digute<sup>81</sup>. Bestalde, erdal komunitate-  
aren hizkuntz politika argitzeko asmoz iturrietara jo dut: Frantziako  
Iraultzak adierazi eta abian jarri zuen hizkuntz politika eredugarria.  
Gaur egungo nazio-estatuaren hizkuntz politikaren eredu —Nafarroako  
euskararen historia baldintzatu duen Estatu espainolarena barne—,  
oinarrian duen ideologia —“Estatu bat, nazio bat, hizkuntza bat”, fun-  
tsean—, herri hizkuntzak deuseztatu nahia, hauei buruzko iritzi eta este-  
reotipoak eta, azkenik, helburu horiek erdiesteko erabiliko ziren bitarte-  
koen —irakaskuntza, departamentuen sorrera, administrazioa, solda-  
dutza, garraioak eta abar— zereginari buruzko gogoetak, denak  
Iraultza Frantsesaren ideologiaren sortzaileen azalpenetan aurkitzen  
ditugu eta zeharo argigarriak suertatzen zaizkigu.

Amaitzeko, Nafarroaren kultur eta hizkuntz izaeraren gaia jorratu  
dut (3.5 atala). Nafarroakoa, Euskal Herriko gainerako herrialdeekiko  
hala-nolako harremanetan ia beti egon den, baina berezko izaera politi-  
koa duen, historiko eta kulturalki anitza den eta erdal kulturako talde-  
aren mesedetan eraikitako erakundearen inguruan antolatuta egon den  
gizartea dela esan dut lehenagoko kapituluetan. Ideia horren justifika-  
zioa eta izan dituen ondorio nagusiak aurkezten saiatu naiz.

Laburbilduz, hauxe erakutsi nahi nuke hirugarren kapitulu honetan:  
Nafarroan bi giza talde —euskalduna eta erdalduna— antolamendu  
politiko berean elkartzuta bizi izan dira, baina nagusitasuna eta gizarte-  
egituren buruzagitza talde erdaldunak izan ditu, nafar gizartea bere zer-  
bitzuan jarritz. Talde bakoitzaren portaera-ereduak argitu nahian, eus-  
kaldunen oinarritzko portaeren antz handia Frantziako XVIII. mendeko  
herri hizkuntzetan aurkitzen dugu (3.2 atala). Irudia borobiltzeko XIX.  
mendeko hizkuntzen aldeko mugimenduen aurkezpena egin beharko  
genuke, baina hori 8. kapituluaren egingo da. Nafarroako talde erdaldu-  
naren jokamoldea ulertzeko bi ideia nabarmendu ditut: euren burua  
indoeuoparren kulturaren eremuan kokatuz, mundu horretako gizarte-  
hierarkiaz ere eredu araberako jokatu dute, hierarkiako mailarik altuena  
beraiztatuz gordez, jakina (3.3 atala). Hizkuntz politika, bestalde,  
Frantziakoa gogoan edukita taxutu dute (3.4 atala).

Kapitulu honek, beraz, bost atal izango ditu:

3.1 XIX. mendearen ezaugarri orokorrak

3.2 Herri hizkuntzen biziraupena: Frantzia XVIII. mendean

---

81. Imajinarioaren, edo irudikapenen, historia zientifikoaren alorrean Dumezilek  
egindako lanaz, ikus Patlagean (1988: 306-7).

3.3 Mendebaldar eta euskal kulturen arteko ukipena: indoeuroparren ideologiaren hastapenak

3.4 Erdal komunitatearen hizkuntz politika: Frantziako hizkuntz politikaren ereduak

3.5 Nafarroako hizkuntz eta kultur tradizioak.

### 3.1 XIX. mendearen ezaugarri orokorrak

1863-1936 epealdiaren testuinguru orokorra, esan beharrik ez dago, oso zabala da berez: XIX. mendean eta XX.aren lehengo hamarkadetan Europan, Estatu espainolean, Euskal Herrian eta Nafarroan bertan izandako gertakari eta bilakaerak. Adibidez, orokorrenak aipatuz: industri iraultza, iraultza politikoak, estatu modernoaren eraikuntza, hezkuntzaren hedapena, gerrateak, nazionalismoak —estatuko nazionalismoak nahiz nazio gutxiengoak— eta, oro har, nekazari gizartetik industri gizartera<sup>82</sup> doazen bideak eta prozesu horretan eragindako ideologiak. Horiez gain, badaude lehenagotik zetozen beste osagai garrantzitsu batzuk —nafar gizarteko hizkuntz joerak, esate baterako— eta hauek ere gogoan hartzeak dira. Kapituluaren zeregina ez da, noski, denak zehatz-mehatz aurkeztea, horretarako daude-eta historia liburuak, baina laburpen bat egitea komenigarria da.

#### *Humboldtten aurrikuspenak*

XIX. mendearen ezaugarri orokorren aurkezpena ariketa argigarri batekin hasiko dut. Wilhem F. von Humboldt (1775) 1799. eta 1801. urteetan Euskal Herrira egin bidaietan ezagutu zuen egoeraz nahiz bere etorkizunaz adierazi zituen galderak eta aurrikuspenak eta egiazki gertatu zen bilakaera konparatuko dira. Humboldt lehen eskuko lekukotasun sakon eta argiak eskaini zituen bere liburuan eta bertan azaldukoak XIX. mendearen hasierako euskararen eta euskal gizartearen egoera ezagutzeko bide ezinhobea ematen digu<sup>83</sup>; baita nazio gutxiengoei

---

82. Soziologia eta historiako lanetan *gizarte tradizionala* eta *gizarte industrial* kontzeptuak erabiltzen dira eskuarki, baina bereizketa honek arazoak ditu batak bestearekin inolako zerikusirik —ez egiturazkoa, ez geografikoa eta ez denborazkoa ere— ez duten gizarte mordoak zaku berean biltzen duelako. Horrela zorrotasun kontzeptuala gal lezake hainbat egoera aztertzerakoan, Nafarroakoa, esate baterako. Arazoari irtenbidea emateko, Robert Redfield-i eta Guy Rocher-i jarraikiz (Rocher 1990: 299), gizarte tradizionalan *gizarte arkaikoa* eta *nekazari gizartea* bereiziko ditut, gure gaiari dagokiona nekazari gizartea dela jakinik.

83. Euskarari buruzko bere hizkuntz ideia eztabaidatuak alde batera utzita, Mitxelena (1985: 127) ustez Humboldt “a été (...) l’observateur étranger le plus averti qui se soit jamais penché sur cette réalité qu’on appelle le Pays basque, et ceci

buruzko orduko pentsaera mota baten berri jakiteko ere. Nafarroako egoera, Caro Barojak (1971-2 eta 1985) erakutsi bezala, alde askotatik begiratuta —bizitasun sozioekonomikoa, biztanleen herriarekiko atxikimendua...— berdintsua zela kontuan hartuta, Humboldt看 Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabarako esandakoek Nafarroako mendialderako ere neurri handi batean balio dutela uste dezakegu.

Humboldt看 herri sendo eta egituratu bat aurkitu zuen Euskal Herrian, bere nortasun eta sustrai historikoak, hizkuntza bizia eta erakunde politiko-sozialak —Foruak, azken finean— zituena (Humboldt 1975: 11 eta 16). Euskaldun ugari Espainia eta Ameriketako bizimoduetan txertatuak zeuden, baina hori ez zen eragozpena euren herriari irmo eusteko: “Animados de un entusiasmo por su país y su nación (...) permanecen fieles a su patria de buen grado aun los hacendados, aun los que reciben títulos honoríficos en Castilla, o que han ejercido cargos de principalía” (ibid.: 16).

Euskal Herria, Espainiako zatia bereziki, ez zen, Humboldt看 zioenez, artzainen edo morroi zapalduen herri bat, nekazaritzan, itxasketan eta merkataritzan ziharduen eta aski ondasun material zituen herria baizik (ibid.: 16). Beren izaerari eutsi dioten Europako beste gutxiengo batzuen aldean —Bretainia, Gales, Eskozia, herri baltikoak, Alemania, Suedia eta Italiako herri zenbait...—, herri aurreratu eta kulturalki eguneratua zen Euskal Herria eta ezaugarri horiek hain zuzen ere nabarmendu nahi izan zituen Humboldt看: “ninguno, entre todos estos pueblos, ha logrado, en tanto grado como los vascos, todavía hasta el día de hoy, el proveerse de una organización política independiente y un bienestar floreciente, ninguno tanto como ellos el trasplantar muchos de los frutos más benéficos de la ilustración europea” (ibid.: 11)<sup>84</sup>.

Gizarte egituratu eta garatu hartan hizkuntza bizia zen euskara, baina jadanik, Europako beste asko bezala, atzeraka egiten hasia omen zen, euskaldunen Europako gainerako herriekiko ukipenagatik eta klase ilustratuen bazterketagatik (ibid.: 13). Klase hauek, baina, herriko eguneroko bizimoduan euskaraz ziharduten: “en su patria viven necesaria-

---

dans un des grands tournants de l'histoire”. Julio Caro Baroja ere iritzi berekoa da: “Un perfil psicológico de vasco-españoles y vasco-franceses, excelente a mi juicio, es el de Guillermo de Humboldt” (Caro Baroja 1978: 262, 2. oin-oharra). Halaber, Andres Ortiz Oses (1993: 152).

84. Iritzi bera adierazi zuen Mitxelenak bere euskal literaturaren historian (1988b: 113): “en el corto período que va de 1769 a 1804, entre la guerra de la Convención y la Zamacollada, es cuando (...) producen sus mejores frutos el espíritu de las anteriores Juntas de la Real Sociedad Vascongada y las ideas de la Ilustración. Una vez más se demuestra que Vasconia ha estado muy lejos de ser el terreno impermeable a nuevas ideas y modos de vivir que algunos se figuran”.

mente en una muy grande comunidad con la masa del pueblo, pues no pueden eximirse de las costumbres y de la lengua de éste” (ibid.: 16).

XIX. mendearen hastapenetan egoera hura bazen, etorkizunaz ere mintzatu zen Humboldt. Etorkizun baketsua eta hazkunde demografiko eta ekonomikoa iragarri zituen Euskal Herriarentzat: “Al presente no es ya fácil que les acaezcan conmociones violentas, al contrario pueden las provincias vascas en España y Francia esperar un crecimiento ascendente de su población y de su bienestar” (ibid.: 13). Ez dirudi, hortaz, liburua idatzi zueneko hasita zeuden Frantziako Iraultzaren gerra eta konkistek izango zituzten ondorio larriak susmatuko zituenik.

Aurrerapenaren ondorioz eta gehienez mende baten buruan, hau da, XIX. mendearen amaierarako, euskararen desagertzea azkarra gertatuko zela uste zuen: “Ya en el día tiene que retroceder a la montaña, de decenio en decenio cada vez más, acosada por todos lados (...) y es de prever que su decadencia tomará de aquí en adelante una marcha aún más acelerada. (...). En menos de un siglo habrá desaparecido quizás el vascuence de la serie de lenguas vivas” (ibid.: 13). Joera hau mingarri eta deitoragarria zen Humboldtentzat —“promueve siempre una sensación dolorosa la decadencia de un pueblo (...) y aún más la completa desaparición de una lengua” (ibid.: 14)—, baina saihestezina aldi berean, bai baitzirudien giza kulturaren abiadak ezinbestez herrien arteko diferentzien desagertzea zekarrela.

Euskaldunen nortasun etnikoak, apurka desagertuz joango bazen ere, oraindik luzaroan iraungo zuen eta bere norabidean eragin handia izango zuen Espainiako monarkiaren jokamoldeak: “¿cómo debe tratar a la nación vasca la monarquía española (...) para hacer su fuerza y su actividad tan provechosas para España como sea posible?” (ibid.: 17). Humboldttek garrantzi handikotzat jo zuen galdera hau, nahiz eta oso susmo baikorrik ez izan, ordura arte joera berdintzaileak izan baitziren nagusi: “hay que confesar libremente que hasta ahora siempre se ha pensado más en desembarazarse sólo de las dificultades, que opone la disparidad, que en utilizar lo bueno, que consigo trae la peculiaridad” (ibid.: 18).

Espainiako monarkiari barne aniztasuna onarrez eskatzeaz gain, euskararekin zuzenean zerikusia zuten bi nahikari adierazi zituen Humboldttek. Lehendabizi, toki bat eskatu zuen euskal kulturarentzat hezkuntza sisteman (ibid.: 17), eta bigarrenik, euskararen literatur garapenaz ari zela, artifizialtasunean eroriko ez bazen, ordura arteko bizitasun etnolinguistikoan oinarritu behar zuela iradoki zuen, hau da, eguneroko hizkuntza izateari utzi gabe, handik edan behar zuela literatur euskarak (ibid.: 15).

Plazaratu zituen gai eta galderak, ikus dezakegunez, ez ziren nolana hikoak eta, iragarpenetan sarritan huts egin arren, XIX. mendearen ezaugarri nagusiez gogoeta egitera garamatzate. Garapen sozioekonomi-

koaren arazoak —geroagoko industri iraultza, azken finean— eta beren ondorio berdintzaileak, praktikoak zein ideologikoak, gogoan eduki zituen Humboldttek. Aurrerapenaren ordainez euskararen heriotza XX. mendea heldu baino lehen gertatuko zela zioen iragarpena, ordea, ez zen bete. Garbi dago euskarak Humboldttek uste baino sendotasun handiagoa zuela, nahiz eta euskal gizartearen sendotasuna Humboldttek berak erakutsi zigun. Euskara ez zen hil, baina, hala ere, gizartearen garapenak euskararen heriotza ekarriko zuela zioen leloak arestian aipatu den “euskararen heriotzaren *topos*-ak” (2.1 atala), alegia, bizitza luzea izan zuen XIX eta XX. mendeetan: Reclus, Vinson, Hovelacque, Unamuno eta beste (ikus 5.1 eta 7.3.3.1 atalak).

Are gehiago, euskal literatura modernoaren hastapenak XIX. mendean hasi ziren jartzen, euskararen berezko bizitasunean oinarrituta, Humboldttek eskatu bezala. Beste gauza bat litzateke euskara biziaren eta hautatu ziren bideen artean zer nolako harremanak ote zeuden zehaztea.

Etorkizun baketsu eta emankorra iragarri zuen, baina gerrate gogorak jasan zituen Euskal Herriak XIX. mendean, aurrena 1808. urtean Frantziako Iraultzaren hedazalekeriaren ondorioz, eta izugarritzko puskaketa eragin zuten euskal eta nafar gizarteetan. Puskaketa ideologikoa eta puskaketa sozioekonomikoa: gerrateen berezko hondamendi materiala eta, ondorio sakonagoak izan zituena, XVIII. mendean hartutako abiadaren etena (Caro Baroja 1971-2 eta 1985).

Estatu espainolaren joera uniformatzaileak antzeman zituen Humboldttek, baina bilakaera oraindik bortitza izan zen. Espainiako Estatuak ez zuen barne aniztasuna onartu eta, jokamolde berdintzaileak muturreraino eramanez, Euskal Herriarekiko jarrera guztiz gaiztotu zuen. Foruen aldaketa —Nafarroan— eta galera —Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan— dugu jarrera horren emaitza politiko nagusietariko bat.

Hezkuntzak XIX. mendean hartuko zuen garrantzi eta indarra sumatu zuen Humboldttek, baina, uniformizazioaren zurrunbiloan harrapatuta, euskarak eta euskal kulturak ez zuten hezkuntza sistema berria berak opa zien tokia erdietsi.

### *XIX. mendearen ezaugarri orokorrak*

Humboldttek Euskal Herriari buruz aritzean erakutsitako gaietatik abiatuta, XIX. mendearen hainbat ezaugarri garrantzitsurekin topo egin badugu, hurrengo paragrafoetan ikuspegia borobiltzen lagunduko diguten zertzeladak eskaintzen dira.

Oro har, industri iraultza eta iraultza politikoak ditugu XIX. mendearen ezaugarri nagusiak. Iraultza industrialaren izenburupean gizarte tradizionaletik gizarte industrial edo modernora eraman zuten aldaketa ekonomiko eta sozialak biltzen dira. Iraultza politikoen emaitza orokorra Errejimen Zaharraren krisialdia eta estatu berriaren eraketa izan zen

eta bere abiapuntu eta, aldi berean, adierazpenik gardenena Frantziako Iraultza eta bere ondorioetan aurkitzen dugu, historiagile gehienek onartzen dutenez. Biak, iraultza industrial eta iraultza politikoak, estuki lotuak daude eta, azken finean, modernizazioaren<sup>85</sup> izena eman ohi izan zaion bilakabide orokorrean elkartzen dira. Biek ez dute, dena den, ezinbestean beti batera eta elkarrekin gertatu behar eta, industrializatorik oraindik ez izan arren, modernizazioaren eraginak nabariak izan daitezke gizarte batean —XIX. mendearen bigarren aldiko Nafarroan, adibidez, industrializazioaren bultzadarik handiena 1950-60ko hamarkadetan gertatu arren— Ernest Gellnerrek erakutsi zuenez:

La industrialización propiamente dicha puede ser precedida —y en ciertos casos seguida— por los atavíos, terminología, expectativas y *slogans* de la sociedad industrial. Un complejo de importaciones anticipatorias puede tener casi el mismo impacto sobre una sociedad que la cosa en sí.

(Gellner 1964. *Thought and Change*. Londres, 171. Aipatua in Smith 1976: 162)

Estatu berriaren eratzeak birmoldaketa osoa eragin zuen bere egituretan. Horrela, lehenagotik zetozen antolamendu askok aldaketa sakinak jasan zituzten, beste batzuk desagertu eta beste batzuk, berriz, sortu egin ziren. Esandakoaren lekuko, Espainiako kasuan armada eta nahitaezko soldadutza, Foru erakundeen deuseztapena eta beraiek ordezkatzera etorri zen probintzien antolakuntza administratiboa, hezkuntzaren hedapen orokorra, partidu politikoaren sistema berriaren eraketa eta beste ditugu. Bilakaera luzea, ia mende osokoa, izan zen eta egiturak berriztatzeaz gain, estatuaren indartze orokorra eta honek hiritarren bizitzan zuen esku hartzea etengabe handiagotuz joan izana dira bilakaeraren emaitza nagusiak<sup>86</sup>.

85. Modernizazioa hitza oso erabilia da XIX-XX. mendeetako bilakaeraren deskribapen soziologikoetan eta neuk ere erabiliko dut, bere ohiko esanahian —“equivalente de desarrollo capitalista en su fase industrial” (Botti 1992: 20, 1. oin-oharra), esate baterako—, industri gizartearen sinonimo gisa, nonbait, baina iradokitzen dituen *konnotazioengatik alde txarrak* ere baditu eta haietaz ohar gaitzen komeni da. Modernizazioaren —moderno edo berria— antonimoak *zaharra* eta *tradizionala* dira eta lehenari baikortasunaren tasunak eransten bazaizkio, zaharraren kasuan, ordea, ezkortasuna da nagusi. Modernoa berezko edukina duen kategoria positiboa da, tradizionala, ordea, modernoaren kontrakoa besterik ez da: “«La sociedad tradicional» era una especie de categoría residual, definida como lo contrario de la sociedad en que vivía el sociólogo” (Burke 1987: 106). Horren arabera, modernizazioaren ondorioztat jotzen diren gertaerak onesteko eta tradizionaltasunari loturikoak gaitzesteko joera psikologiko-ideologikoa nabaria da.

86. Anthony D. Smith-en ustez, esate baterako, “Lo que importa es el nuevo papel «intervencionista» del Estado” (1976: 320) eta bere garapenean lau osagai nahastu ziren: “asimilación de la población, discriminación contra alguno de sus subgrupos, un



Gailendu ziren *molde ideologikoak* hauek izan ziren, hitz bitan esanda: alde batetik, indibidualismoa —gizabanakoen askatasun eta burujabetasunaren aldarrikapena—, bere alde on eta txarrekin, etengabeko aurrerapenean sinestea —Spencerren asmoa, esate baterako, indibidualismoa eta aurrerakuntza bereiztezinak zirela demostratzea izan zen (Rocher 1990: 235)— eta gizarte tradizionalarekiko nagusitasun sentimendu itzela (Rocher 1990: 290-6), eta, beste aldetik, nazionalismoa. Alde sozial orokorrari dagokionez, kultur ezberdintasunaren ezabatzea etorkizuneko garapen sozioekonomikoaren truke ordaindu behar zen saria balitz bezala justifikatzen zen, XIX. mende hasierako giroa islatzen zuten Humboldtentz hitzetan agertzen zenez. Horrelako jarrerak maila gorenera ideologia liberalak (J.S. Mill, Lord Acton, Spencer...) eraman bazituen ere, oihartzun handia aurkitu zuten beste alor askotan liberalismoaren etsai amorratua izan zen XIX. mendeko beste korrante ideologiko handian ere: marxismoan, Engelsen zenbait pasartetan bereziki.

Europa osoan nazionalismoen aroa dugu XIX. mendea. Bi eratan agertuta, nazio-estatuak —zaharren nahiz berrien— eraikuntza eta estatutik gabeko nazioen mugimenduen sorrera eta garapena. Bien kasuetan ideologia nazionalisten adierazpenak aurkitzen ditugu eta beraietan hizkuntzei buruzko ideiei tarte handia egiten zitzaion.

Aro honek, beraz, bi ezaugarri izan zituen, ez bakarrik. Alegia, joera berdintzaileekin batera hainbat nazionalitatearen garapena dugu, estatu berriak sortuz, bilakaera orokorra uste ohi dena baino konplexuagoa izan zela erakutsiz. Berdin gertatu zen hizkuntzen mailan. XIX. mendeko hitz egiten dugunean aldebakarreko irudia dator kigu sarririk gogorra: herri hizkuntzen atzerakada. Aldebakarreko ikusmolde hau oso nabaria da, besteak beste, nazionalismoen teorikoen artean, Ernest Gellner-en hitz hauetan, esate baterako, ageri denez: “la mayoría [kulturak] se encaminan dócilmente al matadero, ven cómo su cultura (si bien no ellos como individuos) desaparece poco a poco, disolviéndose en una mayor perteneciente a un nuevo estado nacional. La civilización industrial lleva a la mayor parte de las culturas al desván de la historia sin que éstas ofrezcan la menor resistencia” (1988: 68-9).

Baina, nazionalitateen kasuan bezalaxe, egiazko bilakaerak beste aurpegi bat ere izan zuen eta, jaitsi beharrean, gorakada handia izan zuen garapen osoa erdietsi zuten hizkuntzen kopuruak. Horrela, Karl W. Deutsch-ek (1977: 599-600) esan duenez, 1809. urtean hamasei ziren Europako hizkuntza osoak —osatuak—, 1900.ean hogeita hamar ziren hizkuntza osoak edota osatze bidean —“with new literatures and educa-

---

intervencionismo y una centralización niveladoras, y finalmente, lo más importante, el intento de aplicar los últimos métodos y técnicas científicas a los problemas del gobierno” (ibid.: 323).

tional or political institutions or movements” (ibid.: 600, 3. oin-oharra)— eta 1937.ean, lanaren epearen mugan, berrogeita hamahiru, euskara barne. Hau da, 1809ko zerrendari gehitu zitzaizkion hizkuntzen bilakabidea, euskararena ere bai, modernitateatik at egotetik modernitatearen barruan egotera igarotzea izan zela esan dezakegu, ez modernitatearen trena galtzearena.

Estatu espainoleko bilakaera joera erdirakoi eta uniformatzaileen klabeetan gertatu zen. Abiapuntutzat, Britainia Haundia, Frantzia eta Portugalgo kasuetan bezala, Espainiako monarkiak XV-XVI. mendeetatik besarkatzen zuen eremu politiko-geografikoa eta bere mugak hartuta, XIX. mendeko estatu burgesaren helburua muga horien barrutian biltzen ziren herri eta talde guztiak bateratu eta denentzat berdina izango zen aginpide bakar baten pean jartzea izan zen. Klase politiko ia osoa —Berrezarkuntzan (1874-1923) gobernuan txandakatu ziren alderdi kontserbadore eta liberalak buru— bat zetorren asmo horrekin eta XIX. mendeko gertaerak espainiar nazioaren aurrerapena, gaztelaniaren hedapena eta gainerako hizkuntzen bazterketa elkartzen zituen ideologia edo mentalitatearen pean aritu ziren lagunek gidatuta burutu ziren. Espainiako pentsaera erreakzionario edo tradizionalista ere koordinada horietan kokatuko genuke, bere kezka nagusia ez baitzen garapen kapitalistari aurre egitea, industrializazioak berarekin zekartzan iraultzaren eta sekularizazioaren arriskuak saihestea baizik<sup>87</sup> (Botti 1992: 20). Ingurune honetan, Euskal Herrian berebiziko eragina izan zuen karlismoaren konplexutasuna, kronologikoa ere bai, I. eta II. gerra karlistetan<sup>88</sup> aldarrikatu egitasmoak ez baitira berdinak, azpimarratu behar da, Alfonso Bottik berak eta beste egile askok ere egin dutenez, eta nabarmentzen dugun aldearen arabera karlismoa Espainiako nazionalkatoli-

---

87. Europa mailan ere, korrante politiko erreakzionarioen esangura ez zen iragenera edo Errejimen Zaharrera itzuli nahi izatea, egoera berrian ideal progresistei aurre egingo zien alternatiba eratzea baizik: “Hacia 1815, por primera vez desde la época de las guerras religiosas, hubo un amplio acuerdo de principios entre los reaccionarios de todos los países. (...). Había cristalizado la alternativa moderna al ideal social progresista de la Ilustración. La autoridad tradicional sería respetada de un modo nuevo, lo mismo que los derechos históricos y consuetudinarios” (Roberts 1989: 73). XIX. mendearen erdialdean inork ez zuen jadanik Errejimen Zaharreko erakundeen alde egiten: “en 1851, ya no se creía que las corporaciones y los estamentos constituyeran una base aceptable para las instituciones políticas” (ibid.: 73).

88. Zeharo adierazgarria da Don Karlosen Morentingo Agiria (1874-7-16), non gizarte burgesaren hastapenak, hauteskundeak barne, ezagutzeaz gain, Errejimen Zaharraren erakundeak berrezartzeko asmoak zituela leporatzen ziotenen esanak gezurtatu zituen: “desmentir las calumnias que algunos propalan entre el sencillo vulgo, suponiendo que estoy dispuesto a restaurar tribunales e instituciones que no concuerdan con el carácter de las sociedades modernas” (Don Karlos 1874. In Garmendia 1976: 114)

zismoaren, euskal nazionalismoaren (Garmendia 1985) edo bien iturrietan aurki dezakegu.

Korrante guztiek Europara jotzen zuten erreferentzi puntuen bila nola edo hala. Liberal eta liberal-kontserbadoreentzat, Estatu espainolaren eraikuntzarako eredu, hizkuntz politika barne, Frantziakoa izan zen. Ilustrazioaren aurkako espainiar pentsamenduaren sustraiak, orobat, Frantzian daude (Botti 1992: 31) eta karlismoa “katolizismo europar garaikidearen beste adibide batzurekin paralelotasuna eta antzekotasuna gordetzen duen errealitatea” da<sup>89</sup> (Goñi 1987: 146). Berdin suertatu zen, sortu zirenean, mugimendu euskaltzale, foruzale eta abertzaleekin ere.

Nafarroako klase politikoetako kide gehienek ere —liberal-kontserbatzaileak argi eta garbi eta karlistak edota tradizionalistak ere bai, neurri handi batean— nazio espainolaren eraikuntzaren erreferentzia zuten ildo horietan kokatzen zuten euren burua, Nafarroan sustrai historiko sakonak zituzten joerak erakutsiz.

Esandako guztiaren zurrumbiloan aurkitzen dugu Nafarroako euskal hizkuntz komunitatea. Ez zuen, oro har, aipatutako joerei aurre egingo zien ideologiarik agertu, baina iraun, zati handi batean iraun egin zuen, ez bere eremu guztian, noski: Nafarroako Erdialdea eta ekialdeko ibarrak erdaldundu egin ziren-eta. Euskaldunen molde ideologikoa xeheago aztertuko badugu ere, halako osagaiak nabariak ziren: kontserbadurismoa, katolizismoa, gehiengo karlista, baina Bortzirietatik Erronkariraino liberalek ere eragin handia zuten (Pan-Montojo 1990: 57-8). Erreferentziako ingurune politiko nagusi bezala Nafarroa zuten eta Nafarroaren kokapena Espainian ikusten zuten. Hegoaldeko lau herrialdeen batasuna —“País Vasco-Navarro”— onarpen orokorreko zerbait zen, baina ez zitzairen ez nafartasunari eta ez espainoltasunari bereziki kontrajartzen. Euskal Herriaren aldarrikapen politikoaren zantzuak han-hemenka aurki daitezke hasieran. Gero, batez ere foruzaletasunaren eta euskal abertzaletasunaren eskutik, adierazpen politikoa emango zitzairen eta pixkanaka hedatuz joan zen, betiere eragin txikiarekin.

### 3.2 Herri hizkuntzen biziraupena: Frantzia XVIII. mendean (azterketa konparatiboa)

Orain arte iraun duten hizkuntz komunitate minorizatu gehienek euskararenak bezalatsuko baldintzetan iraun dute normalizazio prozesuei ekin arte: eguneroko bizimoduan oinarrituriko famili transmisioetik abiatuta. Zenbaitek —okzitaniera, katalana...— behinolako literatur

---

89. Zentzu berean, ikus Rujula (1994).

garapena izan dute, beste batzuek, aldiz, ez, baina funtsezkoena hizkuntza ofizialak ez izanik indarra familiaren, edo gertuko komunitatearen, bidezko jarraipenetik hartu dutela da. Arestian esan bezala, ez dut alde hau jorratu duen ikerketarik ezagutzen, ez eta, are gutxiago, iraupenaren azpian dagoen barne egituraketa, hizkuntz komunitatearena zein norbanakoena, erakusten saiatu denik ere. Dena dela, badago analogiaz zeharo argigarria den deskripzioa: Brunotek (1967, VII) XVIII. mendeko Frantziako hizkuntzen bilakaeraz egindakoa.

Eguneroko bizimoduan txertaturiko familiaren bidezko transmisioaren kontzeptua, sail honetako hizkuntzen bilakaera oso deskribaturik ez izan arren, ezaguna da literatura teorikoan. Bourdieuk, adibidez, “l’action pédagogique exercée par la famille” (Bourdieu eta Passeron 1970: 47) aipatzen du, familia eta eskolako lan pedagogikoak bereiziz. Sanchez Carrionen terminologian (1987) familiakoa *A* heziketa mota edo zirkuitoa dugu eta hezkuntza sistemakoa, berriz, *B* zirkuitoa. Fishmanen hitzetan, azkenik, horrelako kasuetan duguna “a firm family-neighborhood-community base” (1991: 374)<sup>90</sup> da. Egiazko lan pedagogiko baten aurrean gaude, bide nagusia praktikan duena, eta gizarteak deliberatuki bilatzen duen zeregina betetzen du, Bourdieuk erakutsi duenez: “Entre l’apprentissage par simple familiarisation dans lequel l’apprenti acquiert insensiblement et inconsciemment les principes de l’«art» et de l’art de vivre (...) et, à l’autre extrême, la transmission explicite et expresse par prescription et préceptes, toute société prévoit des formes d’inculcation qui, sous les apparences de la spontanéité, constituents autant d’exercices *structuraux* tendant à transmettre telle ou telle forme de maîtrise pratique” (Bourdieu 1972: 191).

### *Nekazari gizartea*

Lanean aztertzen ari garen epea XIX. mendearen bigarren aldia eta XX.aren lehenengo hamarkadak dira, esan bezala, eta euskal hizkuntz komunitatearen garai hartako bilakaera argitzeko Frantziako XVIII. mendeko argibidea dakart. Bide kontraesankorra eman lezake, baina ez da horrela. XIX. mendeko ezaugarri asko orduan hasi ziren eratzen eta, ikusiko denez, antz handia dute Frantziako XVIII. mendeko gizartearen hainbat alderdik eta XIX. mendeko Nafarroak. Orobat, Caro Barojak esan duenez, Nafarroako mendi aldeko eskualdeen bilakabidean funtsezko bereizgarri komunak dituen ziklo bat dago: Aro Berriaren hasieratik XX. mendearen erdi aldera arte dirauena: “en nuestro pequeño y humilde ámbito se abre un ciclo real a comienzos de la Edad Moderna y se cierra o se va cerrando de modo inexorable ante nuestros ojos” (Caro

90. Ikus, halaber, Fishman (1988b).

Baroja 1986: 351). Bestalde, badago zubiarena egiten duen kontzeptua: *nekazari gizartea* (Rocher 1990: 299-301), eta horretan oinarrituko naiz.

Trantsiziozko gizartea zen XIX. mendeko Nafarroakoa eta, nahiz eta Errejimen Zaharra puskatu eta gizarte kapitalistaren baldintza orokorrek gero eta eragin nabariagoa izan, nafar gizartearen bilakaera nekazari eta industri gizarteen ezaugarrien gurutzaketaren emaitza izan zen. Gurutzaketan, hala ere, nagusitasuna oraindik nekazari munduari zegokion eta Nafarroa, eremu euskalduna ere bai, jakina, nekazari gizartea<sup>91</sup> zen gehienbat: “interesa destacar dos cuestiones acerca de la economía y la población navarra de la época [XIX. mendea]. Una, su profunda vinculación con el mundo agrario. Otra, el carácter tradicional de la agricultura navarra” (Mikelarena 1994: 161). Nafarroak esandako nekazari ezaugarriak zituen, baina ez zen bakarra European eta, beste lurralde askotan, Euskal Herrikoetan ere bai, industrializazioa jadanik abiatuta egon arren, biztanleriaren zati nagusia baserritarra zen: “Incluso en los países más industrializados, habría que aguardar hasta fines de siglo para que la balanza [nekazari guneetako biztanleria/hiriguneetako] se inclinara a favor de las ciudades” (Bedarida 1989: 156). Nekazari gizarteak, XIX. mendean ezezik, egungo munduan ere, industri gizartean txertatuta, pisu handia du:

(...) los dos tipos de sociedad pueden coexistir en el seno de una misma sociedad global concreta. En efecto, puede afirmarse que, si bien hay sociedades que son exclusivamente tradicionales, no hay ninguna, sin embargo, que sea íntegramente una sociedad tecnológica. En todas las sociedades modernas, incluso en las más industrializadas, Canadá, Estados Unidos, Gran Bretaña, Francia, URSS o Japón, unas formas de sociedad tradicional —en el campo y, para el caso de América del Norte, entre las tribus indias— cohabitan con la civilización tecnológica.

(Rocher 1990: 298)

Behin toki askotan industri gizartearekin batera nekazari gizarteak ere bizirik dirauela, are gehiago XIX. mendean, eta horrek XVIII. mendeko Frantziari buruzko azterketa analogiaz erabiltzea baimentzen digula erakutsi eta gero, aztertzen ari garen bilakaera hobeki ulertzen lagunduko digutelakoan, nekazari gizartearen ezaugarriak aurkeztuko ditut.

Gizarte tradizionala/industri gizartea ohiko sailkapeneko gizarte tradizionalaren izenpean oso egoera mota desberdinak jasotzen direnez, ez da harritzekoa “que los historiadores de la Europa preindustrial hayan visto que el modelo [gizarte tradizionala/gizarte moderno] no es ade-

---

91. Nekazari izaeraren nagusitasuna ez da berria, Nafarroako konstante historikoa baizik, Jose Maria Lacarrak, esate baterako, azaldu duenez: “siempre pesó más en Navarra el elemento rural que el urbano” (Lacarra 1963: 232).

cuado para las sociedades que estudian”, esan du Peter Burkek (1987: 106). Irtenbide moduan, motz gelditu nahi ez badugu, gizarte tradizionalean azpisailkapen bat egitea proposatu du Guy Rocherrek: *gizarte arkaikoa* eta *nekazari gizartea*. Nekazari gizartea, ikuspuntu honetatik, gizarte arkaikoaren eta industri gizartearen arteko urratsa litzateke: “la sociedad campesina puede ser considerada como un tipo social intermedio entre la sociedad arcaica y la sociedad moderna” (Rocher 1990: 302). Gizarte arkaikoaren ezaugarriak, laburbilduz, hauek dira: bizirau-pena ehizan eta arrantzan oinarritzea, animalien domestikazioa eta nekazaritza apenas ezagutzea eta isolamendua (ibid.: 299-300). Oso bestelakoak ditugu, aldiz, nekazari gizartearen ezaugarriak. Lurlangintza eta abeltzaintzan oinarritzen da, lurren jabegoa araututa dago, baditu garapen teknikoak eta, oro har, “zibilizazio” zabal baten barruan kokatuta eta zibilizazioarekiko harremanetan bizi da, ez dago isolaturik. Hiria eza gutzen du eta bere eraginpean bizi da:

La sociedad campesina, en cambio, conoce la ciudad, o sabe al menos de su existencia. Puede incluso mantener con el medio urbano relaciones frecuentes: la ciudad es el mercado para los excedentes de su producción agrícola; es el lugar de atracción de los jóvenes que abandonan el campo; puede ser también el lugar de residencia del gran propietario de las tierras o de la persona que otorga los créditos a los campesinos; la ciudad es asimismo la sede principal del gobierno, etc. La sociedad campesina sufre pues, en grados diversos según los casos, la influencia de la ciudad, de sus modas, de sus ideas, de sus invenciones, de sus leyes, de su gobierno, de sus guerras, de sus ciclos económicos, etc.

(ibid.: 300)

Hiriarekiko ukipenak ez du ezinbestean nekazari gizartearen pusketaketa ekartzen, beronek, askoz ere hauskorragoa den gizarte arkaikoak ez bezala, hiriaren aldamenen bizi, kanpoko eraginak asimilatu eta bereari eusteko ahalmena aspaldian garatu baitu:

La sociedad campesina, por su parte, posee un largo hábito de coexistencia con la ciudad, ha desarrollado a su respecto mecanismos de defensa y protección, y ha aprendido desde mucho tiempo atrás a asimilar a su modo y a su propio ritmo lo que le aporta la sociedad urbana.

(ibid.: 300)

Guy Rocherren azalpen hauek guztiz bat datoz, irakurlea honezkero ohartuko zenez, Nafarroako eremu euskaldunaren ezaugarriekin eta euskararen iraupenaren baldintza sozialekin, herri askok euskaldun izaten jarraitu izana, nekazari gizarteak bere buruaren babeserako eta egokitza-penerako garatu dituen mekanismoen argitara azter daiteke-eta.

Rocherren azalpenak bat datoz, halaber, Berako bizimoduaren azterketatik Caro Barojak ateratako ondorio teorikoekin:

(...) poco a poco, he ido sacando una sustancia teórica. Esta se resume, de modo claro, a mi juicio, en una negación total de las premisas, admitidas incluso por algunos filósofos, acerca de la ahistoricidad de la vida del hombre del campo, de la inmovilidad y aislamiento de las pequeñas comunidades o sociedades rurales, de su carácter "iletrado", etc. Por otra parte, en la necesidad de describir sus caracteres en el tiempo y en el espacio, como se hace con cualquier otro tipo de sociedades urbanas, grandes y famosas.  
(Caro Baroja 1986: 350)

Era berean, beste artikulu batean:

No se puede creer ya —en efecto— que en el campo y sobre el campo no actúan los grandes hechos históricos, que preocupaban de modo primordial a los historiadores antiguos, tales como batallas y conflictos internacionales; actúan éstos y, además los grandes cambios técnicos y culturales en estilos artísticos, modas, modos de trabajar, utilización de materias primas, etc. El campo cambia. Tendrá, pues, su Historia propia, grande o pequeña, pero Historia al fin. Ciudadanos y aldeanos, pobres y ricos, cultos o incultos, aquí, en Europa al menos, todos estamos dominados por el devenir histórico, tengamos o no conciencia de él.  
(Caro Baroja 1995: 837-8)

Parekotasuna borobiltzeko, nekazari gizartearen kidea aipatu beharra dago: *industriaurreko hiria*, eta berriro ere Nafarroa eta bere hiriburua, Iruñea, datozkigu gogora. Industriaurreko hiria, nekazari gizartea bezala, antolakuntza mota jakin bat da, baina bere baitan hiri berria aurreirudikaturik dagoela esan daiteke: "la ciudad preindustrial es ya un «medio técnico» que prefigura la ciudad moderna. Esta última, por lo demás, encontraría en la primera el medio favorable a su desarrollo" (Rocher 1990: 304).

Laburbilduz, Frantziako XVIII. mendeko herri hizkuntzen bilakaeraren azterketak argia emango digu Nafarroako XIX. eta XX. mendeetako hizkuntz portaren arauak ezagutzeko. Konparazioa ahalbidetzen digun kontzeptua nekazari gizartearena da.

#### *Frantziako XVIII. mendeko herri hizkuntzak*

Gai honen azalpenean Ferdinand Brunoten *Histoire de la langue française des origines à nos jours* VII. *La propagation du français en France jusqu'à la fin de l'Ancien Régime* (Brunot 1967, VII) liburuaz baliatu naiz, esan bezala, bere oparotasunean, ikerlanarena ezezik, iturriaren zeregina ere betetzen baitu.

Eleaniztasuna nagusi zen Frantzian XVIII. mendean zehar. Luis XIV.a hil zenean, 1715. urtean, frantsesa Erregearen, Estatuaren eta gizarte-maila gorenetakoa hizkuntza zen eta, alde horretatik, Frantzia osoko hizkuntza zela eman zezakeen. Baina ez zen horrela gertatzen eta Parisen inguruetatik urruntzen hasiz gero jende gehienak frantsesaz beste

hizkuntzetan mintzatzen ziren: “sitôt qu’on s’ éloignait de la région de France où il [frantsesa] s’était formé, le peuple des campagnes et même des petites villes l’ignorait ou l’entendait tout au plus, sans le parler” (Brunot 1967, VII: 1). Marseillan, adibidez, itzultzailea behar izan omen zuen Racinek (ibid.: 1). Mende amaieran, Iraultza Frantsesa hasi zenean, gauzak ez ziren sobera aldatu: “L’Ancien Régime finit avant que le français fût maître incontesté de tout le territoire, avant même qu’il eût été établi officiellement dans son rôle de langue souveraine”<sup>92</sup> (ibid.: 1).

Frantsesa apurka-apurka hedatuz zihoan, baina ez nagusiki monarkiaren inongo hizkuntz politikaren bultzadaz. Alderantziz, Brunoten iritziz, Errejimen Zaharreko monarkiarekiko atxikimendua ez zetzanez hizkuntz batasunean, monarkiak ez zuen geroko nazio-estatuak —estatuko hizkuntz politika 1789ko Iraultzak asmatuko zuen— adina grina berdintzaile agertu —baina Villers-Cotteretsko ordenantza 1539koa zen, Brunotek baieztapenei ñabardura gehituz, nahiz eta ordenantza hori formalki latinaren aurka egina izan (Calvet 1981: 161)— eta gauzak, frantsesaren hedapena barne, indar eta egoera sozialen “berezko” eraginaz gertatu omen ziren: “Il en résulte que les choses, faute d’être dirigées, allèrent librement leur train, plus vite ici, plus lentement là, au hasard des poussées et des résistances” (Brunot 1967, VII: 2). XVIII. mendeko hizkuntz bilakaeran kontuan hartzeko indar edo faktoreak, baina, ez ziren nolana hikoak eta, estatuaren hizkuntz politika eta irakaskuntza izan ezik —eskolaketa maila oso baxua zen—, gaur egun aztertuko genituzkeen berberak ditugu, ikusiko denez.

Lau hitzetan esanda, Brunotek erakutsitako egoera hau zen: herri hizkuntzak mintzatuak ziren batik bat eta beren indarra eguneroko bizimoduan errotzen zen. Haien literatura, literatura zuten kasuetan, guztiz beheratuta zegoen eta arreta eskaintzen zitzaientean ikergai gisa izaten zen gehienbat. Frantsesak, aldiz, literatura handia garatua zuen orduko eta ia Frantzia osoan, idazten zenean, frantsesez egiten zen. Administrazio hizkuntza, maila apalenetan ere, frantsesa zen eta frantsesez ez zekiten lagunek oztopo handiak aurkitzen zituzten. Errepideen sarea XVIII. mendean berriro eta zabaldu zen. Horrek harremanen ugalketa orokorra, posta zerbitzuen garapena eta prentsa idatziaren hedapena, besteak beste, ekarri zituen, frantsesaren aldeko ukaezinezko hizkuntz ondorioekin. Frantsesaren hedapena, hala ere, geldo samarra zihoran eta ez zuen gainerako hizkuntzen galera ekarri, nolabaiteko elebitasun egonkor diglosikoa baizik: jendea herriko hizkuntzan bizi zen eta frantsesa egoera berezietarako ikasten zuen, ahal zuen neurrian, noski.

92. Brunotek frantsesa eta gainerako hizkuntzen tratamenduan darabilen hizkera —“le français maître incontestable” *vs* “patois”, adibidez— dagoeneko aztertua duguenez (ikus 2.2.2 atala), ez dago arreta berriro hartara zuzendu beharrik.



*Herri hizkuntzen indarra eta beraiekiko atxikimendua*

Herri hizkuntzei indarra, esan bezala, eguneroko bizimoduko hizkuntza, bere esanahirik sakonenean, izateak ematen zien eta, oro har, beren iraupena horregatik azaltzen da: “Ainsi s’explique sa survie et sa résistance en partie victorieuse aux forces si nombreuses dont nous allons étudier l’action. Le patois était la voix du village, le verbe qui incarnait son âme” (ibid.: 33).

Jendeen ama hizkuntza ziren eta horrek, ohikotasunarekin batera, berebiziko indar psikologikoa eskaintzen zien herri hizkuntzei: “le patois avait pour lui la force psychologique la plus redoutable de toutes, celle que la raison, l’intérêt même ne parviennent que difficilement à vaincre: l’habitude. Il était la langue que l’enfant apprend sans peine, sans s’en douter, de sa mère, celle dans laquelle se fixent pour toute la vie les souvenirs des premières années” (ibid.: 30-1).

Herritarren bizitzaren alderdi gehienak herri hizkuntzez betetzen ziren —“le patois était chez lui partout où l’on causait au village, sur la place, à la fontaine, au cabaret” (ibid.: 32)— eta, herriko bizimoduak sortuak izanik, herritarrek euren beharizanei guztiz egokituta zituzten: “C’étaient des produits spontanés, produits de la vie et produits de l’esprit des villageois. Ce qu’ils avaient assimilé d’étranger ne leur ayant pas été imposé, correspondait aussi à leurs besoins” (ibid.: 31).

Herriko antolakuntzaren erdigunea *batzarreak* ziren, 1787ko ekainaren 25eko arautegiak Frantzia osoan ordezkarien bidezko funtzionamendua ezarri artea<sup>93</sup> (ibid.: 183). Batzarreek Euskal Herrian ezagutzen direnen antz handia bide zuten eta herriko arazoei buruzko erabakiak bertan eztabaidatzen eta hartzen ziren, herriko hizkuntzaz, horrela hizkuntza, eguneroko bizimodua eta herriko antolakuntza elkar lotuz:

Les habitants, réunis sur la place, à l’Église, dans une halle, un préau, décidaient les ventes, les achats, les échanges, les locations des biens communaux, la réparation des églises, des presbytères, des édifices publics, des chemins, des ponts; outre leurs syndics, ils nommaient leur maître d’école, leur pâtre, leur sergent, leur messier (...). Ces assemblées étaient diversement composées, les unes excluaient les femmes ou même les célibataires; les autres comprenaient l’universalité des indigènes. En tous cas c’était vraiment une réunion générale. (...). Il est fort possible que le patois jouât un

---

93. Batzarrei indarra kendu eta ordezkarien bidezko antolakuntza lehenagotik bide zetorren (Brunot 1967, VII: 183) eta Nafarroako bilakaera berdintsua dugu. Kontzeju irekien ordezkariak Hogeinako Juntak (=“Juntas de Veintena”) XVIII. mendean zehar joan ziren hedatzen, Baiterra eta Zentronikokoak, adibidez, 1724ko ekaineko Gortean onartu ziren eta Frantziako arautegiaren pareko Nafarroako 1794ko uztaileko Gortean XXVII. legea dugu, 100 bizilagunetik gorako herrietan kontzeju irekien ordezkariak Hogeinako Juntak ezarri zituen (Zabalza et al. 1994: 140-2).

grand rôle dans les discussions —ou les disputes— qui précédaient la décision.

(ibid.: 183-5)

Arazoak erabakiak paperera eramaterakoan sortzen ziren, administrazioan onartzen zen hizkuntza bakarra frantsesa baitzen, baina horretaz beranduago mintzatuko naiz.

Hiztunek behar zituzten alorretan, nekazaritza eta abeltzaintzari loturikoetan, batez ere, aberatsak ziren herri hizkuntzak eta hiztegi tekniko bereziez ondo hornituta zeuden (ibid.: 31-2). Barne adierazpenaren biderik egokiena ere hizkuntza haietan zuten: “S’il s’agissait de la vie morale et intellectuelle des individus, et non plus de leur travail, la convenance du patois à leur façon de sentir et de penser n’était pas moins grande. Chacun y trouvait sans peine l’expression adéquate à ses mouvements intérieurs” (ibid.: 32). Baita une alaietan ere: “Le patois, presque partout, était la langue de la gaieté” (ibid.: 33).

Guztiaren ondorioz, herritarren hizkuntzekiko *atxikimendua* —“l’attachement que ses fidèles lui [hizkuntzari] portent” (ibid.: 31)— eta maitasuna begi-bistakoak ziren Brunotentzat: “Pour cela nul doute qu’il [hizkuntza] ne fût chèrement aimé” (ibid.: 31). Herri hizkuntzekiko atxikimenduaz aurkitu ditudan lekukotasunen artean, adierazgarriena eta hungigarriena, agian, Iraultza Frantsesaren aurreneko urteetan Gregoire abadearen inkesta ezagunaren erantzule batek hizkuntza haiek deuseztatzea bilatzen zutenen aurrean emandako ihardespena genuke:

Pour le détruire (le patois), il faudrait détruire le soleil, la fraîcheur des nuits, le genre d’aliments, la qualité des eaux, l’homme tout entier.

(ibid.: 31)

Hizkuntza bere barren-barreneko bizipenekin, bere baliorik handieneko sinboloekin uztartuta, haietan sustraituta, sentitzen zuen Gregoiereren berriemaileak eta, gure gaiaren mamiari dagokionez, garrantzitsuena hizkuntzaren iraupenaren gako psikologikoa, hizkuntzaren gune sinbolikoa, Txepetxen hitzetan, adieraztera iritsi zela da. Barne muinetako bizipenak deuseztatzea eta hizkuntza deuseztatzea gauza bat eta bakarra ziren berarentzat.

Orobat, ugariak dira hizkuntzarekiko atxikimenduaren herriz herriko testigantzak. Horrela, euskaldunak, euskarari ezezik, euren herri izaera orokorrari ere eusten nabarmentzen ziren: “les Basques, très indépendants, tenaient à tout ce qui conservait la marque de leur originalité ethnique, à leur langage en particulier” (ibid.: 235). Biarnotarrek, beren aldetik, oraindik XVIII. mendearen bigarren aldean, frantsesa atzerritar hizkuntzat hartzen tematzen ziren: “Un siècle et demi après l’annexion [1620], les Béarnais s’entêtaient encore, poètes ou bourgeois, à refuser d’adopter la langue de France. Ils la savaient, mais ils voulaient

la considérer comme étrangère” (ibid.: 234). Amaitzeko, Probentza eta Languedoc-eko eskualdeei buruzko 1808ko lekukotasuna jasoko dut:

Le peuple de la Provence ou du Languedoc sait presque généralement le français; mais il se plaît à parler le provençal ou le languedocien: les enfants l'apprennent dès le berceau comme leur langue maternelle; ils le parlent avec tous ceux qui les entourent; et les hommes que les circonstances ont conduits dans des contrées éloignées, aiment à employer un idiome qui leur rappelle leurs premiers plaisirs et le lieu qui les a vus naître (...). Qu'un habitant du midi de la France en rencontre un autre à Paris, à Londres, à Petersbourg, à la Chine, aussitôt vous entendrez, *qu'es aqueou?* etc. vous les verrez se chercher, et se livrer au plaisir de parler la langue de leur pays.

(Millin 1808. *Magazin encyclopédique*. In Brunot 1967, IX-1: 524, 1. oin-oharra)

Lekukotasun hauek guztiek gauza bat dute komun: ama hizkuntza-  
ren eremuan kokatzen ziren. Bazekiten frantsesez, baina euren nortasu-  
na norberaren hizkuntzaz osatzen zuten. Ez zuten frantsesaren mundu  
kontzeptualaren erreferentzi puntuaren beharra sumatzen, ez eta, ondo-  
rrioz, hizkuntza aldatzearena ere.

#### *Ikertzaileen herri hizkuntzekiko itsutasuna*

Brunotek eskainitako azalpen eta testigantzen aldean, a zer hotzak gertatzen diren eta *zenbat ikerbide ixten duten* Ernest Gellner-en ondo-  
ko hitzek!: “Antiguamente no tenía sentido preguntarse si los campesinos amaban su cultura: era una cosa que estaba ahí, como el aire que respiraban, y ninguno de ellos tenía conciencia de ella” (Gellner 1988: 86-7). Ideia beraren adierazpen klasikoa Ralph Linton-ena da: “Lo último que descubriría un habitante de las profundidades del mar sería, tal vez, precisamente el agua. Sólo llegaría a tener conciencia de ésta si algún accidente lo llevara a la superficie y lo pusiera en contacto con la atmósfera. El hombre ha tenido durante casi toda su historia una conciencia muy vaga de la existencia de la cultura (...). La capacidad para ver la cultura de la propia sociedad (...) exige cierto grado de objetividad que rara vez se logra” (Linton 1965. *Cultura y Personalidad*. Mexiko. In Ninyoles 1975: 83-4). Lintonen hitzak ontzat emanetz, ildo beretik jo dute Toni Molla eta Amadeu Vianak: “la gent d'aquella societat tradicional ni tan sols és conscient de parlar *una* determinada llengua. L'exemple clàssic de Ralph Linton continua sent ben vàlid” (Molla eta Viana 1989: 27)<sup>94</sup>.

---

94. Gisa bereko baieztapenak ugariak dira hizkuntz arazoei buruzko literaturan. Rafael Ll. Ninyoles-en ustez, adibidez, duguna zera da: “identificación natural, «vegetal» diríamos, con la propia lengua” (Ninyoles 1975: 85). Topikoaren iturburuetako bat Hans Kohn-en hitz hauek ditugu: “Las masas apenas se daban cuenta, antes de la época del nacionalismo, de que se hablaba un mismo idioma en un gran territorio. De hecho no era siempre un mismo idioma, sino varios dialectos, uno al lado del otro, que

Zein hizkuntzaren hiztunak eduki dituzte gogoan Gellnerrek, Lintonek, Ninyolesek edo Molla eta Vianak? Ez, behintzat, ikerketa historikoak guri erakutsi dizkigunak. Are gehiago, autore horiek begi-bistan dena ez ikustera eraman dituen aurriritzi baten biktima direla esatera ausartuko nintzateke, herri hizkuntzen heriotzaren ikerkuntza-programa akritikoki onartu izanaren biktima, nonbait. Alegia, aldamenekoak beste hizkuntza batean mintzatzen direla, hala baldin bada, ikustea gizarte gehienek (guztiek ez esatearren) egin duten esperientzia da. Horren lekukotasunak ugariak dira eta nonahi aurki daitezke: Iparramerikako indioen artean (Grinnell 1990: 223-4), juduen, grekoen eta arabeen artean (Calvet 1987: 33-42), euskaldunen artean (euskaldun/erdaldun), Afrikako Dogon herrian (Calame-Griaule 1982), eta abar. Eta orokorkiago mintzatuz, ideia bera adierazi zuen Roman Jakobson hizkuntzalariak: *“Los hablantes comparan las lenguas. Al decir de los antropólogos, uno de los caracteres más significativos de la comunicación entre los hombres es que no hay pueblo, por primitivo que sea, que no pueda decir: «Aquella gente tiene una lengua distinta; la hablo o no la hablo; la oigo o no la oigo»”* (1985: 35). Bestalde, “gizarte tradizionalaren” kontzeptu zabalegia erabiltzearen arazoak inon nabarmen agertzen badira, Molla eta Vianaren hitzetan da, irakurlea honezkero ohartuko zenez.

### *Frantsesaren hedatze bideak*

Herri hizkuntzen alde idatziaren gainbehera Villers-Cotteretsko ordenantzak (1539), besteak beste, abiatu zuen eta handik mende batera agiri ofizialetatik desagertuak zeuden jadanik. Idazki pribatuak ere gero eta bakanagoak izan ziren eta horrela herri hizkuntzetako hiztunek euren hizkuntzen idatzizko erabileraren ohitura galdu zuten, alfabetatzea, gertatzen zenean, frantsesez baitzen (Brunot 1967, VII: 30, 2. oinoharra).

Zatiketa soziala ere egina zegoen orduko eta herri hizkuntzak laborari eta behe klasekoen hizkuntza ziren bitartean, handikiena eta gizartean goian egon nahi zuen ororena frantsesa zen. Sozialki igotzea eta frantsesaren mesedetan nork bere herri hizkuntza baztertzea sinonimo izatera heldu ziren, Brunoten hitzetan: *“Comment dès lors se déclasser en parlant comme les rustauds? La vanité poussait à sortir du patois comme d’une classe inférieure”* (ibid.: 30).

Hizkuntzen gizarte-banaketa literaturaraino iritsi zen, literatur ekoizpen gehiena, ez guztia, frantsesez izateaz gain (ibid.: 22), hierarkia fideltasun osoz islatzen duen jenero mota bat baitugu: idazlan elebidu-

---

a veces resultaban incomprensibles para los habitantes de una provincia vecina. El idioma hablado se aceptaba como un hecho natural” (Kohn 1949: 19).

nak. Haietan nagusiak frantsesaz mintzatzen dira eta morroiak edota behe klasekoak herri hizkuntzaz, ordea. Gabon kantetan, esate baterako:

(...) les personnages considérés, le Christ, les anges, parlent souvent français, les bergers patois. Dans un vieux Noël languedocien, quand les paysans veulent envoyer une délégation à l'Enfant Jésus, ils cherchent quelqu'un qui lui parle français:

Cal prendre Jean-François

Que sab parla frances.

Ce déclasserement en dit long. C'est la reconnaissance la plus éclatante de la supériorité du français.

(ibid.: 25)

Idatzi, frantsesez idazten zen batik bat, baina irakurketak, hala ere, zeregin txikia izan zuen herrietako frantsesaren hedapenean. Arrazoia erraza da: herrietan ez zen ia irakurtzen. Alde batetik, lagun gehienek irakurtzen ez zekitelako: "Les gens de campagne n'ont point le goût de la lecture, parce qu'à peine savent-ils lire" (ibid.: 51). Baina bazegoen arrazoi gehiago ere. Orduko lekukoek aipatzen zituzten liburuen artean erlijio liburuak eta almanakak ziren nagusi, baina nabarmenena liburuen falta dugu: "Seules quelques rares familles avaient un livre ou deux. L'immense majorité n'en possédait aucun. Et le curé n'en prêtait pas, faute d'en avoir lui-même" (ibid.: 49)<sup>95</sup>. Halaber, irakurketaren aurkako aurritziak oso zabalduak zeuden eta, oro har, irakurketaren jakinmina ez zen piztu oraindik (ibid.: 52).

Frantsesez faktore nagusia *eguneroko arazoek ezartzen zuten beharra* zen Brunoten iritiz, ez irakurketa edo irakaskuntza, frantsesez ez jakitea eragozpen gero eta handiagoa izaten ari zelako (ibid.: 183). Alde horretatik, arreta berezia eskaini behar zaie herritarrek euren interesen kudeaketan —eskaerak, prozesuak, ezkontzak, itunak, testamentuak, ekintza ekonomikoen bermea...— administrazioarekin izaten zituzten harremanei, administrazio aferei, alegia: "Aux termes des ordonnances, il [herritarra] ne pouvait ni faire son testament —ce qu'il ne fait guère— ni rédiger son contrat de mariage dans son patois, ni passer un acte de vente ou d'achat, ni contracter un prêt ou faire un bail" (ibid.: 184). Halako egoeraren aurrean, bi bide zituzten herritarrek: frantsesez zekiten lagunez baliatzea edo, epe ertainean onuragarriagoa zitzaiena, frantsesez ikasi, elebidun bihurtuz, eta euren interesen gestioan esku hartze

---

95. Bera herriko irakurketa maila ez bide zen oso desberdina 1934-1944 urteetan, Caro Barojak dioenez: "¿Qué lee el aldeano de Vera? Poco o nada, en realidad. En el caserío puede que se encuentre algún libro de misa o devocionario (...), también habrá algunos números de periódicos viejos, que no se leen, y, revolviendo mucho, tal vez se dé con un pliego de versos en vascuence, «berso berriak». Si hay chicos que van a la escuela, existirán también los libros que en la enseñanza primaria se usan. Nada más" (Caro Baroja 1986: 333-4).

zuzena edukitzea (ibid.: 186), eta gero eta gehiago izango ziren bigarre-na aukeratuko zutenak.

Hau da, batzarreak bertako hizkuntzaz egiten ziren, ikusi dugunez, baina erabakiek, indarrean sartuko baziren, idatzita egon behar zuten eta hor hizkuntza bakarra eta ezinbestekoa frantsesa zen: “Mais quand on en venait à la pièce écrite, les conditions changeaient, bon gré mal gré. Et c’est ici que l’ordonnance de Villers-Cotterets sortait son effet. Impossible de rédiger un acte, une requête, une écriture quelconque en patois; l’interdiction était absolue. Or tous les actes d’administration communale devaient, pour être valables, être soumis à l’intendant et revêtir une forme authentique” (ibid.: 185). Herri guztiek, beraz, frantsesez zekiten lagun multzo baten beharra izaten zuten —“une petite paroisse du Nivernais renfermait, en 1789, six procureurs et six notaires” (ibid.: 186)— herriko administrazioaren zereginak betetzeko. Lagun hauen eginkizuna pixkaka finkatuz joan zen eta gero eta gehiago ziren halako funtzionarioak egonkortasunez hartzen zituzten herriak. Haietako asko kanpotarrak ziren, bertako hizkuntza ez zuten menderatuko eta nahita zein oharkabean frantsesaren zabaltzailearena egingo zuten:

(...) les nécessités d’administrations multiples et compliquées obligeaient à avoir dans toutes les villes et les bougards un nombre important de fonctionnaires, pour lesquels l’usage du français était nécessaire au moins dans leurs écritures. Beaucoup, du reste, étrangers à la localité, ignoraient le parler local, et ne s’en servaient pas, même verbalement. C’était une sorte de garnison de langue française (...) dont la présence seule avait ses conséquences.

(ibid.: 186-7)

Frantziako XVIII. mendeko hizkuntz bilakaeran eragin handia izan zuen beste faktore bat *errepide sarearen eraberritzea* izan zen. Zabaltasuna, erosotasuna eta sendotasun teknikoa eman nahi izan zizkieten errepide berriei eta lanak 1775. urteko amaituta zeuden. Baina sarearen diseinuari dagokionez erdirakoitasuna nabarmendu beharra dago, zentralizazio tresna berri bat ziren errepideak, denen erdigunea Parisen ezarri zuten-eta, geroko burdinbide sarearekin egingo zen bezala (ibid.: 211).

Errepideen eraberritzeak ukaezinezko ondorioak ekarri zituen epe erdira, bai herrietako bizimoduan, bai hizkuntz bilakaeran: “Leurs avantages économiques et politiques devinrent bientôt sensibles. Leur influence sur le langage a été moins rapide, moins directe: elle n’en est pas moins très grande” (ibid.: 228). Sare berriak berehala garraibideen —gurdiak, dilijentziak...— hobekuntza eta garapena, bidaien areagotzea eta, ondorioz, jendeen arteko harremanen ugaltzea ekarri zituen. Hirietako eta herrietako bizilagunak, adibidez, askoz gehiagotan elkartuko ziren, baina, oro har, merkataritza harremanen —azokak, herriz

herriko saltzaileak, hiriguneetako erosketak... — biderkatzea nabarmendu behar da bereziki (ibid.: 225). Zein hizkuntzatan egiten ziren negozioak? Ezinezkoa da erantzun zehatza ematea, faktore anitzen arabera baita: herri jakin batera, adibidez, nondik zetozen gurdi eta zaldi-kotxeak? Zenbat lagun zeramatzen barruan? Zein zen haien hizkuntza? Idatzita gelditu zen guztiak frantsesa erakusten du, baina mintzatua, ordea, oso bestelakoa izango zen: “si on pense aux millions de paroles envolées pour toujours, qui furent dites, à raison peut-être de cent mille pour une lettre qui s’écrivait, la réserve s’impose” (ibid.: 225). Kanpotik etorritako saltzaileekiko harremanetan, nola hitz egiten zuten? Denetatik izango zen: “On «fait l’article» pour vendre, non pour enseigner. Qui n’a entendu, il y a seulement trente ou quarante ans, les marchands de petite ville, barboter le patois d’un peu de français, et froter le français d’un peu de patois?” (ibid.: 226). Eragin orokorra, hala ere, ukazina zen: “En augmentant les relations entre les villes et la campagne, il n’est pas contestable que le développement du commerce sur route a assuré à la langue centrale des chances nouvelles de se répandre” (ibid.: 227).

Errepideen zabaltzeak beste ondorio bat ere ekarri zuen: posta zerbitzuen garapena eta, horrekin batera, liburuen eta prentsaren hedapena. Oroitzen bagara, herrietan ez zen irakurtzen, besteak beste, etxeetan zer irakurririk ez zegoelako. Arazoa posta zerbitzuaren hedapenak konpondu zuen eta handik aurrera kontaezinak izango ziren Frantzia osoan barrena egunero ibiliko ziren liburu, aldizkari, egunkari eta mota guztietako idazkiak, ia guztiak frantsesez eginak, noski. Inprenta asmatu zenez geroztik, “on n’avait créé aucune machine de diffusion comparable à la poste aux lettres qui désormais emportait presque tous les jours des périodiques à travers tout le pays. Un quotidien qui, cinquante ans plus tôt, aurait été un non-sens, était possible en 1776. Il se créa. Avec lui, et avec les autres publications, c’était un flot d’écrits français que les «magasins» emportaient sur tout le pays” (ibid.: 231).

### *Elebitasuna*

XVIII. mendeko gizarte-aldaketek frantsesaren alde eragin zuten, aztertu dugunez, baina ez zuten gainerako hizkuntzen desagerpena ekarri. Frantziako biztanle kopuru handi batek 1789.ean nor bere ama hizkuntza baizik ez zuela ezagutzen alde batera utzita — Ipar Euskal Herria, esaterako, ia euskaldun hutsa zen (ibid.: 237)—, frantsesez ikasten zutenek ez zuten euren hizkuntza baztertzeko eta, orokorki, elebitasun egoerara iristen zen: “En général, le français ne remplaçait pas la langue indigène dans l’usage quotidien. Les deux langages se juxtaposaient. On savait tant bien que mal le français, on usait du patois” (ibid.: 319). Jendeen lehen hizkuntza — ama-hizkuntza eta norberaren adierazpide nagusia — herrikoa zen eta frantsesa, aitzitik, baita gizarte goi-mailetan

ere, bigarren hizkuntza besterik ez zen, ikasitako hizkuntza gehigarria, alegia, Boissier de Sauvages hiztegieak bere *Dictionnaire languedocien-français*-aren sarreran (Nîmes, 1755) zioen: “[le languedocien] est (...) encore la langue du peuple et même celui des honnêtes gens élevés dans cette Province; c’est le premier qui se présente, et qu’ils (les honnêtes gens) emploient plus volontiers (...); le François (...) devient pour la plupart une langue étrangère, et pour ainsi dire de cérémonie: (...) nous pensons en languedocien avant de nous exprimer en français” (Boissier de Sauvages 1755. In Brunot 1967, VII: 319-20).

Elebitasunean, dena dela, mailak daude eta XVIII. mendeko elebitasuna eta XX. mendearen lehen hamarkadetakoa —Brunoten historiaren jatorrizko argitalpena 1905-1937 bitartekoa da— desberdinak ziren:

Il faut donc entendre le mot «bilinguisme» un peu autrement que de nos jours. A l’heure actuelle [1905-1937] le français est la langue des villes, le patois la langue des campagnes, la plupart des individus de la campagne sachant du reste la langue qu’ils n’emploient pas couramment. Au XVIIIe siècle, il ne paraît pas en avoir été ainsi; le français s’est introduit, il s’écrit seul, il se parle même à l’occasion, dans les villes comme dans les villages, presque nulle part les populations ne s’en servent d’ordinaire.

(ibid.: 320)

Nafarroako herri euskaldunetako egoera oso aldakorra izan denez, denboran nahiz espazioan, Brunoten bi elebitasun motak aurki zitezkeen aldi berean eta konparaketa egiterakoan biak komeni zaigu gogoan gordetzea.

### *Laburpena eta ondorioak*

Eguneroko bizimoduan txertaturiko familia eta gertuko komunitatearen bidezko hizkuntz jarraipenaren ohiko ereduaren ezaugarriak argitzen laguntzen digun azterketa ekarri dut. Hizkuntzaren jarraipen mota honek egituraketa sozial jakin bat du azpian eta gizarteak urteetan zehar antolatu dituen arau eta bitartekoen arabera egiten da.

Azalpenean erabili den kontzeptu nagusia nekazari gizartearena (Rocher) da. Nekazari gizarteak gizarte arkaikoaren eta industri gizartearen artean kokatzen den antolaketa mota da eta bere ezaugarri nagusietako bat, zibilizazio zabal batean integratuta, hiria ezagutu eta harekiko harremanetan egotea da. Alegia, nekazari gizarteak ez da, maiz esan den bezala, mundutik isolatua bizi den zerbait. Kontzeptu honek, bestalde, gizarte tradizionalaren ideia nahasgarriaren neurritz kanpoko erabileraren arazoak saihesten ditu (Caro Baroja).

Nekazari gizarteko hizkuntz bilakaeraren ereduak bikain erakutsi dizkigu Brunotek Frantziako XVIII. mendeari buruz egin zuen ikerketan. Nekazari gizarteak, industri gizartearen txertatuta, oraindik bizirik



dirauen sistema den era berean, bere hizkuntz ereduak ere ez ziren Errejimen Zaharraren krisialdian ahitu. Aitzitik, XIX. eta XX. mendeetan jarraitu dute eragiten eta haien deskribapena zeharo argigarria zaigu Nafarroako euskararen historia ulertzeko.

Azaldutako hizkuntz egoerak honako ezaugarri hauek ditu: herri hizkuntzak etnolinguistikazko bizitasun handikoak ziren; beren hiztunen lehen hizkuntza izateaz gain, haien eguneroko bizimoduaren eta adierazpen beharren alde gehienak asebetetzen zituzten; gizarte-antolaketa-aren erdian herritarren batzarrea zegoen eta hor ere herriko hizkuntzak ziren nagusi. Oso sustraituak zeuden, beraz, eta honek, lekukotasunek erakutsi dutenez, hizkuntzenganako egiazko atxikimendua sortarazten zuen.

Herriak, nekazari gizartea, oro har, ez zeuden kanpoko munduari itxita eta irekitasun horretatik zetozkien herri hizkuntzei mugak eta eragozpenak. Estatuak onartzen zuen administrazio hizkuntza bakarra frantsesa zen eta, ondorioz, batzarreko hizkuntza edozein zelarik ere, hartutako erabakiak frantsesetik idatzi behar ziren. Herri guztiek, beraz, halako idazkari edo notario frantsesdunak eduki behar zituzten eta herritarrek ere, beraiei zegozkien xedapenak ulertuko bazituzten, frantsesarekiko harremanetan, zeharka nahiz zuzenki, jarri behar zuten. Irakurketak ez zuen zeregin handirik orduko gizartean, irakaskuntzak ere ez, baina herri hizkuntzak ia guztiz baztertuta zeuden idatziaren mundutik eta aurki zitezkeen irakurgai bakanak frantsesetik zeuden, honek prestigio mailan zituen ondoriekin.

Herriek truke eta salerosketa harremanak zituzten beste herri eta hiriguneekin eta 1775. urtean burutu zen errepedeen sarearen berrikuntzak, diseinu erdirakoia zela-medio Parisekiko lotura areagotzeaz gain, bidaiak eta toki desberdinetako jendeen arteko harremanak erraztu eta ugartu egin zituen. Posta zerbitzuen eta liburu eta aldizkari edo egunkarien banaketaren bultzada ere errepede berriei esker gertatu zen. Epe erdira, oro har, jendeak eta salgaiak ezezik, frantsesa ere zabaldu zutela, ez dago dudarik.

Horrela, herriko hizkuntzen bizitasun etnolinguistikoa, alde batetik, eta estatuko hizkuntza, bestetik, elkartzuz, nekazari gizartean elebitasun eredu diglosiko sasiegonkor bat —lehen hizkuntza *vs* ikasitako frantsesa, non bakoitzak zeregin zehatzak zituen— eratu zela esan genezake. 1789ko Iraultzak eta XIX. mendeak haustura handia eragingo zuten egoera hartan, baina, hala eta guztiz ere, oraindik XX. mendearen lehen-dabiziko hamarkadetan, hingatuta, baina bizirik zirauen. XX. mendeko bilakaeraren kontuetan sartu gabe, garbi dago herri hizkuntzek beraiek baino indartsuagoa zen estatu- eta kultura-hizkuntza bati aurre egiteko adina indar izan zutela, eta indarra beren etnolinguistikazko bizitasunak eman ziela. Hauxe zen, hain zuzen ere, Nafarroako bilakaera konpara-

zioz hobeki ulertzearren, Frantziako herri hizkuntzen bilakabidea aurkeztuz erakutsi nahi nuen ideia.

### 3.3 Erdal eta euskal kulturen arteko ukipena: indoeuroparren ideologiaren hastapenak

Euskaldunen eta erdaldunen arteko ukipenaren oinarrian bi kultura egon direla, euskal kultura eta erdal kultura, eta euskal kulturaren jatorrizko bakantasunaren aldean erdal kultura, linguistikoki ezezik kulturalki ere, indoeuroparren munduan kokatzen dela onartuta, ukipenaren sakoneko joerak ulertzeko bide emankorra kultura bakoitzak sustraian dituen ikuspegi edo ideologiak eta jarduera ereduak ezagutu eta alderatzea da, horretarako oinarri zientifikoak izanez gero. Eta oinarri zientifikoak, egon, badaude, ideologia indoeuroparrerako bederen, arestian esan eta hurrengo paragrafoetan erakutsiko den bezala.

Euskal kulturaren jatorrizko hastapen ideologikoak, ordea, orain dela bi mila urtetik hona, bederen, aldameneko kulturekiko ukipen sakonean egon denez, ez dira hain gardenak, beren ezagutza eta interpretaziorako bideak irekita egon arren. Euskal kultura eta mitologiaren jatorrizko ondarea eta bere esanahia Barandiaranek erakutsi zituen. Caro Barojak ere bai, beste modu batez. Hauek bildu materialeen gaineko interpretazioa Andres Ortiz Osés (Ortiz Osés eta Meyr 1981; Ortiz Osés 1993 eta 1996) —antzinako euskal kulturaren egitura psiko-soziala— eta Juan Ignazio Hartsuaga (1987) —euskal mitologiari darion ideologia konparatua—, besteak beste, saiatu dira ematen, betiere euskal eta indoeuropar mentalitateak alderatuz: “hemos defendido y defendemos que, frente a las mentalidades indoeuropeas y greco-cristiana, la concepción vasca del mundo es *pre-indoeuropea*” (Ortiz Osés 1993: 149). Era berean, maila estetiko eta mitikoan, Oteizaren gogoeta pizgarriak ditugu (1984, 1994 eta 1995, adibidez). Denek azterketa iradokitzaileak egin dituzte, eta, alde horretatik, bidezkoa dirudi beraiez baliatzea euskal kulturaren hastapen ideologikoak jorratzeko. Baina, aldi berean, ikerbide zail eta labaina da —eta nire lanaren haritik urrun samarra—; horregatik, jorratu gabe utzi eta azalpena irakaspen argigarritz beterik dagoen indoeuroparren ideologiaren azterketara mugatu dut.

Erdal kulturak gizarteaz eratu dituen ideologiaren eta, ondorioz, jendei proposatzen zaizkien jardueren sakoneko azalpena, Georges Dumezil historialari, hizkuntzalari eta mitologo frantziarrak zibilizazio indoeuroparrari<sup>96</sup> buruz egindako ikerketetan —“una de las empresa históricas más

96. Bere lana “zibilizazio indoeuroparraren” azterketa zela azpimarratu zuen Dumezilek eta ez, hasieran deitzen zion bezala, “mitologia konparatua” edo “herri indoeuroparren erlijioen ikerketa konparatiboa” (Dumezil 1977: 14-5).

importantes del siglo XX” (Le Goff et al. [zuz.] 1988: 156)<sup>97</sup>— aurkitzen dugu. Indoeuopar jatorriko taldeek historian zehar beste herriekiko —erdal kulturak euskaldunekiko erakutsitakoak, esate baterako— behin eta berriro errepikatu dituzten portaerak eta esplikazio ideologikoez iturri komuna dutela eta eredu kanoniko moduko baten arabera taxututa daudela esan zuen Dumezil<sup>98</sup>.

Zer den bere burua indoeuoparizat jotzea askok jakin dute eta, adibidez, harro-harro mintzatu zen horretaz J. Vendryes hizkuntzalaria Antoine Meillet eta Marcel Cohenek zuzenduriko *Les langues du monde* liburuan:

La famille indo-européenne est celle à laquelle étaient réservées dans l’histoire les destinées les plus hautes. Elle a créé les formes linguistiques qui ont servi aux littératures les plus belles et les plus riches; elle a aidé à se répandre les civilisations qui ont conquis le monde. (...). Ce succès prodigieux, si on le compare au sort de tant d’autres langues, qui ont végété sans éclat dans des territoires resserrés ou même ont été étouffées par des langues plus vivaces, s’explique par des causes historiques au nombre desquelles il faut compter le génie propre des Indo-européens, le caractère de leurs institutions, le prestige de leur civilisation. Partout où ils se sont étendus, les Indo-européens représentent une aristocratie conquérante, dominant des peuples vaincus et leur imposant avec son autorité l’usage de sa langue.

(Vendryes 1924: 19)

Laburbilduz, bi atal nabarmentzen dira indoeuoparren ikuskeran: *hiru funtzioen ideologia* eta *gizartearen sorrera eta osaketari buruzko teoria*. Hiru funtzioen ideologiak funtsean gizarteak hiru osagai, hiru funtzio dituela dio: (1) subiranotasunaren funtzioa —erlijioa gehi botere politikoa—, (2) funtzio militarra eta (3) emankortasunaren funtzioa —ugaritasuna; aberastasuna; plebea, patrizioei oposatzen zaien kontzeptu bezala; emakumeak; kanpoko herriak; elikadura; bakea; plazerra...—. Hiru

---

97. Era berean, Enrico Campanilek (1995: 32) indoeuoparren ideologiaren aurkikuntza eta zehaztapena Dumezilen zor zaiola dio: “el descubrimiento y la definición de la ideología indoeuropea se debe a un gran estudioso francés, G. Dumézil, que ha dedicado a esta problemática su larga actividad científica”. Ikus, halaber, Mircea Eliaderen Dumezilen ikerketen goraiapamena (Eliade 1984: 116, 30. oin-oharra). Eztabaidatua ere izan da Dumezil. Esate baterako, Colin Renfrew-ek (1990: 202-10), begirune handiz eta ikuspuntu arkeologiko-historikotik argudiatuta, hiru funtzio hierarkizatuen ideologiak estatua zuten herrientzat balio duela uste du, baina ez oraindik estaturik garatu ez zuten hasierako indoeuoparrentzat. Beste kritika bat: Francisco Villar (1991).

98. Erdal kulturak euskal kulturarekiko ukipenean erakutsi dituen joeren azalpena emateko bide bat baino gehiago izan daitezke. Oso emankorrak dira, adibidez, Claude Lévi Strauss-ek (1993) nahiz Mircea Eliade-k (1982) Mendebaldeko zibilizazioak gainerako kulturekiko erakutsitako jarrerak eta erdietsitako nagusitasuna ulertzeko asmoz egindako azterketak. Haien ekarpen aberatsak baztertu gabe, oraindik sako-nago eta iradokitzaileago delakoan Dumezilen bidea hautatu dut, esan bezala.

funtzioak hierarkizaturik daude, hots, nagusitasuna lehen funtzioari dagokio, berarekin elkartuta bigarren funtzioa dago, funtzio militarra, eta, azkenik, hirugarren funtzioa dugu, bere zeregina beste bien mende eta zerbitzuan egotea izanik. Gizarte osatua bizitza garatzeko behar diren osagai guztiak dituen delarik, bere eraikuntzari buruz hiru funtzioen ideologiari loturiko ikuspegia erakutsi dute indoeuroparrek. Horrela, gizarte osoa bere baitan hiru funtzioak biltzen dituen da eta bere osaketa, bere eraikuntza, konkista edo indarraren bidez lortu ohi da: lehenengo eta bigarren funtzioetakoek hirugarreneko kideak garaitu, nagusien bikaintasuna onartarazi eta elkarrekin bizitzera, elkarrekin gizarte bat egitera, behartzen dituztenean.

### *Zurien ametsa*

Zurien oldartze eta menderatzea, indoeuroparren oldartzea, hots, pairatu zuen Iparramerikako Seattle Buruzagi Nagusiak, bere herriaren egoera berria ulertu nahian, galdera hau egin zuen 1855. urtean:

Dios os concedió el dominio sobre los animales, los bosques y los Pielas Rojas por un determinado motivo. Y este motivo es un enigma para nosotros. Quizá podríamos comprenderlo si supiésemos qué es lo que sueña el hombre blanco, qué ideales les ofrece a los hijos en las largas noches invernales, y qué visiones arden en su imaginación, hacia las que tienden el día de mañana.

(Seattle 1992: 41)

Zer amesten dute zuriak, zein dira beren seme-alabei eskaintzen dizkieten xedeak, zein beren etorkizunerako urratsak gidatzen dituzten irudikapenak? Galdera hauen erantzuna da, hain zuzen ere, *ametsa* hitza erabiliz eta guzti, Georges Dumezilek erakutsi nahi izan duena<sup>99</sup>:

La explicación indoeuropea del mundo no es más que uno de los innumerables *sueños de la humanidad*, y no constituye, en cuanto a su contenido, un sueño privilegiado. Pero sí lo es, en cuanto a las condiciones de la observación por la concatenación de circunstancias que ha hecho que los pueblos herederos de los indoeuropeos hayan desempeñado en la historia (...) un papel tan precoz, tan continuado, tan considerable y tan pertinazmente consignado: en ningún otro caso, se tiene la oportunidad de seguir, a veces durante milenios, las aventuras de una misma ideología en ocho o diez conjuntos humanos que la han conservado después de su completa separación.

(etzana nirea da) (Dumezil 1977: 603)

99. *Amets* hitza darabilen beste bat Georges Duby (1980: 12) historialari frantsesa dugu, hiru funtzioen ideologiak Erdi Aroan izan zuen eraginaz ari zelarik: “La figura triangular sobre la cual se erigió el sueño de una sociedad una y trina (...)”. Ikus, halaber, Le Goffen hitzak, 3. kapituluaren sarreran jasotakoak.

Gizarte-multzo handi baten eginak, mendebaldar guztienak barne, bideratu dituen mundu ikuspegi baten aurrean gaude<sup>100</sup> eta bere ezagutzarako bidea mito edota epopeien azterketa konparatiboa dugu, mitoen zeregin nagusia gizaritari bere buruaren azalpena ematea baita:

(...) los mitos no se pueden entender si se los separa de la vida de los hombres que los narran. (...) no constituían invenciones dramáticas o líricas gratuitas sin relación con la organización social o política, con el ritual, con la ley o con la costumbre; por el contrario, su papel era el de justificar todo ello, y expresar en imágenes las grandes ideas que organizan y sostienen el conjunto.

(ibid.: 10)

Dumezil lan-metodoa, lotura genetikoa duten hizkuntza indoeuroparren existentziatik abiatu eta hauen erlijio eta mitologiaren azterketa konparatua justifikatutzat eman eta gero, behaketa hutsean eta indukzioan oinarritzen da:

Ce que je vois quelquefois appelé «la théorie dumezilienne», consiste en tout et pour tout à rappeler qu'il a existé, à un certain moment, des Indo-Européens et à penser, dans le sillage des linguistes, que la comparaison des plus vieilles traditions des peuples qui sont au moins partiellement leurs héritiers doit permettre d'entrevoir les grandes lignes de leur idéologie. *A partir de là, tout est observation.* (...). Aucune [structure] n'est imposée *a priori* ni par extrapolation et quand, alerté par quelque ressemblance, j'ouvre un chantier comparatif, je ne sais pas d'avance ce que j'y trouverai.

(etzana nirea da) (Dumezil 1981: 14-5)

### *Hiru funtzioen ideologia*

Indoeuroparren mundu ikuskeran gizartea hiru funtzioz osatzen da: subiranotasuna, indarra eta emankortasuna. Gizarte batek, osatua izango bada, hiru funtzioak bildu behar ditu bere baitan.

---

100. Etnozentrismoa, handinahia eta norberaren hizkuntza beste ezartzeko esku-bidea babesten duten ideologiak ezagunak izan dira munduaren historian eta Dumezilena ez da joera horiek ulertzeko saio bakarra izan. Adibidez, Maurice Olender-ek (1990: 7) *Les langues mégalomanes* izenburua zuen *Le genre humain* aldizkariaren zenbakian zera galdetu zuen: "Comment comprendre en effet cette folie des grandeurs qui peut saisir, à un moment de son histoire, un peuple, lorsqu'il s'arroge le droit de dominer ses voisins en affirmant la suprématie, voire l'antériorité, de sa langue?". Borondate hau indoeuroparrak ez diren hizkuntzetan ere aztertu zuen aipaturiko aldizkariak: arabiera, japoniera eta txinera, baina, Leon Poliakov-ek (1990: 9) bertan esan zuenez, hizkuntza indoeuropar bat —sanskritoa— izan zen asmo horietan urrutien joan zena eta asmo horren oihartzunak gainerako hizkuntza indoeuroparretan ere nabariak dira.

Zein da ikusmolde horren gakoa? Kontua ez da gizartea hiru zatitan banatzea —nahiz eta batzuetan horrela den, kasten sistema indiarraren kasuan bezala: brahman-apaizak, ksatriya-gerlariak eta vaisiya-nekaziariak (Dumezil 1977: 12)—, gizarteak dituen eginbeharrak hiru multzotan, hiru funtziotan, biltzea baizik. Funtzioak, rol sozialak edo literatur kritikako aktanteak (Marchese eta Forradellas 1986: 13) bezala, tasun-multzo baten bilduma dira eta gertakarien nahiz pertsonen edo beharren sailkapena haien arabera egiten da, pertsona edo gauza bakoitza, edo beraien alderdi bat, funtzio bati lotzen zaio eta. Eta alderantziz, baliteke pertsona batek, edo talde batek, funtzio bat baino gehiago biltzea bere baitan.

Hiru funtzioak hierarkizatuta daude: lehenetsua lehenengo funtzioak du, subiranotasunak, gero bigarren funtzioa dator, indarra, eta hierarkian azkena hirugarren funtzioa da, emankortasuna (Dumezil 1981: 338). Horrela, hiru funtzioen ideologiaren arabera, lehen funtzioan kokatu direnek besteetan kokatutakoek baino gehiago balio dute: erregeak edo erlijio buruak militarrek baino gehiago balio dute eta herri xeheak goiko biek baino gutxiago.

Hiru funtzioen hierarkizazioan Hartsuagak (1987: 20) *pitzadura nagusia* deitu duena gertatzen da. Alegia, lehenengo bi funtzioak elkartuta doaz normalean eta, aldi berean, hirugarrenarekiko bereiztuta. Indian, adibidez, “Es común (...) la estrecha solidaridad de los dos primeros varna [kastak], en oposición al tercero: el brahmán y el ksatriya son «las dos fuerzas», *ubhe virye*, entre las que el entendimiento es provechoso y necesario para los dos” (Dumezil 1977: 62), eta bi hauek ezaugarri baikor eta aberatsez beterik agertzen dira. Hirugarren funtzioaren ezaugarriak, berriz, esaldi batean laburbiltzen dira: “los vaisya deben honrar y servir a los brahmanes y a los ksatriya” (ibid.: 62). Eskandinavian ere harreman mota bera dugu, hau da, lehenengo bi funtzioetako ordezkariak elkartuta daude hirugarrenekoak menderatu nahian: “la agresión de los representantes de las funciones superiores, ávidos de conquistar, de esclavizar a los de la tercera” (ibid.: 270-1). Berdin Erroman ere, beherago ikusiko dugunez.

Azalpen honen aurrean zalantza bat aurkeztu ohi da, hots, gizarte batek subiranotasuna, indarra eta emankortasuna bildu behar dituela dioen baieztapen hori ez al da gizarte orok bete behar dituen eginkizunen adierazle hutsa? Benetako ideologia ote da? Eta ideologia izatekotan, indoeuroparren berezkoa al da? Dumezilek zalantzarik gabe erantzun du:

La respuesta no es dudosa. Aunque las tres funciones corresponden a tres necesidades que todo grupo humano debe satisfacer para no perecer, son muy pocos los pueblos que, de esta estructura natural, han extraído una ideología explícita o implícita. Se conocen algunos ejemplos en América y en África. Pero es bien cierto que, en el Viejo Mundo, incluso ampliado desde

Africa hasta el norte del Sáhara y desde Asia hasta Siberia y China, esta ideología no aparece sino entre los pueblos que hablan lenguas indoeuropeas o que han sufrido, en fechas conocidas, la influencia de los indoeuropeos.

(ibid.: 605)

Are gehiago, gertatu zena “el surgimiento en los indoeuropeos, antes de su dispersión, de una ideología plenamente consciente que había sido elaborada por intelectuales y que había modelado la teología, la mitología y la organización social” (ibid.: 41-2) izan zen.

Beraz, laburbilduz, indoeuoparren ustez osatua dagoen gizarte batek hiru funtzio bildu behar ditu bere baitan: botere edo subiranotasuna —erlijiosoa zein politikoa—, indar militarra eta emankortasuna sortzen duen herri xehea. Hirurak hierarkizaturik daude eta bakoitzaren balioa ordena horren arabera da. Subiranoak eta indar militarra elkar-lotuta agertzen dira normalean eta hirugarren funtzioko lagunak edozertara behartzeko eskubidea dute, hauek gutxiago balio dute eta.

#### *Gizartearen sorrera eta osaketa*

Sorrera mitoek garrantzi handia zuten, eta dute, gizartearen bilakae-ran bere kideei, sorrera azaltzeaz gain, portaera ereduak eskaini eta etorkizunean hautatuko ziren norabide politiko eta nazionalak justifikatzeko balio baitute: “Dans les vieilles sociétés italiennes, les légendes d’origine, de fondation servaient à justifier toutes sortes de prétentions et d’orientations politiques ou nationales” (Dumezil 1981: 204). Atal honen asmoa indoeuoparren sorrera mitoek antzinako Erroman eta gainerako herrietan bete zuten eginkizuna indoeuopar zibilizazioaren esparruko egungo gizarteetan ere betetzen segitzen dutela eta, gure kasuan, Nafarroako erdal hizkuntz komunitatearen euskal komunitatearekiko portaeren inspirazio ereduak beraietan aurkitzen direla erakustea da.

Gizartearen sorreraren ereduak lotura zuzena du hiru funtzioen ideologiarekin eta, funtsean, beharrezkoak diren hiru funtzio edo osagaiak bere baitan biltzen dituen gizarte osatu baten eraikitze prozesu neketsua azaltzen digu. Bestalde, sorreraren azalpenetan hiru funtzioen arabera moldaturiko kontaketa historiko-mitikoak aurkitzen dugula esan daiteke: “En los pueblos surgidos de los indoeuropeos, se puede encontrar, en este papel director, un esquema conceptual tan dominante y vivaz como la estructura de las tres funciones. De hecho, ha servido a menudo para construir la historia a todos los niveles, las historias del mundo o de la humanidad y las historias estrictamente nacionales” (ibid.: 246). Irango eta Eskandinaviako kasuak eta Hesiodoren mitoak aztertu eta gero, honako ondorio honetara iritsi zen Dumezil:

(...) en todas partes una «historia» (razas, edades, dinastías, etc.) ha sido compuesta mediante la colocación en sucesión cronológica, siguiendo un orden descendente de enumeración (razas de Hesíodo: 1, 1 bis, 2, 2 bis, 3; edades del mundo, dinastías iránias, Skjöldungar: 1, 2, 3; Ynlingar: 1+2, 3), de representantes de las tres funciones. En Roma, los historiadores de los «orígenes» (...) no procedieron de otra forma.

(ibid.: 250)

Sorrera mitoen artean Irlandako zeltenak eta Erromakoak garrantzi berezia dute.

### *Irlandako zelten sorrera mitoa*

Zeltak Irlandara joandako herri indoeuoparra ziren eta uhartearen historia inbasio edo konkisten segida baten moduan azaltzen zuten, beren burua konkistatzaileen irudian islatuta ikusiz. Azkenaurreko herri inbaditzailea Tuatha Dé Danann-ena (“Dana jainkosaren tribuak”) izan omen zen eta, Dumezilek dioenez (ibid.: 271), konparaketa indoeuroparrerako gaia tribu honen “historian” aurkitzen dugu.

Tribu hau, uhartera iritsi zenean, talde bat zen, ez gizarte oso bat, gizarte egonkor batek behar dituen funtzio guztiak, hiru funtzioak, ez zituelako bere baitan. Lehenengo biak —jainkoak, buruzagiak, gerlariak...— bai, bazituzten, baina hirugarren funtzioaren arrastorik, ordea, ez: elikagaiez eta aberastasunaz hornitzen duen nekazaritzaz ez omen zekiten ezer. Nekazaritza, aldiz, deabruzko itxurapean agertzen diren Fomore izeneko uharterko jatorrizko biztanleen ezaugarria zen. Inbaditzaileek, Tuatha Dé Danann-ek, nekazaritza faltan zutela, jatorrizko biztanleekin borrokatu, gehienak hil eta bakan batzuk esklabizatu ondoren, nekazaritzaren sekretuen ezagutza erdietsi eta gizartea osatzea, hiru funtzioak batzea, alegia, lortu zuten. Dumezilen hitzetan, horrela laburbiltzen da Irlandan gertaturikoa:

En esta versión celta, se ve que la iniciativa de la guerra vuelve a los representantes de las «funciones superiores», como en Escandinavia; es más, hay vencedores y vencidos: los vencidos son prácticamente eliminados y el representante de la función agrícola, después de la derrota de su bando, no es asimilado ni admitido en la vida común, sino esclavizado.

(ibid.: 271)

Irlandako zeltek, beraz, eredutzat uhartea konkistatu eta bertako biztanleak garaitu ondoren ezarri zen “zibilizazioaren” hastapenak zituzten. Txanponaren beste alde euren haragian ezagutzea, ordea, hastapen berberak zituen baina indartsuagoa zen beste herri batekin topo egin zutenean egokitu zitzairen irlandarrei: ingelesekin topo egitean, baina hau beste historia bat da.



*Erromaren sorrera*

Erromaren sorreraren gakoa segida sinple bat da berez: Eneasen ondorengoak ziren Romulo —Marteren semea, aldi berean— eta bere kideek Erroma sortu berrian emakumerik ez zutenek, aldameneko herriaren emakumeak lapurtu zituzten: sabinoen emakumeen bahiketa ospetsua; bahiketa zela-eta gerra izan zuten sabinoek eta erromatarrek, erromatarrek atera ziren irabazle eta, ondoren, behin sabinoak garaituak izan eta gero, bi herrien arteko elkarketa gertatu zen, aurrerantzean gizarte oso bat izango zena eginez. “Gertakari” hauek<sup>101</sup> gizarte osatuaren sorreraren eskema tradizionalaren arabera berrantolatuak izan ziren Erromako historiografian (ibid.: 272) eta berrantolaketa horren emaitza da erakutsi nahi duguna. Dumezilen hitzetan hauxe gertatu zen:

(...) tenemos en nuestro poder los dos extremos de una larga cadena. Por una parte, mucho tiempo antes de Roma, un esquema indoeuropeo que desarrollaba los orígenes de una sociedad completa trifuncional a partir de sus futuros componentes unifuncionales, inicialmente separados, y posteriormente reunidos tras un duro combate en el que estos futuros componentes se enfrentaron (el primero y el segundo contra el tercero). Por otra, según la vulgata surgida de las manos de los analistas, una «historia» de la formación de Roma por la estrecha asociación de los compañeros de Rómulo, hijo de Marte y protegido de Júpiter, (...) con los sabinos del rico Tacio, tras un conflicto en el que estos futuros componentes, a la vez étnicos y funcionales, se enfrentaron severamente (el primero y el segundo contra el tercero).

(ibid.: 404)

Erromaren sorreraren gunea sabinoen aurkako gerra da eta dioguna ulertzeko biderik egokiena delakoan, Tito Livioaren bertsiora joko dugu, Dumezilek gomendatzen digunez: “Prácticamente, es en los dos prime-

---

101. “Gertakariak” diot, baina ez dago batere garbi egiazkoak, hots, historikoak, ala mitikoak izan ote ziren. Dumezilen ustez, ez dute oinarri historikorik eta, Indiako edo Greziako kasuen bezala, kondaira mitologiko baten aurrean gaude: “Roma tuvo su mitología y ésta se ha conservado. (...) Roma quiso simplemente exponer, con la simplicidad de un atestado, sus propios inicios y sus propios períodos, su fundación (...). Pero estos relatos, fechados y situados en una perspectiva próxima, fueron heredados de un tiempo en que Roma todavía no existía y no eran menos ficticios ni desempeñaban un papel menor que los relatos prodigiosos de los griegos y de los indios” (Dumezil 1977: 264). Era berean, “hay que examinar los cuatro reinados en tanto que expresiones (...) de estos elementos de una ideología tripartita (...), y no en tanto que huellas de historia auténtica sobrecargadas de fantasías inexplicables” (ibid.: 256). Ikus, orobat, ideia bera 412. orrialdean: “Imposibilidad de conclusiones históricas”.

ros libros de Tito Livio donde hay que buscar el equivalente de las teogonías y cosmogonías de los demás pueblos indoeuropeos” (ibid.: 264).

Aurrekari hurbilak Eneasen etorrera eta Lavinia hiriaren sorrera dira (Tito Livio, I: 1-2), eta orduko gertakariak gero Erromaren sorreran agertuko den funtsezko egitura bera dutenez, Tito Livioren kontaketa aurkezpenaren zeregina betetzen dutela esan daiteke. Troia bere sorterrik ihesi, Lazio aldera iritsi zen Eneas printzea, Ankises eta Afroditarren semea zena eta, beraz, lehenengo eta bigarren funtzioak bere baitan biltzen zituen, baina hirugarrena falta zitzaion Eneas eta bere kideei: ez zuten jateko ezer. Nahiz eta kanpotarrak izan, badirudi, lehenengo bi funtzioen ordezkariak ziren heinean, eskubide osoa zutela bertako biztanleak —“los aborígenes”— (ibid.: 1,5) ziren latindarrei —hirugarren funtzioaren ordezkari— oldartu eta ondasunak ohosteko. Borrokan hasi eta gero, latindarrek bi irtenbide zituzten —Tito Liviok biak aipatzen ditu—: garaituak izan eta gero Eneasekiko bakea onartzea, bata, eta, bestea, Eneasen bikaintasuna hasieratik onartu, borrokatzeari utzi eta berarekin elkartzea. Edozein modutan, hiru funtzioak batuz gizarte osatua eraiki zuten Eneasen eta latindar garaituen artean. Hasieran kontrakoa iruditu arren, latindarrentzat onuragarria izan omen zen atzerriketik etorritako herri nagusiarekiko mendekotasuna onartu eta haiekin bat egitea, Lavinium hiri berria berehala hazi eta aberastu —“la ciudad ya floreciente y rica” (ibid.: 3,3)— baitzen. Nire ondorioa garbia da: Eneasen ereduaren barneratzen duen herri orok —eta inork ez du, gogoz kontra ez bada, bere burua menderatuen ispiluan islaturik ikusi nahi izango— besteen gaineko hedazalekeriarako joera guztiz justifikaturik aurkituko du haren ikasgaietan.

Erromaren sorreraren kondaira aurrekoaren paraleloa da, konplexuagoa izan arren. Jatorria Eneasegan zuten eta Marte eta vestale baten semeak ziren Romulo eta Remo hiri berri bat sortzeko gogo hartu zuten (ibid.: 6,3). Hiria sortu, biztanle ugari —denak gizezkoak— bildu eta lotura erlijioso eta legezkoak ezarri eta gero (ibid.: 8,1), “Roma era ya tan fuerte que igualaba en la guerra a cualquiera de las ciudades vecinas; pero por la escasez de mujeres su grandeza había de durar la edad del hombre, pues éstos no tenían en la patria esperanza de sucesión ni matrimonios con los pueblos limítrofes” (ibid.: 9,1). Hau da, erromatarrek lehenengo eta bigarren funtzioak zituzten —aginpide erlijioso eta politikoa eta indar militarra—, baina, Eneasek bezala, hirugarrenaren —emakumezkoak, emankortasuna...— arrastorik ez, ordea.

Erromatarrek emakumeen beharra zutela, aldameneko herriei ezkontzan lotzeko eskatu zieten, baina erromatarrek auzo arrotz eta bildurgarriak zitzaizkienez, aldameneko herriei ezkontza ukatu egin zieten. Ondorioz: “La juventud romana a duras penas toleró esto, y sin ambigüedad la situación empezó a inclinarse por la solución violenta” (ibid.: 9,6). Eskariaren bidezkoasuna onartu nahi ez zuten guraso sabinoen



7. irudia. *Emakume sabinoak* (Jacques Louis David).

“harrokeriak” beste irtenbide bat bilatzera behartu omen zituen erromatarrak: emakume sabinoak bahitzea (ikus 7. irudia). Bahiketa, dena dela, Romulok behin eta berriro azaldu zuenez, guztien onerako izango zen:

(...) Rómulo en persona iba de una parte a otra y explicaba que esto había sucedido por la soberbia de sus padres, que habían rehusado el matrimonio con los pueblos vecinos; que, no obstante, ellas serían aceptadas en matrimonio y compartirían todos sus bienes, su patria y sus hijos (...); que apaciguasen sus iras y entregasen su corazón a quienes la casualidad había entregado sus cuerpos; que muchas veces de la injuria ha nacido después el afecto, y que por esto ellas disfrutarían de mejores maridos (...)

(ibid.: 9,5)

Sabinoek, baina, ez bide zioten Romulori jaramonik egin eta gerrari ekin zioten: “la última guerra la iniciaron los sabinos, y fue con mucho la más importante” (ibid.: 11,5). Borroka latza izan zen, sabinoak ere gudari onak zirelako, baina erromatarrak apurka-apurka nagusitzen hasi ziren. Orduan, emakume sabinoak bien artean tartekatuta eta bakea egin zezaten erregutu zieten. Bi herriek, hunkituta, borrokari utzi eta bat egitea erabaki zuten, Erromaren agindupean, etorkizuneko Erroma zoriontsu eta handiari hasiera emanez:

(...) las mujeres sabinas, por cuyo rapto se había originado la guerra, revuelto el cabello y rasgadas sus vestiduras, vencido su temor femenino por las desgracias, se atrevieron a avanzar en medio de una nube de flechas, lanzándose de través impetuosamente a separar los ejércitos enemigos y poner fin a sus cóleras. (...). Esta actitud conmueve a los soldados y a sus jefes. Se produce un silencio y una calma repentina. Luego se adelantaron los jefes para hacer un tratado. Y no sólo firman la paz, sino que los dos pueblos hacen uno solo. Asocian el poder y confieren todo el mando a Roma.

(ibid.: 13,1-4)

Erromaren sorreraren kondairak, laburbilduz, hiru funtzioak biltzen dituen gizartearen osaketa nola burutzen den erakusten digu. Sintesia emakume sabinoen —hirugarren funtzioaren ordezkariak— bahiketa eta ondoko gerraren bidez burutu zuen Romulok —lehen eta bigarren funtzioen ordezkaria—, horrela Erroma, behin garaituek hoberena erromatarrekin elkartzea zela “ulertu” eta gizartea osatuta gelditu eta gero, kanpo gerrate eta konkistetarako prestatuta utziz.

Pentsamolde hau zeharo dinamiko eta eredugarria da: arrotzek edo etorri berriek —Eneas, erromatarrak—, jaungoikoen babesaz, bertakoa —latinoak, sabinoak— bi irtenbideren artean hautatu beharrean jartzen dituzte: edo indarrez garaituak izan edo nagusien baldintzak onartu eta haiekin batera gizarte berria eraiki. Irlandan lehendabizikoa ger-

tatu zen, Lavinian eta Erroman, ordea, bien nahasketa, indarra eta adostasuna batera izan zirelako.

Hauxe da, Dumezileng ustez, kultura indoeuroparrak gogoan duen irudia, Seattle buruzagiak ezagutu eta ulertu nahi zuen gizon zurien ametsa, alegia, eta orduz geroztik Erromako ispilura begiratu duen zibilizazio edota talde orori erakutsi zaion ikasgaia.

Gaztelania eta frantsesaren historiografiaren azterketari eskaini atalean (2.2) ikusi bezala, beren ardura nagusietariko bat euren erromatar jatorriak aldarrikatzea izan da. Erroman eredu bilatzeko kezka antzinatik dator<sup>102</sup> eta, urrutirago joan gabe, nabaria da XVI. mendeko humanista espainolen artean. Erromako ereduaren irakaspenek hizkuntzen arazoetan zuten erabilgarritasuna, bestalde, guretzat ezezik, beraiantzat ere begi-bistakoak ziren, Arias Montano humanista espainolak (1527-1598) Albako Dukeari zuzendutako gutunean Erromaren historiari egin irakurketak erakusten duenez:

Esta fue una de las cosas que principalmente procuraron los romanos para confirmar su Imperio en la tierra y conciliarse los hombres de todas naciones, ordenando que por todas partes, o de uso, o de lección, se ejercitase la lengua latina, y tanto pudieron y ejecutaron en esta parte, que a muchas naciones trocaron sus antiguos lenguajes en la suya latina.

(Arias Montano, 1570eko gutuna. In Alvar 1984: 212)

Nafarroako euskararen historiari etorritik, Erroma, Eneas edo Irlandako zeltak dioten tokian erdaldunak, eta “aborígenes”, latindarrak edo sabinoak diotenean euskaldunak ipiniz gero, garbi dago zer zuten erdaldunek gogoan —euren hizkuntza hedatzeko nahia, indarra eta “eskubide” jainkotiarra— eta zer eskatzen zieten euskaldunei —erdaraz ikasi eta lehentasuna hizkuntza honi aitortzeko—.

### 3.4 Erdal komunitatearen hizkuntz politika: Frantziako hizkuntz politikaren ereduak

Frantziako Iraultzak berebiziko eragina izan du XIX eta XX. mendeetako bilakaera orokorrean: aro berri bat zabaldu zuen eta hango gertaerak Frantziako historia ezezik, Europa osokoa ere baldintzatu zuten (Roberts 1989: 60). Eragina bereziki nabarmena izan zen Espainian non estatu liberal-monarkiko erdirakoi berria eredu jakobino-napoleonikoaren arabera (Sole Tura 1985: 28) eraikitzen saiatu baitziren.

---

102. Era berean, Erromako eredu kritikatzeko joera ere aspaldikoa da. Ikus, adibidez, kultur aniztasunaren aldarrikapen modernoaren iturrian dagoen Herder filosofo alemanaren kritika zorrotzak (Berlin 1995: 208).

Hizkuntz politika mailan ere Frantzia eredu bat osatzera iritsi zela esan daiteke: “Francia ofrece un ejemplo de lo que ocurrió en el siglo XIX en toda Europa, y más tarde en todo el mundo” (Schudson 1994: 87). Estatu espainolean, Nafarroan<sup>103</sup> eta Hego Euskal Herrian ere bai, beraz, hain oihartzun handia izan zuen eredu honek lau alde ditu: estatua, nazioa eta hizkuntza berdintzen dituen ideologia; estatuaren —nazio-estatuarena, zehazkiago hitz eginez— hizkuntz politika aktiboa; nazio-hizkuntza gisa hautaturiko hizkuntzaren aldeko apustu garbia; eta, laugarrenik, bere barrutian dauden gainerako hizkuntzak nazioaren batasunaren oztopatzailetzat hartu eta ezabatzea jotzea. Frantziako Iraultzaren eragina, bestalde, ez da hor amaitzen, nazio hizkuntzen aldarrikapenen eta nazionalismo linguistikoen lehen adierazpen modernoak ere Iraultzaren zurrunbiloak harrapatutako herrien artean entzun baitziren, normalean frantsesen ezarpenei aurre egin nahian.

Berez, hizkuntza eta nazioa identifikatzen dituen pentsamoldea ez da berria, ez da Frantziako Iraultzak sortua, antzinatek dator eta oso hedatua izan da munduan zehar. Gure hizkuntzaren testigantzan —euskara, euskaldunak, Euskal Herria— luzatu gabe, Pertiako akemenestarren (K.a. 550-330) dinastiako inskripzioetan, esate baterako, hitz bakarra, *lisani*, agertzen da *hizkuntza* zein *nazioa* izendatzeko (Calvet 1981b: 153). Goiko biak, hizkuntza eta nazioa, eta estatua —edo osatu nahiko litzatekeen estatua— berdintzen dituzten ideiak ere ez ziren Frantziako Iraultzan jaio, ez eta Herder, Humboldt edo Alemaniako erromantikoen artean ere. Danteren kezketariko bat literatur italiara osatu eta bere gainean nazio italiarra finkatu eta batzea izan zen (Breuilly 1990: 14-5; Robins 1987: 106). Manuel Alvar-ek (1984) Frantzia, Italia, Portugal eta Espainiako lekukotasunak eskainiz erakutsi duenez, XVI. mendean jadanik oso garatuak zeuden ideia horiek eta toki handia izan zuten XVI-XVIII. mendeetako bilakaera linguistiko-politikoan. Era berean, Frantziako hizkuntz politikak Espainian izandako eraginaren azarnak ere XV. mendeaz geroztik aurki daitezke. Manuel Alvarren hitzetan, “Francia es un ejemplo singular de cómo la autoridad real sirvió a la difusión del franciano y, a la vez, fue un instrumento que vino a prestigiar a la lengua común. (...) En España las cosas caminaron de forma parecida, aunque nos falta un edicto como el de 1539” (Alvar 1984: 213-4). Halaber, XVIII. mendean, Espainiako Hizkuntz Akademia (1714) Frantziakoaren irudira sortu zen eta, oro har, “la lengua estaba sirviendo a las necesidades del Estado, y un Estado que —nueva imitación de Francia— se había centralizado poderosamente desde que advinieron los Borbones (1701)” (ibid.: 231). Erresuma Batuan ere, Galesen bereganatze-aktak ingelesaren ezarpena aldarrikatu zuen 1542.ean,

103. Harrigarria da Nafarroako euskararen historiak erakusten dituen faktore erdalduntzaile ia guztien aurrekari zehatz eta teorizatuak nola agertzen diren Frantziako Iraultzan ikustea.

lurralde osoak hizkuntz bakarra eduki behar zuela argudiatuz (Williams 1996: 295). Nolanahi ere, aurrekariak aurrekari, Frantziako Iraultzaren berezitasuna nazioa, hizkuntza eta estatua estuki lotzen zituen egitasmu politikoa gauzatzea izan zen eta hizkuntz politikari buruzko ideiek gaur egungo historian hartu duten itxura finkatzea Frantziako Iraultzari zor zaio. Hortik dator bere garrantzia.

Hizkuntz ideia nagusiak Iraultzaren garaian, 1789-1815 tartean<sup>104</sup>, sortu eta ezarri ziren, baina epe motzeko emaitzak espero baino urriagoak izan ziren (Brunot 1967, IX-1: 408-9). Beren gauzatzea ia XIX. mendeko osoa eraman zuen bilakaera luze baten emaitza izango zen: “la Révolution a préparé pour la langue un régime de vie nouveau. Le XIXe siècle nous en montrera certains effets” (ibid.: 421). Horregatik, Iraultzaren garaian errotu ziren ideiak nahiz XIX. mendean zehar gorpuztuz joango ziren neurriak azalduko dira.

### *Frantziako Iraultzaren hizkuntz alderdi nagusiak*

Iraultzak aro —politiko zein linguistiko— desberdinak igaro zituen eta bakoitzak azterketa berezia onartuko luke hizkuntz arazoan ikuspegitik<sup>105</sup>, baina, hala ere, denen aurkezpen orokorra egingo dut. Brunoten arabera, Iraultza frantsesaren berezitasuna gutxitan gertatzen den bi indarren elkarketa izan zen: hizkuntz politika garbia zuen estatuaren bultzada eta hiritarren nahia: “l’action d’un État qui a une politique linguistique, l’élan d’un pays qui désire l’unification de son langage” (ibid.: 1). Hiritarren hizkuntz batasunera iristeko nahia norainokoa ote zen arazoa albora utzita, dudarik ez dago frantsesa aro berri batean sartu zela, eta berarekin batera Europako hizkuntza gehienak ere.

Frantziako nazio modernoa, hiritar guztien multzoa, sortzen ari zen. Nazio horretan hizkuntza, frantsesa, osagai nagusietako bat zen eta bere eraikitze prozesuan frantsesaren zabaltzea eta are ezartzea ere beharrezkotzat jotzen zuten klase politikoek zein herri xeheak. Adierazi ziren ideiak nahiz hartu ziren neurriak helburu hori betetzera zuzenduak zeuden eta, oro har, hizkuntz politika baten oinarriak finkatu zituztela esan daiteke: “Si la langue devient nationale, c’est qu’une nation se forme”<sup>106</sup>,

---

104. Frantziako Iraultzaren izena 1789-1815 bitarteko epeari, Napoleonen garaia ere barne, emango diogu: “un proceso que se extiende desde la convocatoria de los Estados Generales en la primavera de 1789 hasta el derrocamiento final, en 1815, del Imperio napoleónico” (Roberts 1989: 58).

105. Hizkuntz gutxiengoekiko portaeren aldetik, adibidez, 1789-1794 eta 1794-1815 aroak bereiziko genituzke, etena 1794. urtean haien aurkako erasoaldi gogor bati ekin zitzaionean gertatu baitzen.

106. Erroman bezalaxe, nazioaren sorreraz ari gara hemen ere eta, ikus daitekeen bezala, gogoan portaera eredu berbera, indoeuroparren eredu, zutela jardun zuten Erromatarrek nahiz Frantziako iraultzaileek.

sciemment, (...), et que la langue apparait aux hommes politiques et aux citoyens comme un élément essentiel de la «nationalité». On croit nécessaire, non plus seulement de la répandre, mais de l'imposer. Toute une série de mesures sont prises à cet effet, et constituent une politique” (Brunot 1967, IX-1: 1). Hizkuntz bilakaera ordura arte nonbait berezkoa izan bazen, handik aurrera estatu-afera bihurtuko zen —“L'usage linguistique n'est plus considéré comme chose indifférente et négligeable. (...). Le langage est devenu une affaire d'État” (ibid.: 2)— eta estatutaren egitekoen artean Frantziako gainerako hizkuntzen aurka borrokatzea zegoen: “Les langages locaux sont désormais des dissidents, qu'il faut combattre et réduire” (ibid.: 2).

Ideiei dagokienez, esan bezala, Iraultzaren giro beroan gorpuzten ari zen nazioarekiko abertzaletasun politikoari frantsesarekiko identifikazioa gehitu zitzaion: abertzalea izatea frantsesez hitz egitea zen (ibid.: 7). Nazio batasuna eta hizkuntz batasuna, beraz, estuki lotuak zeuden eta elkarri indarra ematen omen zioten (ibid.: 7), Limogesko korrespondentsalak Iraultzaren lehendabiziko urteetan Gregoire abadearen inkesta<sup>107</sup> ezagunari erantzunez adierazi zuen bezala: “Il est bien à désirer que chaque nation ait la sienne [bere hizkuntza], que cette langue soit la même dans toutes les parties de son territoire, afin que deux hommes d'une même nation puissent se reconnaître et s'entendre au premier abord” (ibid.: 10). Mezu nagusiak herriaren askatasuna eta hizkuntz eta nazio batasuna lotzen zituen: “dans une République une et indivisible, l'usage unique et invariable de la langue de la liberté” (Gregoire, 1794. In ibid.: 207). Behin politiko eta ideologikoki itxuratu eta gero, “nazio bat, estatu bat, hizkuntza bat” dioen ikusmoldea XIX. eta XX. mendeetako dogma bihurtu zen, “nazionalitateen printzipioaren” osagaietako bat izan arte: “Il faut tenir le dogme qu'une nation ne doit avoir qu'une langue pour un des dogmes essentiels de l'évangile des temps modernes. Parti de France, il est devenu européen. Il a en un siècle gagné d'autres pays, jusqu'à constituer un des éléments du principe des nationalités” (Brunot 1967, IX-1: 9-10).

Nazioaren ikurtzat frantsesa hartu izanak hexagonoko gainerako hizkuntzen bazterketa ekarri zuen, eta bazterketarekin batera erasoak babes-tera etorriko ziren argudio sorta baten adierazpena ere bai. Argudio haien oihartzunek, ikusiko denez, luzaroan iraungo zuten. Hizkuntz

107. Iraultzaren hizkuntz ideien itxuratze lanean Gregoire abade ospetsua nabarmendu zen eta, beren asmatzailea ez izan arren, hobekien pertsonifikatu zituena bera izan zela esan da (Brunot 1967, IX-1: 13). Gregoireren ekimenen artean, 1790eko abuztuaren 13an Frantzia osoan zabaldu zuen inkesta (ibid.: 12-3; Certeau et al. 1986: 11-4, non galdetegi osoa jasotzen den) eta 1794ko ekainaren 6an Konbentzioaren aurrean irakurri zuen txostena, “sur la nécessité et les moyens d'anéantir les patois et d'universaliser l'usage de la langue française” (ibid.: 300-17; Brunot 1967, IX-1: 204-14) nabarmendu behar dira.



aniztasuna elkar ulertzea oztopatzeaz gain, herri hizkuntzak ezabatu beharreko iraganaren eta feudalismoaren arrastoak omen ziren (ibid.: 5). Era berean mintzatu zen Konbentzioa, Gregoire abadearen txostena entzun ondoren, 1794ko ekainaren 6an frantsesei igorritako mezuan. Ohitura zaharrei eta ezjakintasunari lotuak bailiren aurkezten ziren —“Ils ne survivaient que par la force de l’habitude et de l’ignorance”<sup>108</sup> (ibid.: 6)— eta herritarren atzerapena eta kultur eskasia ere beraiei leporatzen zitzaizkien, Sauveterre-d’Aveyron-go administratzaileek 1792ko txostenean zioten bezala: “ce maudit idiome particulier à nos villageois est leur fléau et le tombeau de l’instruction sous quelque autre forme qu’elle se montre” (ibid.: 6). Hizkuntzen deuseztapenak, ordea, herriaren heziketa, berdintasuna eta batasuna ekarriko zituen (ibid.: 6). Herri hizkuntzak, gainera, urriak eta garatu gabeak omen ziren, Gregoire abadeak zioenez: batzuk joskera zehazkabekoak, beste batzuek ez zuten politikari buruzko hiztegiarik, gehienek ez zuten hitz abstrakturik eta, oro har, herri hizkuntzen txirotasunak adimena hersten omen zien beren hitzunei (ibid.: 208). Ez zitzairen hizkuntzei izan zezaketen balio filologiko edo linguistikoa ukatzen —“l’homme de génie peut cependant trouver quelque chose de précieux, en ce que ces restes informes de l’ancien langage national, bien examinés, bien scrutés, peuvent servir à en retrouver les origines” (Briquet-ek Greogoireri igorri gutuna, 1791. In ibid.: 8, 3. oin-oharra)—, baina, hala ere, txikikeria hutsak iruditzen zitzaizkien kontu horiek eta Briquet delako honi ez zioten inolaz ere munta handiagoko arrazoi izenean hizkuntzen deuseztapena eskatzea eragotzi<sup>109</sup>. Gehienez ere, Gregoirek gomendatu zuenez, zientziaren ikergai bihurtuko zituzten: “Déjà la Commission des arts, dans son instruction, a recommandé de recueillir ces monuments imprimés ou manuscrits; il faut chercher des perles jusque dans le fumier d’Ennius” (Gregoire, 1794. In ibid.: 210).

Hauek eta beste hainbat esan ziren Iraultzan zehar frantsesaz gainerako hizkuntzei buruz. Beren laburpenik argigarrienetako bat Barere Osasun Publikorako Batzordearen bozeramaileak 1794ko urtarrilaren 27an eman zuen hitzaldi ezaguna da<sup>110</sup>. Hitzaldiaren helburua hizkuntzek Errepublikari zekarzkioten arriskuak salatu eta haien aurka borrokatzearen beharra aldarrikatzea izan zen eta ondorio gisa hitz ospetsu

108. Bide batez, euskararen iraupena inertiari eta gaztelaniaren ezjakintasunari zor zaiela dioten azalpenetan ez al dira oraindik “arrazoi” hauen oihartzunak aditzen ahal?

109. Hizkuntzen balio zientifiko-filologikoarena argudio ahula zen, antza, korronte orokorraren oldarraren indarraren aurrean, Nafarroan Campion eta bere kideei mende bat beranduago gertatuko zitzairen bezala.

110. Txostenaren testu osorako, ikus Certeau et al. (1986: 291-9).

hauek adierazi zituen, non hizkuntza bakoitzari buruzko adjektiboak elkar trukagarriak diren funtsean:

Le fédéralisme et la superstition parlent bas-breton; l'émigration et la haine de la République parlent allemand; la contre-révolution parle l'italien, et le fanatisme parle le basque. Cassons ces instruments de dommage et d'erreur. (...) Comme si c'était à nous à maintenir ces jargons barbares et ces idiomes grossiers qui ne peuvent plus servir que les fanatiques et les contre-révolutionnaires!

(Barere 1794. In Certeau et al. 1986: 295-6)

Jarrera haien atzetik, azaldu diren ideia orokorrez gain, arazo praktikoko bat zegoen. Alegia, Iraultzaren buruzagi eta bultzatzaileak gehienbat frantsesdunak zirenez, mezuak frantsesez zabaltzea beste biderik ez zuten, baina Iraultzaren komisario edo ordezkariak herrietara joaten zirelarik, jendeekin harremanetan jartzerik ez zuten eta, oro har, frantsesez sortutako ideia iraultzaileek zailtasun handiak aurkitzen zituzten beren hedapenean: “Les idiomes, malgré tous les efforts qu'on pouvait faire (...) pour pénétrer à travers un rideau de ténèbres jusqu'aux masses rurales, offraient un obstacle insurmontable” (Brunot 1967, IX-1: 175). Iraultzaren aurkakoak (Eliza, aristokratak, Alemania...), ordea, tokian tokiko hizkuntzetan mintzatuz harreman estuak zituzten herritarrekin. Gauzak horrela, 1794. urtera arte Britainia, Korsika, Euskal Herria, Katalunia, Niza eta hauek bezalako lurraldeetan propaganda elebiduna argitaratzen saiatu baziren ere (ibid.: 164-7), herri hizkuntzak berehala susmagarri bihurtu ziren iraultzaileen begien aurrean eta hauek, erraztasunaren eta azkartasunaren izenean, itzulpen politikari uko egin zioten. Arazoa, hala ere, maiz ez zetzan ideia iraultzaileetan, beren mezularien elebakartasunean baizik. Iraultzaren ordezkariak herriko hizkuntza ezagutzen zutenean zailtasun gehienak gainditu ezezik, arrakasta ere lortzen zutelako, Gonchon izeneko iraultzaileari Lyonon gertatu zitzaion bezala:

Un autre jour, c'est Gonchon qui tient une réunion à Lyon (28 mai 1793): «Toutes les femmes disaient que j'avais été envoyé pour protéger les accapareurs. Comme elles tenaient ces propos en patois lyonnais, je m'écriai sur le même ton et dans le même patois: «Bravas citoyenas! vo ne volli donc pas m'écota?». Elles furent toutes surprises de m'entendre parler leur patois, et alors elles demandèrent les premières le silence, en disant toutes: «Ecotons-le, il a l'air d'un bon infant».

(ibid.: 196-7)

Dena dela, herri hizkuntzen aurkako giro gogor eta oldartsu horrek ukaezinezko eragina izan zuen jendeen gogoan eta haietatik aldentze prozesuan gobernuen aginduei herritarren adostasuna gehitu omen zitzaien, nonbait: “Les patois seront poursuivis, c'est vrai, mais ils étaient

abjurés” (ibid.: 7). Norberaren ama hizkuntza zela kausa bere buruarekiko gorrotoaren adierazpenak ez ziren gutxi izan. Arestian aipatutako Sauveterre-d’Aveyron-go ordezkariak horrela mintzatu ziren 1792. urtean: “Ce qu’il y a de plus pressant dans le moment c’est que la Langue nationale s’introduise dans nos campagnes (...). Que des maîtres placés dans les six principaux Bourgs de ce District commencent donc par nous apprendre à parler la Langue française que nous connaissons à peine; qu’elle prene la place de ce malheureux Jargon qui étouffe le développement de nos idées” (ibid.: 6). Hauek bezalako lekukotasunak, frantsesa irakasleak eskatuz eta guzti, oso ugariak dira eta, iraultzaileen argudioak bezalaxe, behin eta berriro errepikatuak aurkituko ditugu Nafarroako euskararen historian ere.

Gauzak ez ziren erasoaldi gogorretan edo autogorrotoaren adierazpenetan bakarrik gelditu. Herri hizkuntzen deuseztatze eta frantsesaren zabaltze lanean gogoeta zorrotzak egin ziren eta, hartu beharreko neurriak edo jorratu beharreko bideak zehaztuz, gaurkotasun eta itzal handiko egitasmo artikulatuak proposatzera iritsi zen Frantziako Iraultzan. Hizkuntz politika koherente bat eratuz joango ziren hautapenak ez ziren oharkabean egin. Ardatzak irakaskuntza eta administrazioa, eta, maila apalago batean, soldadutza izan arren, gainerako alorren —Eliza, justizia, garraiabideak, hiriguneak...— egitekoa ere aski finkaturik utzi zuten: “Il fallait, pour triompher de vieilles habitudes, transformer les usages du clergé, interdire prônes, exercices, catéchismes en patois, exclure en même temps les patois des tribunaux et des actes civils; (...) la multiplication, par tous les moyens, des voies de communication et des rapports des villageois avec les centres plus instruits. Il convenait surtout de compter sur un plan d’éducation bien organisé, appliqué par des instituteurs purement français” (ibid.: 204-5). Zerrenda gehiago luza liteke nahi izanez gero, baina une honetan, euskararen bilakaeran eragingo zuten faktore erdalduntzaile gehienen zeregina, guztiena ez esatearren, Iraultza Frantsesaren hizkuntz politikaren asmatzaileek jadanik definitua zutela nabarmendu nahi dut.

Estatuko hizkuntzaren hedapenean lehentasunezko tokia eman zitzaien hezkuntza politikari, aurrerantzeko estatu moderno guztietan egingo zen bezala. Politika horren aurreneko adierazlea Talleyrand (1791ko irailak 10, 11 eta 19) omen dugu: “Talleyrand ne se borne pas à déplorer la survie des dialectes et à annoncer leur prochaine disparition; il dresse contre eux l’école primaire. De l’instituteur rural il fait ce que l’ancien régime n’avait jamais conçu qu’il pût être, un maître de la langue nationale, un facteur d’unité. La politique scolaire était inventée” (ibid.: 97). 1793ko urriaren 21ean estatuaren oinarritzko eskolak<sup>111</sup> sortu zituen

---

111. Dekretua, dena dela, nahi hutsean geratu zen eta eskolen zabalpena beranduagoko kontua izan zen.

dekretua onartu zen eta bertan hurrek frantsesez mintzatzen, irakurtzen eta idazten ikasteko helburua (ibid.: 147) ezarri zen. Areago, hezkuntza sistema estatu-erakunde bihurturik, ikasketa planen oinarritzko printzipioa bikoitza zen: frantsesa irakastea eta frantsesez irakastea (ibid.: 148). Gregoire abadeak, 1794. urtean, herrialdeetako laguntzaileen iradokizunak gogoan hartuta, garbi zuen bidea: eskolak zabaldu eta beraietara frantsesez baizik ez zekiten irakasleak igorriko ziren (ibid.: 212). Aurreneko urratsak ez ziren, hala ere, nahi bezain arrakastatsuak suertatu, baina XIX. mendean zehar hezurmamituz joango zen hezkuntza sistema printzipio hauetan oinarrituko zen, eta ez bakarrik Frantzian.

Hala ere, irakaskuntza herri hizkuntzetan izateko eskatzen zuten ahotsak ez ziren Frantziako Iraultzaren urteetan falta izan eta, beraz, horretan ere aitzindari dugu Iraultza, bertan aurkitzen ditugun aurrekariak ez baitziren frantsesaren ezarpenari mugatu: “il y avait encore des villes et même des départements où on continuait à désirer que l'école se fit dans l'idiome du pays” (ibid.: 145). Eskabide hauen lekukotasunak Britainia, Alsazia eta Frantziako iparraldeko beste zenbait lurraldetakoak ditugu (ibid.: 145).

Administrazioak zerikusi handia eduki zuen frantsesaren zabalpenean, bi adetatik ikusita: lurralde antolakuntza berria, departamentuen sorrera, hots, alde batetik, eta, bestetik, administrazio aparatuen eraketa. Errejimen Zaharreko lurralde antolakuntza desegin beharra aitzakizat hartuta, barne batasuna (ibid.: 75) zuten ordura arteko administrazio-barrutiak, Lapurdiko Biltzarra edo Nafarroa Behereko erresuma bezala (Goihenetxe 1989: 57), adibidez, deuseztatu<sup>112</sup> eta frantsesaren hedapean lehentasunezko zeregina izan zuten departamentuak antolatzeari ekin zioten (Brunot 1967, IX-1: 75). Departamentuen eraketan hizkuntz irizpidea nahita bazterturik gelditu zen, Asanblada Konstituziogilearen helburua nazioaren batasuna oztopa zezaketen berezko komunitateak, hizkuntz komunitateak, kasu, desegitea izan zen-eta (ibid.: 77). Berezko hizkuntz komunitateei eraso egiteko asmatutako zatiketa administratibok ondorioak izango zituen etorkizunean: “peut-on dire que le département, tracé sans souci aucun de leurs rapports [hizkuntz komunitateen barnekoak], leur enlevait les chances qu'ils pouvaient garder de se réunir par une force de cohésion naturelle. Il ne leur restait plus en ce sens que la possibilité de groupements artificiels, entrepris volontairement, comme on en a vu au XIXe siècle” (ibid.: 78). Gai honi buruz, guztiz argigarria izan zen euskaldunek —Garat anaiak— eta biarnesek sortu behar zen departamentu berria zela-eta eduki zuten eztabaida. Asanbladak biarnotarren alde egin zuen eta Ipar Euskal Herria

112. Hego Euskal Herriko Foruen deuseztapenari buruzko eztabaiden esanahia Frantziako gertaera hauen argitara sakonkiago ulertzen da.

Biarnorekin uztartu zuen departamentu bakarra ezarri zen (ibid.: 76-7). Antolakuntza berriaren esanahi sakona garbia da Brunotentzat: “Rien, ou à peu près rien ne resta de ce qui faisait l’originalité des divers pays. Leurs institutions propres abattues ne furent remplacées par rien qui sentît de près ou de loin «la localité». Il n’y a désormais en France qu’une administration uniforme” (ibid.: 523)

Administrazioaren beste alde administrazio-aparatua eta bere funtzionamendua dira. Administrazio hizkuntza bakarra frantsesa zen —“que toutes les municipalités admissent dans leurs discussions l’usage exclusif du français” (ibid.: 212)— eta ezarpen honek ondorio zuzenak ekarri zituen berehala. Horrela, edozein herritako udal ordezkariak euren burua frantsesa menderatzera behartuta ikusten zuten, agintarieko harremanetan ezezik, beren auzokikoetan ere, herriko hizkuntza erabiltzeagatik besteek beren lepotik barre egiterik ez bazuten nahi (ibid.: 412). Maila orokorrago batean, Frantzia osoan administrazio-aparatu bakarra ezarri zen, frantsesdunetz osatua, berdina toki guztietan, eta estatu-funtzionarioen banakuntza zoriaz egiten zen, lanpostuen hutsuneak sortzen ziren neurrian. Hau da, herri jakin batera edozein tokitan jaiotako funtzionarioak izan zitezkeen igorriak eta hauek, herriko hizkuntza zeinahi izanda ere, beti frantsesetz eginaraziko zieten herritarrei (ibid.: 523).

Frantsesaren hedapenean zeregin handia izan zuen beste erakunde bat Armada izan zen, mutilen soldadutza, zehazkiago. Hara joandako mutilek frantsesaren aldeko jarrera zuten buruzagiekin, alde batetik, eta, bestetik, Frantziako lurralde guztietako mutilekin topo egiten zuten. Harreman hizkuntza posible bakarra frantsesa izango zen beraientzat eta nahitaez ikasi edo erabili beharra zuten. Soldaduzka bukatu eta herrira itzultzen zirelarik, beste pertsona berri bat ziren hizkuntzaren aldetik eta hasieran mutil bakoitzaren aldaketa izan zena berehala hasiko zen herri-kideengana ere hedatzen. Bilakaera hau ez zen oharkabean gertatu. Alegia, Armadaren berezko zereginaz —indar militarra— gain, Frantziako hizkuntz bateratze ahaleginetan beteko zuen lana ia hasieratik zehaztuta zuten hizkuntz politikaren sortzaileek, Gregoire abadeak, adibidez, jadanik 1794. urtean, bitarteko honen emaitza onak gorapatzuz, azpimarratu zuenez: “En général, dans nos bataillons, on parle français, et cette masse de républicains qui en aura contracté l’usage le répandra dans ses foyers” (ibid.: 211). Era berean, Behe-Senako prefetak zera zioen 1812ko abenduaren 31ko txostenean: “La réquisition et conscription militaire qui, dépaysant une bonne partie de la jeunesse, la mit dans le cas d’épurer son langage par l’habitude d’entendre parler mieux ou différemment. D’où il arrive que, quand ils reviennent dans leurs foyers, ils y apportent une manière de parler qui, tout en se détériorant peut-être un peu, ne laisse pas que de se propager peu ou beaucoup parmi ceux qu’ils fréquentent” (ibid.: 412).

Gerra zegoenean, eta Frantziako Iraultzan gerrak kasik etengabe izan ziren, aipatutako arrazoiei borrokek ernarazten zuten nazio-sentimendu

sutsuaren eragina gehitzen zitzairen, hau da, soldadu joandako mutilek frantsese bikoitza izaten zuten: linguistikoa eta politikoa, batak bestearekin indarra emanez<sup>113</sup>:

Fondus dans une France militaire et guerrière, (...) les paysans prenaient bon gré mal gré un sentiment national dont l'orgueil soutenait les élans. L'école de français d'alors, c'était le régiment. (...) dans son cours ordinaire, la vie de gloire et de servitude était toute française. Une absence aussi prolongée de toute la population mâle ne s'était jamais produite. Les conséquences devaient en être fatales pour les patois.

(ibid.: 523-4)

*Iraultzaren kanpo politikaren hizkuntz ondorioak: nazio hizkuntzen aldarrikapenen piztea*

Frantziako Iraultzaren ekarpenak nabariak dira nazio-estatuaren erakitzeko prozesuetan, baina hauek ez dira Iraultzaren zurrunbiloan sortutako ideietatik edan zuten bakarrak. Estaturik gabeko herrien mugimenduek ere, hizkuntzen aldekoek, gure kasuan, handik edan zuten.

Iraultzak, erromatarren hegemonia gogoan hartuta, bere amets indoeuropar berezia izan zuen. Ametsa Hexagonora mugatu zen hasieran: “*Le tu regere imperio populos* fut appliqué à la France, et il semble que, comme jadis, on ait considéré que l'unité de langue devait être une des formes de l'*imperium*” (Brunot 1969, XI-1: 62). Baina, berehala, 1791z geroztik izan zituzten gerrek akuilatuta, eta XVIII. mendearen azkenaldiko “frantsesaren unibertsaltasunari” buruzko gogoeta oraindik freskuek itsututa, “askatasunaren hizkuntzaren” ezarpenaren ametsa mugaz bestaldeko herrietara ere hedatu nahi izan zuten (ibid.: 55). Emaitzak, dena den, iraultzaile frantsesek espero zutenaren aurka, ez ziren Frantziarekiko eta frantsesarekiko atxikimenduaren areagotzea, Europako herrien nazio hizkuntzen eta, oro har, abertzaletasunaren aldarrikapenen hasiera baizik.

Iraultzaren goiburua “nazio subiranotasuna”, “nazio bat, hizkuntza bat” eta “giza eskubideak” baldin baziren, Europako herriek nork bere baitatik eta bere hizkuntzatik ulertu zituzten: norberaren nazio askatasuna. Frantziaren inbasioa pairatu zutenek —Espainia, kasu—, gainera, Frantziaren konkisten aurkako erresistentziaren edukia gehitu zioten askatasunari. Mota horietako interpretazioak aurkitzen dira Hungaria, Irlanda eta Poloniako orduko mugimendu iraultzaileetan, esate batera-

---

113. XIX. mendeko gerrateetan nafarrek izan zuten esku hartze handia gogoan izanik, Frantziako gertakarien parekotasuna aise antzemango da, Arturo Campionek (1976: 27, 265) erakutsi zuenez. Maria Cruz Minak (1981: 72) Campionen baieztapenarekiko adostasuna adierazi du.

ko (ibid.: 65-6). Italian, italiar kulturaren *Risorgimento*-aren eta nazio batasunaren nahiak jadanik 1748. urtekoak bederen baziren ere (ibid.: 68, argitaratzailearen oin-azpiko oharra), 1796ko frantsesen inbasioak bihotz eman zien eta, adibidez, Milango Herri Irakaskuntzarako Elkarteak Italiar Errepublika batuaren aldeko aldarrikapen ozenak egin zituen 1797. urtean (ibid.: 68). Alemanian berdin gertatu zen, askatasuna maitatzea Alemania maitatzea izan baitzen haientzat (ibid.: 68). Are gehiago, nazionalismoari buruzko hainbat lanetan<sup>114</sup> nazioaren ikuspegi organiko edo erromantiko-alemaniarizat —*Volksgeist* hitzaren aipatze hutsarekin islatu nahi dena askotan— hartua izango zenaren jatorria Iraultza Frantsesaren eraginean kokatu du inplizitoki Brunotek: “à mesure que l’Allemagne subit davantage l’action de la pensée française, elle se sépare plus profondément de la France. La Révolution pour les Allemands consistant à devenir une nation, c’est-à-dire à vivre par eux-mêmes (...), les Allemands les tournent (...) contre la culture française»” (ibid.: 70). Ikuspegi alemana, honenbestez, ideologia frantsesaren semea besterik ez zen funtsean izango<sup>115</sup>, Brunotek dioskunez.

Bukatzeko, horrela laburtu zuen Brunotek bilakaera orokorra:

Nous avons montré le développement en France de ce sentiment que la langue était un des éléments principaux de la nationalité, une force créatrice d’unité d’âme. Un peu partout naquit ou se développa la même conviction. Le désir, qui avait pu rester obscur, jusque-là, d’une langue qui représentât la patrie, tourna au besoin. (...). A l’attachement instinctif et profond que les gens de tous pays ont pour leur parler, s’ajouta une sorte de conscience d’un devoir. On conçut qu’il y avait lieu non seulement de garder vivante la langue et de sauver ses droits et sa dignité, mais de la garder pure en la préservant des altérations et des souillures.

(ibid.: 69)

Ohartzen bagara, Iraultzaren ondorioei buruzko Brunoten hitz hauetan, esate baterako, Arturo Campionen eta gainerako euskaltzaleen ahaleginak zortzi-bederatzi hamarkada beranduago gidatuko zituzten oinarritzko ideia eta sentimendu berberak aurkitzen ditugu. Hortik beren garrantzia.

114. Ohikoa da nazioaren kontzeptu alemana eta frantsesa bereizi eta bata besteari kontrajartzea (Smith 1976: 42-4, adibidez). Azterketa mota honen oihartzuna nabaria da, esaterako, Reguera (1992) eta De Blas (1994) autoreen lanetan. Estereotipoetan oinarritzen den kontrajarpen horren kritikarako: Azurmendi (1992a).

115. Terminologiari dagokionez, orobat, bi ikuspegi arteko aldeak uste den baino nabarragoak dira. Brunoten hitz hauek, esate baterako, ez al lirateke alemaniar ikuspegikoen artean sailkatu behar?: “faire des créations de l’esprit français, des chefs-d’œuvre de nos poètes, de nos prosateurs, de la langue elle-même, produit authentique du génie de la race” (Brunot 1967, IX-1: 407). Zein da alemanen *Volksgeist* eta frantsesen *génie de la race*-en arteko ezberdintasuna?

*XIX. mendeko garapenak*

Iraultzaren urteek, 1789-1815, esan bezala, berehalako emaitzak erdietsi baino gehiago, bilakaera baten hastapenak ezarri zituzten. Frantsesa askoz hedatuagoa zegoen, zalantzarik ez, baina 1815ean herri hizkuntzak ez ziren oraindik desagertu eta, oro har, Brunotek dioenez, emaitzak ez ziren itxaropenen neurrikoak (ibid.: 408). Emaitzak XIX. mendean zehar joango ziren agertzen eta hiru ataletan bil daitezke: estatismoa, hots, estatuaren esku hartze zuzena hizkuntz arazoetan, hezkuntza eta armada edo soldadutza.

Estatuak esku hartze zuzena izan zuen hizkuntzaren bilakaeran eta bere jagole nagusi bihurtu zen (Brunot 1968, X-2: 686). Frantsesaren kodifikazioa estatuaren lehentasunezko zeregina izan zen: babes osoa eman zitzaion hizkuntzaren akademiari eta honek araututako gramatika eta ortografia zuzenen ezarpena estatuaren agindupean bideratu zen, unibertsitatean hasieran, eskola azterketa guztietan gero eta funtzionario izateko oposaketetan 1832az geroztik, eta, horrela, biztanle guztiengana hedatu zen (Cohen 1973: 251).

Hezkuntza sistemaren garapena hamarkada luzetako emaitza izan zen. Ezaugarri nagusiak Iraultzaren garaietatik zetozen, baina haurren eskolatzearen orokortzea, dena dela, ez zuten hasieratik lortu. 1832.eko lege batek estatuko oinarrizko irakaskuntza, borondatezkoa, ez nahitaezkoa, sortu zuen, frantsesez, noski (ibid.: 251). 1850. urtean, Falloux legeak irakaskuntza pribatua onartu zuen eta haren babespean ugaritu ziren eskolek, Elizakoak gehienbat, eskola publikoek bezalaxe frantses hutsean jardun zuten, hizkuntzaren hedapenari beren ekarpena eginez. Bultzada nagusia, dena den, III. Errepublikan gertatu zen. Lehen mailako heziketa nahitaezko, dohain eta laikoaren ezarpena Jules Ferry-ren 1881-1884 urteetako legeen emaitza da. Aurrerantzean sei eta hamahiru urte bitarteko haur guztiak dohain eta frantsesez eskolatuak izango ziren. Herri hizkuntzen ikuspegitik, ordea, beren behin betiko bazterketa finkatu zuten 1881-1884ko legeek: “Visto desde Occitania o Bretaña, condena a muerte a las lenguas locales (...). El deber civilizador encomiado por Jules Ferry (...) desemboca, dentro del aparato ideológico dominante, en la necesidad de deshacerse de las lenguas locales, y la escuela republicana se convertirá en un rodillo compresor sobre cuyos daños nunca se dirá lo bastante” (Calvet 1981b: 162-3). Maisu-maistren psikologia politiko kulturalari dagokionez, argigarriak dira Marcel Cohenen<sup>116</sup> (1973: 278) oharrak: herriarengandik sortuak, baseritarren seme-alabak askotan, maisu-maistrak joera demokratikoetan heziak izan ziren eta ezkerreko korronteen aldekoak ziren normalean. Herriko apai-

---

116. Zentzu berean ikus, halaber, Calvet (1981b: 160).



zekin eta irakasle erlijiosoekin lehia bizian, hezkuntza sistema laiko eta demokratiko berriaren aldeko sutsutzat jotzen zuten euren burua. Eta, goikoarekin bat zetorrelarik —herri hizkuntzei Iraultzaren tradizioan apaizen eta krontrairaultzaileen tresna izatea leporatu zitzaizela gogoan eduki—, ez zuten herri hizkuntzekiko edo ohitura eta tradizioekiko inolako ardurarik erakutsi. Eta ardura erakutsi zutenean, higuina agertzen zuten batik bat<sup>117</sup>.

Armada, Napoleon erori zenez geroztik, 1815-1872 bitartean, eredu bikoitzaz osatzen zen: gune nagusia soldadu profesionalak ziren, baina zozketaren bidez mutil frankok ere egin behar izaten zuten soldadutza (ibid.: 265). Aldaketa, hezkuntzaren alorrean bezala, III. Errepublikak ekarri zuen, 1873ko uztailaren 24ko legeak nahitaezko soldadugoa ezarri baitzuen mutil guztiei (Chabot 1986: 40). Iraultzaren garaian Armadak ukaezinezko zeregin frantsetzailea izan bazuen, oraindik handiagoa izan zuen nahitaezko soldadutza ezarri zenetik: “Le service militaire obligatoire a été l’instrument d’un grand brassage de la population” (Cohen 1973: 270).

### *Laburpena*

Frantziak —Iraultza Frantsesak nahiz XIX. mendeko garapenak— gaur egungo historian eragin orokorra izan duen nazio-estatuaren erai-kuntzaren eredia eskaini zuen. Hizkuntzaren arlora etorrita, Frantziako hizkuntz politikarako eredia nazio-estatuarena bezain garbia izan da. Bertan lau osagai bereiz ditzakegu: (1) estatua, nazioa eta hizkuntza berdintzen dituen ideologia; (2) estatuak hizkuntz politika eraginkorra eramatea, hots, hizkuntza Estatu-afera bihurtu izana; (3) nazio-hizkuntzat aukeratu denaren aldeko apustu garbia; eta (4) estatuaren barrutiko gainerako hizkuntzak ezabatzeko joera. Nazionalismo linguistiko eta politiko modernoan sorrera ere Iraultzaren ondorioen artean kokatu behar da: Frantziak “nazio subiranotasuna” eta “nazio bat, hizkuntza

---

117. Frantziako maisu-maistregan erakusten zaigun psikologia soziopolitiko beretsukoa da Arturo Campionen *Blancos y Negros* eleberriko maisua, Don Bernardino: “Hijo de podrísimos labradores, desde su mísero villorrio del Pirineo, de once años, pasó a Pamplona (...), siguiendo la carrera de maestro, a costa de infinitas privaciones. (...). Dominábale la pasión de la lectura, incubada por la ebullición de ideas que produjo la septiembrina. (...). Como nunca tomó libro que le hablase de su tierra, disipóse el sabor de la patria nativa. La patria de sus amores era la patria política, la que él halló enaltecida y celebrada por sus autores favoritos. Era la suya de las almas moldeadas por la guerra de la Independencia, madre verdadera del unitarismo español. Profesaba al regionalismo odio de jacobino (...). Singularmente detestaba el baskuence, recordando, acaso, las burlas que le valió cuando comenzaba a chapurrear el castellano que hoy, con su criterio de maestro de escuela, estimaba ser la lengua más sonora, majestuosa, rica y perfecta del orbe” (Campion 1934: 208-9).

bat” lemak aldarrikatzen bazituen, Iraultzaren ideietatik edango zuten herriek berdin egingo zuten, nor bere baitatik abiatuta.

Iraultzako urteek ideia eta jarreraren finkapena ekarri zuten batik bat, beren gauzatzea beranduagoko bilakaeraren emaitza izan zen eta. Esandako ideien orijinaltasuna helburu argi eta zehatza erdiestea bilatzen zuen sistema egituratu bat osatzean zegoen bereziki. Halaber, alorrez alorreko proposamen nagusiak gogoeta luzeak egin ondoren plazaratu zituzten, ez oharkabeen. Oro har, XIX. eta XX. mendeetako hizkuntz arazoei buruzko ideien lehen adierazpenak Iraultza Frantsesean aurkitzen dira, baita Nafarroan eragina izan zutenenak ere.

### 3.5 Nafarroako hizkuntz eta kultur tradizioa

Nafarroaren historiatik bi alderdi nabarmendu nahi ditut: Nafarroako etnokulturazko barne aniztasun historikoa eta Nafarroako erresumatik abiatu zen hizkuntz tradizioa. 1.2.3 atalean aurkeztu den “Nafarroako hizkuntz desoreka estrukturalaren” ideia bien emaitza da.

Nafarroaren kontzeptua —eta nafarren batasunaren ideia— historikoa da, ez dator betidanik, Erdi Aroan gailendu zen ikuspegi jakin baten kristalizazioa dugu. Egungo Nafarroaren esparruan bi mundu geografiko-kultural desberdin izan dira historikoki, ez bakarra: eremu euskalduna eta eremu erdalduna, edo Mendialdea eta Erribera<sup>118</sup>, beste terminologia batez. Bien artean erdal eta euskal kulturen arteko mendetako ukipen-gune zabal, aldakor eta askotan zehazten zaila dugu: Erdialdea. Nafarroako erakundeak, Nafarroako eliteak, azken batean, Erdialdeko eskualde elebidundu edo erromantzatueta eta Erriberan sustraitu ziren erresuma eratu eta berehala, eta kultura erromantzearen izenean, hots, euren kulturaren mesedetan neurri handi batean, jardun dute historian zehar. Nafarroaren eta nafartasunaren definizioa beraiek egin eta jatorrizko kultur eremu guztietara hedatu dute. Berez, lanaren epearen mugetatik —1863tik 1936ra— kanpo gelditzen diren gertakariak dira hauek, baina Nafarroako euskararen bilakaera erro-errotik baldintzatu dute eta azterketa berezia merezi dute. Zeren, azken finean, 1936ra arteko atzerakada, adibidez, Nafarroako Erdialdean eta Pirinioetako eki-ibarretan gertatu baita, Mendialdean, euskal kulturaren eremuaren erdigunean, euskarak bizitasun eta egonkortasun handiak erakutsi dituen bitartean.

Bestalde, nabaria da Nafarroako euskaldunek historikoki pairaturiko bazterketa soziolinguistikoa. Legezko diskriminaziorik izan ez bada ere,

---

118. Honek ez du ukatzen, noski, jendeen mugikortasun geografikoa eta euskaldunen presentzia Erriberan, Jimeno Juriok (1997: 95-8) erakutsi duen bezala.

Nafarroako erakundeek integrazio-baldintza praktikoa eraginkorra erabili izan dute: hizkuntza, erdaraz jakin beharra. Gaztelan ez zekiena automatikoki baztertuta gelditzen zen, ez zuen zereginik Nafarroa ofizialean eta normalean herri edo eskualde mailako bizimodura makurtu behar zuen.

Asko eztabaidatu da Nafarroako Erdialdearen eta Erriberaren hizkuntz bilakaera historikoaz eta gogoan hartzeko ekarpen eta ñabardura berriak gehitzen dira etengabe (Jimeno Jurio 1997), baina oinarritzko ideia —Nafarroako bi kultur munduena— ez da nire ustez kolokan jarzen eta ez naiz ñabarduren eztabaidan sartuko. Oro har, eskura dauden datuekin argumentazio zuhurra egin nahi izan dut eta balio osoa aitortzen diet oraindik Mitxelenaen 1971ko hitz hauei:

Cuando se habla de la extensión y densidad del vascuence en Navarra (...), se navega siempre entre Escila y Caribdis. (...). No es, pues, extraño que en estos casos la gente propenda a dos interpretaciones extremas e igualmente exageradas: la que, bajo la superficie casi lisa de los textos latinos o romances, ve un sustrato vasco no menos uniforme como única realidad lingüística primaria y la que, a la inversa, se resiste a reconocer un sustrato poco manifiesto y se contenta con la mera apariencia. Hay, sin duda, un término medio razonable, al cual no siempre es fácil atenerse en la práctica (...)

(Mitxelena 1987: 77-8)

Mitxelenarekin jarraituz, esan, azkenik, atal honetan aurkeztuko diren ideia eta autoreak bat datozela funtsean, nik uste, bere azterketekin. Hala ere, jadanik aurkeztuak daudenez (ikus 2.1.3 atala), ez ditut hona berriro ekarri, gauza asko ulertzeko giltza Mitxelenak eman arren.

### *Nafarroaren aniztasun etnokultural eta geografikoa eta euskararen bilakaera*

Nafarroa historian zehar gizarte linguistiko eta kulturalki anitza izan dela gauza jakina da —ikus, adibidez, Caro Baroja (1971-2, I: 12-3) edo Cierbide (1990)— eta ez naiz hori demostratzen luzatuko. Oraingoan, Nafarroako eskualdeez eta hauek euskararen historian bete duten zereginaz mintzatuko naiz, alde bakoitzak ezaugarri desberdinak dituela eta, aldi berean, Nafarroako euskararen bilakaera eta bere arrazoiak eskualdeez eskualde desberdinak izan direla erakutsi nahian.

Alde geografikoak, kulturalak eta linguistikoak harremanetan jartzen dituen azterketa batek begi-bistan dauden arriskuak ditu eta handiena, beharbada, anakronismoarena da, hots, iraganeko egoerak gaur egungo kategorien arabera epaitzea, orduko ere egokiak direnentz pentsatu gabe. Kontzeptu geografiko-politikoaren historikotasuna kontuan hartzen ez duen anakronismoaren arriskuaren adibiderik nabariena *Nafarroa* kon-

tzeptua<sup>119</sup> bera da, egun duen adiera geografiko eta politikoa Berant Erdi Arora arte ez baitzen finkatu<sup>120</sup>. Bestalde, gogoan izan behar dugu bereizgarri geografiko edo fisikoen esanahi kulturala ez dela beti gardena eta aldebakarrekoa. Arazoak arazo, bai gure ikuspegitik bai azaltzen diren gertakari eta egoeren aldetik egokia den eta gauzen jatorrizko zentzua bortxatzen ez duen interpretazioa ematen saiatuko naiz.


Alderaketa erraztuko delakoan, Nafarroako eskualdeak aipatu aurretik euskarari buruzko bi mapa aurkeztuko ditut: euskararen muga historikoen mapa<sup>121</sup> (ikus 8. irudia: “Euskararen muga historikoak”) eta euskarazko toponimiaren mugarena (ikus 9. irudia: “Euskarazko toponimiaren muga”).

119. Nafarroa —*Navarra*— izenak, Gaztelak bezalaxe, adiera geografiko aldakorra izan du denboran zehar eta eskualde txiki bat izendatetik erresuma osoaren izena izatera igaro zen denboran zehar, lurralde antolaketari buruzko ikuspegi jakin bat finkatuz, arestian esan bezala. Eskualde hura zein ote zen argitzerakoan ia ikertzaila guztiek Jose Yanguas y Miranda historiagilearen *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra* (1964 [1840]) lanetik edan dute. Bertan Bianako Printzearen (XV. mendea) pasarte ospetsua jasotzen da, Nafarroa zaharraren lurra zein ziren zehaztuz: “é llamada la *antigua Navarra* estas tierras, son á saber las cinco villas de Goñi, de Yeri, Valdelana, Amescua, Valdegabol, de Campezo, é la Berrueza, é Ocharan” (Bianako Printzea. In Yanguas y Miranda 1964, II: 237). Horren arabera, Yanguas y Mirandaren iritziz, jatorrizko Nafarroa Lizarrako merinaldeko eskualde bat zen eta bere biztanleak gero Iruñeraino zabaldu ziren: “Según esto parece que la antigua Navarra estaba en la merindad de Estella, cuyos pobladores se extendieron después hasta Pamplona” (ibid.: 237). Gartzia IV.a Ramírez Berrezarleak (1134-50) 1138. urtean “decía que reinaba en Pamplona, Tudela, Logroño, en toda Navarra y en todas las Montañas” (Yanguas y Miranda 1964, II: 234). Peraltako bizilagunentzat Nafarroa lurralde arrotza zen XII. mendean eta, halaber, “La ciudad de Tudela consideraba también a Navarra en 1237 como un país distinto al suyo” (ibid.: 235), nahiz eta denek erresuma berean zeudela aitortu (Lacarra 1975: 246). Pixkanaka, XII eta XIII. mendeetan, Nafarroa, eskualde jakin baten izena izatetik, erresumako eremu osoa izendatzera igaro zen (ibid.: 246). Gai honetaz, ikus, aipatutako autoreez gain, Jimeno Jurio (1994a), non, mapak eta gutzi, Lizarrako Forua abiapuntutzat hartuta, *navarrus* jentilizioaren eremua aurkezten den: Elizagorria (Lazagurría)-Lizarra-Iruñea-Zangoza-San Martin Unx.

Beste aldetik, desberdina da *Nauarri* hitzaren erabilera Pirinioez bestaldeko testuetan. Aurreneko aldiz frankoen kroniketan dokumentatzen da, 800. urtearen inguruan, baskoiak hitzaren esanahi beretsuan, eta antzeko adiera izango zuen XII. mendeko Aimery Picaud-en gidan ere (Mítxelena 1988c, II: 540).

120. Gauza bera gertatzen da, adibidez, Espainiaren kontzeptuarekin. Geografo grekoek Iberia edo Hispania izeneko penintsula, espaziozko kontzeptua beraz, zehaztu zuten, baina handik Espainiaren adiera politikoraino tarte handi bat dago eta jauzia Berpizkundera arte ez zen eman. Antzinatea Espainiaren kontzeptu politikoaren argitara ikustea arriskuz beteriko hutsa litzateke, Caro Barojak adierazi zuenez: “El concepto espacial a que me refiero es el de Iberia o Hispania, que, en los géógrafos griegos está perfectamente caracterizado (...). Se trata de una península. Este concepto desde el Renacimiento se equipara al moderno y actual de España, que, en esencia, es un concepto político. *Se lleva nuestra España a la Antigüedad* y se procura ver cómo ha marchado desde entonces. Cosa llena de riesgos” (1988: 67).

121. Euskararen muga historikoak zehazteko bi lekukotasun nagusi erabili izan dira orain dela gutxi arte: IX-X. mendeetarako Menendez Pidalen “El último reducto



8. irudia. Euskararen muga historikoak (Iturriak: Bonaparte 1863; Menendez Pidal 1950; Lecuona 1966; Irigaray 1974; Elgoibar et al. 1987; Salaberri 1994; Jimeno Jurio 1997).



9. irudia. Euskarazko toponimiaren muga (Iturria: Belasko 1996).

Laburki esanda, zer erakusten digute bi mapek? Euskarazko toponimiaren muga eta euskararen hego muga historikoa bat datoz, gutxi gorabehera, ekialdeko eskualdeetan izan ezik. Erribera, hortaz, Baskoien eremu historikoaren zatia izan arren (Caro Baroja 1985b; Sayas 1994), euskararen muga ezagunetik at gelditzen da<sup>122</sup>. Atzerakada Nafarroako Erdialdean, ekialdean eta Pirinioetako eki-ibarreran gertatu da batik bat. Euskararen iraupena, ordea, ipar-mendebaldeko koadrantean izan da.

Azter ditzagun orain Nafarroako eskualdeak. Oinarrizko banaketa Mendialde eta Erriberaren artekoa da. Klasikoa da, adibidez, Pascual Madozen hiztegiak dakarren azalpena, Mendialdeko nafarrak eta Erriberakoak ia bi arraza desberdinetatik datozela esan daitekeela dioena:

CARACTER, USOS Y COSTUMBRES. Son en un todo diferentes en los hab. de las 2 zonas de que ya anteriormente se hizo mérito: en la ribera se parecen mucho á los de las prov. con quienes confinan, y en la montaña á los guipuzcoanos y rayanos franceses; ni aun el vestir es en ellos conforme; y sobre todo la lengua vascongada que se habla solamente en

---

de los dialectos ibéricos” mapa (1950: 464) eta 1587. urterako Manuel Lecuonaren (1966) zerrenda. Biak onarpen orokorrekoak ziren (Gonzalez Olle 1972: 31, Irigaray 1974: 96, Mitxelena 1987: 70 eta beste hainbat). IX-X. mendeetako muga bat dator, gutxi gorabehera, Lecuonak 1587ko elebidunen muga deitu zuenarekin. Hau da, badi-rudi Erdi Aro osoan euskararen muga egonkor samarra izan dela Nafarroan. Caro Baroja ere, Menendez Pidalen lekukotasuna aipatu gabe, iritzi berdinekoa da: “Hay que suponer —como se ha indicado— que la línea de 1587 es la que se mantuvo en Navarra en gran parte de la Edad Media, sin variaciones ostensibles” (Caro Baroja 1990: 17). Berdin dio Gonzalez Ollek (1972: 22) ere.

1994. urtean, ordea, Patxi Salaberrik (1994: 1.090-8) zuzenketa garrantzitsuak egin zizkien bi mapei, Tafallaren ekialdeko eskualdeei dagokienez batik bat, muga Zangozatik gora jarri behar dela esanez: “Tafalla, San Martín, Erriberri, Zangoza eta Kasedan gure hizkuntza XI. menderako lekutua zela uste dugu” (ibid.: 1.090). Zuzenketen ondorioz X-XIII eta XVIII-XIX. mendeetarako mapa berriak proposatu zituen Salaberrik (ibid.: 1.092 eta 1.098). Jimeno Juriok (1997) ontzat eman ditu zuzenketa hauek. Mapa, hortaz, azkeneko ekarpen hauei egokituta marraztu dit.

Jimeno Juriok (1997: 60-3), bestalde, XII-XIII. mendeetan Sesma eta Mendaviatik Ebroraino iristen zen jatorrizko gune euskalduna zegoela iradoki du, baina nik neuk oraingoz egiaztatu beharrekiko hipotesizat hartu nahiago dut.

122. Zentzu horretan mintzatu da Mikel Belasko: “la toponimia no nos permite afirmar la existencia de comunidades vascohablantes en la zona más próxima al Ebro navarro” (1994: 67). Eta gehiago zehaztuz: “en Navarra la toponimia vasca es clara en Lana, Valdega, Arróniz, Oteiza, Puente la Reina, Artajona, Pueyo, Ujué. Más al sur desaparece casi por completo y bruscamente, aunque es indiscutible la existencia de unos pocos nombres vascos o vascoides en la Solana, La Oliva y sus proximidades” (ibid.: 67, 42. oin-oharra).



10. irudia. *Saltus* eta *Ager Vasconum*.



la zona del N., diferencia tanto á los unos de los otros á pesar de la estrecha comunicación entre sí, que casi puede decirse que proceden de dos razas distintas.

(Madoz 1845-50, XII: 95)

Bereizketa ez da berria eta bat dator funtsean erromatarrek *Saltus vasconum* eta *Ager vasconum* lurraldeen artean egin zutenarekin (ikus 10. irudia: “Saltus eta Ager Vasconum”).

Ohikoa da, orobat, bi eremuen artean trantsiziozko hirugarren bat marraztea: Erdialdea, Zangozatik Lizarraraino doana, gutxi gorabehera. Nafarroan, beraz, hiru alde genituzke —*Mendialdea, Erdialdea eta Erribera* (ikus 11. irudia: “Nafarroako aldeak”)— eta bakoitzak bere erritmo historikoa eraman duela esan izan da: “El Norte lleva un ritmo histórico, el centro otro y el Sur otro muy distintos entre sí desde la Edad Antigua. No hay modo de explicarse lo que ocurre en cada parte echando manos de una hipótesis única y general” (Caro Baroja 1985b: 111).

Hala ere, Nafarroa Erdialde, Mendialde eta Erriberan banatzeak kategoria isil bat du azpian: Nafarroako zentro edo erdigunea Erdialdea litzateke, Iruñea azken finean, eta bazter aldeak Mendia nahiz Erribera. Hau da, egiazko nafartzat Iruñea ingurukoak hartzen dira, Mendialdekoei gipuzkoarren eta Iparraldekoen eta Erriberakoei aragoiarraren antza hartzen zaien bitartean, eta Nafarroa definituko dutenak Erdialdekoei ezaugarriak izango dira. Biztanle guztiek ez zuten, ordea, ikuspegi Iruñe-zentriko hori eta, 6. kapituluan ikusiko dugunez, oso bestelakoa zen euskaldunen berezko ikusmoldea.

Beste ñabardura batzuk ere kontuan hartu behar dira: Mendialdean oso desberdinak dira Nafarroa atlantiarra eta Pirinioetako ibarrak. Gauza bera gertatzen da Erdialdean, ez baitira berdinak Zangoza edo Leireko aldea, nafar erromantzearen eta Ximeno dinastiaren sorlekua eta XI. menderako erdaldundua (Salaberri 1994: 1.090), eta Lizarrakoa. Pirinioetako ibarrak eta Leire-Zangozako aldea elkartzuz Nafarroako *ekialdea* marrazten da (ikus 12. irudia: “Nafarroako ekialdea”), hizkuntz berezitasun nabariak dituen eremua Caro Barojaren ustez (1971-2, I: 351). Lotura zaharra du Jazetaniarekin (Antzinatean Baskoien lurraldea) eta Akitaniarekin. Antzinateko zelten eta galo-erromatarren eragina hortik etorri bide zen eta harremanak Erdi Aroan segitu zuen. Horrela, “La línea Jaca, Sangüesa, Pamplona fue de excepcional importancia” (ibid.: 340). Menendez Pidalen (1952: 42) ustez ere Zangoza aldeko eskualdean berezitasuna elebitasun goiztiarra da: “en las riberas navarras del río Aragón, a pesar de conservar el vascuence, hubo bilingüismo desde muy antiguo, efecto de la comunicación con Jaca”.



11. irudia. Nafarroako aldeak: Mendialdea, Erdialdea eta Erribera (Iturria: Floristan eta Martin Duque [zuz.] 1977: 26).



12. irudia. Nafarroako ekialdea (Iturria: Caro Baroja 1971-2, I: 351).

Nafarroako eskualdeen arteko bereizketa hainbat ezaugarri geografiko eta kulturalen pilaketaren emaitza da, sustrai historiko luzeak ditu eta ondorio zuzenak izan ditu euskararen historian, Weinreichen adierazpena baieztatuz: “En toda situación concreta de contacto, la división entre los grupos de lengua materna es generalmente congruente con una o más de las otras divisiones de naturaleza no lingüística” (Weinreich 1974: 191).

Oinordetza sistemen banaketa geografikoa aztertuz gero, adibidez, honako hau ikusten dugu: Tafallatik gora etxearen zatiezintasunaren sistema —maiorazkoa, gehienbat— da nagusi eta Tafallatik behera, Erriberan, senideen arteko berdintasunaren sistema, aldiz (ikus 13. irudia: “Oinordetza sistemak”). Banaketa, Caro Barojak ohartarazi duenez, lotuta dago euskararen muga historikoarekin: “el régimen sucesorio que podríamos definir como septentrional (...), sin duda está en cierta relación con la línea mantenida por el idioma hasta ciertas épocas conocidas documentalmente” (Caro Baroja 1971-2, II: 141). Fernando Mikelarena historialariak ere, oinordetza sistemak, familia motak eta euskararen mugak elkartuz, iritzi bera adierazi du: “existe una superposición bastante admisible entre los límites teóricos trazados arriba al régimen inigualitario de transmisión de bienes, los límites de las estructuras familiares troncales y los límites de la lengua vasca a finales del siglo XVI” (Mikelarena 1995: 249). Jakina da (Barandiaran 1972: 332 eta 334, adibidez) etxearen zatiezintasunean oinarrizten den oinordetza sistema, etxeak euskal kulturako zeregin orokorrekin duen loturagatik, euskaldunen mundu ikuskeraren adierazgarririk garrantzitsuenetako bat dela<sup>123</sup>.

Garrantzi handikoa da, orobat, herri moten banaketaren mapa. Caro Barojak erakutsi duenez, herri moten arabera hiru eremu ditugu Euskal Herrian (Nafarroa barne): A eremuan baserriak dira nagusi, B eremuan herrixkak eta C eremuan herri handiak (ikus 14. irudia: “Herri motak”). Mapa hau beste hainbat ezaugarriren banaketaren mapekin alderatzeak<sup>124</sup> ondorio orokorrak ateratzea ahalbidetzen digu:

(...) si comparamos este mapa con otros lingüísticos y antropológicos observaremos:

I) Que guarda relación con el de la extensión y retroceso del vascuence, pudiéndose afirmar que en la zona A se halla hoy aquella lengua en uso, en la B es donde ha experimentado sensible retroceso desde el siglo XVI al

123. Dena den, etxearen garrantzia eta bere zatiezintasunean oinarrizten den oinordetza sistema ez da bakarrik euskal kulturaren agertzen. Pirinioetan izan duen hedadurarako, ikus Esteban eta Fonquerne (arg.) (1986).

124. Gomendioa Caro Barojak berak egin zuen: “Convienes ir examinando el conjunto de los mapas (...) para darse cuenta de la correspondencia, más o menos exacta, de las áreas” (1978: 51).



13. irudia. Oinordetza sistemak (Iturria: Caro Baroja 1971-2, II: 142).



14. irudia. Herri motak (Iturria: Caro Baroja 1978: 46).

XIX o comienzos de éste, y en la C, por último no ha tenido nunca, según nuestras noticias, gran expansión, variando radicalmente el paisaje.

II) Que el mismo mapa guarda relación con el de ciertos datos antropológicos de carácter físico.

(Caro Baroja 1978: 45)

Goikoez gain, franko dira aztertu diren ezaugarriak eta haietako batzuk aipatuko ditut. Antolakuntza administratiboa bailaraka egiten den eremuak Mendialdea eta Erdialdea besarkatzen ditu (mapa in Caro Baroja 1971-2, I: 287), guztiz bat dator etxe moten banaketarekin (mapa in Caro Baroja 1978: 111, non Erriberako, Erdialdeko, Pirinioetako eta Atlantiar isurialdeko ereduak bereizten diren) eta biak harremanetan daude euskararen mugarekin: “La entidad *casa* es, así, sensiblemente distinta yendo hacia el Norte; desde la zona en que empieza la división por valles y también allí donde se ha hablado vasco en épocas documentalmente bien conocidas” (Caro Baroja 1971-2, II: 166). Argigarriak dira, halaber, beste hainbat ezaugarriren mapak: eguraldi motak, artzaingoa eta trikuharriak harremanetan jartzen dituena (Caro Baroja 1978: 51); golde moten mapa (ibid.: 143); gurdi motena (ibid.: 154); mundu ikuskera desberdinen banaketa geografikoa<sup>125</sup> (ibid.: 266, 4. oin-oharra); arabismo eta mozarabismoen ipar muga (Caro Baroja 1971-2, I: 143); baso motena (ibid.: 44), eta abar.

Eremuen arteko egokitasuna ederki islatzen da, orobat, landaketa moten banaketan, almendra, melokotoi, oliba, mahats eta gaztainaren mugen mapak erakusten duenez (ikus 15. irudia: “Landare motak”). Muga haiek iruzkinduz, berriro euskararen mugekin topo egiten dugula nabarmendu du Caro Barojak:

La zona meridional de Navarra desde el punto de vista climático, se halla bien limitada por una línea que es la del límite superior del almendro y el melocotonero, con estos puntos, de Oeste a Este: Viana, Allo, Artajona, Tafalla y San Martín de Unx. La del olivo va algo más arriba (...). Más al Norte aun, está la de la viña (...). Estos límites actuales han variado poco

---

125. “Dentro del país vasco parece haber sensibles variedades entre la concepción del mundo propia de los habitantes de unas regiones y la de los que nacieron en otras (...). A juzgar por lo que personalmente me ha sido dado observar, creo que sería conveniente tener en cuenta cinco tipos de «mundos circundantes», al llevar a cabo esta labor: 1) el mundo del habitante de los puertos de mar y de la costa; 2) el mundo del campesino de la zona más baja y próxima a aquella, de Vizcaya, Guipúzcoa, Navarra y el país vasco-francés; 3) el mundo del campesino de la zona más alta de estas mismas regiones; 4) el mundo del campesino de los valles alaveses y navarros; 5) el mundo del campesino de las llanadas y tierras más meridionales del país. Los datos más curiosos para caracterizar el vasco deben buscarse en las áreas 2 y 3, que son aquellas en que, justamente Barandiarán encontró (descubrió, podríamos decir) los materiales más atractivos de su colección” (Caro Baroja 1978: 266, 4. oin-oharra).



15. irudia. Landare motak (Iturriak: Caro Baroja 1971-2, III: 140; 1978: 136).



desde el siglo XVIII. Las líneas señaladas son de gran significación desde otros puntos de vista: porque la primera hacia el Norte [almendrondoa eta mertxikondoa], marca también el límite máximo de expansión de la lengua vasca, bien conocido documentalmente desde el siglo XVI (...)

(Caro Baroja 1971-2, III: 139)

Gaztainondoaren eremua, orobat, mapei so eginez gero, bat dator funtsean baserrien eremuarekin eta baita egungo euskara biziarenarekin ere.

Hizkuntzaren eta hainbeste ezaugarriren arteko egokitasuna ikusita, arrisku bat determinismo geografiko-kulturaletan erori eta neurritz kanpoko ondorioak atera nahi izatea izan liteke, Caro Barojak (1976: 20) eta Mikelarenak (1995: 83) ohartarazi dutenez, baina, nahiz eta egokitasuna beste lurralde batzuetan hain hertsia ez izan, garbi dago Nafarroan egiazko gertakari baten aurrean gaudela: “Por supuesto, la superposición de la variable cultural-lingüística en Navarra sobre la geografía familiar y sucesoria sería un fenómeno ceñido a nuestra provincia, que probablemente también se dará en Alava, pero no en cambio en los demás territorios pirenaicos, donde la traducción lingüística del sustrato cultural no es formulable” (Mikelarena 1993: 27).

Nafarroan, beraz, eremu geografiko-kultural-linguistiko desberdinak ditugu —“distintas «*regiones naturales*» (...) distintas «*áreas culturales*», «*lingüísticas*» y aun «*antropológico-físicas*»” (Caro Baroja 1971-2, I: 13)— eta denak Nafarroa izeneko batasun politiko beraren pean bilduta:

(...) no cabe duda de que *hoy* existe una provincia de Navarra, con unos naturales o vecinos que son los navarros, dentro de un estado que es España. Pero antes y durante mucho, Navarra, en sí fue un estado, los navarros fueron considerados como un grupo muy cognoscible en el Occidente de Europa y que aquel estado pequeño no tenía unidad de lengua, ni de lo que más o menos vagamente se llama cultura, ni raza, ni siquiera tenía unidad de paisaje.

(ibid.: 12-3)

Ildo beretik, Nafarroako izaeraren ezaugarri nagusia ibilbide historiko luzeko —estatu independentea Erdi Aroan, erregeorderria 1512ko konkistaz geroztik eta Foru Diputazioa 1841etik aurrera— antolamendua izatean dagoela dio Caro Barojak (ibid.: 13). Nafarrak, Nafarroako bizilagunak, batzuk kulturalki euskaldunak izan dira eta beste batzuk, berriz, ez, baina horrek ez du eragotzi denak egitura politiko berean batu egotea: “los «navarros» (...) en parte son vascos y en parte no lo son, dígase lo que se diga, y (...) sin embargo, han estado y están unidos entre sí por importantes vínculos jurídicos, institucionales y políticos: por un raro Devenir o por la Historia, en una palabra” (ibid.: 17). Batasun poli-

tikoaren seinale nafartasun sentimendua da, nafar abertzaletasuna non-bait, eta sentimendu hau kanpoko bisitariek aspaldian antzeman duten zerbait da, Richard Forden 1845eko hitzek erakusten dutenez:

Placed by position on the borders of France, Arragon (sic), and Castile (...), necessity has forced them [nafarrak] to be always on their guard against neighbours whom fear and abhor. Thus *a spirit of nationality burns in every heart*, wih broods with retentive memory over wrongs that are never forgotten or forgiven.

(etzana nirea da) (Ford 1845: 999)

Nafarroako egituraketa politikoak bi talde baldin baditu bere baitan, kontua aginpidearen banaketa da. Alegia, botere berdina izan dute biek, ala desoreka egon da bien artean? Arazoa da agintea talde erdaldunaren eskuetan egon dela historikoki eta bere zerbitzuan erabili duela. Nafarroa euskal taldearen kaltetan eratu den antolamendua da eta bere sustrai historikoak hurrengo atalean azalduko ditut.

Euskaldunak Nafarroako zati bat dira, baina zati iraunkorra eta irmoki sustraitua eta bere sakoneko bilakaeran Nafarroa erakunde gisa antolatuta egotea edo ez azaleko akzidentea baizik ez da: “Bueno será también observar previamente que el grupo lingüístico, antropológico y etnográfico vasco vive con independencia bastante continua del hecho de que en Navarra haya un reino o no” (Caro Baroja 1971-2, I: 13).

Ez da berdina, hortaz, euskaldunez mintzatzea edo nafarrez mintzatzea, baina euskaldunei gagozkielarik ere, euren eremuan mailaketa bat egin beharra dago, ezaugarrien banaketa geografikoek erakutsi digutenez. Mitxelenak euskal talde etnolinguistikoaren “gunea eta ertzak” aipatu zituen (ikus 2.1.3 atala) eta Caro Baroja ere ondorio berdinetara iritsi da. Bere terminologian garrantzitsua da *kultur eremua* (“área cultural”) kontzeptua. Ideia argia da: kultur eremu orok gunea, non ezaugarrien pilaketa —dialektologiako isoglosen moduan, adibidez— trinkoa den, eta bazter aldeak, non ezaugarriak urriagotuz doazen, dauzka. Kultur eremuaren kontzeptua oso egokia suertatzen zaio euskal kulturaren azterketari eta, horren arabera, “klimax” edo erdigunea Gipuzkoan eta Nafarroako alde atlantiarrean duela, Nafarroako Erdialdea eta Arabako zati nagusia bazter eskualdeak direla eta Bizkaiko Mendebaldea eta Nafarroa eta Arabako Hegoaldeak gehienbat beste kulturen eremuetan daudela dio Caro Barojak (ikus 16. irudia: “Nafarroako euskal kulturaren eremuak”):

Teóricamente, toda área tiene su «climax» o punto central, de formas más concentradas y típicas, y sus zonas marginales, en que aquéllas (de modo más o menos regular) van perdiéndose, mezcladas con las marginales, también, de otra «área». No cabe duda de que en nuestro caso particular, el centro de Navarra y gran parte de Alava son hoy «zonas marginales», que el extremo S. de estas provincias queda casi en absoluto dentro de «áreas



16. irudia. Nafarroako euskal kulturaren eremuak (Iturria: Caro Baroja 1978: 377).

culturales» distintas (...) y sostengo que el «climax» de tal cultura [euskal kulturarena] hay que buscarlo en (...) Guipúzcoa y la Navarra oceánica.

(Caro Baroja 1978: 377)

Euskal kulturaren erdigunean lehenago (ibid.: 266, 4. oin-oharra) Bizkaiko eta Iparraldeko hainbat eskualde ere aipatuak zituen, baina, beste lurraldeetako kontuak gorabehera, Nafarroari buruzko azalpenak garbiak dira. Nafarroako iparraldearen berezitasunaz, Erriberarekikoa eta baita Erdialdearekikoa ere, behin eta berriro ohartarazi digu Caro Barojak, hitz hauek erakusten dutenez: “El ciclo histórico-geográfico propio de la zona Norte de Navarra es, en grandes y esenciales caracteres, completamente distinto, no sólo al que hemos descrito al tratar del Sur, sino también al dibujado al tratar de la zona media del reino” (Caro Baroja 1971-2, I: 197).

Orain arteko gogoeten eskutik, beraz, honako *ondorio orokor* hau atera dezakegu: Nafarroan bi kultur mundu historiko daude, euskalduna eta erdalduna, eta bien arteko ukipen eremu zabal bat: Erdialdea eta ekialdeko Pirinioetako ibarrak. Bi kulturen arteko harremanak politiko eta instituzionalki guztiz desorekatuak izan dira, beti bere eragina ezartzerara jo duen erdal taldearen mesedetan, baina ez dira euskara ezabatzerara iritsi. Euskararen iraupena euskal kulturaren erdiguneko eremuetan gertatu da eta galera, ordea, ukipen eremuetan, Caro Barojak euskal kulturaren “bazter aldetzat” jo dituenetan. Euskararen historiak, hortaz, euskal kulturako eremu bakoitzaren ezaugarrietara jo beharko du hizkuntzaren sendotasunaren zein ahultasunaren berri ematerakoan.

Hari beretik tiratuz, bistan da berriro aurkezpen orokorraren (1.2) eta oinarri teorikoen (2.4) ataletan agertutako gaiekin topo egin dugula. Alegia: euskararen historia, iraupena nahiz higadura eta galera, ulertzeko behar-beharrezkoa zaigu euskal giza taldearen ezaugarri etnolinguistikoa kontuan hartzen dituen ikuspegitik —bigarren kapituluan “hur-bilketa antropologikoa” deitu dena— abiatzea eta berdin gertatzen zaigu aurrean eduki duen erdal giza-taldearekin. Bestalde, euskararen galera bereziki Nafarroako Erdialdean gertatu baldin bada, iraupena Mendialde atlantiarrean izan den bitartean, garbi dago kultur maila orokorreko bi gertaeraren aurrean gaudela: Mendialdean iraun duena ez da euskara bakarrik, euskal kulturako mundu oso bat baizik, eta Erdialdean alderantziz, hau da, mendeetan zehar eratuz joan ziren bilakabide linguistiko-kulturalak zirela-medio guztiz higituta eta ahulduta gelditu zen euskal kultura eta, horrexegatik, XIX. mendeko aldaketek haize bolada batek bezala eraman zuten erroak orduko ia hautsita zituen euskal hizkuntza. Gunea eta ertzak aurkitzen ditugu, zalantzarik ez, eta bakoitzak bere azterketa eskatzen du. Euskarari dagokionez, ez ziren berdinak Gares eta Leitza, adibidez, eta batetik bestera dagoen alde ezin da soilik denak berdinak bailiren aztertzen dituen denbora bilakaera linealaren

emaitzen argitarara ulertu. Hain zuzen ere, Gares mendetako higadura pairatua duen eremukoa eta Leitza, berriz, ezaugarri gehienei eutsi dien euskal eremuaren erdigunekoak direlako.

Euskararen eta erdararen arteko ukipen eremuaren arazoak —Nafarroako Erdialdearenak— eta, orobat, bi taldeen arteko aginpide banaketa desorekatuaren sustraian azterketak nafar erromantzearen sorrera eta zabaltze prozesuak eta, oro har, Nafarroako erresumak hedatu zituen hizkuntz eta kultur joerak aztertzeraz garamatzate.

*Nafarroako erresumaren hizkuntz tradizioa: lengoage de Navarra*

Nafarroako erresumaren hizkuntz tradizioaz mintzatzeak gai konplexu, polit eta eztabaidagarri, askotan ilun eta laburtzeko beti irristakor eta zailen aurrean kokatzen gaitu<sup>126</sup>. Bestalde, arestian ikusi bezala, Nafarroaren ezaugarri nagusietako bat antolamendu politiko gisa izan duen jarraikortasuna da eta, dudarik gabe, lanaren epeko bilakaera ere ulertu nahi izanez gero, Nafarroaren hastapen historikoetatik errotuta dauden joera eta jarrerren berri eman beharra dugu. Bertan arreta berezia jarri behar da Nafarroako Erdialdeko bilakaeran, erresumaren egituraren ezarpena eta, hauekin batera, erromantzearen zabalpena hor gertatu baitziren batik bat: “sería de especial interés el poder precisar cuál era la distribución territorial y por clases de la lengua hablada a lo largo de la Edad Media (...). El problema, naturalmente, se ciñe a la zona media de Navarra —que es donde se asienta la nueva monarquía— y a Alava, pues en el interior el predominio del vascuence es incontestable” (Lacarra 1957: 14-5).

Nafarroako —Iruñekoak, XII. mendera bitartean— erresumaren hastapenetan hiri bat, Iruñea, eta bi giza talde aurkitzen ditugu: “podríamos construir un esquema de la primera organización del reino, con una ciudad, capital, punto estratégico de primer orden y dos territorios más o menos montuosos a los lados, con *dos linajes dominantes* en cada uno de ellos” (Caro Baroja 1971-2, I: 115). Aipatutako bi leinuak arabiarren kroniketan agertzen dira jadanik: Iruñearen ondoko eta ezkeraldekoak —Abartzuza eta Gesalazko eskualdekoak (ibid.: 115)—, Baskoiak, edo *Baskunis*, arabiarrek deitzen zieten, eta Leire-Zangoza ingurukoak, arabiarrek *Glaskiyun* izenez ezagutu zituztenak (Lacarra 1982: 18). Bi taldeek ezaugarri desberdinak zituzten: Baskunis delakoak soilik euskaraz —*baskiya-z*— mintzatzen ziren eta, horregatik, ia ezinezkoa omen zitzaien arabiarrei beraiekin hitz egitea. Euren erlijioa zuten eta, halaber,

---

126. Harrigarria da, gainera, Nafarroako historiografia orokorrak gai honi buruz erakusten duen isiltasuna. Ikus, Goiz Erdi Aroz, Martin Duque (1987) eta, Berant Erdi Aroz, Carrasco (1987).

pobreak, borrokalariak eta kulturalki atzeratuak omen ziren (ibid.: 19). Leire-Zangoza inguruko jendeak, Ekialdekoak, desberdinak bide ziren hasieratik eta, Aragoiko jendeekiko harreman estuetan, franko edo karolinjioen eragina islatzen zuten: Glaskiyun-ak, “situados más al Este, representan la influencia franca o carolingia en el país, frente a los Aristas” (Lacarra 1982: 19). Aurreneko kristau-guneak —Leire, Igari (Zaraitzu ibarrean), Urdaspal (Erronkari ibarrean), Usun (Irunberritik hurbil), Echoko haraneko Siresa...— ere han kokatu ziren (ibid.: 19) eta karolinkjioek sortu zituzten: “Responden a la política de Ludovico Pío de infiltrarse en los territorios dudosos, por la colonización monástica” (ibid.: 19)<sup>127</sup>. Oro har, inguru horretakoa “una zona más romanizada, más cristianizada, más europeizante” (Lacarra 1957: 15) zela esan daiteke.

Nafarroako erresuma Iruñea aldeko taldeen ingurutik sortu zen eta bere aurreneko erregea Eneko Aritza (824?-851) izan omen zen. IX. mendean zehar Baskoien lurretan sustraituriko Aritza dinastia —dinastia Iñigotarra ere deitu izan zaio— izan zen nagusi. Tarte hartan, Lacarrak dioenez, Penintsulako gainerako estatu kristauekin alderatuta, izaera berezia izan zuen Iruñeko erresumak eta gehien nabarmentzen zena independentzi nahia omen zen:

Ya en su origen la monarquía de Pamplona se presenta como algo distinto —por su espíritu— de los demás Estados cristianos que surgen tras la invasión musulmana. (...) los reyes de Pamplona no son ni continuadores de Toledo —contra cuyos reyes lucharon los pamploneses hasta el último momento—, ni vasallos de Carlomagno, contra cuyo imperio combatieron con insistencia bien notoria. En los dos siglos que siguen a la invasión no aspiran los navarros a reconquistar, sino a afirmar su independencia, como lo venían haciendo siglos atrás. Les veremos apoyarse en los francos para ir contra los moros, y en éstos para derrotar a aquéllos, pero sin someterse a ninguna soberanía política extraña.

(Lacarra 1963: 231-2)

Baina X. mendean hasieran, 905. urtean, zeharo aldatu ziren gauzak: “Sólo a partir del siglo X —articulado el Estado con unas instituciones que llamaríamos «modernas»— entra el reino pirenaico en el concierto de los Estados peninsulares, y se contagia del mismo deseo que animaba a los asturianos de «reconquistar» tierras para la Cristiandad” (ibid.: 232). Ongi ezagutzen ez diren arrazoiak zirela-medio, dinastia berri batek hartu zuen Nafarroako erresumaren buruzagitza: jatorria Leire-Zangozako lurraldean —oroit gaitezen: erromanizatuagoa, kris-

127. Zentzu berean mintzatu da Florencio Idoate monastegien sorrera karolinjioek Nafarroa eta Aragoako iparraldean izan zuten eraginarekin lotuz (1977: 13).

tautuagoa eta europazaleagoa— zuen Ximeno dinastia (905-1076), dinastiako lehenengo erregea Antso I.a Gartzes (905-925) izanik. Erresumaren finkapena Ximeno dinastiaren eskutik etorri zen eta, berekin batera, Nafarroako hizkuntz historia baldintzatu duten hainbat jokamolderena ere. Gortearekin batera Iruñeko apezpikua ere Leirera aldatu zen: “La sede [apezpikuarena] de Pamplona (...) se encontrará más en su ambiente en esta zona del Este (en Leire, hacia lo que se llama el Romanzado), que en el mismo Pamplona, a donde no volverá hasta el siglo XI” (Lacarra 1982: 20).

Antso I.a Gartzes musulmanen aurkako borrokari lotu eta, berehala, Asturiasko Alfontso III. arekin hitzartuta, lur berriak konkistatu eta erresumaren mugak zabaltzeari ekin zion: Lizarra hasieran, Lizarrerriko Erribera ondoren eta Errioxa beranduago, Errioxako lurrak “pobladas por romanizados y romanceados”<sup>128</sup> (Cierbide 1986: 131) izanik. Ekialderantz ere zabaldu zen erresumaren eragina eta Aragoiko konterria ere Nafarroako erregeen agindupean geratu zen. Konkista berrien ondorioz, Nafarroako Gortearen egoitza Naxerara eraman zuten 921. urtean. Beraz, oinak Naxeran eta Leire-Zangozan zituen eta Nafarroako Erdialde osoa eta Erriberaren zati bat besarkatzen zituen antolamendua dugu Nafarroako erresuma sendotzen hasi zenean: “es sobre esta Zona Media, de aldeas, que va de Sangüesa a Estella, sobre la que se asentará la nueva monarquía en sus comienzos” (Lacarra 1957: 16).

Erresuma eratzearekin batera, gizarte-antolakuntzako molde atzerri-tarrak eredutzat hartuta, klaseetan hierarkizaturiko gizarte feudala gauzatzen ari zen Erdialdean eta horrek ondorio ukaezinak ekarri zituen erresumako jatorrizko populazioaren baitan, gero eta handiagoa baitzen populazio horren —nekazariak eta hizkuntzaz euskaldunak— eta gorputzen ari zen estatu-aparatuaren arteko etena<sup>129</sup>:

El conjunto de su población, compuesto por campesinos, es vasco, creo que de habla vasca en su totalidad (...). Pero la estructura política que allí se forma es de inspiración extraña. En primer lugar la monarquía y la *curia* del rey, que reflejan la doble influencia de las cortes condales carolingias y de la tradición hispanovisigoda. Los *seniores* serán propietarios territoriales que se hacen cargo de la defensa de ciertos lugares estratégicos; ellos con el rey llevarán el peso del gobierno, y el campesino netamente vasco del noro-

128. Iritzi berekoa da Jose Maria Lacarra: “En los territorios nuevamente agregados —Aragón y Rioja— el sustrato humano era ya netamente románico y cristiano” (1975: 80), eta: “la Rioja, enteramente romanizada y cristianizada en esta época [IX. mendea]” (1982: 20).

129. Ikus, halaber, Sanchez Carrion (1980: 30 eta 72), non, Lacarraren azterketa abiapuntutzat hartuta, Nafarroako erresumaren hizkuntz jarrera asimilaziozalea izan zela esan eta berari buruzko gogoeta iradokitzaileak egiten diren.

este se sentirá doblemente extraño a esta estructuración en clases y al ambiente de lucha que supone.

(ibid.: 16)

Dimentsio politiko, erlijioso, kultural eta linguistikoa izan zuen hedapen bilakaera osoa “Nafarroako erresuma (905-1035)” mapan (17. irudia) jasotzen da.

Apurka-apurka garrantzi berezia hartuko zuten Nafarroako Gorteen, non erresumako hiru klase nagusiek zuten ordezkaritza —hiru estamentu edo estatuak<sup>130</sup>: “los prelados (...) los ricoshombres e cavaylleros (...) et las bonas villas” (1329ko Gorteen. In Lacarra 1983: 239), hau da, Eliza, noblezia eta hiribildu onak (“las bonas villas”)—, XIX. mendera arte iraungo zuen egituraketa batean<sup>131</sup>.

Hirutan antolatu eta hierarkizatutako —“Tres «estados», tres categorías establecidas, estables, tres divisiones jerarquizadas” (Duby 1980: 7)— gizartea dugu, beraz, Nafarroakoa eta bertan gardenki islatuta agertzen dira *indoeuoparren hiru funtzioak*: aginpidea eta erlijioa —monarkia eta Eliza—, indar militarra —nobleak— eta herri xehea. Ez da kasualitate hutsa, baizik eta, Georges Duby historialariak azaldu duenez, Erdi Aroan gizarte-ordenari buruz nagusi zen ideologiaren emaitza: “desde sus orígenes el género humano estaba dividido en tres, entre los oradores (*oratoribus*), los labradores (*agricultoribus*) y los guerreros (*pugnatoribus*)” (Gerardo, Cambrai-ko apezpikua, 1020ko hamarkada. In ibid.: 12). Ideologia hori, bere aldetik, indoeuoparren hiru funtzioen sisteman txertatzen da: “Estructura encajada en otra más profunda, más amplia y envolvente, en el sistema igualmente trifuncional que los trabajos de Georges Dumézil situaron admirablemente entre las formas de pensamiento de los pueblos indoeuropeos” (Duby 1980: 13).


130. Horrela dio Lacarrak (1983: 252): “sabemos del importante papel que desempeñan los tres «estados» —como se les designa, al modo francés— en la mecánica política del reino durante el siglo XIV”.

131. 1512 eta 1841 bitartean, “Componían las Cortes los mismos Brazos o Estados que en la Edad Media: el *eclesiástico*, el *militar* o noble y el de las *universidades* o municipios” (Lacarra 1963: 241). Eta ez bakarrik Nafarroan. Berdin gertatzen zen Frantzia 1789ko iraultza arte:

Unos están consagrados particularmente al servicio de Dios; otros a conservar el Estado por medio de las armas; otros a alimentarlo y a mantenerlo mediante el ejercicio de la paz. Estos son nuestros tres órdenes o estados generales de Francia, el Clero, la Nobleza y el Tercer Estado.

(Carlos Loyseau 1610. *Tratado de los Ordenes y Simples Dignidades*. In Duby 1980: 7)





17. irudia. Nafarroako erresuma (905-1035) (Iturria: Floristan eta Martin Duque [zuz.] 1977: 43.

Orain arte bereziki Nafarroako erresumaren egituratze prozesuaren alde politiko-sozialak aipatu badira, bere *hizkuntz alderdiak* nabarmendu eta sakonkiago uler ditzagun izan da, eta horiei lotuko natzaie hurrengo paragrafoetan.

Nafarroako erresumaren jatorrizko lurraldeen eta Erdialde osoaren euskalduntasuna gauza jakina dugu dagoeneko, baina horrez gain, bilakabide osoa baldintzatuko zuen beste gertaera bat ere izan zen: *Nafarroako erromantzearen* sorrera. Hau, eta ez da kasualitatea, Leireko monastegiaren inguruko eskualdean sortu bide zen eta bere ibilbidea Ximeno dinastiaren garapenari lotuta agertzen da, Ricardo Cierbidek erakutsi duenez: “Fue sin duda en Leyre y demás monasterios de la zona, como Igal, Urdaspal, Siresa (...) donde surgirán los primeros brotes del romance y (...) al calor de la corte y chancillería del reino se convertirá rápidamente en el medio de comunicación diplomática para las necesidades de la corte” (Cierbide 1986: 131). Lacarrak dioenez, Gorteko agiriak idazterakoan latina edota erromantzea, harrezkero lagun frankok —bai Gortean, bai Ekialdeko lurraldeetan— ezagutuko zuen hizkuntza, zituzten eskura eta ez zuten inolako beharrik sentitu euskaraz baliatzeko (Lacarra 1957: 14). Gainera, ez da ahaztu behar Ximeno dinastia handik zetorrela, Nafarroako lurralderik erromanizatuenetik, alegia: “Piénsese que cuando en el siglo X se estabiliza la monarquía navarra, ésta se extendía desde Jaca hasta la Rioja, y que precisamente la dinastía Jimena procede de la zona más romanizada del País” (Lacarra 1957: 14). Horrela, Errioxako lurrak konkistatu zituztenean Naxerara aldatu zen Gortearen egoitza (924), eta Gortearekin batera hizkuntza ere, nafar erromantzea, eraman zuten (Cierbide 1986: 145). Are gehiago, monarkiaren erdigune politiko, kultural eta ekonomiko berria Naxera izango zen aurrerantzean, Iruñea bigarren mailan geldituz (Lacarra 1975: 87). Gure harira zuzenean ez datozen, garrantzi handikoak izan arren, Erdi Aroko beste hizkuntz arazo batzuk —nafar erromantzearen eta gaztelaniaren arteko harremanak; Errioxako euskara; Mendialdetik hegoalderantzako migrazioak; euskararen hego-mugen aldakortasuna; Nafarroako beste giza talde eta hizkuntzak: frankoak, arabiarak, juduak; euskara Pirinioetan... — bazter utzita, garbi dago Nafarroako erresumaren hedapenaren ondorio zuzena erromantzea —“patrimonial en zonas importantes” (Mitxelena 1987a: 121)— Nafarroako Erdialde osoan zabaltzea izan zela:

Este romance creado con fines administrativos, jurídicos y diplomáticos, amén de vehículo de expresión de las gentes del medioeste navarro y prepirenaico aragonés occidental descendería en dirección oeste al compás de la reconquista, alcanzando, acaso, la Población de San Nicolás de Pamplona, Olite y Tafalla, para proseguir por Estella camino de la Rioja, donde se estableció la Corte navarra una vez conquistada Calahorra y

Nájera con Sancho Garcés II (924), constituyéndose una franja romance desde Jaca hasta el Ebro.

(Cierbide 1986: 145)<sup>132</sup>

Erresumaren erakundeek zabaldua, nafar erromantzea maila guztietako administrazio hizkuntza —Foruen testuak, Gortea, hiri eta herriak, Eliza...— ia bakarra izan zen XIII., XIV. eta XV. mendeetan eta Iruñea eta Tuteran bitarteko lurretan milaka dira hizkuntza horretan idatziriko agiriak, gaztelaniarekin nahastuta gelditu zen arte (Cierbide 1986: 133-4).

Dakigun bezala, erromantzea hedatzearen ondorioa ez zen izan euskararen desagertzea, Nafarroako Erdialdearen elebiduntzea baizik. Ez dakigu zehatz-mehatz zer nolako elebitasuna izango zen —soziala, geografikoa, hiriguneak/herriak...— ez eta bere hedapen maila ere —elebakarren eta elebidunen proportziak...—, baina, ziur asko, Lacarrak dioenez, denetik gertatuko zen toki eta une desberdinetan (Lacarra 1957: 12). Bi hizkuntzen arteko ukipena handia bide zen: “examinando el censo de 1366, por lo que dice de la capital misma [Lizarraz] ya advertiremos que, como en Pamplona, la población es compuesta y que gran parte de ella es de habla o *hablas* romances”<sup>133</sup> (Caro Baroja 1971-2, I: 399). Esate baterako, Beriain herriaren —Iruñetik behera 10 bat kilometrotara— 1276ko egoerari buruzko monografiak (Oroz 1991) euskararen eta erromantzearen presentzia nahasia erakusten digu, herritar gehienak euskaldunak izan arren. Are gehiago, egileak dioenez, “el interés de ese documento reside en el hecho de que no se refiere a una situación excepcional, sino a una ciertamente corriente en otros muchos pueblos de la Navarra medieval” (ibid.: 76).

Ukipena, hala ere, ez zen gatazkatik guztiz libre geldituko: “acaso la zona [Lizarra aldeko Lanaibarra] era también zona de conflicto entre el vasco y el romance” (Caro Baroja 1971-2, I: 120), eta Lizarra ondoan dagoen Iratxeko monastegiko dokumentazioak, esate baterako, bidea ematen du “para percatarse de las situaciones de choque entre la vieja lengua y otras” (ibid.: 398).

Dena dela, aukera guztien artean *zatiketa linguistiko-soziala*, hiria/herria —“oposición que a partir de entonces [1214] es fundamental entre dos mundos, la ciudad y el campo” (Duby 1980: 452)— motakoa ere barne, da nire ustez nabarmentzen dena. Alde batetik Gortea, noblezia, administrazio erakundeak, elizgizonak eta hiri eta hiribilduetako burges, merkataria eta artisauak ditugu, erresumako biztanleen % 48 inguru 1366. urtean (Lacarra 1983: 266). Talde hauek erresumako indar ekonomiko eta politiko nagusiak osatzen zituzten eta linguistiko-

132. Ikus, halaber, Cierbide (1991: 44-5).

133. Hala ere, Iruñeari buruz, ikus Jimeno Jurio (1995a).

ki denetatik izango ziren. Euskarak toki nabarmena zuen haien artean (Jimeno Jurio 1995a eta 1997), baina, aldi berean, goiko klaseen eta hiritar libreen hizkuntza nagusia erromantzea zela esan da (Cierbide 1986: 146; Mitxelena 1987a eta 1988b). Bestetik nekazari populazioa dugu, Mendi eta Erdialdeko baserri eta herrixketan eta Iruñea edo Lizarra bezalako hirietako Nafarrerria izeneko auzoetan bizi zena. Biztanleen % 46 inguru (Lacarra 1983: 266) izango ziren, gehienbat euskaldunak, eta *navarri* izenaz aipatzen zitzairen XII. mendeko agirietan: “Por el contrario el conjunto de labradores medieros y collazos y que los textos medievales del siglo XII denominan «navarri» (...), en su mayor parte serían de habla vasca a lo largo de todo el medievo y ocuparían las aldeas extendidas por el antiguo «saltus» y la zona media” (Cierbide 1986: 146)<sup>134</sup>.

Zatiketa linguistikoko-sozialaren erakusleak Leireko monastegiko eta Aralarko San Migel santutegiko dokumentazioan aurkitzen ditugu. Leiren, esan bezala, Eliza eta Gortea elkartzen ziren, lehenengo funtzioaren ordezkariak —botere erlijioso eta politikoa— Dumezilen terminologian, eta beren idazkietan garbi adierazten zuten euskara “besteen” hizkuntza zela, baserriarren hizkuntza, hirugarren funtzioarena. Euskarazko hitzak *rustico vocabulo*, *antiquis vulgalibus*, *vocabulum sortitum*, *basconea lingua*, eta abar ziren haientzat eta, Lacarraren hitzetan, “desde luego, los notarios o «escribas» de los documentos tienen conciencia de que las gentes que les rodean hablan una lengua distinta del latín de sus documentos. (...). Percibimos como una separación social y, sin duda lingüística y cultural, entre el notario y estas gentes” (Lacarra 1957: 12-3). Oraindik argigarriagoak dira Aralarko San Migelgo 1076 eta 1167ko testuak:

De San Miguel Excelsis es aquel texto del año 1076, tan conocido y comentado, que dice: *In partibus Iberiae, iuxta aqua currentis, soto uno que dicitur a rrusticis «Aker Çaltua». Nos possumus dicere «Saltus ircorum»*. A lo que se añade una glosa interlineada en letra coetánea: *Nos possumus dicere «Soto de ueko»*, es decir, «el soto del revecó». Tenemos, pues, tres versiones de la misma frase: *Aker Zaltua*, *Saltus ircorum* y *Soto de ueko*, vascuence, latín y romance.

A este fondo de San Miguel pertenece el texto, también conocido, que dice: *Quod Orti Lehoarriç faciet ut lingua navarrorum dicitur unamaizter et Aceari Umea faciet buruzagui*. (Año 1167).

(Lacarra 1957: 24)

134. Caro Barojak ere berdin esan du: “«navarros»: gentes de habla vasca que viven en aldeas y pequeños núcleos de población en la mayor extensión del país” (1971-2, I: 128).

Aralarko notarioak ere, Leirekoak bezalaxe, garbi bereizten ditu bere burua eta baserritar herria: *Nos* eta *rrustici*<sup>135</sup>. Beraiek —*Nos*— latinez edo erromantzez hitz egiten dute eta nekazariak —*rrustici*— euskaraz, ordea. Baina horretaz gain, badugu oraindik beste ideia bat azpimarratzeko: *lingua navarrorum* delakoa. *Lingua navarrorum* euskara da, jakina, nafarren hizkuntza, baina, zein dira nafar edo *navarri* ospetsu horiek? Ez Nafarroako biztanle guztiak, egungo interpretazio anakronikoak —egungo diot, baina iturrietako bat XVII. mendekoa dugu: aita Moreten *Anales del Reino de Navarra* (1890-2, I: 4)— aditzera ematen duenez, notarioa ere Nafarroakoa zelako, *rrustici* delakoak baizik, baserritar klaseak, alegia. Nafarrak, Cierbide eta Caro Barojak goian azaldu bezala, erresumaren osagaietako bat, jatorrizko baserritar euskaldunak, besterik ez ziren orduko hizkeran eta, horrenbestez, *lingua navarrorum* esaldiaren mezu argia Nafarroako erresuman euskarak pairatu zuen bazterketa soziala agerian uztea dugu.

Ez dugu Erdi Aroko gizarte-egituraketa feudal ahaztu behar eta bertan nekazariak, bazterketa ekonomiko-soziala ezezik, bazterketa juridiko-politiko ere pairatzen zutela: “La clase más numerosa de los labradores carece de personalidad política, y se halla sometida a la jurisdicción señorial” (Lacarra 1975: 335). Mendekotasun juridikoa Erregearekikoa, nobleekikoa edo Elizarekikoa —hau da, indoeuroparren ideologiara itzuliz, hirugarren funtzioko klaseak lehenengo eta bigarreneko funtziokoekiko mendekotasunean— izan zitekeen: “Los labradores. (...) se les llama también *villanos* y *pecheros* (...). Unos dependían directamente del rey (*realengos*); otros, de algún noble (*solariegos*) o eclesiástico (*abadengo*)” (ibid.: 344-5). Era berean, Cierbideren hitzetan: “«navarri», muchos de ellos «misquins» o «collaiços», la mayor parte de las veces propiedad de los «poseedores» —brazo militar y eclesiástico—” (1991: 45, 4. oin-oharra). Nekazariak, funtsean, laugarren estatua ziren Erdi Aroko irudikapenetan, ez hirugarrena, gizarte-egituratik at uzten zen zerbait —“los campesinos, embrutecidos, simples”, “una masa inmensa, doblegada, muda. Olvidada” (Duby 1980: 452 eta 461)— eta amonekin eta haurrekin parekatuak —“*rustici, vetula, pueri*” (ibid.: 452)— izaten ziren. Gizartean deus ez zirenen hizkuntza zen euskara goi-klasekoen ustez, beraz, petxeroen hizkuntza, eta, horregatik, arrazoi osoa du Peter Burkek herri hizkuntzak askotan idatziak izatera iritsi ez badira, batez ere elite alfabetatuek hizkuntza haie-

135. “Notableen” eta herri xumearen arteko bereizketa, linguistikoa nahiz soziala, beste egoera batzuetan ere izan da aztertua. Oso argigarria da, esate baterako, Gregoire abadearen inkestaren erantzunak (1790-2) ikergaitzat hartuta, Frantziako Iraultzaren garaiko tokian tokiko goi klase iraultzaileen psikologia linguistiko-sozialaz —“la relation de différence ou d’affinité qui s’établit entre eux (les gens de la campagne) et nous (les auteurs des réponses)” (Certeau et al. 1986: 56-7)— egindako azterketa.

kiko erakutsi duten axolagabekeria edo lotsagatik izan dela dioenean: “Much of popular culture long went unrecorded in writing, not only because most ordinary people were illiterate, but because the literate were either uninterested in popular culture, or ashamed of their interest” (Burke 1988: 10).

“Besteen” *basconea lingua* edo *lingua navarrorum* delakoaren aurrean “geure hizkuntza” dugu, Nafarroako Gorteen hizkeran: *lengoage de Navarra* izenekoa, Erriberriko 1329ko Gorteen aitortu zutenez. *Lengoage de Navarra* delako hori nafar erromantzea zen, jakina, baina Nafarroako erresumaren lurralde egitura eta egina zuten hizkuntz hautaketa hobeki ulertzearen, komeni da batzar haren azterketa zehatzagoa egitea. Nafarroako Estatuaren oinarritzko printzipioa Erregearen eta erresumaren arteko hitzarmena —“pacto entre la monarquía y el reino” (Lacarra 1963: 234)— zen. Erregea gauza bat eta Nafarroako gizartea beste bat zirelako ideia hau oso nabarmena izan zen XIII. mendean eta XIV.aren hasieran, frantsesen dinastiaren garaian. Horregatik, adibidez, Teobaldo I.ak (1234-1253), erregetua izan ahal izateko, aurrez Foruen zina egin behar izan zituen: “Teobaldo I al ser alzado como rey de Navarra había tenido que jurar sus fueros. El rey sólo es reconocido como tal si se somete previamente a las leyes del país. El rey jura, y sólo después de su juramento es reconocido y jurado por sus súbditos” (ibid.: 234). Beraz, alde batetik, Erregea zegoen eta, bestetik, erresuma. Eta erresumaren ordezkariak —erresumako indar eraginkorrena— Gorteen zuten, beren baitan noblezia, kleroa eta hiribildu onak (“las bonas villas”) izeneko hiru estamentuen ordezkariak bilduz. Gorteen erresumako zeregin nagusietan hartzen zuten parte: “Las veremos intervenir en la coronación de los reyes, juramento y sucesiones reales, en las bodas de los infantes, en las cuestiones de paz y de guerra, en dictar leyes y ordenanzas de todas clases” (ibid.: 237).

1329ko Gorteen bereziak izan ziren, Felipe III.a Evreuxkoari (1329-1343) Foruen zin egitea hartzeko bildu baitziren. Dinastia aldaketa zekarren errege berriaren izendapenak eta horrek berebiziko garrantzia izan zuen nafarrentzat: “Los navarros lograban así su vieja aspiración de desligar su suerte de la del reino de Francia, y a la vez la de restaurar la legitimidad sucesoria de acuerdo con la legislación del país” (Lacarra 1975: 360). Errege-erreginek arazo bat zuten, hala ere: Frantziar bizi ziren, Parisen gehienbat, eta ez zituzten Nafarroako ohiturak eta hizkuntza(k) ezagutzen: “se amoldaban con dificultad a los gustos y costumbres de Navarra, cuya lengua desconocían” (ibid.: 365). Horregatik, Gorte haiek akordioak hain garrantzitsuak zirenez, eta inolako gaizki-ulerturik izan ez zedin, aktak bi hizkuntzetan, ohiko hizkuntzaz gain frantsesez ere —“uno en francés e otro en lengoage de Navarra”—, egin ziren eta Erregeari eta Erreginari bina kopia eman zizkieten:

Et tovieron por bien et quisieron que fuessen fechos dos otros publicos instrumentos en lengoage françes de todas las cosas sobredichas non mudando la rubrica a fin que los dichos seynnores rey e reyna meior los entendiesen. Et que cada uno ovies uno en françes e otro *en lengoage de Navarra*.

(etzana nirea da) (Erriberriko 1329ko maiatzaren 15eko Gorteen akta. In Lacarra 1983: 242)

Nafarroako erresumak —bere “indar biziek”, bere eliteek, Gorteetan bilduta— ez zuen, beraz, batere zalantzarik erakutsi Nafarroako hizkuntza zein zen adierazterakoan: erromantzea.

Nafar gizartearen ordezkariak —legezko ordezkagarritasuna zuen zatiaren ordezkariak, hobeki esanda— nafar hizkuntzatzat erromantzea zuten, ikusi bezala, baina baieztapen haren esanahia eta egoera orokorra zehazki ezagutzeko oso adierazgarria izango litzateke erresumaren oinarri sozialen banaketa geografikoaren berri jakitea. Eta hau ere 1329ko Gorteen aktak ematen digu, bertan batzarrean parte hartu zuten hiribildu eta kontzeju guztien izen eta zigiluak agertzen baitira:


Otrozi, las vyllas de Pomplona, de Esteylla, de Sanguesa, de Tudela, de Olit, de Los Arquos, de Viana, de Lagoardia, de San Viçent de la Soçierra, de Aguyllar, de Venedo, de Lombierr, de Montreal, de Larrasoyna, de Ronçasvaylles, de Sant Johan de Pie del Puerto, de Vilava, de Vyllafranca pusieron lures sieyllos en esta carta.

Otrozi, los conçeios de Miranda, de Lerraga, de Artaxona, de Bervinçana, de Mendavia, de Lerin, de Carcar, de Sesma, de Andosieylla, de Açagra, de Sant Adrian, de Falçes, de Peralta, de Marzieylla, de Caparroso, de Rada, de Melida, de Santa Cara, de Carcastieylo, de Uxue, de Pitieyllas, de Tafaylla, de Sant Martin d’Unx, de Gayllipienço, de Casseda, de Ayvar, de Sanguessa la Vieylla, de Leach, de Eslava, de Labraça, de la Poblacion e de muchos otros logares pusieron lures sieyllos en esta carta. Nota Miguel Ortiz.

(*ibid.*: 243)

Hemezortzi hiribilduren eta hogeita hamaika kontzejuren izenak agertzen dira zerrendan. Hiribilduen zerrendari Gares ere gehitu behar zaio, Aktaren beste leku batean (*ibid.*: 240) agertzen delako. Beraz, hemeretzi hiribildu eta hogeita hamaika kontzeju ditugu 1329ko Gorteetara ordezkariak igorri zituztenak.

Beren banaketa geografiko-linguistikoa zehaztearren ordezkatzeko zituzten herriak euskararen X-XIII. mendeetako mugarekin (Menendez Pidal 1950: 464, “El último reducto de los dialectos ibéricos” mapa; Salaberri 1994: 1.092) alderatu ditut (18. irudia: “1329ko Gortek: ordezkarien banaketa geografiko-linguistikoa”). Horren arabera, eta Erdi Aroko sailkapen linguistikoak eztabaidagarriak direla onartuta, hemeretzi hiribilduetatik, hamar eremu euskaldunekoak ziren: Donibane Garazi, Orreaga, Larrasoaña, Atarrabia, Iruñea, Gares, Irunberri, Elo



18. irudia. 1329ko Gorteak: ordezkarien banaketa geografiko-linguistikoa (Iturriak: Menendez Pidal 1950: 464; A. Irigaray 1974; Lacarra 1983: 240-3; Salaberri 1994).



(Monreal), San Vicente de la Sonsierra (egungo Errioxakoa) eta Lizarra. Dena den, gehienak Erdialdekoak ziren, Iruñetik gorakoak lau bakarrik (Atarrabia, Larrasoaña, Orreaga eta Donibane Garazi) baitziren. Eremu erdaldunekoak, ordea, bederatzi ziren: Zangoza, Tutera, Erriberri, Urantzia (Los Arcos), Viana, Biasteri (Laguardia), Bernedo, Aguilar de Codes eta Alesbes (Villafranca).

Zigilua jarri zuten kontzejuak hogeita hamaika izan ziren, esan bezala. Haietatik hamar eremu euskaldunekoak ziren, guztiak Erdialdekoak, eta hogeiei eremu erdaldunekoak. Oro har, beraz, 50 herritatik, 30 (% 60) eremu erdaldunekoak eta 20 (% 40) eremu euskaldunekoak.

Nafarroako erresuman eragina zuten hiri eta herrien banaketa geografikoa ikusita, zer ondorio atera ditzakegu? Erresumaren pisua Erdialdeak eta Erriberak zuten, Nafarroa ofiziala beraiek ziren. Mendialdeak, aldiz, ez zuen ia ordezkariarik Nafarroako egituretan eta bazter eremua zen<sup>136</sup>. Hizkuntzari dagokionez, euskararen barrutia guxtiengoan zegoen Nafarroako Gorteetan, baina, hala ere, hiri eta herri euskaldun edota elebidunetako ordezkariak asko ziren eta uste izatekoa da haietariko gehienek, herriko bizimodua eramango bazuten, euskaraz jakingo zutela, Gorteetako eta hiribilduetako hainbat burges eta artisa askeren erromantzearekin batera, jakina. Erresuma elebiduna zen eta elebitasuna gorengotze egituretaraino, Gorteetaraino, iristen zen, baina bertan bildutako ordezkariak —franko euskaldunak izan arren— ez zitzairen ezta bururatu ere egiten Nafarroako hizkuntza euskara izan zitekeenik: Nafarroako hizkuntza —*lengoa de Navarra*— erromantzea besterik ez zen.

Kontua, oro har, hau da: Nafarroan estatu bat izan zen Erdi Aroan, egiazko estatu independente bat —Nafarroako erresuma—, eta, estatu orok bezalaxe, estatu horrek lur-eremu bat besarkatzen zuen, eremu horren barruan kokatuta zeuden talde guztiak aginpide bakar baten pean jarritz. Estatua eta bere lur-eremua finkatu izanak lurraldearen hautemate berri eta bakun bat ekarri zuen. XII. mendean (Gartzia IV.a) Iruñea,

136. Pixkanaka, Mendialdeko herri gehiago —baita Erdialdeko eta Erriberakoak ere— joan ziren Gorteetan eserlekua erdietsiz, 1525eko Gorteetako hiribilduen zerrendan agerienez: Agoitz, Etxarri-Aranatz, Goizueta, Lakuntza, Lesaka, Arakil-Uharte eta Urrotz (Yanguas y Miranda 1964, I: 243). Euskalduntasuna, hala ere, egiazko *eragozpena* izan bide zen herrientzat. Gorteetako eserlekua ez zitzairen herriek oztoporik gabe aitortzen. Adibidez, Erronkari ibarra 1607. eta 1785. urteetan ez onartzeko erabili ziren argudioen artean euskalduntasuna zegoela dio Florencio Idoatek —“lo tocante al uso del Vasconce” (1977: 57, 91. oin-oharra)—, eta ondorengo ikertzaileek ontzat eman dute albiste hau (adibidez: Mina 1981: 28-9, 42. oin-oharra). Dena dela, ez dut datu hori egiaztatzerik izan. Auziari buruzko dokumentazio ugaria (NAN, 22.519 prozesua, Arrastia, “Del Valle de Roncal con la Diputación de este Reino [...] sobre asiento y llamamiento a Cortes”) arretaz miatuta, ez dut bertan euskararen aipamenik aurkitu.

Tutera, Logroño, Nafarroa eta Mendialdea berezko barrutizat jotzen ziren eta, ikusi bezala, Tuterako batek, edo Mendialdeko batek, kasu, ez zuen bere burua nafartzat jotzen. XIII. mendiaz geroztik, berriz, ikuspuntua aldatu eta pixkanaka-pixkanaka berezko barruti bakartzat Nafarroa —bere adiera berrian: erresuma osoa— hartuz joan zen. Erresumaren muga politikoeekin bat zetorren kontzeptu espazial berria finkatu zen, beraz. Nafarroari buruzko ikuspegi horretan erdigune bat dugu: Iruñea eta Erdialdea, eta bazter eremuak: Erribera eta Mendialdea. Erriberak eragin handia zuen erresumaren egitura ofizialetan, baina ez ordea Mendialdeak. Beraz, euskaldunen gizarte-bazterketari —*nos/rrustici*— bazterketa geografikoa —Erdialdea/Mendialdea/Erribera— ere gehitzen zion lurraldearen ikusmoldea finkatu zen Erdi Aroan. Hau da, Nafarroari buruz gailendu zen mentalitateak erdigune sozial —*nos*—, linguistikoa —erromantzea— eta geografikoa —Erdialdea, Iruñea— gardena zuen, eta hala ematen zitzaien aditzera erresumako bizilagun guztiei. Euskal hizkuntz komunitateari ez zitzaion erdigunerik aitortzen mentalitate horretan eta hauek, berezko erdigune aitorturik ezean, nafar guztiei eskaintzen zitzaien hartan bilatu beharko zuten erreferentzi puntua.

Nafarroako estatuak, azaldu dugun bilakaeraren ondorioz, bere hizkuntza zuen —praktikan hizkuntza ofiziala—, erromantzea, eta bere mendeko giza-talde guztiekiko, euskaldunekiko, gure kasuan, harremanetan hizkuntza hura hedatzen zuen, estatuko hizkuntzaren ezarpen maila eta bideak XIX eta XX. mendeetakoak bezain zorrotzak ez izan arren. Erromantzearen zabaltze lanetan, bestalde, euskara *rustico*, *vulgalibus*, *sorritum*, eta abar bezala kalifikatuz, ez zitzaien babes ideologikorik falta izan.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako populazioaren zati handi bat euskalduna izanik, euskararen presentzia oso handia izango zen eguneroko bizitzan eta baita goren mailetan ere, Arturo Camponek (1884: 28), Angel Irigarayk (1974) eta Jimeno Juriok (1997) ederki erakutsi duten bezala. Lacarrarengana itzuliz, aipatutako monastegietako dokumentazioa aztertzean, argi iruditzen zaio autore honi notarioek, euskarazko hitzak sartzen zituztenean, beren esanahia ederki ezagutzen zutela eta, oro har, familiartasun osoz erabiltzen zituztela (Lacarra 1957: 12). Gaian haratago joanez, zein ote zen Erdi Aroko pertsonaia nagusien ohiko hizkuntza? Galdera ez da inozoa eta hori dela eta, gogoeta iradokitzaileak egin zituen Lacarrak: “para nosotros, es decir, para el que estudia la Edad Media, será siempre un problema acuciante el saber qué lengua hablaban los personajes históricos con los que convive en los documentos. Cómo se expresaban en la intimidad Íñigo Arista o el abad de Leyre, Sancho el Fuerte o el abad de Irache” (ibid.: 12). Erantzuna ezin daiteke garbia izan eta denetatik egongo zen, baita euskararen lagunarteko erabileraren testigantzak ere. Esate baterako, Machin de Çalba eta Martin de Sant Martin Karlos III.aren (1387-1425) idazkariak elkarren arteko gutunetan naturaltasun osoz tartekatzen zituzten erromantzea eta

euskara. Eskutitzak oso adierazgarriak dira eta, ezagunak izan arren, ongi dago bat adibide moduan kopiatzea, Florencio Idoatek eta Angel Irigaray egindako transkripzioaren arabera:

Seynnor maestre Martin. Acomendo vos a Miguel Papon, vostre amic, et seredes bien ayssa en casa de Peyre de Tors del bon baron qui mal li se faga en el coillon, et escusat me de combit que non puedo ser, que huespedes tengo. Et jaunatiçula abarion ez naiz bildur ezten alla. Et jaquiçu, done Johane garacicoec dute gracia eregue [baytaric (?)] huitcan yruroquey t'amaui florin huitcan baytator sey florin et tercio bat [ylean] rebaticera colectorari et alegra çaitaç onguy. —Çure guzia. Machin de Çalba.

(Idoate 1969, Irigaray 1970)

Euskararen oihartzuna nabaria da, bestalde, Nafarroako Foru Nagusien testuetan (Lacarra 1957, Gonzalez Olle 1972, Irigaray 1974, Viñes 1977, eta abar) eta, lekukotasun guztiak aipatu gabe, ezaguna da 1494ko urtarrilaren 10ean Joan III.a Albretekoaren koroatze ospakizunetan Iruñeko katedralean abestu zen euskarazko kopia (Mitxelena 1964b: 100-1).

Euskararekiko arrotzasunaren erakuslerik ere badago eta, zentzu horretan, oso adierazgarria da erresumako lehenengo erregea izan zen Eneko Aritzaren izenaren interpretazioaren auzia. Erdaraz Iñigo —eta Enecho, Enego, eta abar— Arista deitu izan zaio. Arazoa, beraz, Arista/Aritza alternantzia dago. XVII. mendean geroztik, Oihenarten eskutik, Arista euskarazko (*h*)aritzaz ulertzen da, baina Erdi Aroan, ordea, erromantzezko *arista* edo *ariesta*-z (=galburutik behin aletu eta gero gelditzen dena): “el «cognomen» de Iñigo *Arista*, interpretado desde el siglo XVII hasta hoy, mediante el vasco «aritzaz», se interpretaba antes, e incluso de modo heráldico, por el romance «arista» o «ariesta». No aludiría a la fortaleza corporal del rey, comparable a la de un roble pirenaico, sino a su ardor en las luchas: inflamable como la «arista» seca, es decir, la especie de espina de la espiga de trigo, «aresta» o «ariesta» también” (Caro Baroja 1971-2, I: 120-1). Horrela izanez gero, toponimian ere ezaguna den gertaera mota baten aurrean egongo ginatke: jatorrizko hizkuntza galtzen denean hizkuntza horretan eraturiko toki-izenen esanahiaren oroimena ere galdu eta hizkuntza berriaz interpretatzen dira askotan: Lizarrerriko Deierri ibarra, adibidez, “Valle de Yerri” bezala ezagutu izan da erdaraz (Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernuak 1990: 164). Eneko Aritzaren kasuan berdin gertatuko zatekeen, hots, euskara eta, berarekin batera, euskarazko esanahiaren oroimena galduta, haritzaren ordean erdarazko “arista” gisa ulertzera igaroko ziratekeen.

Nafarroako erresumak ireki zuen hizkuntz tradizioaz beste gogoeta bat azaldu nahi dut: *euskal kulturako taldearen mundu-ikuskera eta gizarte-sistema mailako mugak*. Oroitzen bagara, oinarri teorikoen kapituluan (2. kapitulua) azpimarratu diren funtsezko kontzeptuetako bat taldearen

muga etnolinguistikoena (Fishman, Fasold) da. Hizkuntz komunitate baten iraupena besteekiko muga etnolinguistiko sendoak dituenan gertatzen da eta alderantziz, muga etnolinguistikoak ahultzen badira, hizkuntza ere atzeraka hasiko da. Mugak psikologikoak —mundu ikuskerara, sinboloak, motibazioa...—, sozialak —hizkuntz zereginak— eta fisikoak —geografikoak, demografikoak...— izan daitezke, bai Fishmanek eta bai Sanchez Carrionek erakutsi dutenez. Sendotasunaren gakoa maila psikologikoan dago, 3.2 atalean ikusi dugun Gregoireren berriemaileak ederki adierazi zuenez. Eta alderantziz, ahultasunaren sorburua ere hortxe dago, hiztunek ez badute beren barne mundua hizkuntza horrekin lotzen, gero eta zeregin gutxiagotan erabiliko baitute eta, funtzioen galeraren ondorioz, gibeleratze geografikoa etorriko da: delako toki horretan ez dute geroztik hizkuntza horretan hitz egingo.

Zein zen Nafarroako abiapuntua? Erabateko muga zegoen euskaldunen eta erromatarren artean —bizimodua, kultura, hizkuntza, erlijioa, ondasun materialak...— eta muga kultur-sistemaren barne muintetaraino heltzen zen, dudarik gabe: “separados espiritualmente —como pueden hoy vivir los europeos no ya en ciertas zonas de Africa sino en países de gran distancia cultural— vivían romanos y vascos hasta el siglo V” (Lacarra 1982: 14). Horrela segituko zuten Erromatar inperioa hondoratu osteko gizaldietan ere. Mundu bakoitzak bere gune eta bazterrak zituen eta batentzat erdigunea zena periferia zen bestearentzat, eta alderantziz. Euskaldunentzat periferia mundu erromantzekoak ziren: “erdaldunak”. Hauentzat, ordea, alderantziz gertatzen zen eta, beraiek erdigunea —“Nos”— ziren bitartean, euskaldunak “besteak” ziren, kanpoaldea.

Bi munduen arteko bereizketa onartuta, zehaztaperen gehiago egin beharrean gaude. Alegia, kultura erromantzeko lagunek eredu geografiko, politiko eta linguistiko jakin bat finkatu zuten: Nafarroako erresuma, non “gu-a”, erdigune geografiko eta soziala eta besarkatzen zuen eremua zeharo zehaztuta baitzeuden. Euskal hizkuntz komunitatearen historia egin nahi duenarentzat, berriz, galdera edo arazo historiko nagusia hau da: zein ziren orduko euskaldunentzat “gu-a” eta euren barrutia, non kokatzen zuten beren erdigune geografiko eta soziala, nola ikusten zuten euren burua orduko euskaldunek? Soziologiako terminoetan, nola irudikatzen zituzten talde-barneko eta talde-kanpoko multzoak (“intragrupo” eta “exogrupu”)? Munta handiko arazoa da, bistan denez, eta lotura du 3.3 atalaren hasieran aipatu diren “euskal kulturaren jatorrizko hastapen ideologikoeekin”, baina ez du erantzun errazik, batez ere protagonisten lekutotasun zuzenik ez dugulako. Orduko euskaldunei buruzko albisteak haiekiko harremanetan egon ziren beste herriek —erromatarrek, bisigodoek, arabiarrek, kristau erromantzetuek, Donejakueko Bidea egiten zuten erromesek...— sortutakoak dira eta euren iritziak islatzen dituzte, sekula ez euskaldunen beren buruarekikoak. Ikertzaileak egin dezakeen bide bakarra, behin galdera aintzat hartu eta gero, eta haxe da garran-

tzitsuena, eskura dituen lekukotasunetatik abiatu, hipotesiak adierazi eta apurka-apurka hariak lotuz joatea da<sup>137</sup>.

Euskal eta erdal kulturen arteko jatorrizko muga etnolinguistikoen zenbait osagai nagusi zehatz daitezke: erlijiozkoak —euskal sinesmen zaharrak/kristautasuna—, gizarte-egiturazkoak —komunalismo edo berdintzaletasuna/gizarte-hierarkizazioa— eta linguistikoak —euskara/erdara—. Funtsezko osagai haiei beste hainbat ezaugarri antropologiko eta fisiko eranstean zaizkie denen artean egokitasun handia erakutsiz, arestiko mapek erakusten dutenez: “A este respecto creo que, por ejemplo, en Navarra la distinción entre el viejo «saltus» y el viejo «ager Vasconum» es fundamental”<sup>138</sup> (Caro Baroja 1971-2, III: 295). Euskal kulturaren hasierako osotasuna aspaldian puskatu bazen ere (Barandiaran 1972), sinesmen mitologikoen aztarnek eskualde euskaldunetan, *saltus*-aren erdigunean, alegia, bizirik eta nolabaiteko koherentziaz XX. mendearen erdialdera arte iraun dute: “esta coherencia, más o menos aparente que han tenido durante el siglo XIX entero y hasta bien entrado el XX (hasta la muerte de las gentes nacidas hacia 1870, poco más o menos), las creencias mitológicas de los vascos de habla, que han tenido estudiosos afortunados y capaces” (Caro Baroja 1971-2, III: 295-6).

Dena dela, muga IX-X. mendeetan hasi zen urratzen, arestian ikusi bezala, Aragoirekiko eta franko eta karolinjioekiko harremanak zituzten ekialdeko lurraldeetan batez ere. Hasieran, gutxi batzuk izango ziren erreferentzia psikologiko-kulturalaren Rubikon-a gurutzatuko zutenak: elizgizonak, nobleak, notarioak..., monarkia berriaren aparatuaren muina, azken batean. Mundu sinbolikoa kultura erromanikoa zuten, erlijioz kristauak ziren orduko —“La primitiva Monarquía navarra es ya una Monarquía cristiana, sin duda” (Caro Baroja 1971-2, I: 237)—, eta euren nortasuna mundu horretatik eraiki zuten. Bide horretatik, etengabeko segidan, gero eta lagun gehiago izango ziren Rubikon kontzeptual-kulturala gurutzatuko zutenak, erresumaren sare administratibo eta

137. Ikus, adibidez, Caro Baroja (1980 eta 1988) eta Mitxelena (1988c, II: 538-54).

138. Hala ere, ez dugu ahaztu behar biak, *saltus*-a eta *ager*-a, zirela baskoien lurraldea, ez bakarrik *saltus*-a, eta, zentzu horretan, hemen, Aragoi eta Lleidan bezala, fisikoki eta geografikoki oso desberdinak ziren eskualdeak besarkatzen zituen leinu-sistema zaharrarekin egiten dugu topo: “Desde el punto de vista geográfico Navarra, menor que el territorio de los vascones, se ajusta, como Huesca y hasta cierto punto Lérida a la vieja organización del espacio gentilicio en zonas fisiográficamente muy distintas” (Caro Baroja 1988: 65). Berdin gertatzen zen Autrigoi, Karistiar eta Barduliar talde euskaldunen kasuan: “Si consideramos el ámbito que se asigna a los «autrigones», «carísticos» y «várdulos» en las tablas de Ptolomeo advertiremos que tampoco corresponde, en cada uno de los casos, a una sola región natural, sino, por lo menos, a *dos*, diferenciadas por el clima, hidrografía y orografía, separadas por la divisoria de aguas, entre la vertiente atlántica y la mediterránea” (ibid.: 65).

erlijiosoan sartzen zirenetik hasita. Ondorioak erlijiosoak, sozialak eta linguistikokoak izan ziren. Erlijio mailan, kristautasunak, euskaldunen sinesmen zaharren munduaren pitzadura eta mentalitate osoaren berregokitzapen orokorra ekarri zuen, zehatz-mehatz neurtzen zaila den bilakaera baten baitan. Gizarte-antolakuntza ere euskal taldeen berdintasunezko ohiturekin —egungo komunak eta batzarreak, adibidez, beren oihartzuna bide dira— inolako zerikusirik ez zuten gorte karolinjio eta hispanobisigotikoen eredu feudalei jarraikiz bideratu zen. Hizkuntza mailan, urratsa egiten zuten lagunek hizkuntz zeregin nagusiak latinez edo erromantzez betetzen zituzten. Urrats psikologiko eta sozialaren ondoren urrats geografikoa etorri zen, erresumaren egiturak hedatu ahala, beraiekin batera erromantzea hedatzen zen eta. Erdi Aroan eraiki zen Nafarroa, beraz, erdaldunak erdigunetzat eta euskaldunak bazterreko taldetzat jotzen zituen gizartea zen.

Testuinguru honetan kokatuta, zail samarra da *Nafarroako konkistaren (1512) hizkuntz ondorioez* mintzatzea. Gaia aipatu besterik ez dut egingo. Konkistak —estatu independente izatetik Gaztelapeko erregeorderria izatera igaro izanak— maila guztietako ondorio larri eta sakonak izan zituela historialariek onartzen duten zerbait da. Politika mailan, gero eta parte-hartze handiagoa izango zuten nafarrek aurrerantzean Espainiako zereginetan (Caro Baroja 1971-2, I: 101). Aldi berean, “a partir del siglo XVI Navarra ha pasado a ocupar un lugar secundario en la serie de reinos que integran la corona española; ya no depende de Navarra la política internacional de la monarquía; el reino está libre de peligros exteriores y los reyes no residen en Navarra” (Lacarra 1963: 240). Gaztelako koroaren zati bihurtzeak goi mailako administrazio pertsonalgo berria ekarri zuen. Beren postuengatik —erregeordetza, epaitegietako arduradunak, apezpikuak eta elizgizonak, militarrak...— oso eraginkorrak, Nafarroako ohiturekiko arrotzak, gaztelaniaz baizik hitz egingo ez zuten lagun haiek bultzada berria emango zioten hizkuntzaren hedapenari (Jimeno Jurio 1995: 58-9). Espainoltze orokorra, halaber, begi-bistakoa da: “Es evidente que desde 1521, en que se establece una administración castellana pacificadora, con el Conde de Miranda como virrey, Navarra ha ido españolizándose, en este sentido de los nacionalismos modernos” (Caro Baroja 1971-2, II: 74).

Konkistaren beste ondorio bat Nafarroaren zatiketa izan zen. Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beherea elkarrekin zeudelarik nolabaiteko osotasuna zuen erresumak eta alde bietako nafarren arteko lotura, praktikoa nahiz simbolikoa, administrazio aparatu eta hizkuntzaz gain —Donibane Garaziko ordezkariak ere parte hartu zuten 1329ko Gorteetako *lengoage de Navarra* gogoan izan—, euskarak bermatzen zuen. Konkistatik aurrera, ordea, desberdinak izango ziren gauzak.

Bestalde, kontuan hartzekoa da Joxe Azurmendiren gogoeta, nire iritzia bestelakoa izan arren. Hainbat herri hizkuntzaren garapena

Berpizkunde garaian eratzten ari ziren estatu berrien inguruan gertatu zela jakinik, eta Nafarroa Beherearen XVI. mendeko historia eta hor euskarak hartu zuen lekua gogoan edukita, Nafarroa konkistatua izanarik Euskal Herriari aukera hori galerazi ziola uste du Azurmendik: “Nafarroarik ez, Ernazimenturik ez. (...) Nafarroa izan zitekeen euskara hizkuntza ofizial deklaratuko zigun estatu euskaldun bat. Baina hori ez da gertatu. Eta ezin gerta zitekeen, posible zen momentuan Espainiak konkistatu egin zuen eta” (1992b: 507). Esanak esan, nire iritziz Nafarroako konkistak ez zuen hizkuntz arazoan norabidean aldaketa kualitatiborik ekarri. Erromantzearen aldeko apustua askoz lehenagotik egin zegoen Nafarroako estatuan eta nafar erromantzeak berak ere gaztelaniaren antz gero eta handiagoa hartuz joateko ez zion konkistari itxaron behar izan: jadanik XIV. eta XV. mendeetan “se fue castellanizando progresivamente” (Cierbide 1990: 160), konkistarekin batera gaztelaniaren baitan urtuta gelditu arte<sup>139</sup>. Orobat, elebitasuna orduko oso aurreratua bide zegoen Iruñean: “durante el siglo XV la población pamploesa, excepto un sector de vascongados puros, era mayoritariamente bilingüe” (Jimeno Jurio 1995b: 58). Gaztelako koroaren mende jarri izanaren hizkuntz emaitza, nire ustez, aurretiaz zetozen joerak norabide berean areagotzea izan zen nagusiki. Nafarroako erresumak independente izaten jarraitu izan balu ez dakigu zer gertatuko zatekeen, ez eta, Azurmendik iradoki duen bezala, euskal pizkunderik ezagutuko ote genukeen ere, baina gauzek egiaz eraman zuten bilakaeran, ez dirudi alde kualitatiborik zegoenik Nafarroako konkista baino lehenagoko eta konkista ondoko hizkuntz jarrera eta portaeretan.

Zentzu horretan, ez da harriztekoa XVII. eta XVIII. mendeetako herriko eskolen zeregina irakurtzen eta idazten erakustea zela adierazten zenean, 1617ko Gorteen XXXII. legean, adibidez, gaztelaniazko alfabetatzeaz ari zirela azpiulertzea. Berdin alkate edo herriko beste zenbait kargu publiko izendatua izan ahal izateko baldintzat 1628ko Gorteen XXX. legeak irakurtzen eta idazten jakitea ezarri zuenean (ikus 7.4.4 atala).

Nafarroako erresumari buruzko gaia borobiltzeko, azkeneko gogoeta: *Nafarroako monarkiaren “filosofia”*. Euskal Herriaren izaera historikoren ezaugarri nagusietako bat bere ekimenen aurpegi bikoitza deituko genukeena izan daiteke. Euskal Herriak dinamismo berezia erakutsi du zenbait aro historikotan, baina bere baitatik sortutako dinamismo horrek barne zatiketaren hazia ere eraman du berarekin. Hau garbi dago XIX. mendeko industrializazioaren kasuan, sustraiak Erdi Aroaren amaie-

139. Nafarroako erromantzearen desagerpenaz ikus, adibidez, Lacarra (1975: 454), Cierbide (1986: 146), Mitxelena (1987: 84), Jimeno Jurio (1995: 56-7) eta, halaber, autore hauek aipatzen duten bibliografia.

rako eta Aro Berriaren hasierako itsasketa, meatzaritza eta burdingintza industrietan (Caro Baroja 1978: 377) dituen. Gauza bera esango genuke Nafarroako erresumaz. Baskoien baitatik sortua, Nafarroako erresuma euskaldunen ekimenaren fruitu historikoa dela esan daiteke, baina, aldi berean, abiapuntuko talde etnikoarekiko autonomia handia erdietsi zuen berehala. Bere kasa jardun zuen, bere interesen alde, eta, askotan, interes haien defentsak hala eskatzen bazuen, jatorrizko nafarren aurka borrokatuz: “La dinastía navarra constituida primero, no es ya tanto una dinastía de raza, como una dinastía en la que priman los intereses de la institución real (...). Se funda, sí, en la existencia de gentes más allegadas: pero no vacila en actuar sin tenerlas en cuenta o contra esas gentes” (Caro Baroja 1971-2, I: 99). Halaber, “en Navarra misma, es claro que en algunas ocasiones (...) los mismos reyes se enfrentaron, a veces con parte de sus súbditos. Aquí, concretamente, en momento memorable<sup>140</sup>, con la población indígena, para favorecer a los francos” (ibid.: 233). Oinarrizko taldearekiko aldentzea zerbaitetan garbi gelditu bada hizkuntzaren alorrean izan da, Nafarroako erresumaren sakoneko izaera edo “filosofía” agerian utziz: “La «Filosofía» que puede extraerse del estudio de tal monarquía es muy peculiar. No fue una monarquía dominadora desde el principio sobre razas extrañas a los que la fundaron (...), sino una monarquía fundada sobre la existencia de un núcleo étnico básico, que pronto vive con mucha autonomía dentro de ella: porque resulta que hasta en el empleo de las lenguas el vascón, el navarro de vieja cepa, se inhibe de las exigencias cancellerescas” (ibid.: 100). Inhibizioaz, ez dut uste euskaldunak Gortearrikiko inhibituko zirenik, Gortea euskaldunetikiko baizik, baina, gainerakoan, ezin gardenagoak dira Caro Barojaren hitzak.

### *Laburpena eta ondorioak*

Euskararen bilakabidea, euskal hizkuntz komunitatearen bilakabidea, alegia, luzaroan baldintzatu dutelakoan, Nafarroaren historiatik bi alderdi azpimarratu ditut: Nafarroako etnokulturazko barne aniztasun historikoa eta Nafarroako erresumaren hizkuntz tradizioa.

Etnokulturazko barne aniztasun historikoari dagokionez, Nafarroak eremu geografiko, kultural eta linguistiko desberdinak dituela eta bakoitzak —Mendialdea, Erdialdea eta Erribera— bilakaera historiko berezia izan duela erakusten saiatu naiz. Eremu hauei Nafarroako Ekialdea gehi geniezaieke. Halaber, oso handia da eremu hauen eta eus-

140. Nafarrerriko gerran (1276). Ikus, orain, Anelier de Tolosa, G. (1995). *La Guerra de Navarra-Nafarroako Gudua* (2 liburuki). Iruñea: Nafarroako Gobernu.



kararen eremu historikoen arteko egokitasuna, Weinreichen hipotesia baieztatuz.

Eskualde hauek guztiak, gehi egungo Huescako zati bat, baskoien eremu historikoaren parte ziren. Horrek ez du esan nahi ordea denak euskaldunak zirenik, Mitxelenak esan duenez: “puede darse por seguro (...) que ni todos los *uascones* eran vascófonos ni todos los vascófonos era *uascones*” (1988c, II: 539). Baskoien peko batasuna Erdi Aroan puskatu egin zen ondoren beste egitura bat sortzeko: Nafarroako erresuma. Bertan zati bat, Mendialdea eta Erdialdea, etniko eta linguistikoki euskalduna izan da eta bestea, Erribera, berriz, ez, hizkuntza mailan bederen, baina denak estatu edo egitura politiko berean —Nafarroan— bilduta eta berarekiko atxikimenduan elkartuta egon dira. Nafarroako erresumak, hala ere, hizkuntzen arteko oreka puskatu eta erdara, erromantzea, hautatu zuen bere hizkuntzatzat, Ralph Fasoldek (1992: 194) hizkuntz komunitatearen eta komunitate politikoaren arteko harremanez aurkeztutako eredia Nafarroan bete-betean gauzatu zela baieztatuz (ikus 2.3.2 atala). Eremu euskaldunean, hala ere, mailaketa egin beharra dago, euskal kulturazko ezaugarrien pilaketarik trinkoena Mendialde atlantiarrean gertatzen baita, euskara eta erromantzearen arteko ukipen eremua izan den Erdialdean euskal kulturaren aztarnak nahasiagoak agertuz. Mitxelenaren euskal lurraldearen gunea/ertzak eta Caro Barojaren klimax/bazterrak bereizketek mailaketa hori iradokitzen digute. Euskararen iraupen edota bizitasuna euskal kulturaren erdiguneko eremuetan gertatu da eta galera, berriz, ukipen eremuetan, Erdialdean eta ekialdean, XIX. mendeko bilakabideak erakusten duenez. Bi gertaeren arrazoiak eremu bakoitzaren izaera linguistiko-kultural desberdinetan aurki daitezke nire ustez. Ez gaude, askotan sinpleki uste izan denez, galera-bilakabide lineal edo beti berdin baten aurrean.

Bigarren gaiari helduz, Nafarroako erresumak finkatu eta lanaren epean —XIX. mendearen azkenaldia eta XX.aren lehenengo hamarkadak— indarrean zegoen hizkuntz tradizioa 1329ko Gorteetako *lengoage de Navarra* esapideak laburbiltzen du hobekien. Hau da, Nafarroa batez ere egitura politiko bat baldin bada, egitura horretako gidariek hizkuntz hautaketa garbia egin zuten, erromantzea, eta hori hartu zuten Nafarroako hizkuntzatzat. Euskara, ordea, *lingua navarrorum* besterik ez zen erresumako eliteen begietara, nafarra, baserritarra, *rusticus* edota bilaua sinonimoak izanik Erdi Aroko hizkeran, egitura feudalean deus ez zirenen hizkuntza, alegia. Bereizketa linguistiko-soziala zen, hortaz, eta indoeuroparren ideologiaren azterketan erabilitako terminologiaz baliatuz, lehenengo eta bigarren funtzioetako ordezkarien hizkuntza nagusia erromantzea eta hirugarren funtzioetakoena euskara zirela esan dezakegu neurri handi batean, Gorte mailan ere euskararen presentziaren lekukotasunak egiazkiak izan arren.

Nafarroako erresuma baskoiengandik sortu zen IX. mendean, baina bere talde nagusiek laster, 905. urtean Ximeno dinastia nagusitu zenetik batik bat, eredu erromantzeetara jo zuten: kultura orokorra, erlijioa, gizarte-antolakuntza, egituraketa politikoa... eta hizkuntza. Leire-Zangoza eta Nafarroako ekialdetik, eskualderik erromanizatuenetik, abiatuta, Erdialde osoa hartu eta Errioxaraino hedatu zen erresuma hamarkada gutxitan. Gortearen egoitza Naxerara eraman zuten eta erresumaren egituren zabaltzearekin batera hizkuntzarena, nafar erromantzearena, ere egin zuten. Gorteko erromantzea lurralde batzuetan, Leire-Zangoza, Erribera eta Errioxan, bertako jendeen ama hizkuntzarekin bat etorriko zen, nonbait, baina beste batzuetan, ordea, gainerako Erdialdean eta Mendialdean, ez, eta haietan hedapena eliteengandik herri xehearengana doan bide soziolinguistikoko klasikotik zabaldu bide zen. Horrela, ez da harritzekoa elebitasunaren aztarnak zaharrak izatea Erdialdean.

1329ko Gorteetako aktek, *lengoage de Navarra*-tzat erromantzea jo zuten berberik, Nafarroako Estatuaren oinarri sozio-geografikoak eza-gutzeko bidea eman digute, bertan zigilua jarri zuten herrien zerrendagatik. Herri gehien-gehienak Erdialdekoak eta Erriberakoak ziren. Mendialdeak, aldiz, ez zuen ia ordezkariarik Nafarroako Gorteetan. Jatorri geografiko-linguistikokoaren arabera, eremu erdaldunetik 30 (% 60) herri joan ziren Gorteetara eta eremu euskaldunetik 20 (% 40), orduko herri askoren izaera linguistikoa eztabaidagarria izan daitekeela jakinik. Aldi berean, Erdialdea gehienbat elebiduna zela gogoan izanda, zenbaki horiek ez dute berez esan nahi eremu euskalduneko herri guztietako ordezkariak euskaldunak zirenik, nahiz eta gehienek euskaraz jakingo zutela uste izatekoa izan. Edozein modutan ere, asko izango ziren ordezkari euskaldunak, hau garbi dago.

Alegia, eta hau Nafarroako hizkuntz historiaren muina da, Nafarroa erdaraz, erromantzez, eraikitako estatua zen, erdarari bere garapen soziolinguistikoko osoa bermatzen zion egitura politikoa, euskarari inolako begirunerik erakusten ez zion bitartean. Nafar gizartearen integrazio-baldintza erdaraz jakitea zen: euskaldun bezala ez zegoen ia deus egiterik Nafarroa mailan, euskaldun hutsa izateak automatikoki bazterketa zekarren berarekin eta alde horretatik euskaldunak mendeko taldea zirela esan daiteke. Nafarroako estatuak bere muga geografikoen barrutiko bizilagunen onarpena erdiesten zuen neurrian, eta badirudi Nafarroaren onarpen maila handia izan dela aspalditik (ikus, orobat, 6.4.6 atala), bizilagun haiek, euren jatorrizko hizkuntza edozein zelarik ere, antolaketa politikorekin batera bere hizkuntza ere onartzen zuten inplizitoki. Bazekiten beren bizitzaren une batean edo bestean, edo askotan, topo egingo zutela erromantzearekin, eta hizkuntza horretan jakiteak, ahal izanez gero, ez ziela kalterik egingo gero eta barneratuagoa izango zutela pentsa dezakegu. Nafarroa "tranpa" historiko bat izan da euskaldunentzat, nonbait.

Orduko Nafarroan euskarak zuen presentzia, baina, ukaezina da eta naturaltasun handiaz islatzen da hainbat agiritan: Foruen bildumetan, errege-idazkarien gutun pribatuetan eta abar.

Hizkuntzen bilakaeraren ikuspegi antropologikoa deitu dugunaren ildotik, arreta berezia jarri dugu euskal kulturako munduaren muga etnolinguistikoen arazoan. Jatorrizko mugak maila guztietakoak ziren: erlijiozkoak, gizarte-egiturazkoak, geografiko-fisikoak eta hizkuntzazkoak. Garbi dago zenbat eta muga horiek ugariagoak eta sendoagoak izan gero eta aukera gehiago dagoela euskarak iraun dezan. Euskararen Mendialdeko eskualdeetako iraupenak direlako muga haiei eutsi izanarekin du zerikusia. Bestalde, mugen arazoan erabakigarriena alderdi psikologiko-kontzeptuala da, hots, zein den hiztunen erreferentziako kultura, euskalduna ala erromantzea. Hau da, euskarak iraun badu giza-multzo handi batek euren burua euskal kulturatik irudikatzen duelako izan da. Euskal hizkuntz komunitatearen historia egin nahi duenarentzako galdera nagusia, beraz, hau da: nola ikusten zuten euskaldunek euren burua? Alegia, zein ziren euskaldunen irudikapen kolektiboaren, halakorik bazen, “gu-a”, esparru geografikoa eta erdigune fisiko eta soziala?

Galdera erantzunik gabe gelditzen da, baina, oro har, garbi ematen du orduko euskaldunentzat erdararen mundua existitu bai, baina kanpoan zegoen zerbait zela. Eta alderantziz, higadura edo atzerakada mundua erdaratik irudikatzen igaro zirenean hasi zen. Hauxe da, hain zuzen ere, Nafarroako eliteek egin zuten urratsa: euren nortasuna erreferentzia kultural erromantzeen inguruan eraikitzea, eta beren buruarekin batera, Nafarroako gizarte osoa itxuratu zutela esan daiteke. Kultura erromantzea= Mendebaldeko kultura= indoeuropar kultura ekuazioa ez ahaztu.

Nafarroako konkistaren (1512) hizkuntz ondorioak ukaezinak dira, baina batez ere Nafarroak aurrez hartuta zuen norabidea areagotzea izango zirela uste dut. XVII. eta XVIII. mendeetan herrietan eskolak irekitzen zituztenean gaztelaniaz irakurtzen eta idazten erakusteko izatea edo 1628ko Gorteen alkate izan nahi zuen orok alfabetatua, gaztelaniaz, noski, egon behar zuela eskatzen zutenean, norabide beraren segida dela iruditzen zait.

Azkenik, beste bi arazo ukitu dira: Nafarroa Beherearen galera eta Nafarroako monarkiaren “filosofia”.

## 4. EUSKARAREN GEOGRAFIA ETA DEMOGRAFIA NAFARROAN: 1863KO ETA 1936KO EGOERAK

Hizkuntzaren historia soziolinguistikoaren funtsa A garaiko egoera abiapuntutzat eta B garaikoa helmugatzat hartu eta, bien arteko alderaketa eginez, bilakaera azaltzen saiatzea baldin bada, zeregin honetan aurkitzen dugun arazo metodologikorik handienetako bat A eta B egoera horien berri fidagarritasunez jakitea da, arestian ohartu bezala (ikus 2.3.2 atala). Gutxi dira iraganeko une jakin batzuetako egoerak zehazki ezagutzeko bidea zabalik duten hizkuntzak eta, zorionez, horietako bat euskara dugu.

Lan honen kasuan, hasierako eta amaierako mugarri-urteetako euskararen hedapen geografikoa zehaztasun osoz ezagutzen da Bonaparte printzearen eta Angel Irigarayren (1956) ikerketei esker, hurrenez hurren. Horietan oinarrituta, oraingo kapituluaren zeregina bikoitza da: euskararen *eremuak* erakutsi eta hizkuntzaren *demografiaren* zenbaki nagusiak atera eta aurkeztea.

### 4.1 1863ko egoera geografikoa

Euskararen 1863ko eta, oro har, 1860ko hamarkadako egoera ezagutzeko iturri zuzena Bonaparte printzearen<sup>141</sup> mapa eta idazlanak ditugu. 1863. urtea mapak data hori daramalako diot, baina, Lacombe eta Yrizarren iritziak ontzat emanez (ikus 1.2.1 atala), mapa Bonapartek 1856 eta 1869 bitartean Euskal Herrira egin bost bidaien emaitzetan oinarrituta<sup>142</sup> eta 1870 eta 1871 urteetan zenbait laguntzailerengandik

---

141. Louis Lucien Bonaparte printzea (Ingalaterra, 1813-Italia, 1891) euskalaritza modernoaren bideak urratu zituen hizkuntzalari atzerritarra da. Napoleon Bonaparte enperadorearen iloba zen. Berari buruzko argibideak nonahi aurki daitezke eta ez ditut errepikatuko.

142. Adibidez, Nafarroako euskararen muga 1864. urtean marraztu zuen, Bruno Echeniqueren laguntza erabakigarriaz baliatuz, Bonapartek Echeniqueri 1864ko urtarilaren 9an eta abenduaren 31n igorri eskutitzek (Urquijo 1910: 271 eta 283) erakusten dutenez. Are gehiago, Bonaparteren azken gutun horretatik lana Echeniquerena izan zela uler daiteke: "Vos deux lettres, l'une du 18 Nov. et l'autre du 17 de ce mois [abendua] m'ont fait le plus grand plaisir, surtout la dernière accompagnée du fragment de carte. Que de peine ne devez-vous pas vous être donné pour établir les deux lignes de démarcation!" (ibid.: 283).

jasotako albisteez osatuta dago eta, honenbestez, 1860-70 bitarte osoko egoera islatzen duela esan daiteke.

Bestalde, Bonaparteren ikerketak Euskal Herri guztirako balio handikoak badira, bereziki baliagarriak dira Nafarroari dagokionez, besteak beste, Nafarroarekiko erakutsi zuen jakinminagatik, Arturo Campioni 1880ko urriaren 12ko eskutitzean aitortu zionez: “les dialectes, sous-dialectes et variétés du basque usité dans la Navarre espagnole, m’ont intéressé plus, peut-être, que ceux des autres pays” (Lacombe 1932: 193). Eta ideia bera adierazi zion hurrengo urtean ere, 1881eko otsailaren 15eko eskutitzean (Lacombe 1933: 306).

Diogunaren lekuko Bonaparte printzearen bidaien ibilbideak dira. Izan ere, bost bidaietatik lautan etorri zen Nafarroara —1856, 1857, 1866 eta 1867. urteetan— eta azkenekoan ere —1869.ean— Estatu espainoleko egoera politikoa<sup>143</sup> zela-medio muga ez gurutzatu arren, Donibane-Lohizunen gelditu eta Aezkoa, Zaraitzu, Erronkari, Gares, Elkano, Goñi eta Oltzako laguntzaileekin elkarrizketatuz Nafarroako euskarari buruzko argibide ugari jaso zituen (Arana Martija 1994: 435).

Bere mapan bi gauza erakutsi nahi izan zituen Bonapartek: euskararen orduko mugak eta burutu berria zuen euskalkien sailkapena, eta egin, ederki egin zituen biak. Hizkuntzaren hedapenari dagokionez, zehaztasun eta zorroztasun osoz marraztu zituen Bonapartek euskararen eremuak, Bonapartek berak (1876: 1-3) Abel Hovelacquerekin izandako ezatabaidetan aldarrikatu eta orduko euskalariak, Arturo Campioni (1881: 242) eta Julien Vinson —“L’exécution de l’une et de l’autre [maparen bi argitalpenena] est admirable” (1983: 321)—, besteak beste, baieztatu zuten. Iritzi berekoak dira gaur egungo ikertzaileak ere, Angel Irigaray (1974: 23), Pedro Yrizar (1981: 243) edo Koldo Zuazo (1997: 87), kasu, herri jakin batzuei buruzko zuzenketak (Irigaray 1974: 27; San Martin 1985) gorabehera.

Eremu euskaldunean Nafarroako euskararen historiarako guztiz garrantzitsua den beste bereizketa bat egin zuen Bonapartek: euskara gehiengoan zegoen eskualdeen eta gutxiengoan zegoenen artekoa. Hots, Bonaparteren oinarritzko irizpidea aztertzen ari zen herriko jatorritzko

---

143. Estatu espainoleko egoera politikoa eragin zizkion eragozpenak José Vilallongak (1953-7: 63) aipatu zituen eta ulertzekoak dira. Isabel II.aren monarkia-  
ren erorketa eta 1868ko Iraultzaren garaia ziren haiek. Erregina erori berriak lotura  
estua zuen Frantziako Napoleon III.aren eta bere ihesaldian Bidasoako muga zehar-  
katu eta haren babesa jaso zuen Miarritzen (Tuñon de Lara 1976, I: 266). Gainera,  
Bonaparte printzea Napoleon III.aren lehengusua zen eta honek eman zion urteroko  
diru-laguntzaz bizi izan zen harik eta Frantzia ere Inperioa erori eta 1870. urtean III.  
Errepublikak diru-laguntza hura kendu zion arte. Beraz, nahasketa hori guztia zela eta,  
ez da harrizkekoa Bonaparte printzea 1869. urtean Hegoaldera ez igaro eta Donibane-  
Lohizunen gelditu izana.

bizilagunen hizkuntza zen eta, orduan, behar ziren egiaztapen guztiak, frankotan oso neketsuak, egin ondoren, herria euskaldunen proportzioen arabera —gehiengoa edo gutxiengoa: “Il ne peut donc être question que de majorité et de minorité” (Bonaparte 1876: 3)— multzo batean edo bestean sailkatzen zuen. Koloreen indarrak baliatu zen Bonaparte mapan bi eremuak azaltzeko: kolore bizia euskara gehiengoan zegoen aldeetarako eta kolore apalagoa gutxiengoan zegoenetarako. Azkeneko eremu hau Nafarroaren berezitasuna zela esan daiteke, Ipar Euskal Herrian ez baitzegoen halakorik eta Hegoaldean, Arabako zati txiki batzuk kenduta, Nafarroan izan baitzuen bere adierazpenik nabariena.

Margo ahulaz adierazitako eremua, ukipen eremua, alegia, euskararen hego marratik Iruñetik hamar bat kilometro goraino iristen zen, Gares, Iruñerri<sup>144</sup> osoa, Agoitz inguruko ibarrak eta Erronkari ibarraren beheko zatia, Burgi, bere baitan hartuz (ikus 19. irudia: “Euskararen muga 1863. urtean”).

Ukipen eremuaren esanahi soziolinguistikoa, hala ere, ez da uste izan den bezain argia. Lehenengo begirada batean euskara Nafarroako Erdialdean atzerakada azkarra pairatzen ari zela nabarmentzen zaigu, eta XIX. mendeko galeraz hitz egiten dugunean barruti horretan gertatutakoaz ari gara hain zuzen. Izan ere, Bonapartek berak garbi zuen euskara minorian zegoen hainbat tokitan, Iruñeko inguruetan, kasu, hil zorian —“à l'état d'agonie” (Urquijo 1910: 272)— zegoela. Euskara eta erdarraren arteko lehian erdara irabazten ari zen lurraldea zen margo apaleko eremua, beraz, hau garbi dago, baina ukipen egoera hura noiztik zetorren ez dakigu zehatz-mehatz. Esate baterako, Frantziako enbaxadoreak 1807. urtean Hegoaldeko euskararen muga adierazten zuen mapa bat (Oyharçabal 1992a) igorri zion bere Barne Ministroari. Muga Iruñetik gora marratu zuen eta Bonaparteren mapako ukipen eremu ia osoa, 1807.eko mapan euskalduntzat jo zen Agoitz izan ezik, euskararen esparrutik kanpo utzi zuen. Halaber, Añibarrok (1748-830) 1820.aren<sup>145</sup> inguruan egin zuen herri euskaldunen zerrenda (Villasante 1966) bat dator funtsean Frantziako enbaxadorearen maparekin (ikus 20. irudia: “Euskararen muga 1807-1820 urteetan”). Hau da, badirudi 1807-20 urteetan jadanik oso elebiduna zela Nafarroako alde hori, enbaxadorearen mapan zein Añibarroren zerrendan erdalduntzat jota agertzeraino

144. Iruñerriarena kontzeptu geografiko zehatz samarra da. Zentzu hertsian Iruñea inguratzen duten mendizerek besarkatutako eskualdea da (Askoren artean 1977: 10) eta Atarrabia, Barañain, Beriain, Burlata, Iruñea eta Uharte udalerriez eta Antsoain, Galar, Itza, Oltza eta Zizurko zendeen zati batez osatua dago.

145. Añibarroren eskuizkribuak ez darama ageriko datarik eta haren argitalpenaz arduratu zen Villasantek bi data iradoki zituen Añibarroren zerrendarentzat: 1820 inguru (1979: 220) eta, zehaztapen gehiago gabe, XIX. mendearen lehen herena (1966: 45).



19. irudia. Euskararen muga 1863. urtean (Iturria: Bonaparteren mapa, 1863).



20. irudia. Euskararen muga 1807-1820 urteean (Iturriak: Oyharçabal 1992a; Villasante 1966).



iritsiz, eta, 3.5 atalean Nafarroako Erdialdeko mendetako elebitasunaz erakutsi dena gogoan izanik, baliteke XIX. mendean galdu zena aspaldidanik elebidundutako gunea izatea. Alegia, puskatu edo galdu zena, egitura euskaldun bat baino gehiago, euskararen eta erdararen artean nolabaiteko oreka gordetzen zuen eredu edo gizarte-egoera izan zela esango nuke nik, Campionen “El último tamborilero de Erraondo” (1983, II: 79-89) ipuinaren irakurketa sinplista batek, adibidez, aditzera eman lezakeenaren aurka.

Euskararen hego mugak honako hauek ziren Bonaparte printzearen maparen arabera (ikus 19. irudia): Ziordia, Ergoiena, Gares, Garinoain, Orisoain (Orba ibarrekoa), Ibargoiti, Urraul Goiti, Arrakas Goiti (Nabaskoze udalerrikoa<sup>146</sup>) eta Burgi. Lizarra, Tafalla eta Zangoza, beraz, eremu erdaldunean zeuden eta Altsasu eta Agoitz euskaldunean, berriz.

*Iruñea* ere eremu euskaldunean zegoen, baina hiri erdalduntzat jo zuen Bonapartek<sup>147</sup>, euskararen barrutian uharte erdaldun gisa agertuz. Hau da, herri euskaldunez, edo elebidunez, inguratuta zegoen Iruñea eta, gainera, bazituen bizilagun euskaldunak, baina euskaldun hauek ez omen zirenez jatorriz iruindarrak —“Pampelune présenterait aussi des Basques; mais nous ne les comptons pas puisque ils ne sont pas de Pampelune” (Urquijo 1910: 272)— edota han erabiltzen zen euskara, Bilbon eta Gasteizen bezala, bakarrik herrietatik etorritako lagunekin izaten omen zenez (ibid.: 254), ez zegoen Bonaparteren ustez euskalduntzat hartzerik. Areago, erdalduna izateaz gain, Iruñeak gune erdalduntzailearen zeregina betetzen zuela behin baino gehiagotan iradoki izan du Bonapartek: “Je considère (...) les localités de Burlada, Ansoain, Villaba, Arre etc. comme conservant encore un souffle de vie basque, quoique jusqu’à présent elles aient été regardées tout-à-fait castillanes à l’instar de Pampelune” (ibid.: 283). Halaber, aipatutakoak baino apur bat gorago dagoen Olabe herria euskalduntzat jo zuen Iruñearen eragin-

---

146. *Udalerría* eta *herria* bereizten dira. Udalerría udalak administratzen duen barrutia da, baina Nafarroako udal anitz konposatuak dira —administrazio-barrutiak haranetan biltzen diren kasuetan, esate baterako— eta beren baitan hainbat herri edo kontzeju biltzen dituzte. Adibidez, Larraun udalerría hamasei herrik —Uitzi, Baraibar, Astiz... tartean— osatzen dute. Beste udalerrí batzuk, ordea, bakunak dira —herri bakar batez osatuak— eta horietan udalerrí eta herria berdintzen dira, Leitza, adibidez.

Demografi kalkulua udalerría egin ditut, baina ohiko aipamenetan, ordea, herrien izenak agertzen dira maizenik, udala edo kontzejua (edo, Baztanen bezala, herri hutsa) den bereizi gabe —Uitzi, Leitza, Elizondo, Atarrabia... gisako zerrendan, adibidez—. Bereizketa axola duten kasuetan soilik adieraziko dut.

147. Iritzi berekoa zen Arturo Campion, bera jaio zeneko (1854) Iruñea guztiz erdaldunduta zegoela esan baitzuen: “Yo nací en Pamplona, cuando ya esta insigne ciudad había completamente renegado de su lengua nativa” (1907b: 674).

ingurutik at gelditzen zela argudiatuz: “Quant à Olabe je crois qu’il est basque, car il doit être assez éloigné de Pampelune” (ibid.: 275).

Iruñearen eragina zela-eta, bitxiak eta argigarriak dira hiriburutik urrun ez dauden Añezkar eta Etxeberri herriei buruzko oharra, euskararen indarrean erakusten duen mailaketagatik. Horrela, bere bigarren bidaian, 1857.eko urriaren 21ean Iruñetik Arabako Agurainerako bidean Añezkar —Iruñetik 10 kilometrotara— eta Etxeberri —Iruñetik 21 kilometrotara— herriak, besteak beste, zeharkatu zituen Bonapartek. Añezkarri buruz ohar hau idatzi zuen bere egunkarian: “Castellano y vascuence”. Aurrera segitu, Irurtzun igaro eta Etxeberrira iritsi zen. Hemen, ordea, “Vascuence y castellano” idatzi zuen (Arana Martija 1994: 437). Hots, zenbat eta Iruñetik urrunago, gero eta biziagoa zen euskararen indarra.

## 4.2 1863ko euskararen demografia

Euskararen historiari buruzko ikerketarako erabiltzen ari garen ikuspegi lehentasuna alde kualitatiboetara —hizkuntz komunitatearen sistema, baloreak eta egitura, hizkuntz jarrerak eta hautaketak, komunitatearen ugalketa...— ematen zaie, 2. kapituluaren agertu denez, eta haiek osatzen dute azalpenaren muina, baina, euskararen historiari oinarri objektiboak ematearren, azterketa kuantitatiboek ere badute beren tokia<sup>148</sup> lan honetan.

Hizkuntz komunitatearen neurria —bere hiztunen kopurua nahiz alboko hizkuntzetakoekiko proportzioa, bere demografia, azken finean— garrantzi handiko faktorea da iraupen eta ordezkapen prozesuen azterketan, eta Ralph Fasolden ustez (1992: 120), esate baterako, datu demografikoak ezinbestekoak dira soziolinguistikazko lanetan. Bi dira behintzat eskala handiko demografiako argibideak erabiltzearen onurak: denboran zeharreko joerak erakusten zaizkigu eta herri edo komunitate desberdinen arteko alderaketa egitea ahalbidetzen da (ibid.: 120). Bestalde, datu demografikoak bereziki erabilgarriak dira hizkuntz aniztasunari, hizkuntzaren iraupen eta ordezkapen bilakaerei eta hizkuntz jarrerei buruzko lanetan (ibid.: 133), gurea bezalako ikerketetan, alegia.

---

148. Estatu espainolean teknika kualitatiboen —teknika estrukturalak, bere terminologia— aitzindaria izan zen Jesus Ibañez soziologoak teknika kuantitatiboen —estatistiko edo distributiboak— beharra ere nabarmendu du (1992: 27, 10. oinoharra), lehentasuna, hala ere, kualitatiboetara emanez: “La tecnología estadística (distributiva) tendrá su lugar propio subordinada a la tecnología lingüística (estructural), pues contar unidades es una operación posterior y lógicamente inferior a la de establecer identidades y diferencias” (1992: 43).

Azterketa demografikoen iturria normalean errolda edo zentsoak izaten dira, baina horko datuek, fidagarritasunez erabiliak ahal izateko, *baliozkotasun-baldintzak* bete behar dituzte: kanpo-egiaztapena eta barne-adostasuna —“external verification and internal consistency” (ibid.: 120)—. Hots, kanpo-egiaztapena deiturikoak esku artean ditugun zenbakiak eta egiazko egoera bat datozela kontrolatzen du eta barne-adostasun edo koherentziak, berriz, errolda bereko zatiek elkarren arteko logika gordetzen dutela edo, aldi desberdinetako erroldekin ari bagara, errolda bakoitzeko emaitzen artekoa.

Erroldek, hala ere, ez dituzte beti behar ditugun datuak zuzen-zuzenean eskaintzen, are gutxiago iraganeko erroldek, eta halako kasuetan, hizkuntz argibide erabilgarriak lortuko badira, beharrezkoa izaten da ikertzailearen sormena jokoan jartzea (ibid.: 122). Horrela gertatzen da Nafarroako euskararen historiaren kasuan. Bi iturri ditugu: iturri geografikoak —Bonaparte printzearen eta Angel Irigarayren mapak— eta erroldak, baina hauek ez dute, ordea, hizkuntz argibiderik ekartzen. Erronka aipaturiko bi iturrietatik Fasoldek eskatutako baldintzak betetzen dituzten demografi emaitza fidagarriak eratoritzea da, eta hauxe da, hain zuzen ere, Pedro Yrizarren “Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Variedades desaparecidas y variedades amenazadas de rápida extinción. Su evolución en el transcurso de un siglo” (1981: 241-67) lanak ahalbidetzen duena.

Esandako lanaren helburua ahulduta edota hiltzear zeuden euskalki eta hizkeren hiztun-kopuruen 1863-1935 bitarteko bilakaera aztertzea zen (ibid.: 241) eta horretarako Bonaparte printzeak 1863. urteaz eta Angel Irigarayk 1935.az eskaini zehaztapen geografikoak eta garai bakoitzeko erroldetako biztanle-kopuruak uztartzen dituen azterbide zorrotza prestatu zuen Pedro Yrizarrek (ibid.: 242-7). Hona hemen bere oinarriak. 1863ko egoeraz zera dakigu: herri euskaldun guztien zerrenda, herrietako biztanle kopuruak eta herri horietako bakoitzeko euskaldunak bizilagunen erditik gora ala erditik behera —gehiengoa ala gutxiengoa, azken finean— ziren. 1935eko egoeraz hau dakigu: herri euskaldunak, bakoitzaren biztanleria eta, baita ere, eremu euskaldunaren eta erdaldunaren arteko mugan zeuden herrien hizkuntz ezaugarriak, bakoitzaren euskararen ezagutza eta erabilera adin multzoka sailkatuta adierazi baitzituen Irigarayk. Horrelako argibideak ezagututa, kontua 1863ko eta 1935eko egoerak alderatu eta hortik garai bakoitzeko euskaldunen kopuruak kalkulatzeko irizpideak finkatzea da. Hala egin zuen Pedro Yrizarrek eta geroagoko ikertzaileek, Koldo Larrañaga (1977: 483, 333. oin-oharra) eta Iñaki Larrañaga (1990: 36-41), adibidez, bai irizpideak bai emaitzak ontzat eman dituzte.

Pedro Yrizarrek eskualde jakin batzuetara mugatu zuen bere azterketa eta nire lana, aldiz, bere irizpideak abiapuntutzat hartu eta Nafarroa osoko zenbakiak eta ondorioak ateratzea izan da. Iraganari buruz ari gara

eta emaitzak, noski, erabat zehatzak ezin daitezkeela izan erraz ulertuko da, zenbaki hauek, fidagarriak izan eta Fasolden baliozkotasun-baldintzak bete arren, hurbilketa gisa hartu behar direla, alegia.

Euskaldunen kopuruak zehazteko kezka ez da gaurkoa eta ahalegin nabarmenak egin ziren XIX. mendean. Elisee Reclusek (1867. Aipatua in Velasco 1879: 488-9) euskaldunak 1854. urtean Nafarroa eta Arabako biztanleen laurdena zirela esan zuen. Beraz, 1860ko erroldaren arabera Nafarroak 299.654 bizilagun baldin bazituen, euskaldunak 75.000 inguru izango ziren.

Ladislao Velascok (1879: 490) Nafarroak 1867-1868 urteetan 60.000 euskaldun zituela esan zuen, datu hau ez zela ziurra gaineratuz: “No nos ha sido posible acopiar datos exactos, sobre la parte de Navarra en que aun se habla el vascuence (...). Repito, que no tengo seguridad sobre la estadística de Navarra” (ibid.: 490). Horrela gertatu zen, Ladislao Velascok ez zuen segurtasunik Nafarroari buruzko zenbakiez eta, gero ikusiko dugunez, ez zuen asmatu, baina berak proposatu zuen kopuruaren oihartzun eta onarpenek harrigarriro egundaino iraun dute (ikus, besteak beste, Euskaltzaindia 1977: 663 eta 666; Larrañaga 1977: 293; Intxausti 1990a: 124 eta 1990b: 29).

Julien Vinsonak (1882: 68), berriz, Nafarroako euskaldunak 150.000 zirela esan zuen.

Kalkulurik zuzenena, ikusiko denez, Arturo Campionek bere gramatikaren hitzaurrean (1884: 29) eskaini zuena dugu. Ladislao Velascoren zenbakiak oker zeudela esan ondoren (ibid.: 29), Nafarroako euskaldunak gutxienez 85.000 zirela adierazi zuen Campionek: “Por lo que hace á Nabarra, los datos que yo tengo reunidos me permiten asegurar que el *minimum* de nabarros que hoy poseen el bascuence como lengua nativa, es de 85.000” (ibid.: 29). Gaur egungo egileen artean inork ez du, nik dakidala, Campionek emandako kopurua kontuan hartu. Hau da, Ladislao Velascoren iradokizun okerra, Velascok berak batere fidagarritasunik ez zuela aitortu arren, oraindik ere denen lumentan dabilen bitartean, Campionen proposamen zuzena ahaztuta gelditu da, eta ez da hau Campionen ekarpenekin horrela gertatzen den aldi bakarra.

Denen proposamenak batera bilduak, honako taula hau dugu:

<i>E. Reclus (1867)</i>	<i>L. Velasco (1879)</i>	<i>J. Vinson (1882)</i>	<i>A. Campion (1884)</i>
75.000	60.000	150.000	85.000

Nafarroako XIX. mendeko euskaldunen kopuruaz plazaratu ziren zenbakiak

Nire zenbakiak Bonaparteren mapako eremu euskalduneko udalerrietatik abiatzen dira. Beraietan oinarrituta euskal eremuko biztanleria

eta Nafarroako Iruñetik kanpoko euskaldunen kopurua ezagutzea lortzen da. Nafarroa osoko euskaldunak eremu euskaldunekoak gehi Iruñekoak ziren nonbait<sup>149</sup>. Iruñeko euskaldunak zenbat ziren zehazki jakiteko biderik ez dagoenez, hurbilketa moduan Nafarroako proportziotik apur bat behera zeudela —hiriburua izanik kanpotarren dentsitatea handiagoa zen: funtzionarioak, militarrek...— uste dezakegu eta, orduan, Iruñeaz gainerako Nafarroan euskaldunak % 31 baldin baziren, Iruñeari % 25eko ehunekoak kalkulatu diot.

Zenbakiak, laburbilduz, hauek dira: Nafarroak, 1860ko eroldaren (Junta General de Estadística 1863) arabera, 299.654 biztanle zituen. Horietatik, eremu euskaldunean 124.587 bizi ziren eta eremu erdaldunean (Iruñea barne) 175.067. Euskaldunak, euskal hizkuntz komunitatea, alegia, 90.000 inguru —eragiketen emaitza zehatza 90.344 da— ziren, horrela banatuta: eremu euskaldunekoak 84.620 (ikus Eranskinak, 1. taula) eta Iruñekoak 5.724. Erdaldunak 209.000 inguru ziren. Ehunekoetan, euskaldunak nafar guztien % 30 ditugu eta erdaldunak % 70. Eremu euskaldunean, ordea, hau da, euskaraz mintzatzen zen Nafarroako zatian, % 68 ziren euskaldunak, nahiko proportzio altua, baina orduko Gizpuzkoa edo Bizkaikoa baino txikiagoa.

Beraz, orduko euskal hizkuntz komunitatea Nafarroako biztanleen % 30 zuen gutxiengoa zen. Bere banaketa geografikoa, hirugarren kapituluaren Nafarroako erresumaren tradizioari eskaini atalean ere ikusi dugunez, ez zen homogenea Nafarroa osoan zehar (ikus 19. eta 20. irudiak). Alderantziz, euskaldun gehienak barruti jakin batean, eremu euskaldunean, bilduta zeuden, eta, Altsasu, Leitza edo Lesaka bezalako herrien garrantzia gutxietsi gabe, edo Agoitzena, baina Agoizko euskara oso ahulduta zegoen orduko, Nafarroako hiriburua eta herririk jendetsu eta eraginkorrenak —Tutera, Lizarra, Tafalla, Zangoza, Corella..., adibidez— erdaldunen esparrukoak ziren. Arrazoi hauek, gehi hurrengo kapitulutik erdaldunen eta euskaldunen arteko harremani buruz aztertuko ditugunek, bidea ematen digute euskal hizkuntz komunitateak Nafarroako gizartean zuen eraginkortasun linguistiko txikia ulertzeko.

Aldi berean, demografikoki oso indartsua zen euskara bere barrutian, bizilagunen % 68, eta Iruñetik gorako lurraldeetan, hau da, erdalduntze bidean zegoen ukipen eremua kenduz gero, proportzioa oraindik handiagoa zen. Indar honek, zalantzarik gabe, zerikusia du hizkuntzaren iraupenarekin, barne aldera begira bizitasun demografiko nabaria baitzuen.

---

149. Eremu erdaldunean bizi ziren euskaldunak ere gehitu beharko liriateke, baina beren kopurua oso txikia eta, gainera, ia kalkulazina denez, ez dira kontuan hartuko.

Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa

	Biztanleak 1863	Euskaldunak 1863	Erdaldunak 1863	% euskaldun 1863	Udalerrri kopurua
Eremu euskalduna	124.587	84.620	39.967	% 68	132
Iruñea	22.896	5.724	17.172	% 25	1
Eremu erdalduna	152.171	0	152.171	% 0	13
Nafarroa, guztira	299.654	90.344	209.310	% 30	269

Nafarroako bi hizkuntz komunitateen<sup>150</sup> demografia (1863)

Euskal Herriko gainerako lurraldeekiko alderaketa egiteko Ladislao Velascoren zenbakiez baliatuko naiz, eztabaidatuak izan badira ere<sup>151</sup>. Horietan oinarrituta, posible zaigu lurralde guztietako kopuru eta ehunekoen arteko alderaketa egitea, ondoko taulan egin denez:

Herrialdea	Biztanleak 1863	Euskaldunak 1863	Erdaldunak 1863	% euskaldun 1863
Araba	120.494	12.000	108.494	% 10
Bizkaia	183.098	149.000	34.098	% 81
Gipuzkoa	176.297	170.000	6.297	% 96
Nafarroa	299.654	90.344	209.310	% 30
Iparraldea	123.810	80.000	43.810	% 65
Euskal Herria	903.353	501.344	402.009	% 55

Euskal Herriko bi hizkuntz komunitateen demografia (1863)  
(Iturriak: Velasco 1879: 488; neure elaborazioa)

150. Gauzak erraztearren elebitasunaren arazoa kanpo utzi da. Hots, erdal hizkuntz komunitatearen kopuruetan ez dira euskaldun elebidunak, euskaraz ezezik erdaraz ere bazekitenak, sartu, nahiz eta, berez, erdaraz zekiten neurrian erdal komunitatekoak ere izan.

151. Iparralderako, adibidez, Coquebert de Montbret-ek 108.000 euskaldun kalkulatu zituen 1808. urtean, eta Oyharçabalek (1992b: 287) funski egindako zenbaketa zela dio. Francisque Michelek 1857. urtean 140.000 zirela zioen (Velasco 1879: 489), Elisee Reclus-ek 120.000ko kopurua eman zuen (ibid.: 489) eta Bonaparte printzeak 140.000koa (Vinson 1877: xij; Champion 1884: 29).

Oro har, Hegoaldea ere barne, Campionek, Bonaparteren eta Velascoren zenbakien arteko aldeak ikusita, okertzat jo zituen Velascoren kalkuluak (ibid.: 29), eta, Nafarroari buruz, garbi dago Velascok huts egin zuela. Gipuzkoako eta Bizkaiko kasuetan, ordea, Pedro Yrizarri (1981: 174) logiko samarrak iruditu zaizkio Velascoren irizpideak.

Hego Euskal Herrian, garbi ikusten denez, bi multzo zeuden: Gipuzkoa eta Bizkaia, kopuruz nahiz proportzioz probintziarik euskaldunenak, alde batetik, eta Nafarroa eta Araba, bestetik. Nafar euskaldunen kopurua ez zen makala, gipuzkoarrena edo bizkaitarrena baino askoz txikiagoa izan arren, baina ahultasuna erdaldunekiko proportzioan agertzen zen batez ere. Tartean Iparraldeko egoera genuen. Nafarroako eremu euskaldunak, baina, % 68ko proportzioa zuen, Iparraldeko zenbakien antz handia erakutsiz, eta Gipuzkoako eta Bizkaikoetara hurbilduz.

#### 4.3 Euskararen egoera geografiko eta demografikoa 1936. urtean

1936ko urtea diot, baina, zehazkiago mintzatuz, erabiliko diren argibideak 1935ekoak dira, arestian aipatutako Angel Irigarayren (1956) eta Pedro Yrizarren (1981: 241-67) lanek ekarritakoak.

Euskararen muga Ziordia, Irurtzun, Sorauren (Iruñetik gora, hamar kilometrotara), Gorza (Zaraitzu ibarra) eta Erronkari herrietan zegoen (ikus 21. irudia: "Euskararen muga 1935. urtean")<sup>152</sup>. 1863ko egoerarekin alderatuz gero, aldaketarik nabarmenenak bi ziren. Bata, euskara gutxiengoan zegoen eremu osoa, Bonapartek kolore ahulez margotu zuena, erdaldunduta agertzen zen 1935. urtean. Bestea, euskarak gehiengo zuen eremuan galdu zuen lur-zerrenda luze eta meharra dugu.

Atzerakada, mugei dagokionez, handia eta txikia da aldi berean. Alegia, Bonaparteren ukipen eremua kontuan hartuz gero, oso zabalak dira galdutako lurrak eta benetan ikusgarria gertatzen da atzerakada, baina Beñat Oyharçabalek (1992a) erakutsi 1807ko mapak zein Añibarrok 1820. urtean alde hori jadanik erdalduntzat jo zutela gogoan edukita (ikus 20. irudia), galera ez zela hain handia izan esango genuke. Arreta euskarak indar altua zuen lurretan jarriz gero, atzerakada geografikoa txiki samarra izan zen eta Sorauren herriaren inguruetan, adibidez, ez zen ia batere mugitu. Erdaldundu ziren herrien artean Goñi, Oltza eta Garde nabarmentzen dira. Barruti euskaldunak, beraz, ukipen eremuak baino sendoago eutsi zion bere lurraldeari, baina, Irigarayk (1956) era-

---

152. Irigarayk marraztutako egoerarekin bat dator funtsean Engracio Arantzadiren 1934ko lekukotasunarekin:

Hoy la línea fronteriza de Euskal-Erria está formada así: Uztarroz, Isaba, Bidangoz, en Roncal; Guesa, en Salazar; Aristu en Urraul alto; Lakabe, Uriz, Zanduetza, en el valle de Arce; Biorreta, Uroz, Aginaga, Galduroz, en Arriazgoiti; Akereta, Larrasoña, Idoy, Gendulain, en Esteribar; Zaudio, Beraiz, Ostiz, en Olaibar; Anoz en Ezkabarte; Belzunze, Larrayoz, Ariztegi, en Juslapeña; Gulina, Larunbe, en el valle de Gulina; Erroz, Irurdiaga, Urrizoba, en Arakil; Lizarraga de Ergoyena y Ziordia.

(Arantzadi, E. El euskera en Navarra. Catástrofe racial. *La Voz de Navarra*, 1934-07-19)



21. irudia. Euskararen muga 1935. urtean (Iturria: Irigaray 1956).



kutsi eta 1935.ari buruzko taulan (ikus Eranskinak, 2. taula) agertzen denez, zenbait eskualde eta ibarretan —Erronkari, Zaraitzu, Iruñearen ondoko Atez, Xulapain, Ezkabarte, Arriasgoiti...— higadura handia pairatzen ari zen euskara eta bere gibeleratzea ez zen eten.

Euskal hizkuntz komunitatearen 1935eko egoera demografikoa Pedro Yrizarren irizpideei (1981: 245-7) jarraikiz aztertu dut, arestian esan bezala, Angel Irigarayk eskaini herrien zerrendarekin uztartuz. 1935. urtean ez zen erroldarik egin eta, orduan, urte hartako biztanlegoa 1930 eta 1940ko erroldetako kopuruen batez-bestekoa eginez kalkulatu zuen Yrizarrek eta horrela egin dut nik neuk ere. Udalerrri bakoitzeko euskaldunak beren biztanleriari Irigarayren sailkapenaren arabera-ko ehuneko jakin bat ezarriz zehaztu dira. Iruñeko euskaldunak, 1863. urteari buruzko azterketan bezala, Iruñeak Nafarroa osoko proportziotik apur bat behera zuelako hipotesiaz atera dira: % 14 egotziz kalkulatu dira.

Emaizten laburpena (ikus ondoko laukia eta Eranskinak, 2. taula) hauxe da: Nafarroak 357.751 biztanle zituen 1935. urtean eta haietatik euskaldunak ia 61.000 ziren —60.724 nire zenbakietan—, hau da, nafarren % 17. Eremu euskaldunak 77.199 biztanle zituen, euskaldunak 53.483 (% 69) izanik. Iruñean, 51.724 bizilagunetik euskaldunak 7.000tik gora —7.241 (% 14), zenbaki zehatza— ziren. Nafarroako alde erdaldunean 228.828 lagun zeuden eta, 1863. urteari buruzko azterketan bezala, denak hipotesi gisa erdalduntzat joak izan dira.

Euskal hizkuntz komunitatea % 17ko gutxiengoa zen Nafarroan, baina, 1863an bezala, gehiengo sendoa (% 69) zuen bere barrutian, eremu euskaldunean. Arazoa da bitartean euskaldunen lurraldearen hedadura murriztu egin zela.

	Biztanleak 1935	Euskaldunak 1935	Erdaldunak 1935	% euskaldun 1935	Udalerrri kopurua
Eremu euskalduna	77.199	53.483	23.716	% 69	82
Iruñea	51.724	7.241	44.483	% 14	1
Eremu erdalduna	228.828	0	228.828	0	183
Nafarroa, guztira	357.751	60.724	297.027	% 17	266 <sup>153</sup>

1935eko Nafarroako bi hizkuntz komunitateen demografia  
(Iturriak: 1930 eta 1940ko erroldak; Irigaray 1956; Yrizar 1981)

153. 1930eko erroldak 267 udalerrri zituen eta 1940koak, berriz, 266. Aldea Arraiza herriari (eremu erdaldunekoa) dagokio, 1930eko erroldan berezko udalerrria zen bitartean 1940an, orde, Zabaltza udalerrriaren zati gisa agertzen baita. 1863ko udalerrri zerrendan ere Zabaltzaren baitan agertzen da. Horrela bada, 266n utzi dut udalerrrien kopurua.

1863ko egoeraren azterketan Euskal Herri osoko zenbakiak erkatu ditut, Ladislao Velascoren lanari esker. 1935eko egoerarako, berriz, ez dut ezagutzen horrelako iturririk eta, hortaz, euskaldungoaren kopuruen arteko alderaketa ezinezkoa da. Aukera bakarra Hegoaldeko herrialde bakoitzeko populazioa eskaintzea da eta, besterik ezean, hori emango dut, ondoko taulan ikus daitekeenez.

	Araba	Bizkaia	Guipuzkoa	Nafarroa	Hego Euskal Herria
Biztanleak 1935	108.526	498.170	317.041	357.751	1.281.488

Hego Euskal Herriko lau probintzien biztanleak 1935. urtean  
(Iturria: Larrañaga 1977: 275)

#### 4.4 1863 eta 1936 bitarteko bilakaera: laburpena eta ondorioak

1863. urtetik 1935.era bitartean nabarmen murriztu zen Nafarroako euskal hizkuntz komunitatea. Murrizketaren adierazpen geografikoa 21. irudian dugu eta, beheko taulan (ikus, halaber, 1863-1935 bitarteko bilakaera udalerrira jasotzen duen eranskinetako 3. taula) ageri denez, udalerrri euskaldunak 1863. urtean 132 izatetik 1935.ean 82 (% 62) izatera igaro ziren, hau da, 50 udalerrri gutxiago, heren luze bat galduz. Euskaldunen kopurua, hots, euskal hizkuntz komunitatearen neurria, 90.000 ingurutik 60.000 (% 67) ingurura jaitsi zen, 30.000 laguneko beherakada edukiz, beste heren bat galduta. Ehunekoetan adierazita, Nafarroako biztanleriak gora egin zuela kontuan hartuz, oraindik handiagoa izan zen euskaldunen pisu demografikoaren jaitsialdia, ia erdian gelditu baitzen, % 30etik % 17ra, gutxiagotasun egoera areagotuz. Hirurogeita hamar urte igaro eta gero txikiagoa zen, beraz, barruti euskalduna azaleraz zein biztanleriaz, baina euren esparruan gehiengo izaten segitu zuten euskaldunek, % 69 ziren, eta hori euskararen bizitasunaren adierazlea eta, aldi berean, bermatzailea zen, hizkuntza atzeraka bazihoan ere. Bestalde, hurrengo kapituluetan aztertuko denez, kopuruz txikiagoa izan arren, Nafarroako gizartearen eraginkorrak —konzientzia, ekimenak, elkarteak...— ziren 1935eko euskaldunak 1863koak baino.

Euskararen Geografia eta Demografia Nafarroan: 1863ko eta 1936ko egoerak

	1863			1935					Euskaldunen aldea: (1935-1863)
	Bizt. 1863	Eusk. 1863	% eusk. 1863	Udal. 1863	Bizt. 1935	Eusk. 1935	% eusk. 1935	Udal. 1935	
Eremu euskalduna	124.587	84.620	% 68	132	77.199	53.483	% 69	82	-31.137
Iuñea	22.896	5.724	% 25	1	51.724	7.241	% 14	1	1.517
Eremu erdalduna	152.171	0	% 0	136	228.828	0	0	183	0
Nafarroa, guztira	299.654	90.344	% 30	269	357.751	60.724	% 17	266	-29.620

Nafarroako bi hizkuntz komunitateen bilakaera (1863-1935)

Aurkezpena amaitzeko, eta konparaketa adierazgarria delakoan, 1863 eta 1935eko zenbakiak gaur egungoekin, 1991ko erroldakoekin, alderatuko ditut, lanaren epetik kanpo ateratzen bagara ere.

	Euskaldunak 1863	Euskaldunak 1935	Euskaldunak 1991
Nafarroa	90.344 (% 30)	60.724 (% 17)	51.147 <sup>154</sup> (% 10)

Nafarroako euskal hizkuntz komunitatearen bilakaera (1863-1991)

(Iturriak: neure elaborazioa, 1863 eta 1935. urteetarako; Francisca Zabaleta 1995 eta 1997, 1991.erako)

Taulan argi ikusten denez, Nafarroako euskaldungoak murriztuz segitu zuen 1936ko gerra ondoren, biztanleen % 10 izateraino. Egungo egoera, baina, 1986 eta 1991ko errolden (Nafarroako Gobernu 1988; Francisca Zabaleta 1995 eta 1997) eta azkeneko inkesta soziolinguistikoan (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta Euskal Kultur Erakundea 1997) arabera, egonkorra da, edo, zehazkiago mintzatuz, doi bat igotzen ari da.

Kapitulu honetan Nafarroako euskal hizkuntz komunitatearen bilakaeraren alde geografiko eta demografikoak aztertu dira eta bai udale-

154. Erkaketa homogenoa izan dadin bakarrik euskaldunen kopurua hartu dut. Horiez gain, 1991ko ia-euskaldunak 31.696 ziren eta euskaldunak eta ia-euskaldunak batuta  $51.147 + 31.696 = 82.843$  lagun genituen. Dena dela, gogoan hartzekoa da 1991ko erroldari buruzko azken azterketan (Francisca Zabaleta 1997) irizpidea aldatu eta euskalduntzat euskaldunak gehi ia-euskaldunak hartu dituztela.

rrien bai hiztunen heren bat inguru galdu zuela ikusi da. Nafarroako biztanleria bitartean hazi egin zela kontuan hartuz, euskaldunen portzentaia % 30etik % 17ra jaitsi zen. Galera, dena dela, euskal eremuaren hego- eta eki-ertzetan gertatu zen batik bat eta, orduan, atzerakadarekin batera, euskarak esparru oraindik zabal batean —Caro Barojak (ikus 3.5 atala) euskal kulturaren erdigunetzat jo zuen esparruan, gutxi gorabehera— iraun zuela ageri zaigu.

Bilakaeraren alde geografiko-demografikoak, hala ere, sakonagoko beste alderdi batzuen adierazle dira eta beraietara jo beharra dugu. Alegia, beren atzetik alde soziologikoa dago, hizkuntzak gizartean betetzen dituen zereginak —hizkuntz funtzioak, erabilpen esparruak—, eta alde soziologikoaren atzetik alde psikologikoa, euskarak bere hiztunen baloreetan eta mundu sinbolikoan duen tokia. Beste hitzetan esanda, zenbat eta euskara errotuago egon hiztunen baitan —banako nahiz talde mailan—, gero eta erabilpen handiago eta hedatuagoa izango du eta, bien ondorioz, gero eta aukera handiagoa edukiko du bere muga geografiko eta demografikoei eusteko. Eta alderantziz, herri jakin bateko biztanleak erdalduntzen direnean gizarte-bizitzako esparru gehienak erdaraz betetzen joan direlako da eta honek pertsona horiek aurretiaz erreferentzia psikologikoko eta sinbolikoko hizkuntzatzat erdara hautatuz joan direla adierazten du. Hauxe da, hain zuzen ere, ondorengo kapituluetan azaldu nahi dudana.

## 5. EUSKAL HIZKUNTZ KOMUNITATEA BONAPARTE PRINTZEAREN ETA BERE LAGUNTZAILEEN LEKUKOTASUNEN ARABERA

Lanaren helburu nagusia Nafarroako euskal hizkuntz komunitatearen bilakaeraren azalpen kualitatiboa ematea da eta zeregin honetan iturri mota desberdinez baliatu naiz. Lortutako emaitza eta ondorioak, 4. kapituluaren alderdi kuantitatiboak aztertu ondoren, bostgarren, seigarren eta zortzigarren kapituluetan jasotzen dira. Bostgarren kapitulu honetan Bonaparte printzeak nahiz bere laguntzaileek euskararen egoeraz eskaini zizkiguten argibideak aurkezten dira, bi ataletan banatuta: 5.1 Bonaparte printzea, eta 5.2 Bonaparteren Nafarroako laguntzaileak. Kapituluak, oro har, euskararen aldeko mugimenduak sortu aurreko egoera erakutsiko digu.

Jasotako albiste eta argibideak hizkuntz komunitatearen azterketarako ereduko Hizkuntz Portaeraren Sistemaren atalen arabera antolatu dira:

- Hizkuntz ezagutza
- Hizkuntz jarrerak
- Hizkuntz hautaketa
- Hizkuntzaren erabilera
- Hizkuntzaren gaineko ekintzak.

Ereduaren justifikazioa 1.2.4 atalean eman dut eta Fishman, Fasold eta Sanchez Carrionen ekarpenetan oinarritzen da. Atalez atal, bere esanahia garden samarra da. Hizkuntz ezagutzaren eta hizkuntz jarreraren saillek ez dute, nire ustez, azalpen beharrik. Hizkuntz erabilerarenak ere ez. Hizkuntz hautaketarena, ordea, irristakorragoa suertatzen da argibideak sailkatzeko orduan. Oinarrizko kontzeptua da berau erabiltzen ari garen ikuspegian eta arreta berezia eskaini nahi diot, euskararen bilakaera gizarte-baldintzen eta hiztunen erabakien arteko harremanei zor baitzaie. Baina, aldi berean, erabileraren eta jarreraren saillek tokia jaten diote, nonbait, hizkuntz hautaketarenari. Hots, hiztunen aukeraketak askotan erabileraren bidez besterik ez dira adierazten eta beste batzuetan, halako hautapen bat egiteko izan dituzten arrazoiak agerian daudenean, hizkuntz jarrerekin topo egiten dugu. Hala ere, aipaturiko hiru sailen arteko mugak zeharo garbiak ez direla jakinik, eutsi egingo diot hautaketaren sailari, bertan hautaketa ohiturak, beren emaitza praktikoak eta beren zergatiak jaso nahian. Azkenik, hizkuntzaren gaineko ekintzei buruzko sailean hizkuntzaren egoeraren gaineko eragina duten jarduerak aurkez-

tuko dira: ikerketa zientifikoak, literatura, instituzio edo erakundeen lana, hizkuntzaren aldeko nahiz aurkako ekimenak, eta abar.

## 5.1 Bonaparte printzearen lekukotasunak

Bonaparteren lekukotasunok argigarriak eta baliotsuak dira oso, are gehiago norengandik datozen jakinda, eta orduko egoeraz nolabaiteko ikuspegi orokorra irudikatzea ahalbidetzen digute, muga nabarmenak badituzte ere.

### 5.1.1 Bonaparteren lekua euskararen gizarte-bilakaeran

Ohorezko tokia aitortzen zaio Bonaparte printzeari euskalaritzaren eta, oro har, euskararen historian. Gaiaz arduratu direnen gogoetak baztertu gabe, Bonaparteren ekarpenak geure ikuspegitik begiratuta laburbilduko ditut hurrengo paragrafoetan.

Bonaparte printzearen eragina ulertzeko errealitate sozialak bi osagai dituela izan behar dugu gogoan: gertakari objektiboak eta pertsonen uste edo pertzepzioak —“incluir en lo real la representación de lo real”, esan du Pierre Bourdieuk (1985: 88)<sup>155</sup>—. Errealitatea, bada, bien batuketaren emaitza da, alde objektibo eta subjektiboen batuketa<sup>156</sup>, eta ikertzaileen zeregina biez arduratzea da, Mario Bungek agertu duenez (1995: 24). Beherago, ideia beraren azalpena argituz, zera gaineratu zuen Bungek:

(...) los científicos sociales están interesados en estudiar la manera como los factores subjetivos, tales como las creencias, las valoraciones y las actitudes influyen objetivamente sobre las acciones y, a su vez, cómo las acciones de otra gente influyen en nuestras experiencias subjetivas.

(ibid.: 38)

Zientzialariak, beraz, errealitatearen alde objektiboak nahiz subjektiboak aztertu behar ditu, jakinik alde subjektiboek ere —persona baten sinesmenek, kasu— azterketa objektiboa onartzen dutela: “El objetivismo no supone el rechazo de la subjetividad: sólo nos invita a estudiarla objetivamente” (ibid.: 23). Errealitateak bi osagaiak, objektiboak eta subjektiboak, dituela inon garbi baldin badago hizkuntzaren kasuan da

---

155. Bereizketa honen kidea Guy Rocherren (ikus 1.2.4 atala) gizarte-sistema eta sistema sinbolikoa bikotea genuke.

156. “La realidad social se compone, pues, de objetos, sujetos, y de representaciones elaboradas por los sujetos acerca de los objetos y de los sujetos” esan du Benjamin Tejerinak (1992: 19). Interesgarriak dira, oro har, lan bereko “Las representaciones sociales de las realidades colectivas” (ibid.: 13-72) kapituluaren aurkezten diren eztabaida eta bibliografi erreferentziak.

eta horrexegatik egin diot ereduan hain toki handia jarriren eta hautaketan azterketari.

Bonaparte printzearen ekarriari gagozkiolarik, nabariak dira euskararen egoeraren bi alderdietan eragin zituen aldakuntzak. Oro har, aro berri bat zabaldu zuen euskalaritzan eta honek zerikusia du bere ekarpenen alde objektibo nahiz subjektiboekin. Alegia, banaezinak dira bere ikerkuntza zientifikoak —euskalkien deskribapen eta sailkapena, euskararen mapa...—, ikerkuntzek euskarari buruzko ezagutza edo hautematean izan zituzten ondorioak eta, aldi berean, Bonapartek euskaltzale belaunaldi berriei eman zien bultzada.

Euskalkiei dagokienez, euskarak mintzatze-molde ezberdinak dituela gauza jakina izan da betidanik euskaldun guztientzat eta hor ditugu, adibidez, Leizarraga, Axular, Oihenart eta Larramendiren testigantzak (Zuazo 1988b: 87-91). Baina hauek oso zehazki banantzen ez ziren multzo batzuk ikusten zituzten tokian —Larramendik, esate baterako, batzuetan hiru euskalki aipatzen zituen: nafar-lapurtera, gipuzkera eta bizkaiera, beste zenbaitetan bi gehiago erantsiz: zuberera eta Arabakoa (ibid.: 88-91)— Bonapartek zortzi euskalki, hogeita bost azpieuskalkitan banatuta, erakutsi zituen (1869), eta, ondorioz, ordura arte ikusten ez zena harrezkero denek ikusiko zuten, euskalkien ezagutzan, beraiei buruzko ikuspegi subjektiboan, aldaketa garbia eraginez. Hots, egoera objektiboa ez zen aldatu, euskaldunek berdin hitz egiten jarraitu zutelako, baina bai ordea egoeraren hautemate subjektiboa. “Izena duen guztia omen da” dio esaera zaharrak eta, zentzu berean, Bourdieuk zerbaiten ezagutzak aipatutakoaren existentzia edo izana sortarazten duela —“un acto de conocimiento que (...) produce la existencia de aquello que enuncia” (1985: 89)— dio. Bonapartek, beraz, izena eman zien euskalki eta azpieuskalkiei, eta izenarekin batera izana.

Oraindik garbiagoa izan zen euskararen hedapen eta bizitasun geografiko-sozialaren ezagutzan ekarri zuen mudantza. Goian aipaturiko Frantziako enbaxadorearen mapak (1807. urtea) eta Añibarroren zerrendak (1820. urtea inguru) erakusten digutenez (ikus 20. irudia), euskararen muga Iruñetik gora zegoelako ustea<sup>157</sup> oso zabaldua zegoen XIX. mendearen hasieratik. Beheragoko euskaldunen berri —Gareskoak, 1820. urtean; Lizarrerrikoak, I. Gerra Karlistan (Irigaray 1974: 39-40)— jakingo zen, baina, nonbait, lurralde haietako hizkuntz egoera zehazterakoan ez omen zitzaizen garrantzirik aitortzen. Bonaparte prin-

157. Orobat, Pascual Madozen hiztegiak (1849: 95), adibidez, euskara Nafarroako Iparraldean soilik mintzatzen zela zioen: “la lengua vascongada que se habla solamente en la zona del N.”, eta gainera gaztelaniarekin nahastuta —aunque en la mayor parte confundida con el castellano” (ibid.: 95)—. Elisee Reclusek ere 1867. urtean euskara Sakanan, Iruñetik gora eta “en los altos valles de Roncesvalles, Orbaiceta, Ochagavía, Roncal” (1929: 60) mintzatzen zela zioen.

tzeak, aldiz, euskara askoz beherago hitz egiten zela azaldu zuen, Garesen eta Orba ibarrean hain zuzen; eta muga hegoalderantzago eramateaz gain, euskara garai hartan pairatzen ari zen atzerakadaren garrantziaz ohartarazi zien bere garaikidei nahiz geroztikako jendei<sup>158</sup>. Euskalkien kontuan bezalaxe, Bonapartek ez zuen berez errealitatea aldatu, hau da, Garesko euskaldunak hor zeuden, berak erakutsi nahiz erakutsi gabe, baina ezagutza —izana ematen duen izena— Bonaparteri esker aitortu zitzaien horko euskaldunei.

Euskararekiko jarretan alde kognitiboak eta alde afektiboak, Fishmanen terminologiari jarraikiz (ikus 2.3.2 atala), bereizten baditugu, orain arte aipatutakoak alde kognitiboen sailekoak lirateke. Alderdi hau franko areagotu zen Bonaparteren ikerketen eraginez, ikusi bezala, baina horrez gain, hainbat euskaldunen jarrera afektiboen aldakuntzan ere zeregin zuzena izan zuen Bonapartek. Orokorrean, euskaltzaletasunaren aro berri baten hastapenetan aurkitzen dugu Bonaparte printzea eta bere eragina arrazoi bat baino gehiagoren emaitza dela esan daiteke. Horrela, bera bezalako atzerritar baten euskararekiko jakinminak hainbat euskaldunen euren buruarekiko konfiantza piztu edota berrindartu zuen, are gehiago euskararen etorkizunaren sendotasunaz erabateko baikortasuna adierazi zuela gogoan edukita. Halaber, euskal literaturaren garapenaren bultzatzaile sutsua izan zen Bonaparte, euskararen ortografia bateratzeko saioretan parte hartze nabaria izan zuen (Bonaparte 1876: 14; Zuazo 1988b: 239-43) eta, oro har, euskararen aldeko orduko ekimen nagusiei lotuta edota babesa emanez agertu zen, Arturo Campioni eta bere “Nafarroaco Euscarazco Elcargoa-Asociación Euskara de Navarra”<sup>159</sup> eta *Revista Euskara-ei*, besteak beste. Luzeago jardungo dut gai honetaz “Hizkuntzaren gaineko ekintzak” izeneko atalean (5.1.6).

### 5.1.2 Hizkuntzaren ezagutza Nafarroan Bonaparteren lekukotasunen arabera

Bonaparteren lekukotasunik landuena euskararen ezaguerari buruzkoa da zalantzarik gabe. Haren berri dagoeneko aztertua dugun mapan (ikus 4. kapitulua) eman zuen eta, dakigunez, eremu euskaldunaren bai-

---

158. Bonaparterena bezalako lan baten beharraz Reclus mintzatu zen 1867. urtean, dirudienez printzearen maparen berri jakin gabe: “Para darse cuenta de este fenómeno, tan considerable en la historia de la humanidad, de la desaparición gradual de un idioma ante un dialecto vencedor, sería de la mayor importancia trazar actualmente el límite cierto del euskera; pero nadie piensa en emprender esta labor” (1929: 60).

159. Elkarrearen erdal izena “Asociación Euskara de Navarra” zen eta euskarazko itzulpenean “Nafarroaco-Euscarazco Elcargoa” izena eman zioten (*Revista Euskara I*, 1878, 5). Nik neuk bata, bestea zein bakoitzaren laburpena —Euskara elkarte, Asociación Euskara, Euscarazco Elcargoa— erabiliko ditut, betiere elkarte bera adierazteko.



tan euskara ohiko hizkuntza zuten eskualdeak eta gaztelania nagusitzen ari zenekoak erakutsi zituen, azkeneko hauetako herri anitzetan euskara azken hatsetan zegoela —“ne conserverait plus qu’un léger souffle de vie dans la bouche de quelques vieillards” (Urquijo 1910: 272)— jakinik. Garesko euskara, adibidez, oso desberdina izateaz gain, ia hilik zegoela esan zioten 1866.ean: “A Puente-la-Reina, on m’assure, que le basque quoique à-peu-près éteint, y est très différent” (Urquijo 1910: 294)

Bizitasun handiko lurraldeei dagokienez, oso gutxi eta txikiak dira Bonapartek utzi zizkigun oharra. Behin euskara bertako hizkuntza nagusia zela egiaztatu eta gero, egoera hori normalizat jo eta ez zen bereziki gaiaz gehiago arduratzen, nahiz eta euskararen gehiengoa indartsua edo ahula —“forte ou peu marquée” (Bonaparte 1876: 3)— izan zitekeela adierazi.

Euskararen ezagutza ez zen adin- edota gizarte-talde guztietan berdina eta ezberdintasun horren berri bazekien Bonapartek. Transmisioaren katea indarrean zegoen eskualdeetan denek, adineko nahiz gazteek, zekiten euskaraz, baina talde bakoitzak ezaugarri desberdinak zituen. Gutxi batzuek, apaizek eta beste lagun bakan batzuek, euskara landua zuten, baina gehienek ez, eta euskara herritarra zutenen artean, bertako euskararen eredurik garbiena, eta hauxe zen hain zuzen ere Bonapartek bilatzen zuena, aiton-amonek eta neskatoek erakusten zuten, mugikortasun txikia izanik kanpoko kutsadurarik ez zutelako jaso nonbait:

Je me suis adressé dans deux voyages consécutifs non pas aux curés et aux gens qui ont cultivé leur basque, mais aux campagnards, surtout aux vieillards et aux vieilles femmes et même aux petites filles, qui mènent une vie sédentaire;

(Urquijo 1910: 246)

Elebitasuna nahiko zabaldua omen zegoen, baita euskal eremuan ere, eta, norainokoa ote zen zehaztu ez zuen arren, Euskal Herriko herri hazi gehienak elebidunak zirela esan zuen Bonapartek:

(...) on peut parfaitement dire que le plus grand nombre des villes et des villages de l’*euskalerrria* sont mixtes, sans excepter Saint-Sébastien, Tolosa, Marquina de Biscaye, Guernica, Sare, Saint-Jean-de Luz, Baïgorry, Saint-Jean-Pied-de-Port, Tardets et Mauléon, puisque dans tous ces endroits l’espagnol ou le français se trouve être concurremment avec le basque la langue d’une minorité quelconque de leurs habitants originaires.

(Bonaparte 1876: 3)

Herri txikietako lekukotasunek ere, Baztango Arraiozko herritarrei erdaraz egindako galdeketek, kasu, elebitasun egoera adierazten digute:

(...) observer que pendant deux voyages consécutifs je me suis arrêté à Arrayoz, et que des personnes non instruites du pays (...) à ma demande: *cómo se llama en vascuence la mano?* ont répondu sans hésitation *escube* et

non pas *escue*, ni *escuba*, ni *escua*. De même ¿*por hijo?* ils ont répondu tout-de-suite *semie* (...)

(Urquijo 1910: 251)

Ez diogu aipu honi berez eskain dezakeena baino gehiago eskatuko, baina garbi ematen du Arraiozko euskara jatorraren lekukotasuna eman behar zioten lagun ikasigabe haiekiko harremanak gaztelaniaz izan zituela Bonapartek.

Gaztelaniaren interferentziak nabariak omen ziren euskara atzeraka egiten ari zen eskualdeetan. Horrela, Agoitz inguruko euskara zela-eta, hegoalderantz asko joz gero gaztelaniaz kutsaturiko euskara aurkituko zutela ohartarazi zion Bruno Echeniquek: “comme vous le faites remarquer fort bien, si l'on va trop au midi on risque de trouver du basque trop castillanisé” (Urquijo 1910: 270). Erdararen interferentziaren erakusle garbia Garesko euskaran erabiltzen zen jota hotsa —[X] hotsa, gaztelaniazko “j” bezala ahoskatzen dena— dugu, Bonaparteren iritzi. Hegoaldeko goi nafarrerak<sup>160</sup> ez omen zuen hots hori, baina euskalki horren barruan zegoen Garesko hizkerak bai, ordea, eta bere presentzia gaztelaniaren eraginari egotzi zion:

Quant au «j» de la variété bisc. occ. d'Orozco et du sous-dialecte nav. mér. de Puente, sa présence, due selon toute apparence à l'influence du castillan, n'a rien de surprenant, puisque ces localités, quoique faisant partie, la première d'un sous-dialecte et la seconde d'un dialecte sans «j», se trouvent à l'extrême limite de l'euskara, et par conséquent en contact immédiat du castillan.

(Bonaparte 1869: xxxi)

### 5.1.3 Hizkuntz jarrerak

Jarrerren alderdi kognitiboan eragindako aldaketaz gain, gorago aztertutakoa, bi multzotan banatu nahi dut hizkuntzarekiko jarrerren azalpena: Nafarroako euskaldunek adierazitako iritziak eta Bonaparte printzeak plazaratutakoak. Bigarren multzokoak argiak eta interesgarriak dira eta Bonapartek izandako hizkuntz eztabaidetara eramaten gaituzte. Lehenengo multzokoei buruz, euskaldunen euskararen gaineko usteez, berriz, ez zigun Bonapartek batere lekukotasunik utzi. Hutsunea ulergarria da, batik bat kontuan harturik Bonaparte ez zela gai horretaz arduratu. Kontzientzia handirik gabeko egoera orokor bat ispilatzen du halaber, baina aldi berean lanean zehar metodologia egoki batez (ikus 6.

---

160. Orreaga Ibarak (1995 eta 1996) goi nafarreraren sailkapen berria proposatu du Bonaparterenaren ordeztu: Ekialdeko eta Mendebaldeko goi nafarrera, baina, eztabaidan sartu gabe, beharra sortu zaidanean Bonaparteren terminologia klasikoa erabili dut.

kapitulua) konpondu behar dugun egiazko arazoaren aurrean jartzen gaitu: euskaldun xeheek ez zituzten normalki euren hizkuntz jarrerak hitzez adierazi, praktikaz baizik.

Bonapartek eztabaida luze eta latzak izan zituen bere garaiko zenbait hizkuntzalarirekin, Willen Jan Van Eys eta Julien Vinsonekin bereziki<sup>161</sup>. Orduko ideia linguistikoen giroa (ikus 3.1 eta 7.3.3.1 atalak) ederki erakusten diguten eztabaida hauetan esanahi soziolinguistikoko handiko bi gai ukitu zituzten: batetik, euskararen hiztegiaren urritasuna eta hitz abstraktuen gabezia eta, bestetik, euskararen desagertpen edo heriotza, aurrekoari lotuta dagoena.

Euskararen hiztegiaren urritasunari buruzko eztabaidaren aurreneko agerpena Bonapartek Abel Hovelacqueri eman zion erantzunean aurkitzen dugu: “Nous avons de la peine à comprendre que celui qui croit que le vocabulaire du basque est imparfaitement connu, puisse décider qu’il est pauvre” (1876: 21). Hurrengo urtean, 1877.ean, ideia berberak plazaratu zituen Vinsonek, euskararen hiztegia txikia eta hitz abstrakturik gabea zela eta kontzeptu orokorrak adierazteko hitzak aldameneko hizkuntza indoeuroparretatik maileguan hartu behar zituela aldarrikatuz:

Le vocabulaire basque est au demeurant fort pauvre. Bien qu’il soit encore imparfaitement connu, (...) on peut affirmer que les termes réellement basques n’expriment pas d’idées abstraites. En dehors des mots gascons, français, espagnols, latins, empruntés, on ne trouve pas de traces d’une civilisation bien avancée et l’on se trouve en présence de fort peu d’expressions impliquant une collectivité, une généralisation. (...) C’est vraisemblablement par leur contact avec les races indo-européennes que les Basques, ou ceux qui parlaient le basque, sont arrivés à la vie historique.

(Vinson 1877: xiv-xv)

Aipu honek gaztelaniaren eta frantsesaren historiografiaren azterketan (2.2 atala) eta 3. kapituluan aurkeztu den mundu kontzeptual orokorrera —indoeuroparren mundu ikuskerara— garamatza zuzen-zuzenean eta, hango azterketak errepikatu gabe, argi dago Vinsonek hizkuntza primitiboak *vs* zibilizazio hizkuntzak bereizketa<sup>162</sup> duela gogoan. Euskara abstrakzioa ezagutzen ez duten hizkuntza primitibo edo logika-aurrekoen artean sailkatzen da, noski, zibilizatua/basatia hierarkian beheko alde-

161. Eztabaida haien aurkezpen sakon eta zehatza Ricardo Gomezek (1989) egin du. Ikus, halaber, Zuazo (1991: 40).

162. “Uno de los prejuicios más tenaces que ha retrasado los progresos de la antropología moderna ha sido el de creer en la existencia de una «mentalidad primitiva» esencialmente diferente de la del hombre civilizado”, esan du Guy Rocherrek (1990: 270). Bere adierazlerik tipikoena Lucien Levy-Bruhl izan zen (*La mentalité primitive*. Paris: Alcan. 1922), gizaki primitiboen “logika-aurreko mentalitatea” eta Mendebaldeko zibilizazioaren “mentalitate logikoa” kontrajarritz (Rocher 1990: 271).

an, eta hauxe da, hizkera “zientifikoaz” jantzita, Vinsonek euskaldunei euren hizkuntzaz jakinarazten ziena.

Horren aurrean, Bonaparte bizkor atera zen euskararen alde:

Ici M. Vinson (...) en décidant, de sa propre autorité, que son vocabulaire [euskararena], qu’il avoue ne connaître qu’imparfaitement, est fort pauvre; en avançant que le basque n’a pas de mots pour exprimer des idées abstraites, etc., il ne fait que répéter exactement ce qui a été dit par M. Hovelacque son maître, qui a au moins sur lui le mérite de l’originalité.

(Bonaparte 1877: 11)

Baieztapenen jatortasuna norena ote zen alde batera utzita —Bonapartek Hovelacquerena zela zioen, baina Ricardo Gomezek Hovelacquek Vinsongandik jaso zituelako susmoa du (1989: 380, 87. oin-oharra)—, XIX. mendean euskara bezalako herri hizkuntzekiko nagusi ziren ideiak islatzen zituzten biek zalantzarik gabe: jadanik XVIII. mendean “se decía que las «lenguas primitivas» carecían de los medios para la expresión de lo abstracto” (Robins 1987: 161), baina Bonaparte euskararen egoera oso bestelakoa zela erakustera mugatu zen, sakoneko ideologi inplikazioetan ez sartuz, baina, bai gai honetan bai euskararen heriotzari buruzko eztabaidan, euskararen defentsan atera izanak berak ere garrantzi handia izan zuen Euskal Herriko hizkuntz jarreraren bilakaeran.

Euskararen hiztegiaren urritasuna eta hitz abstraktuetarako ezgaitasuna baieztatzearen ondorioak ez ziren bertan gelditzen eta beren segida euskararen heriotza hurbila, edo, hobeki esanda, heriotzaren halabeharrezkotasuna, iragartzea izan zen. Alegia, euskaldunen herri ikasigabeak, bere auzokoen parean jarriko bazen, bere hizkuntza “zaharra” ahaztea beste biderik ez zuela esan zuen Vinsonek (1877: xv): “un peuple illettré et qui ne peut se mettre au niveau de ses voisins qu’en oubliant son antique langage”. Vinsonek ederki zekien zertaz ari zen eta ideia berberak bi urte beranduago berretsi zituen Nafarroako *Revista Euskara*-n argitaraturiko artikulua batean, euskararen heriotza, izaki bizidun ororena bezalaxe<sup>163</sup>, denboraren legeen ondorio saihestezina zela eta egia, mingarria bazen ere, onartu behar zela esanez:

---

163. Gizarte-eboluzionismoaren teoriaren (Spencer) oihartzun orokorrak nabariak dira Vinsonen hitzetan eta, zehazkiago, Schleicher-ek darwinismoaz hizkuntzen azterketarako egin zuen egokitzapenarenak.

Schleicherrentzat, hizkuntzak izaki bizidunak ziren eta, hauek bezala, hazkunde, heldutasun eta heriotza aro naturalak zituzten hitzunen nahien gainetik (Robins 1987: 181). Halaber, Darwinen teoria, Schleicherren ustez, “era válida para la historia de la lingüística, y la difusión de las distintas lenguas por la superficie terrestre y los contactos y roces surgidos entre ellas podían asemejarse a las luchas de los seres vivos por su

¿A quién podrá ofender la verdad? (...). Badakite ere Laphurdin izan ditut adisquide onec cembait eta nola maite dudan eskuara, nola ikasi dudan mintzaixa eder eta zahar hura, nola nahi nuken hura ere bizi dadin. Bainan nor ausartuko dá gauzen ibiltzeari buruz alchatzera, demborari erranez: eztuk eginen hire obra? Hobe zait munduco gorabeheri yarraikitzea oroi-turik atsotitzak erráiten duenez: *oro nabiz, oro gal!*

(Vinson 1879: 148)

1882. urtean, azkenik, bost urte lehenagoko esaldia hitzez hitz errepikatu ondoren, zera erantsi zuen: “La langue basque, qui, n’en offre d’ailleurs aucun intérêt pratique, malgré son extrême importance scientifique, est manifestement en train de disparaître” (1882: 66).

Atzetik XIX. mendeko “zentzu komunaren” indar edo babesa zuten estereotipo, ideia eta aurreiritzien multzo honen aurka altxatu zen Bonaparte, ezerk ez zuela euskara hil-beharrean zegoenik adierazten esanez:

«Tout fait prévoir la mort prochaine de l’*escuara* ou *euscara*», continue M. Vinson. Rien n’indique, répondons nous, que le basque ait envie de mourir. Cette langue contre laquelle M. Vinson conserve une rancune, (...) continuera à vivre pour des siècles, nous le promettons bien à M. Vinson, à la grande satisfaction des vrais linguistes et des vrais philologues.

(Bonaparte 1877: 6)

Gainera, zioen Bonapartek, nondik atera ote du Vinsonen euskaldunak herri ikasigabea direla, hortik gero aldameneko herrien parean jarri nahi izanez gero euskara baztertu behar zutela ondorioztatzeko?:

M. Vinson, toujours aimable envers les Basques, se plaît à tâcher de faire croire (...) que ce peuple illettré ne peut se mettre au niveau de ses voisins qu’en oubliant son antique langage. A d’autres! Quand même M. Vinson aurait le pouvoir, presque miraculeux, de transformer, par son rare talent, en vérité palpable une erreur aussi manifeste que celle qui consiste à dire

---

existencia en el mundo, de las cuales salían victoriosas las lenguas indoeuropeas” (ibid.: 181). Euskara, noski, heriotzaren aldian bide zegoen.

Darwinen biologi eboluzionismoa eta Spencerren gizarte-eboluzionismoa ez dira gauza bera eta biologiaren barrutian balio duen teoria gizarte-zientzienera hedatu izana oso kritikatu izan da. Levi Straussen iritziz (1993: 51-3), adibidez, “el evolucionismo biológico y el pseudo-evolucionismo [soziala] que aquí hemos visto, son dos doctrinas muy diferentes. La primera nace como una vasta hipótesis de trabajo, fundada en observaciones, cuya parte dejada a la interpretación es muy pequeña. (...). Pero cuando pasamos de los hechos biológicos a los hechos de la cultura, las cosas se complican singularmente. (...). Anterior al evolucionismo biológico, teoría científica, el evolucionismo social no es, sino muy frecuentemente, más que el maquillaje falseadamente científico de un viejo problema filosófico”.

que les Basques ne sont pas au niveau de leurs voisins, il lui resterait encore à prouver que cette infériorité dépend de leur langue antique.

(ibid.: 11-2)

Are gehiago, Frantziako irakaskuntzaren hedapenari buruzko taulak erabiliz, analfabetoen proportzioa euskaldunen artean auzo herrietan baino askoz txikiagoa zela erakutsi zuen Bonapartek:

(...) d'après la Carte du Progrès de l'Instruction en France par M.J. Manier, tandis que dans le Département des Landes où il n'y a pas de Basques le nombre des illettrés était, en 1867, de 33 à 83 %, dans celui des Basses Pyrénées où le tiers de la population parle basque, les illettrés se trouvaient être, à la même époque, de 10 à 25 %. Or, (...) ces faits ne sont nullement favorables à l'opinion si légèrement émise par M. Vinson que la langue puisse exercer une influence nuisible sur l'instruction du peuple basque.

(ibid.: 12)

Bonaparteren argudioak ez ziren, ikusten dugunez, sakontasun ideologiko handikoak, baina errealitatean oinarritzen ziren eta horrek berebiziko indarra ematen zien orduko euskaltzaleen begietara. Denen kezka euskarari iragartzen ari zitzaion heriotza zen eta, giro horretan, Bonaparteren aldarrikapenek bihotz ematen zieten, Manuel Gorostidik Nafarroako *Revista Euskara*-n argitaraturiko artikulua erakusten duenez<sup>164</sup>:

[Vinson] se propasó á causar una verdadera injuria á la *Euskal erria* manifestando que sus habitantes no saldrán de la ignorancia en que se hallan sumidos, hasta que olviden el antiquísimo idioma que les legaron sus padres. (...). Por fortuna para nosotros, aún tiene vida y aliento el ínclito príncipe Luis Luciano Bonaparte, que ciñe á sus sienas la doble corona de su ilustre prosapia y de su vastísima erudición. Ese sapientísimo vascófilo se hizo cargo de todos los errores de Mr. Vinson en un folleto publicado en Lóndres durante el año de 1877, refutando y destruyendo por completo sus sofisticos argumentos.

(Gorostidi 1878: 215-6)

Euskarari buruzko eztabaida hauen esanahia edukiak berak iradokitzen duena baino harantzago doa. Jokoan zegoena Pierre Bourdieuk "irudikapenaren indarra" ("la fuerza de la representación") deitu duena da: "estrategias interesadas de manipulación simbólica cuyo objeto es determinar la idea que los demás pueden hacerse de esas propiedades y de sus portadores" (1985: 87). Alegia, euskaldunek hizkuntza bat zuten, euskara, eta hau egoera jakin batean zegoen eta ezaugarri jakin batzuk zituen, baina Vinsonek eta, berarekin batera, XIX. mendeko pentsa-

---

164. Gogoeta bera aurkitzen dugu, esate baterako, Duvoisinek 1885eko azaroan Arzak-i igorri eskutitzean (Daranatz 1931: 334).

mendu- eta mentalitate-joera nagusiek, hizkuntza primitiboa zela eta bizitzaren legearen halabeharraz hiltzera kondenatua zegoela adierazten zieten. Hau da, euskaldunek “zientziaren” ispilura begiratu eta euren hizkuntzaz halako irudia-edo, sinestarazi nahi zitzairen irudikapena, aurkitzen zuten, eta, ulertuko denez, norberaren hizkuntzak ez duela deustarako balio eta hiltzear dagoela sinestetik hizkuntza baztertu eta hiltzen uztera urrats bat besterik ez dago. Lilura bat zen, ez errealitatearen egiazko isla, eta Bonaparteren eztabaidak erabakigarriak gertatu ziren irudikapen faltsu hori puskatzeko ahaleginetan.

### 5.1.4 Hizkuntz hautaketa eta hizkuntz erabilera

Orduko euskaldunek, ohikoa denez, mintzatzerakoan hautaketak egiten zituzten, hots, gizartean eskura zituzten hizkuntz formen artean, hizkuntzen artean batez ere, bata edo bestea hautatu beharra izaten zuten askotan eta hala egiten zuten. Aukeraketen zergatiak, baina, ulergarriak izan badaitezke ere, isilean gelditzen ziren, euskaldunek ez baitzituzten normalean azaltzen, eta horixe gertatzen da Bonaparteren lekukotasunekin. Praktikan egiten zituzten hautaketak, eta baita hauek biltzen zituzten ohitura-sistema edo ereduak ere, erakusten dizkiguten argibideak izan badaude, baina beraiei buruzko azalpenik, aitzitik, ez dago. Bestalde, hizkuntz hautaketak erabilpenean erakusten ziren heinean, zail samarra zaigu bi sailak —hautaketa eta erabilera— bereiztea, kontzeptualki desberdinak izan arren.

Badakigunez, euskararen barrutian bizitasun handiko eta higadura pairatu duten egoerak ditugu. Behin euskara indartsua zegoen eskualdeak erakutsi eta gero, Bonaparte ez zen zehaztasun handiagoetan sartu eta oso urriak dira lurralde horiei buruz eskaini zituen albisteak. Ziordian, adibidez, oso erabilia zela zioskun —“C’est à Ciordia même, où le basque est très en usage...” (Urquijo 1910: 264)— baina argitasunak ez zihoazen askoz harantzago.

Desberdinak dira gauzak, aldiz, ukipen-eremuei dagokienez. Hauetaz argibide franko eman zuen Bonapartek eta, Pirinioetako ekialdeko haranei buruz bereziki, bertako hizkuntz hautaketa eta erabilpen ereduaren ardatz nagusietako batzuk marraztera iritsi gaitezkeela esango nuke. 1866. urtean Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari ibarretara joan zen Bonaparte eta txango hartako emaitzak bi tokitan aurkitzen ditugu: bidaian zehar hartu zituen eskuzko oharretan —Gonzalez Echegaray eta Arana Martijaren (1989: 41-2) katalogoko 29 zenbakia duen eskuizkribua: “Cuestionarios y notas lingüísticas sobre los dialectos de Aribes, Jaurrieta, Roncal, Roncesvalles y Vidángoz”— eta gero argitaratuko zuen *Études sur les trois dialectes basques des vallées d’Aezcoa, de Salazar et de Roncal* (1872) liburuan.

1872ko lekukotasuna ezaguna bezain mamitsua da eta gizonezkoek eta emakumezkoek erakusten zituzten portaera desberdinak aurkeztzen dizkigu haranez haran. Aezkoan, ibarreko herri guztietan erabiltzen zen euskara: “L’aezcoan (...) est parlé dans les neuf localités suivantes qui constituent la vallée d’Aezcoa” (1872: 25). Zaraitzun, hamabost herritatik euskaraz hamalautan, denetan Uskartzen izan ezik, mintzatzen zen, baina Hegoaldean Zaraitzu ibarretik kanpo gelditzen den Arrakas Goiti herrixkan, ordea, biztanle gehienak euskaldunak ziren:

Le salazarais (...) est usité en quatorze localités sur quinze dont se compose la vallée de Salazar (...). Dans cette dernière localité [Uskartze], le basque a cessé d’être parlé (...). A Racas le Haut au contraire, situé en dehors des limites de la vallée, on pouvait encore en 1866 entendre parler le salazarais par la majorité des habitants, composée seulement de quelques individus.

(ibid.: 25)

Albisterik mamitsuenak, beharbada, Erronkari ibarraz mintzatuz eman zituen, beste bi ibarretarako ere erabilgarriak zirela ohartaraziz:

À Burgui le basque n’est parlé qu’en minorité, et seulement par quelques personnes qui ne sont plus jeunes. Les Roncalais entre eux parlent espagnol; avec les Roncalaises, ils parlent basque, ainsi que les Roncalaises entre elles. On observe à peu près la même chose à Ochagavía en Salazar. Cet usage n’a pas lieu toutefois dans les localités roncalaises d’Uztarroz et d’Isaba, où les hommes entre eux, comme dans les deux autres vallées, se servent tout aussi bien du basque que du castillan.

(ibid.: 25)

Aipatutako pasarteak oinarri eskuzko oharrak dituenek, argigarria deritzot berauek ere hitzez hitz aditzera emateari. Horrela, adin eta sexu taldeen hizkuntz jokaerak era honetan jaso zituen:

Los hombres de Burgui, Garde, Vidangoz, Urzainki y Roncal, entre sí, castellano. Ochagavía también, parece; pero ¿no?? Izalzu; Uztarroz, Isaba y todo Salazar.

Niños y niñas responden en castellano y se les pregunta en vascuence en Roncal, menos Uztarroz y Isaba. Cuando adultos hacen como los otros.

(Bonaparte, 29. eskuizkribua)

Bestalde, hiru haranetako egoerak laburbilduz, zera idatzi zuen:

Salacenco Todo Salazar - Uscarrés nada + Racas alto- en mayoría

Roncalés Todo Roncal - Burgui: en mayoría

Aezcoano Toda Aezcoa

(ibid.)

Azkenik, Burgiko euskarari buruz hau gehitu zuen: “Burgui; lo poquísimos, bascuence de Garde” (ibid.).



Bonaparteren lekukotasunak honaino iristen dira. Bertan aurkitzen ditugun portaerak geografikoki mailakatuak daude, 22. irudian (Pirinioetako ekialdeko ibarrak) ikus daitekeenez: hegotik iparrerantzako eta ekialdetik mendebalderantzako norabidean. Hau da, zenbat eta iparralde eta mendebalderago, gero eta trinkoagoak dira euskara erabiltzearen aldeko hautaketa-ohiturak, denboran sustrai luze eta sakonak dituzten joerak erakutsiz (ikus 3.5 atala). Burgin adineko bakan batzuek besterik ez zuten euskaraz hitz egiten; Uskartzen inork ez. Handik gora, mailaketa nabarmena da Erronkariko herrietan. Haranaren erdialdeko herrietan —Bidankoze, Garde, Urzainki eta Erronkari— emakumezkoek euskara hautatzen zuten, gizonezkoek, ordea, euren artean zeudelarik, gaztelania, baina emakumezkoekin arituz gero hauen eredura makurtzen ziren euskara erabiliz<sup>165</sup> eta haurrek, azkenik, euskaraz galdetzen bazitzairen ere, erdarara jotzen zuten, gizonezkoek bezalaxe, hizkuntzaren transmisioaren katean erdara hautatzeko joera dagoeneko txertatua zegoela erakutsiz<sup>166</sup>. Erronkariko ipar herrietan —Izaba eta Uztarroze— beste eredu bat zuten, gizonezkoek euskara zein erdara erabiltzen baitzuten, eta haurrek ere euskarari eusten zioten. Erronkariko euskara, beraz, nahiko higatua zegoen eta egoera lehenagotik zetorrela Añibarroren 1820 inguruko lekukotasunak baieztatzen du, bertan ez zela jadanik euskaraz predikatzen baitio: “Roncal. En este Valle ya no se predica en bascuence” (Villasante 1966: 58).

Zaraitzu ibarra sartuago dago eta hegoaldetik baizik ez zuen erdararekin ukitzen. Han, sendo samarra zen euskararen erabilera: Izaba eta Uztarrozeko eredu bera, Otsagi hiriburuan izan ezik. Eliz gaietan ere euskarak Erronkarin baino toki handiagoa zuelako albisteak baditugu, Eiaurrietako erretorea zen Pedro Jose Samperren dotrinaren ikastaldiak, adibidez. Zaraitzuko euskara aztertzeke asmoz han egon zenean, Bonaparte haietako batera joateko gonbidatu zuen Samperrek, zuzeneko euskara herritarra entzuteko era egokia zelakoan (Campion 1890: 84). Otsagiko gizonezkoek, Erronkarikoek bezala, erdararen aldeko joera erakusten zuten. Bestalde, Koldo Artolak (1993) Zaraitzu eta Erronkarin jaso zituen albisteak bat datoz funtsean Bonapartek eskainitakoekin: “Saiatu nintzen haien arteko [Zaraitzu eta Erronkari] harre-

165. Portaera molde honekin bat dator arrazoi askorengatik balio sinboliko handia duen Gaiarrek bere izebari zuzendu zion euskarazko eskutitz ezaguna (Irigaray 1974: 40-2).

166. Mende bat beranduago portaera mota berbera aurkitu du Sanchez Carrionek oso elebidundurik zeuden eskualdeetako haurrengan: “Cuando la presión de este ambiente disminuye (porque todos entienden ya el castellano, no hay monolingües vascos) el niño pasa a ser exclusivamente castellanófono. Aunque en su casa le hablen en vasco, él contesta en castellano, ya que no siente la necesidad de hacerse entender en vasco” (1972: 149).



22. irudia. Pirinioetako ekialdeko ibarrak: Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoa.

manak azalerazten, eta denetarik aditzen nuen. Adibidez, Espartzakoek esaten zuten Erronkarikoekin beti erdaraz egiten zutela, baina Eiaurrietako emakume batek duela gutxi esan zidan Donibane-Garazikoekin ez zutela batere arazorik ulertzeko”.

Amaitzeko Aezkoa dugu, non Bonaparteren lekukotasunen arabera ez zen higadura aipagarririk agertzen. Hala ere, gizonezkoen elebitasuna, Bonapartek dioenez, ohikoa zen hiru ibarretan, XX. mendean pairatuko zuten atzerakada iragarriz beharbada.

Hizkuntz hautaketa aztertzeke 2.3.2 atalean aurkeztu diren irizpideak —soziologikoa, psikosoziala eta antropologikoa— gogoan izanik, hitz batzuk esan ahal ditugu goiko argibideei buruz. Irizpide soziologikoak erabilpen eremuak —barruti fisikoak, geografikoak, funtzionalak, gizarte-taldeak eta abar— hartzen ditu kontuan. Irizpide horren arabera, barruti batzuk hizkuntza jakin bati eta beste batzuk beste bati lotuta zeudela ikusten da. Esate baterako, Erronkariko gizonen eremua, oro har, eta, bereziki, herritik kanpo egindako lanarena, eremu erdalduna zela esan dezakegu. Emakumeena, ordea, eremu euskalduna zen. Zaraitzuarrentzat, Erronkariko biztanleekiko harremanena barruti erdalduna omen zen eta Nafarroa Behereko biztanleekikoena, berriz, lekukotasunek diotenez, euskalduna.

Ikuspegi psikosozialak norbanakoek hautaketa jakin bat egiteko dituzten motibazioetan jartzen du arreta, motibazioak banakoaren eta gizartearen arteko elkarrekintzaren emaitza direla jakinik. Kontuan hartzeko faktoreak hauek dira: hiztunaren gaitasuna hizkuntza batean nahiz bestean, talde sozialak berarengandik espero duen hizkuntza eta, hiru-garrena, solaskidearen hizkuntza. Hiru faktoreak bat datozenean egoera teilakaturia dagoela esaten dugu. Aldi berean, solaskideak hizkuntza desberdinekoak direnean, uste izatekoa da nor bere mintzaira bestearenera egokitzen saiatzea. Horrela begiratuta, garbi dago Erronkariko artzainak Bardeen inguruko bizilagunen mintzairerara egokitu zirela (ikus 5.1.5 atala), euren jatorrizko hizkuntza apurka-apurka baztertuz. Haurrek erdaraz erantzuten zutenean, berriz, azalpen bat baino gehiago izan zitezkeen: aukera bat da gaztelaniaz gaitasun handiagoa zutelako zela pentsatzea eta, adibidez, kontrajarria ez den beste aukera bat, egokieraren edo akomodazioaren ikuspegitik, ume haiek, Bonaparte eta bere kideak kanpotarrak zirela ikusita, arrotz batengan espero zitezkeen hizkuntzara, erdarara, egokitu nahi zutela uste izatea da. Aldiz, gizonak emakumeen hizkuntzara, euskarara, egokitzen ziren eta, orobat, euskara nagusi zen Aezkoan eta Zaraitzuko herri gehienetan bat zetozen, hots, teilakaturik zeuden, hiztunen gaitasunak eskatzen zuen hizkuntza, solaskideen hizkuntza —solaskidea kanpotar erdalduna zenean izan ezik— eta gizarteak haiengandik espero zuen hizkuntza: euskara.

Ikuspegi antropologikoak, azkenik, hautaketan atzean egon daitezkeen kultur baloreak eta talde-partaidetza sentimenduak aztertzen ditu.

Erabili ditugun albisteak ez dira alde honetatik oso adierazgarriak, baina, adibidez, erronkariarrak Zaraitzuko auzoekin erdaraz mintzatzen zirenean, argi ematen du euren burua gehiago kokatzen zutela erdaldu-nen komunitatean euskaldunenean baino. Zaraitzuarrak elebidunak bide ziren, baina Donibane-Garazikoekin elkar ulertzeko euskaraz hitz egiten zutenean, bi taldeak euskal komunitateko partaidetza ari ziren adierazten.

Laburbilduz, esku artean darabiltzagun argibideen arabera, hizkuntzaren hautatze-erabiltze ereduak bi ziren Pirinioetako sortaldeko ibarretan: euskarak bizitasun handia zuen eskualdeetako eta jadanik ahulduta zegoenetakoa. Aurrenekoa Aezkoa osoan, Zaraitzu ia osoan —Otsagin eta Uskartzen izan ezik— eta Erronkariko Uztarroze eta Izaban aurkitzen dugu. Bere ezaugarri nagusia guztiek, bai gizonaek bai emakumezkoek eta baita haurrek ere, euskaraz mintzatzeko ohitura izatea da, nahiz eta gizonak erdararekin tartekatu. Bigarrena bizitasun txikiko egoeren adierazlea da: Erronkariko gainerako herriak eta Otsagi. Eredu honen ezaugarri nagusia bi gizarte-taldek —gizonaek eta haurrak— erdararen aldeko hautaketa egina zutela da, gizonak emakumeekiko harremanetan euskara erabiltzen bazuten ere. Ordezkapena oso aurreratuta zegoen tokietan, Burgin, kasu, soilik adineko jendeak mintzatzen ziren euskaraz. Hizkuntzaren hautaketa-erabiltze sistema bien esanahia ikuspegi soziologiko, psikosozial eta antropologikotik azter daiteke, goian egin dugun bezala, eta elkarren osagarriak diren ondorioetara iristen da.

### 5.1.5 Hizkuntz hautaketa eta erabilera: emakumeak, gizonak eta euskara

Esandako lau gizarte-multzoetatik bik aipamen banandua merezi dute: emakumezkoak eta gizonaek, bakoitzak portaera desberdinak erakutsiz, emakumeak euskararen gordetzailearen zereginean eta gizonak erdararen bideratzailearenean agertzen direlako.

Jokabide horiek ezagunak izan dira Bonapartek aipatu zituenetik eta azalpenak ere berehala hasi ziren ematen. Pedro Madrazoren (1886: 261) azalpen bitxiak alde batera utzita, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ulertzeko bidea Campionek finkatu zuen. Gizonaen erdalduntzea lana zela-medio urtero Erriberan<sup>167</sup> ematen zituzten ego-

---

167. Lanak eragindako mugikortasuna ez zen txikia orduko gizonen artean eta Zaraitzu eta Erronkari ibarretakoak ez ziren eskualde erdalduzetara joan beharra zuten bakarrak. Bonapartek, adibidez, Elizondoko igeltseroak aipatu zituen, Tuterara eta, oro har, Nafarroako hegoaldera lan egitera zihozela esanez: “les maçons d’Elizondo (...) en allant travailler à la Ribera ou à Tudela” (Urquijo 1910: 267).

naldi luzeei zor zitzaiera dio Campionek, emakumezkoak, herritik ateraz gero, Iparraldera joaten ziren bitartean:

Débase ésta más temprana erderización de los hombres á que muchos salacencos bajan anualmente á la Ribera en su penoso y peligroso oficio de *almadieros*, ó á calidad de *trujaleros*. (...). En cambio la corriente industrial de las mujeres se encamina á Larrau y Mauleón, donde se les proporciona trabajo de alpargatería, y en esos países de lengua baskongada, ellas no se contaminan de erdera como sus hermanos y maridos, los inmigrantes al Sur.

(Campion 1911: 19)

Caro Barojak munta handiko beste faktore bat gehitu zuen: transhumantzia. Erdi Arotik datorren ohiturari jarraikiz, Erronkariko artaldeek udazkena eta negua Bardeetan ematen zituzten eta Erriberako egonaldi luze hauek ukaezinezko eragina izan zuten gizonen hizkuntzan<sup>168</sup>:

No hemos de dejar de recordar que los traslados contribuyeron de modo poderoso últimamente a que en el valle se fuera perdiendo la lengua vasca y esto de manera particular. En efecto, los hombres que bajaban al S. y permanecían allí mucho tiempo, a fines del siglo XIX ya hablaban generalmente castellano, aunque comprendían el vasco.

(Caro Baroja 1978: 161-3)

Herri literaturak ederki islatu ditu ohitura hauek. Koplak dioenez, gogokoago zuten negua Bardeetan ematea Erronkarin —Belabartze ibartxoan— baino:

Ama Berjina Martxokoetan  
Belabarzeko ordokietan,  
obeki egonen nintzen  
Bardeako lerkopetan

(Azkue 1931: 301)

Herrian geratzen zirenek, bestalde, hauxe abesten zuten:

Ya van las mozas a Francia  
los mozos a la Ribera,

168. Pirinioetako bi aldeek, hala ere, osotasuna zuen gunea eratzen zuten eta maiz transhumantzia Pirinioetako beste aldera bideratzen zen, eta Baztan, Aezkoa eta Zaraitzuko artzainak, eta Erronkarikoak ere bai Erdi Aroan, Iparraldeko lur euskaldunetara joaten ziren (Caro Baroja 1971, I: 266 eta 1978: 163). Euskara trinkotzen zuen transhumantzia genuke hau, beraz. Ikus, halaber, Etxegoien (1994), non, aziendak eta mugak zirela-eta, Aezkoako Juntak Ezterenzubi —1863— eta Donazaharre —1905— herrietatik jaso euskarazko gutunak erakusten diren. Ikus, halaber, Camino (1997: 91-101).

ya nos quedamos solicos  
hasta la otra primavera.

(Ollarra 1957. *A la Bardena del Rey ya bajan los roncaleses "Seis días con los pastores y los rebaños trashumantes"*. *Vida, paisaje y anécdota de la Cañada*. Iruñea, 40. Aipatua in Caro Baroja 1972, III: 378)

Artzain guztiak ez omen zeuden oso gustura Bardeetan, eta emakume guztiak ez bide ziren Iparraldera joaten, emaztea eta seme-alabak herrian zain zituela gogoratuz herrira itzultzeko irrikitan zegoen gizonak dioskunez:

Adios, maldita Bardena  
me voy para no volver,  
porque en mi pueblo me esperan  
mis hijos y la mujer.

(ibid.: 377-8)

Erriberarako trashumantziaren oihartzunak Aezkoan ere jaso dira: "Ardiak daza belarrez / Irriberako kanpadres" (Azkue 1927: 252).

Emakumezkoek euskara gorde zutela argi dago, eta honen esplikazioa orokorrean herriko bizimodu eta ohiturekiko loturei eutsi izanean bilatu behar dugula uste dut, baina logikak Campioni iradoki zion arrazoibidea —Iparraldera joanda giro euskaldunari eutsiko ziotela, alegia—, ordea, ez dator bat egitan gertatzen zenarekin, Maulera joandako emakumeek, euren artean denek gaztelaniaz egiten zuten-eta, Fidela Bernat uztarroztarrak Koldo Artolari bere harridurarako adierazi zionez:

Fidela Bernat ere, bere garaian, askotan joaten zen Maulera, espartinak egitera, eta haiekin euskaraz egiten zuen galdetzerakoan han denek «espainolez» egiten zutela esan zidan. Harriturik utzi ninduen.

(Artola 1993)

Fidela Bernaten ñabardurak gorabehera, euskararen zaindariak emakumezkoak ziren Erronkarin eta Zaraitzun eta kanpoko hizkuntzaren aldeko hautua, aldiz, gizonezkoek bideratzen zuten. Berdin gertatu zen Nafarroan Aro Berri osoan, lekukotasun franko eskaini ondoren —Urraul Goiti 1785 (Jimeno Jurio 1991: 241); Eraul 1723 (Satrustegi 1991: 116); Uskartze 1605 (Jimeno Jurio 1993c: 242), eta abar—, Jimeno Juriok (1994c: 333) nahiz Satrustegik diotenez: "la mujer conserva mejor el idioma autóctono, que el hombre" (Satrustegi 1991: 116). Horrela gertatzen zen eta Erronkari eta Zaraitzuko arrazoi hurbilak ezagunak zaizkigu, baina honek ez digu arau orokorragorik ateratzea baimentzen, eta, era berean, literatura soziolinguistikoan sexuen portaerei buruz esan direnak, XX. mendera

arteko jokamoldeei dagokienez bederen, erlatibizatu egin behar direla erakusten digu.

Ohiko ustea da berrikuntza, hizkuntza ofiziala onartu eta herrikoa bertan behera uztea, gure kasuan, emakumeek dakartela, bertako hizkuntzaren iraupena gizonei zor zaien bitartean. Pierre Bourdieuren hitzak uste horren erakusle ezin garbiagoak dira: “se comprende, como tantas veces han observado los sociolingüistas, que sean las mujeres quienes antes adoptan la lengua o la pronunciación legítima: condenadas a la docilidad respecto a los usos sociales dominantes por la división del trabajo entre los sexos” (Bourdieu 1985: 24)<sup>169</sup>. Era berean, Korsikako bilakaera aztertu duen Jean Marie Comiti-k, ordezkapena gertatu denean lehenengo urratsa emakumeek egin dutela adierazi eta gero —“En Corse, la plupart des femmes ont abandonné l’usage de la langue bien avant les hommes” (Comiti 1992: 165)—, ondorio orokorrak atera nahi izan ditu, William Laboven babesa ekarriz.

Aipatutakoak bezalako baieztapenen aurrean bi ohar egin beharrean gaude: bata, unean uneko lekukotasunek, Erronkari eta Zaraitzukoek bezala, denetatik erakusten dutela sexu-taldeen hizkuntz portaeran, ez beti norabide bereko portaera —“women are linguistically innovative in some communities and not in others” (Gal 1984: 293); “We are thus confronted with two theories: women are conservative, women are radical” (Aikio 1992: 44)—; eta, bigarrena, Laboven babesa oker hartuta dagoela, autore honek, ongi ulertu baldin badut, bestelako iritzia adierazi zuen eta.

Goikoez landa, mota bateko zein kontrako albisteak ditugu, Orreaga Ibarak Ultzamako azterketa dialektologikotik abiatuta erakutsi duenez. Bere ustez, “badirudi herri eta nukleo txikietan emakumeek erabilera kontserbatzaileagoa erakusten zutela, eta hirietan, ordea, berrikuntzen buru direla” (1995: 609).

Frantzian, XIX. mendearen hasieran, emakumeak ziren herriko hizkuntzaren zaintzaileak:

L’anéantissement des patois eût été proche s’il n’était resté dans les villages une population sédentaire, composée non seulement des vieillards, mais des femmes, qui elles n’avaient pas fait campagne et couru le monde, mêlées à des camarades de tout pays et de tout idiome. Celles-là transmettaient leur langage aux enfants: «Semper *lactamus* idioma materno».

(Brunot 1967, IX-1: 420)

169. Ikus, halaber, Calvet (1993a: 49-50), Bourdieurekiko adostasuna adieraziz.

Weinreichek Mazedoniako lekukotasuna ekarri zuen gogora eta han ere hizkuntza aldatzeko joera gizonek zutela, ez emakumeek, erakutsi zuen:

De vez en cuando, es posible que uno de los sexos esté más expuesto al contacto con la segunda lengua. En Macedonia, por ejemplo, las mujeres aromúnicas son unilingües en su mayoría, mientras que los maridos son bilingües o multilingües.

(Weinreich 1974: 199)

Berdin gertatzen zen XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran Norvegia eta Finlandiaren artean dauden kven eta sami<sup>170</sup> herrietan, eta beste hainbatetan ere bai, Marjut Aikiok dioenez:

(...) Fris (1871: 120) pointed out that Kven men managed well in Norwegian, but that Kven women remained monolingual and spoke only Finnish. The geographer J. E. Rosberg (1891: 45, 1920: 183), found a similar situation among the Sámi. These results agree with research done in other multilingual societies.

(Aikio 1992: 44)

Bestalde, Sanchez Carrionek 1970.eko egoerari buruzko ikerketaren ondorioetan erdararen aldeko joera gaur egungo emakumeen ezaugarritzkoa dela esan zuen: “La mujer es siempre más inclinada al castellano que el hombre, más apegado al vasco” (1972: 192). Uitziz herriko nire ikerketak (ikus 6. kapitulua) joera bera erakutsi du eta egungo egoerei buruzko beste ikerketa askok ere bai. Adibidez, arestian aipatutako samien artean, “Men seemed to be the last preservers of the Sámi language. (...). Women, on the other hand, seemed to be the innovators of the majority language” (Aikio 1992: 54). Berdin gertatzen da egungo Tunisian ere (Dhaouadi 1996).

1981. urtean, berriz, Malerrekari buruzko azterketan, gaztetxoek eta helduen portaerak bereizi zituen Txepetxek. Gaztetxoek artean neskak mutikoak baino berritzaileagoak agertzen ziren, baina helduen artean, aldiz, emakumeak ziren gordetzaileagoak<sup>171</sup>:

Por encima de esa edad [40-45 urte], y hasta la senectud, las mujeres suelen saber menos castellano que los varones, e incluso lingüísticamente son

---

170. Sami herria izendatzeko bi izen erabili ohi dira: “samiak” eta “laponiarrak”. Azken hau ezagunagoa da gure artean, baina beraientzat mesprezio kutsua du eta sami hitza hobesten dute. Horrela egin dut nik ere.

171. Eredu bikoitz berbera erakusten zuten 1970eko hamarkadan Oberwart-eko emakumeek (Gal 1984).



más conservadoras presentando rasgos de arcaísmo lingüístico. (...). En las mujeres por encima de la edad citada la invasión lingüístico-cultural [1960-80 hamarkadetakoa] (...) las ha sorprendido con unas pautas de expresión completamente fijadas a su lengua materna, y con una resistencia adquirida a la asimilación de otro idioma, en tanto que sus coetáneos varones, siquiera por el servicio militar obligatorio y porque sus desplazamientos forzosos fuera del pueblo o caserío son más abundantes, siempre han retenido unos conocimientos elementales del castellano.

(Sanchez Carrion 1981b: 78-9)

Honenbestez, aurkeztu diren adibideek, Euskal Herriko zein kanpo-koek, gizarte-taldeek hizkuntz jokaera aztertzerakoan sexuaren aldagaia muntaduna dela adierazten digute, baina ez gehiago. Emakumeei eta gizonei beti zeregin bera leporatzen dieten Bourdieu edo Comiti bezalakoekin baieztape orokorrak ez datoz bat, beraz, errealitateko gertaeren aniztasunarekin.

Halaber, Laboven babesa ekartzea bere hitzen interpretazio bortxatua egitea da, nire ustez. Alegia, New York, Detroit eta Chicagon hizkuntz aldaketaz egin zituen ikerketan aldaketaren aitzindariak emakumeak zirela ikusi zuen Labovek (1983: 371-2) eta joera bera aurkitu zuen Gauchat izeneko ikertzaileak 1905. urtean Charmey herriko hizkeraz egindako azterketan (ibid.: 405). Orobat, emaitzei indar handiago ematearren, Frantziako hizkuntz historiako beste adibide batzuk ekarri zituen gogora Gauchatek.

“Zergatik jokatzen dute horrela emakumeek?”, galdetzen dio bere buruari Labovek. Badirudi, bere iritziz, prestigiodun formek eragin handiagoa dutela emakumeengan gizonengan baino, baina honela izanda ere, hau erdibidean geratzen den erantzuna besterik ez litzatekeela gehitzen du: “No puede tratarse únicamente de su sensibilidad hacia las formas de prestigio, porque ésta es sólo una explicación a medias” (ibid.: 373). Orobat, harantzago doan azalpenik ez dago ematerik. Gainera, kontradibideak ere ugari dira (ibid.: 374) eta, ondorioz, oker larria izango litzateke hizkuntz aldaketaren aitzindariak beti emakumeak direla esatea: “Sería un error grave construir un principio general según el cual son las mujeres las que encabezan siempre el cambio lingüístico” (etzana nirea da) (ibid.: 374). Hauxe da, hain zuzen ere, Laboven autoritatearen itzalpean ustez kokatzen diren egile frankok egiten duten hutsa.

Labovek dioenez, aipaturiko datuetatik atera daitekeen ondorio orokor zuzena ez da aldaketaren erantzunkizuna emakumeei egotzea, sexua hizkuntzaren aldaketan maiz berebiziko garrantzia duen aldagaia dela baizik:

La generalización correcta no es, por lo tanto, que las mujeres están en cabeza en el cambio lingüístico, sino más bien que la diferenciación sexual

del habla desempeña a menudo un papel primordial en el mecanismo de la evolución lingüística.

(*ibid.*: 374)

Azalpen bila, ukaezina da hizkuntzaren transmisioan emakumeek duten betekizuna, haurren lehendabiziko urteetan batez ere, eta garbi dago amaren jokamolde ugari zuzenean islatuko direla umeek barneratzen dituzten hizkuntz ereduetan. Horrexegatik ematen zaio hain garrantzi handia sexu-aldagaiari hizkuntzaren bilakaeraren azterketan. Haurren sozializazioan bi alor lantzen dira: jaioterriarekiko lotura, komunitatearen barneko munduarekikoa, alegia, eta kanpoko mundurako prestaketa. Bietako hizkuntza bera denean, hizkuntza normalizatu bateko komunitate batean, kasu, orduan ez dago arazo handirik. Komunitate euskaldunetan, berriz, desberdina zen egoera, barneko hizkuntza euskara, baina komunitatetik at ibiltzekoa erdara zirelako. Barne munduari loturiko hizkuntza eta kanpo munduari loturikoa genituen, beraz, eta emakumeen esku zegoen haurren heziketak biei erantzun behar zien. Batzuetan komunitatearen hizkuntzari ematen zitzaion lehentasuna eta beste batzuetan kanpokoari, ordea, eta hautaketa horretan faktore asko sartzen ziren jokoan. Adibidez, herriko hizkuntzaren bizitasuna, herriko bizimoduaren indar sozioekonomikoa, kolektibitatearen hizkuntz nahiak, emakumeen beraien estatusa<sup>172</sup>, emakumeei eta gizonei eskaintzen zitzaizkien rolak —“Hizkuntz alde-  
tik, nire eritziz, emakumearen rola funtsezkoa da lehengo eboluzioa nahiz egungo asimilazioa ulertzeko” (Egia 1990: 122); “when women’s and men’s roles are completely different (...) there is a clear difference in language choice” (Aikiok 1992: 58)—, prestigiozko araua (Garcia Mouton 1992: 674), eta abar. Emakumeek bereganatu eta seme-alabei transmitituriko hizkuntz portaerak esandako faktoreen arabera izango ziren.

### 5.1.6 Hizkuntzaren gaineko ekintzak

Kontaktaren harira itzuliz, atal honek hizkuntzaren egoera aldaraztea bilatzen duten jardueren berri ematen du eta bertan euskalaritza, lite-

---

172. Estatusa izan zen Aikiok (1992: 58) samien artean aurkitu zuen arrazoia: “the fact that the women accept the majority language when their status is low as a way to improve their station in life and that women reject the majority language when their status is high in their own culture”.

ratur garapena, euskararen aldeko zein aurkako ekimenak eta tankera horretako gaiak jasotzen dira.

Bonapartek Nafarroako euskarak literatur garapenik ez zuela eta, oro har, ordura arte landugabe zegoela adierazi zuen argi eta garbi. Bonaparteren ardura euskalkien azterketa izanik, literatur euskalkiak eta literaturarik gabeko euskalkiak bereizi zituen. Literatur euskalkiak bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera ziren eta haien azterketarako oinarria literatura zen, ez alde mintzatua (Urquijo 1910: 238-9). Nafarroakoak, ordea, literaturarik gabeko euskalkiak ziren bere ustez: “le Haut-Navarrais et le Bas-Navarrais, qui sont aussi bien des dialectes que les premiers, ne possèdent pas de livres” (Urquijo 1908: 657), hau da, literatur euskalkia eratu gabe zuten: “pour le Haut et le Bas-Navarrais, le dialecte littéraire ne peut pas être invoqué puisqu’il n’a pas été formé” (ibid.: 657), eta beren ezagutzarako iturritzat alde mintzatua hartu zuen (Urquijo 1910: 239). Baliteke goi nafarrera literatur euskalki bihurtzea —“Si le haut-navarrais devient un jour dialecte littéraire...” (ibid.: 239)—, eta berri pozgarria izango litzateke hura, baina orduan, 1862. urtean, euskalki mintzatuak baino ez ziren Nafarroakoak: “quant à présent (...) le haut-navarrais, ainsi que le bas-navarrais existent dans la bouche du peuple, et seulement de cette manière” (ibid.: 239).

Halaber, Nafarroako euskararen ikerkuntza zientifikoa, gainerako euskalkienaren aldean, atzeratuena omen zen, 1881. urtean Arturo Campioni adierazi zionez (Lacombe 1933: 306).

Beraz, Nafarroako euskara hainbat eskualdetan atzeraka zihoan hizkuntza baldin bazen ere, ez zen Bonaparte etorri arte egoera horri aurre egiten lagunduko zion ekimenik sortzeko gai izan. Gipuzkoarekin alderatuz gero (Zuazo 1991: 25), berriz, oso desberdina zen Nafarroako egoera. Gauzak Bonaparteren lanen ondorioz hasiko ziren pixkanaka aldatzen, eta ez soilik euskal literaturari orokorrean eman zion bultzadagatik. Adibidez, 1868. urtean, hau da, behin Euskal Herrirako bost bidaiak egin eta ehunka eskuizkribu, argitalpen eta itzulpen jaso eta gero, Intxausperi igorri gutunean Hegoaldeko goi nafarreraz bilduta zituen materialek euskalki honen erlijio-literatura, ia bizkaierazkoa adinakoa eta zubererazkoa baino aberatsagoa, osatzeko bezainbeste bazirela adierazi zion: “Hace 50 años todavía era este dialecto [Hegoaldeko goi nafarrera] el de mayor extensión de la lengua. Los in-folios y los in-4º que de él poseo son más que suficientes para construir una pequeña Literatura religiosa, más rica que la suletina impresa, y casi tan abundante como la vizcaína” (Riezu 1958: 158).

Bonapartek parte hartze zuzena izan zuen, badakigunez, bere garai-ko euskalaritzaren eta euskaltzaletasunaren sustapenean eta, alde horretatik, Euskal Herriko euskalarien euren buruaren onespenerako garrantzi handikoa izan zen Bonaparte printzeak, Vinson eta besteren kritikei aurre eginez, haiei buruz adierazi zuen oniritzi garbia (1877:

16)<sup>173</sup>. Gainerako lurraldeak alde batera utzita, bere eraginaren emaitzak oso nabariak izan ziren Nafarroan, Arturo Campion eta bere kideek Bonaparterengandik jaso zuten babesean islatuta. Campionen ekimenak 8. kapituluan aurkeztuko baditugu ere, oraingo atalean hastapeneko urteetako lankidetzaz albiste zenbait eskainiko ditugu. Elkarlana pertsonala —Arturo Campionen ikerketetan— eta kolektiboa —*Revista Euskara* eta “Euscarazco Elcargoa-Asociación Euskara”-rekikoa— izan zen.

Campionek Bonaparteren konparaketa dialektalaren ildotik zuzendu zituen bere lehenengo euskal lanak —1880ko *Orreaga* balada— eta hasieratik bilatu zuen harremanetan jartzea printzearekin. Bonapartek zeharo harrera on eta irekia adierazi eta lanean segitzeko bihotz eman zion behin eta berriro, bere laguntza osoa eskainiz. Jadanik Campioni zuzendu zion bigarren gutunean —1880ko urriaren 12koa— bere poza erakusteaz gain, bilduta zeuzkan argibide eta ikerketa guztiak helaraziko zizkiola esan zion: “Je suis tellement charmé que vous occupiez (sic) du basque de Navarre, que je vais tâcher de vous envoyer tout ce que j’ai écrit moi-même ou étudié sur ce sujet” (Lacombe 1932: 194), eta aurreantzean ere ez ziren horrelako bultzadak falta izango (ibid.: 195). Gramatikaren lanei ekin zienean, haien berri eman zion Campionek Bonaparteri eta honek poza eta adostasuna adierazi zizkion berriro (Lacombe 1933: 310). Behin Campionen gramatika (1884) argitaratu eta gero ez zuen Bonapartek iritzia aldatu eta, adibidez, hura gomendatu zion H. Schuchardt berau euskaraz arduratzen hasi zenean, Aizkibelen eta Novia de Salcedoren hiztegiak hura bezain gomendagarriak ez zirela erantsiz: “Je suis enchanté que la langue basque ait captivé votre attention. Je ne saurais assez vous recommander la Grammaire basque de Mr. Campion parue à Pampelune. Je ne suis pas également content des deux énormes Dictionnaires basques d’Aizquibel et de Novia de Salcedo” (Schuchardt 1909: 136).

Nafarroako Euskara elkartearekiko elkarlana *Revista Euskara*-ri igorri zizkion artikuluetan gauzatu zen batik bat. Sortu zenetik elkarteko ohorezko bazkide izendatu zuten Bonaparte printzea (Lista de los SS. socios honorarios. *Revista Euskara* I, 1878, 16) eta hau prest agertu zen elkarrekin lan egiteko (Lacombe 1932: 196-7), artikuluen gaztelaniazko itzulpenez Campion arduratzea begi onez ikusten zuela gehituz:

---

173. Arturo Campionek dioenez, ugariak izan ziren kanpotarrek —Vinson, Hovelacque...— hemengo euskalariei egindako kritikak: “han sido objeto en época reciente, de acerbas y despiadadas críticas” (1884: 17). Kritiken aurrean, pozgarria zitzaien Bonaparteren oniritzia, Arturo Campionek azpimarratu zuenez: “Dice con mucha razón el Príncipe Bonaparte que entre las publicaciones de los autores desconocidos, hay varias que nada tienen que envidiar á las de otros países, como son las de Zabala, Inchauspe, d’Abbadie y Duvoisin” (ibid.: 18, 1. oin-oharra).

“C’est avec plaisir que je contribuerai toujours, comme membre honoraire, à la «Revista Euskara» grâce surtout à un traducteur aussi bon que vous [Campion]” (Lacombe 1933: 306). Aldi berean, aldizkariaren zenbaki bakoitzetik hogeita bost ale igortzen zizkioten Bonaparteri eta honek ezagutzera ematen zituen Londresko elkarte filologikoan (ibid.: 307).

## 5.2 Bonaparteren laguntzaileen lekukotasunak

Euskararen gizarte-egoeraren aztertze lanean beste iturri bat Bonaparteren laguntzaileen lekukotasunak ditugu. “Lekukotasunak” hitzaren adiera zabalean diot, hau da, batzuetan pertsona haiek beraiek esandakoak erabiliko dira, baina beste batzuetan, ordea, esanak baino gehiago euren bizitza eta eginen bidez adierazitako argibideak hartuko dira azterketaren abiapuntu. Bestalde, ez ditut laguntzailetzat jotzen Bonaparterekiko harremanik izan ez zuten pertsonak, beren izenak Bonaparteren paperetan ageri baziren ere.

Franko eta herri askotakoak ziren Bonaparteri euskararen berri eman zioten lagunak, gehienak euskaldunak ziren eta, nonbait, denen artean euskal barruti osoa gehi Iruñea estaltzen zuen euskaldun hautatuen sare bat osatu zutela esan genezake. Guztien erdi-erdian Bruno Echenique urdazubiarra dugu, bost itzulpenen egilea (Salaburu 1980 eta 1996), Nafarroako lanen koordinatzailea eta Bonaparteren nahi eta beharrak hobekien ulertu zituena, printzeak berak adierazi zuenez (Urquijo 1910: 251). Ondoren, gainerako itzultzaileak ditugu, maiz apaizak edo maisuak, Bonapartek aurretiaz ezarritako testuak, dotrinak eta *Biblia*-ko pasarteak gehienbat, nor bere herriko euskara jatorrera itzultzen zituztenak. Beste batzuek, aldiz, berariazko itzulpenik egin ez, baina hainbat dotrina helarazi zizkioten, edo lan-saio eta elkarrizketak izan zituzten Bonaparterekin. Azkenik, nola edo halako albisteak eskaini zizkioten lagunak ditugu.

### 5.2.1 Bonaparteren Nafarroako laguntzaileak

Bonaparteren laguntzaileen gainean lan egiteko aurrena nor izan ziren ahalik eta zehazkien jakitea da, noski. Beren zerrenda ez dago behin betiko itxita eta ikertzaileak gaiaz arduratzen hasi zirenetik —lehendabiziko zerrenda, nik dakidala, Urquijorena da (1908: 216)— guztiek azpimarratu izan dute hura osatzearen garrantzia. Ni neu ere saiatu naiz Bonaparteren Nafarroako lankideen zerrenda osatzen eta, bere xehetasun guztietan lanetik at gelditzen den ikerketa dela jakinik, bere laburpena aurkeztuko dut, bi ataletan sailkatuta: (1) orain arteko ikertzaileek proposaturiko zerrendetan agertu eta ontzat ematen ditudan izenak eta (2) izen berrien proposamena.

(1) *Egun arte proposaturiko zerrendak*. Anitz dira egundaino Bonaparteren laguntzaileen zerrendak egin dituzten ikertzaileak, nork bere emaitzak aurkeztuz, eta kronologikoki ordenatuta, hauek dira ezagutu ahal izan ditudanak: Julio Urquijo (1908), Aita Jorge Riezu (1958), Nikolas Alzola (1958-68), Jose Anjel Irigarai (1973) eta Jose Antonio Arana Martija (1992).

Azalpenetan luzatu gabe, guztira hogeita bi izen proposatu dira, eta horiei beste lau gehitu behar zaie, Bonaparteren laguntzailetzat jotzeko adinako ziurtasunik ez dutenak.

(2) *Izen berrien proposamena*. Bonaparteren laguntzaileak ezagutzeko aukera ez da, jakina, orain arte eman diren zerrendekin agortzen. Aurrera jotzeko hiru bide ditugu, zenbaitetan batera erabil ditzakegunak: jadanik argitaratuta dauden gainerako iturrietan agertzen diren izenen azterketa, Bonaparteren fondoko eskuizkribuen miaketa eta artxibo lana.

Iturri argitaratuei dagokienez, hainbat lan erabili ditut, batez ere Bonaparteren eskutitzen bildumak —Urquijo (1908-10), Lacombe (1932-3), Rodriguez Ferrer (1873: 75-7)—, Bonaparteren eskuizkribuen argitalpenak —Pagola et al. (arg.) (1995 eta 1996)—, Bonaparteren idazkien katalogoak —“Indice...” (1913), Garmendia (1933), Gonzalez Echegaray eta Arana Martija (1989)— eta Bonaparteri buruzko bibliografia —Arana Martija (1991)—.

Bonaparteren fondoko eskuizkribuen azterketarako kopia mikrofilmatuak —mikrofilmen erreferentziarako, ikus Gonzalez Echegaray eta Arana Martija (1989) katalogoa— eta, Nafarroari dagokionez, Nafarroako Artxibo Nagusiko (NAN) orijinalak ditugu. Artxibo lanean, NANaz gain Nafarroako Artxibo Administratiboa (NAA) eta Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa (IEA) miatu ditut.

Xehetasun handietan sartu gabe, zerrendetan agertzen ez ziren hainbat laguntzaile berri ezagutu ahal izan ditut bide hauei esker. Batzuen kasuan, Urizko Juan Cruz Elizalde, adibidez, Gonzalez Echegaray eta Arana Martijaren katalogoan (1989: 47) edo Pagola et al. (1996) bilduman adierazitakoa jaso besterik ez dut egin behar izan. Beste batzuetan, ordea, urrats gehiago egin behar izan dira. Esate baterako, 239. zenbakia duen Zugarramurdiko dotrinaz katalogoak (ibid.: 86) nahiz eskuizkribuak berak argibide soil hau eskaintzen digute: “Zugarramurdi, por uno de Saldias de Basaburua menor”. Beraz, genekien gauza bakarra Zugarramurdiko dotrina Saldiaстар batek egina zela zen. Erantzuna IEAn gordetzen den 1857. urteko Zugarramurdiko txostenean (Caja 413, Fajo 28) aurkitu nuen, parrokiako apaizen berri emanez bertako parrokoa Saldiasen jaiotako Jose Erasun zela baitio, hitzez hitz jasorik: “Dn. José Erasun de edad de treinta y seis años, natural de Saldias, Diocesis de Pamplona, (...), cura Parroco es su cargo, lleba de residencia nueve años y medio”, Jose Erasunen beraren letra eta sinaduraz.

Gainera, txosten honen letra eta Zugarramurdiko dotrinarena ia segurtasun osoz esku berekoak direla esan daiteke.

Aipatutako bi hauek adibide moduan azaldu dira, baina ondoren aurkeztuko diren Bonaparteren laguntzaileen izen berriak, hamaika guztira, antzeko bideetatik aurkitu ditut:

Izen-deiturak	Herria
Elizalde, Juan Cruz	Uritz
Erasun, Jose	Zugarramurdi eta Saldias
Garcia, Miguel	Orontze eta Otsagi
Goyeneche, Martin	Elizondo
Irurita, Antonio	Atarrabia
Juanco, Marcelino	Otsagi
Lacunza, Miguel Jose	Arakil-Uharte
Olo, Jose Joaquin	Iruñea eta Hondarribia
Ribed, Juan Pablo	Iruñea
Saralegui, Juan Andres	Intza
Zabalo, Esteban	Etxarri-Aranatz

Bonaparteren laguntzaileen izen berrien proposamena (neuk egina)

Goiko atalean bezala, oraingoan ere laguntzailezat joak izateko adinako ziurtasunik ematen ez duten izenak agertzen zaizkigu:

Izen-deiturak	Herria
Ansorena, Patricio	Erronkari
Echeverri, Martin	Aezkoa eta Baztan
Ibarrondo, Melchor	Madril eta Iruñea
Idoate, Felix	Arre
Iñarra Echenique, Fermin	Urdazubi
Legaz deiturako lagun bat	Aezkoa eta Baztan
Nicolao, Angel	Bidankoze eta Garde (?)
Nicolao, Antonio	Garde
Palarea Soto, Jose Maria	Iruñea

Bonaparteren zalantzazko laguntzaileak (neuk proposatuak)

(3) *Laburpena*. Bonapartek Nafarroan izan zituen laguntzaileetatik hogeita hamahiru ezagutzen dira, orain arteko zerrendek aipatutakoak gehi neuk proposatutako izen berriak, honako taula honetan bilduta:

Izen-deiturak	Herria	Lanbidea edo bestelako ezaugarriak
Arandia, Antonio	Bera	Kaputxinoa
Campion, Arturo	Iruñea	Abokatua
Elizalde, Juan Cruz	Uritz	Maisua
Elizondo, Martin	Aribe	Ostalaria
Erasun, Jose	Zugarramurdi eta Saldias	Apaiza
Erbiti, Mariano	Beintza-Labaien	?
Echeverria, Damaso	Elizondo	Alkatea
Echenique, Bruno	Urdazubi eta Baztan	Elizondoko alkateordea
García, Miguel	Orontze eta Otsagi	Apaiza
Gil, Benito	Irurozki	Apaiza
Goyeneche, Martin	Elizondo	Apaiza
Gulina, Vicente	Goñi	Udal idazkaria
Hualde, Prudencio	Bidankoze	Apaiza
Irazoqui, Fidel	Bera	Kaputxinoa
Irurita, Antonio	Atarrabia	Udal idazkaria
Juanco, Juan Marco	Otsagi	Maisua
Juanco, Marcelino	Otsagi	Apaiza, Juan Marco Juancoren semea
Lacunza, Miguel Jose	Arakil-Uharte	Apaiza
Larrainzar, Jose Javier	Elkano	“Comisión local de instrucción” delakoan ordezkaria
Loperena, Javier	Garralda	Apaiza
Mendigacha, Mariano	Bidankoze	Alkatea
Minondo, Pedro Jose	Garralda	Maisua
Olave, Miguel	Aria	Apaiza
Ollo, Jose Joaquin	Iruñea eta Hondarribia	Apaiza
Otamendi, Jose Maria	Gares	?
Remondegui, Francisco	Eiaurrieta	Maisua (?)
Ribed, Juan Pablo	Iruñea	Merkataria
Samper, Pedro Jose	Eiaurrieta	Apaiza
Saralegui, Juan Andres	Intza	Apaiza
Solis, Miguel	Aizpurgi	Apaiza
Tornaria, Pedro	Lizaso	Maisua
Ugarte, Juan Martin	Oltza	?
Zabalo, Esteban	Etzarri-Aranatz	Apaiza

Bonaparteren Nafarroako laguntzaileen laburpen-taula



Horiez gain, zalantzazko laguntzaileak ditugu, hots, euren izenak inon aipatuak suertatu arren, Bonaparteri laguntza benetan eman ote zioten egiaztatzeko adinako arrazoi ez dugun pertsonak, hamaika guztira:

Izen-deiturak	Herria	Lanbidea edo bestelako ezaugarriak
Ansorena, Patricio	Erronkari	Maisua
Echeverri, Martin	Aezkoa eta Elizondo	Maisua
Garmendia, Jose Javier	Elkano	?
Ibarrondo, Melchor	Madril eta Iruñea	Euskarari buruzko txosten baten egilea
Idoate, Felix	Arre	Trinitateko kaperaua
Ilarregui, Pablo	Iruñea	Udaleko idazkaria
Iñarra Echenique, Fermin	Elizondo	Abokatua, Bruno Echeniqueren hiloba
Lazco, Vicente	Auza	?
Legaz,—	Aezkoa eta Baztan	?
Nicolao, Angel	Bidankoze eta Garde	?
Nicolao, Antonio	Garde	?
Obanos, Esteban	Iruñea	Apaiza
Palarea, Jose Maria	Iruñea	Gobernadore zibila

Bonaparteren zalantzazko laguntzaileak

Amaitzeko, egiazko laguntzaileen banaketa geografikoa erakusten duen mapa dugu (ikus 23. irudia). Bertan ikusten denez, euskararen barruti osora hedatu zen Bonaparteren laguntzaileen sarea.

### 5.2.2 Bonaparteren laguntzaileen esanahi soziolinguistikoko lekukotasunak

Bonaparteren nafar laguntzaileei buruzko ikerketak garaiko euskararen egoera ezagutzeko eskaintzen dituen argibideak aurkeztea da hurrengo urratsa. Argibideok, hala ere, mugatuak suertatzen dira, baina beren mugatutasuna bera ere euskararen egoeraren seinale da, Bonaparteren helburuek baldintzaturiko hautaketen adierazle izateaz gainera. Alegia, alde batetik, Bonapartek euskararen ezaugarri dialektologikoak eta hizkuntzaren barrutiaren mugak ezagutu nahi baldin bazituen alde haietara zuzendu zuen bere laguntzaileen lana, ez euskararen gizarte-egoeraren aztertze aldera; baina, bestalde, egia da orobat, Bonapartek bildu zituen idazkiak eta elkarriketatu zituen lagunak ezagututa, bere kezkek dialek-

tologiaz haratago zihoazela eta beraietan euskarari buruzko gai orokorrek bazutela tokia. Beraz, Bonaparteren laguntzaileen lekukotasunen urritasuna, Nafarroako 1860 eta 1870eko hamarkadetako egoerari zor zaio neurri batean.

Albiste iturriak hiru izan dira nagusiki: lankideen zuzeneko azalpenak, Bonaparteren fondoko eskuizkribuak eta, hirugarrenik, lankideen izena finkatze lanean artxiboetan erabili ditudan gainerako dokumentuak. Hiru iturrien emankortasun maila, ordea, ez da berdina izan eta, zalantzarik gabe, baliotsuena eskuizkribuen beraien miaketa suertatu zait eta, tamalez, Bonaparteren lankideek utzitako zuzeneko azalpenak urriegiak izan ziren.

Emaitzen aurkezpena, goian bezalaxe, hizkuntz ezagutza, hizkuntz jarrerak, hizkuntz hautaketa, hizkuntz erabilera eta hizkuntzaren gaineko ekintzak ataletan sailkatuta egingo da.

#### *5.2.2.1 Hizkuntz ezagutza Nafarroan Bonaparteren lankideen arabera*

Bonaparteren laguntzaileen albiste eta argibideak ezinbestekoak gertatzen dira orduko Nafarroako euskararen ezagutzaren berri jakiteko, Nafarroako mugaren zati handi bat marraztu zion Bruno Echeniqueren ekarpenak batez ere (ikus 4. kapitulua), baina gaia dagoeneko aztertuta dugunez, ideia bat bakarrik gehituko dut.

Oroitzen bagara, 4. kapituluan Iruñearen eragin erdalduntzaile mailakatuaz mintzatu naiz Añezkar eta Etxeberri herriak aipatuz. Gauza bera gertatzen zen Sorauren eta Olabe herriekin. Sorauren Iruñetik 9 kilometrotara dago eta Olabe 11 tara, biak Belate mendatetik igarotzen den Iruñea-Irun errepidean. 1857.eko bidaiari, urriaren 19an Iruñera iritsi zen Bonaparte eta elkarrizketa bat izan zuen Pablo Ribed lankidearekin. Han, bi herriei buruzko argitasunak eskatu omen zizkion Bonapartek Ribedi eta honek Atarrabiako udal idazkaria zen Antonio Iruritagana jo zuen ohartxo baten bidez (55. eskuizkribua Gonzalez Echegaray eta Arana Martijaren katalogoan). Honela zioen Pablo Ribeden eskariak, hitzez hitz:

El Principe Napoleon que ha llegado hoy desea saber fijamente:

Si los habitantes de Sorauren ablan en su mayoría la lengua Castellana ó la Bascongada.

Si los de Olabe en su mayoría ablan el Castellano o el Bascuence.

Antonio Iruritagana erantzuna orri berean dator eta oso adierazgarria izan zen. Sorauren herrian, Iruñetik gertuen dagoena, erdaraz mintzatzen ziren, euskara menderatu arren: “Ablan la Castellana, aunque poseen bien la Bascongada” (ibid.). Olaben, ordea, bi kilometro harantzago, euskaraz hitz egiten zuten, erdaraz bazekiten ere: “Ablan el Bascuence, aunque poséen muy regularmente el

Castellano” (ibid.). Beraz, bietan bi hizkuntzak ezagutzen zituzten, baina Sorarenen gaztelania hautatzen eta erabiltzen zuten eta Olaben, berriz, euskara.

Bestalde, emandako albisteez gain, Bonaparteren laguntzaileek beraiek ere ederki islatzen dute, oro har, Nafarroako gizartean euskarak zuen ezagutza maila. Geografikoki, laguntzaileen kokapena bat dator euskararen eremuarekin (23. irudiko mapa). Sozialki ere egokitzapen handia dago laguntzaileen eta Nafarroako hizkuntz egoeraren artean. Ez da kasualitatea berriemaile erdaldunak Iruñekoak eta aparatu politiko-administratiboko kideak edo goi klaseetakoak izatea: Pablo Ilarregui Iruñeko udal idazkaria eta Madrilen diputatu izandakoa, Jose Maria Palarea gobernadorea, Juan Pablo Ribed ondasun handikoa eta Madrilen diputatu izandakoa..., Iruñea hiriburuaren eta nafar gizarteko talde nagusien hizkuntz izaera inplizitoki erakutsiz.

Euskaldunei dagokionez, badakigu Bonapartek euskara landua zutenen multzoa —apaizak, maisuak<sup>174</sup> eta beste— eta euskara herritarra baik ez zutenena —zaharrak, neskatoak...— bereizi zituela (5.1 atala) eta, izan ere, ongi ordezkaturata daude bi multzoak Bonaparteren laguntzaileen artean. Hala ere, Nafarroako testuak, Bonaparterentzat berariaz egindako itzulpenak zein alde aurretik idatzitakoak, orokorrean hartuta, ukazina da haietako euskarari kutsu herritar nabarmena, ez oso landua bederen, dariola.

Hizkuntz gaitasunari dagokionez, adierazgarria litzateke beste urrats bat egin eta laguntzaileen testuen euskararen ezaugarriak eta kalitatea aztertzea, baina nire lanetik gehiegi desbideratzea da eta jorratu gabe utzi dut. Dena dela, azaleko begirada batean garbi dago kalitatearen aldetik alde handia dagoela idazki batzuetatik besteetara, nahiz eta, Bonapartek bertako euskara fideltasun osoaz jasotzeko eskatzen zenez, kalitateaz zer ulertu behar dugun jakiteko irizpidea labain samarra izan, Juan Cruz Elizalde maisuak Uritz herriko dotrinari egindako sarrerarekin —“Arcico Vallea componen da ogeui eta vorz erri eta caserioquin, Uritzco erria dago erdisuan, eta Vallico uscara dá, nic oray esplicacen duten vezala” (52. eskuizkribua)— gertatzen zaigun bezalaxe.

#### 5.2.2.2 *Hizkuntz jarrerak*

Salbuespenak salbuespen, azpimarragarriena Bonaparteren laguntzaileek ageriko hizkuntz jarrerarik azaldu ez izana da. Hots, euskaldunak ziren —zirenak, jakina—, euskara ezagutzen zuten eta, nor bere

174. Berriemaile gisa zenbaitetan hobegoak suertatzen omen ziren maisu-maistrak apaizak baino: “Quelquefois les maîtres d’école réussissent très-bien, encore mieux que les curés” (Urquijo 1910: 264).

Bonaparte Printzearen eta Bere Laguntzaileen Lekukotasunak



23. irudia. Bonaparteren laguntzaileen banaketa geografikoa.

ahalen neurrian, Bonaparteri euskararen gaineko argitasunak emateko prest agertu ziren, baina handik aurrera nekez antzematen zaie gehienei aparteko iritzi edo kezkarik euskarari buruz. Horrelakoa zen euskal hizkuntz komunitatearen egoera orokorra eta printzearen laguntzaileek ez zuten besterik agertu.

Zenbait salbuespen, hala ere, izan ziren: Pablo Ilarregui eta Melchor Ibarrondo, alde batetik, eta Arturo Campion, Fermin Iñarra, Jose Erasun, Mariano Mendigacha eta Esteban Obanos, bestetik. Laguntzaileen zerrendaren aurkezpenean hauetako batzuk ziurtasun osoz Bonaparteren laguntzailetzat jo daitezkeela esan dut, beste batzuei buruz zalantza dagoen bitartean. Dena den, Bonaparterekiko lankidetzat garatu edo ez garatu, guztiek izan zituzten harremanak printzearekin eta beren lekukotasunak baliagarriak dira gure eginkizunetarako.

Euskararen aldeko jarrerarik garbiena eta garrantzitsuenak Pablo Ilarregui (Lizarra, 1808-1874) adierazi zuen. Bere txostenak 350. zenbakia darama Gonzalez Echegaray eta Arana Martijaren katalogoan eta bertan Melchor Ibarrondok Bonaparteri egin zion eskaera bati buruzko zalantzak azaldu zituen. Ez dakigu zer nolako harremanak izan zituen Pablo Ilarregui Bonaparterekin eta horregatik ez dut bere izena laguntzaile ziurren zerrendan erantsi. Txostenak —1862. urtekoa, nonbait— argi erakusten ditu Pablo Ilarreguiaren euskaltzaletasuna eta euskararekiko jakinmina (350. eskuizkribua: 1. or.). Era berean, jaiotzez Lizarrakoa izanik, bere ama hizkuntza gaztelania zen eta damu zitzaion gaztetan euskara ikasi ez izana, 1862.ean, 54 urte zituela, beranduegi gertatzen zitzaion bitartean: “El que esto escribe descuidó en su juventud aprender la interesante lengua de su país, y ahora que desearía poseerla, es ya tarde. Por eso tropieza cada instante con dificultades insuperables al querer penetrar en los arcanos que encierra dicho idioma” (ibid.: 6. or.).

Pablo Ilarregui lagun ezaguna dugu Nafarroako historian. Politikari liberala, 1840-1873 bitartean Iruñeko udal idazkaria izan zen eta, oro har, leku handia bete zuen Iruñeko kultur bizitzan. Nafarroako Foru Nagusia argitaratu zuen eta bera izan zen, orobat, Iruñeko Nafarrerriko gerra (1276) kontatzen duen Anelier-en poema aurkitu zuena. Nafarroako euskaltzaletasunaren aitzindari nagusietako bat da Pablo Ilarregui, honenbestez, baina euskararen aldeko elkarte bat sortzeko Esteban Obanos eta beste batzuekin egin zituen ahaleginez beranduago, 5.2.2.4 atalean, mintzatuko naiz. Berdin euskararen aldeko jarrerak erakutsi zituzten Arturo Campion, Fermin Iñarra, Jose Erasun eta Mariano Mendigacharen kasuetan.

### 5.2.2.3 Hizkuntz hautaketa eta hizkuntz erabilera

Bonaparteren laguntzaileek emandako testuetan, printzearentzat berariaz egindako itzulpenez gain, apaizek euren erabilpenerako zeuzka-

ten dotrinak, otoitzak, predikuak, eta abar biltzen dira. Azken hauek dira batez ere esanahi soziolinguistikoko informazioa eskaintzen dutenak, gehienbat idatziaren alorrari buruzkoa bada ere. Eskuz idatzitako koaderno edota orri solteak ziren gehienak eta horietako asko, esku bate-tik bestera igaro ondoren, azkeneko jabeek opariz eman zizkioten Bonaparteri, baina printzeak jaso zitueneko ibilbide luzea egina zuten jadanik, azaletako eta barne orrietako zirriborroetan garbi antzematen denez.

Eskuizkribuen miaketak honako ezaugarri hauek erakusten ditu hizkuntzaren hautaketa eta erabilerari dagokionez: herri mailako Eliz alorrean erabilpen handia zeukan euskarak, ez, ordea, gainerako zeregin idatzietan, Bonaparteren lankideen artean maisu eta, oro har, elizgizonak ez ziren lagun ugari izan arren; testuen egileen nortasunaren adierazleak bi hizkuntzei loturik agertzen dira; Bonaparterekiko harreman idatziak —mintzatuez ez dakigu— erdaraz izaten zituzten nagusiki eta, azkenik administrazio eta hezkuntza kontuetako hizkuntza ere gaztelania zen.

Eliz gaietan erabilpen handia zeukan euskarak eta lankideen lekukotasunak hori baieztatzen datoz. Adibidez, Pedro Jose Samper Eiaurrietako apaizak itzulitako aita Asteteren katiximak “bere errico uscarala izuliric bere feligresen usutaco” (104. eskuizkribua) dioenean erabilpen praktikoa hori erakusten du, 5.1 atalean aipatu diren lagun beraren dotrina irakastaldiek bezalaxe. Orobat, jendaurrean irakurriak izateko idazten zituen Elizondoko Martin Goyenechek bere sermoiak, 1856.ean Bonaparteri helarazi zizkionak (65., 70. eta 76. eskuizkribuak). Elizako administrazioan —bataio eta ezkontza liburuak, ardura-dunentzako txostenak...—, ostera, erabiltzen zuten hizkuntza bakarra gaztelania zen, baita agiriak lankide euskaldunetako batek eginak direnean ere.

Euskarazko idazkien xede praktikoa agertzen duen beste alde bat beren etengabeko eskualdaketa da. Esate baterako, 134. eskuizkribua Abaurrepeko dotrina dugu. Testuak duen datarik zaharrena 1794koa da eta, izenburuak dioenez, bertako erretore zein haren eliztarren erabilpenarako egina zegoen: “Doctrina Christiana en Bascuence para el uso Del Vicario Parroco de Abaurrea baja del Valle, y Universidad de Aezcoa, y de sus feligreses = Año de 1794=”. Azalean, beste letra modernoago batez —esku batetik bestera igaro den seinale— hau dio: “Este libro es de la doctrina cristiana del señor bicario De la abaurrea Baja Dios guarde Muchos Años en abaurrea Baja. Don miguel Antonio Sario” (ibid.). Azkenik, Abaurrepeko erretoreen zerbitzuan luzaro egon zen dotrina hori Bonaparteri eman zioten. Era berean, oso adierazgarria da Lizarraga Elkanokoak eskuz idatziriko hainbat sermoi biltzen dituen koadernoak (45. eskuizkribua) egindako bidea, dena urratsez urrats idazkian bertan azaldua: Lizarragak 1800. urtean datatu zuen koadernoak eta geroago

Arangurengo —Elkanotik gertu— erretorea zen Pedro Vicente Ricarteri eskaini zion opari gisa. Honen oinordekoek Felix Idoate Arreko Trinitateko —Atarrabiaren ondo-ondoan dagoena— kapelauari eman zioten, Idoatek Bonaparteren laguntzaile izan zen Jose Joaquin Ollori eskaini zion eta honek, azkenik, 1866.eko otsailaren 23an Bonaparteri oparitu zion: “Dn. Felix Ricarte, Capellan de la Trinidad de Arre obtuvo este volumen de los herederos de Ricarte y me lo regaló á mi yo a mi vez tengo el honor de ofrecerlo á S.A.I. Dn. Luis Luciano Bonaparte. Fuenterrabía á 23 de Febrero de 1866. Jose Joaquín Ollo” (ibid.).

Ukaezina da apaiz haietako askori halako liburutxoak jasotzeak emango zien poza, Lizarragaren sermoiak eskuratu zituen Arangurengo Pedro Vicente Rikarteri bezala —“Dictus D. Ioachimus de Lizarraga donavit hoc volumen Sermonum suorum mihi D. Petro Vincenzo (?) de Ricarte, Parocho Oppidi Aranguren, quod mihi et fuit, et est, et erit gratissimum” (ibid.)—, baina, hala eta guztiz ere, esandakoak bezalako testuen ibilbideetarako arrazoi nagusia lurralde euskaldunetako apaizei eguneroko egitekoetan euskarazko testu txukun bat edukitzeak ematen zizkien erraztasunetan bilatu behar dela uste dut nik.

Goiko zerrendetan —ikus 5.2.1 atala— ikusten denez, elizgizonak ezezik, lankide laiko ugari ere —maisua, udal idazkariak edota kargodunak...— izan zituen Bonapartek, baina hauek, apaizek egindakoaren aurka, ez zuten euren lan alorrekin zerikusia zuen euskarazko testurik utzi, maisuak oso lankide onak gertatu arren. Lagun hauek guztiek, euskaldunak eta, Bonaparteri eskaini zioten laguntzatik uler daitekeen heinean behinik behin, euskararen aldeko jarrera zutenak, beren lanbide jardueran euskarazko lekukotasunik utzi ez izanak gaztelania hautatzen zuten ongi finkaturiko hizkuntz portaerak erakusten ditu.

Idazkien azalak, izenburuak, alboko oharrak eta abar, egileen hizkuntz nortasunaren adierazletzat jo daitezke neurri batean eta aztertzen ari garen kasuan bi hizkuntzei loturik agertzen dira. Har dezagun autore horietako bat. Kontua hau da: autorea elebiduna zen eta euskarazko testu bat idaztea erabakitzen zuen, berez edo Bonaparteren eskakizunez, berdin da. Idazkia, orduan, euskaraz burutzen zuen, horrela zuelako erabakita, baina izenburuak, alboko oharrak, azalak eta beste erabakitik kanpo geratzen ziren nonbait eta egilearen esku zegoen euskaraz edo erdaraz egitea. Hautaketa, beraz, askea zela esan dezakegu eta bertan zereginik erabakigarriena pertsona bakoitzaren hizkuntz joerak<sup>175</sup> — bere hizkuntz “nagusigo-konfigurazioak” — zuen, betiere ida-

175. Esaten ari naizenetik oso urruti ez dago Bernardo Atxagaren iruzkin hau: “Nik nire bizitza guztia egin dut euskaraz, *nik apunteak hartzen ditut euskaraz*” (etzana nirea da) (Gaurko literatura 1991: 263). Apunteak, hau da, gure laguntzaileen oharrak

tziaren alorrean gaudela jakinik. Adierazi nahi dudana ongi azaltzeko lau adibide jasoko ditut.

Bruno Echeniquek euskaraz paratu ohi zituen izenburuak eta ohar-  
rrak. Aipu bakarra ematearren, hona hemen Apokalipsiaren itzulpena-  
ren izenburua: “S. Juan Apostoluain Apocalypsis edo revelacioa.  
Lembicico Capituloa” (73. eskuizkribua). Pedro Jose Samper  
Eiaurrietako erretoreak ere euskaraz egiten zituen: “Jesucristo gure  
Jaunaren Evangelio sandua Segun San Mateo. Don Pedro José Samper,  
Eaurtaco apez Ssaunac, Aita Amaten erdaratic Eaurta bereco uscarala  
itzulia. 1869” (103. eskuizkribua).

Martin Goyeneche Elizondoko erretoreak, ordea, erdaraz paratzen  
zituen hitzaldien izenburu edota oharrak. Adibidez, 70. eskuizkribuak  
azalean “Predicado el 17 de Enero de 1847, por Dn. Martin Goyeneche,  
Vicario de Elizondo. S. Antonio Abad” dio, eta berdin lehendabiziko  
orrialdean: “Sermon de San Antonio Abad”.

Azkenik, bi hizkuntzez baliatzen zen bat Prudencio Hualde  
Bidankozeko erretorea dugu. Aita Asteteren katiximaren itzulpenaren  
azalak horrela dio: “Catecismo Español de la Doctrina Cristiana. Por el  
P. Gaspar de Astete, Añadido Por el licdo. D. Gabriel Menendez de  
Luarca. Y traducido al bascuence de Vidangoz por su Cura párroco D.  
Prudencio Hualde, anotando al pie de cada plana algunas palabras segun  
se pronuncian en alguno de los otros pueblos de este Valle de Roncal”  
(263. eskuizkribua). Hirugarren orrialdean, berriz, euskaraz baliatzen  
da: “Cristiainaren Doctrinaren Introduccionia”, eta orrialde bereko azpi-  
ko oharra ere euskaraz dago: “Erroncari Valle contaco zomait iritan  
erraitanden guisa”. Azkeneko orrialdean berriro gaztelaniara jo zuen:  
“Erratas. Pag<sup>a</sup> 3. lin. 7. dice il, debe decir hil”.

Bonaparterekiko harreman idatziak erdaraz izaten zituzten nagusiki.  
Horrela izatea, berez, ez da harritzekoa XIX. mendeko Nafarroan eta  
atzerritar batekin, baina, anakronismoetan erori gabe, eta Bonaparteren  
euskarazko gaitasuna norainokoa ote zen alde batera utzita, dauden  
datuak azaltzeari argigarria deritzot.

Bonaparteri zuzendutako ohar eta eskaintza gehienak gaztelaniaz  
agertzen dira. Euskaraz aritzeko joera handia erakusten zuen Bruno  
Echeniquek berak, adibidez, gaztelaniaz egin zizkion Bonaparteri 206. eta  
207. eskuizkribuetako oharrak. Etxarri-Aranazko dotrinaren (206) azale-  
an zera ipini zion: “Traducción original de Echarri-Aranaz por D. Esteban  
Zabalo. Ynutil por su confusion y poca solidez”. Orijinal horretatik kopia  
bat egin zuen Echeniquek, 207. eskuizkribua, eta goiko aldean ohar hau  
gaineratu zion: “N.B. corresponden al de Urdiain en la paginación”.

---

bezala, testuaz harantzago dauden eta norberaren baitarekin harreman estuagoa duten  
adierazpenak ere euskaraz hartzen ditu Atxagak. Testuak euskaraz eta apunteak, berriz,  
erdaraz eginez gero, bestelako hizkuntz joerak agertuko lituzke idazle batek.



Frantsesezko eskaintzarik ere badago, Orontzeko dotrinarena (108. eskuizkribua) bezalaxe. Hitzez hitz horrela dio: “Abrégé de la Doctrine Chretienne en le Dialecte Basque qu’ont parle dans le Val de Salazar Province de Navarre (Espagne), et particulièrement dans le Village de Oronz du même Val, présentée en cadeau a Monséigneur le Prince Imperial de France Lucien Bonaparte, dans la Ville de Ochagavia. Le 6, Novembre du 1857”.

Salbuespena, euskaraz idatzita dagoen bakarra, Eiaurrietako Pedro Jose Samperren eskutitz ezaguna<sup>176</sup> (105. eskuizkribua) dugu, eta Samperrengandik zetorrelarik ez dirudi kasualitate hutsa denik, baina, hala ere, gutuna euskaraz idatzi izana ez da Samperri momentuan berez sortu zitzaion zerbait, aurrez agindua ziona baizik, hasieran adierazi zue- nez: “Jaurrieta 23 de Abril de 1866. Serenísimo Señor. (Orai uscaraz, ceren ofrecitua zorbaita eta bear pagatu.)”.

Administrazio hizkuntza erdara zen. Aurkezten ari naizen ikerketan zehar agiri franko egokitu zait erabiltzea eta haien artean parada izan dut Bonaparteren lankide euskaldun anitzek —Mariano Mendigacha, Prudencio Hualde, Bruno Echenique, Vicente Gulina, Pedro Jose Samper...— udal mailako zein hezkuntza alorreko eginkizunetan idatzi zituzten agiri asko ezagutzeko eta guztiak gaztelania huts eta, oro har, txukunean zeuden.

#### 5.2.2.4 Hizkuntzaren gaineko ekintzak

Azkeneko aztergaia Bonaparteren lankide nafarrek euskararen egoera aldarazi nahian bultzatu, esku hartu edota erakutsitako ekimenak ditugu. Lehenagoko ataletan gertatu zaigun bezala, honetan ere nabar- menena urritasuna da eta urritasunak, jakina, egoera orokor bat adie- razten du.

1876. urtera arte ekinaldi bakarra Pablo Ilarreguirena dugu, 1868.ean inguru beste lagun batzuekin batera —Juan Iturralde y Suit, Nicasio Landa, Esteban Obanos eta beste— euskararen aldeko elkarte bat sortzeko egin zuten saioa. Ahalegina, baina, 1868ko iraultzak eta II. gerra karlistak zapuztuta geratu zen:

Hace ya algunos años que un pequeño grupo de amigos, al que tenia la honra de pertenecer el que esto escribe, y del cual formaban parte el malo- grado D. Pablo Ilarregui, D. Nicasio Landa, el erudito sacerdote Sr. Obanos y algun otro vascófilo entusiasta, concibió el proyecto de crear una asociacion conservadora, del vascuence, y aún preparó un llamamiento á sus hermanos de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya para realizarlo, pero la revo-

176. Gutunaren kopia bat Bonapartek Arturo Campioni igorri zion eta *Revista Euskara*-n argitaratu zuten —Samper (1883)— aurreneko aldiz, Bonaparteren oharrez hornituta. Eskutitzaren berrargitalpena Nicolas Alzolak (1958b) egin zuen.

lución primero y la guerra civil despues, vinieron á desbaratar sus propósitos.

(Iturralde y Suit 1877)

Gainerako laguntzaileak ez ziren, nik dakidala, ezertan nabarmendu, harik eta 1877.ean egoera berri bat ireki zen arte, eta orduaz geroztik Jose Erasun, Bruno Echenique, Fermin Iñarra, Mariano Mendigacha, eta, noski, Arturo Campion baizik ez ditugu aurkitzen.

Bonaparteren ikerketen hasieratik —1856— 1877.era arte hogeita bat urte igaro ziren eta, oro har, belaunaldi bateko tartea dagoela esan daiteke. Azpimarragarriena, beharbada, bi belaunaldien arteko etena da, Bonaparterekin lehendabizi eta Arturo Campionekin gero lan egin zutenak hain gutxi izana, alegia. Etenaren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke, denboraren joana, 1874.ean hil zen Pablo Ilarreguiaren beraren kasua, adibidez, baina oraingoz alde batera utziko ditugu.

Hala ere, euskararen inguruko lanei jarraipena eman zieten lagunak badaudela esan dut. Jose Erasunek, Saldiasen 1821. urtean (IEA, Caja 413, Fajo 28, Zugarramurdiko txostena; Otxandorena 1997) jaioa eta Zugarramurdiko dotrinaren egilea, *Orreaga* baladeren Saldiasko bertsoia egin zuen Arturo Campionentzat, Euskara elkarteko bazkide egin zen eta 1881. urtean berak euskaraturiko Antonio Maria Claretoren dotrina eta Alfonso Maria Ligorioaren otoitzen bat argitaratu zituen (*Revista Euskara* IV, 1881, 287).

Bruno Echeniquek (1820-1893) lotura zuzena izan zuen 1877 ondoko mugimendu euskaltzaleekin eta adibide gisa Euskara elkartearen ekintzekin izandako harremanak ditugu. Elkarteko ohorezko bazkide izendatu zuten hasieratik (Lista de los SS. socios honorarios. *Revista Euskara* I, 1878, 16) eta Abbadia, Duvoisin, Materola eta Iparragirrekin batera Elizondoko Lore-jokoetan (1879), Hego Euskal Herrian antolatu ziren aurrenekoak, parte hartu zuen (Las fiestas de la Asociación Euskara en Elizondo. *Revista Euskara* II, 1879, 233).

Fermin Iñarra Echeniquek (Elizondo, 1850-1912 inguru) (García Sanz 1992: 86, 199. oin-oharra) ostatua eman zien Bonaparte eta Duvoisin kapitainari Urdazubira joan zirenean<sup>177</sup>, urte batzuk berandua go Duvoisinek berak Iñarrari zuzendutako eskutitzean eskertu ziona: “Je n’oublie pas d’ailleurs la bienveillante hospitalité que vous m’avez accordée dans votre maison d’Urdach, quand j’y ai accompagné S.A. Mgr. le prince Louis-Lucien, et je saisis cette occasion pour vous en exprimer ma reconnaissance” (Daranatz 1930: 338). Bruno Echeniqueren iloba (García Sanz 1992: 87, 200. oin-oharra) zen Fermin Iñarra Euskara

---

177. Ziur asko 1867. urtean, Bonaparteren laugarren bidaian —“Je compte aller passer une semaine à Sare et un ou deux jours à Urdax, et à Zugarramurdi” (Urquijo 1910: 296)—, baina ez dut data egiaztatzerik izan.

elkartearen sortzaileetako bat (Campion 1912: LXII) eta bere lehendabiziko idazkaria (Actos de la Asociación. *Revista Euskara* I, 1878, 47-8) dugu. Gerora, zeregin handia izan zuen Asociación Euskararen ekintzetan eta, esate baterako, Elizondoko Lore-jokoetako epaimahaiko izendatu zuten (García Sanz 1992: 87, 200. oin-oharra).

Mariano Mendigachak (1832-1918) *Orreaga* baladaren erronkariarazko bertsioa egin zuen Campionentzat (Orreaga. Dialecto roncalés. *Revista Euskara* I, 1878, 74-5) eta harremanak ez ziren geroztik eten, 1904. urtean, esate baterako, Campionen aldeko kanpaina egin baitzuen: “Egin ala egindud D. Arturo erkinledin diputao; baya ezaitad baliatu; oraisa ssakin aldu erkinda Mella” (Irigoien 1957: 136). Denen jakina da, bestalde, 1902 eta 1916 bitartean Azkuerekin izandako elkarlana (Irigoien 1957; Estornes 1984). Mariano Mendigacha Bonaparterekin hasieran eta gero berarekin eta Azkuerekin lotu zuen katea hitz hauekin adierazi zuen Campionek: “El simpático Mendigacha, á manera de majestuoso monolito, testigo de otras edades, nos transmitió al P. Bonaparte, á Resurrección María de Azkue y á mi, las postreras reliquias, del curiosísimo sub-dialecto suletino del Ronkal, conforme se hablaba en Bidangoz” (1911: 19).

Azkenik, Arturo Campion (1854-1937) bera dugu, baina berari buruz beranduago mintzatuko gara, mugimendu euskaltzaleei eskaini diegun 8. kapituluan.

### 5.2.3 Laburpena

Bonaparteri buruzko kapituluak euskararen aldeko mugimenduak sortu aurreko egoera erakutsi digu. Hizkuntz ezagutza, jarrerak, hautaketa eta erabilera sailek, Sanchez Carrioni jarraiki, A eta B ibilbideak dituztela gogoan hartuta —A ibilbidea: berezkoa, naturala; B ibilbidea: ikasia, landua—, Bonapartek eta bere lankideen lekukotasunengatik euskara 1850-1870 hamarkadetan batez ere A zirkuitura mugatzen zela ikusi dugu. Euskararen ibilbide naturala osorik zegoen eskualde askotan, baina higadura nabaria pairatua zuen jadanik beste hainbat lurraldetan: hegoaldeko eta ekialdeko eskualdeetan bereziki.

B zirkuituari dagokionez, euskararen erabilpen landuaren aztarnak Elizaren alorrean aurkitzen ditugu. Literatur euskara, ordea, eratu gabe zegoen Nafarroan.

Bonaparte eta bere lankideen ekarpena hirukoitza izan zen:

- haiek baino lehenagoko euskal idazkiak azalaraztea;
- idazki eta itzulpen mordo bat eginaraztea;
- euskararen hautemate berria irekitzea eta, baita ere, euskararekiko kontzientzia eta aldeko jarrerak bizkortzeko lehen urratsak egitea.

## 6. EUSKAL HIZKUNTZ KOMUNITATEAREN SISTEMA HISTORIKOA: UITZIKO (LARRAUN IBARRA) LANDA-IKERKETA

Nafarroako euskal hizkuntz komunitatearen bilakaera historikoaren azterketan zeregin berezia bete du Uitziko landa-ikerketak, 1.2.5 atalean azaldu dudanez. Egun 147 biztanle dituen herri hau administratiboki Larraungo udalerrira osatzen duten hamasei kontzejuetako bat da. Iruñetik 38 kilometrotara dago, Lekunberri eta Leitza lotzen dituen errepidean, Lekunberrietik 3 bat kilometrotara. Honako herri hauekin egiten du muga: Leitzarekin iparraldetik, Lekunberri eta Etxarriekin hegoaldeetik, Berueterekin —Basaburua— ekialdeetik eta Gorriti eta Azpirotzekin mendebaldeetik (ikus 24. irudia: Uitz herriaren kokapena).

Tinko eutsio dio euskarari Uitzik eta bai 1863. urtean bai 1935.ean eta baita egun ere, euskarak gehiengoa duen barrutian dago. Euskarak Nafarroan iraun badu, Uitz bezalako herri anitzetako bizilagunek euren hizkuntzari eutsi diotelako izan da, bertako sistema etnolinguistikoak biziraun eta egoera berriei egokitzeko adinako bizitasuna izan duelako, beste hitzetan esanda, eta euskararen historiaren erdigunea den gertaera honen azalpena da, hain zuzen ere, Uitziko landa-ikerketaz eman nahi izan dudana.

Gainera, bigarren kapituluan (2.3 atala) aurkeztu diren kontzeptu teorikoek —muga etnolinguistikoak (Fishman), hizkuntz komunitatearen izaera egituratua (Sanchez Carrion), *habitus*-a (Bourdieu), hizkuntz iraupen eta ordezkapenaren azterketarako ikuspegi antropologikoa (Fasold)— zein euskararen antza duten beste hizkuntzen bilakabide historikoaren azterketak —Frantziako XVIII. mendeko herri hizkuntzak (3.2 atala)— bide horretatik jotzeko eskatzen digute.

Uitziko ikerketak eskaintzen duena, bada, *euskararen iraupena* izan da batik bat, hots, euskal hizkuntz komunitatearen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenaren arrazoi, baldintza eta ahultasunak. Alde horretatik, euskararen iraupena azaltzeko eman izan diren hainbat arrazoiaren —inertzia, isolamendua, euskaltzaleen eragina...— froga-harria dugu Uitziko bilakaeraren azterketa, eta baita hautatu ditudan erreferentzia teorikoena ere.

Halaber, soziolinguistika eta soziologia historikoko ikerketetan uztartu behar diren hiru osagaiak —giza ekintzak, gizarte-egitura eta gizarte-baloreak— kontuan hartuta (Julia 1989: 70), euskaldunen hizkuntz portaera historikoa sistema etnokulturalaren eta, aldi berean, hiztunen baloreen testuinguruan kokatuta ikertuko dugu —“interested in



24. irudia. Uitz herriaren kokapena.

how the individual speaker is dealing with the structure of his society, (...) how that person is using his language choices to reveal his cultural values” esan du Fasoldek (1992: 192)— eta horretarako fidagarritasun teknikoaren baldintzak betetzen dituen erarik emankor eta egokienetako bat Uitzikoa bezalako lana dela esan daiteke.

Aurkezpena sei ataletan banatuta egingo da:

6.1 Uitziren ezaugarri historiko zenbait

6.2 Metodologia. Ahozko historia eta teknika soziologiko kualitati-boak

6.3 Emaitzak I. Lekukotasun bereizgarrien azalpena

6.4 Emaitzak II. Esanahia: Uitziko hizkuntz komunitatearen sistema

6.5 Ondorioak.

## 6.1 Uitziren ezaugarri historikoak

### *Biztanleriaren bilakaera*

Uitziko biztanle kopuruak honako bilakaera hau izan du, 1858-1935 bitarteko datuak eta gaur egungoak eskainiz:

1858	1887	1900	1910	1920	1935	//	1992
354	323	327	306	288	291		147

Uitziko biztanleen bilakaera (Iturriak: *GENIX*, “Población”; Nafarroako Gobernua 1993; neure elaborazioa)

Ondoko taulan bilakaera bera dugu, baina Larraungo udalerriarekin eta ibarreko herri nagusiekin alderatuta:

Herria	1858	1887	1900	1910	1920	1935	//	1992
Lekunberri <sup>178</sup>	511	593	573	599	610	627		801
Uitzi	354	323	327	306	288	291		147
Errazkin	349	271	249	277	216	179		79
Aldatz	313	319	375	352	363	343		130
Larraun	3.732	3.450	3.457	3.271	3.266	3.195		1.906

Uitziren eta Larraun ibarreko zenbait herriren arteko alderaketa (Iturriak: *GENIX*, “Población”; Nafarroako Gobernua 1993; neure elaborazioa)

178. Lekunberri ez dago jadanik Larraungo udalerrian, 1990eko hamarkadan bereizi eta bere udala eratzea erabaki baitzuen.

Goiko datuetatik nabarmenena Uitziko eta Larraun osoko bilakae-raren antzekotasuna da, 1858. urtean Uitzik Larraungo biztanleen % 9,5 eta 1935. urtean % 9,1 baitzituen. Bestalde, doi bat beherantz bada ere —%82,2ra jaitsi zen—, biztanleen kopuruak egonkor samar iraun zuen 1858-1935 aldian, egiazko beherakada 1935 eta 1992 bitartean gertatu baita. Gogoan hartzeko beste datu bat Lekunberriren eragin demografiko gero eta handiagoa dugu.

### *Eskolaketa eta alfabetatzearen bilakaera*

Eskolaketa goiztiar samarra da Uitzin: XIX. mendearen erdialdekoa. Mende hasieran ez zegoen eskolarik eta hurrek Leitzara joan behar izaten zuten (Altadill d.g., II: 225)<sup>179</sup>, baina jadanik 1842. urtean eskola zuten Uitzin eta hamaika haur, mutikoak segur aski, zihoazen bertara (Ochoa 1842: 89). Lekunberri ere bere eskola zuen, hogeita hamar ikaslerekin (ibid.: 109). Zazpi urte beranduago hogeizi zihoazen Uitziko eskolara, ikasgelak udaletxean bertan zituzten eta maisua aldi berean herriko idazkaria zen (Madoz 1845-50, IX: 358). Urratsik handiena 1877 eta 1880. urteetan egin zen, Jose Mariano Iriarte Osambela herriko indianoak fundazio<sup>180</sup> bat eratu eta beraren bidez mutikoentzako zein neskentzako —Karitateko Alaben ordenako mojak<sup>181</sup> ekarriz— eskolak sortu, eraikin berria altxatu eta diru ugari hornitu zituenean. Hezkuntzaren ardura, beraz, Jose Mariano Iriarte Osambelaren fundazioak zerman. Bereziki deigarriak omen ziren Uitziko eskolak eta Julio Altadillek horrela zioen beraiei buruz 1918. urtean inguru: “Aún más que la iglesia y sus casas, son notables en Huici las escuelas públicas, admirablemente instaladas y espléndidamente pagadas, con habitaciones confortables para los profesores, debidas á la generosidad y esplendidez de la familia Osambela” (Altadill d.g.: 223-5). Uitzin hazi eta bertako

---

179. Altadillen *Geografiak* ez du argitalpen urterik, baina, hala ere, data bat baino gehiago proposatu izan dira: 1910etik 1916ra bitartekoa (*GEN* I: 248), 1912 (De la Torre [zuz.] 1994: 277) eta 1918 (Jon Bilbao 1970. *Eusko Bibliographia* I: 121).

180. Zeregin handia izan zuten indianoek sortutako *fundazioek* herrietako eskolen garapenean, Nafarroako irakaskuntzaren historia landu duen Jesus Tanco-k (1974: 27) esan duenez: “Fundaciones se generalizaron a partir del siglo XVII; son instituídas por patronos o tutores que las perpetúan a través de los años. Con la primera emigración a América, son muchas las personas que una vez hecha la fortuna en el nuevo continente, destinaban una parte para la enseñanza”. 1842.ean herri hauetan, bederen, zeuden fundazioak: Betelu, Eltzaburu, Garde, Irurita, Urantzia, Amaiur, Elo, Otsagi, Oskotz, Bizkarreta, Zangoza eta Tafalla (ibid.: 27). Oro har, eta, kopuru zehatza eza-gutzerik izan ez dudan arren, asko ziren Nafarroan errejimen bereziko eskola mota horiek. Horien artean azpimarragarriak dira Irurita, Ituren —ikus 7.4.3 atala— eta Zugarramurdikoak beren estatutoetan irakasle euskaldunak eskatzen baitzituzten (Urmeneta 1997: 274-5 eta 307-10).

181. Mojak 1970 inguru arte egon ziren Uitzin eta, beherago ikusiko denez, kanpotarrak eta erdaldunak izan arren, zeregin handia izan zuten neska eta emakumeen bizimoduan. Oso maitatuak izan omen ziren beti.

eskolan ikasi zuen Orixek zioenez, jantzi berriak eta guzti ematen zizkien urtero eskolak bere ikasleei: “Eskolan aurrenekoeri urtero soñeko osoa ematen zigutenan, eta guziera zerbait yantzi. Ni beti soñeko berriz yoa-ten nindunan Orixera” (Orixe 1987: 41).

Analfabetismoaren bilakaerari dagokionez, erroldak bakarrik Larraungo udalerriko zenbakiak —ez kontzejukoetakoak— ematen dituzte, baina argigarriak dira eta lerro hauetara ekarriko ditut, Tuterako partidu judizialeko, Nafarroako, Hego Euskal Herri osoko eta Espainiakoekin alderatuta:

Non	% 1860	% 1887	% 1930
Larraun	77	67	31
Tuterako partidu judiziala	73	63	38
Nafarroa	64	54	29
Hego Euskal Herria	63	52	27
Espainia	76	68	44

Analfabetismo tasen bilakaera: Larraun, Nafarroa, Hego Euskal Herria eta Espainia (Iturriak: Junta General de Estadística 1863; Dirección General del Instituto Geográfico y Estadístico 1891; Subdirección General de Estadística 1935; eta neure elaborazioa)

XIX. mendean Nafarroako eta Hego Euskal Herriko analfabetismo tasen gaintik ibili zen Larraun, baina Espainiakoen pare-parean, ordea, eta, Nafarroan bertan ere Tuterako partidu judizialeko tasak Larraungoen antzekoak ziren. XX. mendeak, berriz, aldaketa ekarri zuen, Larraun Nafarroako eta Euskal Herriko portzentaiei nabarmen hurbildu baizitzaizen, Tuterakoak eta Espainiakoak aise gaituz.

Gainerako lurraldeekin bateratsu alfabetatu zen Uitz, beraz, eta, orokorki, ez dirudi bertako euskararen iraupenean eskolaketaren eta alfabetatzearen bilakaera faktore bereizle nabarmena, ez alde eta ez aurka, izan denik.

### *Komunikabideak*

Bi bide nagusik zeharkatzen zuten Larraun ibarra 1842. urtean: bata, Iruñetik Gipuzkoara Lekunberri eta Betelutik zihoan errepidea —“Todo es camino real” zioen Teodoro Ochoak (1842: 306)— eta bestea, Lekunberritik Tolosara Uitz eta Leitzatik igaroaz zihoan gurdibidea. Pascual Madozek gurdibide bera aipatu zuen —“CAMINOS: el que desde Leiza conduce á Lecumberri” (1845-50, IX: 358)— Uitzik taberna eta ostatua zituela gaineratuz. 1914. urtean, gurdibidea errepide bihurtua izateaz gain, trenbidea zuen Uitzik: Iruñea eta Donostia Leizarandik lotzen zituena, “El Plazaola” izeneko (Altadill d.g., II: 220) (ikus 25. irudia).





25. irudia. Uitziko trenbidearen zenbait irudi. (Iturria: *El ferrocarril en Navarra* [J.J. Martirena, aholk.]. Iruñea: Caja de Ahorros de Navarra. 1994.

### *Zerbitzuak*

1847. urtean jadanik posta zerbitzua zuen Uitzik eta gutunak igande, asteazken eta ostiraletan jaso eta astelehen, ostegun eta larunbatetan bidaltzen ziren (Madoz 1845-50, IX: 358). Argi-endarra 1910eko hamarkadarako ezarrita zegoen (Altadill d.g. II: 223).

### *Ekonomi bizimodua eta salerosketak*

Pascual Madozen (1845-50, IX: 358) arabera, Uitzik ardoa eta olioia erosten zituen 1847an eta arrainak —zein arrain mota ez du esaten—, artoa, gaztainak eta abereak saltzen. Jarduera ekonomiko nagusiak hauek genituen: nekazaritza —garia, babak, artoa, patatak, gaztainak eta barazkiak—, abeltzaintza —ardiak, behiak eta txerriak—, basogintza —pagokak, haritzak eta gaztainondoak—, ehiza eta errota bat.

### *Uitziko seme ezagunak*

Aipagarrienak Jose Mariano Iriarte Osambela, Zacarias Astiz eta, uiztiartzat jo daitekeen heinean, Nicolas Ormaetxea “Orixe”. Uitziko ikerketan zehar maiz agertuko direnez, komenigarria da beraiei buruz hitz bi esatea.

Jose Mariano Iriarte Osambela (Uitzi, 1794-Cádiz, 1880) Uitziko eskolak sortu zituen indianoa dugu. Uitzin jaioa, oraindik umea zelarik Cadizera joan zen, bertan zuen osaba merkatari eta bankariak deituta<sup>182</sup>. Handik Perura aldatu eta zenbait urtez merkataritza etxe handi bat zuzendu zuen Liman. Berrero Cadizera itzulita, osabaren negozioak jarauntsi zituen, gizarte-maila handia erdietsiz. 1877. urtean, esan bezala, Uitziko eskolak abiatu zituen (Altadill d.g., II: 225). Biografia paradigmatikoa da berea eta Caro Barojak *La hora Navarra del XVIII* (1985a) liburuan azaldu zituen familien antz handia du, Caro Barojak berak ohartarazi zuenez: jatorriz Nafarroako eremu euskaldunekoak izanik Espainia eta Ameriketako negozioetan aberastu ziren, baina jaioterriko sustraiak ez zituzten galdu:

He aquí los dos palacios de Huici, en plena montaña. En el hermoso de «Osambela» nació el año de 1794 don José Mariano de Iriarte y Osambela, muerto en Cádiz ya en 1880. Este es otro ejemplo decimonónico de gran comerciante, banquero y filántropo. La primera parte de la fortuna la hizo a la sombra de un tío, que tenía negocios en Cádiz, y que le mandó a Lima, sucediendo luego a su tío en Cádiz misma. El palacio de Huici es un testimonio más de aquel esplendor con que vivieron algunas gentes de nuestras

---

182. Osambela etxeaz, ikus, halaber, Arraiza (1991).

verdes montañas, que dejaron huellas de actividad y miembros de sus linajes, en Méjico, en el Perú, en la Argentina, en Chile, (...)

(ibid.: 397)

Paradigmatikoa da, halaber, Zacarias Astiz Juanmartiñena (Lekunberri, 1852-Iruñea, 1943). Larraungo handikien familia batean Lekunberrin sortua —Vicente Astiz foru diputatuaren semea—, euskalduna jaiotzez, abokatu eta jabe handia, 1875. urtean Uitzira ezkondu zen Zacarias Astiz, aipatu berri dugun Osambela etxeko Micaela F. Iriarterekin (UPA), eta geroztik bertan bizi izan zen. Jarrera politikoari dagokionez, gaia hurbildik miatu duen Angel Garcia Sanzen (1992: 94) arabera, ez dago zehatz-mehatz ezagutzerik, baina badirudi 1882. urtean euskaroeekin egon zela harremanetan (ibid.: 341), beranduago integristekin (ibid.: 94, 224. oin-oharra), 1913. urtera arte (ibid.: 189, 494. oin-oharra), eta urte hartako hauteskundeetan kontserbadore, liberal eta errepublikanoekin batera karlista eta integristen aurkako ekimenetan hartu zuen parte (ibid.: 188-9). 1908. urtean Arturo Campion buru zuen Euskal-Esnalea elkarte kide eta Uitziko diru-biltzaile gisa aurkitzen dugu (A los Señores Socios de «Euskal-Esnalea». *Euskal-Esnalea* I, 1908, 46-8), baina, Pedro Jose Ariztimuñok adierazi zidanez, herrian ez zen elkartearen propaganda egiteagatik batere nabarmendu, Nafarroako orduko mugimendu euskaltzaleen alde ahula erakutsiz. Bere biografiak bi alderdi azpimarragarri ditu: Nafarroako bizitza politiko eta ekonomikoan izan zuen esku hartze handia —Arakil-Uharteko barrutiko Foru diputatua, karguaz jabetu ez bazen ere, La Vasconia bankuaren Administrazio Kontseiluaren presidenteordea, *Diario de Navarra* egunkariaren sortzailetako bat, Biblioteca Católico-Propagandistako kide ezaguna... (Garcia Sanz 1992: 94)—, alde batetik, eta Uitzirekiko gorde zuen lotura, bestetik. Hau da, eskualde euskaldunetan jaio eta bizi izandako beste lagun askok bezala, leku garbia izan zuen Nafarroako bizitza publikoan, erdal hizkuntz komunitatearen inguruan antolatutako egituretan, erdaraz, noski, eta horrela euren bizimoduan Nafarroako hizkuntzen zereginen banaketa hierarkizatua islatu eta areagotu egiten zuten aldi berean.

Orixeri (Orexa, 1888-Añorga, 1961) buruz ez dugu gehiegi luzatu behar. Denon jakina da jaioberria zelarik Orexatik Uitzira eraman zutela, Errekalde baserriko Arroxa Ariztimuño unidearengana. Handik edan zuen euskara —“Nere lenbiziko euskal-eskola gure sukalde ua izan zinan” (Orixe 1987: 42)— eta bere bizitzako lehenengo hamalau urteak Uitzin eman zituen. Oinarrizko ikasketak herriko eskolan, Valladoliden jaiotako Pablo Gomez maisu erdaldunarekin eta arestian aipaturiko mojekin egin zituen. Geroztik ez zituen sekulan herriarekiko lokarriak eten —“Nik, beñipein Uitziren bearra izan diñat” (ibid.: 42) eta *Eskaldunak* poeman —“Uitzi-liburu ori”, Orixeren hitzetan (ibid.:

43)— bertako bizipenak hartu zituen abiapuntu, beherago ikusiko dugun eran.

### *Laburpena*

Goiko orrialdeetan jaso diren ezaugarriek Uitziz garaian garaiko bizimoduan txertatuta egon den herria dela erakusten digute oro har. Uitzizko Iriarte Osambela familiako kideak Espainia eta Ameriketako negozioen munduan sakonki sartuta egon dira XVIII. mendetik behintzat. 1847. urtean dagoeneko eskola, posta zerbitzua, gurdi bidezko komunikazioa eta ondo finkaturiko merkataritza harremanak zituen. 1877.ean ederki hornitutako eskolak altxatu ziren Uitziz eta hiru urte beranduago Karidadeko Alaben mojek komentua eta neskatoendako eskola zabaldu zituzten. 1910eko hamarraldian eskolak, errepidea, burdinbidea eta argi-endarra zituen Uitziz.

Aipatu argibideak Guy Rocherrek nekazari gizarteaz emandako azalpenen argitara —nekazari gizartea, gizarte arkaikoa ez bezala, hiriarekiko eta industri zibilizazioko guneekiko ukipenean bizi eta irauten dakien zerbait da— (ikus 3.2 atala) ulertzen dira eta euskararen iraupenaren arrazoiak ez direla isolamenduaren hipotesian bilatu behar adierazten digute. Gainera, hor ditugu ohiko faktore erdalduntzaileak Uitziz luze eta iraunkor eragiten, baina euskararen inguruan eratutako bizimodu sistema egiazki kaltetu gabe.

## **6.2 Metodologia. Ahozko historia eta teknika kualitatiboak: eztabaida taldea**

Esandako ezaugarri historikoek lanaren testuingurua ezartzen dute. Landa-ikerketaren bidez ezagutu nahi izan dena, Ralph Fasoldek eskatu bezala, behetik gora adierazita, Uitzizko bizilagunen hizkuntz portaerak, hauek antolatzen zituen arau-sistema eta, hirugarrenik, beraien bidez adierazten ziren kultur eta hizkuntz baloreak —uitziarrek hizkuntzaren erabileraren bidez adierazten zituzten komunitate-partaidetza sentimenduak, alegia— dira. Orainaldiko ikerketetan lan metodo nagusia herri-tarren eguneroko bizimoduaren behaketa izan ohi da eta horri elkarrizketak eta galdeketak gehi dakizkioke.

Iraganari buruzko ikerketa batean ez dago, noski, eguneroko bizimodua behatzerik eta, orduan, erronka izpiritu berari eutsi eta metodologia ikerketa historikoari egokitzea dugu. Alegia, lortu behar dena Uitzizko 1936. urtea baino lehenagoko bizimodua berreraiki eta, hortik abiatuta, hizkuntz portaeren sistema eta honek adierazten dituen baloreak ezagutu eta azaltzea ahalbidetzen duten teknika zientifikoki fidaga-

rriak erabiltzea da. Irtenbidea ahozko historiara egokituriko soziologi teknika kualitatiboek eskaini didate.

Ahozko historia<sup>183</sup> deritzanak iturri idatzien mugetatik<sup>184</sup> harantzago joatea bilatzen du, bizirik dirauten protagonistengana edo ahoz aho transmititu izan diren albisteetara joaz. Metodo kualitatiboetan oinarritzen da eta bereziki erabilia izan da ikuspegi etnosozilogikotik lan egin dutenen artean, betiere zientifikotasunaren baldintzak beteaz, alorra jorratu duen Daniel Bertauxek (1989: 89) azaldu duenez.

Teknika kualitatiboek pertsona eta taldeen *jarrerak* edo motibazioak ezagutzea bilatzen dute, ez bakarrik gertaera edo ekintza zenbakarriak, eta beren azalpena *kultura* edo sistemaren testuinguruan ematen saiatzen dira. Aztergai nagusitzat pertsona nahiz taldeen *diskurtsoak* dituzte eta, diskurtso hauek aurrez sortutako materialetan —agiri historikoak, komunikabideetan egindako deklarazioak, literatura testuak...— aurki badaitezke ere, metodologia kualitatiboaren bereizgarriena diskurtsoak sortzera zuzendutako teknikak dira, *eztabaida taldeak* (“grupos de discusión”), elkarriketa irekiak eta pertsonen autobiografiak batez ere. Egoera kolektiboen azterketan lehentasuna eztabaida taldearen teknikari aitortzen zaio, besteak beste, taldearen jarrera eta usteak agertarazteko egokiena delako, Alfonso Ortik esan duenez:

(...) la técnica de investigación motivacional más adecuada para cualquier estudio sociológico suele ser (...) la técnica de *discusión de grupo*, porque (...) en su marco se dan las condiciones óptimas para que emerja, con todas sus contradicciones, ambigüedades y matices, la estructura motivacional básica de la *subjetividad colectiva* de la condición o situación de clase representada.

(Orti 1990: 102)

Eztabaida taldearen teknika guztiz bat dator, beraz, gure helburuekin: komunitatearen ikuspuntu eta baloreen ulermen sakon eta orokorra erdiestea, Fasoldek (1993: 47) azaldu duenez: “to gain a global understanding of the viewpoints and values of a community as a way of explaining the attitudes and behavior of its members”.

---

183. Ahozko historiaz, ikus, besteak beste honako lan hauek: “Oral (Historia)” artikulua. In Le Goff, Chartier eta Revel (zuz.) (1988: 510-2); Bertaux (1989); eta Pujadas (1992).

184. Mugak mota askotakoak dira, arestian aipatutako euskaldun xeheen lekukotasun idatzien urritasunaz gain. Esate baterako, jendeen bizitzaren alde anitz ez dira paperetan idatziak izatera iristen eta, beraz, nekez aurkituko genituzke soilik artxibo, garaiko prentsa edota gaiari buruz egin diren ikerketara joz gero.

Teknika honen oinarria egiturazko ordezkagarritasuna da, ez estatistikoa; hots, eztabaida taldeko kideek, funtsean, gizartean dauden ideia eta jarrerak errepikatu egiten dituzte eta partehartzaileen aukeraketan irizpide nagusia, beraz, *asetasun edo saturazio estrukturala* da, ez balio estatistikoa duen lagin bat osatzea (Ibañez 1992: 279). Taldeak komunitate osoaren diskurtsoa(k) islatzen d(it)u eta, zentzu horretan, izaera hologramatikoa duela esan ohi da.

Eztabaida taldearen teknikaren beste ezaugarri garrantzitsu bat kideen artean lortzen den adostasun kontrastatua dugu. Hau da, bertan ematen diren albiste edo iritziak, egiazkotzat jo baino lehen guztien adostasunaren galbahetik iragaten dira eta, horrela, argibide batek, bileran denen artean ontzat hartuz gero, fidagarritasun handia eskainiko dio ikertzaileari, guztiek adostutako gertaera edo iritzi batek eskain dezakeena behinik behin. Ez da berdin suertatzen, ordea, banakako elkarrizketetan, bakoitzean erdietsitako albisteak gainerako elkarrizketatuek adierazitakoekin alderatuz egiaztatu behar dira eta.

Azkenik, aipa dezagun oso teknika aberatsa dela eta aurrez espero ez genituen, baina partehartzaileentzat garrantzitsuak diren ideia edo arrazoi berri ugari agertzen dizkigula.

Nik neuk “eztabaida taldea” eta “subjektu pribilejiatuen elkarrizketak” teknikak erabili ditut Uitziko ikerketan, baina ardatza eztabaida taldea izan da, elkarrizketak taldearen emaitzen osagarri moduan baliatuz.

### *Uitziko eztabaida taldea*

Eztabaida taldea Uitzin bertan jaio eta 65 urtetik gorako lagun guztiei dei eginez antolatu zen, herriko elkartearen aretoan, “Soziedadean”, 1993ko urriaren 27an, arratseko 5etatik 7ak bitartean. Partehartzaileek, beraz, beranduenez 1928. urtean jaiota, 1936 baino lehenagoko garaia zuzen-zuzenean ezagutu zuten. Deia luzatu eta bitartekariaren lana Juantxo Zabaleta herriko alkateak eta Arantza Azpirotz bere emazteak egin zuten. Bilerara zortzi lagun agertu ziren, sei gizon eta bi emakume.

Ikerketaren helburua euskararen iraupena herriko bizimoduaren argitara ulertzea zen eta handik, beraz, bi aldeak interesatzen zitzaizkidan, ez bakarra. Horretarako, inguramenduari buruz ahalik eta argibide gehien atera eta taldea euskararen arazo bakarrera joan ez zedin, erarik zabalenean adierazi zitzaizen bileraren gaia: “Uitziko ohitura zaharrak. Nola bizi zen Uitzin 1936 baino lehenago”. Euskara ez aipatze horrek beste abantaila argi bat zuen: orduko euskarari buruzko aipamenak oharkabean agertuko ziren saioan zehar, partehartzaileen egungo ikuspegi edo ideologiek moldaturiko erantzunen arriskua saihestuz.

Eztabaida taldea adostasunera iristen dela esan dugu goian. Gure kasuan taldeak honako ardatz hauen inguruan eraiki zuen bere adostasuna: aipatu ziren gertakarien egiazkotasuna, 1936 aurreko bizimoduaren balorapen komuna eta, hirugarrenik, Uitziko herriaren euskalduntasun historikoari buruzko ikuspegia.

Bilera magnetofoiatz grabatu zen eta hitzez hitzeko transkribaketa egin ondoren bere azterketara igaro nintzen, ondoko ataletan aurkeztutako ditudan emaitzak lortuz. Aipua “ET” laburdura eta transkripzioaren orrialde zenbakia adieraziz egingo ditut. Adibidez, ET: 19.

### *Subjektu pribilejiatuaren elkarrizketak*

Eztabaida taldearen osagarria herriko hiru kideri egindako elkarrizketa irekiak —subjektu pribilejiatuaren elkarrizketak— ditugu. Bi elkarrizketa egin ziren:

(1) Pedro Jose Ariztimuño. Uitziko semea, apaiza. 1911.ean jaioa, 82 urte zituen elkarrizketaren unean, 1993ko azaroaren 25ean. “PJA” laburduraz aipatuko dut.

(2) Jose Migel Oreja eta Marian Azpirotz. Lehenak, Jose Migelek, 1944.ean Larraun ibar bereko Errazkinen jaioa, hogeita bost urte zera-matzen Uitzin, bertara ezkondurik. Herriko maisua izan zen hasieran. 49 urte zituen elkarrizketaren unean. Marianek 43 urte zituen elkarrizketa egin zenean. Larraungo Baraibar herrian jaioa, ama Uitziarra du. Egun Lekunberrin bizi da eta lanbidea dela-medio lotura estua du Larraun guztiarekin. Elkarrizketa 1993ko urriaren 27an izan zen. “JM eta M” laburduraz aipatuko dut.

### **6.3 Lekukotasun esanguratsuenen sailkapen eta aurkezpena**

Eztabaida taldeak zein elkarrizketek izugarritzko albiste pila handia eskaini zuten eta nire lana datuak ordenatu, beren barne batasuna ulertu eta beren azterketa ahalik eta sakonena egitea izan da. Horren arabera, emaitzen azalpena bi zatitan egingo dut: lehendabizikoan —atal honetan— lekukotasunik esanguratsuenen sailkapen eta aurkezpena; eta bigarrean (6.4 atala) beren azterketa, erreferentziatzat hartu ditudan teorioren argitara: Uitziko euskal hizkuntz komunitatearen sistema.

Lehenengo sailean agertuko diren datuak ikertzaileak ezagutu eta esku artean erabiltzen dituen lehengaiak dira eta mota hauetakoak izan daitezke: gertaera hutsak, gertaeren gainean berriemailek egiten dituzten interpretazioak eta, hirugarrenik, ideologia edo ikuspegi jakin baten isla edo adierazpenak. Azkeneko biek, bereziki, Uitziko bizilagunek euren bizimoduaz zein euskaraz komun zuten ikuspegia —Uitziko

egiantz soziala<sup>185</sup> (=“verosimilitud social”), uitziarrek egiazkotzat onartzen zutena— erakutsiko digute.

Laburbilduz, honako zertzeladez osatzen dute uitziarrek 1920-30eko hamarkadeei buruzko irudia: orduko bizitza ona zen, gogorra, baina jendea pozik bizi zen eta goserik ez zuten pasatzen. Bizilagunen behar gehienak asetzeko gauza zen Uitz: janaria, dendak, lana, sexuen arteko harremanak, mutikoentzako eta nesKentzako eskolak, erlijioa, osasun zainketak, jaiak eta aisialdia, tabernak, kultura orokorra, gizarte-antolakuntzako hainbat erakunde eta portaera, eta abar, eta, horretan oinarrituta, bizimodu autonomo samarra zuen herriak. Aldi berean, Uitz ez da herri itxia izan, ondo komunikaturik zegoen eta kanpoko gauzen berri beti jakiten zuen. Herriko bizitza osoa euskaraz egiten zen eta atxikimendu garbia erakusten zioten euskarari uitziarrek, baina euskaraz kulturizaturiko lagunik, ordea, ez zegoen. Gaztelania aspaldidanik zegoen txertatua Uitziko bizimoduan —eskola, mojen etxea, familiaren bat— eta bere beharra ere aitortzen zuten, baina beti bigarren hizkuntzat hartu dute. Orixeri dagokionez, denek ezagutzen zuten herriko bizilagun eta idazle euskaldun gisa, baina Uitziko euskararen bilakaeran ez zuten aparteko eraginik izan.

*Ona zen Uitziko orduko bizimodua: oroitzapen politak dituzte garai haietaz*

“Garai haietan... bizie zen oso ona, e! Bizie oso ona, e!” (ET: 2); “Tenore politak ziren” (ibid.: 9). Ideia hau hasieratik azaldu zen eztaba-ida taldean, behin eta berriro errepikatu zuten saioan zehar eta, dudarik gabe, uitziarren iritzia hobekien laburbiltzen duena da. Bizitza, hala ere, ez zen samurra eta gogor lan egin behar izaten zuten, gogorregi haien ustez: “Lan asko, lan asko egiten zen ordun, e! Gehiegi egiten zen ordun lana” (ibid.: 4). Ez dute, dena den, iragana idealizatzen eta gaur egun orduan baino hobeto bizi dela aitortzen dute: “ordun baino hobekiago bizi gituk, e! Bai, difeentzia earrakin” (ibid.: 35).

Pozik bizi ziren eta jateko ere bazuten, nahiz batzuetan eskasa izan:

—(...) badakizu, goseik ez zen pasatzen, e! Bakoitzak izaten zuen bere razioa jateko, etsi edo ez etsi.

—Behinipin kontentua.

—Kontentua denak bizitzen zien binipin, zera, inbidirik ez bata beste. Artoa bazegon binipin jateko eta, hoixe.

—Artoa zegoen binipin, ez zen goseik izaten.

(ibid.: 3)

185. Jesus Ibañezen hitzetan, “El grupo de discusión es un laboratorio para producir, a través del consenso, lo verosímil tópico: verdad es lo que aceptan todos (el lugar común, el tópico)” (1992: 338).



Jende asko bizi zen Uitzin, “oain halako doble” (ibid.: 4) diote, eta haurrez gainezka<sup>186</sup> zegoen herria (JM eta M: 7). Biztanleetatik batzuk maizterrak ziren, txiroak, baina alde egin behar izaten zuten eta, ondorioz, gelditzen zirenak egoera txarrean ez zeudenak ziren<sup>187</sup>.

Oro har, herri ona zen Uitzin, ez pobrea (ibid.: 7). Larraungo herriekin alderatuta, “garai haitan Uitzin ez zen herri txarrenetakoa” (ET: 20), Arruitz, adibidez, “ordun mixerable zen” (ibid.: 5) bitartean, orain ongi badago ere.

Adostasun handia erakusten zuten uitziarrek euren bizimodu orokorrekiko eta, euskararen jarraipena bizimodu horren barnean gertatu dela kontuan hartuta, alde horretatik, behintzat, aise ulertzen da hizkuntza aldatzeko gogorik sortu ez izana.

### *Biztanleen behar gehienak asetzen zituen Uitzik*

Uitziko bizilagunek eguneroko bizitzan behar zituzten gauza eta zerbitzu gehienak herrian bertan aurkitzen zituzten, ondoren alorrez alor ikusiko dugunez. Honek ikaragarritzko garrantzia du herriaren bizirau-pen fisikorako eta, neurri batean, uitziarren euren herriarekiko eta euren hizkuntzarekiko oniritzia errealitate horretan oinarritzen zen.

*Janariei* dagokienez, jateko adina bazutela azpimarratu dute, arestian ikusi bezala. Gai gehienak Uitzin bertan ekoizten ziren eta solasaldiaren harian ondoko hauek aipatu zituzten: artoa, gazta, patatak, taloa, ogia —okindegia ere bazegoen Uitzin—, esnea, txerriak, ardiak, haragi behiak, oiloak, e.a.

Ohiko *erosketak* ere herrian bertan egiten zituzten, hiru denda zeuden eta. Lekunberrira edo Iruñera eroatera joateko beharrik ez zuten.

*Jantziak*, halaber, etxean egiten ziren, herrian ereindako eta prestatutako linozko hariak, askotan: atorrak, emakumeen korpinoak, mantelak, maindireak... linoak zein haren bidezko ehungintzak toki handia zuten emakumeen bizitzan (ET: 29).

---

186. Jose Migel eta Marian elkarrizketatuek umeak hirurogei inguru zirela diote, baina oraindik gehiago ziren. Hamar urtetik beherakoak, adibidez, hirurogeita hamazazpi ziren 1927. urtean (UPA, Libro de Matrícula, Año de 1927).

187. Uitzik lortzen zuen oreka horretan, funtsean, agian, Marvin Harrisek (1993: 124) *euste-ahalmena* (“capacidad de sustentación”, “carrying capacity”) deitu duena aurkitzen dugu. Hau da, herri bakoitzak bere baliabideez lagun kopuru mugatu bati eman diezaioke mantenua eta kopuru mugatu horri deitzen zaio euste-ahalmena. Herriek euste-ahalmenaren inguruan egokitzen dute euren demografia, sarri askotan behatzailearen begi-bistan ez dauden mekanismoez. Bestalde, herri jakin baten euste-ahalmena neurtzea ere ez da batere erraza eta kontu handiz ibili behar da iritzia eman baino lehen.

*Lana* eta ekonomi jarduerak ere herriko bizimoduaren inguruan zituzten antolatuta nagusiki eta horietatik hauek aipatu dituzte: nekarizaritza eta abeltzaintza, trenbidea, berun-meatzeak, kontratistak eta basoa: zura eta egur-ikatza. Ez zen, beraz, soilik baserriko lana (JM eta M: 3). Komunalak —basoa eta— oso on eta aberatsak ziren, zur asko zegoen eta dirua ematen zioten herriari (ibid.: 7). Bestalde, lau ostatu zeuden Uitzin, “herri txiki hontan” (ET: 16). Lan guztia euskaraz egiten zuten, burdinbideko geltokiarena izan ezik, herritik bi kilometrotara zegoen geltokia familia erdaldun batek baitzeraman. Beste ekonomi jarduera garrantzitsu bat salerostea zen. Tratulariak maiz etortzen ziren herrira zura erostera eta saltzaile ibiltariak ere agertu ohi ziren. Uitzik abereak saltzen zituen —zerri eta zerrikumeak, behorrak, e.a.— eta horretarako Irurtzungo eta Iruñeko ferietara joaten ziren. Tolosako feria ere aipatu zuten eta baita Astigarragara gaztak saltzera joandako baten kasua ere. Saleroste lanetan bi hizkuntzetan, euskaraz zein erdaraz, aritzen ziren.

Pertsonen bizitzaren atal garrantzitsu bat *jai eta jolasarena* da eta hau ere herriko bizimoduan aurkitzen zuten: “San Migel zela, Gorritiko pesta zela, garai haietako gure dibertsioa hori zen” (ET: 3). Festa nagusiak San Migelak ziren, irailaren 29an, oso jai onak zirela diote eta etxetan kanpoko ahaide ugari jasotzen zituzten: “Pestetan etortzen ziren, pues, parienteak edo, binipin parienteak, kanpotik (...), kanpoko jendea etortzen zen bazkaltzea edo” (ibid.: 3-4). Berdin egiten zuten Uitzikoek eta auzo herrietako festetara joaten ziren: Gorritira, Leitzara, Etxalekura, e.a. Beste jai moduko batzuk ere egiten zituzten: Donibanekoak —“San Juan bezpera ta Sanjuanak” (ibid.: 8)— eta inauteriak<sup>188</sup>, bakoitzak bere ohitura eta kanta edo bertso bereziak zituela. Parranda giroari dagokionez, izugarrizko garrantzia ematen diote Artazuriketaren ohiturari, baina horretaz beherago hitz egingo dugu. Atseginaldia ez zen herrira mugatzen eta kanpora ere ateratzen ziren, Iruñeko Sanferminetara, Donostiako estropadetara edota Lasarteko zaldi lasterketetara, kasu. Orduko giroaren laburpen ederra elkarrizketan agertu zen: “festa giroa handia zen erabat, akordeoiak, organista, mutilek eta neskek batean kantatu, festa egitera ez zuten inora joan beharrik” (JM eta M: 7).

Era berean, *sexuen arteko harremanak* bideratzeko aukera ere herriko bizimoduak berak ematen zien eta hori dela-eta berriro ere Artazuriketa

188. Uitzin inauteriak ospatzeari eutsi zion herri bakarrenetakoa izan zela diote elkarrizketatuek (JM eta M: 7) eta gauza bera uler daiteke Juan Garmendia Larrañagak *Carnaval en Navarra* liburuan (1984: 133-4) Uitziko inauterici eskainitako atalean.

aipatzen dute, bertan bikoteak egiten<sup>189</sup>, zenbaitetan beste herri batzuetako lagunekin, jolasten baitziren:

— (...) nobioak jartzen ziren.

—Denai nobia jarri, kantatuz hola, gustokoa bazinun ondokoa, ba ongi, bino ez baldin bazen...

—Osea, kanta kantatzen zen eta geo holako neskatxei, han zien neskatxei, eta geo harrei jarri behar zinun nobioa, osea, beste herriko bat eo, ezagune, da, hua ee oso polita izaten zen.

(ET: 6)

*Osasun zerbitzuak* ere herrian zituzten, mojei esker. Erizain lana egiten zuten mojek: zitzak, gaixoen zainketa, eta abar: “gaisoei lagundu (...). Geo, enfermeretakoa, enfermerak ee beak egiten zuen herri guztien, e!” (ibid.: 8). Egungo gizarte-segurantza bezalakorik ez zegoenez, herriko osasuna mojek zaintzen zuten; medikuengana oso gutxitan jaitzen ziren (JM eta M: 5).

Halaber, *kultura orokorra*, ez heziketa hutsa eta ez soilik euskal kultura, beste herrietan baino gehiago zegoen Uitzin, liburu gehiago. Kultura dexentekoa zen, Larraungo herrien aldean: musika banda, korala —oso ona—, organujole bikaina —Cipriano Garro izenekoa, Madrilen izana—, eskola, meza bikainak kantatzen ziren, e.a. (PJA: 10; JM eta M: 4). Jose Migelen aitagarreba, esate baterako, gizon ikasi eta landua zen: poeta, musika zekien, oso ongi jotzen zuen pianoa... Erdaraz landua, euskalduna izan arren (JM eta M: 4).

Aipatzekoa da, orobat, herriko *kultura politikoa*. Gehienak karlisten aldekoak ziren (ET: 26), baina nazionalistak ere bazeuden eta bi alderdiek euskaraz ziharduten (ibid.: 26). Adibidez, Marianen aitona karlista zen eta bere arreba, berriz, nazionalista. Elkarrizketatuek diotenez, nabarmentzekoa da alderdi politikoen presentzia hori, ez baitzen ohikoa inguruko herrietan; beste herrietan baino politizatuagoak zeuden (JM eta M: 4, 6). Gerra karlistei buruz, herriak zer portaera izan zuen ez zekien inork. Agertu dutena, ordea, bigarren gerratean pairatu ziren kalteen oroitzapena izan da. Bi aldeek, herritik pasa eta janari guztiak —gaztak, urdaiak, e.a.— arpilatu egiten zituzten, etxeak hondatuta utziz: “Eiten emen zuen bi gerra, bat pasa eta handik hamabost egunea besteek pasatzen emen zien, ta, etxe guztiak arruinaetzen emen zituen, jana guztiek, biltzen aritu haik, gaztak eta, urdaiek eta (...). Gaztak eta, harrapatzen baldi bazituen denak, etxe guztiak, sakeatu, sakeatu eiten

---

189. Orixek *Euskaldunak* poeman jaso zuenez (1976: 57):

Bikoak egin-garai da... biotzen bat dar-dar,  
berak nai luken maiteaz ote-duten uztar.

zituen” (ET: 27). Harrapaketak egiten Santa Kruz apaizaren taldeko lagunak nabarmendu ziren bereziki (ibid.: 27).

*Heziketa* ere Uitzin bertan jasotzen zuten neskek —mojen etxean— eta mutilek —eskolan— eta berdin gertatzen zen jendeen erlijio bizitzarekin, Uitziren bere kontura bizirauteko ahalmenaren irudia borobilduz, baina eskolari, mojei eta erlijioari atal berezi bana eskainiko diet.

### *Mutilentzako eskola*

Lehen esan denez, etxe egoki batean kokatutako eta diruz ongi hornituriko eskolak zituen Uitzik. Honek berdin balio du mutilen nahiz nesken eskoletarako eta uitziarren oniritzia biekikoa da —“Esan daiteke Uitziz zela «la Universidad de Larraun»”, esan zuen Pedro Jose Ariztimuñok mojen eskola ere gogoan hartuz (PJA: 14)—, baina ni banaka mintzatuko naiz haietaz, mutilen eskolatik hasita.

Eskolaz hizketan hasi eta aurreneko aipamena oso eskola onak zirela izan zen: “Eskolak onak ziren Uitzin, garai hoietako, kanpotik etorri eiten ziren, eskola osorik ikastea” (ET: 7).

Eskola erdalduna zen, dena erdaraz egiten zen eskolan —“Erdaraz, erdaraz. Erdaraz, bai, erdaraz zen eskola” (ibid.: 9)— eta gorriak pasatzen zituzten haurrek horregatik: “Ordun hemen zegoan problema pues, eskolaa jun eta, erdeaz ez zinula entenditzen, ze esan nahi ziu, gauza asko, ezin egin erdeaz” (ibid.: 10).

Erdaraz izatearen arazoari euskaraz hitz egiteagatik maisuek ezartzen zizkieten zigorrak gehitu behar zaizkio. Beste toki batzuetako eskoleraztunaren ordeztu *giltza* zuten Uitzin:

Errekreora ateratzen ginenean, pues maisuk ematen ziu giltze at, da, euskaaz hitz egiten zunai... zuk... pilotan ba ai zea ta, honek euskeaz hitz egiten du ta nik daket giltze ta, honi eman giltzea, ta geo honek beste bateai aitzen baldin bazion, harrei, ta eskolaa giltzeekin joaten zena, bi liburu hartu holaxe ta, kastigatute eukitzen ziu maisuk.

(ibid.: 9)

Zigorrak eta gogorkeriak denek gogoratzen dituzte eta beste herri batzuetako aipamenak ere egin ziren: Dorrao (PJA: 8) eta Errazkin (JM eta M: 3). Azken honetan eraztuna erabiltzen zela diote.

Maisu gehienak erdaldunak izan arren, euskaldunak ere izan ziren, baina, hala ere, eskolak beti erdara hutsez izaten ziren. Aldea, berriz, zigorretan zegoen, zeren, Pedro Jose Ariztimuñok dioenez, askoz gogorrago jotzen baitzuten euskararen aurka maisu erdaldunek euskaldunek baino (PJA: 9). XX. mendearen hasieratik honako hau da maisuen zerrenda, Ariztimuñoren argitasunen arabera: Pablo Gomez (Valladolid), 1905. urtean Erasoko Paula Huicirekin Uitzira ezkondua;

Bautista Azpirotz (Uitzi); Jauntsarasko bat; eta, azkenik, Candido Araniguria (Artaxona), 1930eko hamarraldian egon zena. Bi euskaldun eta bi erdaldun, bada, eta jatorriari dagokionez, hiru nafar eta gaztelau nafartu bat. Datuek erakusten dutenez, beraz, maiz errepikatua izan den ustea, euskara ezabatu nahian maisu espainolak masiboki ekarri zirela dioena, alegia, Uitzin bederen ez zen bete. Eta Nafarroako gainerako lurralde euskaldunetan ere ez, irakaskuntzari buruzko atalean (7.4) azalduko dudanez.

Arazoak arazo, mutilak joan egiten ziren eskolara eta eskolaketa maila altua zen. Ez zuten ia piper egiten —“gutxi egiten ginen piper, e! Piperrik ez ginun egiten” (ET: 9)— eta arrazoi gisa Uitzin herri bildua izatea, baserririk ia ez izatea —lau baserri baizik ez du—, aipatu dute (JM eta M: 6).

Gurasoen *adostasuna* —adostasunaz, ikus 7.4.2 atala— biltzen zuen eskola erdaldunak, hala ere, Pedro Jose Ariztimuñoren hitz argigarriek erakusten dutenez:

—*Jendea konforme zegoen horrekin [euskara zigortzearekin]?*

—*Kao, ikasteko, erdara earra jakin zezaten, ikasi eta, handik atea. Gurasoak, umeak eskolaa bialtzea, zertaa bialtzen zituen? Ikasteko, eta erdaraz ikasteko, bai, zergatik inora ezin zeen joan euskararekin bakarrik, zergatik mugitzeko (...) dana inkonbeniente handia zen da, bai, erdaraz ez jakiten, horregatik, ni ez naiz harritzen, zergatik, maestroak da, erakusteko, nahi ta nahi ez, behar zuen kastigatu euskeraz egitea, bai.*

(etzana nirea da) (PJA: 8-9)

Arrazoi berdinak esan ziren eztabaida taldean ere: “Motel gelditzen zinen oso. Ta harregatik kastigatu zuen euskaa hemen, halaik ee, nonahi joanda ee hitz egiteko modue ez izateagatik” (ET: 10). Beude oraingoz lekukotasun esanguratsu hauek, beherago jardungo baikara beraiei buruz, “uitziarrak eta erdara” atalean.

Mutilek ikasten zuten gaztelania apurra eskolakoa zen, baina, hala eta guztiz ere, eskolaren eragin erdalduntzailea ez zen oso sakona gertatzen, handik atera eta gero denak berriro euskarara itzultzen ziren-eta: “eskolan pixka at ikasten ginun, baino, handik ateratzen ginenin berriz euskaaz. Ia ahaztuten zeen denak” (ET: 11). Gainera, maisuek herriko nagusiekin bakarrik izan ohi zituzten harremanak, ez guztiekin apaizek bezala, eskolako gauzak egin eta kitto, eta horregatik beren eragina beti txikia izaten zen (PJA: 13).

### *Mojen etxea eta neskontzako eskola*

Karitateko Alaben mojen etxea, esan bezala, Iriarte Osambelaren fundazioak ekarri zuen, 1880. urtean inguru, eta 1970eko hamarraldian

alde egitea egokitu zitzairenean herria bertan geldi zitezen gogor saiatu zen, baina ez zuten lortu: “Herrik inhalak ein zitun, ez eamateko konsegitzen, baino etzun, osea” (ET: 22).

Mojen eginkizun nagusia neskontzako eskolak ziren, baina horiez gainera mota guztietako laguntza eta zerbitzuak egiten zizkieten herriari, arestian aipatu dugun osasunarenaz gain: ume txikiak zaintzen zituzten, neskei eskola orduetatik at josten eta brodatzen erakusten zieten, kantak, kultur ekintzak, mekanografia, pastelak egiten, igandeetan txangoak egiten zituzten mendira, e.a. Halaber, inauterietan, gazteak pusken eske ateratzen zirenean, mojek beti ematen zieten zer edo zer (ET: 8). Oro har, oso maitauak izan ziren, eztabaida taldeko kideek —“Mesede earra eiten zuen” (ET: 8)— zein bereiz elkarriketatuek —“Mojek on handia egiten zuten” (PJA: 14)— aitortu zuten.

Halaber, kategoria ematen zioten mojek herriari bizilagunen ustez (JM eta M: 2) eta kanpoko neskak ere etortzen ziren haiekin ikastera, Gipuzkoatik eta (PJA: 14).

Hiruzpalau izaten ziren eta guztiak kanpotarrak eta erdaldunak izaten ziren. Adibidez, 1936.ean, argibide zehatzak jaso ahal izan ditudan urte bakarrean, bat Avilakoa, beste bat Burgosko Susinos herrikoa eta hirugarrena Kanarietako Juncalillo herrikoa ziren (UPA, Libro de Matrícula, 1936. urtea). Erdara hutsean aritzen ziren beti eta batzuetan gogor egiten zuten erdararen alde, “zergatik, erdaldunak izateekin, beak nahigo zuen erdaraz hitz egitea, bistan daon bezala” (PJA: 1), baina, maisuek ez bezala, ez zituzten neskak zigortzen euskaraz egiteagatik (ET: 23; PJA: 1). Orobat, apaizak eskatuta edo, euskal kantak erakusten zizkieten neskei.

Mojak hain erdaldunak izaki eta jendearekin hain harreman estu eta iraunkorrak edukita, umetxo eta neskatoekin bereziki, harritzekoa zen elkarriketatuentzat nola mantendu den euskara Uitzin (JM eta M: 2), baina berehala ematen zuten azalpena. Ez da galdu neskatoek, mutikoek bezalaxe, eskolatik atera eta etxean eta herrian dena euskaraz egiten zutelako: “badakizu, umetxoak, neskatoak, beti monjakin ta, baino euskara galdu gabe, e!, zergatik beren etxeetan da, beti euskara eiten zuen” (PJA: 1).

Neskentzako zein mutilentzako eskolen kasuan, hala ere, hizkuntzari dagokionez zeregin bikoitza eta konplexua betetzen zutela esan beharra dago. Eskolen eragin erdalduntzailea ukaezina da, nahiz eta, ikusi bezala, erdalduntzea burutzeko indar nahikorik ez izan. Baina beste alde bat ere nabarmendu behar dugu: eskolak herrian bertan eduki izanak herriko komunitateari eusten laguntzen zion, bestela, haurrak kanpoko eskoletara joatearekin batera desegituraketa eta biztanleak galtzeko joera areagotu egingo baitziren, eta horrek, zalantzarik gabe, kalte handia egingo zion euskararen iraupenari.

*Apaizak eta erlijio bizitza*

Ikaragarritzko garrantzia zuten apaizek garai hartan herrietako bizi-moduan eta Uitziko zaharrak hori baieztatzen datoz: “Ordun apezak Jainkoa bezalaxe herrian, zapela azkar kendu behar zenion apaizari” (ET: 17). Bizilagun guztiekin izaten zituzten harremanak, jendeek konfiantza handia zuten haiengan eta herrietako hizkuntz bilakaeran, onerako zein txarrerako, erantzunkizun handia izan dute maiz: “apezak asko influitu due euskeraz, euskeraz edo erderaz, asko influitu due” (PJA: 8). Uitzin ere berdin gertatzen zen eta jendearen erabateko oniritzia jasotzen zuten: “Ze apeza egokie! Izugarri egokie ta listoa, ona, ikaragarria zen. (...). Don Tomas apeza earra zen, bai e?” (ET: 18).

Uitzik eduki dituen apaiz guztiak<sup>190</sup> euskaldunak eta euskaltzaleak izan direla diote: “Beti izandu die euskaldunak. Beti euskaldunak. (...). Oso euskaldunak, bai, bai. Euskararen aldekoak bai, bai” (ibid.: 17-8).

Mezak latinez ematen ziren, orduan toki guztietan ohi bezala, eta sermoiak euskaraz. Gainerako elizkizunak, kofesioak, dotrinaren irakaspinak —eskolan, aldiz, erdaraz ematen zen dotrina: “Eskolan ee, dotrine erdaaz ta apezakin euskaaz” (ibid.: 18)—, otoitzak, errosarioak, e.a. euskaraz izaten ziren (ibid.: 18). Apaizek, hala ere, beren hitzaldiak-eta prestatzeko erdarazko liburueta jo behar izaten zuten, handik edan eta gero euskaraz moldatzen zituzten, horrelako jarduerak eskatzen zuen prestakuntza maila bederen bazutela erakutsiz:

Bakoitzak berak eiten zituen bere hitzaldiak, bakoitzak berak, bakarrik, erdarazko liburuk irakurrita, haietatik euskaraz jarri ta, hala iten zuen. Ordun, denbora hartan ez zen euskarazko libururik, nik ez dut ezautu euskarazko libururik. Nik bakarrik ezautu dut, e..., Mendiburu, otoitzak. (...). Geo bai, geo atea die liburu asko.

(PJA: 2)

Eliz administrazioaren alde idatziak —bataio, ezkontza eta zenduen liburuak, txostenak, e.a.—, guztiak erdaraz betetzen ziren, parrokiako artxiboan ikus daitekeenez<sup>191</sup>.

---

190. Ondoko hauek izan dira Uitziko apaizak ikerketaren epean, jaioterria ere eza-guna zaidanean aipatuz: 1844. urtera arte: Martin Lorenzo Azpiroz (Baraibar); 1847-1870: Julian Percz; 1871-1876: Jose Azpiroz; 1876-1920: Manuel Noguera (Iribas); 1920-1921: Benito Satostegi; 1921-1959: Tomas Golaraz (Iturria: UPA, Bataio liburuak, Zenduen liburuak).

191. Jarquera administratiboetako hizkuntz jokaerak ulertzeko guztiz argigarria da parrokiako “Libro de cuentas de Fábrica” delakoan agertzen den 1860ko urriaren 29ko agiria, ekintza bakarrean herriko alkatea eta parrokia biltzen dituena. Bertan alkateak eta bere laguntzaileak parrokiako kontuak ontzat eman zituztela adierazten da, baina guretzat garrantzitsuen agertu zuten hizkuntz jokabidea da: eztabaida eta aktaren

Apaizek, baina, ondo zekiten erdaraz, garbi zuten erdara beharrezkoa zela eta hori nabarmen agertzen zen uitziarren begien aurrean: “Euskararen aldekoak bai, bai. Baino haiek bazekien erdaaz behar dela jakin munduan bizitzeko. Hue entenditzen zuen haik. Bainan haik erdaaz edo euskaaz eiten zuen guzi-guzie behar den bezala” (ET: 18).

Apaizak, oro har, uitziarrek eskura zuten hizkuntz eredurik borobilen eta eraginkorrena zirela esan daiteke, eta eredu hori bikoitza zen funtsean: euskaldunak ziren apaizak, euskararen aldekoak eta, nonbait, euskara landua zuten, baina, aldi berean, erdara ederki menderatzen zuten, erdaraz zeuden kulturizaturik eta euren bizitzaz jendeari munduan zehar ibiltzeko erdara beharrezkoa zela adierazten zioten.

### *Ohiturak, gizarte-antolaketa eta hainbat portaera*

Ikerketak herriko bizimodua hezurmamitzen zuten hainbat ohitura, gizarte-erakunde eta horrelakoren berri eman zuen eta horietako asko guztiz argigarriak suertatzen zaizkigu uitziarren hizkuntz portaerak eta euskararen iraupena ulertzerakoan.

Herriko administrazioaren gunea *batzarred*<sup>192</sup> zen eta bilera guztiak euskaraz egiten ziren: “Dena euskea egiten zen hemen denbora guztia, osea, batzarrek egiten ziren guztietan euskea” (ET: 13). Era berean, alkattea eta idazkaria beti euskaldunak izaten ziren. Agiri idatziak, ordea, batzarretako aktak-eta, erdaraz idatzen ziren: “Batzarrek euskaaz egingo ziren, hitz ein euskaaz, eskribitu erdaaz. (...). Hitz egin bai, hitz egin, batzarren, euskaaz, baino, paperen zeatu, aktatan, erdaaz, jakine” (ibid.: 30).

Gainerakoan, administrazio eginbehar gehienak herrian bertan edo Larraungo udaletxean, Lekunberrin, bideratzen zituzten (ibid.: 29-30).

---

irakurketa euskaraz egin zuten, sinatu behar zen agiria, ordea, gaztelaniaz idatzi zuten. Hona hemen idazkiaren transkripzioa:

En el lugar de Huici á veinte y nueve de Octubre de mil ochocientos sesenta: comparecieron ante mi el inf<sup>o</sup> Emo. Mariano Baztarrica y Cristobal Galarza el primero Alde. Pedaneo y el segundo su ausiliar autoridad local de este lugar, á efecto de ver y reconocer las cuentas precedentes, aprobar ó impugnar en todo ó parte segun la dispositiva del Plan benefical de este lugar y en su virtud *habiendo reconocido estas cuentas con la lectura del Emo. inf<sup>o</sup> en idioma bascongado* y orientados perfectamente no encuentran en la totalidad ni parcialidad cosa impugnabile y de consiguiente debiendolos aprobar en todas sus partes las aprueban sin escepción alguna. De todo lo que se hizo acta firma Baztarrica y no Galarza por decir no saber y en su fe yo el Emo. Mariano Baztarrica

Ante mi: Esteban Juanmartiñena Emo.

(Etzana nirea da).

192. Oroit gaitezen batzarreen eta herri hizkuntzen arteko loturaz Frantzian XVIII. mendean (3.2 atala).



Notaritzza ere Lekunberrin zegoen. Diputazioarekin, berriz, ez zuten ia harremanik izaten, baina Iruñera joan behar izanez gero, bazen orduan erdaraz ongi jakin eta joateko batere arazorik ez zuena (ibid.: 28).

*Auzolanak* leku garbia zuen Uitziko bizitzan. Urtean bi edo hiru aldiz antolatzen ziren lan kolektibo hauek eta lagun guztiek esku hartu behar izaten zuten haietan. Joaten ez zenak, aldiz, zigor moduan edo, zerbait ordaindu behar zuen trukean: “joaten ez zenak, joaten ez zenak, pues, hoinbeste bat pagatu ein behar zun. Bueno, joan ez zelako, zea bat zun, kastigo at eo, ordaindu behar bat” (ET: 7).

Uitziarren arteko elkarlaneko jardueretan garrantzi handia zuen *Artazuriketak*, arestian aipatua. Oso ohitura sustraitua zen eta bai eztabaida taldeak bai Jose Migel eta Marianek lehentasuna eman diote beren azalpenetan, euskararen iraupenarekin zerikusia duela sinetsita (JM eta M: 4). Orobat, Orixek ere, ohorezko tokia egin zion *Euskaldunak* poeman eta bigarren kapitulu osoa ohitura honi eskaini zion. Artazuriketaren muina urria aldean, herriko jendeak etxeei beren artaburu piloak zuritzen laguntzea zen. Herrian deia zabaldu eta nahi zutenak agertzen ziren, berrogei bat lagun izatera iristen ziren, arratsaldeko zortzietatik gaueko hamabiak arte. Baina horren inguruan jai ederra antolatzen zuten, kantak, bikoteak jartzen zituzten, zahatoa bueltaka etengabe ibiltzen zen eta gauerdian, lana bukatutakoan, “sorgin afaria”, edo “sorgin pesta”, edo “galdor pesta” izaten zen —“Ogie ta ardoa, edo gaztainek, edo gazta, edo...” (ET: 4)— eta afariaren ondoren dantza: “Umore earra pasatu ta, gero, gero dantzan igual, soinurik ez, esto, filarmonika jota ta, hola izaten zen ordun bizimodue. Oan bezala ez” (ibid.: 4). Arazoa, baina, biharamunean mezatarako jeiki beharra zen: “biharamunen argitzen meza ematen zun gainea, da, harrek ematen ziu zea, jeiki ein behar, meza, gustoa egoten ginen artazuritzen da, zean, han juergan, baino, biharamunen jeiki ein behar” (ibid.: 6).

Orduko garaiaz oso oroitzapen onak dituztela esan dugu lehenago eta, dudarik gabe, politenatariko bat elkarlana, jaia, jan eta edana eta gazteen lehen urratsak sexu harremanetan biltzen zituen Artazuriketarena da uitziarrentzat, behin eta berriro azaldu zuten: “oso bizimodu diferentea. Ta gero izaten zen beste gauz bat polite, artazuritzetak” (ibid.: 4); “Artazuriketa oso polita zen, oso. (...) Gustoa egoten ginen gue artean” (ibid.: 6).

Jendea elkartzera bultzatzen zuen beste eginkizun bat *zerri hiltzea* zen (JM eta M: 5).

*Ezkontzen* errejimenak —nor norekin ezkontzen den, ezkongaiak nongoak diren eta zein den euren hizkuntza, non ezartzen duten familia berria, e.a.— lotura zuzena du komunitatearen muga iraupenarekin eta, oro har, ondorio garbiak izango ditu taldearen bilakaeran, eta, zer esanik ez, bere hizkuntzarenean. Halaxe gertatu da Uitzin ere, ezkontzen joera nagusiak jasotzen dituzten lekukotasunek erakusten digutenez.

Uitziarrak gehienbat euskaldunekin ezkontzen ziren, bertako zein auzo-herrietako lagunekin batik bat (JM eta M: 5), baina erdaldunekin ere elkartzen ziren: “Bazen, bazen ee euskaldunek erdaldunekin, kasik euskaaz, euskaldunek erdaaz batere kasik etzekinak erdaldunekin ezkonduk” (ET: 36). Euskaldunekin ezkontzen zirenean maiz gertatzen zen Uitzin bizitzen gelditzea senar-emazte berriak. Erdaldunekin izanez gero, ordea, kanpora ateratzen ziren eskuarki: “Honea etorrik ez, (...). Honea gutxi” (ibid.: 36). Uitzira ezkondata etorritako erdaldun bakarra Cirilo izenekoa zen —“Hemen erdaldune etorri zena Cirilo izeinen dok” (ibid.: 36)— eta beste bikote bat ezagutzen dute Lekunberrira joan zirenak. Bistan da Uitzira ezkonduko zenak kultur mundu jakin batekin bat etorri behar zuela, oro har, eta hor, beharbada, bereizgarri nagusia hizkuntza izango zen, hau da, Uitzira etorri nahi zuenak euskaraz jakin behar zuen —“entenditzeko haine jakingo zun ta...” (ibid.: 36)— edo, bestela, zertxobait ikasteko prest egon, ulertu ahal izateko adina bederen, Cirilo delakoari gertatu zitzaionez, agian aurrez zer edo zer jakingo zuelako (ibid.: 36).

Eztabaida taldean esan zenaren egiaztatzaile uitziarrek 1863tik 1936ra bitartean egindako ezkontzen zerrenda dugu, parrokiako ezkontza-liburuan (UPA, “Libro de casados, velados y finados del lugar de Huici”) jaso. Bertan 173 ezkontza jasotzen dira tarte horretan eta horietatik euskaldunekin<sup>193</sup> egindakoak 149 (% 86) izan ziren eta erdaldunekikoak 24 (% 14). Kide erdaldunekin eratutako hogeita lau bikoteetatik bakarrik bederatzi joan ziren Uitzira bizitzera, gainerakoak kanpora ateraz, bileran adierazitakoa baieztatuz. Bestalde, esan behar da joera nagusia ez zela uitziarren artean ezkontzea, kanpotarrekin baizik, Nafarroako herri euskaldunetako pertsonekin batez ere: uitziarren arteko ezkontzak hogeita hemeretzi izan ziren, ezkontza guztien % 23 bakarrik.

Hizkuntza baldintza, gainerako kultur ezaugarriekin batera, erabakitzailea izan da, bistan da, uitziarrek sortzen zituzten familia berrien kokapena hautatzerakoan: euskaldunen arteko bikoteak Uitzin edo beste herri euskaldun batean geratzen ziren, baina tartean erdaldun bat izanez gero eremu erdaldunera jo ohi zuten. Eguneroko bizimoduak ezartzen zuen errejimen praktiko horrek babestu egin du hizkuntz komunitatearen osaketa, elementu arrotz gehiegiren txertaketa galaraziz.

---

193. Liburuan ez da, noski, ezkontideen hizkuntza aipatzen, baina bai beren jaioterria. Herri euskaldunetako lagunak euskalduntzat jo ditut eta erdaldunetakoak erdalduntzat. Okerren bat gerta daiteke —adibidez, Iruñekoak erdalduntzat jo ditut eta baliteke haietakoren bat euskalduna izatea— baina gutxi dira zalantzazko kasuak eta ez dituzte kopuru orokorrak asko aldatzen.

Beste kontu bat familia berriaren kokapena da. Irizpide gisa ezkontza egin zen tokian biziko zirela ulertu dut.

Jokoan zegoena komunitateko partaidetza zen, zer eskatzen zitzaion pertsona bati Uitziko komunitateko kideztat joa izateko —“the cultural desiderata, including language, wich are required for inside membership”, Fishmanen hitzetan (1991: 356)—, eta, argibide guztien arabera, irizpide nagusia, herriko bizimodu orokorrean txertatzeaz gain, euskalduna izatea zen.

Uitziko ohituren artean leku berezia zuten *feria edo azokek*. Bizimodu jakin baten adierazpenak dira, herriaren harremanak norantz bideratzen ziren erakusten digute eta, halaber, bertan elkartzen diren lagunena hizkuntz portaera nagusiak eta gizarteko harreman hizkuntzak azalarazten dituzte, hainbat ikertzailek —Sanchez Carrion (1972: 60-3) eta Calvet (1987: 107-23), kasu— erakutsi dutenez.

Iruñea, Irurtzun eta Tolosako azoketara joan ohi ziren, abereak saldu edota erostera. Iruñeko feria Sanferminetan antolatzen zen eta behorrak saltzera joaten ziren, oinez —“aziendekin nola bestela!” (ET: 32)—, eta bertako giroarekin egiten zuten topo. Azokan tratulari valentziarrekin aritzen ziren eta hiru hizkuntzak nahasten ziren: uitziarren artean euskaraz, valentziarren artean katalanez —“valenziano”— eta bien artean erdaraz: “Valenziano eiten due, beak valenziano aritzen de, baina erdaaz ee earki iten due e! Beak elkarrekin valenziano aitzen de elkarren hizketan da, zuri hitz eiten dizue erdeaz ederki” (ET: 33), eta noski, valentziarrak beraien artean katalanez aritzen baziren, uitziarrak euskaraz: “haiek eiten zueniin ee been hizkuntza guk ere bai geona, haiek ulertzen ez zuela” (ibid.: 33). Erabiliaren erabiliaz Iruñeko feria gaztelania eskola gertatu zitzaien: “Pixkaka-pixkaka ikasten geurek joan baiginen da, valenziano hoiekin trato egiten ta” (ibid.: 32). Sanferminak ziren eta, azoka bukatuta, kalera irten eta han erdara zen nagusi. Bi hizkuntzetan egin beharra izaten zuten, beraz: “Bitara ein behar, beharko! Elkarrekin euskaaz ta beste batzuk etortzen zeenean erdaaz” (ET: 32).

Irurtzungo azokara noizbehinka joaten ziren, ez oso maiz, eta han ere, euskaraz ezezik, erdaraz ere mintzatu beharra zuten, harreman hizkuntza gisa. Irurtzun erdaldundua<sup>194</sup> zegoen orduko, euskararen muga bertaraino iristen zen, eta azokan, euskaldunak ere agertu arren, erdaldunak ziren nagusi: “Irurtzundik haunztik, jende gehio biltzen baitzen hemendik baino, herri gehio ta, osea, erdaldun gehigo, euskaldun baino” (ibid.: 33). Txerriak salduko bazituzten erdaraz egin beharra zuten: “Hombre, ordun ee, txerrikin joanda, txerrikumeekin ee, erdaldunai saldu behar zinazkin da, e! (farre algarak). Gainea, entenditzen

194. Irurtzunen erdalduntzea XX. mende hasierakoa da, beren kidekoak, 1920-30ko gazteak, gehienak erdaldunak baitziren, zaharragoak euskaldunak ziren bitartean: “Zaharragoak bai, aurrekoak baino, ia gue kide tarako erdara bihurtu zen” (ET: 15).

ginen nolabait ee, entenditzen ginen, tratoak eiteko, dena erdi euskeaz erdi erdeaz ta” (ibid.: 23).

Gipuzkoa aldera ere joaten ziren —Tolosako azokara, Astigarragara gaztak saltzera, e.a.— eta oso bestelako egoera aurkitzen zuten, hango harreman hizkuntza euskara baitzen —“Gipuzkoan ee euskera beti izandu da” (ibid.: 33)—, baina lehentasuna Irurtzungo eta Iruñeko azokek zuten.

Azkenik, atal hau amaitzeko, ibarretik *kanpora* gutxitan ateratzen bide zen Uitziko jendea —“Kanpora? Gutxi” (ibid.: 14)— eta herritik at eramaten zituzten zereginen artean honako hauek aipatu zituzten: azokak, soldaduzka, apaizgaitegira joandakoak, morroi gisa lan egitera joandakoak eta aisialdia: jaiak, Donostiako estropadak eta zaldi lasterketak.

### *Uitzi ez da herri itxia izan*

Idea hau batik bat Jose Migel eta Marian elkarriketatuek agertu zuten, era desberdinetan azalduta eta garrantzi handia emanez. “Zaharrak ezagutuz, oso irekiak dira” (JM eta M: 3) diote eta Larraun ibarreko Errazkin herriarekin alderatuta, adibidez, azken hau askoz itxi eta isolatuagoa bizi izan dela azpimarratzen dute: “Errazkin askoz aislatuagoa Uitzi baino” (ibid.: 3). Hala ere, ñabardura bat gehitzen dute: herri irekia, oro har, baina kanpotarrak jasotzeko, ez hainbeste beraiek kanpora ateratzeko (ibid.: 3). Bestalde, irekitasunaren ideiarekin batera, herria beti ongi komunikaturik —errepidea, trenbidea, posta zerbitzuak, e.a.— egon da, Uitziren ezaugarri orokorren azalpenean ikusi ahal izan dugunez, eta horrek ere oihartzuna izan du jaso ditugun hitzetan, trenak, esate baterako. Burdinbidea eraikitzen ari ziren bitartean langileak —denetatik, “erdaldunak asko, baina, hala ere, euskaldunak ee asko izango ziren” (PJA: 7)— Uitzin bizi ziren, bertako lau ostatuetan. 1914. urtean jarri zen martxan eta inaugurazio ekitaldian herriko musika bandak, Manuel Noguera parrokoak eta bizilagun guztiek ezezik, Iruñeko apezpikuak ere parte hartu zuen (ibid.: 6). Trenbideak, dena dela, ez bide zuen eragin erdalduntzailerik izan, aurrez euskaldunak ziren herriak —Uitzi, Leitza...— nahiz erdaldunak edo erdalduntze bidean zeudenak —Irurtzun—, zeinek bere bideari eutsi baitzion: “Ez dut uste trenak influituko zunik euskera galtzeko, ez dut uste, ez, ez. (...). Irurtzun erdalduna zen orduko, Lekunberri, Uitzi eta Leitza, beste herririk ez zegoen, eta ez dut uste influituko zunik” (ibid.: 7).

### *Uitziarrak eta euskara*

Ikerketan zehar jaso ziren albiste esanguratsuen kontaketa harira, Uitziko bizimodu orokorarekin zerikusia duten gaiez arduratu naiz orain arte, hizkuntzaren gaia zeharka baizik ez aipatuz. Aurrerantzean, ordea, zuzenean helduko diet hizkuntzaren kontuei, bitan banatuta: ui-

tziarrak eta euskara, aurrena, eta uitziarrak eta gaztelania, bigarrena, bereizketa zenbaitetan zail samarra bada ere.

Herriko bizitza guztia euskaraz egiten zuten, eskola, mojak eta administrazio- eta eliz-jarduera idatziak izan ezik. “Uitzin beti euskara hitz egin da, beti”, zioen Pedro Jose Ariztimuñok (PJA: 1) eta bat etorri dira denak baieztapen horrekin. Etxean euskara hutsean aritzen ziren, eta horrek bermatu egiten zuen hizkuntzaren biziraupenaren gakoa den familia transmisioa, etxeren bat edo beste kenduta, baina horiek tren geltokikoak ziren. Halaber, euskaldun elebakar edo ia-elebakarren aipamena behin baino gehiagotan agertu zen, partehartzaile baten aitarena bezalaxe, kasu: “Nere aitek ee erdeaik tutik ee etzekin” (ET: 11).

Era berean, ezberdintasun ekonomikoek ez zuten hizkuntz erabilpen talderik sortzen. Herriko bizilagun guztiek, aberatsek nahiz txiroek, eta baita jauntxoek ere, euskaraz hitz egiten zuten —“Bai, bai, bai, jauntxoak ee bai” (ibid.: 31)—, salbu Arraizatarrenean eta beste etxe aberatsen batean non, euskaldunak izan arren, erdarara jotzen baitzuten zenbaitetan (ibid.: 31-2). Izan ere, Uitzin ezagutu ditudan bi lagunik dirudunik, Mariano Iriarte Osambela eta Zacarias Astiz (ikus 6.1 atala), biak oso euskaldunak ziren, testigantzen arabera.

Barruti euskaldunean zeuden bete-betea eta Nafarroako hizkuntz eremuak euskararen ikuspuntutik bereizten zituzten uitziarrek: euren eremua edo euskararen eremua eta eremu arrotza edo erdararena, bien artean euskara gaztelaniarekin nahasten zen zatia zegoela. Euskaldunen ohiko banaketa —eremu euskalduna, eremu erdalduna eta ukipen eremua— da uitziarrek egiten zutena, baina horrek ondorio zuzenak ditu Nafarroa irudikatzeko orduan, erdigunetzat euskal lurraldea hartzeak erdal komunitateak moldaturiko Nafarroaren irudi tradizionala (ikus 3.5 aldea) puskatzea baitakar ondorio gisa. Uitziarrentzat, euskal hizkuntz komunitateko kideentzat, erdigunea euskal eremua eta bazter aldeak Iruñea eta barruti erdaldunak ziren eta.

Bi hizkuntz barrutien arteko muga Irurtzunen aurkitzen zuten: “Irurtzunaino euskeaz izaten zen, hortik ia hasten zen erdaa” (ET: 33), baina aldaketaren lehenengo zantzuak Lekunberrin hasten ziren sumatzen: “Lekunberri pasatuz gero, beti hara kanbiatzen zen” (ibid.: 33). Lekunberri eta Irurtzun Iruñea eta Donostia lotzen dituen errepide nagusian kokaturik daude eta behin errepidean sartu eta gero erdal lurralderako bidean jartzen ziren zuzen-zuzenean. Tarteko eta errepidearen alboko haranak —Basaburua, Imotz...—, ordea, euskaldunak ziren gehienbat. Halaber, Irurtzun herria erdalduna zen, baina euskara eta gaztelaniaren arteko bidegurutzeari zegoela esan daiteke, mendebal aldera Sakana euskalduna —“Bai, Barranka alde hortatik euskaldunik sartzen zen” (ibid.: 33)— eta ekialde aldera, Iruñeko bidean, eskualde erdaldunak baitzuten.

Uitziarren berezko ingurunea herri euskaldunena zen eta harreman handiak zituzten haiekin, aurkezpenean zehar erakusten ari garenez. Leku haien euskalduntasunaren jakitun ziren eta behin eta berriro aipatu dute. Horrela, Azpirotz eta Gorritin dena euskaraz egiten zela diote. Berdin Leitza, Areso eta Ezkurran: “Leitze da, Ezkurre ta, Areso ta, horiek euskaldunek” (ibid.: 36). Orobat, Gipuzkoan ere euskara aurkitzen zuten: “Gipuzkoan ee euskera beti izandu da” (ibid.: 33).

Euskara molde ezberdinez mintzatzen zen haiek ezagutzen zituzten tokietan —“Euskara, herri batetik bestera kanbiatu eite da hitz eiteko modue, hizketan” (ibid.: 13)— eta denetik zegoen. Gorritiko euskara eta Uitzikoa berdintsuak dira, Leitzakoa ere antzekoa dela diote, baina “Gipuzkoa aldeko hitzek sartzen die hemen baino gehio” (ibid.: 37). Imozkoa, aldiz, desberdina zen, eta Sakanakoa ere bai —“hemendik Barrankaa diferentzia badago. Izugarria” (ibid.: 36)—, baina mintzatzen hasi eta aise ulertzen zuten elkar: “seitun hizketan, seitun ulertzen zen oain, bai, seitun” (ibid.: 37). Baztanen, aldiz, ia ulertu ezinik ibiltzea egokitu izan zaie: “Baztan aldeanz keo ez zien entenditze ee kasi, bi euskaldunek eta ezin entenditzen” (ibid.: 13).

Hizkuntzaren aldaketa, esan bezala, Lekunberrin hasten ziren nabaritzen, herri hau erdaldun samarra baitzen orduko: “Lekunberrin beti zea, hitz egin da erdaaz (...) euskaldun aldrebesak izaten ziren” (ET: 11). Lekunberriren erdalduntzean eragin handia izan du udatiarren etorreak: “kanpoko jendea gehigo etorri izandu da udan Lekunberria binipin, veraneanteak. (...). Ta horrek ee asko, asko egiten zuen, zeengatik jende erdaldune etortzen baitzen horrea uda pasatzea ta, Iruñe aldetik eta, dezakeen jendea” (ibid.: 12). Oro har, lekunberriarren erdalduntzean euren burua jasoago agertzeko nahia omen zegoen: “Kao, Lekunberri beti erdaldune izan da, hoiek beti, azaldu die como, como pueblo distinguido” (PJA: 6).

Euskararekiko berezko atxikimendua —motibapen naturala, A ibilbidekoa— nabarmena zen uitziarrengan, baina, aldi berean, kontzientzia euskaltzale garaturik ez zegoen Uitzin: “euskararen kontzientziarik ez” (JM eta M: 6). Euskaltzalerik ote zegoen galdetuta, bai eztabaida taldean bai Pedro Jose Ariztimuñok, denek berdin erantzun dute: “Herri guztia zen [euskaltzalea] hemen” (ET: 25), “euskaltzaleak, denak euskaltzaleak zeen. Denak euskararen aldekoak zeen ordun. Horregatik, denak euskeaz eiten zuen” (PJA: 2). Uitziarrek euren hizkuntza maite zutela argi eta garbi dago, horri buruz ez dago zalantzarik, Mitxelenaren iradokizunak (2.1.3 atala) baieztatuz, baina euskaltzale hitzaren zentzu hertsian apaizak baino ez dira agertzen: Manuel Nogueta —“Euskara oso ona egiten zuen” (PJA: 3)— eta Tomas Goldaratz —“euskaldun jatorra zen, euskaraz eiten zun harrek” (ibid.: 3)— bereziki. Orixe ere aipatu beharrekoa da —“euskaltzale famatue da, aise, euskaaengatik lan asko egiten zuna ta, jesuita ta” (ET: 25)—, baina herriko eguneroko

bizimoduan ez zuen eraginik izan. Euskararekiko kontzientzia aitortua zuen beste bat arestian aipaturiko Zacarias Astiz genuke, baina, dakigunez, oharkabean gelditu zen bere herrikideen aurrean.

Orobat, herrian ez zegoen inor euskara landua edo ikasia (B ibilbidea) zuenik: “Inon ez, inon ez, ezta inon ee” (ibid.: 31). Ezta apaizak ere: “Apezak, ez, ez” (PJA: 2), haiek euskara ona izan eta euskarazko predikua prestatu arren. Gainera, apaizgaitegira joan eta han dorpetu egiten zirela dio Pedro Jose Ariztimuñok, harritzekoa ez dena. Izan ere, Iruñeko apaizgaitegiko ikasle gehienak erdaldunak ziren, hango euskara irakaslea zen Miguel Inchaurrendok (1928: V) adierazi zuenez.

Pairamen latzak jasan behar izaten zituzten euskaldunak izateagatik. Eskolako arazo eta zigorrak aipatuak ditugu dagoeneko. Oraindik gogoragoak ziren erdaraz ez jakiteagatik *soldadutzan* jasandakoak: isekak —“soldaduzkan euskaldunei burla haundia eiten zieen” (ibid.: 10)—, zigorrak —“Nire aite beti kastigatue izan zen erdez etzekilako” (ibid.: 11); “kalbario bat zen” (JM eta M: 4)— eta, ondorioz, ikara handia izaten zuten mutilek —“euskaaz bakarra jakiteakin soldaduzkan ikaratu eiten zen jende” (ET: 10)—. Oro har, ezjakin —“batere jakinduik gabe, hain inorante, inorako ez baizun balio” (ibid.: 23)— eta motz edo motel sentitzen zuten beren burua gazte euskaldunek gainerako soldaduen aurrean —“erdaaz ez zekina motz gelditzen zen. Euskaarik ez eta geo erdaaz ez jakin... Motel gelditzen zeen oso” (ibid.: 10)— eta tontotzat hartuak —“nonahi joanda, mutilek tontok izan ziren” (ibid.: 23)— izaten ziren. Egoera horretan, dena den, ez ziren herrira euskaldunak izateaz damututa itzultzen, alderantziz, euren herri euskaldunera berriro joateko irrikitan zeuden (JM eta M: 4).

Are gehiago, uitziarrei, gizonezkoei, bederen, erdaraz ikastera mugiarazi zien arrazoi bakar bat nabarmendu beharko bagenu soldaduzka aipatuko nuke, beraiek ere behin baino gehiagotan egin zuten bezalaxe: “erdara, hartatik sartu zen” (ibid.: 14).

Halako egoeran, euskararen eta gaztelaniaren arteko lehiaz alde biko iritzi edo diskurtsoa zuten uitziarrek: euskararekiko maitasuna eta, aldi berean, gaztelaniaren beharra. Euskara maite zuten, ez zuten euren hizkuntza gutxien eta euskaraz ongi egitea prestigiosko zerbait zen beraientzat, Lekunberrikoak “euskaldun aldrebesak” (ET: 11) zirela esatean erakusten zutenez, adibidez. Baina euskara maitatzearekin batera erdararen beharra aldarrikatzen zuten. Erdaldunak oso erasokorrak ziren euskaldunekiko, ikusi dugunez, eta hauek aurkitzen zuten irtenbidea gehigarritzko elebitasuna zen, euskara baztertu gabe zenbait zereginetarako erdaraz jakitea, alegia, ez hizkuntza aldatzea. Zama ez zen euskara, erdaraz ez jakitea baizik, eta ikasteko —“Erdeaik jakin gabe ez diteke eskolik ikasi” (ibid.: 23), hezkuntza sistemaren eragin sinbolikoaren indarra erakutsiz, bide batez—, soldaduzka aise egiteko, herritik kanpora mugitzeko —“eusker a hutsean eginik inoa ezin atea, hemendik,

Irurtzunaino joanda ia...” (ibid.: 23)— nahiz bizitza orokorrerako —“euskaarekin bakarrik ezin bizi” (ibid.: 23)— behar-beharrezkoa ikusten zuten gaztelania. Txikitatik erdaraz ikasi ez zutenek oztopo handiak aurkitzen zituzten bizitzan eta heldutan saiatu arren ez zuten gaztelania menderatzerik lortzen: “euskaldunak etxetik kanpo atez keo, ezin, ezin euskerarekin bakarra moldatu ta, inahalak saiatzen zien erdez ikasten, bino keba!” (ibid.: 10), eta hortik zetorren, hain zuzen ere, eskolaren erdaltasunaren onarpena, lehenago ikusi bezala. Gainera, euskaraz zein erdaraz ederki zekiten apaizen eta beste lagun ikasi batzuen eredia zuten.

Euskararen iraupenaren zergatiaz ez dute kasik gogoetarik egiten, baina, aldi berean, euskararen iraupenaren gakoa ulertzeko bidean jartzen gaituzte. Euskararen iraupenaz ematen dituzten arrazoi nagusiak beti horrela izan dela —“Uitzin beti euskera hitz egin da, beti” (PJA: 1)— eta familia transmisioa —“Etxekoak, etxekoak, dena euskeraz, beti etxean egunero” (ET: 27)— dira, inguruko herrietan bezalaxe —“Azpirotz ta Gorriti ta, dena euskaa” (ibid.: 28)—. Horregatik, nahiz eta eskolak erdarara hutsean jaso, euskaldun izaten segitu dute uitziarrek (PJA: 1). Hau da, Jose Migel eta Marian elkarrizketatuek diotenez (JM eta M: 6), Uitzin ez da euskararen kontzientzia berezirik izan, apaizak izan ezik, eta iraupenaren zergatiak ez dira nagusiki hor bilatu behar, hizkuntzak eguneroko bizimoduan zituen sustraien indarrean eta familia bidezko jarraipenean baizik.

### *Uitziarrek eta gaztelania*

Uitzi herri euskalduna zen, baina, azalpenean zehar agertu denez, harreman ugari zituen gaztelaniarekin, uitziarrek erdararen beharra guztiz barneratuta izateraino iritsiz. Barneratze horretan zeregin aparta zuen erdal gizartearen “bortxa sinbolikoa” (Bourdieu eta Passeron 1970), eta ez hain sinbolikoa, dei dezakegunak: eskola, soldadutza eta, oro har, erdaldunen burla eta mesprezuak.

Herriko bizimoduan toki txikia zuen gaztelaniak eta erdarazko jarduera bakarrak eskola, mojak, kontzejuko eta parrokiako alde idatziak eta herrian jasotzen ziren egunkari eta aldizkariak ziren, baina gogoan eduki behar da eskolak eta, batez ere, mojek eragin handia zutela Uitzin. Prentsa etxe aberatsek jasotzen zuten eta erdarazkoa zen (PJA: 2 eta JM eta M: 5).

Uitzin ez zegoen kasik erdaldunik (PJA: 7): erdaldun ia bakarrak, maisu eta mozej gain, tren geltokiko arduradunak, Burgosko Villodrigo herritik etorriak, eta Juanitenea-ko maizterrak, soriarrak (UPA, Libro de Matrícula, 1927. urtea), 13 erdaldun guztira, Uitzin edota euskal lurraldean jaiotakoak 286 ziren bitartean. Etortzen zirenek euskaraz apur bat ikasi beharra zuten nahitaez, normalean tikili-takala moldatzea baizik ez



lortu arren (ET: 13). Beste aldetik denboraldi baterako etorritakoak ditugu: burdinbidea eraiki zeneko langileak, euskaldunak eta erdaldunak; Zaragoza, Donostia eta beste hainbat tokitatik tuberkulosia sendatzera etortzen zen jendea, Simonaren etxera (JM eta M: 2), eta haien artean ere denetatik zegoen, eta, azkenik, udatiarrak ditugu, gehienak gipuzkoarrak, baina erdaldunak ere bazeuden (PJA: 5-6). Hauek harreman gutxi izaten zuten herriko bizilagunekin, ez zuten euskararen aurkako propagandarik egiten eta, oro har, kalte txikia egiten zuten. Erdaraz ez zekiten uitziazarrak, ordea, gutxi ziren, oso gutxi zekiten lagun batzuk izan arren (ibid.: 6).

Emakumezkoek erdararekiko zaletasun berezia erakusten zuten leku-kotasun guztien arabera: “Neskak eta emakumeak dena erdaaz aitzen zeen bolada baten” (ET: 28). Neskek mutilek baino azkarrago ikasten zuten erdaraz (ibid.: 23) eta arrazoi hurbila mojen eraginean aurkitzen dute: “Neskatxek, neskatxek ikasi zuen hemen erdaaz agudo, osea, monjakin aitzen zien haik eskolan (...) ta denboa asko pasatzen zuen haik monjakin da, geo elkarrekin ee enpeinu gehixo, hemen, baino” (ibid.: 11). Dena den, Lekunberrin ere berdin gertatzen zen eta han ez zegoen mojarik: “Neskak beti, Lekunberrin ee, Lekunberrin ee gue kideko mutilek, euskaaz eerki ta, hain kideko neskek erdaaz” (ET: 11), eta gauza bera egiten zuten beste herri askotako neskek ere: “Bai, bistan da, eta nonahi ee bai” (ibid.: 23), “hori toki guztietan” (PJA: 2). Gertaera orokorragoa zen, beraz, eta denak bat datoz haren zergati nagusia emakumeen dotoreago agertzeko nahia zela baieztatzerakoan: “iruditzen zizien, pues, erdaaz jakitea kategorie, ez? kategorie zala erdaaz jakitea, da enpeño gehio jartzen zuen neskatxek guk baino” (ET: 23); “gauza eleganteagoa bezala, toki askotan bezala, e!, emakumeetan izandu da beti ohitura hori, haudio bezala, eleganteago bezala, azaltzeagatik, erdeaz hitz egin” (PJA: 1).

Aurreko kapituluan, 5.1 atalean, Bonaparteren albisteak abiapuntutzat hartuta, sexu-taldeen hizkuntzarekiko jokabide desberdinen arazoa eztabaidatu dugu arau orokorrik nekez ezar daitekeela esanez, baina garbi dago Uitzin jasotako lekukotasunek emakumeek erdararen aldeko joera zutela azpimarratzen dutela.

Joera horren isla, ez oso handia, egia esan, uitziazarren ezkontzetan aurkitzen dugu. 1912 eta 1936. urteen artean —1912. urtean soilik hasi ziren ezkontza guztiak, Uitzin nahiz kanpoan egindakoak, jasotzen— emakumeek beren ezkontzen % 22 egin zituzten erdaldunekin eta gizonen, berriz, % 13 (ikus beheko taula). Esanguratsuen, lehen ere ikusi bezala, uitziaz guztien euskaldunekin lotzeko joera da, baina, hala ere, bistan da emakumeak gehiago ezkontzen zirela erdaldunekin gizonak baino:

	Euskaldunekin	Erdaldunekin	Guztira
Emakumeak	45 (% 78)	13 (% 22)	58 (% 100)
Gizonak	48 (% 87)	7 (% 13)	55 (% 100)

Uitziarren ezkontzen banaketa 1912-1936 bitartean (Iturria: UPA, Libro de casados, velados y finados del lugar de Huici)

### *Orixe eta Uitzia*

Espero izatekoa zenez, Orixeri buruzko albiste ugari agertu dira ikerketan zehar. Pedro Jose Ariztimuñok, esate baterako, harreman estuak izan zituen Orixerekin —“Orixerekin asko tratatzen nun nik, asko” (PJA: 3), “harekin askotan joaten ginen paseatzera” (ibid.: 4)— eta badu zer kontakua. Berak dioenez, jesuita joateko —1905. urtean— Uitzitik atera zen arte, hots, hamazazpi urte bete bitartean, Joantenean egon zen artzain Orixe. Asko maite omen zituen ardiak eta “bakarren bat faltatzen bazen, negarrez etortzen zen” (ibid.: 3-4). Gero, 1923.ean jesuitetatik atera eta 1936ko Gerra Zibila arte, urtero joaten zen Uitzira uda bertan ematera (ibid.: 4). Zacarias Astizekin ez zen oso ongi etortzen, biak joera politiko desberdinetakoak zirelako, baina bai, ordea, Tomas Goldaraz parrokoarekin (ibid.: 5). Oso maitatua zen Uitzin —“kariño izugarria zuen Uitzin” (ibid.: 4)— eta 1936ko gerran hiru hilabetez eduki zuten gordeta Arrazatarren maizterrek, Martinperenean, ez nagusiek eta ez herriko beste inork deus jakin gabe (ibid.: 4). Jendearekin asko hitz egiten zuen eta “beti joaten zen koaderno ta lapitzakin, ta hitzen bat berrie ateratzen bazen, apuntatzen zuen bere liburutxoan” (ibid.: 5). Halaber, Ariztimuñok garai hartan ezagutu zuen euskarazko liburu bakarra, Mendibururen otoitz-gaiak, Orixe eman izan zen.

Orixek, hala ere, ez zuen euskararen aldeko propagandarik egiten Uitzin eta horren zergatia bat dator herriko euskararen egoeraz eman ditugun argibideekin: “zergatik ikusten zuen denak euskaraz hitz egiten da, zer propaganda egin behar zun? Euskera egiteko ta? Denak euskaraz hitz egiten zuen, denak” (ibid.: 5).

Antzeko iritziak agertu ziren Eztabaida Taldean ere eta ez zitzairen Orixeren garrantzia oharkabean pasa: “amistade haundik zitun” (ET: 24), “Harrek ee bee burue, Orixakoa baino gehigo jotzen zun hemengo”<sup>195</sup> (ibid.: 25), “Hitz egiten zien guztik gaben hartu eiten zitun taber-

195. Horrela aitortu zuen Orixe berak ere: “Batzuk Uitzia alako erri itsa zala; beste batzuk, Orixe olako erri purtzilla zala. Nori siñetsi? Nere buruari. Yakiña. Ni Uitziren alde” (1987: 41). Halaber, idazle gisa bere burua nafartzat jotzen zuela adierazi zion Angel Irigarayri 1958. urtean: “Izkiriataile bezela nafarra eta Nafarroako euskera dut nik gehien ikasi eta erabili” (Larrea 1995: 117).

nan, ta geo pasatzen zitun liburuetaa” (ibid.: 24), “Beti eskribitzen aitzen zen hue ta (...). Harrek euskeantzat lan handie ein zula esaten zuen, ta poeta zen” (ibid.: 24).

Gogoan hartu beharreko gai bat *Euskaldunak* poemak Uitziko ohiturak, egiazko herri euskaldun bateko ohiturak, azken finean, zein neurritan islatu ote zituen argitzearena da. Fideltasun handiaz aurkeztu zituela dio Orixek, poemari “Uitzi-liburu ori” deitzen dio (1987: 43), goian ikusi bezala, eta iritzi berekoak dira jaso ditudan lekukotasunak ere. Pedro Jose Ariztimuñoren hitzetan, “*Euskaldunak* liburuan kontatzen dituenak denak egia dira, denak. Apustuk, pilota partidak eta, geo elizkizunak eta, meza eta, hoi denak, lihoa, pestak, palanka, artazuriketak, Larraungo zortzikoa. Herri eta etxeen moteak, liburuan agertzen direnak, egiazkoak dira” (PJA: 9-10). Eztabaida Taldean ere berdin esan zuten: “Asike dena bertsotan jartzen zitun horrek, artazuriketako zea guztik, dena bertsotan jarrik, eta hemen, pestetan jokatzen zien apustuk eta, ahari apustuk ee jokatzen zien, da hoik danak, herrikoak” (ET: 24). Zerrenda eginez, honako hauek dira, bederen, *Euskaldunak* liburuan aipatu eta nire ikerketan ere agertu diren usadioak: artazuriketeta eta artazuriketako hainbat kanta, sorgin-pesta, nobioak jartzea, Uitziko eta Larraungo etxe eta herrien gaitzizeak, inauteriak, Donibane gaua, linoa eta ehuleak eta apustuak.

Eztabaida ez dago, hortaz, Orixek aurkeztu zituen ohituren egiazkotasunean, egin zuen hautaketan baizik (ikus Azurmendi 1976 eta 1977). Alegia, poemak Uitziko herriaren aurpegi bakarra islatzen du: bizimodu tradizionalarekin zerikusia duena, baina, aurkezpenean zehar ezagutu ahal izan dugunez, mundu modernoak eta gaztelaniak ere toki ukaezina zuten Uitziko bizimoduan —eskola, mojak, komunikabideak, e.a.—, eta Orixek gehien baliatu zituenetakoa dugu. Gakoa, nire ustez, aukeraketaren aldebakartasunean dago.

#### 6.4 Lekukotasunen esanahia: Uitziko euskal hizkuntz komunitatearen sistema

Aurreko atalean emaitza gordinak, agertu bezala, aurkeztu badira, oraingoan emaitzen interpretazio edo azalpena egingo da, honako atal hauen inguruan antolatuta:

6.4.1 Baloreen maila: Uitziko sistema etnolinguistikoa eta uitziarren berarekiko adostasuna

6.4.2 Hizkuntz harremanen sarea

6.4.3 Uitziko hizkuntz portaeraren sistema

6.4.4 Euskal hizkuntz komunitatearen egitura

6.4.5 Hizkuntz komunitatearen ugalketa

6.4.6 Euskaldunak eta Nafarroaren ideieren onarpena.

#### 6.4.1 Baloreen maila: Uitziko sistema etnolinguistikoa eta uitziarren berarekiko adostasuna

Uitziko bizimodua lan modu, giza harreman, gizarte-antolakuntza, haurren sozializazio eta ohitura jakin batzuen batuketaren emaitza zen, 6.3 atalean ikusi bezala. Herriko hizkuntza euskara zen eta, geure helburuetatik gehiegi desbideratuko lirатеkeen azterketa etnografikoetan sartu gabe, Uitzikoa euskararen inguruan eraikitako bizitasun handiko sistema etnolinguistikoa (Fishman, 2.3.2 atalean) genuela esan daiteke. Oso oroitzapen onak adierazi dituzte adineko uitziarrek garai haietako bizitzaz eta haien bidez, oro har, herriko bizimoduarekiko, beren buruarekiko eta euskararekiko adostasun nabarmena erakusten ari ziren zalantzarik gabe. Balorea kolektibitate batek eredutzat hartzen duen izateko era bat baldin bada (Rocher 1990: 70, jaso in 1.2.4 atala), uitziarren baloreen erdian euskaltasuna zegoen (baloreei buruz, ikus beherago 6.4.3 eta 6.4.4 ataletan). Bat zetozen euren izana —Uitziko euskaldunak— eta nahia —euskaldunak izatea, baita ere—, hau da, *pertenentziako* eta *erreferentziako taldeak* bat bera zituzten eta ez zuten kultur edota hizkuntz izaera aldatu eta erdaldun bihurtzeko gogorik garatu. Eta adostasun horrek Uitziko euskararen iraupenaren sakoneko arrazoia ematen digu, uitziarren euren buruaren onarpenak euskararena ere baitakar berarekin. Giza komunitate baten biziraupenaren gakoa barne lotura edo egituraketan dago eta hau, funtsean, komunitatearen bere buruarekiko adostasunari zor zaio, Guy Rocherrek esan zuen bezala:

(...) un grupo, una colectividad, una asociación tienen una cohesión en la medida misma en que infunden en sus miembros el sentimiento de pertenencia y de identificación con una entidad realmente existente, distinta de las demás y suficientemente caracterizada;

(Rocher 1990: 164)

Era berean, hizkuntzaren iraupen edota ordezkatzeko bilakabideak ez dira hiztunengandik kanpo gertatzen den zerbait, alderantziz, beren esku hartzea eskatzen dute eta azken hitza, hizkuntzari eusteko, Uitzin bezala, nahiz desagertzen uzteko, beste hainbat herritan bezala, hiztunek dute. Horregatik da hain garrantzitsua Uitziko euskaldunen euren buruaren onespina.

#### 6.4.2 Hizkuntz harremanen sarea

*Harreman sarea* (“social network”) nahiko kontzeptu emankorra izaten ari da azkeneko bi hamarkadetako ikerketa soziolinguistikoetan Lesley Milroy-k (1989 [1980]) soziologia alorretik hartu eta Belfasteko hizkerari buruzko lanean erabili zuenetik —baina Bloomfieldek (1973 [1933]: 46-9) jadanik erabilia zuen kontzeptu hau—, eta bereziki balia-

garria izan da mendeko hizkuntza edota hizkeren biziraupenaren baldintzen azterketan. Geurean ere argigarri samarra suertatu da.

Lagun baten harreman sarea pertsona horrek eguneroko bizitzan besteekin izaten dituen harremanen batuketa da funtsean, eta harreman sareen bidezko azterketek beraien ezaugarriak dituzte ikergai:

An individual's social network is quite simply the sum of relationships wich he or she has contracted with others, and social network analysis examines the differing structure and properties of social networks.


(Milroy 1994: 3.986)

Harreman sarearen kontzeptua soziolinguistika mailan erabiltzean kontuan hartzen den aldagaia harremanetako hizkuntza da, hiztunak aukera desberdinak dituela jakinik: "the manner in wich individuals utilize the resources of linguistic variability available to them" (Milroy 1989: 179).


Sareen ezaugarri nagusietako bat *dentsitate* da: dentsitate handia edo dentsitate txikia. Alegia, pertsona jakin batekin harremanetan jarzen diren aktoreek elkarrekiko harremanak ere badituztenean dentsitate handiko sarea dugula esaten da, eta elkarren arteko loturarik ez badute, ostera, dentsitate txikikoa (ikus 26.1 eta 26.2. irudiak). Dentsitate altuko sareak komunitate txikietan gertatu ohi dira, non kide gehienak elkarren ezagunak izaten diren, eta dentsitate txikikoak, aldiz, hirietan edota komunitate handietan, baina, dena den, gizarte txiki nahiz handietan mota bateko zein besteko sareak aurkitzen ditugu. Bestalde, azal dutako kontzeptuen kidea harreman gogorak —dentsitate handiko sareetan— eta harreman ahulak —dentsitate bajuko sareetan— bikotea dugu.

Uitziarren eguneroko bizimodua herrian nahiz aldameneko herri euskaldunetako bizilagunekin garatzen zen eta, alde horretatik, batik bat *euskarazko dentsitate handiko harreman sareak* eratzen zituztela esan daiteke. Haien harremanak, dena den, ez ziren hor amaitzen. Salerosketak, administrazio betebeharrak edota aisialdia zirela-medio kanpora atera —Irurtzunera, Iruñera, Donostiara...— eta hor noiz-behinkako harremanak izaten zituzten jende askorekin, erdaldunekin gehienbat. Harreman ahulak ziren haiek eta *erdarazko dentsitate txikiko sareak* ehuntzen zituzten. Hizkuntz harreman sarearen ikuspegitik, beraz, euskarazko dentsitate handiko sare trinkoak ditugu nagusi Uitzin, baina erdarazko dentsitate txikikoak ere aurkitzen ditugu.

Sare mota bakoitzak ezaugarri bereziak ditu eta bien artean Uitziko bilakaera ulertzea ahalbidetzen digute. Sare trinkoek taldearen biziraupena, hizkuntza barne, indartzera jotzen dute, eta horrela gertatu da Uitzin nagusiki, euskararen iraupena euskaldunen arteko harremanen trinkotasunarekin lotuta baitago neurri batean:



26.1. irudia. Dentsitate handiko harreman sarea: X korapilo nagusia da (Iturria: Milroy 1994: 3.986).



26.2. irudia. Dentsitate txikiko harreman sarea: X korapilo nagusia da (Iturria: Milroy 1994: 3.986).

Close-knit networks (...) have the capacity to maintain and even enforce local conventions and norms —of dress, religion, and general behavior, for example— and linguistic norms are no exception to this generalization.

(Milroy 1994: 3.986)

Sare ahulen zeregina, ordea, kontrakoa da: berrikuntzak bideratzea. Taldea gizarte zabalarekiko harremanetan jartzen dute eta han nagusi diren ereduak —gaztelania, gure kasuan— erakarri eta talde barnera hedatu egiten dituzte sarritan<sup>196</sup>. Eragin kualitatiboa izaten dute eta alde horretatik ez sarearen ahultasunak ez loturen maiztasun bajuak ez dute muntarik:

Milroy and Milroy (1985) have argued that «weak» and apparently insignificant interpersonal ties (...) are important channels through which innovation and influence flow from one close-knit group to another, linking such groups to the wider society.

(ibid.: 3.989)

Uitzin, bistan da, tankera honetako sareak franko bilbatu ziren eta erdararekiko harremanetan jarri zituzten uitziarrak, baina ez ziren inolaz ere eragin erdalduntzailea burutzerara iritsi.

Sare ahulen eragin berritzailearena, bestalde, euskararen iraupena isolamenduagatik azaldu nahi duen teoriaren aurkako argudio sendoa da, Euskal Herriko herririk itxi edo isolatuenean ere halako erdararekiko harreman ahul baina kualitatiboki eraginkorrak ohikoak izan baitira. Harreman ahul horiek aski izan dira toki askotan sare trinkoaren balizko babesa deuseztatu eta bertako biztanleei euskararen jarraipena belau-naldi gutxiren buruan etetera mugiarazteko, baina beste askotan ez, ordea, Uitzin bezala, non, gaztelaniarekiko harreman ugari —ahulak eta ez hain ahulak, badakigunez— izan arren, euskarari sendo eutsi zitzaion. Gakoa ez dago, hortaz, herriaren isolamenduan —kanpoko gizartearekiko loturen kopuruan, alegia— bertako hiztunen hizkuntzarekiko jarreretan eta, azken finean, hizkuntz komunitatearen barne sendotasunean baizik.

---

196. Ez beti, jakina, baina bi aldagaiez —sare trinkoak eta sare ahulak— baliatzeak konplexutasuna eta zorrotasuna gehitzen dizkio azterketari eta kontraesanean daudela diruditen eta trinkotasunaren irizpide soilaz nekez azalduko genituzkeen egoerak ulertzen laguntzen digu, Lesley Milroyk (1994: 3.990) ohartarazi zigunez:

[This weak tie model of linguistic change] seems to be capable of illuminating some puzzling patterns of variation and change which are difficult to explain in terms of the usual unqualified assumption that linguistic change is encouraged by frequency of contact and relatively open channels of communication, and discouraged by boundaries of one sort or another, or weakness in lines of communication.

### 6.4.3 Uitziko hizkuntz portaeraren sistema

Uitziko hizkuntz portaeraren sistema esatean uitziarrek hizkuntzaren alorrean komun zituzten uste, sentipen eta jarduera moldeak ditut gogotan azken finean. Azalpena, aurreko kapituluetan legez, hizkuntz ezagutza, hizkuntz jarrerak, hizkuntz hautaketa, hizkuntz erabilera eta hizkuntzaren gaineko ekintzak ataletan banatu da.

#### *Hizkuntz ezagutza*

Uitziarren ama edo lehen hizkuntza euskara zen eta eguneroko bizimoduan ederki moldatzen ziren hizkuntza horretan. Eskola heziketa eta gainerako ikasketak, ordea, ez zituzten euskaraz egiten, gaztelaniaz baizik, jakina denez, eta horrek muga garbia ezartzen zuen beren hizkuntz gaitasunean, eskola bidezko euskara ikasirik ez baitzuten gartzten. Kultur euskara lantzen zuten alor bakarra, apur bat bederen, erlijioarena zen. Hau da, hizkuntz ikasketa prozesuaren ibilbide naturala zeharo bermatuta zegoen Uitzin, bigarren ibilbidea ia hutsik gelditzen zen bitartean.

Euskarazko kultur mailarik handiena apaizek erdiesten zuten, baina beraiena ere mugatua zen euren burua hazteko liburutik ez zegoen-eta.

Gaztelaniari dagokionez alderantziz gertatzen zen. Bigarren hizkuntza gisa ikasten zuten eskolan eta kultur edukiei lotuta batik bat. Erdaraz erdiesten zuten gaitasun maila aldakorra izaten zen, bazegoen gaztelaniaz ederki zekiena ere, baina, oro har, esan daiteke ez zela inoren lehen hizkuntza bihurtzera iristen.

Bestelakoa zen herrira etorritako erdaldun urrien egoera. Mojak erdaldun hutsak izaten ziren eta ez zuten euskaraz deus ere ikasten, zenbait maisuk —beste batzuk, dena den, euskaldunak ziren— bezalaxe. Beste erdaldunen batzuk etorri ziren eta hauek, Uitziko euskalduntasun trinkoak bultzatuta, zertxobait bederen ikasi beharra zuten.

#### *Hizkuntz jarrerak*

Hizkuntz gaitasunean bezala, jarrera mailan ere euskara lehen hizkuntzat eta gaztelania gehigarritzat zituzten uitziarrek. Erdararen beharra komunitatetik kanpoko zereginetarako, erdaldunen iseka eta mesprezuak saihesteko eta, ez dezagun ahaz, ikasteko eta kultura lantzeko aitortzen zuten, baina euren hizkuntza euskara zen zalantzarik gabe. Berezko atxikimendua erakusten zioten euskarari eta euskalduna izateak prestigioa zuen uitziarrentzat.

Esandakoak prestigioaren kontzeptuaren konplexutasunean pitin bat sakontzera garamatza. Prestigioa aztertzerakoan ohiko goi/behe bereizketa hutsa kamuts geratzen da —“Es completamente dudoso si



vale la pena clasificar a toda costa dos lenguas en contacto como «superior» e «inferior», respectivamente», esan zuen Weinreichek (1974: 207), Mitxelenak bezalaxe (2.1.3 atala)— eta bi aldagai izan behar dugu kontuan: norentzat eta zein esparrutan. Hau da, norentzat? galdetzen dugunean ama hizkuntzako taldeak bereizi behar ditugu, euskaldunak eta erdaldunak gure kasuan. Esparruari dagokionez, barneko eta kanpoko munduak bereiziko ditugu. Horren arabera, adibidez, euskarak euskaldunentzat barnerako prestigioa zuela esango genuke, eta erdaldunentzat ez ordea. Bi faktoreak gurutzatuz, honako sailkapen hau egin dezakegu:

	Euskararen prestigioa		Erdararen prestigioa	
	Barnerako	Kanporako	Barnerako	Kanporako
Euskaldunentzat	+	- (+)	-	+
Erdaldunentzat	-	-	+	+

Prestigioaren kontzeptuaren konplexutasuna.

Uitziarrek euskaldun izaten segitzearen gakoa euskararekiko atxiki-menduan dago, euskarak beraientzat zuen prestigioan, baina, beste urrats bat eginez, nondik zetorkien uitziarrei euskararenganako zaletasuna? Alegia, euskarak iraun du euskaldunek eutsi egin diotelako eta euskaldunek eutsi diote aldeko jarrera zutelako, aski motibazio izan dutelako, baina zergatik izan dute aldeko jarrera hori? Zergatik nahiago izan dute euskaraz, eta ez eskura zuten gaztelaniaz, adibidez, aritzen jarraitu?

Uitziarren jarreraren oinarriak ez ziren ideologikoak, bizipen saketan eta, aldi berean, behar praktikoetan sustraiturikoak baizik. Lehen hizkuntza<sup>197</sup> euskara zuten eta hizkuntza horren gainean eraikitzen zuten euren izaera edo nortasuna<sup>198</sup>. Orobat, euskaraz garatzen zuten pozgarria

197. Gogora dezagun (ikus 2.3.2.1 atala) Weinreichentzat pertsona baten ama hizkuntza, edo lehen hizkuntza, definizioz pertsona horren hizkuntza gainartzaile edo dominantetzat hartzen dela.

198. Ama hizkuntza pertsonaren berezko pentsamendu eta komunikazio tresna bihurtzen da, Unescok gogoratu zuenez (ikus 2.3.2.1 atala). Sanchez Carrionek (1981a: 131), bestalde, horrela esan du: “la lengua de la identidad es la que está «dentro del sujeto mismo», formando parte inseparable de él: es la lengua en la que analiza sus procesos mentales y afectivos: sobre todo aquellos procesos más personales y más recreadores: la lengua de lo que en otro lugar se ha llamado su espacio simbólico”. Zentzu berean, eta gizabanakoan mailatik kolektibora igaroz, euskarazko lurralde animikoaz mintzatu da Patziku Perurena: “Euskalduntasunak irauten badu izango da bere

suertatzen zitzairen eta beren beharrak ongi asetzen zituen eguneroko bizimodua. Era honetan, orokorki mintzatuz, uitziarrek gizakien hiru lotura atabiko nagusiei —ama, lurra eta hizkuntza— eusten zietela esango genuke. Beste era batez adierazita, komunitate-partaidetza sentimendu eta nahiak *euren komunitatean* jartzen zituzten, komunitate euskaldunean. Hortik euskararekin zuten lotura sakona.

Bestalde, arestian azaldu eta errepikatu behar ez ditugun eguneroko bizimoduko behar praktikoez ere euskaldun izaten jarraitzera bultzatzen zituzten uitziarrak.

Oso ahulak ziren Uitziraino iristen ziren ideologia euskaltzaleen oihartzunak eta, esan bezala, herriko bilakaera ez zaie haiei zor, baina, hala ere, aipatzekoak dira. Adibidez, ezin dugu ahaztu herrian eragina izan zuten korrante politikoek —karlistak eta nazionalistak— euskararen aldeko jarrera adierazten zutela, eta, alde horretatik, uitziarrak beren euskalduntasunean babestuta sentitzen ziren.

### *Hizkuntz hautaketa eta hizkuntz erabilera*

Hizkuntzaren hautaketa eta hizkuntzaren erabilera, lehen esan bezala, estuki lotuak daude, zeren hautatzen duguna gehienbat erabileraren bidez erakusten baita eta, alderantziz, erabilpen ohiturek sarri hautaketa joerak finkatzera eramaten baitituzte.

Uitziarrek hizkuntza bat hautatu zuten beraiantzat eta, oraindik adierazgarriagoa dena, beren seme-alabeei irakasteko: euskara. Gertaera horren azalpena hizkuntz hautaketaren arrazoiak aztertzeko aipatu diren hiru irizpideen arabera egingo dut: soziologikoa, psikosoziala eta antropologikoa, eta erabilpen ohiturak ere beraien bidez erakutsiko dira.

*Irizpide soziologikoak* zeregin edo gizarte-esparruen arabera aztertzen du hizkuntzaren aukeraketa, esparru bakoitzaren eta bertan erabiltzen den hizkuntzaren artean nolabaiteko lotura edo erregularutasuna gertatzen dela abiapuntutzat hartuz. Jose Maria Sanchez Carrionen hizkuntz funtzioen sailkapena (ikus 2.3.2.3 atala) gogoan hartuta, uitziarrek egiten zuten banaketa honako hau zen:

---

lurralde animiko bat euskaraz izango duelako” (1995), eta lurralde animikoa euskaraz osatu eta transmititu duen herri baten lekukotasuna *Leitzako errege erreginak (Ahoz belarrirako urre altxorretan)* (1996) liburuan aurkeztu du.

Euskararen iraupenaren azterketan muineraino joan nahi izanez gero, euskal mundu sinboliko-kontzeptualaren ikerbide sakonak jorratu beharko genituzke. 3.5 atalean aritu naiz apur bat gai honetaz, eta datozen orrialdeetan ere bai, baina arazoak ikerketa berezia behar du eta nik neuk ez dut oraingoan gai horiek lantzerik izan.

Norberaren nortasuna.....	Euskara
Familia.....	Euskara
Lana .....	Euskara, gaztelania (azokak...)
Herria.....	Euskara, gaztelania
Nazioa <sup>199</sup> .....	Gaztelania, euskara <sup>200</sup>
Kultura .....	Gaztelania, euskara (erlijioa)
Nazioartekoa <sup>201</sup> .....	Gaztelania (eta beste)

Beraz, norberaren nortasuna, familia, lana eta herriko bizimodua euskara eskatzen zuten esparruak ziren Uitzin. Herritik atera eta nazio mailako esparruan kokatuta, bazekiten lagun askorekin euskaraz mintzatu ahal izango zirela, eskualde euskaldunetan batez ere, baina Irurtzun igaro eta nonahi aise jarduteko ezinbestekoa zitzaaien gaztelania erabiltzea. Bestalde, kultura jaso nahi izanez gero erdarara jo behar izaten zuten nahitaez, erlijio-kulturaren kasuan izan ezik. Nazioa —Nafarroa eta, oro har, Euskal Herria— eta kultura, hortaz, lehentasuna erdarari ematen zioten erabilpen-esparruak ziren, eta oraindik gehiago nazioartekoa. Tipikoki diglosikoa<sup>202</sup> dugu, beraz, euskara eta gaztelaniaren zereginen banaketa.

*Irizpide psikosozialak* arreta pertsonak egiten dituzten hautaketen motibazioetan eta berauen gizarte-dimentsioan ipintzen du. Simon Hermanen “egoera teilakatuen” teoriaren arabera (ikus 2.3.2 atala), Uitziko kasuan, hiztunek hobekien menderatzen zuten hizkuntza euskara zen, gizarteak batzuetan euskara eta beste batzuetan gaztelania espero zituen beraiengandik eta kideasuna zein urruntasuna euskaldunen edo erdaldunen taldeekikoak izan zitezkeen. Hizkuntz esparru edo funtzioen taula berriro gogoratu, eguneroko bizimoduan bat zetozen uitziarren

199. Nazioaren esparrutzat Euskal Herria hartzen dut, egitura politiko desberdinetan zatituta zegoela eta uitziarrei zegozkienak Nafarroako erakundeak zirela jakinik ere.

200. Euskal Herrian barrena mugitzen zirenean bi hizkuntzak erabiltzen zituzten, batzuetan euskara eta beste batzuetan gaztelania, baina hiriburuan, Iruñean, eta erakunde ofizialetan aurkitzen zuten hizkuntza gaztelania zela gogoan hartuz, honi eman diot lehentasuna.

201. Zentzu hertsian Euskal Herriko mugaz bestaldekoa litzateke nazioartekoaren maila, eta zentzu zabalean, Espainiatik kanpokoa. Orduko uitziarrentzat, dena den, soldaduzka egitera Madrilera edo Zaragozara joatea, adibidez, beste nazio batera joatea ote zen ez dago batere garbi.

202. Erabiliaren erabiliaz konnotazio gehiegi erantsi zaizkio *diglosia* hitzari eta, nire ustez, apur bat higituta eta kamustuta gelditu da. Gutxitan baliatzen ari naiz hartaz eta, gainera, bere oinarritzko adiera —zereginen banaketa hierarkizatua bi hizkuntza edo barietateren artean—, diglosia hitza bera erabili gabe ere, gardentasun osoz agertzen ari da lanean zehar.

hizkuntza nagusia, gizarte-egoerek beraiengandik espero zuten hizkuntza eta talde-kidetasunekoa: euskara.

Baina oso azpimarragarria da, orobat, askotan —nazio maila, kultura eta nazioartekoa— gizarte-egoerek euren hizkuntza baztertu eta beste bat, gaztelania, erabiltzea “espero” zutela uitziarrendandik, itxaropena ezezik sari eta zigorren mekanismoak ere martxan jarriz, jakina. Halaber, talde-kidetasunari dagokionez, normalean euren taldeko kideetasuna adierazten zuten uitziarrek, baina zenbaitetan —soldaduzkan, erdaldunekiko harremanetan...—, iseka eta mesprezurik jasoko ez bazuten, beren hizkuntza izkutatu eta erdaraz ahalik eta hobekien jardun behar izaten zuten, erdalduen taldeko kideetasuna adieraztera eramanik.

*Ikuspegi antropolinguistikoak* komunitatearen kultur eta hizkuntz baloreen eta komunitate-partaidetza sentimenduen aldetik aztertzen du hizkuntzaren hautaketa, hurbilketa soziologiko eta psikosozialen emaitzei sakontasuna gehituz. Oro har, euskara hautatzen zuten uitziarrek euren hizkuntzatzat, ikusi bezala, eta, aipaturiko irizpideen arabera, hautapen horren bidez komunitatearen baloreetan lehentasuna euskal kulturari ematen ziotela adierazten edo sinbolizatzen ari ziren.

Ezaguna dugu, halaber, komunitate-partaidetza euskal hizkuntz komunitatean kokatzen zutela, baina egoera apur bat nahasiagoa zen. Tartean bi komunitate aurkitzen ditugu, ez bakarrik: gertukoaren mundua: herria edo eskualdea —hizkuntz komunitatea— eta urrutikoaren mundua: Nafarroa, edo Espainia, —erkidego politikoa—. Biak hierarkizaturik zeuden: goialdean Nafarroa zegoen eta behealdean, aldiz, Uitz, bestearen zati bat zena eta bere mende zegoena (ikus 3. irudia 2.3.2 atalean). Badakigu Nafarroa, bere osotasunean, erdararen irudira eraikitako egituraketa zela (ikus 3.5 atala) eta bere hizkuntz arauak ezartzen zizkiola herri edo eskualdetik atera eta barruti osoaren mailan aritu nahi zuen orori. Horixe adierazten eta islatzen du uitziarren hizkuntz hautaketak, hots, komunitate-partaidetza bikoitza, euskalduna eta nafarra, hurbila eta urruna, zutela, eta Nafarroa, edota Espainia, mailatik zetozkien kontuek gaztelania ezartzen ziotela eta, aldi berean, ezarpen horri erdaraz ikasten egokitzen ziztaizkiola beraiek.

### *Hizkuntzaren gaineko ekintzak*

Azpimarragarriena ekintzarik eza da, zalantzarik gabe. Uitziarrek ez zuten euskararen egoera ez hobetzeko ez okertzeko jarduera nabarmenik burutu. Haien euskararekiko atxikimendua ikusita, ulergarria da kalteztzera jo ez izana eta ez du merezi horretaz luzatzea. Euskarak hutsune objektiboak —irakaskuntza, idatziaren alorrak, administrazioa, Nafarroa mailakoak...— zituen eta uitziarrek biziki pairatzen zituzten, jakina denez, baina beraiengandik ez zen egoera hobetzea bilatzen zuten

ez ekimen ez egitasmorik sortu. Portaera hori azaltzen duten lekukotasunak urri samarrak dira eta argigarriena da, beharbada, Pedro Jose Ariztimuñok Orixeri buruz adierazitakoa: herriko guztiek euskaraz egiten bazuten, zer propaganda egin behar zuen Orixek? Euskaraz egiteko? Denek egiten zuten eta. Horrelako zerbait gertatuko zitzaion Zacarias Astizi ere, ez baitirudi, Euskal-Esnalea elkarteko kide izan arren, inoren euskalduntasuna “esnatzeko” ahaleginik egin zuenik.

Garbi dago egoera orokorki ontzat ematen zutela eta ez zutela hura hobeagotzeko beharrik sumatzen, eta euskararen hutsuneak edo ez zituzten hautematen, edo ez zituzten halakotzat hartzen, edo, ohartuta ere, ez zitzaien bururatzen haiek zuzentzea beren esku egon zitekeenik.

#### 6.4.4 Euskal hizkuntz komunitatearen egitura

Hizkuntz komunitatearen egitura Sanchez Carrionen rol edo *talde soziolinguistiko*en (ikus 2.3.2.3 atala) bidez azal daiteke, 1.2.4 atalean esan bezala. Rolaren zeregina norbanakoek gizartean dituzten pertinentziak eta esku hartze moduak zehaztea edo bideratzea da (Rocher 1990: 374); hau da, pertsona bakoitzak rol jakin batzuk eginez hartzen du parte gizarte-bizitzan. Era berean, hizkuntz komunitatera igaroz gero, rol desberdinen bitartez txertatzen dira hiztunak komunitatearen egitura: rol horiei talde soziolinguistikoak dei dakieke.

Talde soziolinguistikoak AB —jatorrizko hiztun kulturizatuak—, BA —heldu bertakotuak—, A —jatorrizko hiztun primarioak—, B —ikasten ari diren helduak— eta Ø —hizkuntza ez dakitenak— dira, Sanchez Carrionen taxonomian, pertsonen hizkuntz gaitasunaren arabera, eta, atomoa bezala, erdigune baten inguruan zirkulo kontzentrikoen modura antolatzen dira, 2.3.2.3 ataletik berriro jasotzen dugun irudiak erakusten duenez:


Bestalde, AB eta BA taldeek *gune sinbolikoa* osatzen dute eta biak dira komunitatearen biziraupenerako ezinbestekotzat jotzen den aparatua sinbolikoa edo sistema kulturala hobekien gorpuzten dutenak. Beraz, ongi egituratutako hizkuntz komunitate batek bere erdigunean hizkuntzaren garapen osoa eta, aldi berean, komunitatearen aparatua sinbolikoa itxuratzen dituztenen multzoa du: AB eta BA taldeak.

Zein da Uitziko euskal hizkuntz komunitatearen egitura, ikuspegi honetatik aztertuta? Hizkuntz talde edo rolen banaketa honako hau zen Uitzin:

-AB edo BA, inor ez. Orixe izan zitekeen bakarra, baina heldutasunera iritsi zeneko ez zen jadanik herrian bizi.

-A(B), hau da, etxeko euskara gehi nolabaiteko kultur garapena: apaizak eta ia inor ez gehiago.

- A, herriko bizilagun gehien-gehienak.
- (A), hau da, bakarrik etxeke euskara, eta erdizka, bakan batzuk: Arraizatarrak...
- B eta (B), euskaraz zertxobait ikasi zuten kanpotarrak, ez zutelako bestela herrian bizitzerik.
- $\emptyset$  edo erdaldun hutsak: mojak, maisuak —erdaldunak zirenean— eta besteren bat gehiago.



4. irudia (2.3.2.3 ataletik ekarrita). Hizkuntz komunitatearen egitura (Iturria: Sanchez Carrion 1987: 203).

Euskal hizkuntz komunitateaz, beraz, hauxe esan daiteke: hutsune nabaria zuen bere erdigunean, ez zuen gune sinboliko garaturik, AB edo BA euskaraz kulturizaturiko lagunik ez baitzegoen. A maila, ordea, bete-beterik zuen eta erdaldun batzuk erakartzeko ahalmena ere bai: B edo (B) sailekoak. Guztiz at gelditzen ziren, berriz, Ø sailean, maisu erdaldunak eta mojak. Dena 27. irudian islatzen da eta, hizkuntz rolen banaketaren eredia erakusten duen 4. irudiarekin erkatuz gero, Uitziko desoreka nabarmen agertzen da.


Bestalde, gaztelaniak ere bazuen leku bat Uitziko biztanleen baitan eta, alde horretatik, *erdal hizkuntz komunitateaz* ere mintza gaitzke. Honek honako tipo linguistiko hauek erakusten zituen: AB edo BA, mojak, maisuak, apaizak eta herritarren multzo bat; A, ia inor ez; B edo (B), bizilagun gehienak; Ø, hau da, erdaraz ez zekiten euskaldun elebarrak, bizilagun talde bat, B edo (B) osatzen zutenen multzoaren osagarria (ikus 28. irudia).

Erdal hizkuntz komunitateak hutsune ia osoa zuen A mailan, uitziarrak jatorriz euskaldunak baitziren, baina, horren orde, AB/BA multzoa, gune sinbolikoa, ondo hornituta zuen eta B edo (B)-koen multzoa ere bete-beterik zuen, hots, oso erakarpen indar handia zuen. Erdal hizkuntz komunitatearen erronka A hiztunak erdiestea zen, hau da, uitziarrekin txikitatik eta etxeko hizkuntza gisa erdaraz ikas zezaten lortzea, eta horretarako euskal hizkuntz komunitatearekiko lehia bizian ziharduen. Ez zuen Uitzin urrats hori egitea lortu, baina bai, ordea, Nafarroako beste hainbat herritan.


Gizarte jakin baten aparatu sinbolikoak gizarte horretako balore, sinbolo eta, baita ere, giza talderik eraginkorrenak biltzen ditu (Shils) eta komunikazio eta partehartze edo pertenezia zereginak betetzen ditu, arestian (1.2.4 atala) esan bezala. Alde horretatik, Uitziko euskal hizkuntz komunitateak AB/BA gune sinbolorik ez izateak hiru ondorio mota ditu: hizkuntz eredu mugatua —komunikazioaren murriztapena—, aparatu sinbolikoaren desitxuratze eta birkokapena eta, hirugarrena, egituraren hauskortasuna —pertenentziaren ahultasuna—.

Hizkuntz ereduari dagokionez, uitziarrei ez zitzaizkien euskara osatuaren —etxekoa gehi kultur euskara— eredia inon eskaintzen eta, orduan, euskara bizi-bizi baina kulturalki mugatua jasotzen zuten, beren komunikazio ahalmena kaltetuta geldituz: egunerokotasunaren alorrera murriztuta. Kultur garapenaren behararen berri bazekiten, ordea, eta, goian ikusi bezala, aurkitzen zuten eredia apaizena zen, hau da, herriko euskara bizia erdara landuarekin osatzea. Alegia, euskarazko AB/BA eredu osatua izan beharrean, kultura gaztelaniarekin uztartzen zuen eusk. A(B)/erd. B(A), edo eusk. A/erd. B, eredia aurkitzen zuten.

Aparatu sinbolikoaren aldetik, komunitatearen aparatu sinbolikoa teoriak AB/BA erdiguneko lagunengan gauzatu ohi denez, pentsa liteke



27. irudia. Uitziko euskal hizkuntz komunitatea: hizkuntz rolen banaketa.



28. irudia. Uitziko erdal hizkuntz komunitatea: hizkuntz rolen banaketa.



Uitzikoa balore edo aparatu sinbolikorik gabeko komunitatea zela, baina ez zen horrela gertatzen. Uitzik bazuen bere kultur sistema, baina, AB/BA gunerik ezean, kultur baloreak gorpuztearen funtzio edo rola, desitxuratuta bada ere, gainerako kideek betetzen zuten.

Gune sinbolikoak komunitate osoari ematen dio eitea eta, hortaz, ageriko gunerik ez izateak komunitatearen irudia ahuldu eta, aldi berean, oso *hauskor* bihurtzen zuen bere egitura. Atomoen metafora berriro gogora ekarriz, nukleoa deseginez gero, atomoa desintegratu egiten da. Hauxe da gune sendorik ez duten hizkuntz komunitateen arriskua, zientzia fisikokoekiko paralelotasuna ezartzea zilegi baldin bazaigu. Uitzin ez bazen puskatu A multzoaren indarrarengatik izan zen, gune sinbolikoaren eginkizun zenbait bereganatu eta, aldi berean, hizkuntzaren eza-gutza, erabilpen eta motibazio primarioak —A mailakoak— bermatzen baitzuten. Hots, uitziazarrak ez ziren iritsi, euren gune osaturik ezean, nukleotzat erdal taldearena hartzera, batzuek hala iragarri arren. Halako moldaketa bat egin zuten eta eutsi egin zioten euren euskalduntasunari, baina egitura mota honen hauskortasuna begi-bistakoa da eta Nafarroako beste hainbat herritako euskararen galera bide horretatik azalduko genuke, euskalduntsunaren baloretik erdalduntasunarenera igarota.

#### 6.4.5 Hizkuntz komunitatearen ugalketa

Nahikoa azaldu dugu jadanik Uitziko euskararen gizarte-sistema eta, beraz, euskararen jarraipenaz hitz egiten dugunean, halako baloreak, halako portaerak eta halako egitura zuen euskal hizkuntz komunitatearen belaunaldiz belaunaldiko jarraipen edo iraupenaz hitz egiten ari gara funtsean. Bertan lehen hizkuntza euskara zen eta gaztelania gehigarria. Berez, ohikoak dira munduan horrelako egoerak —bertako hizkuntza gehi kanpoko hizkuntza bat(zuk) gehigarri gisa— nahiz egoera horien belaunaldiz belaunaldiko jarraipena, baina aztertzen ari garen kasuak, hala ere, beste hizkuntza askorekin alderatuta, bereizgarri nagusi bat du: hezkuntza formalak, euskararen jarraipena lagundu beharrean, gaztelania eta erdal baloreak hedatzen zituen.

Kulturen jarraipena gertaera ezaguna da gizarte-zientzietan eta ia elkarren baliokideak diren sozializazioa<sup>203</sup>, endokulturazioa edota ugalketa kontzeptuen bitartez, besteak beste, azal genezake. Denek bi ezau-

---

203. C.B. Cazden-entzat (1994: 4.004), esate baterako, sozializazioak harreman hirukoitza du hizkuntzarekin: (a) hizkuntzaren bidezko sozializazioa; hizkuntza sozializazio orokorrerako bitartekoa denean; (b) hizkuntzarako sozializazioa; hizkuntzaren ikasketa; eta (c) hizkuntzari buruzko sozializazioa; gramatika eta idatziaren ezagutza eta hizkuntzarekiko jarrerak.

garri garrantzitsu dituzte komun. Aurrenik, transmisioaren erdian giza taldearen borondatea jartzen dute, azalpen mekanizistak alde batera utziz, Peter Burkek (1987: 69) azpimarratu zuenez:

Las tradiciones no persisten automáticamente, por «inercia», como a veces dicen los historiadores. Son el resultado de un gran esfuerzo por parte de padres, profesores, sacerdotes, patronos y otros agentes de la socialización. El concepto de «reproducción cultural» dirige la atención al esfuerzo requerido en el momento presente, para mantener una sociedad dada más o menos como es.

Kulturen jarraipenaren azterketen bigarren ezaugarria hau da: toki nabarmena egiten diote gizarte-aldaketari eta, horrenbestez, jarraipenaz hitz egiteak ez du esan nahi aldaketak gertatzeko aukera baztertzeko denik.

Oro har, gizarte-sistema batek, euskal hizkuntz komunitateak, kasu, belaunaldi batetik bestera jarraitzen badu, bere kideek horrela nahi izan dutelako da, jakinik beste norabideren bat hartzeko aukera ere izan dutela gehienetan: “hemen, berriz, euskaari beti eutsi zioen jendeek” (ET: 35), zioten uitziarrek eta arrazoi osoa zuten, euskararen iraupena ez baita “berez” gertatzen den zerbait, hiztunek, “jendeek”, egunero-egunero egiten duten zerbait baizik.

Gure kasuan, azalpena Pierre Bourdieuren kontzeptuen inguruan antolatuko dut: kultur ugalketa, hizkuntz azoka, habitusa eta lan pedagogikoa (ikus 2.3.2.4 atala). Giltzarena habitusaren kontzeptuak egiten du, ondoko azalpenean ikus daitekeenez:

(...) le travail pédagogique tend à reproduire les conditions sociales de production de cet arbitraire culturel [“arbitraire culturel”= kultura jakin bat, Bourdieuren hizkeran], i.e. les structures objectives dont il est le produit, par la médiation de l’habitus comme principe générateur de pratiques reproductrices des structures objectives.

(Bourdieu eta Passeron 1970: 48)

Orokorki, Uitziko hizkuntz komunitatearen *ugalketa* edo jarraipena aztertzen ari gara. Hizkuntz komunitateak portaera arau eta balore jakin batzuk zituen eta *hizkuntz elkartrukeen azokan* bereak beste batzuekin alderatu eta balioztatu egiten zituzten. Hizkuntz azoka bikoitza zen: eremu euskaldunekoa eta Nafarroa osokoa. Eremu euskalduneko azokak euskara egoera askotarako hizkuntza baliotsua zela adierazten zien; Nafarroa osoko azokak, ordea, erdal komunitateak antolatuta, gaztelaniaren balioa erakusten zien. Eredu, arau eta irizpide horiek guztiak *lan pedagogikoaren* bidez ikasi eta barneratzen zituzten haurrek, Uitziko euskal hizkuntz komunitatearen *habitusa* edo kultur eta hizkuntz gaitasuna finkatuz. Uitziko bizilagunek, behin euskararen oinarritutako habitusa beren baitan eratu eta gero, haren arabera jokatzen zuten praktikan eta

hura zen, halaber, ondorengoei irakasten zieten, euskararen ugalketaren zirkulua itxiz.

Uitziko euskararen jarraipena laburbiltzen duen azalpena dela-eta, ohar batzuk egin behar dira, hala ere. Uitziarren habitusa eta euskararen ugalketa azoka eta lan pedagogiko jakin batzuen emaitzak dira, nonbait, baina azken biak —azoka eta pedagogi lana— beren barnean aldakortasuna onartzen duten kontzeptuak ditugu eta, ondorioz, Uitzin gertatu zen bilakaera ez zen gerta zitekeen bakarra, Nafarroako beste herri anitzetan ikus daitekeenez.

Uitziarrek parte hartzen zuten hizkuntz azokan, beren hizkuntz harremanen sarean, bestela esanda, balioztatua ikusten zuten euren hizkuntz hautaketa: euskara nagusi eta gaztelania gehigarritzat hartzen zituen eredia, eta balioztatua ikuste horrek bihotz ematen zien hizkuntzari eusteko, Bourdieuk berak iradoki zuenez (1985: 44 eta 57). Azokaren erantzun baikorra garrantzi handiko bi arrazoiengatik gertatzen zen: eremu euskalduneko azoka zelako, batetik, eta, bestetik, barruti horretan euskara bizilagunen onespina jasotzen zuen balore bat zelako. Beraz, orain azokaren ikuspegipean, zenbait eskualde euskaldunetako trinkotasunarekin egiten dugu topo berriro ere, Nafarroako euskararen bilakaeraren azterketan zehar behin baino gehiagotan gertatu zaigun bezala. Bitartean, Nafarroako hizkuntz azoka orokorrak, ostera, gaztelania saritzen zuen eta berdin gertatzen ari zen hainbat eskualde euskaldunetan ere.

Lan pedagogikoari dagokionez, bi lan mota berezi zituen Bourdieuk: familiakoa eta eskolakoa. Pedagogia implizitua eta praktikaren bidezkoa lehena —“l'ensemble des apprentissages liés à la conduite quotidienne de la vie et en particulier à travers l'acquisition de la langue maternelle” (Bourdieu eta Passeron 1970: 59)—, eta agerikoa eta metodikoki antolatua bigarrena. Normalean elkarren segidan daude biak eta hezkuntza sistema familiak hasitako lana sakondu eta berrindartzera etorri ohi da: “le mode d'inculcation visant à confirmer purement et simplement l'habitus primaire (entretien ou renforcement)” (ibid.: 59), pertsonak euren hizkuntzan A haurrak izatetik AB helduak izatera eramaten dituen hezkuntza, alegia. Baina kontrakoa ere gerta daiteke, hau da, hezkuntza sistemak familiaren lan pedagogikoa deuseztatu eta bere ordez kultura nagusiaren habitus edo eredu sistema bat ezartzera jotzea: “le mode d'inculcation visant à opérer la substitution complète d'un habitus à un autre (conversion)” (ibid.: 59), hots, euskaldunak erdaldun bihurtzea bilatzen duen hezkuntza sistema. Eta hortxe zegoen, hain zuzen ere, Uitziko arazoa. Eskola-sistema ororen arrakasta familiako edo lehen lan pedagogikoarekiko loturan oinarritzen dela dio Bourdieuk —“Le succès de toute éducation scolaire, et plus généralement de tout travail pédagogique secondaire, dépend fondamentalement de la prime éducation qui l'a précédée” (ibid.: 58-9)—, baina norabide berean joan beharrean

kontrakoa zihoazen Uitzin, batak bestearen fruituak indargabetuz. Familiako lan pedagogikoak eutsi egin zion euskarari, baina eskolak, lagundu beharrean, oztopo eta eragozpenak baizik ez zizkion jartzen eta, ondorioz, Bourdieuren haritik tiratuz, eskolak uitziarren hezkuntza garapena zatitu eta kaltetu egiten zuela esan dezakegu, beren ahalmena biderkatu beharrean.

Uitziko euskal hizkuntz komunitatearen jarraipenaz, azkeneko oharra: *jarraipena eta aldaketa*. Sarritan kontrajarri egiten dira bi kontzeptuak, herri kultura edo hizkuntzen iraupena tradizio hutsarekin eta, alderantziz, gizarte-aldaketak kultura haien desitxuratzearekin berdinduko balira bezala. Errealitatean, ordea, konplexuagoak dira gauzak, iraupena eta aldaketa uztartuta agertzen dira maiz eta ikertzaileak bietan jarri behar du arreta (Fishman 1991: 34-8; 386-9). *Bi aldaketa mota* ditugula esan daiteke: bata, sistema beraren baitan gertatzen dena, hau da, sistema hautsi gabe barne oreka berria bilatzen duena; bestea, sistema edo egitura aldatzea, aurreko sistema puskatu edo hiltzen denean (Rocher 1990: 383-5).

Uitziko bilakaera aurreneko sailekoa da zalantzarik gabe eta lotura du 3.2 atalean nekazari gizarteaz (ibid.: 300) aztertu ditugun ezaugarriekin: hiriarekiko harremanetan, bere buruaren babes mekanismoak garatu ditu eta gauza izan da hiriaren eraginak bere erritmoaz bereganatzen jakiteko. Aldaketa ugari jasan zituen Uitziko bizimoduak —“[orain] dena diferente (...). Oso bizimodu diferentea” (ET: 4)— aztertutako hamarkadetan: eskola, mojen etxea, errepidea, burdinbidea, komunikabideak, erdararen pisuaren areagotzea, eta abar, eta, oro har, garaiko bizimoduaren berrikuntza nagusiak hurbil-hurbildik ezagutu zituen, baina, hala eta guztiz ere, euskalduna izaten segitu zuen, ez zuen hizkuntz izaera aldatu. Barne birmoldaketak egin ziren eta oreka berri bat sortu zen —erdarari toki bat onartzea, gure alorrean—, baina betiere euskal hizkuntz komunitatearen sistemari atxikiz.

Egitura aldatzera daraman aldaketa, aldiz, erdaldundu diren hainbat herrik pairatutakoa genuke.

#### 6.4.6 Euskaldunak eta Nafarroaren ideia onarpena

Hizkuntz komunitatea hizkuntzan oinarrituriko kategoria da. Nafarroa, berriz, batez ere kategoria politikoa da —egituraketa soziopolitiko jakin bat—. Bi kategoriak, berez, ez datoz bat eta, besteak beste, barruti geografiko desberdinak besarkatzen dituzte. Kontua da askotan kategoria politikoa linguistikoari gailentzen zaiola eta onarpen maila handia erdiesten duela, baita euskaldunen artean ere. Uitziko euskaldunak nafarrak sentitzen ziren eta ez zuten Nafarroako gizartearen kultur eta hizkuntz egituraketa eztabaidatzen, ikusi bezala. Onartze horrek erdararen nagusitasunpean jartzen zituen, mendekotasun egoera arris-

kutsu batean geldituz. Arazoa ez zen uitziarrena bakarrik, Nafarroako euskaldun gehienena edo guztiena baizik, eta, gaiak duen garrantziagatik, beste lekukotasun berri batzuk aurkeztuko ditut.

Uitzitik gertu Leitza dago. Bertako *La Voz de Leiza* aldizkariaren aurreneko zenbakian, 1921eko abendukoan, nafartasun aitorten boro-bil hau egin zuten: “Somos intensamente localistas en la villa, como somos navarros en la provincia”, eta orrialde berean “Para mi mujer navarra” izenburuko poema agertzen zen. Horrela dio:

En un pedazo de risco  
que rodó del Aralar,  
y en el que un rayo al chocar  
cinceló un jarrón morisco,  
tierra puse de Ibañeta,  
agua del Ebro le eché  
y una semilla planté  
de dulce amor de poeta.  
Salió una planta bizarra  
de entre aquel rudo despojo  
y ayer brotó un clavel rojo  
que es el color de Navarra.  
Y hoy, mujer, te traigo aquí  
planta, flor, tierra y peñasco  
grabado el envío en vasco,  
«Zuretzako!»... ¡para tí!

Literatur kritika alde batera utzita, begi-bistakoa da poeta bere irudipenezko Nafarroaren osagai guztiak biltzen saiatu zela, Nafarroaren ideia bera ontzat emanez, jakina: Aralar, harkaitz eta mendiak, arabiar-tasuna, Ebro ibaia, Nafarroako banderaren gorri kolorea, erdara —olerkiaren hizkuntza— eta euskara. Poemaren ikuspegia Leitzakoa zen, bertatik irudikatu zuen Nafarroa, eta toki nabaria egin zien euskarari eta Mendialdeko ezaugarriei, baina, aldi berean, euskararen gaztelaniarekiko mendekotasuna agerian gelditzen zen.

Leitzako poemak nolabaiteko molde ideologizatua erakusten badu, oso bestelakoa da Uztarrozeko ondoko lekukotasuna. Hau Victoriano Marco Perez uztarroztarrari 1913. urtean xede etnografiko-dialektologikoaz egin zioten grabaketaren puska dugu. Bertan bere ibarra, Erronkari ibarra, Espainian kokatzen zela zioen, Nafarroa, Aragoi eta Frantziaren artean, erronkariarrek Nafarroako Erregeari —euren Erregeari, alegia— egindako zerbitzu eta harengandik jasotako mesedeengatik harro agertuz:

Erronkariko Ballea dago Españan Nabarrako probintziaren, Aragokoaren eta Franzian artian eta ballia kompontan dei zazpik idik (...), eta

Erronkariarrak izan dira betik anitz azkar, anitz sufrituk eta anitz baliente, gerrara suaitan zrenian; eta korrengatik Nabarrako Erregek egin duei tempra guziez anitz mertsede eta emon duei anitz pribilegio zerbutsi andi egitan zeinein paka bates.

(Etxebarria 1992: 164)

Nafarroaren onarpenaren hirugarren lekukotasuna Juan Etxamendi Larralde “Bordel” (Luzaide, 1792-1879) bertsolariarena da: “Nafarruako seme / kreatu mundura” zela aitortu zuen “Donostian soldado” poeman (Zavala 1992: 50).

Hiru testigantza aurkeztu ditut eta, hartara jarriz gero, askoz gehiago bil litezke. Ez dira salbuespenak eta hortik datorkie balioa, hain zuzen ere: Nafarroako euskaldunen artean orokorra zen eta inork, edo ia inork, auzitan jartzen ez zuen nafartasun sentimendua islatzen dutelako. Eztabaidak Nafarroaren espainoltasunaz etorriko ziren, baina euskaldunen nafartasuna denen “zentzu komunekoa” zen, ideologiaz haratago, demostratu behar izan gabe denek egiazkotzat jotzen zuten zerbait balitz bezala.

## 6.5 Ondorioak

Ondorioak hiru ataletan banatzen dira: (a) Uitziko ikerketaren ekarpen nagusien laburpena: euskal hizkuntz komunitatearen bizitza, (b) euskaldunak eta erdal mundua eta (c) euskararen atzerakadaren arrazoiak. Azkeneko biak, aldi berean, lanak agertarazi dituen, baina gainerrako kapituluekin batera aztertu beharreko arazoak ditugu.

### *Laburpena: euskal hizkuntz komunitatearen bizitza*

Lanaren erronka edo arazo intelektual nagusia euskararen bilakabi-dearen subjektu edo protagonistatzat euskaldunak hartzen dituen historia egitea baldin bada, bete-betean erantzuten dio Uitziko ikerketak arazo horri, eta hauxe da bere ekarpen nagusia. Halaber, hautatu ditudan eredu teorikoez ere bide horretatik jotzeko eskatzen zuten.

Metodologia egokia behar zen eta horretarako ahozko historiaren ikuspegitik erabilitako soziologi teknika kualitatiboetara jo dut: eztabaida taldea eta subjektu pribilegiatuen elkarrizketak.

Hizkuntz komunitatearen sisteman lau maila bereizten ditugu: baloreak, hizkuntz portaera, gizarte-egitura eta ugalketa.

Baloreen aldetik, Uitziko euskarak iraun badu, uitziarrek agertu dioten atxikimenduagatik izan da, eta, orokorkiago mintzatuz, bere izaera etnolinguistikoko orokorrari eutsi diotelako. Ados zeuden uitziarrek herriko bizimoduarekin, eta baita euskarak bertan betetzen zuen tokiarekin ere. Ez zeuden XIX-XX. mendeetako gizarte-berrikuntzetatik kanpo,

baina beren erantzuna beharizan berriei egokitzea izan zen, ez hizkuntza aldatzea. Euskara aukeratuz, erreferentziako baloreak nagusiki komunitate euskaldunekoak zituztela adierazten zuten inplizitoki uitziarrek; baina gaztelania ere ikasten zuten, hizkuntza gehigarri gisa-edo, eta, orduan, Nafarroako, edota Espainiako, partaidetza ere onartzen zutela uler daiteke.

Uitziko euskal hizkuntz komunitatearen portaera sistema aztertu da: euskararen ikasketa, ezagutza, euskararekiko jarrerak, euskararen hautaketa eta erabilera eta euskararen egoera aldatzera zuzenduriko ekintzak, edo ekintzarik eza, antolatzen edo biltzen zituen arau multzoa.

Egiturari dagokionez, rol edo talde soziolinguistikoen ikuspuntutik aztertuta, sendoa eta hauskorra zen aldi berean Uitziko hizkuntz komunitatea. Sendotasuna euskara ama hizkuntza zutenen multzoaren —A taldea— indar edo bizitasunak ematen zion, goiko faktoreez gain, jakina. Hauskortasuna, berriz, euskarazko kultur garapenik —B ibilbidea— ez erdiesteari zor zitzaion: kultur edukiak erdaraz hartu behar izaten zituzten halabeharrez eta, ondorioz, euskara osatuaren ereduarena egingo zuen, komunitatearen balore eta sinboloak irudikatuko zituen eta sistema osoari sustengua emango zion AB gune sinbolikorik gabe gelditzen ziren. Gainera, aldamenean eta berarekiko lehian erakarpen indar handiko erdal hizkuntz komunitatea zuen.

Azkenik, euskararen jarraipena, edo hizkuntz komunitatearen ugalketa, familiako lan pedagogikoak —eta, oro har, lehen mailako sozializazio agenteenak— bermatzen zuen: gurasoek goian azaldutako portaerarauden eta baloreen multzo edo habitusa irakasten zieten beren seme-alabei eta ez zituzten seme-alabak hizkuntza aldatzera bideratzen.

Bi hitzetan laburbilduta, euskarak iraun du azpian gizarte edo komunitate egituratu bat izan duelako; bertan euskalduntasuna balore bat zen, prestigioa zuen, eta, oro har, hizkuntz portaera euskalduna —non erdara bigarren hizkuntza zen— garatzen eta transmititzen zuten.

### *Euskaldunak eta erdaldunen mundua*

Harreman estu eta ugariak izaten zituzten uitziarrek erdal munduarekin. Alderantziz hartuta, esan dezakegu gizarte erdaldunak, erdal hizkuntz komunitateak, bide desberdinak baliatuz izugarritzko presioa eragiten zuela euskaldunen gainean. Haren azterketa orokorra hurrengo kapituluaren gaia da, baina bere hari nagusiak Uitzin bertan aurkitzen ditugu:

-Jarrerak, usteak edo baloreak: erdararen behararen aldarrikapena, jakintza gaztelaniarekin eta ezjakintasuna euskararekin berdintzea, euskararen gutxiespen orokorra, isekak eta mesprezuak...

-Ezarpena: hezkuntza sistema, soldadutza, administrazioa —herriko ahozko aldeak izan ezik—, erdaldunen elebakartasuna...

-Indarra, zigorrak eta bildurra: eskolan, soldadutzan...

-Gizarte erdaldunaren eta bere erakundeen eragin eta pisu orokorra: Irurtzun igaro eta erdararekin egiten zuten topo; azokak, tratulariak...

-Elizaren zereginaren bikoiztasun eta konplexutasuna.

Gai zerrenda bat besterik ez da, baina ederki erakusten du, herri euskaldun batetik ikusita, nolakoa eta norainokoa zen Nafarroako erdaldu-  
nek euskaldunengan egiten zuten presioa.

### *Euskal hizkuntz komunitatearen hauskortasuna eta euskararen atzerakada*

Uitziko ikerketak, euskararen iraupena ezezik, bere atzerakadaren aztarnak ere erakusten dizkigu. Izan ere, Nafarroako hainbat herriren erdalduntzea euskal hizkuntz komunitateak, sendotasunarekin batera, zuen barne ahultasun edo hauskortasun nabariarekin lotuta dago. Arazoa badakigu zein den: euskarak itxita aurkitzen zuen kultur garapenaren bidea —B bidea— eta horrela ez zegoen AB euskaldun osaturik sortzerik. Ia gune sinbolikorik gabeko egitura zen euskal hizkuntz komunitatearena, erdigunea hutsik zuen eta egiturari eusteko zeregina A euskaldun ikasigabeen multzoaren esku gelditzen zen. Euskaratik eskaintzen zitzaien kultur eredu bakarra apaizena zen, eta maisu batzue-  
na: jaiotzez euskaldunak eta gaztelaniaz ikasiak. Gainerako ereduak erdaldun hutsak ziren, jakina: gainerako maisuak eta mojak.

Bestalde, uitziarrek ez zuten euskararen aldeko ideologia garaturik —B motibaziorik— eta horrek ere areagotu egiten zuen hizkuntz komu-  
nitatearen hauskortasuna. Euskararekiko atxikimendu handia zuten, euskaldunak ziren eta euren burua onesten zuten, baina garbi dago horrelako egoeran, gaztelaniaren indarra hain handia izaki, eta babes ideologikorik ezean, oso erraz gerta zitekeela euskalduntasunaren balo-  
reei muzin egin eta erdararen aldeko apustua egitea, doi-doi eusten zion sistema euskalduna hautsiz. Hala ere, gogoan izan behar dugu norabide bat zein bestea hartzea hitzunen hautaketa edo erabakia izan dela beti: hizkuntz portaerak aldatzen dira hitzunek baloreak aldatu dituztelako, izan nahia, erreferentziako taldea, erdaldunen taldean kokatzea igaro direlako.

Atzerakadaren muinean hitzunen autogorrotoa dagoela esan da gaiari buruzko azterketa gehienetan, eta autogorrotoa norberaren burua onestean kontrakoa da, hain zuzen ere.

Euskararen atzerakadaren azalpenaren ardatza hor kokatzen dut, beraz, eta ardatz horren inguruan antolatuko lirateke erdalduntze bila-  
kaeran eragina izan duten gainerako faktore guztiak: historiografiaren



miaketan aurkitu genituenak (2. kapitulua), iraupen luzeko gaien azterketan (3. kapitulua) aurkeztutakoak eta hurrengo kapituluan (7. kapitulua) erdaldunen euskararekiko jarrera eta portaeren azterketan gehituko direnak.

## 7. ERDAL HIZKUNTZ KOMUNITATEA ETA EUSKARA

Erdal hizkuntz komunitatea diodanean mundu oso bat dut gogoan, eta bertan hiru multzo behintzat sartzen dira: Nafarroako erdaldunen talde orokorra; Nafarroako eliteak nahiz erakunde nagusiak, erdal munduak eraturikoak diren aldetik: Diputazioa, udalak, irakaskuntza, Eliza...; eta, hirugarrenik, Nafarroan eragina izan duten kanpoko beste hainbat lagun edota erakunde: Estatu espainola eta bere administrazioa, nazioarteko nahiz Espainiako elite eta intelektualak, eta abar.

Sailkatze mota honek begi-bistako ezaugarri bat du normalki egin diren azterketekin alderatuta: horietan atal nagusi gisa eta berezko izaeraz agertu ohi diren gaiak —Diputazioa, Gobernua, Eliza, legedia, intelektualak, etab.— erdal komunitatearen ikuspegiaren aztertzeko dira hemen, denek komun duten sakoneko lotura argitu eta agertzeko asmoz. Zeren, azken finean, euskararen bilakaeran eragina izan duena ez baita erakunde bat edo beste izan, erdal mundua bere osotasunean baizik.

Kapitulua antolaketa hau da:

7.1 Erdaldunen besteekiko harremani buruzko ikuspegia

7.2 Erdal munduaren kezka nagusiak

7.3 Erdal munduaren euskarari buruzko diskurtsoak

7.4 Hezkuntza sistema eta euskara

7.5 Erdaldunak eta euskara: ondorioak.

Ulertuko denez, ez diet denei arreta berdina eskaini eta, gainera, aurrenekoa, beste funtsa ematen diena, aztertu samarra gelditu da hirugarren kapituluan.

Iturriak, bestalde, idatziak izan dira: garaiko prentsa eta argitalpenak, legedia —Nafarroakoa eta espainiar Estatukoa—, artxiiboak eta beste ikertzaile batzuen emaitzak batik bat.

### 7.1 Erdaldunen besteekiko harremani buruzko ikuskera

Erdaldunen euskararekiko portaera ulertze lanean hauxe dut abiapuntua: erdaldunek euskaldunekin izaten zituzten harremanak euren ez zen hizkuntz komunitate batekiko harremanak ziren, kanpoko talde batekikoak, eta beren pentsaera nahiz portaerak errealitate horren emaitza ziren. Besteekiko jokamoldeak ziren, ez euren buruarekikoak, eta asi-

metria zen nagusi, ez baitzuten inolaz ere gauza bera egiten beren burua-  
rekin eta arrotz eta gutxiagotzat jotzen zituzten euskaldunekin, hitz  
bitan esanda.

1892. urtean elkarrizketa hau izan omen zuen George Bird Grinnell  
idazle amerikarrak Oin Beltzen tribuko Lasterkari Bikoitza indiarrare-  
kin:

—(...) si mi gente [dio Lasterkari Bikoitzak] poseyese ese conocimiento  
[irakurmena], los blancos no se aprovecharían siempre de nosotros.

—*Nisha* (hermano mayor), tus palabras son ciertas. Por lo tanto, deberías  
asegurarte de que tus descendientes vayan a la escuela para que adquieran  
el conocimiento del hombre blanco; si no, nunca poseerán nada. Los tiem-  
pos han cambiado. Jamás volverá a ser como cuando tœ y yo éramos jóve-  
nes.

—Dices la verdad, *Pi-nut-ú-ye is-tsim-okan*, mis ojos han visto aquellos días  
y sé que así es. Los viejos asuntos están llegando a su fin, y los hijos de mis  
hijos serán como los blancos. Ninguno de ellos sabrá cómo se vivía en los  
días de sus padres, a menos que lean las cosas que te hemos contado y que  
estás escribiendo en tus libros constantemente.

(Grinnell 1990: 7)

Pasartea zuriak idatzi zuen eta, arretaz irakurrita, besteekiko harreman-  
nak nola irudikatzen zituen ederki erakusten digu bere xalotasunean:  
gutziz bidezkoa iruditzen zitzaion bere kultur ereduak bertako biztanleei  
zabaltzea. Izan ere, indiarrei eskaintzen zien bide bakarra kultur talde gisa  
hilik zeudela onartu, izan zirenaren lekukotasun idatziak utzi —filologo  
eta antropologo lehengai moduan—, zurien nagusitasuna aitortu eta,  
hezkontzaren bidez, hauen kulturaren onurak baliatu eta bertan murgil-  
tzea baitzen. Egiazko elkarrizketa bat baino gehiago zuriaren ametsa ematen  
du, eta, ametsa borobiltzeko, indiarraren adostasuna dugu.

Zurien eta indiarren tokian erdaldunak eta euskaldunak irakurriz  
gero, indar eta egiantz gutzia gordeko luke goiko pasarteak, aktoreen  
arteko egiturazko harremanak berdintsuak ziren-eta egoera batean zein  
bestean, eta hauxe da, hain zuzen ere, azpimarratu nahi duena.

Erdaldunen ikuspegiaren osagai gehienak aztertuak ditugu dagoene-  
ko aurreko kapituluetan —3. kapitulu bat— eta, horregatik, haiek gogora  
ekartzea besterik ez dut egingo oraingoa:

(a) Sakoneko mentalitatearen iturri nagusietako bat Mendebaldeko  
kultura itxuratu duen *indoeuroparren hiru funtzioen ideologia* dugu (3.3  
atala). Gizartea hiru multzo edo funtzio hierarkizatutan sailkatzen dute.  
Lehenengo bi funtzioak —botere politiko eta erlijioso eta indarra—  
elkartuta doaz eta hierarkiako hirugarren funtzioari —herri xeheari  
nahiz kanpotarrei— nagusitzen zaizkio. Nagusitzeko eskubidea dute,  
gainera. Indoeuroparren ideologiaren beste atal garrantzitsu bat *gizarte-*

*aren sorrera- eta eraikuntza-eredua* (3.3 atala) dugu, zeinaren arabera kanpotik etorritako konkistatzaileek —jainkotiarrak, zibilizatuak: lehen eta bigarren funtzioetakoak— bertako biztanleak —basatiak, suge edota herensugeekin berdinduak<sup>204</sup>, deabruaren kideak: hirugarren funtzioak— menderatu eta egiazko gizartea eratzeari ekiten baitiote.

(b) Horri lotuta, *hedakortasuna* dugu, hau da, norberaren gizarte-ereduak besteei hedatu eta ezartzeko nahia. “Hoy por hoy, pues, cada nación tiene que pensar en sí misma ante todo; hoy cada nación debe pensar en fortificarse contra las demás; hoy cada nación debe de pensar en superar a las otras, sin rendir tributo a ningún otro género de consideraciones” aldarrikatu zuen Canovas del Castillok (1944: 46) eta berdin errepikatu zuen Unamunok 1901. urtean (1968: 244): “Si no queréis ser invadidos, invadid; si no queréis que se os absorba, absorbed”. Funtsean, hori bera izan da estatu gisa antolatutako gizarteen jokamoldea: “La trayectoria de las sociedades de nivel estatal se ha caracterizado por una continua expansión a costa de las tierras y libertades de los pueblos preestatales. (...) la difusión del Estado ha dado por resultado ya la aniquilación, ya la distorsión total del estilo de vida de miles de pueblos”, Marvin Harris-ek (1993: 360) esan duenez.

Hedakortasuna, orobat, kulturen arteko diferentziari haietako baten pentsamoldean nagusitasun sentimendua eta hierarkizazioaren baieztapena batzen direnean gauzatzen da, Levi Straussek (1993: 114) erakutsi bezala.

Nafarroako erdal komunitatea estatuan antolatutako talde horietakoa zen, noski, 3.5 talean ikusi bezala: Nafarroako erresuma, geroagoko erregeordetza eta, azkenik, Espainiako Estatuari loturiko Foru Diputazioa.

(c) *Estatu modernoaren hizkuntz politika*, Frantziako Iraultzak hobekien adierazi zuena (ikus 3.4 atala). Horren arabera, Estatu espainola (Nafarroa barne), aurrerapena eta gaztelania lotuta agertzen ziren.

(d) *Industri gizartearen nagusitasun sentimendua*. XIX. eta XX. mendeetako mentalitate sozialaren ezaugarri nagusietako bat gizarte tradizionalarekiko nagusitasun sentimendu itzela da (Rocher 1990: 295). Argiaren, zientziaren eta egiaren monopolioa dutela uste dute eta, aldi berean, mesprezuz eta atzeratuzat joaz begiratzen diete baserritar jendei.

(e) Gizarte modernoko *personen autonomia gero eta handiagoa* dugu azkeneko ezaugarria, molde nagusietatik desbideratzeko ahalmena, ale-

---

204. Mircea Eliadek (1982: 45, oin-oharra) dioenez: “serpientes y dragones son en casi todas partes identificados con los «señores del lugar», con los «autóctonos», contra quienes habían de luchar los recién llegados, los «conquistadores», los que deben «formar» (es decir, «crear») los territorios ocupados”.

gia. Haren bidez azaltzen da zenbait erdaldunen euskaltzaletasuna, erdaldunen euskaldunekiko portaerak zertan izan ziren bere osotasunan azaldu nahi izanez gero, aipatu beharrekoa. Erdal komunitatearen joera orokorrekin bat ez zetozen eta euskaldunekin elkartu eta euskararen alde jokatu zuten lagun berezi haiek gutxiengo bat ziren, baina oso zeregin garrantzitsua bete zuten Nafarroako euskararen historian<sup>205</sup>. Beren azterketa 8. kapituluan egingo da.

### *Nafarroako erdal komunitatea*

Nafarroara etorrira, nola ikusten zuen egoera erdal komunitateak? Galdera honi erantzuteak eskematismoaren arriskua duela onartuta eta kapitulu osoan garatuko dena laburbilduz, esan daiteke erdaldunen ikuspuntutik beraiek zirela gizartea, administrazioa, estatu-aparatu guztia eta beraiei zegokiela lurralde osoa. Oraina erdaldunena zen eta geroa ere beren eskuetatik etorriko zen. Euskaldunen berri bazekiten Nafarroako erdaldunek, baina euskal kultura geografikoa bazter eremu batean zegoen eta nafar gizartean zeregin edo lekurik ez zuen zerbait zen erdaldunentzat: Mendialdeko baseritarrek oraindik hitz egiten zuten, baina beheeraka zihoan iraganeko hizkuntza bitxia. Erdaldunek nafar euskaldunentzat irudika zezaketen etorkizun bakarra erdal kulturaren bidezkoa zen.

Esandakoa dugu, lau hitzetan, orduko erdaldunen euskaldunekiko ikuskeraren mamia. Kontua da Nafarroako aginte- eta administrazio-gune guztiak erdaldunenak zirela eta agertu dugun ikuspegitik zihardutela: Diputazioa, hezkuntza, armada, gizarte-zerbitzuak, ideologiaren gune sortzaileak, komunikabideak, eta abar, era honetan nafar gizarte osoa baldintzatuz.

Zehazkiago mintzatuz, erdaldunen euskararekiko portaera eta jarretan —mentalitate orokorraren eta bere adierazpen ideologikoen azterketa zehatzagorako, ikus 7.3 atala— honako lau molde hauek aurkitzen ditugu:

(1) Jarrera nagusia *axolagabekeria* zen zalantzarik gabe. Erdaldunek ikusten zuten hizkuntza bakarra euren hizkuntza zen, gaztelania. Euskara ikustezina zen erdaldunentzat, existitzen ez zen zerbait balitz bezala, edo, gehienez jota, guztiz muntarik gabekoa, eta ez zioten inolako ezagutzarik aitortzen, erdararen bidezko gizartea egituratzen eta garatzen segitzen zuten bitartean. Honek zerikusia du “isiltasunaren diskurtsoa” deitu dudanarekin (7.3.3.3 atala). Horrelako jarrerak eza-gunak dira hizkuntzen azterketa konparatiboetan eta ikertzaileak bat

---

205. Historiaz ari gara, jakina, gaur egun askoz gehiago baitira euskararen aldeko jarrera duten eta urratsak egiten dituzten erdaldunak (ikus Ramos 1995; Vilches eta Cosin 1995).

etorri ohi dira horiek, funtsean, hizkuntza nagusien aldeko azpi-politikak direla adieraztean: “the reality was quite clear: absence of legal regulation meant that local elites, whenever feasible, almost exclusively used the socially dominant language” (Vilfan [arg.] 1993: 307). Mitxelenak hizkuntz liberalismo deitu zion honi —“*laisser faire, laisser passer* en materia de lengua” (1985: 187)—, bere eraginkortasun handia azpimarratuz: “esta política, como el liberalismo económico, es una manera tan eficaz como cualquier otra —más eficaz en realidad, puesto que supone omisión, no una acción con cuya responsabilidad alguien tiene que cargar— de favorecer a unas lenguas y de postergar a otras” (ibid.: 187).

(2) Hala ere, euskararen eztabaida irekita zegoen orduko nafar gizartean eta, ondorioz, *euskarari toki bat* egiten zioten eliteek diskurtsoan (7.3.3.3 atala), edota neurriren bat onartzeko prest agertu. Berez, oso gutxitan aipatzen zuten euskararen gaia, beheiago ikusiko denez, baina ateratzen zenean alde agertzen ziren jendaurreko adierazpenetan.

(3) Beste molde bat euskararen aurkako *lehia edota etsaigoa* dugu. Oso-oso gutxitan agertzen zen nafar erdaldunen jendaurreko adierazpenetan. Apur bat gehiago, ordea, baina hor ere urri samarrak, Madrilen edota Espainia mailako idazkietan. Hor argiago agertzen zen lehia, batik bat XVIII. mendetik aurrera gaztelaniaren erabilera bermatzera zuzendutako xedapenetan. Gaztelania lehia bizian zegoen Nafarroan euskararekin, horri buruz ez dago dudarik, baina lehia goiko (1) eta (2) ataleta-ko formen pean agertzen zen batez ere.

(4) Gutxiengo baten *euskaltzaletasuna*, arestian aipatutakoa.

Oro har, erdaldunen euskaldunekiko sakoneko ikusmoldea laburbil-  
duz, arduragabekeriak gainera, hierarkizazioa eta erdal kulturaren nagusitasun sentimendua ziren nagusi, eta hor zuten iturburua ondorengo ataletan aztertuko ditudan portaera eta jarrera gehienek.

## 7.2 Erdal munduaren kezka eta euskara

Euskararen auzia ez zen ia XX. mendera arte erdaldunen kezketan egon eta horren arrazoia oso sinplea dugu: Nafarroako, eta Estatu espainol osoko, hizkuntza ofiziala *de facto* gaztelania zen eta inork ez zuen XIX. mendeko azken hamarkadak arte egoera hori eztabaidatzen<sup>206</sup>: “De hecho, el castellano se considera oficial, según un consenso que puede estimarse unánime, antes del establecimiento [ofizialtasunarena, 1931ko Konstituzioan]”, dio Gonzalez Ollek (1978: 230, 2. oin-oharra). Lasai

206. Miquel Siguanen hitzetan, “ninguno de los grupos ideológicos que pretenden influir en la vida política española hasta el último tercio del siglo XIX considera que la diversidad lingüística constituya un problema que merezca ser planteado” (1992: 31).

bizi ziren erdaldunak beren hizkuntzan eta ardurak bestelako gaietan zituzten. 1860ko hamarkadaz geroztik hasi ziren euskararen arazoarekin apurka-apurka topo egiten, talde euskaltzaleen aldarrikapen eta eskakizunengatik gehienbat, II. Errepublikan, gaztelaniaren eta gainontzeko hizkuntzen ofizialtasuna zela-eta, eztabaida guztiz zabaldu arte. Orduan, behin auzia piztu eta gero, erdaldunen ardura gaztelaniaren nagusitasuna bermatzea izatera igaro zen (ibid.: 279).

Erdaldunen kezka, esan bezala, hizkuntzaz kanpoko gaietara zuzentzen ziren eta haien azterketak, nonbait, Nafarroako eta Espainiako XIX. mendeko historiaren arazo orokorren aurrean kokatu-ko gintuzke. Guztiek izan zuten eragina euskararen bilakaeran, baina haietatik lau nabarmentzen dira: Estatu espainolaren berriztapena, Foruen eztabaida, nabarrismo politikoa eta, azkenik, irakaskuntza. Irakaskuntzaz 7.4 atalean mintzatuko naizenez, oraingoan lehenengo hirurei buruz jardungo dut.

### 7.2.1 Estatu espainolaren itxuraldatzea

Estatu espainolaren itxuraldatzea, hau da, Errejimen zaharretik Estatu liberala finkatzera eraman zuen prozesua, bi printzipiotan oinarritu zen (Jover Zamora 1991: 97): Estatu espainolaren batasuna eta administrazio aparatu zentralizatzailea, bietan sistema frantsesa eruduztat hartuta. Administrazio aparatu berrituak hiru zutabe nagusi zituen: Administrazio zentrala, Probintzia eta Udala (ibid.: 113), eta bere ezarpenean zeregin nabarmena izan zuen lurraldea 49 probintzian antolatu zuen 1833ko azaroaren 30eko Errege-Dekretuak (ibid.: 109).

Batasunaren kezka, baina, lehenagotik zetorren Estatu espainolean, orduko politikariek ere ederki zekitenez (Canovas del Castillo 1873: XXX). Olivares-en egitasmo espainoltzailea, esate baterako, XVII. mendekoa dugu eta, hamarkada batzuk beranduago, gardentasun osoz adierazita dago asmo bera Aragoiko koroako herrien erakundeak suntsitu zituzten 1707-1716ko Planta Berriko dekretuetan: “reducir todos mis Reynos de España a la uniformidad de unas mismas leyes, usos, costumbre y Tribunales, gobernándose todos igualmente por las leyes de Castilla, tan loables y plausibles en todo el universo” (1707ko ekainaren 29ko Errege-Dekretua. Jasoa in Petschen 1990: 117). Eta administrazio batasunak *gaztelaniaren ezarpena* ekarri zuen Aragoiko koroan: “Las causas en la Real Audiencia se substanciarán en lengua castellana” (1716ko urtarrilaren 16ko Errege-Dekretua. Jasoa in ibid.: 118). XVIII. mendean zehar gorpuztuz joan ziren joera berdintzaleek (Mina 1981: 35) gorakada bat izan zuten mendearen azken hamarkadetan eta berriro indarberriturik aurkituko ditugu XIX. mendearen bigarren zatian, II. gerra karlistaren ondoko giroan batez ere.

Era berean, espainiar konstituzionalismoak bi eztabaida nagusi izan du XIX eta XX. mendeetan zehar (De Esteban 1990: 11)<sup>207</sup>: zentralismoa/herrien ezagutza, eta Monarkiaren izaera —Monarkia tradizionala/Monarkia nazionala—. Monarkiarena alde batera utzita, Penintsulako herrien ezezagutza konstante bat izan da Espainiako konstituzioetan, I. eta II. errepubliketakoetan izan ezik: “el golpe mortal a la realidad regional diferenciada ocurrirá paradójicamente con la adopción del constitucionalismo” (ibid.: 14). Horrela gertatu zen 1812-1873 bitarteko konstituzioetan eta berdin 1876tik 1923ra arte indarrean egon zen Berrezarkuntzako Konstituzioan ere (ibid.: 15).

Hiru osagai zituen funtsean Espainian nagusitu zen pentsamolde liberal-kontserbadoreak: Espainiaren independentzia —Napoleonen aurkako gerra—, askatasuna —karlisten aurkako gerrak— eta batasuna —jakobinoen erdirakoitasuna gehi Gaztelako eredia— (Jover Zamora 1991: 145).

*Hizkuntzari dagokionez*, gaztelaniaren ofizialtasuna 1931ko Konstituzioan aldarrikatu zen aurreneko aldiz —“Art. 4º. El castellano es el idioma oficial de la República”—, baina aitorten berantiar horrek ez du esan nahi ordura arte gainerako hizkuntzekiko eskuzabaltasun handiagoaz jokatu zutenik. Alderantziz. Gaztelania ez bazuten aipatzen gogoan beste hizkuntzarik ez zutelako izaten zen, denek jakintzat ematen zutelako espainiarren hizkuntza gaztelania zela, 1812ko Konstituzioan bezala, adibidez: “Art. 1. La Nación española es la reunión de todos los españoles de ambos hemisferios. (...) Art. 5. Son españoles: Primero. Todos los hombres libres nacidos y avecindados en los dominios de las Españas, y los hijos de éstos”. Berdin 1876ko Konstituzioan: “Art. 1º. Son españoles: 1º. Las personas nacidas en territorio español”. Hizkuntza ez zuten aipatzen, baina badaezpada ere, zalantzarik bagenu, erresuma guztiko haurren jatorrizko hizkuntzat gaztelania jotzen zela gogorazia zigun 1780ko azaroaren 22ko Errege-Zedulak: “se le considera *lengua nativa* de los niños de todo el Reino” (Gonzalez Olle 1978: 237).

Bestalde, aise uler dezakegunez, horrelako portaerak ez ziren itsu-itsuan gertatzen, eredu desberdinen arteko hautaketaren ondorioz baizik, federalismoaren printzipioa eta estatu barruko herrien hizkuntzen aitortpena orduko ezagunak baitziren Europan<sup>208</sup>. Adibidez, Austriar inperioko 1867ko abenduaren 21eko Lege Nagusia dugu, hiritarren eskubide orokorreari buruzkoa:

207. Besterik adierazi ezean, konstituzioen aipamenak argitalpen honetatik egingo ditut.

208. Estatuaren barne antolakuntzarena Europa osoan egin zen eztabaida izan zen eta Frantziak emandako erantzuna ez zen bakarra (Jover 1991: 126).



Art. 19. Todas las razas de los pueblos del Estado poseen iguales derechos y tienen el de conservar y cultivar su nacionalidad y su respectivo idioma. El Estado reconoce el derecho de usar, en la enseñanza y los negocios públicos, todos los idiomas que se hablan dentro del Imperio.

En los países donde haya muchas razas, se organizarán las escuelas públicas de modo que cada una tenga a su disposición los medios necesarios para la enseñanza de su respectivo idioma, sin que pueda emplearse ninguna medida coercitiva para que aprendan otro.

(jasoa in Pi y Margall 1936: 345-6)

Gainera, ezagunak dira, konstituzioetan islatu ez baziren ere, lege-maila apalago batean XVIII., XIX. eta XX. mendeetan gaztelaniaren alde eta bestelako hizkuntzak erabiltzea esparru jakin zenbaitetan —argitalpenetan, antzerkian, eskolan...— debekatuz eman ziren agindu, dekretu eta gainontzeko neurriak (Gorostidi 1883 eta 1902-3, Euskaltzaindia 1977, Gonzalez Olle 1978, Intxausti 1990a, Petschen 1990, Zalbide 1990, Urmeneta 1997, eta abar).

### 7.2.2 Foruen eztabaida

Foruen eztabaida orainaldiko historiako nafarren arduren erdi-erdian egon da eta zerikusia du mota askotako arazoekin. Auzia izendatzeko beste modu bat hauxe izan liteke: Nafarroaren leku edo zeregina Estatu espainol modernoan. Sakonean estatu zentralistaren garapenaren auziarekin lotzen da, iturburua hor du-eta, eta, alde horretatik, ondorio ukaezinak ditu euskararen bilakaeran. Hala eta guztiz ere, gauza bat dira Foruak —erakunde jakin batzuk, azken finean, eta, aldi berean, nortasun kolektiboaren adierazle sinbolikoa— eta beste bat euskara, eta, zenbaitetan azpiulertu denaren aurka, Foruen kezka zuten nafar gehienek ez zuten euskararekiko ardura bera erakutsi. Foruen aldarrikapena eta euskararen defentsa ez ziren Nafarroan loturik joan.

*Foruen eztabaida Madrildik.* Interes mota desberdinak zituzten gobernuek Foruen eztabaidaren atzetik: estatuaren barruti osorako administrazio sistema bera eta batasunaren printzipioa, jadanik aipatuak; Errejimen Zaharreko erakundeak —“pribilejio” eta “partikularismoak”— deuseztatzea; eta interes materialak: aduanen kokapena, soldaduzka eta Foru probintziek Estatuari ordaindu beharreko diruak<sup>209</sup>. Foruak kentzeko asmoak nabariak ziren XVIII. mendearen amaierako

---

209. Estatuari egin beharreko ordainketak Espainiako agintarien kezka zaharra zirela Karlos I.ak mandazain nafar batekin izan omen zuen elkarrizketak erakusten du:

(...) encontrando en el camino a un arriero de Navarra, le preguntó: “¿Mandazaia nondic zatoz?” y respondió, “Nafarroatic”, y luego le preguntó más “¿Nafarroan

urteetan, Francisco de Zamora errege-komisarioaren eta Manuel Godoy lehen ministroaren arteko 1795eko gutunek erakusten dutenez (Canovas 1873: XLIII).

Geroztik, gorabeherak izan zituen Foruen eztabaidak, baina ez zen inoiz itzali eta ia mende bat beranduago, 1870eko hamarraldian, I. eta II. gerra karlistak eta 1839-1841eko Nafarroako Foruen eraldaketa tar-teko, berriro pil-pilean jarri zen. Canovasen iritziz, adibidez, 1873.ean, II. gerra karlistaren erdian, Foruak Espainiako gainontzeko lurraldeen kalterako pribilegioak ziren (ibid.: XI); eta, gerrak aurrera segituz gero, indarrez deuseztatzeko mehatxua egin zuen (ibid.: LIV). Mehatxuak 1876ko martxoan beteko ziren, jakina denez, babesa, besteak beste, Alfonso XII.ak 1876-03-13an Somorrostron armada liberaleko solda- duei zuzendu zizkien hitzetan aurkituz: “fundada por vuestro heroísmo la unidad constitucional de España, hasta las más remotas generaciones llegará el fruto y las bendiciones de vuestras victorias” (Alfonso XII. Jasoa in Jover Zamora 1991: 124, 44. oin-oharra). “Veo mucha preven- ción en la mayoría de las Cortes y en la opinión pública, contra los dichosos Fueros de esta provincia y las vascongadas”, zioen 1876ko martxoaren 13an Leandro Nagore (1964: 223) Iruñeko Notarioen Elkargoko idazkariak, eta arrazoï osoa zuen, oso gogorak izan baitziren Madrilgo Gorteen 1876-03-02ko bileran, II. gerra karlistaren amaiera ospatzeko bilduak, Foruen aurka entzun ziren hitzak, Sardoalgo marke- saren ahotan, adibidez (ibid.: 222)<sup>210</sup>.

*Nafarroako giro politikoa eta Foruen eztabaida.* Nafarroan, Foruen aldeko borroka ez zen orokorrean euskararekin lotuta joan. Bestelako gauzak zituzten nafar eliteek gogoan. Foruak nafar gizartearen barne antolakuntza eta Nafarroako erregeordetzaren eta Madrilgo gobernuaren arteko harremanak autogobernu maila altu batean oinarrituta arautzen zituen sistema<sup>211</sup> ziren funtsean. Nafarroa ofiziala, bere erakunde eta eli-

---

gari asco?”. Y respondió, “bai Jauna asco”; concluyó el Emperador diciendo: “*Nafarroan gari asco, batere batere ez neretaco*”.

(etzana nirea da) (Lope Martínez de Isasti. 1850. *Compendio historial de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa*. Donostia, 168. In Caro Baroja 1971-2, I: 102, 21. oin-oharra)

Gertaera beraren aldakia Damaso Intzak Ultzaman jaso zuen esaera dugu: “«Iruñen zer berri?» galdetu omen zuen errege Karlos V garrenak. Besteak erantzun: «Iruñen gari asko». Eta erregek berriz: «Gari asko, gari asko? Bat ere ez neretako»” (Intza 1974: 121).

210. Leandro Nagoreren lekukotasuna ontzat emanez orain arte uste izan denaren aurka, Sardoalgo markesak ez bide zuen hizkuntz batasunaren gaia erabili (Urmeneta 1997: 31, 13. oin-oharra). Garai hartako giroaz ikus, halaber, Caro Baroja (1971-2, III: 171-89).

211. Foruen sistemaren azalpen egokiak: Lacarra (1963) eta Mina (1981: 15-34).

teak eta lurraldearen zati handi bat, ezagutzen dugun moduan, gehienbat erdaldunak ziren Foruak osorik indarrean egon ziren bitartean, 1841.era arte, eta, beraz, eztabaida sortu zen guztietan nafarren ardura Foru erakunde eta eskumenei eustea izaten zen, ez auzitik kanpo gelditzen zitzaizen euskarari eustea.

Lan honetatik at dagoen Nafarroako Foruen arazo konplexuaren azterketan sartu gabe, ohar batzuk egingo ditut. Eztabaidaren azpian herri izaera berezia eta gobernu espainolen ahalegin berdintzaileen aurrean garatutako erresistentzia sentimenduak ditugu, gerra karlistak baino lehenagokoak. Canovasen ustez, hortik zetorren karlistek euskal herritarren artean aurkitzen zuten laguntza eta haien sakoneko sentimenduak era honetan laburbil zitezkeela esan zuen: “que viva el Rey que defiende á la religion, y que no quiere obedecer la ley de los que mandan en Madrid” (Canovas 1873: LV).

Dena dela, behin goikoa esan eta gero, argi utzi behar da klase politiko nafarren asmo eta helburuak askoz apalagoak izan zirela. Jokoa zutena Nafarroaren Espainiako Estatuan txertatzeko bide eta baldintzak ziren funtsean. Jadantik Independentzi gerrak “corroboró que el marco político donde se jugaban los intereses navarros era el de la Monarquía española; (...) el único patriotismo por el que se vibró fue español”, esan du Maria Cruz Minak (1981: 225-6), Arturo Campionen iritzia berretsiz: “La guerra de la Independencia fué gigantesca hoguera en cuyas llamas se fundieron y evaporaron muchos de los sentimientos y de las ideas particularistas. Ella convirtió en españoles «militantes» á los baskos y nabarros, lanzándolos á la corriente de la vida política española” (Campion 1976: 265)<sup>212</sup>. Batasunaren ideia, dena dela, Espainia osoan indartu zen Independentzi gerra zela-medio, Pierre Vilar-ek (1994: 48) argi erakutsi duenez.

Nafarroako eliteak Espainiako Monarkiaren barruko aldaketa liberalen alde agertu ziren (Mina 1981: 81) eta horren isla Foruen auzian erdibideko hautsi-mautsi bat bilatuz izan zituzten jarrerak ditugu. Klase politiko eta eliteen helburu nagusi eta ia bakarra Foruen eztabaida osoan Nafarroaren kudeaketa euren eskuetan utziko zuten formulak bermatzea izan zela esan daiteke. Handik etorri zen Espainiako Gorteen 1841eko abuztuaren 16ko legea<sup>213</sup>, zeinaren bidez Nafarroako Foruen eraldaketa onartu baitzen. Nafarroako mende eta erdiko bilakaera 1841eko forali-

212. Ikus, halaber, Campion (1976: 96).

213. Lege honen izaera oso eztabaidatua izan da historiografian. Lege Hitzartua (= *Ley Paccionada*) terminologia ofizialean eta historiografiaren zati handi batean (Lacarra 1963, Del Burgo 1968, Andres Gallego 1982, Nafarroako Gobernu 1982 eta Garcia de Cortazar eta Lorenzo Espinosa 1994, besteak beste), legea, onartu baino lehen, Nafarroaren eta Estatuaren artean adostua izan zela argudiatuz. Beste historialari batzuen iritziz (Artola 1973, Mina 1981, Huici et al. 1982 eta Jover Zamora 1991, besteak beste), ordea, Espainiako Gorteen lege soila izan zen.

tateak baldintzatuta gelditu zen eta bere sakoneko esanahia horrela laburtu du Maria Cruz Minak:

La nueva foralidad implícita en la ley de modificación de fueros de 1841 (...) proporcionó a la oligarquía navarra, que había controlado el proceso, un *aparato de control sobre la provincia* muy superior al que tuviera en el Antiguo Régimen, a la vez que ponía en sus manos el instrumento clave de la revolución burguesa, al convertir a la Diputación en árbitro de la desamortización. Pagar menos y controlar más, tal era la esencia de la nueva foralidad.

(etzana nirea da) (Mina 1981: 230)

Denborak aurrera egin zuen eta, Foruei dagokienez, azterketa berezia mereziko luketen gertaera edo gai franko ditugu: liberalen eta karlisten foruzaletasuna<sup>214</sup>, Gamazada, maisu-maistren izendapenaren auzia, eta abar, baina 1877-1923 bitarteko epean ere nafar oligarkiak eskuetan gorde zuen botere-tresna baliotsua dugu Foru Diputazioa, eta foruzale-tasuna, beren ahotan, beren helburuak erdiestearren erabili zuten bitarteko ideologiko gisa uler daiteke, Angel Garcia Sanz (1992: 326) historialariaren iritziz:

Como conclusión final puede decirse que las élites políticas navarras lucharon por todos los medios para hacerse con la hegemonía del poder provincial y que en sus manos los fueros de Navarra se convirtieron, en expresión de un diputado integrista, en los *fueros de la Diputación*, es decir de los diputados.

Diputatu askok karrera politikoa egin zuten eta, orduan, foru diputatuarena herriko alkate edo zinegotzia izatetik Gorteetako diputatu, gobernadore zibil edota Estatuko administrazioako goi kargua izateko bidean egiten zuten tarteko urratsa izaten zen. Alde horretatik, gainerako politikari espainiarren ibilbide bera eraman zuten Nafarroako foru diputatuak: “En definitiva, los diputados forales siguieron los mismos hitos generales del «cursus honorum» de los políticos de la Restauración” (ibid.: 323).

Espainia zuten gehienbat klase politiko eta elite nafarrek ikusmiran, eta horren erakusle alderdi politikoaren jarrera eta portaerak ditugu (ibid.: 32). Nafarroako berezitasunak bi ziren: karlisten eragin handia, eta

---

214. Foruzaletasuna jatorriz liberala da, ez karlista (Mina 1981), nahiz eta gero Foruen defentsa karlistei lotuta agertu. Praktikan, Nafarroako Foruen iraupena liberalen eskutik etorri zen: “habrá que matizar más en lo futuro al tratar de lo que significó el sector liberal navarro en punto al sostenimiento posterior de las leyes forales. Porque a todos les es forzoso reconocer que los defensores más efectivos de los fueros, en el momento de peligro máximo para ellos, fueron historiadores y juristas navarros ribereños: pero liberales y a veces de un liberalismo radical” (Caro Baroja 1971-2, III: 179). Ezagunenak Jose Alonso corellarra, Pablo Ilarregui lizarratarra eta Jose Yanguas y Miranda tuterarra ditugu. Zentzu berean ikus, Hegoalde osorako, Valverde (1996: IX-X).

alderdi abertzaleen presentzia —foruzaleak lehenik eta Eusko Alderdi Jeltzalea gero—, Hego Euskal Herriko gainerako probintzien antzera (ibid.: 32).

Dena dela, Nafarroako Diputazioko 1877-1923 bitarteko mapa politikoan gehiengoa *Turno*-ko alderdiek erdietsi zuten: Espainiako gobernuan txandaka egiten zuten alderdiak: Canovasen liberal-kontserbadoreak<sup>215</sup> eta Sagasta-ren liberalak. Karlistak soilik 1905-1916 bitarteko epean izan ziren nagusi.

	1877-1888	1890-1903	1905-1916	1917-1923	Guztira
Integristak	-	2	2	1	5
Karlistak	5	7	13	3	28
Independienteak	11	3	1	1	16
Kontserbadoreak	4	12	4	3	23
Liberalak	18	2	2	5	27
Errepublikarrak	2	-	-	-	2
Euskaroak	4	-	-	-	4
Nazionalistak	-	-	-	3	3
Guztira	44	26	22	16	108

Foru diputatuen banaketa alderdika (Iturria: Garcia Sanz 1992: 311)

Antzeko zerbait gertatu zen Espainiako Gorteetarako Nafarroan egin ziren hauteskundeetan. Nafarroak 112 diputatu igorri zituen Madrilera 1891-1923 epean. Hor ere nagusitasuna *Turno*-ko alderdiek lortu zuten, nahiz eta azpimarratzekoa izan “el elevado número de diputados *antiliberales* en relación con el resto de España” (Mina 1985: 114). Karlista eta integristak bakarrik 1901-1916 tartean nagusitu ziren, Diputaziorako hauteskundeetan bezala. Hauxe izan zen diputatuen banaketa: 46 kontserbadore, 41 karlista, 13 liberal, 7 integrista eta 5 euskal nazionalista (ibid.: 114). Guztiz kontserbadorea edo tradizionalista zen Nafarroa oro har, baina ez bereziki karlista.

215. Alderdi “liberal-kontserbadorea” edo alderdi “kontserbadorea”, bi hitzak sinonimoak dira garaiko bizitza politikoan: “partido «liberal conservador» —generalmente llamado Partido Conservador—” (Tuñón de Lara [zuz.] 1990: 306). XIX. mendeko bi korronte nagusiak —liberalismoa eta tradizionalismoa— gogoan hartuta, Canovas-en Alderdi Kontserbadorea liberalismoaren enborrean kokatzen da, Sagastaren Alderdi Liberala bezala.

Zehaztapenak badu muntarik: sari aipatzen da “liberalak eta karlistak euskararen aurrean” gaia, eta Canovasen kontserbadoreak liberalen sail orokorrean sartzen dira. Bestelakoa da “kontserbadurismoaz” orokorki hitz egitea.

Orain arte esandakoak gogoan hartuta, Nafarroako korrante aberzaleen —foruzaleak zein EAJko nazionalistak— arrakastarik eza argitzeko eman ohi den arrazoi mota bat ez zait oso egokia iruditzen. Normalki Nafarroan XIX. mendean industri iraultzarik gertatu ez izanari loturiko azalpenak aipatu izan dira (Elorza 1978: 25, Huici 1981: 649 edo Valverde 1996: XLVI, kasu). Azalpena, nire ustez, bestelakoa da. Industri iraultzarik gabe nahiz industri iraultzarekin, Nafarroako eliteek, eta beraiekin batera biztanle gehienak, nafartasuna baieztatu eta 1841eko Foruek herrialdea kudeatzeko ematen zizkieten eskumenetatik abiatu, baina Espainian<sup>216</sup> nahi zuten Nafarroa, ez Euskal Herriaren batasun politikoan, euskal herrialdeen arteko anaitasuna onartu arren. Madrilerara begira zeuden nafar eliteak eta Espainia mailako alderdien bitartez —karlismoa, liberalak, kontserbadoreak, integristak, errepublikazaleak, sozialistak...— jardun nahi zuten. Horregatik, esango nuke nik, ez diete inoiz Nafarroan babes handirik eman Madrilekiko loturak etetean oinarritzen ziren alderdi abertzaleei.

Euskararekiko ardurari dagokionez, Nafarroako giro politikoan guxtiengo txiki bat (% 6) izan ziren berezko ardura zutenak: euskaroak eta nazionalistak. Karlitek (% 26) ere euskararen defentsa zuten beren ideologian (Garmendia 1985), baina, ikusiko dugunez, beren izaera oso konplexua zen eta ez dut uste euskara nafar karlisten kezka nagusien artean zegoela esan daitekeenik. Nafar gizarteko gehiengo gainerako alderdiek zuten, hala ere, eta euskara oso urruti gelditzen zen beren egiazko kezketatik, ia denek aldeko aldarrikapenak egin arren.

### 7.2.3 Nabarrismo politikoa eta euskara

Nabarrismoa, zehazki hitz eginez, 1910eko hamarkadaren bigarren alditik aurrera euskal nazionalismoaren aurka gorpuztuz joan zen ideologia politiko jakin bat dugu. Bere eraketan protagonismo handia izan zuten *Diario de Navarra*-k<sup>217</sup> eta Raimundo Garcia “Garcilaso” (Madril, 1884-Iruñea, 1962) bere zuzendariak, Silvia Fernandez (1990) historialariak ongi aztertu zuen prozesuan. Hiru osagai ideologiko nagusi ditu:

216. Badira, halaber, azalpen moduan nafar eliteen Espainiarantzako joera jaso duten historialariak: Corcuera (1979: 131), Mina (1985: 121) eta Garcia Sanz (1992: 312), besteak beste.

217. Bi aro bereizi ditu Silvia Fernandezek (1990: 227) *Diario de Navarra*-ren bilakaeran: 1903-1917 eta 1917-1936. Haietan, “pasó de estar influido por las ideas fueristas, siendo crítico del centralismo y no entrando en conflicto con el nacionalismo vasco (1903-1917) a defender un «foralismo» (navarrismo), que se entiende no como una defensa del hecho diferencial navarro, sino como una «pieza del nacionalismo reaccionario español» que se afirma a partir de 1917 enfrentado visceralmente al nacionalismo vasco”.

Nafarroaren berezitasunaren baieztapena, Nafarroaren espainoltasunaren aldarrikapena eta ideologia klerikal-erreakzionarioa: “¡Por Dios, por España, por Navarra!” (*Diario de Navarra*, 1917-12-02). Politikoki euskal nazionalismoaren aurka borrokatu bazen ere, kultura mailan, ordea, Nafarroaren euskaltasuna onartzen zuen: “afirmar lo navarro frente al nacionalismo vasco, no a nivel cultural y étnico, pues Navarra siguen siendo parte de Euskalherria, sino frente a la opción política del nacionalismo vasco” (Fernandez 1990: 241). Nabarrismo politikoak ez zuen garai hartan euskararen aurkako diskurtso berezirik eratu, eta, aldi berean, euskararen aurkako jarrerak nabarrismo politikoa baino zaharragoak dira.

Egia da apurka-apurka, euskal nazionalismoaren aurkako borroka gero eta bortitzagoaren eta Nafarroaren espainoltasunaren aldarrikapenaren ondorioz, nabarristen ordura arteko kultur euskaltzaletasuna ere epelduz joango zela (ibid.: 260). Dena dela, euskal kulturaren aurkako jarrerak frankismora arte ez ziren finkatu: “en este período [frankismoan] «el tema vasco» en sus aspectos culturales, históricos, étnicos, etc. —que hasta este momento era aceptado por Garcilaso como parte fundamental de la personalidad de Navarra— será cuestionado y llegará a considerarse antinavarro” (ibid.: 258).

Euskararen aurkako, edo erdararen aldeko, jarreraren erantzunkizuna, beraz, ez zaio zuzenean nabarrismo politikoari egotzi behar, baina honen garapen eta finkatze prozesuan euskal kulturarekiko urruntasunaren isla aurkitzen dugula ukaezina da. Eta antzeko zerbait gertatzen da maila politikoan.

Bizitza paraleloak eramán dituzte Nafarroak eta Baskongadek. Bien arteko loturen aitortpena eta elkarrekin aritzeko joerak zaharrak eta oso ezagunak dira, eta ez dugu orain horietaz aritu behar. Baina sustrai sakonak ditu, halaber, alde bakoitzak bere kabuz jarduteko joerak ere, eta hor daude nabarrismoaren aurrekariak.

XIX. mendetik atera gabe, bide desberdinak hartu zituzten 1839-1841eko Foruei buruzko negoziaketetan, nafarrek batzorde negoziatzailetik atera eta beste bat eratzea erabaki baitzuten 1840ko ekainean: “echamos de ver que las intenciones de los vascongados son conservar en toda su integridad el sistema foral, aun a costa de hacer para ello algunos sacrificios pecuniarios, lo cual nos pone a una distancia enorme de ellos” (Nafarroako ordezkariak, 1840. Aipatua in Mina 1981: 215). Era berean, 1866. urtean Nafarroako Diputazioak gainerako diputazioei proposatu zien eta haiek formalki onartu zuten Euskal Unibertsitatearen egitasmoa (Orella 1977) ezerezean gelditu zen, besteak beste, probintzia bakoitzak bere aldetik jo nahiago izan zutelako.

Oso adierazgarriak izan ziren 1867ko gertakariak. Urte hartako San Fermin jaietan nekazaritza erakusketa bat antolatu zuen Diputazioak eta bertara Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputatu nagusiei gonbidatu zien.

Agur moduan lau probintziak batera elkartuta erakusten zituen eta behean “Laurak-Bat” lema zeraman irudi bat paratu zuten. Hura zela-eta eztabaida latza piztu zen Nafarroan. “Escudo y leyenda fueron apasionadamente discutidos; sonaron pocos aplausos y muchas censuras” dio Arturo Campionek (1912: LXV), eta kritiken artean nabariena sinadurarik gabe zabaldu zen *Laurac-Bat* foiletoa dugu. Ezaguna zen, baina, egilearen izena (ibid.: LXV): Cayo Escudero Marichalar (Corella, 1829-1900), senadore liberal-progresista izango zena (*GEN IV*: 375; Garcia Sanz 1992: 142 eta 1996: 612).

“Zer nahi dute hiru probintzietako diputatuek? Zertara etorri dira?” galdetu zuen Cayo Escudero, erantzun borobila gehituz: Nafarroak ez zuen ezertan gainerako lurraldeekin elkartu beharrik: “Nosotros no podemos bajo ningoen concepto unir nuestros fueros á los vascos: nosotros, teniendo historia propia, derecho propio, tratados propios con la Corona castellana, estamos en distinta posición que ellos” (Campion 1912: LXVI). Hura zen orduko iritzi nagusia, Campionen iritzi: “el Sr. Escudero, alegando de agravios, interpretaba la opinión dominante entonces” (ibid.: LXVII).

XIX. mendearen azken hamarkadetan gauzak baretu egin ziren eta Nafarroaren baieztapena, eta bere espainoltasunarena, ez ziren oraindik Euskal Herriari kontrajartzen zitzaion zerbait bezala ikusten. Horrela ulertzen da *Euskal-Erria* (XLI, 1899, 63, 1. oin-oharra) aldizkariak nabarrismoaren gai guztiak biltzen zituen “Navarra siempre *pa alante*” jota hain sutsuki txalotu izana. Jota Joaquin Larregla musikagile nafarrak egin zuen eta Iruñeko Orfeoia abestu zuen aurreneko aldiz 1899.eko San Fermin jaietan. Hona hemen, bere literatur-balioen eta esanahi psikologiko-etnografikoaren azterketa alde batera utzita, jotaren ahapaldirik adierazgarrienak:

Nabarra lleva en su seno  
la sangre de España entera;  
y el que no lo sepa bien,  
venga á verlo cuando quiera.  
De Nabarra salió  
de Nabarra saldrá  
el coraje y la gente  
que amenaza y que dá.  
Nabarricos nacimos,  
nabarricos de ley,  
y en el cuerpo tenemos  
los nabarros un rey.  
(...)  
¡Cante Nabarra sin miedo!  
¡Cante Pamplona y más cante!  
¡Si se hundé el mundo, que se hunda!  
Nabarra siempre *pa alante!*



(...)  
A la jota, y que viva  
de Nabarra el tesón,  
y adelante, nabarros,  
y á tener corazón!

(Siempre *pa alante*. Ibid., 63-4)

“Navarra siempre *pa alante*” erdal komunitatearen ikuspuntutik irudikatutako nabarrismoaren adierazpena dela esan dezakegu. Bertan, guri ardura zaigunaren aldetik, Nafarroa, Espainia eta gaztelania osagaiak azpimarratzen dira. Nafartzaletasuna, nabarrismoa, euskaldunen artean ere sustraitutako sentimendua zela erakutsi da lehenago, baina a zer diferentzia goiko jotaren eta 6.5 atalean *La Voz de Leiza*-tik jaso dudana “Para mi mujer navarra” poemaren artean!

Nafarroaren eta Euskal Herriaren arteko kontrajarpena berriro 1914. urtean aurkituko dugu. Urte hartan, EAJk Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroaren artean euskal mankomunitate bat eratzekeo deia egin zuenean, Cayo Escuderoena bezalako erantzuna eman zion *Joshe Miguel* astekari karlistak, arrazaz eta hizkuntzaz anai-arrebak izan arren, politikoki guztiz desberdinak zirela argudiatuz (Navarra y las mancomunidades. La del Ebro, no: la vasca, tampoco. *Joshe Miguel*, 1914-02-01. Aipatua in Garcia Sanz 1994: 162-3).

Nabarrismoaren arrazoibideak, bada, giroan zeuden, eta gelditzen zena ideologikoki egituratu eta bideragarritasun politikoa zuen egitasmo batean gorpuztea zen. Hura izan zen, hain zuzen ere, *Diario de Navarra*-ren eginkizuna 1920-30eko hamarkadetan. Nabarrismoaren garaipen nagusia 1932ko Autonomi Estatututik, “Fueros, sí; Estatuto, no” lelopean eta azpijoko eta iruzur ugari eginez (Huici et al. 1982: 176), Nafarroa kanpo gelditu izana izan zen. Bai 1932koan bai 1936. urtean euskal estatutuari Nafarroako estatutu bakarra kontrajarri zioten.

### 7.3 Erdal komunitatearen euskarari buruzko diskurtsoak

#### 7.3.1 Diskurtsoen azterketa

*Diskurtsoa* maiz erabiltzen den eta oso gutxitan definitzen den hitz horietakoa da. Kontzeptuaren eztabaidan sartu gabe<sup>218</sup>, nik neuk hona-

---

218. Diskurtsoaren azterketaren arazo orokorretarako ikus Van Dijk (1995), testuaren gramatikatik hasi eta semantika, estilistika, pragmatika, soziolinguistika, gizar-te-psikologia eta soziologiarainoko ikuspegiak biltzen dituena. Halaber, Greimas eta Courtes (1982-91), semiotikaren ikuspegi orokorretik. Diskurtsoen azterketaren gauzatzea: Fairclough (1989) eta Williams (1996), esate baterako.

ko esanahi honetan erabiliko dut: *ideologia, uste edota mentalitatearen adierazpena*. Kasu honetan, erdal hizkuntz komunitateak euskarari buruz adierazi zituen ideologia, uste edota mentalitateak aztertuko dira. Definizioak, beraz, bi zati ditu: (1) ideologia, uste edota mentalitateak, eta (2) adieraziak izatea.

(1) Ideologia, uste edota mentalitateak diodanean, ikergaia *erdal munduaren pentsamolde orokorra* dela esan nahi dut, ez bakarrik ideologia egituratuak.

*Ideologia* zentzu hertsian<sup>219</sup> erabiltzen dut: pentsamendu garbi eta formalizatua. Hauxe da ideologiaren definizio osoa, Guy Rocher-en (1990: 128) hitzetan:

Un sistema de ideas y de juicios, explícito y generalmente estructurado, que sirve para describir, explicar, interpretar o justificar la situación de un grupo o de una colectividad, y que, inspirándose ampliamente en unos valores, propone una orientación precisa a la acción histórica de ese grupo o colectividad.

Uste eta mentalitate kontzeptuen esanahia, aitzitik, ideologiarena baino zabalagoa da: formalki egituratu gabe dagoen pentsaera. Neurri handi batean kontzeptu baliokideak dira usteak eta mentalitatea. *Usteak* zentzu komunarekin batera doaz sarritan eta gizarte edo talde jakin bateko kideek munduaz komun dituzten pentsamoldeak ditugu, Anthony Giddens-en definizioan bezala: “CREENCIAS DE SENTIDO COMUN. Creencias ampliamente compartidas sobre el mundo social o natural que mantienen los miembros legos de una sociedad” (Giddens 1993: 775). *Mentalitatea* “mundu ikuskera”, edo “garaiko giro”, gisa uler dezakegu (Vovelle 1985: 11-2). Hau da, ustearen esanahi bertsua du.

Askotan lotura estuak daude ideologiaren eta uste edo mentalitatearen artean, ideologiak mundu ikuskera edo balore sistema jakin baten racionalizazioa diren heinean: “cabría considerar la ideología como «la racionalización de una visión del mundo (o de un sistema de valores)»” (Rocher 1990: 128). Denak, funtsean, gizarteak bere burua —ordena soziala— azaltzeko eratzten dituen irudikapen edo errepresentazioen saillean biltzen dira.

Goiko zehaztapenak inon baliagarriak baldin badira Nafarroako erdaldunen euskarari buruzko iritzien azterketan da, bertan ideologia zehatz bat baino gehiago halako mentalitate edo zentzu komuneko usteak aurkitzen baititugu.

---

219. Ideologiaren kontzeptuaren adiera zabalaz —gizakiek euren bizi baldintza errealez egiten duten irudikapena—, eta honen eta mentalitatearen arteko harremanez, ikus, mentalitatearen historiaren arloan, Vovelle (1985) eta Le Goff et al. (zuz.) (1988), besteak beste. Halaber, Burke (1987: 93-100). Ideologia mundu ikuskera bezala uler-tuta Tomas Ibañezek (1996) azaldu du.

(2) Diskurtsoak *ideia adieraziak* dira. Horrek norbaitek beste norbaiti xede jakin batekin zerbait adierazten diola esan nahi du (Ibañez 1992: 9), mezuaren adierazlea eta hartzailea (“enunciador” eta “enunciario”) ditugu, beraz. Hau da, aztertzen ari garen kasuan, nork hitz egiten zuen?: erdaldunek; nori?: Nafarroako erdaldun zein euskaldunei; zer?: euskarari buruzko ideiak; zertarako?: nafar guztiek, erdaldunek eta euskaldunek, ideia horiek onetsi eta bere egin zituzten.

Azkeneko galdera honek —“zertarako?”— diskurtsoen *eraginkortasun sozialaren* arazoa plazaratzen du. Pierre Bourdieuk diskurtsoaren eraginkortasun performatiboaz<sup>220</sup> hitz egin du: “la eficacia performativa del discurso (...) como imponente (...) del consenso respecto al sentido del mundo social que funda el sentido común” (1985: 66). Era berean, hitzaren zeregina jendeari ikuspegi ideologiko jakin bat “naturalizat” harraraztea dela dio Jesus Ibañezek (1992: 77): “El lenguaje cumple en la ideología la función de remachar esas formas impuestas a las cosas y a las personas (y a la relación de las personas con las cosas), tomándolas como un hecho «natural»”. Guy Rocherrek zeregin konatiboa deitu dio horri, Jakobsonen ideia bereganatuz: “posee una función conativa, impulsa o insta a una colectividad a la acción, o, por lo menos, la orienta proponiéndole unos objetivos y unos medios” (1990: 128). Baina, noski, helburua ez da automatikoki betetzen, mezuen hartzaileen adostasuna behar da, berriro ere pertsonen hautamenaren gaiarekin topo eginez: “ese programa de performance sólo habrá alcanzado su fin cuando el discurso así producido sea asumido no únicamente por el enunciador sino también por el enunciatario. Para lograrlo es necesario que el enunciatario lo reconozca como un discurso que pueda hacer suyo” (Greimas eta Courtes 1982-91, II: 80). Oro har, diskurtsoek zeregin nagusietako bat dute gizarteko pentsamolde edo ezagutzen ugalketan: “El discurso desempeña un papel básico en estos procesos de la reproducción de las cogniciones sociales” (Van Dijk 1995: 168).

Esandakotik dator, hain zuzen ere, diskurtsoen azterketaren garrantzia, euskararen egiazko egoeran, ez soilik irudipenezkoan, eragin zuzena zutelako. Gizarte-errealitateak bi alde ditu: egoera objektiboa eta egoerari buruzko irudi subjektiboak, sarri azpimarratu dudanez. Harremanetan daude biak eta elkarri eragiten diote, eta gizarte-zientziek bien berri eman behar dute. Errealitate beraren aurrean, alderdi subjek-

220. Halaber: “Il [adierazpen bat] est performatif s’il se présente comme destiné à transformer la réalité (c’est le cas par exemple pour une ordre ou une question, qui prétendent influencer sur l’interlocuteur, en l’amenant à faire ou à dire quelque chose)” (Ducrot eta Schaeffer 1995: 645). Zentzu berean, ikus “Contrato” eta “Manipulación” sarrerak Greimas eta Courtes-en hiztegian (1982-91) eta John L. Austin-en *Cómo hacer cosas con palabras* (1990 [1962]) lan klasikoa.

tiboek sailkapen guztiz desberdinak egitera eta, beraz, gauza zeharo desberdinak ikustera eramaten gaituzte. Maiz borrokan egoten dira diskurtsoak (Bourdieu 1985: 88) eta diskurtso horietako bat —erdaldunen euskarari buruzkoa, esate baterako— gailentzen denean, horrek esan nahi du gizarteko kide gehienek —erdaldunek nahiz euskaldunek— errealitatea diskurtso horretako irizpideen arabera taxututa antzemango dutela, hau da, halako adostasun edo zentzu komuna hedatu edo nagusitu dela.

Goiko azalpenak laburbilduz, hau esan du Bourdieuk:

En suma, la ciencia social debe englobar en la teoría del mundo social una teoría del efecto teórico que, contribuyendo a imponer una manera más o menos autorizada de ver el mundo social, contribuye a hacer la realidad de este mundo: la palabra o, *a formatiori*, el refrán, el proverbio y todas las formas de expresión estereotipadas o rituales son programas de percepción y diferentes estrategias, más o menos ritualizadas, de la lucha simbólica diaria.

(ibid.: 66)

Orain arte esandakoaren arabera, erdaldunen euskarari buruzko diskurtsoen azterketak zeregin bikoitza du: diskurtsoen deskribapen edota sailkapena eta diskurtsoen deskodetzea. Lehenengoa, deskribapena eta sailkapena, berez ulertzen da eta ez dugu zertan den azaldu beharrik.

*Deskodetzeak*, ordea, diskurtsoaren azpiko ideologia edo usteak, “naturalizat” hartzen ditugulako maiz oharkabean gelditzen direnak, agertarazi behar ditugula esan nahi du: “traer a la conciencia, por el rodeo de la ciencia, lo que de sí es inconsciente, descodificándolo” (Ibañez 1992: 77). Diskurtsoei sendotasuna ematen diona egiantza (“verosimilitud”) da, hots, egia edo errealitatea islatzen dutela sinestartzea —“hacernos creer que se conforma a lo real y no a sus propias leyes” (ibid.: 198, 163. oin-oharra)—; baina egitan islatzen ari direna ez da errealitatea, gizartean nagusi diren uste edo pentsamoldeak baizik, eta hortik dator beren egiazko indarra. Badago diskurtso mota interesgarri bat: Bourdieuk (1985: 152) *mitología “zientifikoá”* deitu duena. Bere ezaugarria hau da: arrazoibide zientifikoaren itxurapean, egiazko koherentzia printzipio mitikoetan aurkitzen du, denek onartutako aurriritzietan oinarritutako kontrajarren eta baliokidetasunen sare nahasian. Azterketaren betebeharra, orduan, aurriritzi eta uste mitikoen sarea erakustea litzateke: “Sin entrar en largos análisis, puede restituirse, en forma de un simple esquema, la red de oposiciones y equivalentes míticas, verdadera estructura fantasmática que apoya toda la «teoría»” (ibid.: 155).

### 7.3.2 Nafarroako erdaldunen euskarari buruzko mentalitate orokorra

Nafar erdaldunen euskarari buruzko mentalitatea aztertzeke, sarrera gisa Aezkoako haur euskaldun bati Iruñeko Inklusan gertatutakoa aurkeztu eta gero, bi iturri sorta erabili ditut<sup>221</sup>:

-Garaiko argitalpenak: Jose Yanguas y Miranda-ren *Diccionario de antigüedades del reino de Navarra* (1964 [1840]), Pascual Madoz-en *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar* (1845-50), Perico Alejandria-ren *El pamplonés. Guía de la ciudad y manual de curiosidad* (1863) Iruñeko gidaliburua eta, azkenik, Candido Testaut "Arako"-ren *Dialogando* (1947) artikulua bilduma.

Oso ezagunak eta eraginkorrak izan ziren laurak eta gauza bat dute komun: gai orokorretako liburuak ziren, ez zuten euskara bereziki ez ikergai ez eztabaidagai eta, horrenbestez, hizkuntzaren aipamenak denek ontzat emango zituztelakoan egiten zituzten.

-Epaitegietako prozesuak<sup>222</sup>: Irigaray (1966), Satrustegi (1991) eta Jimeno Jurio (1991; 1992a, b eta c; 1993a eta c; 1994b eta c; 1995c; eta 1996).

Herri euskaldunetako erretoreak edo auzitegietako lekukotasun hartzaileak ("receptores") izendatu behar zirenean eztabaida latzak sortzen ziren maiz euskaldunen eta erdaldunen artean eta sarritan auzitara jo behar izaten zuten. Bertan, alde bakoitzak bere arrazoiak ematen zituen eta, azaldu beharrik ez dago, erdaldunen argudioak lehen mailako iturri ditugu euren mentalitatea ezagutzeko. Agiriak XVII. eta XVIII. mendeetakoak dira, esan bezala, baina mentalitateak "iraupen luzeko" bilakabideetan txertatzen diren gertakariak direnez (ikus 3. kapituluaren aurkezpena), zilegi da beraiez baliatzea gure epeko sakoneko joerak ulertzeko.

#### *Sarrera: haur erdaldunak eta euskara*

Komunitate baten ideologia egituratuz harantzagoko mentalitate edo pentsamoldeak aztertzerakoan haurren adierazpenek ikaragarriko balioa duen iturria eskaintzen digute. Arazoa halako lekukotasunak aur-

---

221. Bitxiak eta adierazgarriak dira, halaber, Victor Morenok (1996) jasotako lekukotasunak.

222. Tankera honetako dokumentazioa oso emankorra suertatu da hizkuntzaren egoera geografiko eta soziala zehazteko lanetan (ikus euskararen historiografia: 2.1.2 atala), eta lekukotasunen egitasun edo faltsutasuna ere lan haietan epaitzen da.

Nire egitekoa, ordea, desberdina da. Lehengai erdaldunen hitzak berak izango ditut, horiexek dira gero aztertuko ditudan datuak, ez, ordea, hitzno bidez adierazitako albisteak. Adibidez, batek Lizarrako jatorrizko hizkuntza gaztelania dela baldin badio, baieztapen hori izango dut lehengai gisa, osagai hori duen diskurtso baten aurrean nagoela jakingo dut, eta ez naiz egia den eztabaidatzen hasiko.

kitzea litzateke, baina gure kasuan badugu bat egoera orokorraren erakusgarri bikaina dena: ume aetz euskaldun bati Iruñeko Inklusan 1904. urtean gertatutakoa (Crónicas. *El Pensamiento Navarro*, 1904-12-21). Aipuak artikulu honetatik hartu dira.

Kazetaria Miserikordia Etxera bisita egitera joan zen eta bertan Aezkoako herri batetik ekarri berria zegoen haurra aurkitu zuen. Ederki zekien mutikoak euskaraz, baina ez, ordea, erdaraz. Gainerako haurrak, berriz, erdaldun hutsak ziren, eta etorri berria euskalduna zela ikustean, umea inguratu eta zirikatzen eta erasoka hasi zitzaizkion: “Por no entender una palabra de la lengua castellana, el muchachito se ve acosado por los demás, entre los cuales, á pesar de ser todos navarros, no hay otro que conozca la lengua milenaria de Aitor”. Irainak eta burlak gori-gorian zeuden une larri hartantxe egokitu zitzaion kazetariari gelara sartzea:

Cuando entramos en la escuela oímos una algarabía de voces infantiles que dirigiéndose al ilustrado maestro señor Esain le decían, señalando al niño aezcoano, que por vez primera iba á la escuela: *¡es vasco! ¡es vasco! Y se reían y se burlaban.*

(etzana nirea da)

Maisua, berriz, euskalduna zen eta umeari euskaraz hitz eginez beso artean jaso eta bere babesa eskaini zion:

Gracias á que el maestro señor Esain habla el vascuence, y acogió cariñosamente ¡al vasco! y le habló su lengua con dulzura. Entonces el niño se agarró al maestro, no quería separarse de él y le miraba con gratitud inmensa, como si le hubiese librado de una tortura, como si le sacara de la cárcel. ¡Qué alegría la del chico al ver que el maestro le hablaba vascuence!

Honaino iristen da kontakizuna. Ez da zaila haur gaixoak jasan behar izan zituen pairamenetan nafar erdaldunek Nafarroako bertako euskaldunen aurrean —ikus uitziarren testigantzak 6. kapitulu— hainbat aldiz azaldutako portaera eta jarreraren oihartzuna antzematea: “¡es vasco! ¡es vasco! Y se reían y se burlaban”. Berezko erreakzioa izan zen Inklusako mutiko erdaldunena eta erantzunkizuna, gainera, ezin zaio kasu honetan maisuari egotzi, ez eta, bistan denez, gurasoen eragin zuzenari ere. Mutiko haiek nafar komunitate erdalduneko giroan ikasitako mentalitatearen hastapenak ari ziren errepikatzen beraiek ere. Bourdieuk esango lukeen bezala, *habitus*-a bereganatuta zuten orduko<sup>223</sup>.

223. Gertaera honek irakaspen gehiago iradokitzen dizkigu. Kazetaria ere, maisua bezala, euskalduna zen eta, erdaraz jardun arren —goitizena ere erdarazkoa zuen: “Montejurra”—, sentiberatasun berezia zuen euskararekiko: “¡Qué lástima, qué pena y qué amargura produce en los que aun conservamos el vascuence ver que á un chico que no sabe castellano se le tiene por extranjero en la capital de Navarra!”.

Bestalde, berria *El Pensamiento de Navarra* egunkari karlistan agertu zen. Egunkari honek ez zuen euskararen gaia oso maiz ukitzen —1904ko abenduaren

*Garaiko argitalpenen testigantzak*

(a) Erdaldunen euskarari buruzko usteen osagai nagusiak 1837.az geroztik Diputazioko idazkaria izan zen eta Nafarroako historiografian aurkezpenik behar ez duen Jose Yanguas y Miranda-ren (Tutera, 1782-Iruñea, 1863) *Diccionario de antigüedades del reino de Navarra* (1964 [1840]) lan ezagun eta eraginkorren —“de consulta imprescindible” (Caro Baroja 1978: 76, 7. oin-oharra)<sup>224</sup>— adierazita aurkitzen ditugu jadanik. Bertan, “Idioma” artikuluan (ibid., I: 488-9), gaztelania eta euskara aipatu zituen. Lehentasuna, jakina, gaztelaniari eman zion azalpenetan —“IDIOMA. El que se usaba vulgarmente parece era un latín corrompido, del cual llegó a formarse con el tiempo el castellano” (ibid.: 488)— eta doinu deskriptibo hutsean ederki azaldu zituen latinetik gaztelaniara —“idioma de Navarra” (ibid.: 203)— zihozen hari nagusiak, nahiz eta nafar erromantzearen izaera bereziaren aipamenik ez egin. Nafarroan gaztelaniaz idatzita dagoen aurreneko agiri ofiziala Antso VI.a Jakitunak 1171. urtean emandakoa dela dio (ibid.: 489).

Euskara, ordea, txanponaren beste aldea da Yanguas y Mirandaren hitzetan:

En cuanto al vascuence no se encuentra la menor noticia de haberse usado en los escritos, a pesar de ser el idioma general de las montañas de Navarra, ni hay señales de haberse considerado nunca como nacional, antes al contrario, cuando menos desde fines del siglo XIV, en que consta que el rey Don Carlos III, al prestar su juramento en el año 1389<sup>225</sup>, lo hizo en el modo y forma contenidos en una cédula escrita en *idioma de Navarra*, la cual se copia y está en el romance de aquellos tiempos.

(ibid.: 489)

Beherago, hiztegiaren gehigarrian —“Adiciones al *Diccionario de antigüedades de Navarra*” — artikulua bat eskaini zion euskarari. Bertan,

---

hilabete osoan ez ziren gaiaz gehiago mintzatu, adibidez—, baina teorian euskararen aldeko jarrera zuen. Artikulua, berriz, kazetari euskaldun batek idatzi zuen. Alegia, euskaldun bat —ez erdaldun bat— izan zen gertakizuna ikusi eta plazaratzearen beharraz ohartzeko adina sentikortasun erakutsi zuena. Egunkaria segur aski ados egongo zen bere kazetariaren salaketarekin, baina euskararen aldeko iritzia bat plazaratzeko urratsa euskaldun batek egin zuen.

Haurrak babesa aurkitu zuen eta gertatutakoa prentsan atera zen tartean bi lagun euskaldun egon zirelako. Ama hizkuntzaren araberako sentiberatasun maila diferente-ena Nafarroako euskararen historian zehar maiz aurkituko dugun eta gogoan izan beharreko gaia da.

224. Halaber: “[Yanguas y Miranda] es el autor del estupendo diccionario de antigüedades y del mejor diccionario que aún existe de los fueros y leyes de Navarra (tantas veces aprovechados aquí)” (Caro Baroja 1971-2, III: 179).

225. Erromantzearen aitortpena Nafarroako hizkuntza gisa lehenagotik dator, 1329. urtetik bederen: ikus 3.5 atala.

historia gaiak alde batera utzi eta garaiko gaiei helduta, otu zitzaion gauza bakarra euskarak nekez ahoska daitezkeen izugarritzko hitz luzeak dituela esatea izan zen: “VASCUENCE. Existen palabras de este idioma notables por su prodigiosa extensión y dificultad de pronunciarlas” (1964, III: 469). Adibidez:

Azpilcuetagaraycosaroyarenberecolarrea: en castellano, *Campo bajo del sel*<sup>226</sup>  
*alto de Azpilcueta.*

(ibid.: 469)

Euskararen nahaste-borrastearen aldean gaztelaniaren gardentasuna erakusten zigun Yanguas y Mirandak, baina, objektibotasunaren hizkerapean hizkuntza bakoitzari egozten zitzaizkion ezaugarrien arteko oposaketa-jokoaren bidez, askoz urrutirago zihoan azpiko mezua. Guri oraingoan diskurtsoaren logika izkutua deskodetzea ardura zaigu, ares-tian esan bezala, eta ez aurrez bagenekienean gelditzea. Baliteke ezaugarri gehienak, banaka hartuta, egiazkoak izatea, baina denak batera eta diskurtsoaren logikaren barruan aipatzeak bestelako esangura hartzen zuen, aise antzematen denez: gaztelania nazio-hizkuntza dugu, latindar jatorrikoa, Nafarroako errege-erreginek erabilia eta XII. mendean geroztik agiri ofizialetako hizkuntza idatzia; euskara, aldiz, Mendialdeko (sasi)hizkuntza bitxi eta aldrebesa da soilik, sekulan idatzia eta, are gutxiago, Nafarroako nazio-hizkuntza izan ez dena.

Esan dezadan, bidenabar, Yanguas y Miranda ez zela herri hizkuntza baten aurrean konnotazioez beteriko harridura adierazi zuen “erdaldun” bakarra izan. Adibidez, Zeelanda Berrian, XIX. mendean, zuriei, maori hitzak idazten saiatzen zirenean, Yanguas y Mirandari bezala gertatzen zitzairen, halako zentzugabekeriak idazten zituztela, baina, jakina, itxuragabekeriaren zergatia ez zuten euren ezintasunean bilatzen, maori hizkuntzari leporatzen zioten landugabetasun edo primitibotasunean baizik:

When one early traveller recorded what he thought he heard as the Maori word for a paradise duck, he wrote *pooadugghiedugghie* (for *putangitangi*) and for the fantail *diggowaghwagh* (for *piwakawaka*), neither of which forms translates visually the aural beauty of the originals. (...). Those spellings are not only aurally inefficient, but to a differently accultured English eye *they may appear crude and culturally primitive, thus reinforcing other such attitudes.*

(azkeneko etzana nirea da) (McKenzie 1988: 163)

226. “*Sel*: monte de árboles en círculo perfecto con su mojón en el centro, según Larramendi” (ibid.: 469), argitu zuen Yanguas y Mirandak.



(b) Antzeko usteak aurkitzen ditugu Pascual Madoz-en (Iruñea, 1805-Genoa, 1870) hitzen azpitik ere. *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico*-an, “Navarra” artikuluan (1845-50, XII: 95), hizkuntzaren atalean zera dio:

IDIOMA. En una zona de 8 á 10 leg. desde el Pirineo hácia el S. de la prov. se habla todavía el vascuence, aunque en la mayor parte confundido con el castellano; en el resto de la prov. es el general de la nación.

Berriro ere Mendialdeko hizkuntza —euskara— eta nazio-hizkuntza orokorra —gaztelania— kontrajartzen dira. Bestalde, euskara erdararen mesederako desagertzen ari zen hizkuntza zelako mezua eman zigun aditzera Pascual Madozek: oraindik hitz egiten zen —“se habla todavía”—, hots, laster galduko zen, eta, oraindik eusten zion eremuan ere gaztelaniari tokia egin behar izan zion —“en la mayor parte confundido con el castellano”—, bide batez erdararen nagusitasuna iradokiz.

(c) Iruñeko lehen gidaliburua Perico Alejandria-k 1863. urtean argitaraturiko *El pamplonés. Guía de la ciudad y manual de curiosidad* bide dugu. Liburuaren helburua, garbi dagoenez, bisitariari nahiz bertako bizilagunei Iruñeko berri argi eta zehatza ematea izan zen —“todas aquellas cosas que encierra la población y que su conocimiento pueda redundar comodidad, ahorro y beneficio al transeunte y ciudadano” (Alejandria 1863: 4)—, egilearen hitzetan. Zer eman zien ezagutzera bisitari eta bertako bizilagunei Iruñeko hizkuntzei buruz?

Gaztelaniaz horrela zioen: “la [lengua] castellana — nacional que se emplea en la parte oficial y pueblos de la rivera” (ibid.: 95). Euskarari buruz, ordea, beste hau esan zuen: “la Euskara — Vascongada, lengua antigua de una construcción especial, comparada con las modernas, cuyo uso abraza la región del Pirineo con sus ramificaciones montañosas” (ibid.: 95-6).

Beti bezala, alde batetik gaztelania dugu, nazio-hizkuntza eta ofiziala, eta bestetik euskara: iraganeko bitxikeria, Pirinioetako menditarrek erabilia, gaztelania bezalako hizkuntza modernoan, hau da, benetako hizkuntzen, aldean.

(d) Erdaldunen irudipenerako, nola hitz egiten zuten euskaldunek gaztelaniaz ari zirenean? Galdera ez da inozoa, egiazko hizkuntza gaztelania baitzen erdaldunentzat, ez euskara. Beraz, nola egiten zuten euskaldunek benetako hizkuntza batean? Era guztiz trakets eta barregarrian, Candido Testaut “Arako” *Diario de Navarra*-ko kazetari ezagunaren *Dialogando* artikulua bildumak (1947) erakusten duenez. Arakok Iruñerriko eta ondoko ibar euskaldunetako herritarrei entzundako pasadizoak jasotzen zituen “Dialogando” izeneko zutabea idatzi zuen igandero, 1910. urtean hasita, eta ikaragarritzko arrakasta lortu zuen. Gakoa pertsonaien ahotan jartzen zen gaztelania xelebrea zegoen, hain zuzen ere. Adibide moduan, hona hemen zatitxo bat:

—Na hará estar vuestro amo en casa ¿verdá?

—En este instantico no de conta. Si habrías venido hace menos de la mita de un cuarto de hora, pillar y le estarías; pero enseguida de echar el taco síha ido a casa Patriciorena pa haber de preparar algunas cosas porque mañana quieren hacer matacherri. ¿Pa lo qué le querías?

—Pa decirle que esta noche, luego de tocar las oraciones, le vamos a hacer dar el Señor al agüelo.

—¡Virgen Santa! ¿Ya sabes lo que me dices? ¡Si el jueves me lo surtí tropezar ande vuestra era y estaba tan biscorrico!

(Testaut 1947: 88)

Candido Testautek paperean ipini zueneko, baina, oso hedatua zegoen ikuspegi hori Nafarroako erdaldunen artean, jadanik 1863. urtean Perico Alejandriak (1863: 96) ere horrelako erdara mordoiloaren berri emana zuen eta: “Joana-Mari coge el chico / pero no lagas quilicas / lo pondrás cucurubico / cuando quiera hacer chirricas”.

Azpi literatur-jenero bat dela esan dezakegu, bada. Nolako gaztelania erabiltzen zuten orduko euskaldunek, horrek ikerketa berezia behar luke eta orduan jakingo genuke jeneroaren legeen arabera taxututako karikatura edo egiazko lekukotasunak ote diren horiek, bietatik seguraski, baina garbi dago erdal irakurleek euskaldunen gaztelania erakutsitako moduan irudikatzen zutela. Alegia, goiko pasarteak zerbaiten lekuko fidagarri baldin badira, erdaldunen euskaldunekiko ikuspegiarena da. Arestian esan bezala, testu hauen egiantza —denek sinesgarritzat jotzea— ez zetorren errealitatea islatze hutsetik, erdaldunen artean nagusi zen uste orokorrarekiko adostasunetik baizik.

Bestalde, esan beharra dago kontakizun hauen asmatzaileak ez zirela batere orijinalak izan. Hizkuntza nagusietako hitzunek atzeraka ari diren, edo bigarren mailakotzat jotzen dituzten, hizkuntzen bizkar barre egitea jokabide ezaguna da literatura soziolinguistikoa, Weinreichek erakutsi bezala<sup>227</sup>: “Las lenguas en desuso también adquieren fácilmente asociaciones cómicas. Las columnas en patois de los periódicos suizos o las secciones en alemán de ciertos periódicos de Pensylvania están principalmente limitadas a asuntos cómicos” (1974: 201).

### *Epaitegietako prozesuak*

Azkeneko urteotan ezagutuz joan diren prozesuak iturri emankorra suertatzen zaizkigu erdaldunen euskarari buruzko mentalitatea ezagutzeko lanean. Esana dugu erdal mundua ez zela gehiegi euskal kulturaz arduratzen. Axolagabekeria edo ezikusia egitea zen haien jarrera

---

227. Ikus, halaber, Jose Maria Larrearen (1994: 108-9) “Euskaldunekiko humorea” atala.

nagusia. Baina salbuespen esanguratsu bat izan da: jokoan *diru interesak* zeudenean.

Bi bakarrik ziren, nik dakidala, euskalduna izateko baldintza eskatzen zuten lanbide motak —“con el salario, provechos y emolumentos correspondientes” (Jimeno Jurio 1995c: 494)—: herri euskaldunetako elizgizona eta Nafarroako Eliz nahiz Errege-auzitegiatarako eremu euskalduneko lekukotasun hartzailea<sup>228</sup>. Eliz auzitegian, 10 hartzailetatik, 6 erdaldun (“romanzados”) eta 4 euskaldun (“bascongados”) zeuden 1765. urtean (Irigaray 1966: 74); Errege-auzitegian, berriz, 24 hartzailetatik, 15 erdaldun eta 9 euskaldun (ibid.: 82). Txanda bereziak antolatzen ziren eta hizkuntza bakoitzeko biltzaileak zegokien eremuan aritzen ziren. Gehiago ziren, beraz, hartzaile erdaldunak euskaldunak baino, nahiz eta euskaldunen barrutia, eta prozesu kopurua, handiagoa izan, hartzaile erdaldunek beraiek aitortzen zuten: “los negocios q. de oficio y de partes incesantemente se ofrecen en la tierra vascongada, q. ocupa más de la mitad de este Reino” (ibid.: 82).

Bi lanpostu motetan sortu ziren gatazkak eta arrazoia bera izaten zen beti: erdaldunek beraientzat nahi zituzten lanpostu haiek ere. Eztabaidak epaitegiatarako eramatzen ziren eta han alde bakoitzak bere argudioak aurkezten zituen. Oraingoan erdaldunen arrazoibidea aztertu dugu, gure xedea erdaldunen euskarari buruzko iruditeria kolektiboaren ezagutzan aurreratzea da eta.

Aipatuko ditudan eztabaidak honako herri edo toki hauetan gertatu ziren, kronologikoki ordenatuta: Galipentzu (1571), Arandigoien (1581), Uskartz (1605), Lizarrako San Juan parrokia (1607), Iruñeko San Zernin parrokia (1645), Agoitz (1697), Eraul (1723), Larrion (1723), Nafarroako Eliz-auzitegiko hartzaileak (1765-1778), Nafarroako Errege-auzitegiko hartzaileak (1765-1778), Urraul Goiti (1785), Agoitz (1788) eta Badoztain (1821).

*Erdaldunen eskakizuna*, esan bezala, ordura arte euskaldunek betetako postuak handik aurrera, euskaraz ez jakin arren, beraiek ere betetzea izan ohi zen, diskurtsoen eraginkortasun soziala, edo zeregin performatiboa, begi-bistan utziz. Auzitegiatarako hartzaileen kasuan bitan banatu zuten eskaera: (1) txanda bakarra eratzeko: “parece justo que asi como el empleo es igual lo fuese también en las ganancias haciéndose el turno como en para todos” (Irigaray 1966: 83); eta (2) txanda bakarra antolatzen ez zen bitartean, erdalduntzat hartzen ziren herrien zerrendari haiek

228. Horrela dio Jimeno Juriok (1991: 233): “En el fondo del problema subyacen unos intereses económicos personales y de grupo: conseguir un puesto de trabajo, llámese rectorado, abadía, vicaría, beneficio o capellanía, en el caso de los clérigos, o un espacio geográfico donde poder desarrollar su profesión e incrementar sus ingresos los «Receptores» vascongados o romanceados de los tribunales del Reino de Navarra y Diocesanos”.

proposatzen zuten beste sorta bat gehitzeko, horrela erdaldunen jardue-  
ra-esparrua zabalduz: “ya q. el turno no sea común en todos los lugares  
(...) puede reputarse por pueblos Romanzados los q. aparecen del Rolde  
q. se presenta, q. son de los valles de Egües—Ansoain—Aranguren—  
Cendea de Galar—Echauri—Ezcaba y otros de la Cuenca y redondez de  
esta ciudad [Iruñea]” (ibid.: 83).

Helburuak betetzearren *argudio franko* erabili zituzten. Hona hemen  
esanguratsuenak.

Jende guztiak hitz egiten eta ulertzen du gaztelaniaz: “Porque el len-  
guaje que ordinaria y comunmente se habla en dicha parroquia [Iruñeko  
San Zernin, 1645], y en toda esta ciudad, es el romance castellano, así  
entre las mugeres como entre los hombres y la jente comœn, de manera  
que todos lo ablan y lo entienden” (Jimeno Jurio 1995c: 499); “como es  
notorio los mas saven y todos entienden el castellano” (1765, Iruñea  
inguruko ibarrak: Irigaray 1966: 83). Berdin gertatzen omen zen  
Etxarri-Aranatz, Arakil-Uharte, Lakuntza, Arbizu eta Auritz bezalako  
herri handietan: “Villas solas, que por su grande población, saben  
romance” (Satrustegi 1991: 119). Herririk euskaldunenetan ere erruz  
aurkitzen ziren gaztelaniaz zekiten bizilagunak: “será raro ó ninguno  
donde no se encuentren legos castellanos y aun firmantes y eso en lo más  
montaña, y en lo q. provincia (Guip.) a docenas donde menos” (Irigaray  
1966: 91). Aipuak nahi adina gehi litezke, hauxe izan baitzen maiztasu-  
nik handieneko argudioa erdaldunen ahotan.

Bidez batez, pentsamolde bera da 1935. urtean Elizondoko erretore  
erdaldunak adierazi zuena: “el noventa por ciento de los demás feligre-  
ses menores de cincuenta años o ignoran en absoluto el vasco o lo cono-  
cen tan imperfectamente que por dificultades de expresarse en él no lo  
usan para nada” (aipatua in: Con todos los respetos. Réplica a una desa-  
fortunada respuesta del señor Párroco de Elizondo. *La Voz de Navarra*,  
1935-11-08).

Zergatik zekiten denek erdaraz? Eskolan erdaraz irakasten zitzaiela-  
ko. Hau ere askotan aurkitzen dugun arrazoia zen: Lizarreriko herri  
gehienetan “ay maestros de escuela que enseñan a leer y escriuir en cas-  
tellano” zioen 1723.ean Mateo X Suarez eskribauak (Jimeno Jurio 1994b:  
483), eta berdin esango zuten 1765.ean hartzaile erdaldunek pasarte  
ospetsu batean: “por haverse introducido este idioma [gaztelania] gene-  
ralmente con la plausible providencia de enseñarlo los Maestros de las  
escuelas, que se han puesto no solo a los niños, prohibiendoles el hablar  
vascuence si no es también a las demas personas del pueblo” (Irigaray  
1966: 83). Eskolen ardura, beherago (7.4 atala) ikusiko denez,  
Nafarroako herriek zuten.

Sarritan urrutirago joaten ziren erdaldunak: bertako hizkuntza gaz-  
telania da, ez euskara. Argudio horrekin bete nahi zuten helburua garbi  
dago: Elizak tokian tokiko hizkuntzetan aritzeko agintzen zuen

Trentoko kontzilioaz geroztik, *de idiomate* arauari jarraikiz (Jimeno Jurio 1995c: 490) eta, orduan, eskaerek benetako eraginkortasuna izango bazuten, “bertako” hizkuntzari egokitzen ari zitzaizkiela erakutsi behar zuten: “explicando el Sagrado Evangelio en romance o lengua castellana, de que se confiere ser esta propisimamente la lengua vernacula i del natural que manda el Tridentino” (Satrustegi 1991: 114). Gauza bera esan zuten 1790.ean Eskirotzari buruz: “con propiedad se puede decir es Pueblo Castellano” (Jimeno Jurio 1994c: 329) eta 1723.ean Francisco B. de Echaz eskribaua “[el castellano] es la lengua primitiva de la Ciudad de Estella” (Jimeno Jurio 1994b: 474, 21. oin-oharra) esatera iritsi zen.

Bertakotasuna euskarari ukatu eta gaztelaniaren ezaugarria zela aldarrikatzea kontraesanean zegoen garai hartan adierazi ohi zen beste iritzi batekin: Nafarroako jatorrizko hizkuntza —“*la lengua matriz del reino*” (Jimeno Jurio 1996: 272)— euskara zela zioenarekin; baina kontraesana ez bide zitzaian axola eta, ziur aski, ez zuten baieztapen horretan gehiegi sinetsiko.

Euskara ez da beharrezkoa, gaztelania hutsez jarduteak ez du eragozpenik ekartzen: “sin haver encontrado dificultad para su desempeño por defecto de no saver el bascuenz corriente” (1765, Gares eta inguruko herrietan: Irigaray 1966: 84). Halaber, 1645.ean, Iruñean, garizumako euskarazko hitzaldiak “se han dexado de predicar por ser notorio que no es necesario” (Jimeno Jurio 1995c: 513). Era berean, Bizkaia eta Gipuzkoako ohitura ekartzen zuten gogora, Valladolideko eta Kalagorriko hartzaileek lekukotasunak “sin que ninguno de ellos entiendan semejante idioma” (Irigaray 1966: 92) jasotzen zituztela esanez.

Ondorioa, jakina, hau izaten zen: “se persuaden firmemente que para propio párroco no necesitan forzosamente suxeto bascongado” (Jimeno Jurio 1991: 234).

Oztoporik aurkituz gero, itzultzaile edo laguntzaile euskaldunetz baliatuko ziren: “por vía de intérprete jurado en caso necesario y conforme a derecho” (Irigaray 1966: 92). Berdin Irunberrin, 1627.ean: “Jiménez presentó en noviembre la sentencia dictada por el Vicario General en pleito sobre la vicaría de Lumbier (1627), adjudicada a un romanizado a condición de tener vicario vascongado” (Jimeno Jurio 1995c: 495); eta, 1645.ean, Iruñean: “La sentencia, pronunciada el 4 de enero, adjudicó la vicaría a don Miguel Jiménez, vicario de Mendavia, con la obligación de mantener un teniente vascongado, «como lo an tenido los demás vicarios sus antecesores»” (ibid.: 495).

Bestela, aitortza euskaraz egin nahi zuenari beste apaizengana jotzeko aukera uzten zioten: “Si hay en la Ciudad [Iruñea] quien prefiera confesarse en vascuence, tiene a su disposición gran número de clérigos y religiosos. Sobre todo en San Cernin, donde hay un teniente vascongado” (ibid.: 499).

Euskaldunak kanpotarrak, menditarrak, eskolatu gabeko haurrak, zaharrak edota kasualitatez kanpoan ikasi dutenak dira: Francisco B. de Echaz-en hitzetan (1723), Lizarran ez zen euskaraz mintzatzen, salbu “que no sea por algún Montañés<sup>229</sup> que va a vivir o transita” (Jimeno Jurio 1994b: 474, 21. oin-oharra), edo “a menos que por accidente la aprenda en otra parte” (ibid.: 474, 21. oin-oharra). Iruñean ere berdin uste zuten, Aita Moret-en hitzek (1645) iradokitzen dutenez: “ay confesores destinados para confesar en basquence para los que bienen de fuera” (Jimeno Jurio 1993a: 159). Agoitzen (1789) haurren batek euskaraz hitz egiten bazuen, bietako bat gertatzen zen: “o no concurre a la escuela o es forastero” (Jimeno Jurio 1992c: 478). Egues, Aranguren, Etxauri, Oltza eta antzeko ibarrei buruz, euskara zaharren hizkuntza zela zioten 1765. urtean, gazte guztiek erdaraz zekitela argudiatuz: “Interprete jurado q. asista para solos los testigos q. por su avanzada edad no supieran castellano, pues los jóvenes todos saben” (Irigaray 1966: 84). Horri lotuta, euskara iraganeko hizkuntza zela zioten Iruñean 1778. urtean, ez “orainaldikoa”: “aún por entonces [1671-1742 urteetan] en esta ciudad hera común y más bersado el idioma del bascuenz pero eso era causa hace bastantes años” (ibid.: 96).

Euskaldunak euskaraz mintzatzen zirenean aldatzeko kapritxoz, gogoia zutelako edo ohituragatik izaten omen zen: “los que hablan el bascuence es como adherente y por bariar la lengua castellana” (Jimeno Jurio 1995c: 499); “porque tenían gusto de confesarse en la bascongada” (ibid.: 511); “lo hacen en vasquenze, no porque no entiendan [gaztela-

---

229. “Montañés” hitza, “menditarra” adierazteaz gain, euskaldunaren sinonimoa zen Nafarroako erdaran (Iribarren 1984: 356-7) eta ez dirudi oso adiera baikorrik zuenik, lekukotasunen arabera. Bordel bertsolari luzaidarrak 1823. urtean Erdialdeko soldadu absolutista erdaldunei euskaldun guztiak traidoreak zirela entzun behar izan zien: “montañesak girela / oro traidoriak” (“Donostian soldado”. In Zavala 1992: 52).

Halaber, 1878. urtean erdaldunek erabilia izaten segitzen zuen “montañés” hitzak eta erdeinu kutsu mingarriari eusten zion orduko euskaldunen ustez, Oltza herriko Joaquin Ochoa de Olza-k Euskara elkarteko Salvador Echaide-ri urte hartan idatzi zionez:

(...) aunque muchísimos jóvenes lo hablan [euskara], o lo entienden, por haberlo oído a sus padres, desdeñan el hacerlo por la tonta preocupación en que están de que les rebaja el hablarlo, pues odian la mayor parte el glorioso *calificativo de montañeses con que señalan a los vascongados las demás gentes de Navarra*.

(etzana nirea da) (García Sanz 1995: 210-1)

Erdaldunengandik jasan behar izaten zituzten gutxiespen eta destainak “montañés” hitzean bilduta aurkitzen zituzten euskaldunek. Ohart gaitezen, bidenabar, euskarari eustea edo ez eustea hiztunen hautaketa baten emaitza zela, baldintza jakin batzuetan, noski. Kasu hartan, oltzarrek euskaraz ez egitea —“desdeñan el hacerlo”— erabaki omen zuten.

niaz], sino porque están más acostumbrados a él y no pueden dexar el hábito o costumbre” (Jimeno Jurio 1992c: 472).

Era berean, herrirako erretore euskalduna eskatzea borondate txarreko aitzakitzat —“la mala voluntad del pretesto” (Satrustegi 1991: 114)— hartua izan zen erdaldunen artean.

Azkenik, euskararen hizkuntz gaitzespena eta erdararen goraiapamena ez ziren falta izan. Batere batasunik ez omen zuen euskarak: “el cual tiene tantos caracteres quantos son los valles, Cendeas, Arziprestazgos, y aun los mismos pueblos en q. se versa” (Irigaray 1966: 93). Orobat, herri bateko bizilagunek gaztelaniaz ez jakitea “general desgracia” (ibid.: 91) iruditzen zitzaien erdaldunei. Kontzeptuak, kultura, letrak, eta abar, adierazteko askoz egokiagoztat jotzen zuten gaztelania euskara baino: “explicados como es regular en castellano, en cuio idioma sientan mejor los conceptos y composición q. no en el de bascuence” (Irigaray 1966: 93). Aitortzaren onura guztiak erdiesteko gaztelania ez menderatzea eragozpen bat zen Larriongo apaizaren ustez: “es de sentir que, para administrar el sacramento de la penitencia en todas sus partes esempciales y conseguir el fruto de él integral, le parece ser impedimento o inaulidad para dicho efecto el no sauer o comprender del todo el castellano” (Jimeno Jurio 1994b: 477). Jaungoikoarenganako bideak, hortaz, erdaraz ibili behar ziren.

Lekukotasunen aurkezpena borobiltzeko, hona hemen ia denak batera biltzen dituen testu bat: Irantzuko monastegiko *Libro de Comisiones y nombramientos* izenekoan 1723. urtean, Eraulgo bikario erdaldunaren izendapena errefusatu izan zela jakitean, idatzi zuten ohar gogoangarria (Satrustegi 1991: 113-4):

El título de Vicario de Eraul arriba escrito expedido a favor de D. Joseph de Arroniz y Oteiza, vezino y natural de la Ciudad de Estella no ha tenido efecto; por que los vecinos de Eraul an alegado quel sobredicho no sabe vascuence; y aunque este defecto no pudiera ser nulidad en otras circunstancias, porque todos los naturales de dicho lugar saben tan bien como el vascuence, el castellano o romance; pues educando a los niños en escuelas donde no se permite hablar vascuence y las mujeres y hombres se crian en el comercio y grangeria de la ciudad de Estella de donde no dista mas q'una legua corta, y donde la lengua natural es la castellana; y lo que hace mas inutil y acredita la mala voluntad del pretesto es que todos los Vicarios (aun los que han sido naturales del dicho lugar) han cumplido con lo que manda el St. Concilio de Trento, explicando el Sagrado Evangelio en romance o lengua castellana, de que se confiere ser esta propisamente la lengua vernacula i del natural que manda el Tridentino.

*Ondorioak: erdaldunen hizkuntz mentalitatea eta erdigunearen mitoa*

Aurkeztu direnak diskurtso orokor baten elementu edo osagaiak dira, eta izaera horren arabera aztertu behar dira. Diskurtsoak bere logika du, balore edo uste jakin batzuen gainean eratzen da eta errealitatea-

ren hautematea oinarrizko kategoria horien arabera antolatzen du, erre-  
alitateak eskainitako datuak diskurtsoaren logikan txertatuz. Gure ardu-  
ra, beraz, euskarari begiratzen ziotenean erdaldunen ikusmira baldin-  
tzatzen zuen kategoria- edo kontzeptu-sistemaren ezaugarriak argitzea  
da, betiere diskurtso horren gizarte-eraginkortasuna bilatzen zutela  
gogoan izanik: nafar gizarte osoari —erdaldunei nahiz euskaldunei—  
hizkuntzen egoera beraiek irudikatzen zuten modura ikustaraztea.

Beste batzuetan bezala, taula batean laburbiltzen dira erdaldunek  
hizkuntza bakoitzari egozten zizkioten ezaugarriak.

Gaztelania	Euskara (eta euskaldunak)
-Nazio-hizkuntza	-“«¡Es vasco! ¡Es vasco!» Y se reían y se burlaban”
-ofiziala	-Mendialdeko hizkuntza: mendita- rrak. Montañesak oro traidoriak
-moderno	-kanpotarrak
-idatzia	-iraganeko hizkuntza, zaharrak
-latindar jatorrikoa	-jatorrizko hizkuntza
-Nafarroako errege-erreginek erabilia	-desagertzen ari da
-bertako hizkuntza, jatorrizkoa	-sekulan ez da nazio-hizkuntza izan
-kontzeptuak, kultura, letrak, etab.	-ezjakintasuna: eskolatu gabeko hau- rrak
adierazteko egokiena	-bitxi eta aldrebesa
	-hitz ahoskagaitzak
	-batasunik gabekoa
	-zorigaitz handia
	-sakramentuak jasotzeko eragozpena: Jaungoikoarenganako bidea nekez euskaraz
	-ez da beharrezkoa
	-euskaldun guztiek dakite erdaraz
	-kapritxoz, ohituraz edo gogoan dute- lako hitz egiten dute euskaraz
	-euskara eskatzea borondate txarreko aitzakia da

Euskarari eta gaztelaniari buruzko estereotipoak erdal mentalitatean

Horixe da, beraz, taula batean bilduta, XVI-XIX. mendeen bitarte-  
ko iturriek eskaintzen dituzten emaitzen oinarrizko eskema ideologikoa.  
Bere aurrean zenbait iruzkin egin beharra dugu:

(1) Antz osoa dute taula honek —nafar erdaldunen mendetako batez  
besteko mentalitate— eta gaztelaniaren eta frantsesaren historialarien



—Menendez Pidal, Lapesa, Brunot, Cohen— hizkera aztertuz 2.2 atalean osatutakoek. Hasiera batean harrigarria lirudikeena, XX. mendeko hizkuntzalari handiek eta XVII. mendeko nafar arruntek, adibidez, horren ikuspegi bertsua erabiltzea hizkuntzen aurrean, ez da hain arraroa apur bat pentsatzen hasita: kultur mundu bereko sakoneko iturrietatik edanda moldatu zituzten bi multzoek euren jarrerak (ikus 7.1 atala)<sup>230</sup>.

Bi arazo plazaratzen digu aipatutako berdintasunak: mentalitateen iraupen luzea, alde batetik, eta, bestetik, zientzia edo ideologiaren eta gizarte-mentalitateen arteko harremanak. Nabaria da gaztelania eta frantsesaren historialariek gizarteko uste, edo aurriritzi, nagusietatik edan eta horien arabera taxutu dituztela beren lanak. Aldi berean, zentzu komuneko aurriritziek berme sendoa aurkitzen dute zientziaz jantzi-tako azalpenetan. Norabide bikoitzeko harreman hori da, hain zuzen ere, hurrengo atalean formalki egituratutako iritzi edota ideologiak aztertzen ditugunean aurkituko duguna.

(2) Erabat asimetrikoa da hizkuntza bakoitzarekiko erakusten den ikuspegia. Adibide bat: euskaldunak erdaraz mintzatzen zirenean barre-garri geratzen omen ziren, eta erdaldunak euskaraz saiatzen zirenean, ez al ziren beraiek ere barre-garri gelditzen?

(3) Guztiz asimetrikoak ziren, halaber, Uitziri buruzko kapitulua gogora ekarriz, erdaldunek euskarari buruz eta euskaldunek erdarari buruz pentsatzen zutena. Erdaldunen ustez aski zuten euren hizkuntzarekin, euskararen beharrik ez zegoen bitartean. Euskaldunentzat, aldiz, euren hizkuntza motz gelditzen zen eta erdararen premia sentitzen zuten.

(4) Taulan jasotako ezaugarriak gune kontzeptual nagusi batean bil-tzen dira: *erdigunearen eta bazterren arteko aurkakotasuna*.

Banaka hartuta ezaugarri horiek errealtatearen behatzeak emandako datuak direla eman dezakeela esan dugu arestian, baina, esate baterako, euskaldunak=menditarrak ekuazioa toki eta garai guztietan agertzen bazaigu, estereotipo (Yzerbyt eta Schadron 1996: 121) edo buru-kate-goria bat dela esan nahi du horrek, ez gertaera hutsa: “Es el mito el que transfigura ese *acontecimiento en categoría*” esan du Mircea Eliadek

---

230. Bestalde, antzeko mentalitatea antzematen da maiz Nafarroako egungo erdal historiografian. Adibidez, Manuel Ferrer-ek (1992), euskararen 1935eko egoera objektiboki aurkeztu nahi izan duen atalean horrela “deskribatu” du hizkuntzaren egoera: “aunque *en retroceso*, era *todavía* hablado por una importante *minoría* de navarros” (etzana nirea da) (ibid.: 57). Halaber, euskal eremuaren ezaugarritzat ekonomikoki geldituta egoera, industrigunerik kasik ez izatea eta populazioaren sakabanaketa aipatu ditu: “Se trata en general de un área estancada económicamente, de hábitat disperso, con muy pocos enclaves industriales” (ibid.: 59).

(1981: 427). Gure kasuan, erdigunearen mitoa, eta, horrekin batera, hiria/basoa —*Ager/Saltus*— kontrajarpenarena.

Oso ugariak dira erdigunearen kontzeptuaren agerpenak: sozialak —gu, gaztelaniaz mintzo garenok—, geografikoak —hemen, hirian— eta denborazkoak —oraina—. Erdigunearen aurrean bazterra dugu: soziala —haiek, euskaldunak, atzerritarrak—, geografikoa —menditarrak— eta denborazkoa —iragana edota oraina ez dena: zaharrak, haurrak—.

Erdigunean irudikatzen zuten erdaldunek euren burua, beraz: hirian eta orainean, eta, alde horretatik, *erdigunearen sinbolismoaren* argitara uler ditzakegu haien jarrerren barne motibazioak.

Mircea Eliadek dioenez, mesopotamiar tradizioaren arabera, gizakia unibertsoaren erdian izan zen sortua, paradisuari, luraren zilborrean, eta handik aurrera, kosmogonia eredu hartuta, norberaren hiria munduaren erdian —“el punto en que se unen el cielo y la tierra” (ibid.: 377)— kokatuko zuen jendeak: “Cada ciudad, cada nueva casa construida, significa imitar una vez más y en cierto sentido repetir la creación del mundo. En efecto, toda ciudad, toda morada se encuentra en el «centro del universo»” (ibid.: 380). Espazio transzendente bat da, ez ohiko espazio profanoa, eta horregatik da posible nahi beste erdigune izatea (ibid.: 381). Hor irudikatzen zuen bere burua erdal komunitateak: hirian, munduaren zilbor edo erdigunean, zerua eta lurra elkartzan diren tokian, eta hizkuntza gisa gaztelania zutela, “por ser la lengua primitiva de la Ciudad de Estella” (Jimeno Jurio 1994b: 476), “Ciudad” letra larriaz eta guzti.

Espaziozko erdiguneari denborazko erdigunea gehitzen zaio: oraina. Erdal komunitatearen denbora oraina zen, baina ez garai jakin bati loturiko orain historikoa. Beti zen “orain” beraiantzat, edozein urte edo mendetan hitz egiten ari zirelarik ere, “orain” etik hitz egiten zuten beti, betiereko orainetik (Eliade 1981: 394), eta horrela munduaren espaziozko eta denborazko erdigunean egoteko guraria betetzen zuten: “el deseo de estar siempre y sin esfuerzo en el corazón del mundo, de la realidad y de la sacralidad” (ibid.: 384).

Kontuan hartzeko bigarren elementu mitikoa *hiria/mendia* bikotearen azpian dagoena da. Hiriko biztanleen aurrean menditarrak, euskaldunak, aurkezten zitzaizkigun etengabe. Bereizketa bera egina zuten jadanik erromatarrek: *Ager* eta *Saltus*, baina bere sustraiak oraindik sako-nagoak dira: mendia eta basoa lurralde basatizat hartzen dira, kaosaren pareko: “todas esas regiones salvajes, incultas, etc., están asimiladas al caos: participan todavía de la modalidad indiferenciada, informe, de antes de la creación” (Eliade 1982: 19). Lurralde horiek zibilizatzea, hiria hedatzea, *kaosa kosmos* bihurtzearen sinonimoa zen: “todo territorio que se ocupa con el fin de habitarlo (...) es previamente transformado de «caos» en «cosmos»” (ibid.: 20). Eta zeregin hartan ziharduten

oraindik nafar erdaldunek, mendi aldeko basatiak euskararen kaosetik —Yanguas y Mirandaren “Azpilcueta garaycosaroyaren berecolarrea” gogoan izan— gaztelaniaren kosmosera eraman nahirik.

### 7.3.3 Ideologia edota iritzi arrazoituak

Erdaldunen euskarari buruzko adierazpen ideologiko egituratuen sailera igaroaz, hiru multzo bereizi ditut:

7.3.3.1 XIX. mendeko hizkuntz ideiak.

7.3.3.2 Espainiatik zetozen iritziak.

7.3.3.3 Nafarroan sortutakoak.

Bereizketak alde onak eta alde txarrak ditu. Alde onen artean nagusia garbitasuna dugu, eta horregatik hautatu dut bide hau, ez baitute esanahi bera Nafarroan adierazitako ideia batek, Madrilen adierazitako beste batek edota, adibidez, Londresen adierazitako beste batek. Alde txarren artean bereizketaren artifizialtasuna azpimarratuko nuke, hiru sailletako ideiak elkarri lotuta baitzeuden Nafarrako erdaldunen eta, bereziki, beren eliteen unibertso ideologikoan. Nafarroan iritzi jakin batzuk agertu izanak ez du inolaz ere esan nahi buruan zerabiltzaten ideiak horiek bakarrik zirenik.

#### 7.3.3.1 XIX. mendeko hizkuntz ideiak

3.1 atalean aipatu denez, XIX. mendeko ezaugarri ideologikoen artean etengabeko aurrerapenean sinestea zegoen. Hainbat kultur talde eta hizkuntzaren desagerpena garapenaren truke ordaindu beharreko sari bezala ikusten zen, Frantziako Iraultzatik (ikus 3.4 atala) abiatu zen pentsamolde orokorraren arabera. Gainera, tartean nazioen, edo nazio-estatuaren, bideragarritasuna onartzeko irizpide zorrotzak zeuden: E.J. Hobsbawm historialariak (1991: 40) *atalasearen printzipioa* (“principio del umbral”) deitu duena. Printzipio horren arabera, nazio batek, etorkizuna izango bazuen, gutxieneko neurri bat eduki behar zuen: “Tenía que ser del tamaño suficiente para formar una unidad de desarrollo que fuese viable. Si quedaba muy por debajo de este umbral, no tenía ninguna justificación histórica” (ibid.: 39). Bideragarritasuna, honenbestez, estatu edo nazio handiei eta beren hizkuntzei bakarrik aitortzen zitzaien, ez gutxieneko baldintzak betetzen ez omen zituzten nazio txikiei (ibid.: 43).

*Hizkuntz ideiak* ere funtsean harremanetan zeuden mendeko giro ideologikoarekin. Postulatu nagusien artean *biologi ikuspegia* dugu: hizkuntzek, izaki bizidunek bezala, hazkunde, heldutasun eta heriotza aldiak dituzte. Hizkuntzen heriotza, ondorioz, naturalizat hartu behar

den zerbait bezala aurkezten zen. Horri lotuta A. Schleicher-en hizkuntz darwinismoa eta hizkuntz tipologia hierarkizatua —perfekzioaren eska-  
la, behetik gora: hizkuntza isolatzaileak, eranskariak eta flexiboak—  
ditugu (ikus 5.1.3 atala: Bonapartek Vinson eta Hovelacquerekin izan  
zituen eztabaidak). Oso ideia zabaldu eta ezagunak ziren, onarpen han-  
dikoak, baita euskararen aldeko jarrerak zituzten Elisee Reclus bezalako  
atzerritarren artean ere:

En este siglo de prodigiosa actividad, en que «la batalla de la vida» conde-  
na a la ruina a todos los que se quedan detrás, los Vascos aprenderán ellos  
también, a marchar con paso cada vez más rápido, pero ello será al precio  
de su nacionalidad y de su misma lengua. De su magnífico idioma, clasifi-  
cado entre las cosas del pasado, no quedarán más que léxicos, gramáticas,  
algunas pastorales, malas tragedias modernas y cantos de discutida anti-  
güedad.

(Reclus 1929: 72)<sup>231</sup>

Nafarroa, jakina, ez zen giro hartatik kanpo gelditu, Arturo  
Campionek (1884, “Addenda et corrigenda”: LXIII) bere kritika eginez  
erakutsi zuenez.

Antoine Meillet (1866-1936) hizkuntzalari frantses ezagunak —hiz-  
kuntzaren gizarte-alderdien azterketaren aitzindaria (Cohen 1974,  
Labov 1983, Calvet 1993), bestalde— 1918. urtean, *Les langues dans  
l'Europe nouvelle* zabalpen handiko liburuan —“il s’adresse au grand  
public, et (...) n’enseigne que des doctrines sûres et ne fait connaître que  
des faits exacts et bien contrôlés” (Lacombe 1920: 68)—, euskara  
“Europa berrian” tokirik gabe utzi zuenean, zer egiten ari zen, zientzia  
ala denen gogoan zeuden ohiko uste arruntak bere izenaren autoritate-  
an babestu eta hizkera zientifikoaz jantzita —Bourdieuaren mitologia  
“zientifikoa”— errepikatu eta iritzi publikoan finkatzea?:

À aucun moment, le basque n’a fourni une langue véritablement littéraire;  
à aucun moment il n’a exercé d’action au dehors. Le vocabulaire basque a  
emprunté beaucoup de mots aux langues voisines; il ne leur en a fourni à  
peu près aucun.

Témoin d’un état de choses ancien, objet d’observation intéressant pour le  
linguiste, le basque n’a guère d’importance politique. Les personnes culti-  
vées qui parlent le basque sont bilingues, et leur langue de civilisation est  
ou le français ou l’espagnol. Le basque n’est donc qu’un ensemble de par-  
lers locaux, servant surtout aux relations locales. Il accentue le caractère

231. Reclusen iragarpenen onarpen akritikoaren adibide berria Lopez Anton-en  
hitz hauek ditugu: “Quizás se hagan realidad las palabras de Reclus. Inmersos en la  
civilización occidental, los valores del pueblo vasco están condenados a esfumarse”  
(1996: 112).

particulariste de ceux qui le parlent, sans servir d'organe à une nation ayant conscience d'elle-même. Il n'est qu'une survivance curieuse.

(Meillet 1918: 53-4)<sup>232</sup>

XIX. mendeko —eta XX.aren hasierako— pentsamendu korronte ia guztiek ideia horietatik edan zuten hizkuntzei buruzko jarrerak zehazterakoan. Mende hauetako bilakaeraren iturburuan zegoen Frantziako Iraultzaz —argudio ia guztiak han entzun ziren jadanik— eta nazio-estatu ena ikuntzaren hizkuntz ideologiaz luze mintzatu gara jadanik (ikus 3.4 atala). Oraingoan, labur-labur, pentsamendu *liberala*, Iraultzaren oinordekoa, eta *sozialista* aipatuko ditugu.

*John Stuart Mill* ingelesak, ideologia liberalaren adierazlerik handienetako batek, hauxe aholkatu zien bretoi eta euskaldunei 1861. urtean:

La experiencia prueba que es posible a una sociedad fundirse y absorberse en otra; y cuando esta nacionalidad era originariamente una porción inferior o atrasada de la especie humana la absorción es muy ventajosa para ella. Nadie puede dudar de que no sea más ventajoso para un bretón o para un vasco de la *Navarra* francesa ser arrastrado en la corriente de ideas y de sentimientos de un pueblo altamente civilizado y culto —ser miembro de la nacionalidad francesa (...)—, que vivir adheridos a sus rocas, resto semisalvaje de los tiempos pasados (...). La misma consideración es aplicable al galo o al escocés de las montañas como miembro de la nación británica.

(etzana nirea da) (J.S. Mill 1985: 185)

Beste mutur ideologikoan ere, sozialisten artean, iritzi bera zen nagusi. Horrela, *Engels* alemanaren ustez, euskaldunak, eskoziarrak eta bretoiak bezalaxe, historiak deuseztatutako herri hondakinak ziren, beren erabateko desagertzea burutzear zegoen eta, bitartean, kontrairaultzaren jarraitzaile fanatikoak baizik ez genituen:

No hay ningún país europeo que no posea en cualquier rincón una o varias ruinas de pueblos, residuos de una anterior población contenida y sojuzgada por la nación que más tarde se convirtió en portadora del desarrollo histórico. Esos restos de una nación implacablemente pisoteada por la marcha de la historia, como dice Hegel, esos desechos de pueblos, se convierten cada vez, y siguen siéndolo hasta su total exterminación o desnacionalización, en portadores fanáticos de la contrarrevolución, así como toda su existencia en general ya es una protesta contra una gran revolución histórica. Así pasó en Escocia con los gaélicos, soporte de los Estuardos desde 1640 hasta 1745. Así en Francia con los bretones, soporte de los Borbones

---

232. Meilleten iritzia baino harrigarriagoa da oraindik Georges Lacombe bezalako baten gorai-pamena: “Par ces citations [ez bakarrrik nik jasotakoengatik, jakina], on peut voir avec quelle mesure, vraiment scientifique, les problèmes basques sont posés dans cet ouvrage” (1920: 69).

desde 1792 hasta 1800. Así en España con los *vascos*, soporte de Don Carlos.

(etzana nirea da) (Engels. *Aus dem literarischen Nachlass* III: 241.  
Aipatua in Rosdolsky 1981: 105)

Engels eta John Stuart Mill-ek, tankera bereko iritziak adierazteaz gain, ezaugarri bat zuten komun: hizkuntza nagusietako hiztunak ziren, hizkuntza ez-ofizialekiko “erdaldunak” esan genezake, eta arrotasun nabaria dario bien hitzen doinuari.

Beste marxista bat *Karl Kautsky* (Praga, 1854-Amsterdam, 1938) txekiarra dugu. Ama hizkuntza, beraz, txekiera zuen, alemanaren mende zegoen hizkuntza. Kautskyk ere “zentzu komunez” beteriko ideiak adierazi zituen, Engels eta J.S. Millen antzekoak, baina doinua, aldiz, oso desberdina zen, bere ama hizkuntzari buruz ari zelako, ziur aski:

En la actualidad, para ser una persona «cultivada», para participar plenamente en la vida económica e intelectual moderna, resulta indispensable entender, y si es posible hablar, además de la lengua materna, al menos una segunda lengua, una lengua mundial. (...). Las lenguas nacionales estarán cada vez más limitadas al uso doméstico e incluso tenderán a jugar el mismo papel que un viejo mueble de familia que se conserva con veneración, pero que no tiene gran utilidad práctica.

(Karl Kautsky 1887. *Die moderne Nationalität*. Aipatua in Askoren Artean 1976: 58)

Horrelako molde ideologikoekin bat ez zetozenak herri menderatuetako mugimendu abertzaleak, alde batetik, eta pentsamendu tradizionalista, bestetik, ziren. Lehendabizikoez, 8. kapituluan jardungo dut. Tradizionalismoari dagokionez, hitz bi esango ditut.

*Tradizionalismo* —edo erreakzio, edo absolutismo— bezala Ilustrazioaren idealen, Frantziako Iraultzaren eta, oro har, liberalismoaren aurka XIX. mendean Europan altxatu ziren korronte eta joerak, oso heterogenoak, bestalde, ezagutzen ditugu. Bere ezaugarri nagusietako bat Eliza katolikoaren eragina dugu. Inon babesa aurkitu bazuten Estatu espainolean izan zen. Eta Estatu espainolean Euskal Herria nabarmendu zen —Gipuzkoan, adibidez, “La ideología dominante conservadora-tradicional se populariza, se hace «sentido común»” (Castells 1987: 469)— eta, zehazkiago, Nafarroa, foralkatolizismo deitutakoari hasiera emanez (Mina 1985: 118).

Historialari gehienekin batera, tradizionalistek herri hizkuntzak begi onez ikusteko joera izan zutela esan daiteke orokorrean. Horrela egin zuten Iraultza Frantsesari aurre egiterakoan, dagoeneko ikusia dugunez, eta berdin gertatu zen XIX. mendean zehar ere. Liberalismoaren aurkako borrokan, lotuta agertzen zitzaizkien nonbait erakunde, ohitura eta hizkuntza tradizionalak. Alde honetatik ulertzen da herri hizkuntzek Eliz(ar)en inguruko taldeetan aurkitu zuten babesa: “The Churches had

played a pioneering role in the use and development of vernaculars, and it was the circles close to them that were often the most ardent political defenders” (Vilfan [arg.] 1993: 295-6). Erabili zituzten argudioen artean garrantzi handia hartu zuen herri hizkuntzei ideia berrien aurkako hesi gisa egozten zitzaizen zereginak.

Praktikan, hala ere, tradizionalismoa herri hizkuntzen alde egon zela baieztatzea ez da hain erraza<sup>233</sup> eta tradizionalismoa eta herri hizkuntzak lotzen dituen binomioan ez ote garen oraindik 1789ko iraultzako klitxearen —“ces jargons barbares et ces idiomes grossiers qui ne peuvent plus servir que les fanatiques et les contra-révolutionnaires!” (Barere, 1794)— oihartzunak entzuten galdetzea zilegi da. Nafarroaz eta Estatu espainolaz aritzean ikusiko dugunez, ugariak izan ziren gaztelaniaren aldeko jarrerak bai Elizan eta bai intelektual eta politiko kontserbadore eta tradizionalisten artean ere, ez soilik liberalen edo modernitatearen aldarrikatzaileen artean. Maiz, arestian esan bezala, erabakigarriena pertsona eta taldeen herri hizkuntzekiko sentiberatasuna izaten zelakoan nago, ez erreferentzia ideologiko hutsak.

### 7.3.3.2 *Espainiatik zetozen iritziak*

Europatik bezala, Espainiatik ere edaten zuten nafar erdaldunek, eta hor ondorengo ezaugarri hauek zituen diskurtsoa —eta praktika— aurkitzen zuten.

(1) Nazioa Espainia da, eta gaztelania, edo espainola<sup>234</sup>, bere hizkuntza. Guztiak ziren iritzi horretakoak, eta baita tradizionalistak<sup>235</sup> ere. Menendez Pelayok, liberalen erdirakoitasuna sutsuki salatu zuenak berak ere espainiar batasuna aldarrikatu zuen oraindik sutsuago. Batasunaren osagai nagusia erlijioa —“la unidad de la creencia” (1956, II: 1.192)— zen bere ustez, baina erlijioarekin batera hizkuntz batasuna dugu, Erromari zor zaiona: “Roma (...) nos da la unidad de lengua (...). España debe su primer elemento de unidad en la lengua, en el arte, en el derecho, al latinismo, al romanismo” (ibid.: 1.192).

233. Miquel Siguan-en ustez, esate baterako, karlismo espainolak ez zuen herri hizkuntzen alde egin, sustraiak berezko hizkuntzak zituzten lurraldeetan izan arren: “Y lo que es más sintomático todavía, (...) el movimiento tradicionalista, más conocido por carlismo, (...) tampoco asumió la defensa de estas lenguas. Ello es tanto más significativo en tanto que el carlismo se opone en redondo a la concepción del estado moderno (...) en nombre de un régimen monárquico basado en la tradición, la fe religiosa y los «fueros» o leyes tradicionales” (1992: 30-1).

234. Espainiako hizkuntza nola izendatu, gaztelania ala espainola, zehaztu nahian 1918tik —Menendez Pidalen “La lengua española” artikulua— aurrera izan ziren eztabaidetarako, ikus Gonzalez Olle (1978).

235. Gogoan izan tradizionalismoa espainiar nazional-katolizismoaren abiapuntuan ere bazegoela (ikus 3.1 atala).

(2) Euskara —eta katalana eta galiziera— erabiltzea debekatuta zegoen arlo ofizial guztietan: irakaskuntza, administrazioa, justizia (Gorostidi 1883), e.a. Esparru horiek guztiak beraientzat bakarrik gordetzen zituzten erdaldunek, askotan aipatuak (Euskaltzaindia 1977, adibidez) izan diren lege, dekretu eta aginduen arabera, eta berdin segitzen zuten gauzek 1923. urtean: “en los actos oficiales (...) no podrá usarse por las personas investidas de autoridad otro idioma que el castellano, que es el oficial del Estado español” (1923-09-18ko Errege-Dekretua. Aipatua in Gonzalez Olle 1978: 238).

(3) Euskararen goresmena. Diskurtso nagusia, Frantziako Iraultzan ez bezala, euskararen goraiatzearena izaten hasi zen 1870eko hamarkadan: Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko hizkuntz mugimenduek eraginda, eta gaztelaniaren nagusitasuna bermatuta ikusten zuen bitartean, erdal gizarteak ez zuen euskararen, gure kasuan, lausenguzko hitzak adierazteko arazo handirik izan. Ez da berdin diskurtso mota bat edo bestea izatea, oso ondorio desberdinak ditu euskararen alde edo kontra hitz egiteak —aldeko hitzak entzunda, bihotz hartzen zuten garaiko mugimendu euskaltzaleek— eta, alde horretatik, Espainiatik zetorren ageriko diskurtso nagusia aldekoa zela kontuan hartu beharrekoa da.

Begirune handiaz mintzatu zen Canovas del Castillo (1873) euskarari buruz<sup>236</sup> hizkuntza honek orduan plazaratzen zituen arazo linguistiko eta filologikoak argitu nahian. Errespetua egungo kritika desmitologizaleak maiz barregarritzat jo dituen euskalaritza historikoko autore edo lanei ere saiatu zen hedatzen. Horrela, Larramendi, “con toda la estimacion y respeto que sin duda merece” (ibid.: XXIII) aipatu zuen, eta berdin Pablo Pedro Astarloa, “escritor bastante estimado, no solamente en España, sino en Francia” (ibid.: XVII).

Diskurtso berri hau nabarmen agertu zen Espainiako Hizkuntz Akademiaren<sup>237</sup> 1882 eta 1883. urteetan aita Fidel Fita eta Victor Balaguer katalandarrak izendatu zituzten Akademiako kide. Lehenengoa euskarari buruz mintzatu zen sarrera hitzaldian eta bigarrenak erregio-hizkuntza eta literaturen garatu beharra hartu zuen hizketagai. Haien hitzaldiak

236. Euskarari buruzko begirunea diot, Foruak eta, oro har, Euskal Herriak XIX. mendean zehar Estatu espainiarrarekiko erakutsi zuen portaera, ordea, gogorki kritikatu baitzituen Canovasek, arestian aipatu bezala.

237. Jose Manterolaren ustez: “La Academia española había mirado hasta hace poco con soberano desdén cuanto hacía relación á las lenguas y las literaturas regionales, siguiendo tradiciones, rancias ya, pero no por eso menos arraigadas, y mirando, quizás, la cuestión, bajo el cenico aspecto de que esas lenguas y esos dialectos mermban la absoluta soberanía del idioma castellano y eran un obstáculo á su completo dominio” (1883: 220).



bezain esanguratsua izan zen Emilio Castelar-ek<sup>238</sup> —I. Errepublikako azken presidentea, denetan kontserbadoreena— Akademiaren izenean Balaguerra egin zion erantzuna:

Nosotros, encargados por la sociedad española de conservar su lengua, no pretendemos suprimir las variedades engendradas por el movimiento eterno y el múltiple desarrollo de la vida. (...). Suprimir lo vario, porque lo uno existe, sería como suprimir las naciones porque la humanidad existe; ó como suprimir los individuos, porque á su vez existen las naciones. (...). ¿Quién será osado á proponer que desaparezcan lenguas tan primitivas como el vasco, tan tiernas como el gallego, tan dulces como el bable, tan músicas como el valenciano, tan vigorosas y onomatopéyicas como el catalán?

(Castelar, 1883-02-25ko hitzaldia. Aipatua in Manterola 1883: 221)

1887. urtean Maria Kristina erreginordea eta Sagasta presidentea izan ziren euskararen alde hitz egin zutenak, Iruñera egindako bisitaldian. Euskara elkartearen ordezkariekin bildu ziren eta hauek bihotzez eskertu zituzten haien hitzak: “En representación de la Sociedad Euskara de Nabarra traemos á los piés de V. M. la más respetuosa expresion de la gratitud inmensa que sienten todos los leales Euskaldunas por la inspiración felicísima que tuvo V. M. al poner en sus augustos labios la lengua bascongada” (La Asociación Euskara de Nabarra. *Euskal-Erria* XVII, 1887, 286). Egun berean, 1884. urtean Fomentoko ministroari aurkeztutako euskara irakaskuntzan bultzatzeko neurrien proposamenaren (ikus 8. kapitulua) kopia bat eman zioten Sagasta presidenteari, eta honek “acogió muy favorablemente esta representación” (ibid.: 287). *Euskal-Erria* aldizkariaren iritziz, ezin pozgarriagoa izan zen erreginordearen bidaiaren balantzea: “El país euskaro no olvidará nunca el aprecio que le dispensó tan nobilísima Señora al dedicarse al estudio del bascuence” (SS. MM. en la *Euskal-Erria*. Ibid.: 283).

Hurrengo hamarkadetan ez zuten diskurtsoa aldatu eta horren erakuslerik adierazgarriena Alfontso XII.ak 1918. urtean Eusko Ikaskuntzaren I. biltzarrean euskararen alde esan zituenak ditugu:

Cultivad vuestra lengua, el milenario y venerable euskera, joya preciadísima del tesoro de la humanidad, que habéis recibido de vuestros padres y debéis legar, incólume, á vuestros hijos.

(G. Mujika 1919. El Primer Congreso de Estudios Vascos. *RIEV* X, 104)

---

238. Ezagunak dira Castelarren espainiar nazioaren aldeko aldarrikapenak: “la Patria es nuestra Nación. (...). Es un organismo superior, es una personalidad altísima, es un espíritu más elevado... una dilatación del ser y de la vida. (...). Y su espíritu, el espíritu nacional, es como una atmósfera que envuelve nuestra alma. ¡España, madre mía!” (Castelar 1870. In Vilar 1984: 12).

(4) Euskara filologi ikergai gisa. Zalantzagarrria izan zitekeen euskararen modernitaterako gaitasuna, baina, aintzinako hizkuntza agurgarri horri inork ukatzen ez ziona filologi balioa zen.

Horrela aitortu zuen Espainiako Hizkuntz Akademiak euskararen balio filologikoa 1883. urtean, Aizkibelen hiztegiari buruzko txostenean, are gehiago gaztelaniaren iturrietako bat euskara dela jakinik: “de todos estos idiomas, el que más despierta hoy la curiosidad de los etnógrafos y filólogos, y el que menos conocido y estudiado está en España es el bascuence. (É) esta lengua es anterior á la griega, á la latina, y aun quizá á la hebraica y *radical importante de la española*. Lo que es para esta Academia de mayor peso” (jasoa in Gorostidi 1903: 35).

Euskararen balio filologiko-zientifikoaren aitortpena bi ahoko argudioa zen. Alde batetik, euskararen alde ziharduten lagunek gogoz hartzen zuten aitortpen hori, bertan euren lanaren babeserako argudioak berrindartzen baitzituzten. Baina, bestetik, izkutuko mezua ere iradokitzen zen, Gregoire abadeak Iraultza Frantsesean aurreratu zuen bezala: balio zientifikoa bazuen euskarak, baina mundu berrirako gaitasunik ez, ordea.

Espainiako Hizkuntz Akademiak egin ez zuen aurkakotasuna —zibilizazio mundurako eta filologiarako balioak— beste batzuek plazaratu zuten.

1879. urtean, Elizondoko Euskal Jaietan euskararen aldeko lanean nabarmendu ziren maisu-maistrei eskaini zitzaizen saria zela-medio sortu zen eztabaidan, *El Magisterio Español* aldizkariak ez zuela arazorik ikusten esan zuen, baldin eta euskara irakasten sartutako ahaleginak “no han sido óbice al cumplimiento de los deberes que su cargo le imponga, revistiendo un carácter privado y guiados por un *interés puramente filológico*” (etzana nirea da) (aipatua in Iturralde y Suit 1879: 318). Oraindik argiago mintzatu zen Unamuno 1901. urtean: “¿Y el vascuence? ¡Hermoso monumento de estudio! ¡Venerable reliquia! ¡Noble ejecutoria! Enterrémosle santamente, con dignos funerales, embalsamado en ciencia; leguemos a los estudios tan interesante reliquia” (1968: 243).

(5) Goraipamenek ez zuten inolako gauzatze praktikorik izaten. Bi adibide jarriko ditut. Maria Kristina eta Sagastaren 1887ko hitz gozoak, goian aipatutakoak, Euskara elkarteak 1884. urtean euskara irakaskuntzan sartzeko egin zuen eskariaren erantzuna izan ziren, nonbait. Hiru urte igarota zeuden jadanik eskakizuna aurkeztu zenetik eta aurrerantzean ere, erreginordearen eta presidentearen agintza tartean izan arren, berdin segituko zuten, batere aurrerapenik egin gabe.

Halaber, 1881. urtean Amerikanisten Biltzarra (“Congreso de Americanistas”) bildu zen Madrilén. Besteak beste, Gobernuari unibertsitate mailako euskara katedra sortzeko eskatzea erabaki zuten (La enseñanza del bascuence en la Facultad de Letras. *Euskal-Errria* XXXIX, 1898, 340). Urteak joan eta urteak etorri eta 1898.ean oraindik zain

zeuden Euskal Herriko euskaltzaleak: “hacemos fervientes votos por que la petición del Congreso de Americanistas alcance hoy cumplida satisfacción, siquiera sea al cabo de diez y ocho años” (ibid.: 341).

(6) Noizean behin, gaztelaniaren gorazarre eta euskararen, edo Penintsulako beste hizkuntzen, aurkako erasoak irakurri ahal izaten ziren. Kuantitatiboki, gutxi eta maiztasun baxukoak ziren. Ageriko diskurtso nagusia bestelakoa zen, ikusi dugunez, baina euskararen aurkako adierazpenek zenbaki hutsek erakusten dutena baino balio kualitatibo handiagoa ez ote zuten susmoa izatea zilegi da nire ustez.

Justo Barbagero Santo Domingo de la Calzada-ko abateari euskarazko elizkizunak guztiz kaltegarriak iruditzen zitzaizkion espainiar batasunarentzat 1861. urtean:

Teniendo los vascongados obispos de su habla, cabildo y párrocos de su habla, pastorales, sermones, libros en su habla, se aferrarán más y más en ella (...) haciendo de ella una lengua nacional; y (...) se habrá contribuido a formar en España una nacionalidad distinta, y una base de separación política para los que más adelante quisiesen invocar el principio de las nacionalidades.

(Justo Barbagero 1861. Aipatua in Garmendia 1985: 430-1)

Halaber, gogor mintzatu zen Huescako *La Asociación del Magisterio* aldizkaria Elizondoko Euskal Jaietan euskararen alde lan eginak ziren maisu-maistrei saritu nahi zitzaizela jakin zuenean:

Entendemos que ningún Maestro de Escuela puede ni debe hacer poco ni mucho sino en favor de la lengua española que tiene obligación de enseñar so pena de colocarse en una actitud facciosa para con las leyes del país, sirviendo causas que rechazan el interés de la patria y las aspiraciones del mundo en que vivimos.

(*La Asociación del Magisterio* 1879. Aipatua in Iturralde y Suit 1879: 317)

Azkenik, beste ikuspuntu batetik argudiatuta, ez omen zuen Benito Perez Galdos idazleak oso begi onez ikusten katalanezko literaturaren garapena, Oller idazle katalanari adierazi zionez:

No puede Ud. figurarse el desconsuelo que siento al ver un novelista de sus dotes, realmente excepcionales, escribiendo en lengua distinta del español (...). La admiración que siento por Ud. es bastante grande para hacerme desafiar las asperezas de una lengua [katalana] cuyas bellezas no entiendo y cuya resurrección como lengua literaria no me explico (...). El castellano es la lengua de los dioses (...). El catalán, por lo poco que yo entiendo de él, no tiene construcción propia (...) La sintaxis, la construcción, son las nuestras.

(Perez Galdos. Aipatua in Azurmendi 1992b: 218)

(7) Aipamen berezia merezi du Unamunok. Bere ideien bilakaeraren konplexutasunean sartu gabe<sup>239</sup>, eta Espainiatik zetozen iritzien sailean ongi sailkatuta ote dagoen kontua alde batera utzita, euskarari buruz zabaldu zituen iritziak oso ezagun eta eraginkorrak gertatu dira.

Idea bat azpimarratu nahi dut: Unamunoren orijinaltasuna ez zegoen erabili zituen argudioetan, hauek, berehala ohartuko garenez, XIX. mende osoan etengabe errepikatzen joan zirenak baizik ez baitziren<sup>240</sup>. *Orijinaltasunaren gakoa* bestelakoa zen: Estatu espainolean eta Euskal Herrian inor esatera ausartzen ez zena berak adierazi zuen. Ageriko diskurtso nagusia, ikusi dugunez, euskararen goraipamenarena zen eta hor Unamunorenak bezalako hitzek toki txikia zuten... Unamuno agertu arte.

Bere planteamenduaren muina, 1890eko hamarkadako edo mende hasierako idazkietatik 1930eko hamarkadako Gorteetako eztabaidetan egin zituen hitzaldietaraino, ez zen kasik aldatu tarte luze horretan.

Hona hemen bere ideien laburpentzat har daitezkeen zati zenbait, gehienak Bilboko 1901eko Lore Jokoetako hitzalditik eta hitzaldiaren oihartzunen harira Madrilgo *El Imparcial* egunkarian argitaratu zuen artikulutik hartuta:

El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida. (...). En el milenario eusquera no cabe el pensamiento moderno; Bilbao, hablando vascuence, es un contrasentido. (...). Nuestra alma es más grande ya que su vestido secular: el vascuence nos viene ya estrecho; (...), rompámosle. Hay además, una ley de economía, y es que nos cuesta menos esfuerzo aprender el castellano que transformar el vascuence, que es un instrumento sobrado complicado y muy lejos de la sencillez y sobriedad de medios de los idiomas analíticos. (...) la vida nos trae la pérdida del vascuence.

(1968: 242-3)

Gogor gaitzetsi zituen euskara estandarizatzeko ahaleginak, biziberritzen saiatu beharrean, hilik zegoela onartu, zientziaz baltsamatuta lurperatu eta filologoei utzi behar zitzaie aldarrikatuz (ibid.: 253-4). Berrito 1920. urtean, euskararen batasuna gaitzetsi eta ondorio bera errepikatu zuen: “En vascuence no se puede pensar con universalidad. Y

---

239. Asko esan da Unamuno eta euskara gaiari buruz. Zerrenda agortu gabe, ikus, besteak beste, Gonzalez Olle (1978), Ugalde (1979), Tovar (1980), Juaristi (1987) eta Zulaika (1996), bakoitzak Unamunoren alderdi desberdin bat landuz.

240. Beste lagun batzuek jadanik erabiliak zituzten argudio berberak errepikatzea izan zen, hain zuzen ere, *Lau-Buru* egunkarian 1886. urtean Unamunori leporatu zioten akatsa: “Sus artículos de la *Revista de Vizcaya* (...) son una triste rapsodia de lo que han dicho los Hovelacque, los Vinson, los Van Eys, cien y cien veces refutados” (Ciencia anti-patriótica. *Lau-Buru*, 1886-04-17).

el pueblo vasco, cuando se eleva a la universalidad, lo hace en español o en francés” (ibid.: 272).

Euskal Herriarentzako alternatiba Espainiar arrazaren baitan irudikatzen zuen:

(...) saludemos a las castas y regiones todas que componen la común patria histórica, España, y a los pueblos todos que en ambos mundos, en robusto romance castellano, sus pensamientos encarnan; hagamos votos porque este nuestro pueblo vasco, vertido en la gran raza histórica de lengua española, raza en vías de formación, sea mañana en ella fermento (...).

(ibid.: 248)

Beraz, zeharo ezagunak suertatzen zaizkigun XIX. mendeko ohiko arrazoibideak gehi espainiar nazionalismoa, horixe zen Unamunoren euskarari buruzko diskurtsoa. Berritasuna Unamuno batek ozenki aldarrikatu izanak eman zion. Eta indarra, aldiz, bi faktorek eman zioten: Unamunok berak —garaiko kulturaren zuen ohorezko tokiagatik eta, gainera, bilbotarra izanik— alde batetik, eta, bestetik, hainbat lagunek isilean pentsatzen zutenarekin bat egin izanak, orduko zentzu komuna jantzi zientifikoaz jendaurrean adierazten ausartu izanak, alegia.

Gogoan izatekoak dira, bestalde, *Ramiro Maeztu* arabar monarkiko eskuindarrak Unamunori eskaini zizkion txalo beroak:

Largo tiempo durarán en Vizcaya los comentarios al discurso de Unamuno, y en España, las discusiones que provoquen los primeros Juegos Florales de Bilbao. El discurso, como la grave encina castellana, inmóvil al viento, de que hablaba el autor, resistirá a cuantos embates le dirijan prejuicios fustigados y envidias mal ocultas. (...). Largo tiempo se hablará en España del vizcaíno que ha dado la nota española más valiente en estos tristes tiempos de fraccionamientos y desgracias.

(Ramiro Maeztu 1901. Jasoa in ibid.: 248-50)

Gogoan izatekoak diot, berriro ere ikusten dugulako intelektual tradizionalista bat modernitatearen izenean egiten ziren planteamendu erdaltzaleen alde agertzen.

### 7.3.3.3 Nafarroan sortutako iritziak

Behin XIX. mendeko giro orokorra eta Espainiako diskurtsoa ezagutu eta gero, Nafarroan bertan sortutako iritziatarara joko dugu, jakinik Nafarroako erdal komunitateko kideen hizkuntz pentsamoldea ez zela bertan adierazitako ideietara mugatzen, euren burua Espainia eta Europako unibertso ideologikoan kokatu eta handik edaten zuten eta.

Euskarari buruz, hiru diskurtso mota agertzen zituen Nafarroako erdal komunitateak: (1) “isiltasunaren diskurtsoa”, (2) euskararen goraipamena eta (3) euskararen aurkakoa, oso-oso gutxitan eta zeharka baizik azaltzen ez zena.

Zer esan nahi dut horrekin? Euskararen gaia ateratzen zen gehiengotan, idatzi mailan batez ere, hizkuntzaren aldeko hitzak esaten ziren Nafarroan. Ia inork ez zuen euskararen aurka hitz egiten, baina, beharbada, toki nagusia ez zuten ez batak eta ez besteak, isiltasunak baizik. Nabaria da nafar erdaldunen sakoneko usteen —7.3.2 atala— eta adierazpen idatzien arteko ezadostasuna, eta arazoaren konponbidea isiltasunaren esanahiaren azterketak ematen digu neurri batean. Bestela, soilik Diputazioaren, prentsa-aren edota bestelako erakundeen ageriko azalpenetan geldituz gero, euskararen historiografian maiz gertatu den bezala, gauzak argitu baino gehiago nahasi egiten zaizkigu.

Nafarroako erdal komunitateak euskarari buruz adierazten zituen jarrerak ulertzeko arestian aipatutako elementu hauek eduki behar ditugu gogoan: nagusitasun sentimendua, axolagabekeria orokorra, pentsamendu erreakzionarioaren herri hizkuntzak begi onez ikusteko joera eta euskara modernitatearen eraginez desagertzen ari zen bazterreko hizkuntzat hartzea.

### *Isiltasunaren diskurtsoa*

Isiltasunaren diskurtsoa esatean ideia simple bat adierazi nahi dut: gai bati buruz hiru gauza egin dezakegu: alde hitz egin, aurka hitz egin edo... ez hitz egin —edo, beste gai batzuen aldean, konparatiboki oso gutxi—. Aldeko eta kontrako hitzak zerbaiten adierazgarri diren era berean, gaia ez aipatzeak ere bere esanahia du. Hauxe da, hain zuzen ere, garaiko iturriak —prentsa, argitalpenak, artxiboak...— miatuta gertatzen zaiguna: euskararen gaia atera bai, ateratzen zen, baina gehien harritzen gaituena ez da hau edo beste esan izana, *agerpenen urritasuna* baizik. Iritzi subjektiboa da hau —objektiboki frogatu ahal izateko gai bakoitzaren agerpenen frekuentzia neurtu beharko genuke—, baina badu oinarririk nire ustez. Arestian esan dut euskara urrun gelditzen zitzaiela nafar erdaldunei, eta horrek isla zuzena izan zuen isiltasunaren diskurtsoa deitu dudanean. Mezu mota bat zen hori, zalantzarik gabe, zabalduena, azken finean, eta, horregatik, euskararen bilakaera sakonki ulertu nahi badugu, guztiz garrantzitsua zaigu gogoan izatea.

### *Euskararen hitzezko goraipamena, baina hoztasun praktikoa*

Hitzik esan gabe euskara ez zitzaiela gehiegi ardura erakusten bazuten, Nafarroako erdaldunen hitzezko adierazpenetan, aldiz, euskararen goresmena izan zen nagusi aztertutako aldi osoan, Espainia mailan baino gehiago oraindik.

Denboran atzerago egin gabe, aipatuko dudan aurreneko lekukotasuna 1866koa dugu, Nafarroako Diputazioak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioei zenbait egitasmo —tartean euskal unibertsitatearen sorrera— proposatuz igorri zien agirikoa. Bertan, Hegoaldeko

probintzien batasun izpiritua gogoratu ondoren, hauxe zioen euskarari buruz:

El idioma vascongado, que es su lenguaje primitivo y general, se conserva y se conservará perpétuamente en este país y servirá de glorioso escudo al pueblo euskaro para preservarse de las venenosas doctrinas que esparce con inquieta mano por todos los ámbitos del mundo el espíritu revolucionario.

(Nafarroako Diputazioa 1866. Aipatua in Nombela 1868: 83)

Diputazioaren izenean, sinatzaileak Nicasio Zabalza (karlista) (García Sanz 1996: 58), Fortunato Fortun (kontserbadorea) (ibid.: 56), Alberto Calatayud (karlista epela?) (ibid.: 105) eta Juan Cancio Mena (liberal-kontserbadorea, gero karlista bihurtua)<sup>241</sup> izan ziren.

Agiri honetan gero etengabe errepikatuko ziren hiru ezaugarri nagusi aurkitzen ditugu jadanik: euskararen laudorioak, euskara ideia berrien aurkako hesi bezala aurkeztea eta, hirugarrena, idazkia liberal-kontserbadoreek eta karlistek batera egina izatea, hau da, Nafarroako eremu politikoa ia osoki betetzen zuten indarrak formalki euskararen alde agertzea.

Diputazioaren agiria pentsamendu kontserbadore-tradizionalistaren hizkuntzei buruzko jarreraren oihartzun garbia da eta doinu bereko aldarrikapenak maiz irakurri ahal izan ziren hurrengo hamarkadetan ere.

*Karlistentzat*, “la lengua vasca es un medio eficaz de proteger al País Vasco del veneno liberal y de las ideas nocivas” (Garmendia 1985: 426). Iritzi berekoa zen Jose Sanchez Marco buruzagi *integrirista* 1906. urtean: “Mientras se conserve la lengua tendremos una barrera que defienda nuestro espíritu, nuestro modo de ser, y nuestras instituciones tradicionales” (aipatua in Castells 1987: 401, 234. oin-oharra). Baina karlisten euskararekiko jarrera, alde batetik, ez zen uste bezain aldekoa izan, eta, bestetik, euskararen aldeko hitzak ez ziren bakarrik karlista eta integriristen kontua, Nafarroako gizartearen jarrera orokorra baizik: “la defensa de las costumbres, lengua, tradiciones y derechos era una postura general” (Fernandez 1990: 229).

---

241. Biografia paradigmaticoa da Juan Cancio Mena-rena (Iruñea, 1834-1916). Itzal handiko laguna genuen Nafarroan: Diputazioko idazkaria 1864-1869 bitartean, Iruñeko abokatuen elkargoko dekanoa, Merkataritza Eskolako zuzendaria, hainbat meatzeren jabea, eta abar. Politikoki, agiria sinatu zuenean liberal-kontserbadorea zen, baina aro desberdinak izan zituen bere bilakabidean, beti katoliko-kontserbadorea izan arren. Hasieran liberal-kontserbadorea —“declaró que sus principios eran «monárquico-constitucionales y con criterio conservador»” (García Sanz 1992: 128, 312. oin-oharra)— eta *Iruñac Bat* aldizkari liberalaren laguntzailea. Gero karlista egin zen, 1877ra arte. Karlista bezala oso ezaguna izan zen eta horregatik, agian, karlistatza hartua izan da besterik gabe (Garmendia 1985: 426). 1881.ean Euskara elkarteko juntakidea zen (Batzarre del 2 de Enero de 1881. *Revista Euskara* IV, 1881: 4). Beranduago *El Eco de Navarra* egunkari kontserbadorearen zuzendari izendatu zuten.

1896. urtean, esate baterako, *liberal-kontserbadoreen* gehiengo zuen Diputazioak gartsuki aitortu zuen euskararenganako maitasuna:

(...) la Diputación de Navarra, la cual por la conservación y lustre del milenario idioma bascongado experimenta ese profundo y dulcísimo sentimiento con que los buenos hijos contemplan las cosas que íntimamente tocaron á sus padres y constituyen el tesoro de venerables reliquias familiares.

(NAN, Diputazioaren Aktak, 1896-01-11ko bilera)

Diputazioa, oro har, euskararen alde agertzen zen hitzez, Garcia Sanzek (1992: 143, 354. oin-oharra) esan duenez: “la Diputación navarra, al menos en teoría y sobre todo cuando estaba en manos de los tradicionalistas, mostrará gran interés por la supervivencia del vascuence al considerarlo un valladar contra la propagación del liberalismo, etc.”.

*Praktikan*, ordea, *hoztasuna* zerion maiz Diputazioari<sup>242</sup>, baita tradizionalisten esku zegoenean ere. 1908. urtean, adibidez, kexu agertu ziren *Euskal-Esnalea* elkarteko kideak Elizondon egin zuten biltzarre handira Diputazioko —4 karlista, 1 integrista, 1 kontserbadore, 1 independiente (Garcia Sanz 1992: 338-44)— inor azaldu ez izanaz: “En el mismo *batzarre* de Elizondo, ni el Sr. Presidente de la Diputación Foral D. Manuel Albistur<sup>243</sup>, ni su compañero en la representación del distrito D. Felix Amorena, ni el Sr. Martinez, Diputado por Estella, miembros los tres de una corporación que es el superior jerárquico de los municipios navarros, tuvieron á menos de adherirse á la asamblea” (Nota discordante. *Euskal-Esnalea* 1908, 154).

Antzeko zerbaít gertatu zen 1918. urtean, ez Diputazioa —4 liberal, 2 karlista, 1 integrista (Garcia Sanz 1992: 272)— ez Iruñeko apezpikua ez baitziren Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzarraren amaierako ekitaldira agertu, biak antolatzaileak izan arren, urruntasun nabarmena erakutsiz.

242. Arturo Campion eta Euskara elkarteko kideek maiz salatu zuten Diputazioaren hoztasuna eta egungo zenbait autorek ere (ikus, esate baterako, Mitxelena, Gregorio Monreal, Margarita Rica eta Jose Urrutiaren atalak. In *Euskaltzaindia* 1977) berdin egin dute berriro.

243. Manuel Albistur Boloqui (Lesaka, 1841-Donamaria, 1917) euskalduna zen ziur asko. Karlista. Biografia orokorrerako ikus Garcia Sanz (1996: 319-23). 1879. urtean Euskara elkarteko bazkide egin zen (Garcia Sanz 1992: 98) eta 1885.ean, oraindik elkarteko kide zelarik foru diputatu hautatua atera zen karlisten zerrendetan (ibid.: 98-9). 1901. urtean berriro aurkeztu zen, baina ez zen atera eta, orduan, zazpi foru diputatuak erdaldunak zirenez, bere jarraitzaileek gutun gogorrak bidali zituzten *El Eco de Navarra* eta *La Tradición Navarra* egunkarietara, Diputazioaren erdalduntasunak “Euskariaren” amaiera adierazten zuela salatuz: “hecho vergonzoso para sus remitentes, y que a su juicio significaba el fin de Euskaria” (ibid.: 143, 354. oin-oharra). 1905.ean foru diputatu hautatua izan zen karlista bezala eta 1905-1909 bitartean Diputazioaren lehendakariordea izan zen. Euskararen aldeko hitzak gauzatzeko aukera izan zuenean, 1908.ean, kasu, ez zuen horren sutsuki jokatu.



“No asistió la Diputación de Navarra. Señalamos el hecho sólo para lamentarlo” esan zuten *Euskal-Erria* aldizkarian (Tea 1918: 227), eta *Diario de Navarra*-k ere salaketa gogorragoa egin zuen: “Las gentes echaban de menos la presencia de la Excma. Diputación de Navarra en aquel solemnísimo acto y no pudiendo encontrar una razón que justificase la ausencia, era natural que la achacasen al despego” (Euskalerriaren alde. El Congreso de Estudios Vascos. Algunos comentarios. *Diario de Navarra*, 1918-09-13).

Diputazioaren hoztasunaren beste adierazle bat euskara katedraren sorrera zela-eta bere bileretan izan zituen eztabaidak eta jarri zituen eragozpen eta mugak ditugu (NAN, Diputazioaren Aktak, 1913-12-18ko eta 1922-01-19ko saioak)<sup>244</sup>.

Nafarroako goi klaseen iritsi orokorraren erakusle bikaina *Diario de Navarra* egunkaria zen, eta hau ere euskararen alde agertu zen. 1903ko otsailaren 25ean jaioa, berehala egunkaririk eraginkorrena bihurtu zen. Bere sortzaileak Iruñeko dirudunak (Fernandez 1990: 215) izan ziren: enpresariak —“Eléctrica Irati, Fábrica Portland, Papelera Española” (ibid.: 215)—, bankariak, profesional liberalak eta beste. Politikoki, jatorri integrista eta kontserbadoreko lagunak ditugu egunkariaren gune sortzailean eta, oro har, ordena, familia, jabego pribatua eta erlijioa ikuspegi liberal-kontserbadorean txertatuta bultzatu zituela esan da: “Diario de Navarra lanza un ideario en defensa del orden, la familia, la propiedad y la religión que ha sido definido como «doctrina liberal y templada» (J.J. Uranga) o liberal-conservadora (Sánchez Aranda)” (ibid.: 216). Pixkanaka-pixkanaka nafar oligarkiaren bozeramailea izatera iritsi zen.

Sortu zenetik euskararen aldeko diskurtsoa zabaldu zuen *Diario de Navarra*-k. 1903ko urriaren 1eko zenbakian, laster egin behar ziren Irungo Lore Jokoak agurtuz, adibidez, zera zioen:

El vascuence debe cultivarse como planta indígena de gran mérito, que ha dado sombra y prestado alientos á las generaciones pasadas, recordando á las presentes el amor á la tradición, al fuero, á la región bendita, á la patria chica, sin la cual no puede existir la patria grande, porque el amor á la región es la base firmísima del amor á la nación.

---

244. Adibidez: “se acordó limitar la enseñanza de lengua vascongada, á una cátedra en el Seminario Conciliar, con la dotación anual de 1.500 pesetas, y otra en el Instituto de segunda enseñanza con 3.000 pesetas; pero debiendo suprimirse ambas cátedras, si no asistiese número suficiente de alumnos. El Sr. Guelbenzu dijo que no podía prestar su conformidad á este acuerdo, no porque deje de coincidir en la conveniencia de la enseñanza, sino porque, á juzgar por lo experimentado hasta ahora, no ha de obtenerse resultado satisfactorio” (NAN, Diputazioaren Aktak, 1922-01-19ko saioa).

Por eso, esos juegos florales que ahora se celebran en Irún, como antes se celebraron en otros puntos de la euskaria, deben contar con la simpatía de los navarros, que no podrán olvidar que el vascuence fué la lengua general en este antiguo reino y hoy todavía es hablado por miles de sus habitantes.

(La lengua tradicional. *Diario de Navarra*, 1903-10-01)

Aldi luze batean tankera bereko hitzak aurkituko ditugu *Diario de Navarra*-n eta haietan nabaria izango zen Arturo Campion eta foruzaleen eragina<sup>245</sup>, *Diario*-k berak aitortzen zuenez (Fernandez 1990: 230). 1912.ean, Navas de Tolosako guduaren zazpigarren mendeurrenaren ospakizunaren prestakuntzan, egitarauan txistulari eta bertsolariak sar zitezela eskatu zuen: “es de obligación que se vean por alguna parte manifestaciones del espíritu navarro tales y tan genuinas como esta de los versolaris y de los chistularis que fueron los depositarios de la poesía de Navarra y los troveros de la raza” (*Diario de Navarra*, 1912-03-27).

1915. urtean igandero argitaratuko zen euskarazko sail bat ireki zuten Jose Agerreren ardurapean (ikus 8. kapitula): “En adelante, en todos los números de domingo, aparecerá una sección redactada en vascuence. Es un modesto tributo que rendimos al idioma de la raza. (...). Al establecer esta sección semanal procurando mantener viva la *lingua navarrorum*, creemos que cumplimos un deber” (ibid., 1915-02-06). Halaber, leku- eta pertsona-izenen ikerketa bultzatuz euskalaritzaren eta, oro har, euskararen beraren garapenaren alde agertu ziren:

(...) este magnífico proyecto [leku- eta pertsona-izenen bilketa] al que va vinculado el desarrollo de nuestro venerando idioma que todos amamos con efusión, porque él es la reliquia que nos legaron los siglos, el habla de nuestras pretéritas generaciones (...), la gallarda expresión de nuestra raza legendaria.

(*Diario de Navarra*, 1915-05-08)

Nahi adina aipu jaso litezke, baina aurkeztutakoak aski dira nuen asmorako: Nafarroako erdal komunitatearen adierazpen formal gehienak euskararen aldekoak zirela erakustea.

Hitz handinahien azpitik edonori burura dakizkiokeen *barne kontrasesan nabariak* zituen diskurtsoak —zer egingo genuke “erlikia” baten

245. Kultur eragina, baina ez politikoa, ordea. 1912ko urtarrilaren 24tik 31ra bitartean “Arturo Campión. Semblanza literaria” artikulua sorta argitaratu zuen *Diario de Navarra*-k. Bertan, Campionen euskaltzaletasuna goraiatu ondoren —“Vasconizar el país vascongado es, en una palabra, la patriótica labor que con perseverante esfuerzo se ha impuesto Campión” (*Diario de Navarra*, 1912-01-25)—, Campionek Espainiari egiten zizkion salaketak biziki gaitzetsi eta Nafarroaren espainoltasun historikoa aldarrikatu zuten: “Porque pese al señor Campión, antes y después de la incorporación á Castilla, era Navarra española y españoles fueron tantos y tantos movimientos de patriótico y generoso entusiasmo con que concurrió á las glorias de la Monarquía española que era también la monarquía navarra” (ibid.).

alde?— eta, gainera, ez zen praktikara eramaten. Sakoneko kontraesanaren erakusle bikaina Alberto Pelairea izeneko poetak *Diario de Navarra*-n (1912-05-09) argitaratu zuen “El Euzquera” olerkia dugu:

Lengua de una raza jamás dominada,  
lengua de una tierra jamás conquistada;  
lengua que tus hijos llevaron triunfante  
desde tus montañas por mundo adelante,  
(...)  
Lengua venerable  
feliz el que te hable...  
Te oí cuando joven al mundo venía,  
(...)  
y al marcharme ¡oh lengua, de la patria mía!  
tan solo querría,  
que en mi cruz pusieras *un par de renglones*  
*y en algunos labios un Ave María...*

(etzana nirea da)

Euskarazko bi lerro eta Agur Maria bat. Horixe zen azken finean Nafarroako erdaldunek, euskararen alde agertzen zirenean —ez guztiak eta ez beti—, euskararentzat eskatzen zutena, edo, gauza bera dena, eskaintzen zioten lekua.

### *Euskararen aurkako arrazoiak*

Euskararen aurkako adierazpenak zeharka baizik ez ziren egiten Nafarroan. Are gehiago, Madrilen edo beste nonbait norbaitek euskarari eraso ziola entzuten zenean —eta Espainian ere euskararen aurkako erasoak gutxitan aditzen ziren— erantzuteko joera izaten zen, *Diario de Navarra*-k (1903-11-16) —ez bururik ez hankarik ez zuen artikulua batean<sup>246</sup>, bestalde— Unamunori erantzun zion bezala. Ageriko hitzak baino gehiago *ahopeko zantzu edo seinaleak* bilatu behar ditugu euskararen aurkako diskurtsoaren berri jakiteko.

Nola agertzen zen euskararen aurkako iritzia nafar erdaldunen artean? Hona hemen adierazle batzuk.

---

246. Balsadua, F. Importancia del idioma eskera (sic) y la opinión del señor Unamuno. *Diario de Navarra*, 1903-11-16. Unamunori aurre egin nahian eta “para que la discusión sobre el idioma bascongado con el señor Unamuno resulte útil para la ciencia”, bi gai plazaratu zituen Balsadua jaunak: “1.º Que el idioma *eskera* hablado actualmente por la nacion euskalduna, vulgarmente baskongada, *es el padre del griego* (...). 2.º Que el idioma eskera interpreta etimológicamente toda la cosmogonía astronómica Baniana, toda la teogenía Brahmánica escrita en idioma sanskrit”.

(a) 1900: euskal jaia lekuz kanpo omen zegoen. 1900eko apirilaren 5ean Sanferminetako egitarauan euskal jaiei tarte bat egiteko eskatzen zuen eskutitz bat agertu zen *El Eco de Navarra* egunkarian —liberal-kontserbadorea eta Nafarroan salduena (Imbuluzqueta 1993: 184)—, “Un grupo de bascófilos”-ek sinatuta. Badirudi oihartzuna erdietsi zuela proposamenak eta, adibidez, hiru egun beranduago egunkariaren Elizondoko korrespontsalak ere ideia hori alde idatzi zuen. Azkenean, dena dela, ez zioten eskariari jaramonik egin —“parece que se ha hecho caso omiso” (El festival vasco. *El Eco de Navarra*, 1900-05-13)— eta 1900.eko Sanferminetan ez zen euskal jairik izan. Ezetza arrazoiak ez ziren jendaurrean esan, isilik pasatzen uztearekin aski zuten, baina bai pribatuan ordea: “ruego que *alguno calificaba de extemporáneo*” (etzana nirea da) (ibid.).

Antolatzailea Iruñeko udala zen. Ez zitzairen zinegotziei batere bururatu euskal kulturari tokitxo bat egitea San Fermin jaietan, baina kontua ez zen ahazte hutsa, euskaltzale talde batek ohartarazi zienean desegokia iruditu zitzaielako ospakizunetan euskal jai bat gehitzea. Nor zegoen Iruñeko udalean?: 15 karlista, 6 integrista, 3 errepublikar eta 1 liberal-kontserbadore (García Sanz 1990: 52). Hau da, gehiengo absolutoa teoria behintzat euskararen alde zeuden karlista eta integristek zuten.

Hiru diskurtsoak batera bilduak ditugu auzi honetan: euskararen aldekoa —alderdien agiri orokorrak—, isiltasunaren diskurtsoa eta euskararen aurkakoa —lekuz kanpokotzat jotzea—, eta, isiltasunaren bidez, praktikan nagusitu zena azkeneko hau izan zen. Erdararen aldeko praktika bera izan zuen urte berean Iruñeko udalak Iturengo maisua izendatzeko orduan (ikus 7.4.3 atala).

Beste zehaztasun bat: euskal kulturaren aldeko eskakizunak egunkari liberal batetik egin ziren eta ezetza karlista eta integristek eman zuten.

Erdaldunen euskararekiko diskurtso eta portaerak ulertzerakoan balio orokorreko irakaspenak ditu gertaera honek, rol guztiak trukaturata agertzen zituen itxura korapilatsupean erdaldunen sakoneko jokamoldea begi-bistan uzten baitu sinpletasun osoz: edozein alderditako kide izanda ere, erdaldun bezala jokatu zuten.

(b) 1912. urtean bertsolari jaialdiaren aurka: hamar lagunetatik bederatzik ez lukete euskaraz ulertuko. 1912ko uztailean Navas de Tolosako guduaren zazpigarren mendeurrenaren ospakizunak antolatu zituen Diputazioak —5 karlista, 1 integrista, 1 kontserbadore (García Sanz 1992: 187)—. Egitarauan euskarari eskaintzen zitzaion toki bakarra literatur lehiaketaren sailean izan zen.

Otsailaren 17an eskutitz bat agertu zen *Diario de Navarra*-n ekitaldietan euskal dantzak eta txistulariak ere sar zitezela eskatuz, eta, badaezpada ere, susmatzen zituen kritikei aurrea hartu nahian, zera gaineratu zuen gutunaren sinatzaileak: “y no me tache nadie de arcáico y de gusto perdido” (Las fiestas del Centenario. *Diario de Navarra*, 1912-02-

17). Egokia iruditu zitzaion proposamena Raimundo Garcia “Garcilaso” *Diario de Navarra*-ren zuzendariari eta martxoaren 27an berriro plazartu zuen gaia: “es de obligación hacer que se vean por alguna parte manifestaciones del espíritu navarro tales y tan genuinas como esta de los *versolaris* y de los *chistularis* que fueron los depositarios de la poesía de Navarra y los troveros de la raza” (etzana nirea da) (No se puede prescindir de este festejo. *Diario de Navarra*, 1912-03-27).

Aurkako erantzunak laster entzun ziren, *El Demócrata Navarro* egunkari liberal-demokrata proposamenari ezetza emanaz atera baitzen, hamar iruindarretik bederatzik ez zutela ulertuko argudiopean:

Pero consideramos que esta índole de festejos no encaja en un programa de fiestas de una capital de provincia como Pamplona, por la sencilla razón que yo deploro mucho aducir aquí, de que resultaría *incomprensible para las nueve décimas partes —puede que aún me quede corto— el lenguaje vasco.*

(etzana nirea da) (*El Demócrata Navarro*. Aipatua in *Diario de Navarra*, 1912-03-30)

Diputazio karlistak ez zion *Diario de Navarra*-ri eskaria aintzat hartu eta ospakizunak bertsolariarik gabe gelditu ziren, baina, hala ere, poz-pez azaldu zen *Diario de Navarra* bi aste beranduago egitaraua finkatu zenean, bertsolarien kariaz izandako eztabaida huskeria bat izan balitz bezala ahaztuta.

(c) 1913-1915: karlisten artetik euskararen aldeko ahaleginei jaurtikiriko kritikak. 1913 eta 1915 bitartean kriptokarlistatzat jo izan diren hiru astekari kaleratu ziren Iruñean: *Joshe Miguel*, *Akelarre* eta *El Duende* (García Sanz 1994). Bereziki erasokorrak izan ziren hirurak nazionalisten aurka eta erabili zituzten argudioen artean euskararen aldeko lanak ahultzera zuzendutakoak nabarmenduko ditut.

*Joshe Miguel*-ek, esate baterako, euskararenganako maitasuna aldarrikatu ondoren, zalantzatan jarri zituen bere berreskurapen lanak (ibid.: 55), nazionalistei kritika eginez: “Que no es lo mismo gritar ¡Gora Euzkadi! y otras cosas, que hacer el esfuerzo intelectual que supone aprender una lengua” (*Joshe Miguel*, 1913-11-30. Aipatua in ibid.: 55).

Gogorragoa izan zen *El Duende*. Arturo Campionen eta euskara katedren aurkako erasoak aurreneko zenbakian bertan hasi ziren: “En el primer número había aludido ya a que los libros de Campión no los leía nadie y a que cuando hubo Cátedras de Vasco no las frecuentaban ni los napartarras” (ibid.: 127, 14. oin-oharra). Era berean, euskara bultzatzeko ahaleginak nazionalistak nabarmentzeko aitzaki hutsak —“hacerse notar agarrándose al Vasco” (ibid.: 127)— omen ziren, euskaltzale guztiak euskaraz ez zekiten separatistak baizik ez ziren-eta (ibid.: 127).

Goikoak, hala ere, ez ziren euskararen aldeko lanak auzitan jartzen zuten karlisten aldarrikapen bakarrak. Joaquín Beunzak 1915eko urtarrean Juventud Jaimista-ko kideei emandako hitzaldian euskarari eus-

tea bitarteko bezala, ez helburu bezala, ulertu behar zela ohartarazi zien, euskarak ez zuela berez euskal izaeraren muina zen erlijioa bermatzen, eta, era berean, euskararenganako maitasunak ez zuela inolaz ere gaztelania mesprezatzera eramanez behar: “sostuvo que el amor a la lengua vasca no debía llevar a despreciar el castellano y que su conservación no significaba necesariamente la conservación del alma vasca y el alma religiosa de los vascos y navarros y, por lo tanto, conservar dicha lengua debía ser un medio y no un fin” (ibid.: 109, 18. oin-oharra). Oro har, ez *Akelarre-k ez El Duende-k ez zuten euskararekiko inolako interesik adierazi* (ibid.: 152).

Luze hitz egin liteke karlismo eta euskalduntasunaren arteko harremanez, baina harantzago joan gabe, egiazko gertaerak hurbildik ezagututa, bistan da ez zirela zenbaitetan entzun den bezain lineal edo argiak izan<sup>247</sup>. Nire ustez, karlisten artean, euskararen aldeko diskurtso orokor baten itzalpean, erabakitzaileena ingurune geografiko-linguistikoa —ikus, adibidez, 1875. urtean karlisten Gipuzkoako “Junta de Instrucción Pública” delakoaren araudia (Etxegarai 1934: 106-8)— eta talde edota pertsonen sentikortasuna ditugu, ez ideologia politikoa, eta alde horretatik ados nago Garcia Sanzen hitzekin: “en el carlismo navarro (...) convivían gentes que, aun oponiéndose a los napartarras<sup>248</sup> por igual, percibían lo vasco de distinta forma” (1994: 152).

(d) Nafar erdaldunen euskararen aurkako arrazoiak: laburpena. Nafarroako erdaldunek ez zuten euskararen aurkako ideologia arrazoitu bat egituratu eta ez ziren ezta kanpoan —Europar edo Espainiar— esaten zirenak Nafarroan idatziz errepikatzen ere iritsi. Badirudi euskararen ukazinezko presentzia hurbilak eta hizkuntzaren aldeko diskurtsoaren hedadura handiak baldintzatu egiten zituztela: nekez ausartuko zen Iruñeko erdaldun bat, adibidez, euskara deustarako balio ez zuen edo ezabatu behar zen hizkuntza zela idaztera, bere baitan edo lagunartean horrela pentsatu arren. Euskararen aurkako diskurtsoa ozta-ozta adierazten zen idatziz, baina eraginkortasun handia zuen, hala ere, eta, garaiko dokumentazioa arretaz aztertuz gero, aise aurkitzen dira horren zantzuak.

---

247. Arturo Campion, adibidez, ez zegoen oso kontent tradizionalismoaren eta karlismoaren euskararekiko portaeraz: “Caso bochornoso de un pueblo que presume de tradicionalista y patea villanamente una de sus más insignes tradiciones” (1918: 45). Halaber, Zaraitzuko euskararen beherakadaz mintzo zelarik, salaketa bera egin zuen: “los salacencos, al revés que sus vecinos del Este los roncaleses, y los del Oeste los aezkoanos, son carlistas (...). Parece un país del todo consagrado á la tradición. Mera apariencia, señores; ese tradicionalismo tan firme á trechos, presenta una enorme resquebrajadura (...): la tradición del idioma” (1911: 18).

248. *Napartarra* (1911-1919): Nafarroako EAJ-ren astekaria.

Zantzu guztiek ezaugarri bat dute komun: euskararen aldeko diskurtso nagusiari aurrez-aurre kontrajartzen ausartzen ez zirelarik, erdizka adierazitako sasiarrazoi modukoak ziren, beren indarra entzulearen, edo irakurlearen, adostasun edo konplizitate isila bereganatuz osatzen zutenak.

Hona hemen jaso ahal izan ditudan ageriko argudioen laburpena: lekuz kanpo zeuden euskarazko ekitaldiak, gainera, euskaraz hamar lagunetatik bederatzik ulertzen ez zuenez, ez zuten lekurik. Arkaikoak eta gustu txarrekoak omen ziren. Euskara berreskuratzeko ahaleginei ez zitzaien bideragarritasunik ikusten; euskararena separatistek erabiltzen zuten eta beraiek ere sinesten ez zuten aitzaki hutsa baizik ez zen. Bestalde, euskararen defentsa onartuta ere, ez zen zeregin hartan beroegi saiatu behar, euskarak ez baitu berez euskal izaeraren muina den erlijioa bermatzen. Kontuz euskara maitatzetik gaztelania arbuiatzera ez pasatzeko eta, oro har, gogoan har euskara tresna bat besterik ez dela, ez helburu bat.

## 7.4 Irakaskuntza sistema eta euskara

### 7.4.1 Sarrera

XIX. eta XX. mendeetako gizartearen ezaugarriarik nabarientetako bat, nagusia ez bada, hezkuntza sistemaren pisu edo garrantzia dugu. Horrela adierazi du Ernest Gellner-ek (1988: 52):

En la base del orden social moderno no está ya el verdugo sino el profesor. El símbolo y principal herramienta del poder del estado no es ya la guillotina, sino el (y nunca mejor dicho) *doctorat d'état*. Actualmente es más importante el monopolio de la legítima educación que el de la legítima violencia.

Berezko tokia du, honenbestez, irakaskuntzaren azterketak Nafarroako euskararen historian eta, neurri batean, gainerako gizarte-erakundearen portaeraren pilotu edo adierazle orokortzat ere har daiteke.

Euskarari dagokionez, Nafarroako hezkuntza sistemaren bilakaeran jarraitasun garbia dago 1841 —Foruen aldaketa— baino lehenagoko eta ondorengo egoeretan. Eskolatik baztertuta zegoen euskara irakaskuntzaren ardura osoa Nafarroak zuenean eta baztertuta jarraitu zuen atal batzuk, ez guztiak, Estatuaren eskuetara igaro zirenean ere. Gero eta hedatu, arautu eta konplexuagoa zen irakaskuntza XIX. mendean eta Estatuaren esku hartzea ere gero eta handiagoa izan zen, baina, aldi berean, Nafarroak eta Estatuak, zein bere eskumenekin, eta izandako tirabirak gorabehera, elkarlanean jardun zutela esan daiteke. Nafarroako hezkuntza sistema bien artean antolatuta zuten: funtsean *erdal hizkuntz*

*komunitateak eraturako* gizarte-erakundea dugu eta analisisa ikuspuntu horretatik bideratu dut.

Bestalde, irakaskuntzaren eragina epaitzerakoan, bi datu objektibo agertzen direla —hezkuntza sistemaren zeregin erdalduntzailea, alde batetik, eta, euskararen jarraipena, bestetik— kontuan harturik, azentua batean edo bestean jartzen den, bi motatako azalpenak eman ohi dira: espainiar Estatuaren erantzunkizuna azpimarratzen dutenak eta, beste muturrean, sistemaren ahultasuna nabarmentzen dutenak.

Eskolaren erdaltzaletasunaren ardura estatuari egozten dion azalpen motaren adierazlerik gardenenetako bat hitz hauek ditugu:

Gudaloste garaileek [I. eta II. gerra karlisten ondoren] administrazio zentrala ezarri zioten lehenengoz Euskal herriari. (...) eta ordezkapen linguistiko azeleratuari eman zitzaion hasiera, horretarako *gaztelantiazko eskolaz* eta euskaraz hitz egiteko debeku eta zigorrez baliatuz.

(etzana nirea da) (Euskaltzaindia 1979: 36)

Azalpen mota honen baitan oso hedatua dago erdararen ezarpena espainiar irakasle erdaldunak ekarriz bideratu zelako ustea —oinarri sendorik gabeko ustea, beherago ikusiko dugunez—, bai doktorego tesietan: “La utilización generalizada del anillo escolar y la provisión de los cargos escolares por medio de maestros foráneos se hallan en la base de este retroceso” (Estornes Zubizarreta 1990: 25), bai dibulgazio artikuluetan: “Se importaron muchos maestros castellanos y ellos lamentablemente, fueron los principales agentes de deseuskaldunización en Navarra” (Arraiza 1993: 9). Halaber, ñabardura gehiagoz idatzita egon arren, mota bereko azalpenak dira, funtsean, Mikel Zalbiderenak, Nafarroako eskolatzearen Aro Berriko zabalkundea “bere buruaren jabe izateari uztearekin bat eta (...) Aginte-aparatu zentral horien [Espaini-Frantzietako monarkiak] beharrei (...) erantzuteko asmoz” (1990: 216) gertatu zela dioenean, adibidez, edo XIX. mendeko bilakaeraren erantzule nagusi gisa 1857ko Moyano legea aipatzen duenean (ibid.: 228).

Beste batzuen iritziz (Elorza 1996, kasu), aldiz, atzeratua eta ahulegia izan zen Espainiako irakaskuntza sistema eta horri zor zaio euskararen eta ofizialak ez ziren gainerako hizkuntzen iraupena. Funtsean atzerapena eta desegituraketa dituen bilakabide baten barruan —“con el telón de fondo del atraso y de la desagregación que marcan el tránsito del Antiguo Régimen a la España liberal” (ibid.)—, gaitasunik gabeko hezkuntza sistema omen genuen eta horrek, ondorioz, gaztelaniaren ezarpena eragotziko zukeen: “un sistema educativo insuficiente que mantiene altas tasas de analfabetismo y evita la imposición del *idioma nacional* sobre los periféricos” (ibid.).

Biak, maisu-maistra espainolen etorrera jendetsua nahiz herri hizkuntzen bizirapena hezkuntza sistemaren balizko indargabetasunagatik



izan dela esatea, demostratu gabeko baieztapenak dira eta ez datoz bat benetako bilakaerarekin, baina, hala ere oso sinesgarriak gertatzen dira gizarte-mailan, eta maiz baita unibertsitate-mailan ere. Zergatik? Diskurtsoen azterketari buruzko atalean azaldu dudan arrazoi berberetatik: zentzu komuneko usteetatik abiatzen direlako. Estatu espainola salatzen dutenen artean ez da gehiegi demostratu behar maisu-maistra erdalduntzaileen etorrera egiazkotzat jotzeko. Berdin gertatzen da Antonio Elorzaren arrazoinamenduarekin: Espainia atzeratuta zegoen, analfabetismo tasa handiak zituen eta euskarak iraun egin du; ondorioz, hiru elementuak berez elkartzen dira mitologia aurrerakoiaren mentalitatean, nahiz eta, Europako herri eta hizkuntzen historiak erakusten duenez, elkarri lotuta ez dauden aldagaiak izan.

Bi azalpenek beste ezaugarri bat dute komun: lehentasuna estatuari ematen diote, erruduna izateagatik edo ahulegia izateagatik.

Nolanahi ere, azalpide horien eztabaidak irakaskuntzaren azterketaren arazo nagusiaren aurrean jartzen gaitu: nafar hezkuntza sistemaren izaera bi hizkuntz komunitateen arteko harremanen testuinguruan.

#### 7.4.2 Hezkuntza sistemaren zeregina

Eskola gizarte modernoaren zutabe nagusietako bat baldin bada, berebiziko zeregina betetzen du hizkuntza ofizialaren ezarpenean, zehazkiago mintzatuz. Hau gauza jakina da Frantziako Iraultzatik bederen eta jadanik XIX. mendean abian jarri ziren hizkuntz politika gehienek irakaskuntza beren helburuetarako baliatzea bilatu zuten.

Gizarte-zientzietan etengabeak dira hezkuntza sistema eta hizkuntzaren harremanei buruzko aipamenak<sup>249</sup>. Zentzu horretan, oso iradokitzaila da guretzat *Max Weber*-en azterketa. Klasiko honek, 1922. urtean, hizkuntz komunitateen menderatzeari lotuta aztertu zuen eskola sistemako hizkuntz politika, hizkuntza ofizialaren nagusitasuna eskolako menderatzeari esker bermatzen dela erakutsiz:

(...) la dominación desempeña en casi todas sus formas, aun allí donde menos se sospecha, un papel considerable. Así ocurre, por ejemplo, en las *comunidades lingüísticas*. No sólo ha influido con frecuencia de un modo decisivo, en la evolución de las grandes comunidades lingüísticas unitarias, la elevación de un dialecto a idioma oficial de la organización política mediante la imposición forzosa (...), sino que la *dominación ejercida en la "escuela"* determina también del modo más duradero y constante la forma y la preponderancia del lenguaje escolar oficial.

(etzana nirea da) (Weber 1993: 695)

---

249. Gure artean, ikus, adibidez, M. Jaione Apalategiren (1990, 1994 eta 1995) lan iradokitzaileak.

Halaber, argigarria da oso menderatzea kontzeptuaren definizioa, bere baitan mendekoen adostasuna biltzen duelako:

(...) entendemos aquí por “dominación” un estado de cosas por el cual una voluntad manifiesta (“mandato”) del “dominador” o de los “dominadores” influye sobre los actos de otros (del “dominado” o de los “dominados”), de tal suerte que en un grado socialmente relevante estos actos tienen lugar como si los dominados hubieran aceptado por sí mismos y como máxima de su obrar el contenido del mandato (“obediencia”).

(ibid.: 699)

Hau da, Nafarroako irakaskuntzara etorrira, hizkuntz komunitate menderatzaile bat genuke, erdal hizkuntz komunitatea, eta beste bat menderatua, euskal hizkuntz komunitatea, erdarazko eskolatzea berarengandik sortutako zerbait balitz bezala onartzera bultzatua (Uitzikoa gogoan izan).

Hezkuntza sistemari buruzko ikuspegi zorrotz eta emankorra landu duen beste bat *Pierre Bourdieu* dugu. Lan pedagogikoa talde jakin baten izenean burutzen da —erdal komunitatearen izenean, gure kasuan—, eta bere helburu orokorra talde horren integrazio eta ugalketa bermatzea da: “le travail pédagogique contribue à produire et à reproduire l’intégration intellectuelle et l’intégration morale du groupe ou de la classe au nom desquels il s’exerce” (Bourdieu eta Passeron 1970: 50). Irakaskuntzaren bitartez bortxa politiko hutsaz baino askoz emaitza sakonago eta iraunkorragoak erdiesten dira: “le travail pédagogique est capable de perpétuer plus durablement qu’une coercition politique l’arbitraire qu’il inculque. (...) En d’autres termes, le pouvoir de violence symbolique de l’action pédagogique qui recourt au travail pédagogique s’inscrit dans le temps long” (ibid.: 48-9).

Bestalde, irakaskuntzaren zeregina ulertzeko bi mutur hauen artean mugitzen dela eduki behar da kontuan: mutur batean, ikasleen jatorrizko habitus edo kultura berrindartzea, normalean gertatzen den bezala, eta, bestean, ikasleen jatorrizko habitusaren ordezkapena bilatzea, mendekotasun egoeretan egiten dena (ibid.: 59).

Nafarroan bietatik genuen: ikasle erdaldunek berrindartu egiten zuten euren jatorrizko habitusa, eskolan etxetik zekartena landu egiten zuten, erdal AB bihurtzen ziren, alegia. Ikasle euskaldunei, berriz, alde-rantziz gertatzen zitzairen: eskolak beren jatorrizko habitus edo hizkuntza bazterrean utzi eta beste berri batez, erdaraz, ordezkatzera eramaten zituen. Hau da, eskolako hizkuntza etxeoari kontrajartzen zitzaion, haur euskaldunak euskal A/erdal B edo (B) —Uitzi gogoan izan— bihurtuz.

Goikoari legitimotasunaren borroka gehitzen zaio. Hezkuntza sistemak hizkuntza edo kultura ofizialaren legitimotasuna aitorrarazten die talde menderatuetakoa haurrei eta, aldi berean, euren jatorrizko hizkun-

tzen legitimitaterik eza. Eta, horretarako, bide nagusia hizkuntza ez-ofizialen bazterketa dugu, eta oraindik hobeto, Max Weberrek esana zenez, bazterketa onartua izanaren itxurapean gertatzen bada:

(...) le principal ressort de l'imposition de la reconnaissance de la culture dominante comme culture légitime et de la reconnaissance corrélative de l'illégitimité de l'arbitraire culturel des groupes ou classes dominés réside dans l'exclusion, qui n'a peut-être jamais autant de force symbolique que lorsqu'elle prend les apparences de l'auto-exclusion.

(ibid.: 57)

Laburbilduz, Max Weber eta Pierre Bourdieuren azterketatik, Nafarroarako lagungarri suertatuko zaizkigulakoan, honako ideia hauek jasotzen ditut: hezkuntza sistemak talde jakin baten izenean dihardu, hizkuntz komunitateen eskola bidezko menderatzea, legitimitasunaren borroka —herri kulturen legitimitaterik eza aitorraraztea—, hizkuntza aldatzera daraman eskolatzea eta, azkenik, adostasuna.

#### 7.4.3 Kasu eredugarri bat: Iturengo maisuaren izendapena (1900)

Ituren egun ere guztiz euskalduna den herria dugu: biztanleen % 98k hitz egiten du ongi euskaraz (Francisca Zabaleta 1995: 51) eta eskualde guztiz euskaldunean kokaturik dago (ikus 29. irudia). Berez herri bateko maisuaren izendapen arrunt bat izan behar zuena, bere inguruan jazo ziren arazoak zirela-medio, Nafarroako hezkuntzaren joera nagusien adierazle bihurtu zen.

Lau hitzetan, hau gertatu zen: Iturengo eskola herriko indiano batek sortutako fundazioak hornitzen eta kudeatzen zuen, baina maisuen izendapena, ordea, Iruñeko udalari zegokion sorrera agiriaren xedapenez. Agiri honek maisuek bete behar zituzten ezaugarriak adierazten zituen: lanposturako egokiak izateaz gain, nafarrak eta euskaldunak izan zitezela eskatzen zuen. 1900. urtean, maisua izendatzerakoan, bi hautagai nagusiren artean hautatu behar izan zuen Iruñeko udalak —Sanferminetan euskal jaia egitea lekuz kanpo iruditzen zitzaion berberak (ikus 7.3.3.3 atala)—: bata errioxarra eta erdalduna, eta bestea nafarra eta euskalduna. Tartean Alberto Larrondo senadorearen erdaldunaren aldeko gomen-diozko gutuna iritsi zen eta Iruñeko udalak, senadoreari men eginez, erdalduna aukeratu zuen, Estanislao Aranzadi eta Arturo Campionen kritikak jasoaz, baina Iturengo udalaren erabateko oniritziarekin. Maisu euskaldunak jarritako errekursoen aurrean Nafarroako klase politikoa, Gorteetako diputatu eta senadoreak barne, eta Gobernuko hiru ministro, denak bat etorritik, erdaldunaren alde agertu ziren, euren hizkuntz komunitatearen alde, alegia.

Gertaera hutsak horiexek izan ziren, baina prozesua konplexu samarra izan zen eta bertan esku hartu zuten lagunengatik, erabili ziren ardu-dioengatik eta izan zuen oihartzunagatik, irakaspenez beterik dago, ikusiko dugunez.



29. irudia. Ituren herriaren kokapena.

*1857. Iturengo neska eta mutilentzako eskolen sorrera*

Iturengo neska eta mutilentzako eskolak Maria Jesus Ochandorenak, Pedro Domenzainen alarguntsak, sortu zituen, bere senar ohiak testamentuan adierazitako nahiei jarraikiz. Eskolen gastuak —irakasleen lan-sariak, lokalak, materialak...— alarguntsak kudeatuko zuen fundazio edo patronatoak ordainduko zituen. Eskolen sorrera-eskriturretan<sup>250</sup> ikasketa programak, maisu-maistrak hautatzeko prozedura<sup>251</sup> eta irizpideak finkatu zituen Maria Jesus Ochandorenak, neskentzako eskolatik hasita.

Maisu-maistrak Iruñeko udalak, oposaketen bidez, hautatuko zituela dio: “La provisión de dichas plazas se anunciará con treinta días de anticipación en la Villa de Ituren y Ciudad de Pamplona y se darán precisamente por oposición que se efectuará ante el Ayuntamiento de aquella Ciudad. (...). La agraciada<sup>252</sup> obtendrá el nombramiento del Ayuntamiento de Pamplona, el cual presentará al de Yturen, quien tomará nota de él” (IUA, “Sección de Enseñanza Pública, Escuelas Ituren 1857/1908. 173”<sup>253</sup>).

Postua merezimendurik gehien zuenak erdietsiko zuen, eta berdin-keta izanez gero lehentasuna Iturengo euskaraz mintzatzen zirenei eman-go zitzaien: “obtendrá la plaza la aspirante mas merecedora, prefiriendo en igualdad de circunstancias á las Navarras que hablen el Bascuence que se usa en Yturen” (ibid.).

Betiere euskararen alde ahalegintzeko eskatzen zitzaion irakasle izendatuari: “encargando á la maestra que obtuviese dicha plaza, haga los esfuerzos posibles por la conservación y perfeccion de tan antiquísima, rica y filosófica lengua, inculcando á las niñas la ventaja de poseerla<sup>254</sup>, sin olvidar por eso nuestro hermoso castellano” (ibid.).

Mutilentzako eskolan irizpide berberak erabiliko ziren (ibid.).

---

250. IUA, “Sección de Enseñanza Pública, Escuelas de Ituren, 1857/1908, 173, Expediente de Fundación de las Escuelas de la villa de Ituren, Navarra, por D<sup>a</sup> Maria Jesus Ochandorena de Domenzain”, “Copia de la Escri de declaratoria é instrucción para el Establecimiento, conservación y administración de dos escuelas y una memorial de misas en la Villa de Yturen, otorgada pr. la Sra D<sup>a</sup> Maria Jesus Ochandorena Viuda de Domenzain, ante el Escmo Dn Manuel de la Rosa el día 30 de Noviembre de 1857”.

251. Legez aitortua zuten fundazio edo patronatoko eskolek irakasleak hautatzeko prozedura bereziak ezartzeko eskubidea (1857ko hezkuntza legea, 183. artikulua).

252. Arau bera zegoen maisuentzat ere, beherago ikusiko dugunez.

253. Aurrerantzean: “IUA, Ituren” laburduraz adieraziko dut erreferentzia hau.

254. 1857. urtean gaude eta euskal kontzientzia garbia adierazi zuen orduko Maria Jesus Ochandorena andereak. Euskara laguntzeko xedapenak berak jarri zituen, bere senarraren testamentuan bakarrik nafar irakasleak izendatzeko eskatzen baitzen.

*1900. Maisu postua betetzeko deialdia*

Horrela, bada, hauxe genuen 1900eko izendapena egin behar zenean: herri euskaldun baterako maisua, hautamena Iruñeko udalari zegokion, ez kanpoko beste inori, eta indarrean zeuden eskolen sorrera-eskriturek nafarra eta euskalduna izateko eskatzen zioten hautagaiari. Gainera, beherago agertuko dugunez, pil-pilean zegoen urte haietan maisu-maistren izendatzeko eskubidea zela-eta Nafarroa eta Gobernuaren arteko gatazka.

Behin-behineko maisua zuten Iturenen 1897. urtetik eta 1899.aren amaiera aldean behin betiko betetzea erabaki zuten. Bi urte horietan maisu euskalduna izan zuten: Dionisio Esain<sup>255</sup> ultzamarra (Larraintzar).

Iruñeko udalari abisua eman eta abian jarri zen izendatze prozesua. Garai hartan ez zen Nafarroan maisu-maistren oposaketarik egiten, Nafarroarako balio zuten oposaketak Zaragozan egiten ziren, Unibertsitate barrutiaren buruan. Iruñeko udalak, beraz, Zaragozako barrutiko oposaketak gainditutako maisuen zerrenda zuen abiapuntu, eta postua nahi zutenen artean lehiaketa egingo zen.

Lehiaketa deialdia 1900eko urtarrilaren 24an —data zehatza garrantzitsua da, beherago ikusiko dugunagatik— sinatu zuen Iruñeko alkateak oposaketak gaindituta zituztenei, Iturengo postura aurkeztu nahi izanez gero, hamabost eguneko epea emanez. Halaber, iragarkian lehentasuna Iturengo euskaraz mintzatzen ziren nafarrei aitortuko zitzaizela adierazten zen, baldintza horiek betetzen zituztelako ziurtagiriak eskatuz:

(...) señalar para la admisión de solicitudes el plazo de quince días (...), previéndose que con arreglo á la escritura fundacional deberán ser *preferidos en igualdad de circunstancias los navarros que hablen el vascuence* que se usa en Ituren, requisito que los aspirantes deberán justificar documentalmente, así como (...) la circunstancia de ser navarros.

(etzana nirea da) (BON, 1900-01-26)

Nafarra eta euskalduna izateko baldintzak, beraz, argi samar zeuden, ezinbestekoak ez izan arren.

---

Ez legoke gaizki, ahal izanez gero, pertsona honen ibilbideari buruzko albiste gehiago eskuratuko bagenitu.

255. Dionisio Esain arestian Inklusan ikusi dugun Carlos Esain maisu euskaldunaren anaia dugu. Iturengo eskolei buruzko txosteneko karpeta batean, ordea, eskuz idatzita “Asunto del Maestro de la Misericordia Sr Esain” (IUA, Ituren) dio, bi anaiak nahastuz, agian Carlos Dionisioren alde atera zelako.

*Lehiaketara aurkeztutakoak eta beren argudioak: maisuen psikologia*

Hamar izan ziren baldintzak ezagutu eta gero Iturengo maisua izan nahi zutela adierazi zuten lagunak —maisua gehiago egon ziren interesatuta, baina euskaldunak edo nafarrak ez izateagatik ez ziren aurkeztu<sup>256</sup>— zazpi erdaldun eta hiru euskaldun; sei nafar eta lau kanpotar. Hona hemen haien izen-deitura eta ezaugarriak biltzen dituen taula:

Izen-deiturak	Nongoa	Non zegoen	Puntuak	Euskalduna?
Guillermo Martinez	Herce (Errioxa)	Valtierra	430	Ez
Pablo Gruas	Barbastro (Huesca)	Barbastro	390	Ez
Victoriano Andres	Zaragoza (?)	Zaragoza	385	Ez
Juan Martinez	Fitero	Vistabella (Zaragoza)	355	Ez
Francisco Glaria	Agoitz	?	337	Ez
Luis Echeveste	Oiartzun	Donostia	335	Bai
Eugenio Zueco	Ablitas	Ablitas	305	Ez
Manuel Lizarraga	Milagro	?	253	Ez
Dionisio Esain	Larraintzar	Ituren	201	Bai
Esteban Arriaran	Arribe	Argiñao (Bizk.)	197	Bai

Iturengo maisu posturako 1900.ean aurkeztutako en zerrrenda

Bik bakarrik betetzen zituzten baldintza guztiak, beraz, baina, eskera-instantzietan adierazi zutenek, ez dirudi besteek, herri euskaldun bateko maisu izendatua izateko, euskaldunak edo nafarrak, edo biak, ez izatean arazo handirik aurkitzen zutenik.

Horrela, euskaraz ez zekien Fiteroko Juan Martinezek, adibidez, eskolen sortzaileek ezarritako baldintza guztiak betetzen zituela uste zuen: “creyéndose comprendido en las circunstancias que para el desempeño de la misma se exigen por los Fundadores del Patronato de dicha Escuela” (IUA, Ituren). Milagroko Manuel Lizarragak berdin zioen: “reuniendo las condiciones necesarias para obter (sic) a dicha escuela” (ibid.). Zaragozako Victoriano Andresek: “creyendo el que suscribe encontrarse en condiciones para desempeñarla y con méritos suficientes” (ibid.). Agoizko Francisco Glariak: “cuyo nombramiento debe recaer en uno de los opositores navarros aprobados últimamente en Zaragoza, y encontrándose el solicitantes en condiciones de poder solicitar dicha plaza” (ibid.). Herce-ko (Errioxa) Guillermo Martinezek, azkenean izen-

256. Lo que dice un maestro. *El Eco de Navarra*, 1900-02-28.

datuta suertatuko zenak, hau argudiatu zuen: “ilustrar a V.E. de las condiciones en que me encuentro colocado, y considerarme como uno de los aspirantes á dicha escuela de Ituren cuyo nombramiento á mi favor ruego” (ibid.).

Eskaera instantzietatik hartutako zatiek ederki erakusten dute zer zuten gogoan maisu haiek. Bost axola zitzaien euskara —haurren hizkuntza eta deialdiaren baldintzetako bat—, ezikusiarrena egiten zuten haren aurrean eta lotsagabeki baldintza guztiak betetzen zituztela esatera —“reuniendo las condiciones necesarias para obter a dicha escuela”— iristen ziren, euren eskubideen iturria beste nonbait zegoen-eta: oposaketak gainditutako maisuak ziren eta horrekin aski zuten edonora joateko; gainera beren eginkizuna erdaraz irakastea baldin bazen, zertarako erreparatu euskara bezalako huskerietan?

Ondo legoke maisu-maistren hizkuntz piskologiaz luzeago jardutea, baina Iturengo albistek mugatuak dira, nahiz eta funtsean Campionen lekukotasunekin eta Cohen (1973) eta Calveten (1981b) azterketekin bat etorri (ikus 3.4 atala).

*Iruñeko udalaren 1900eko otsailaren 22ko batzarra: erdaldunaren hautaketa*

Iturengo maisuaren hautaketa egun hartako bileran egin behar zuten. Udalak 25 zinegotzi zituen: 15 karlista, 6 integrista, 3 errepublikar eta 1 liberal-kontserbadore (Garcia Sanz 1990: 52). Karlistek gehiengo absolutoa zuten, beraz, eta karlista eta integristen artean 21 botu biltzen zituzten, baina honek, hala eta guztiz ere, ez zuen Iruñeko udalak maisu erdalduna aukeratzea eragotzi, ikusiko dugunez.

Bilerara Gobernu-batzordearen txostena aurkeztu zen, zeinak, eskolen sortzaileek ezarritako baldintzak —egokitasun akademikoa eta nafarra eta euskalduna izatea— gogora ekarri ondoren, hautagai bakoitzaren ezaugarriak azaltzen baitzizkien zinegotziei.

Guillermo Martínez erdaldunari buruz hau adierazi zitzaien: “No presenta documento alguno en que se haga constar su naturaleza si bien (...) es natural de Herce (Logroño), ni justifica tampoco el requisito de poseer el idioma vascongado”, eta, laburpen moduan: “D. Guillermo Martínez. Calificación 430 puntos. Númº de orden de mérito 12. Naturaleza Herce (Logroño). Lengua vascongada, no hace constar si la posee” (IUA, Ituren).

Dionisio Esain euskaldunari buruzko txostena hau izan zen:

Ha servido en propiedad la Escuela de Beunza é interinamente otras dos en San Sebastian con resultados satisfactorios en la enseñanza y actualmente la misma de Ituren que se trata ahora de proveer en propiedad para la que fue designado por V.E. con fecha 23 de Diciembre de 1897 observando una conducta irreprochable por todos conceptos y cumpliendo



satisfactoriamente sus deberes profesionales en la enseñanza de los alumnos según lo atestiguan los Sres. Cura Párroco y Alcalde de la indicada Villa. (...) es natural del lugar de Larrainzar como se hace constar en la correspondiente partida de bautismo. Posee por la circunstancia del pueblo de su nacimiento el vascuence con perfección habiendo acreditado ya este requisito.

(ibid.)

Laburpen gisa: “D. Dionisio Esain y Pitillas. Calificación 201 puntos. Númo de órden de méritos 82. Naturaleza, Larrainzar (Navarra). Lengua vascongada, la habla con perfección” (ibid.).

Txostenak ezagututa, eztabaidari ekin zioten zinegotziek. Oso arrazoi urriak erabili ziren. Guillermo Martínez erdaldunaren aldekoeki aski zitzairen argudio bakar honekin: aurreneko irizpidea egokitasun akademikoa zen —“el nombramiento debía reacer en el más meritorio” (IUA, “Actas Ayuntamiento Pamplona”, 136. liburukia, 350. or.)—, huraxe izan baitzen eskolen sortzailearen asmoa, eta horretan, puntuaketak erakusten duenez, Guillermo Martínez zen hoberena. Gainerako irizpideak soilik berdinketa izatekotan hartuko ziren kontuan, baina kasu hartan berdintasunik ez zegoenez, ez ziren erabili behar. Euskara hitza ez zuten behin ere aipatu, ez onerako ez txarrerako, betiere aproposena bilatzen zutelakoan.

Maisu euskaldunaren aldekoek, aldiz, zera zioten: egokitasun akademikoa oposaketak gainditu zituzten guztiek zuten, denak egoera berdinean zeuden, beraz, eta eskolaren sortzaileen borondatea lehentasuna euskaldunei ematea zen (ibid., 350. or.).

Bozketa eginda, Guillermo Martinezek 7 botu erdietsi zituen —3 karlista, 2 integrista, 1 errepublikar eta 1 liberal-kontserbadore (García Tuñón alkatea, katoliko antiliberala [García Sanz 1990: 159])—, Dionisio Esainek 5 eta beste euskaldun batek, Esteban Arriaranek, 3. Inork ez zuenez gehiengo hartu, erabakia hurrengo batzarrerako uztea erabaki zuten.

### *Eztabaidak prentsara jauzi egin zuen*

Bozketaren emaitza ezagutu eta berehala piztu zen eztabaida, Estanislao Aranzadik 1900eko otsailaren 25ean *El Eco de Navarra*-n idatzi zuen “Una protesta” gutunaren bidez. Bertan udalaren erdaltzaleatasuna salatu ondoren, erantzunkizuna Nafarroan bertan zegoela azpimarratu zuen: “¡Y esto á título de votar por el más apto! (...). Por esto, que impuesto por el poder central es horriblemente tiránico, impuesto por los navarros (si lo son) que figuran á la cabeza de la Administración en la capital de Navarra, merece otra calificación, que no me decido á estampar, porque resulta dura la palabra”. *El Eco de Navarra*-k

Aranzadirekiko adostasuna adierazi zuen egun bereko oharrean: “En esta provincia, sobre todo en los pueblos en que se habla vascuence, deben ser preferidos los maestros navarros y que hablen la lengua euskara”.

Hurrengo egunetan artikulua eta eskutitz gehiago atera ziren *El Eco de Navarra* eta *El Pensamiento Navarro* —karlista— egunkarietan, denak euskararen aldekoak. Ez ditut orrialde hauetara ekarriko.

Azpimarragarria da *El Pensamiento Navarro*-ko “El vascuence en Navarra” artikulua (1900-02-27), bi arrazoiengatik. Lehena, karlisten egunkaria maisu euskaldunaren alde agertzen zelako. Bigarrena, jakinik gehiengoa karlistek zutela, garbitasunak ematen ahalegindu zelako: “en la última sesión municipal, la mayoría que votó por el maestro castellano no fue la mayoría política del Ayuntamiento, fue la mayoría de los concejales asistentes, entre los cuales había carlistas, republicanos é integristas. Conste así”.

Beraz, prentsa liberal-kontserbadorea eta karlista maisu euskaldunaren alde agertu ziren hitzez, baina beren eraginkortasuna ez zen, preseski kasu hartan, kasualitatez, alderdi haietako alkate eta zinegotziengana iritsi.

### *1900eko martxoaren 1eko udalbatzaren erabakia: Guillermo Martinezen izendapena*

Behin betiko erabakia martxoaren 1eko bileran hartuko zuen Iruñeko udalak. Alde bakoitzaren arrazoiak aurreko bileran aurkeztutako berberak ziren eta oraingoan ez zituzten sobera luzatu. Berritasun bakarra zinegotziei irakurri zitzaien Iturengo udalaren eskutitza izan zen. Bertan, Iruñeko udalari aho bateko oniritzia adieraziz, norabide berean segitzeko eskatzen zitzaion:

El Ayuntamiento de la Villa de Yturen que tengo la honra de presidir, ha acordado por unanimidad en sesion celebrada el dia de hoy, expresar al Exmo. Ayuntamiento de Pamplona la satisfaccion con que vé el interes que demuestra en la *acertada elección de Maestro* de esta villa; y tambien ha acordado suplicarle respetuosamente que persista en sus deseos de nombrar á aquel aspirante que con mas brillantez haya probado sus aptitudes.

(etzana nirea da) (IUA, Ituren, Iturengo udalaren 1900-02-25eko eskutitza)

Gehiago eztabaidatu gabe, bozketa egin zen, honako emaitza honekin: Guillermo Martinez errioxar erdaldunak 10 botu izan zituen —4 integrista, 3 karlista, 2 errepublikar eta 1 liberal-kontserbadore (alkatea)— eta Dionisio Esain nafar euskaldunak 9 botu —7 karlista eta 2 integrista—. Guillermo Martinez izan zen, hortaz, Iturengo maisu izendatua.

Bozketaren emaitzak, hala ere, ohar batzuk egitea merezi du. Lehenego bozketatik bigarrenera bi botu aldaketa izan ziren: Palero zinegotzi errepublikarrak eta Pastor integristak, aurrenekoan botua maisu euskaldunei eman zietenek, bigarrean erdaldunari eman zioten. Bestalde, karlistek eta integristek barne zatiketa izan zuten, zati batek erdaldunaren alde eta besteak euskaldunaren alde joaz. Eta esanguratsuena, gehiengo absolutoa karlistek zuten, esan bezala, eta emaitzak erakusten diguna, oro har, karlisten esku zegoen udalbatzak maisu erdalduna hautatu zuela da.

Berriro ere ikusten dugu tradizionalistei —karlistak, integristak, e.a.— egozten zaien ustezko euskaltzaletasuna ez zela esan ohi den bezain garbia izan. Beste logika bat nagusitu zen Iruñeko udalaren erabakian: *erdal komunitatearen logika*, euskara aipatu ere egin gabe, bere aurka batere hitzik esan gabe, gaitasun hutsaren irizpideen izenean euskara baztertu eta erdararen alde egitera eraman zuena.

*Izkutuko presioak: Alberto Larrondo senadorearen gomendiozko gutuna*

Erdal komunitatearen logika esan dut, baina logika horrek izen-deitura jakinetan gorpuzten zen, lagun jakin batzuk izan ziren erabaki bat eta ez bestea hartu zutenak, eta beraien atzetik Nafarroako senadore baten izena aurkitu dugu: Alberto Larrondo<sup>257</sup>. Deialdiaren baldintzak hain argiak izanik, erdaltzaletasun orokorraz gain, zerk bultzatu zituen alkatea eta zinegotziak erdaldunaren alde horren irmoki jokatzera?: Alberto Larrondo senadoreak alkate jaunari igorri zion gomendiozko gutuna.

Eskutitz hori ez zen inon aipatu, bere lana isilpean egin zuen, baina dossierrean dago eta, hitzez hitz (ikus 30. irudia), horrela dio:

Alberto Larrondo y Oquendo. Senador del Reino, por la provincia de Navarra B. L. M. [Besa La Mano] al Excmo. Sr. Alcalde de Pamplona don Miguel García Tuñón, su distinguido amigo, y *le recomienda con el mayor empeño el nombramiento de maestro de Yturen en favor de D<sup>ñ</sup> Guillermo Martínez*, aprovechando esta oportunidad para reiterarle las seguridades de su más distinguida consideración y aprecio. Madrid 23 de Enero de 1900.

(etzana nirea da) (IUA, Ituren)

---

257. Alberto Larrondo Oquendo (Iruñea, 1857-1928), alderdi liberal-demokratako kidea, abokatua, Iruñeko ehun zergadun nagusietako bat, hiriko alkatea izan zen 1892-3 urteetan. Gero, 1894tik 1903ra bitartean, Araba, Huesca eta Santanderko gobernadore zibila izateaz gain, Nafarroako senadorea izan zen zenbait legealditan (García Sanz 1990: 157-8 eta 1996: 465, 75. oin-oharra).

*Alberto Larrondo y Agüero*

*Senador del Reino,*

*por la provincia de Navarra*

*B. L. A.*

*al Sr. Sr. Alcalde de Comptosia  
don Miguel Garcia Cuñon, su  
distinguido amigo, y le recomiendo  
con el mayor empeño el nombra-  
miento de maestro de Heuren en  
favor de D.<sup>o</sup> Guillermo Man-  
suet*

*aprovechando esta oportunidad para  
reiterarle las seguridades de su más  
distinguida consideración y aprecio,*

*Madrid 23 de Enero de 1900.*

Madriilen urtarrilaren 23an datatua izanik, Iruñeko alkatearen eskutara goizenik hilaren 25 edo 26an iritsiko zen eta, orduko, egina zegoen jadanik deialdiaren iragarkia, 24an sinatu eta 26ko *BON*-en argitaratu zena. Deialdia, beraz, oraindik ohiko uste eta terminoetan egin zuten, baina, zalantzarik baldin bazen, senadorearen gomendioak erabakita utzi zuen auzia alkateak jaso zuen egun beretik. Handik aurrera, urrats guztiak senadorearen nahia betetzera zuzenduko ziren, eta senadoreak Guillermo Martinez maisu erdalduna nahi zuen Iturenen. Interesgarria litzateke bien artean zer nolako harremanak ote zeuden ezagutzera, baina nik neuk ez dut gai hori argitzerik izan.

Alkateak hautagaiaren gaitasunaren arrazoia erabiltzen zuenean edo Iturengo udala erabakia hain sutsuki txalotzen zuenean, funtsean senadorearen gomendioa baizik ez ziren betetzen ari, jakinaren gainean alkatea, eta, ziur asko, deus jakin gabe Iturengo udala. Erdararen aldeko joera orokorrak eta senadorearen presioek bat egin zuten, beraz.

*Erabakiaren ondorengo eztabaidak eta goi mailako erdal eliteen esku hartzea*

Auzia ez zen han gelditu. *El Pensamiento Navarro* isilik egon bazen ere, eskutitz eta ohar ugari agertu ziren *El Eco de Navarra*-n. Aurrenekoa, Arturo Campionen protesta, 1900-03-03ko zenbakian. Biharamunean Francisco Pelado izeneko maisuaren “¡Renegar de la patria!” artikulua, non, besteak beste, Iruñeko irakasle eskola erdaltzaletasunaren birusak jota zegoela salatu baitzuen. Eta bi egun beranduago, bi maisu gaztelar agertu ziren, euren izen ona babestuz (Cuestión terminada. *El Eco de Navarra*, 1900-03-06).

Bestalde, Guillermo Martinezen izendapena ezagutu zuenean, eskutitz berri bat igorri zion Iturengo udalak Iruñeko alkateari erabakia biziki eskertuz: “Al hacer tal designación, *V.E. habrá interpretado fielmente la voluntad consignada en la escritura, por el fundador de estas escuelas*, así como los deseos de este vecindario que se halla animado de los mejores en favor del desarrollo de la instrucción primaria que considera como la más sólida base de la prosperidad” (etzana nirea da) (IUA, Ituren, Iturengo udalaren 1900-03-04ko gutuna).

Dionisio Esainek erabakiaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen (1900-03-08) gobernadore zibilaren aurrean. Hau, auzia epaileei zegokiela esanez, inhibitu egin zen. Horrela, inhibizioaren bidez, ontzat ematen zen Martinezen izendapena. Ezetza jasota, gorago jo zuen Esainek, Gobernazioko ministroarengana, eta orduan hasi zen Iruñeko alkatea urduritzen. Esainen errekurtsioa ministroarenganaino iritsi bazen, alkateak ere berdin egingo zuen, Nafarroako elite politikoa eta Madrilgo zenbait ministro tartean sartuz. Bideak nahasiak izan ziren, baina emaitza, ordea, gutziz gardena: maisu erdaldun bakar baten postua kolokan

jarri zenean erdal komunitatearen ordezkari eta agintari guztiak batera bere alde agertu ziren bortizki borrokatuz.

1900eko apirilaren 27an gutun bana bidali zien Iruñeko alkateak Grazia eta Justiziako ministroari —Vadillo-ko markesa (Iruñea, 1848-Madril, 1919)<sup>258</sup>— eta Alberto Larrondo senadoreari. Ministroari Aranzadi eta Campionek Iruñeko prentsan eman zioten tratu bidegabeagatik oso minduta mintzatu zitzaion alkatea —“por efecto de la campaña que ha hecho Don Carlos Esain hermano de Don Dionisio, se nos ha tratado por Aranzadi y Campion, en la prensa local, de una manera injusta a los que votamos al Sr. Martinez” (IUA, Ituren)— eta, ondoren, Gobernazioko ministroari Esainen errekurtoa ez onartzeko esan ziezaiola eskatu zion Vadilloko markesari: “queremos que V. gestione ante dicho Sr. Ministro la confirmación de la providencia del Gobernador” (ibid.).

Goi mailako lagun gehiagorengana ere jo zuen alkateak eta erantzunak berehala hasi ziren etortzen. Larrondo senadoreak auzia Hezkuntzako ministroari gomendatua ziola adierazi zion (1900-03-07): “recomiendo con el mayor empeño al Ministro de Instrucción Pública la confirmación del Gobernador Civil de esa Provincia en el expediente sobre nombramiento del maestro de Ituren” (ibid.). Gobernazioko ministroari ere hitz egin zion senadoreak (1900-05-01): “fué recomendado con el mayor empeño al Ministro de la Gobernación, la confirmación de la providencia dictada por el Gobernador Civil” (ibid.).

Antero Irazoqui<sup>259</sup> Gorteetako diputatuak ere bere lana bete zuen. 1900eko maiatzaren 6an horrela idatzi zion Iruñeko alkateari:

El Diputado á Cortes por la circunscripción de Pamplona (...) le manifiesta que accediendo gustoso á la indicación (...) de ayer ha vuelto á recomendar el consabido asunto, á su distinguido amigo el Excmo. Sr. D<sup>n</sup> Antonio Garcia, Ministro de Instrucción Pública y Bellas Artes.

(ibid.)

258. Vadillo-ko markesa (=Fco. Javier Gonzalez de Castejon y Elio), alderdi kontserbadoreko kiderik garrantzitsuenetako bat, Madrilgo Gorteetan Nafarroako diputatu kontserbadorea izan zen 1879an eta 1884 eta 1916 bitartean. Lau aldiz egin zuten ministro tarte horretan. Lotura izan zuen karlistekin (Perez Goyena 1947-64, IX: 179-80; *GEN* V: 382-3; Garcia Sanz 1992: 131).

259. Antero Irazoqui Echenique (Bera, 1849-1919), euskalduna, Euskara elkarteko kide ohia (1878), Nafarroako politikari kontserbadore nagusietako bat, Gorteetako diputatu atera zen 1899an eta senadore 1901 eta 1903an. Halaber, Estatu espainoleko zenbait probintziatako gobernadore zibila izan zen (Garcia Sanz 1992: 56-7, 113. oin-oharra, eta 1996: 123).

Lehenago, apirilaren 29an, Gobernazioko ministroari hitz egin ziola adierazi zion Iruñeko alkateari, eta maiatzaren 13an beste ohar bat igorri zion Hezkuntzako ministroaren erantzunaren berri emanez.

Hezkuntza ministroak gutun bana idatzi zien Larrondori —“con el mayor gusto tendré presente el deseo de V.”— eta Irazoquiri —“á la mayor brevedad posible se dictará la resolución que proceda”— auziaz arduratuko zela aginduz. Halaber, Grazia eta Justiziako ministroaren eskutitza (1900-05-17) dugu, zentzu berean zihoana.

Laburbilduz, Iturengo postua maisu erdaldun bati bermatze lanean hiru ministro —Hezkuntza, Justizia eta Gobernaziokoak—, senadore bat, diputatu bat, gobernadore zibila eta Iruñeko alkatea ditugu elkartuta. Politikoki denetatik zegoen: liberalak, kontserbadoreak eta karlistei loturikoak, baina ezberdintasun politikoen gainetik komun zutena zegoen: elite politiko-ekonomikoko kidesasuna, estatu aparatuarekiko leialtasuna... eta erdararen interesen defentsa.

Zauri handiak utzi zituzten Iturengo gertaerek eta hiru urte beranduago oraindik irekita segitzen zuten. Campionentzat, euskaldunek euren hizkuntzari uko egin izanaren erakusle mingarria izan zen eta horrela salatu zuen Irungo Euskal Jaietako 1903ko irailaren 27ko hitzaldian:

Sabéis, señores, lo que sucedió entonces [Aranzadi eta Campionen 1900eko eskutitzak argitaratu zirenean]? Que desde Ituren remitieron á la prensa una contraprotesta aplaudiendo el nombramiento, cebándole para que produjese todo el estrago posible. (...). Así, como lo oís, brutalmente, sin velo ni rebozo: el utilitarismo más pedestre y grosero; utilitarismo de aldeanos codiciosos.

(1976: 176-7)

Campionen hitzak gogorrak eta, bidenabar, elitismo kutsukoak baldin baziren, ez zen samurragoa Iturendik *Diario de Navarra*-k argitaratu zuen erantzuna:

Bien merece (...) San Martín nuestro religioso reconocimiento (...) por haber querido nuestro Santo Patrón desagaviar con su protección á estos sus honrados, nobles, hospitalarios devotos muy dignos de consideración y respetos de los insultos y sandeces —de los que protestamos con indignación— que un caballero poco digno se permitió contra ellos en sus exhabruptos de Irún, atacando su nobleza é hidalguía tan proverbiales. ¡Valiente tonto! ¡Buen campeón para propagar la barbarie! Perdónalo Señor —que no sabía al fin— que á cada campeón le llega su San Martín.

(De Ituren. *Diario de Navarra*, 1903-11-17)

### *Laburpena eta ondorioak*

Iturengo kasua Nafarroako irakaskuntzaren joera nagusiak erakusten dituen kasu piloto gisa azter dezakegu. Nafarroako bertako eztabaida eta erabakia izan ziren.

Euskararen aldeko hautaketa egiteko betebeharrak guztiak biltzen ziren: herri euskalduna, eskolen sortzaileen nahi garbiak, ordura arteko ohitura, erabakimena Nafarroan zegoen, Iruñeko udalean, ez Madrilen, eta horko gehiengo absolutoa, gainera, karlistek zuten, teoriarik behintzat euskaltzaleak zirenek, eta abar. Bestalde, giro orokorra ezin hobea zen: Iturengo maisuaren auzi guztia Nafarroa maisu-maistrak izendatzeko eskubidea berreskuratzeko borroka bizian zegoenean gertatu zen, eta eztabaida horretan euskararen argudioa erabilia izan zen behin baino gehiagotan: aldarrikapena herri euskaldunen maisu-maistra euskaldunak eduki ahal izateko eskubidearen izenean egiten zen batzuetan.

Baina, hala ere, zerbaitek huts egin zuen, Iruñeko udalak Iturenerako Guillermo Martinez maisu erdalduna aukeratu zuelako. Iruñeko —eta Nafarroako— klase politikoa erdalduna zen eta, azken batean, erdal komunitatearen ikuspegitik jardun zuten. Azaleko argudioa oso erraza zen: maisurik hoberena aukeratu behar dugu eta hori oposaketetan puntu gehien lortu duena da. “Zentzu komunean” arrazoi horren aldean, gainerako irizpideak —euskalduntasuna, nafartasuna— muntarik gabekoak iruditzen zitzaizkien. Halaber, izkutuko beste arrazoi bat zegoen: Alberto Larrondo senadoreak hautagai erdaldunaren aldeko gomendiozko gutuna bidalia zion alkateari, eta, jakina, senadorearen borondatea aintzat hartzekoa zen.

Azpimarragarria da maisuek agertzen zuten psikologia edo pentsaera, instantzietatik uler daitekeenez: euskara kontuan hartu beharreko baldintza zenik ez zitzaien ezta bururatu ere egiten, nahiz eta deialdian bertan argi eta garbi horrela agertu. Maisu tituludunak ziren, oposaketak gaindituta zituzten, irakaskuntza erdarazkoa zen eta, ondorioz, edonora joateko eskubidea zuten. Horren aldean, ikasleen hizkuntza muntarik gabeko txikikeria zen maisuentzat.

Prentsak maisu euskalduna hautatzearen beharraz hitz egin zuen, baina hitzek oso indar txikia izan bide zuten orduan, kasu hartan hain zuzen, eta udalaren erabakia, elite erdaldunaren erabakia, guztiz bestelakoa izan zen. Ez zen euskararen aurkako hitz bat bera ere aditu eztabaidan osoan. Batzuek alde hitz egiten zuten eta beste batzuk isildu egiten ziren, gaitasunaren argudioan babestuta. Askotan gertatu izan zen horrela Nafarroan: denak euskararen alde agertu, baina azkenean, inork zergatik jakin gabe, erabakia gaztelaniaren alde hartzen zen. Erdal komunitatearen logika beti gailen.



Eztabaida harrotu zenean, alkateak eta senadoreak ezezik, Nafarroako diputatu batek eta Madrilgo hiru ministrok ere hartu zuten parte: klase politiko erdaldun guztia, alderdi desberdinetakoak izan arren, maisu erdaldunaren babeste lanean elkarturik.

#### 7.4.4 Erdal irakaskuntzaren nafar sustraiak: 1841 aurreko eta ondorengo egoeren jarraitasuna

Idea nagusi bat azpimarratzen ari naiz hasieratik: erdal irakaskuntzaren sustraiak Nafarroan bertan bilatu behar ditugu. Hezkuntza sistemaren zeregin erdalduntzailea bultzatzerakoan bat etorri ziren Nafarroa eta Estatu espainola eta beren portaera berdintsua biek erdal hizkuntz komunitateko kide, eta gidari, bezala jardun zutela gogoan hartuta ulertzen da bakarrik. Hau da, XIX. mendearen bigarren aldirian estatuaren esku hartzea areagotu zeneko, finkatuta zituen jadanik Nafarroak eskola sistemaren hizkuntz ezaugarriak eta estatuak bere indarra norabide berean gehitzea besterik ez zuen egin; gogor jokatu, hori bai<sup>260</sup>. Gainera, maisu-maistren izendapenak nafar udalen esku egon zen denbora ia osoan.

Eskolaren hizkuntz zeregina zehazten duten elementuetatik —ikas-keta planak, irakasleen izendapena, irakasleen psikologia, gurasoen nahiak, e.a.—, azkeneko biak aipatuak ditugu dagoeneko eta, orduan, horiek alde batera utzi eta ikasketa planen eta maisu-maistren izendapenaren auzia aztertuko dira.

#### *Ikasketa planak: erdarazko eskolatzea izan da beti Nafarroan*

Uitziko (6. kapitulua) eta Iturengo kasuak aurkeztu dira orain arte eta bietan erdarazko eskolatzea aurkitu dugu. Herri guztietako arau orokorra zen, baina, eta ez berria.

XVI. mendean lehendabiziko eskolak sortu zirenean umeei irakurtzen, idazten eta kontuak egiten irakasten zitzairen, gaztelaniaz irakurtzen eta idazten, jakina. Huraxe zen Lizarrako maisuen zeregina 1543. urtean —“que enseñe a los niños de la Ciudad a leer, escribir y contar” (Jimeno Jurio 1993b: 437)—, adibidez, gainerako herrietan bezala: “apenas encontramos diferencias con los programas desarrollados en las escuelas de otras poblaciones navarras. Constituían el aprendizaje tres «asignaturas», definidas por los verbos «leer, escribir y contar», repetidas constantemente en los documentos” (ibid.: 437).

---

260. Ikus, esate baterako, Nafarroako Gobernadore Zibilaren 1901-08-29ko zirkularra, euskara eskolan erabiltzea debekatzen zuena (*BON* 103, 1901-09-02), 1902-11-21eko Errege-Dekretua (*Gaceta de Madrid* 327, 1902-11-23) eta 1902-12-19ko Errege-Agindua (*Gaceta de Madrid* 356, 1902-12-22).

Heziketa gaztelaniazkoa izango zela agiri gehienetan azpiulertzen zen, baina bazeuden erdararen ageriko aipamena egiten zuten agiriak ere, toki euskaldun edo elebidunetakoak. Iruñean, 1645. urtean, “Los maestros de las escuelas y las maestras de las niñas enseñan las oraciones en romance” (Jimeno Jurio 1993b: 451, 82. oin-oharra); Labianon, 1713.ean, “En contrato del concejo de Labiano con el maestro Martín de Iracheta, se le exigió que enseñara a leer, escribir, contar, doctrina cristiana y «la lengua castellana»” (ibid.: 451, 83. oin-oharra) eta berdin gertatu zen Agoitzen 1790. urtean (ibid.: 451).

1628. urteaz geroztik herriko alkate izateko bete beharreko baldintza irakurtzen eta idazten jakitea izan zen, urte hartako Gorteen XXII. legeak xedatu zuenez:

Todos los negocios de importancia, y secreto, que se ofrecen en el Reino, corren por la mayor parte por mano de los Alcaldes, Jurados, Regidores, Merinos, Justicias, y Almirantes. (...). Y asi se hà tenido por grande inconveniente, que los dichos oficios los tengan personas que no sepan leer, y escribir (...). *Ordenamos, y mandamos, que los Jueces Inseculadores no inseculen en los oficios de Alcaldes, Regidores, Jurados, Merinos, y Justicias, à personas que no sepan leer, y escribir (...)*

(etzana nirea da) (1628ko Gortek, XXII. legea. In *Novíssima recopilación de las Leyes del Reino de Navarra*, 1735: 612)

Aipa dezagun, bidenabar, Gipuzkoako eta Bizkaiko aginduak —alkate izateko, Gipuzkoan, eta juntakide izateko, Bizkaian— ezagunak ziren bitartean (Euskaltzaindia 1977: 357 eta 362), Nafarroan hizkuntz baldintzarik ez zela ezartzen oker esan izan dela: “no formulándose ninguna prescripción de carácter lingüístico” (ibid.: 361). Ez da egia eta, ikusten dugunez, Gipuzkoaren eta Bizkaiaren pareko dugu Nafarroa alderdi horri dagokionez.

Aipamen berezia merezi du 1780-1781eko Gorteen XLI. legeak —“Providencias para el establecimiento de Escuelas de Niños, y Niñas con separación, en los Pueblos de este Reyno, y calidades que deben tener los Maestros y Maestras” (*Cuadernos de las leyes...* 1896: 64-9)—. Hiru ideia nabarmentzen dira: (1) haurren heziketari ematen zitzaion garrantzia: “siendo la crianza, y educacion de los Niños, uno de los asuntos de la mayor importancia, como que es vasa, y fundamento de la Religion, y la Republica” (ibid.: 64); (2) bost eta hamabi urte bitarteko umeen nahitaezko eskolatzeari<sup>261</sup> ezarri izana: “Que de aqui adelante en todos los Pueblos donde huviere Maestro, y Escuela abier-

261. Nahitaezko eskolatzeari asmo tinko, baina nekez betetzen zena genuen garai haietan, 1829.eko XXII. legeak, “Sobre la instruccion de la enseñanza pública de primeras letras”, gogorazi zuenez: “la primera educacion de la niñez (...) ha ocupado siempre nuestras primeras atenciones (...). Pero una lastimosa experiencia nos enseña

ta, deban todos los Niños concurrir á ella desde la edad de cinco años cumplidos, hasta la de doce” (ibid.: 65), eta berdin neskatoentzat (ibid.: 67); eta (3) ikasgaien aipamena, neskatoen kasuan hauek zirenak: “enseñarles con la mayor aplicacion las expuestas havilidades, y labores [mugeriles]; á leer, y escribir (...) y á todas la Doctrina Christiana” (ibid.: 66). Testu-liburu moduan hauek aipatu zituen: “que en las Escuelas, además de el Cathecismo comun, que señale el Ordinario de la Diocesi, se enseñe por el Compendio Historico de la Religion de Pinton, el Cathecismo Historico de Fleuri, y algun Compendio de la Historia de la Nacion” (ibid.: 67). Nazioaren historia, jakina, Espainiaren historia zen.

Era berean, Nafarroako 1831ko araudiak —“Plan y reglamento general para las escuelas de primeras letras del Reino de Navarra”— berriro zehaztu zituen eskolako ikasgaiak, tartean “gramática y ortografía castellana” izanik (Oroz 1923: 1.030).

Orain arte esandakoak Nafarroak erregeordetza beregaina zen bitartean antolatu zituen ikasketa planak ditugu. 1841. urtean, jakina denez, Espainiako probintzia bilakatu zen eta 1857. urtean Moyano legea —“Ley de instrucción pública de 9 de septiembre de 1857”— sartu zen indarrean —Nafarroako maisu-maistren izendapenaren gaien izan ezik— baina, ikasketa planen hizkuntz edukiari begiratuta, lege honek ez zuen inolako aldaketarik ekarri.

Oinarrizko heziketaren edukiak legearen 2. artikuluan jaso ziren:

ART. 2º La primera enseñanza elemental comprende:

Primero. Doctrina cristiana y nociones de Historia sagrada, acomodadas á los niños.

Segundo. Lectura.

Tercero. Escritura.

Cuarto. Principios de Gramática castellana, con ejercicios de Ortografía.

Quinto. Principios de Aritmética, con el sistema legal de medidas, pesas y monedas.

Sexto. Breves nociones de Agricultura, Industria y Comercio, según las localidades.

(“Ley de Instrucción Pública”, 1857-09-09koa. In Onsalo 1898: 5-6)

---

que han sido estériles, y por desgracia infructuosos tamaños desvelos” (*Cuadernos de las leyes...* 1896: 39).

Dena dela, haur pila eskolatu gabe gelditzen bazen ere, hezkuntza sistemaren eragina askoz zabalagoa zen, denek, eskolatuek nahiz eskolagabeek, bere beharra onartzen baitzuten. Esate baterako, asko izango ziren eskolara joan ez izanagatik erdaraz ikasi ez zutenak, baina inork ez zuen euskaldun elebakar eskolagabea izate hori maite, bere buruarentzat edo bere seme-alabentzat, eta biziki ahalegintzen ziren (Uitzi, Ituren...) egoera konpontzen.

Bigarren ziklokoei geometria, marrazketa, lur-neurketa eta Espainiako historia eta geografia gehitzen zitzaizkien 4. artikuluan (ibid.: 6).

Laburbilduz, Nafarroako erdal komunitateak ederki antolatua zuen heziketa sistemaren hizkuntz alderdia, legez eta praktikan, eta, horregatik, estatuaren legedipean gelditu zenean, nafar erdaldunek beraiek jorratutako bidean sakontzea besterik ez zen egin. Irakaskuntzaren erdal-tasuna alde aurretik bermatuta zegoen Nafarroan, eta baita nazio ikuspegia ere: espainiar nazioarena.

### *Maisuen eta maistren izendapena*

Heziketaren izaera baldintzatzen duen bigarren elementua irakasleak dira. Ikasgaiak berberak izanik, irakaslea erdalduna ala euskalduna den, edo euskararekiko begirunea duen ala ez, alde handia dago. Uitziko lekukotasunen arabera, adibidez, askoz ere gogorrago eta zigortzaileagoak ziren maisu erdaldunak euskaldunak baino. Mojak, bestalde, maitatuak izaten ziren, erdaldunak izan arren neskato euskaldunak ongi tratatzen zituztelako.

Ulergarria da bertako maisu-maistregandik euskararekiko begikotasun handiagoa espero izatea, eta ulergarria da, orobat, irakasleak, maiz oso erasokorrak izan direla gogoan hartuta, kanpotarrak zirela uste izatea<sup>262</sup>.

Ulergarria diot, baina Nafarroako kasurako ez da egia: irakasleak udalek izendatu dituzte beti, 1887-1914ko tartean izan ezik, maisu-maistrak nafarrak ziren gehienbat eta, hala ere, euskarak ezaguna den trataera jasan zuen. Iturengo gertaera hain adierazgarria baldin bada, horrexegatik da hain zuzen, ahalmena bere eskuetan izanik ere, nafar gizarteak euskararen kalterako erabili zuela erakusten duelako.

1887. urtera arte Nafarroako udalen eskuetan egon zen maisu-maistren izendapena. Eskubide honi *Derecho de propuesta* deitzen zaio eta bere lehen adierazpena 1617.eko Gorteen 32. legea dugu (*GEN IV*, “Derecho de propuesta”: 43). Bertan, maisua izendatzeko alkate eta zinegotzi edo erregidoreen botuak aski zirela esaten zen: “las conducciones de (...) maestros de leer, escribir y contar, las hayan de hacer los Alcaldes y Regidores de los pueblos” (ibid.: 43). Eskolen ikuskaritza ere udalen ardura zen, 1780-1781eko Gorteen XLI. legearen aginduz.

---

262. Uste horren adibidea hitz hauek izan daitezke: “Moyano legea (...) ari zen hezkuntzan indarrean ezartzen estu eta bortizki: maisu-maistra espainolak eta espaino-leraz aritzeko, jakina. Garai hartako Bizkaiko Foru Aldundiak honako hau adierazi arren: «Logikoena herriak irakaslea hautatzea litzateke, eta ez alderantziz»” (Rodriguez 1996).

Nafarroako *1831ko araudiak* —arestian aipatua— gehiago zehaztu zuen izendapenaren prozedura. Laburbilduz, honelakoa zen: postu bat hutsik gelditzen zenean, udalak abisua ematen zion zegokion hezkuntza batzordeari —Nafarroako “Junta Superior de Educación”-ari edo herriko “Junta de educación”-ari, herriko biztanle kopuruaren arabera (Oroz 1923: 1.028-9)—. Hezkuntza batzordeak deialdi ofiziala egiten zuen eta, lanpostura aurkezten zirenen artetik, oposaketaren edo lekualdatze-lehiaketaren bidez hirukote bat osatu eta udalari aurkezten zion, udalak hiruetatik bat hauta zezan. Hirurehun biztanletik beheragoko herrietarako ez zen prozedura berezirik ezarri. Mekanismoaren muina, beraz, urrats hauetan zegoen: oposaketa (edo lekualdatze-lehiaketa)-hirukotea-udalaren hautaketa.

Moyano legeak beste prozedura bat ezarri zuen, baina Nafarroan ez zen 1887. urtera arte ezarri, Gobernua 1880. urtetik behintzat gogor saiatu arren (1880-12-04 eta 1883-04-20eko Errege-Aginduak). Ordura arte, beraz, udalek hautatzen zituzten eskoletako irakasleak, azaldutako moduan.

*1887. urtean*, gobernuaren presioei amore emanaz, Nafarroako hezkuntza batzordeak, 1887-02-26ko bileran, legeak ezarritako prozedura Nafarroan ere erabiltzea onartu zuen azkenean: “que la provisión de escuelas, que hasta el presente y según antigua costumbre se ha hecho formando una terna de los aspirantes y remitiéndola a los Ayuntamientos para que verifiquen el nombramiento, en lo sucesivo se haga en la forma que previene la Ley de Instrucción Pública” (*GENIV*, “Derecho de propuesta”: 43)

Legearen prozedurak, eta berdin 1899.ean “Reglamento de provisión de Escuelas públicas de primera enseñanza” (*BON*, 1899-10-20, 23 eta 25) izenekoak egokitu zuenak, aldaketa nagusi bat zekarren: izendapena Unibertsitate barrutiko errektoreari zegokion kasu gehienetan, ez herriko udalari. Baina gainerako urratsak, ordea, berdintsuak ziren: eskola hutsik gelditzen zenean, postua oposaketetara edo lekualdatze-lehiaketara ateratzen zen. Onartutakoekin —edo oposaketak gainditutakoekin— merezimendu zerrenda egiten zen eta orduan, zerrendan zeuden ordenaren arabera, bete gabe gelditzen ziren postuetatik gehien interesatzen zitzaiena hartzen zuten banan-banan.

Nahiko bide arautua zen, beraz, eta abiapuntua irakasle batek hutsik zegoen herrira joateko agertzen zuen nahia dugu. Kanpoko maisu-mais-trak etortzeko aukera ematen zuen bide honek —ezagutu ditugun beste prozedurek ere ematen zuten bezalaxe, plazara lehiatzea libre baitzen, Iturengora, adibidez—, baina ezinezkoa da, bistan da, espainiar irakasleen etorrera famatu hura gertatu izana. Nor aurkezten zen Nafarroako herrietako eskoletara? Nafarrak, batez ere, eta auzo herrialdeetako lagunak: Iturenera 6 nafar, 2 aragoiar, errioxar bat eta gipuzkoar bat aurkeztu ziren. Are gehiago, garai batean soldata hobeagoa zuten errejimen orokorreko maisu-maistrek Nafarroakoek baino, eta horrek Nafarroako

eskola asko bete gabe gelditzea eragiten zuen: “las ventajas con que contaba el Régimen General, motivaron que los maestros no concursasen para las Escuelas de Navarra, con lo que muchas plazas se quedaban sin cubrir, y aunque las plazas que salían a oposición se ocupaban inmediatamente, pronto los maestros se trasladaban a otras provincias” (*GEN* IV, “Derecho de propuesta”: 44).

Dena dela, egia da Nafarroako eskoletan, oposaketa eta lekualdatze sistemaren bidez nafar maisu-maistrekin batera kanpotarrek ere irakas-ten zutela, baina euskararekiko ezaxola bi multzoen ezaugarria zen, Pedro Uranga Diputazioko idazkari euskaltzaleak txosten garrantzitsu batean (ikus 7.4.6 atala) esan zuenez:

Para esto [euskararen zabalpena eskoletan] es un obstáculo el sistema de las oposiciones y concursos que trae muchas veces á las de esta provincia profesores castellanos, y doloroso es confesar que habrá de lucharse también con la indiferencia y desvío de los mismos maestros navarros.

(NAN, Diputazioaren Aktak, 1897-03-11ko bilera)

1914. urtean, Diputazioaren eta Espainiako gobernuaren arteko eztabaida latzen ondoren, berriro udalei aitortu zitzaizen maisu-maistrak hautatzeko eskubidea, erdibideko modu batez: oposaketak gaindituta zituztenen artetik, udalak bat aukeratzen zuen eta izendapen formala Estatuak egiten zuen (1914-04-08ko Errege-Dekretua: “Provisión y dotación de las Escuelas de Navarra”. In Oroz [1917-23: 1.015]).

Laburbilduz, Nafarroako maisu-maistren eragin erdalduntzailearen gakoa ez da izendatze prozeduran egon. Hogeita zazpi urte (1887-1914) kenduta, hiru mende luzetan zehar izendapena udalek egin dute eta, eskumena Estatuak izan zuen aldian ere, oposaketa eta lehiaketaren bidez, nahi zutenak soilik etortzen ziren Nafarroako eskoletara. Maisu-maistra gehienak nafarrak ziren. Arazoa oso desberdina zen: mugikortasun handia zuten maisu-maistrek, lan-baldintzak, soldatak edo bestelako arrazoiak zirela-medio, asko aldatzen ziren herri batetik bestera eta ez udalek ez irakasleek ez zuten normalean euskalduntasunaren irizpidea aintzat hartzen. Guztiz ohikoa zen Erriberan jaiotakoak herri euskaldunetan aritzea, eta alderantziz. Ez da batere kasualitatea Don Bernardino, Arturo Campionen *Blancos y negros* eleberriko maisu gaizto sonatua, nafarra —Pirinioetako herri batekoa— eta euskalduna izatea.

*Herri euskaldunetako maisu-maistren izendapena praktikan: Elizondo, Gares, Irurtzun, Leitza eta Otsagi (1830-1876)*

Herri euskaldunetako maisu eta maistren izendapena praktikan nola gertatzen zen ikusteko bost herriko lagin bat aztertu dut: Elizondo, Gares, Irurtzun, Leitza eta Otsagi, Nafarroako eremu euskalduneko eskualde desberdinak islatuz nonbait (ikus 31. irudiko mapa). Epea



31. irudia. Elizondo, Gares, Irurtzun, Leitza eta Otsagi herriak.

1830-1876 bitartekoa izan da, arrazoi erraz batengatik: hori delako Nafarroako Artxibo Administratiboko eskolak betetzeko espedienteek —“Archivo Administrativo de Navarra, Enseñanza, Expedientes de provisión de escuelas”— besarkatzen duten aldia. Espedienteen osaketa mailari dagokionez, alde nabariak daude batetik bestera, baina argibide aberatsak eskaintzen dituzte denek, izendapen bakoitzaz dossier oso bat dagoelako: udalak Nafarroako hezkuntza batzordeari postua hutsik gelditu zela adieraziz igorritako eskutitzak, iragarki ofizialak, hautagaien instantziak eta gainerako agiriak, azterketak, udal bileren aktak, eta abar. Izendapena beti udalak egiten zuen, arestian azaldutako prozeduraren arabera.

Jasotako datu zehatz guztiak eranskinetako 4. taulan biltzen dira, eta haietatik honako ideia hauek atera ditut, orain artekoak baieztatzeraz datozenak:

-Maisu-maistra gehienak nafarrak ziren, bai hautatuak ateratzen zirenak bai postura aurkezten zirenak. Deialdiaren iragarkiak aldameneko probintzietako boletin ofizialetan ere jarri ohi ziren, baina oso gutxi izan ziren aztertutako herrietara joateko interesa erakutsi zuten kanpo-tarrak.

-Mugikortasun handia zegoen eta horretarako irizpide nagusia Nafarroaren barrutia zen. Nafarroan jaiotako maisu-maistrak Nafarroa osotik mugitzen ziren. Adibide bat jartzearen, Benigna Palacios dugu, Eneritzen jaioa —Garestik gertu—, 1856ra arte Andosillan egon, urte hartan Otsagira joan eta 1860.ean Cascantera aldatu zena.

-I. Errepublikako urteetan Konstituzioaren zina egin behar izaten zuten maisu-maistrek eta egiten ez zutenak —ideologia karlistakoak edo— kanporatuak izaten ziren. Karlistek haietakoren bat bere postuan berrezarri zuten gerran zehar eta 1876an, gerra amaituta, berdin gertatu zen beste zenbaitekin, baina, hala ere, beste batzuk posturik gabe geldituko ziren betiko. I. Errepublikako Konstituzio “ateoaren” zinak hurrengo urteetan ere ondorioak izango zituen ukaezinezko iragazki ideologikoa eragin zuen Nafarroako maisu-maistren artean.

-Euskararen irizpidea ez zen behin ere agertu aztertutako agiri guztietan.

-Postua eskatzerakoan, zenbaitetan, edo ematerakoan, beste zenbaitetan, irizpide bat, ez bakarra, ezta gutxiago ere, hurbiltasun geografikoa izaten zen, ulertzekoa denez. Hau Garesko eta Irurtzungo zerrendetan antzematen da batez ere —Uitzik ere inguruko herrietako maisu batzuk izan zituen, ez guztiak, ordea—.

Hurbiltasun geografikoarena izan zitekeen euskarari praktikan zirritu bat utziko zion bide bakarretako bat: maisu-maistrek beren jaioteritik hurbileko herrietara joateko joera baldin bazuten, honek aukera ematen zuen herri euskaldunetan irakasle euskaldunak izateko. Hala ere, erruz ibiltzen ziren maisu-maistra erdaldunak herri euskaldunetan. Edo



erdara hutsean ziharduten bertako irakasleak ere, 1911ko Otsagiko udal eskolaurreko maistra bezala, Arturo Campionek salatu zuenez<sup>263</sup>.

#### 7.4.5 Euskararen aurkako zigorren esanahia

Eskolan euskara debekatzeko eta zigortzeko zela gauza ezaguna izan da Nafarroan betidanik<sup>264</sup>, eta, nik dakidala, XIX. mendearen azken laurdena arte inor, edo ia inor, ez zen horren aurka deus esaten hasi.

Xalotasun osoaz aipatu zuten 1765. urtean auzitegietakoa hartzaile erdaldunek euskararen debekua —“prohibiendoles el hablar vascuence” (Irigaray 1966: 83)— hain ezaguna bihurtu den pasartean. Oraindik argiagoak dira 1790. urtean Agoitzen jaso ziren testigantzak. “En la villa de Aoiz, de inmemorial tiempo a esta parte, a abido y hay escuela de niños y niñas, con maestro asalariado, quien prohíbe a unos y otros el ablar bascuence” (Jimeno Jurio 1992c: 467), zioten lekuko guztiek, eta, noski, debekuak arauaren hausleen zigorra zekarren berarekin: “En la escuela de primeras letras tienen *pena* de que no usen del ydeoma vascongado, con el objeto de instruirsen en el castellano” (etzana nirea da) (ibid.: 467). Jimeno Jurioen ustez, hura izan zen Nafarroako politika orokorra: “Esta política fue mantenida por las Cortes generales del XVIII. La enseñanza continuó impartida en castellano, con prohibición expresa de que los alumnos emplearan la lengua materna o se comunicaran en ella” (ibid.: 467).

Zigor metodorik erabiliena eratzunarena dugu, edo horren aldakiren bat, giltza bat, adibidez, Uitzin egiten zuten bezala.

---

263. “Existe en esa capital del valle [Otsagi] una escuela de párvulos, costeada, á mi entender, por fondos municipales, y la regenta una maestra, hija de la misma villa. No dicen que esa buena mujer raye á gran altura en el conocimiento del castellano; no le hace: puro —averiado, rico en concordancias cervantescas— bizkaínas ella se lo embute á las criaturas, desentendiéndose en absoluto del habla materna” (Campion 1911: 20).

264. Hala ere, maisu-maistra zigortzaileen ondoan euskara zigortzen ez zutenak ere bazeuden, Uitzin ezagutu genuen bezala. Kasu adierazgarri bat Abaurregaineko maisua dugu, 1883.ean izendatua eta ia 50 urtez jardun zuena. Euskalduna zen eta haurrei eskolatik kanpo euskaraz hitz egiten uzten zien, auzo herrietan ez bezala. Abaurregaineko euskararen iraupenean zeregin handia izan zuen berak eta Euskeraren Adiskideak elkartearen zorionak jaso zituen:

Es éste uno de los pueblos donde mejor se ha conservado el vascuence —nos dice el celoso párroco (...)— debido a que el señor maestro es vascongado y en los 46 años que viene ejerciendo ese cargo, nunca les prohibió a los niños que hablasen euskera fuera de la escuela, a cuya prohibición se debe la desaparición de esa lengua en pueblos limítrofes.

(*Euskal-Esnalea* XIX, 1929, 52-3)

Salaketak XIX. mendeko talde euskaltzaleen eskutik etorri ziren, eta horien erakusletzat *Lau-Buru* egunkari foruzalean argitaratu zuten “Tiranía miserable” (1886-01-17) artikulua<sup>265</sup> dugu. Herri jakin bateko —izenik ez zuten eman— jazoerak abiapuntu hartuta, lurralde euskalduneko eskola ugaritako egoera salatu nahi izan zuten idazkiaren bidez:

En diferentes épocas y de distintas localidades de nuestra montaña, hemos recibido cartas de personas muy respetables (...) denunciándonos, con la indignación que el hecho merece, la especie de *ojeo* organizado por algunos maestros contra la lengua vascongada.

La última denuncia que ha llegado á nuestras manos, presenta todavía mayores caracteres de odiosidad. El procedimiento empleado es, como siempre, el del *anillo*; pero el maestro que lo aplica, no se contenta con que el signo denunciador corra por la escuela, sino que que ha conseguido hacer forzosa su circulación fuera de ella, por las calles, por las plazas, por el hogar doméstico mismo.

Okerrena, dena dela, jazarpenaren lehen postuetan maiz Nafarroako maisu euskaldunak ikustea zen:

Que esta persecución la lleven á cabo maestros nacidos en otras provincias, no nos sorprende (...); que la lleven á cabo maestros nacidos en el suelo navarro que ha tenido la desgracia de olvidar la lengua de sus constantes pobladores, ya nos duele y parécenos deplorable; pero que como en el caso á que nos referimos el autor de la tiranía sea un navarro-vascongado, un montañés que inmerecidamente habla el idioma milenario que tanto admiran y estudian los sabios, nos indigna y avergüenza.

(ibid.)

Asko hitz egin da haur euskaldunek eskolan jasan behar izan zituzten zigorrez —ikus, besteak beste, Uitziko nire lekukotasunez eta goian aipatutakoez gain, Vinson (1882), Aranzadi (1919), Campion (1934), Etxegarai (1934) (Humboldtten 1801eko lekukotasuna dakarrena), Sanchez Carrion (1972), Garate (1976) eta Caro Baroja (1978)— eta nik ez dut gehiago frogatu beharrik. Merezi duena, aitzitik, zigorren inguruan azalpenen bat ematen ahalegintzea da.

Euskararen aurkako zigorretan lau joera mota elkartzen ziren, nire ustez:

(1) Maisu-maistren hizkuntz psikologia eta portaera praktikoa, hizkuntza ez-ofizialak gutxiestera jotzen zuena.

(2) Orduko pedagogi irizpideak: “La letra con sangre entra” dio erdal esaerak, eta zigorrak ohikoak baziren pedagogi molde zaharretan, orain-

---

265. Artikulu honen harira idatzi zuen Manuel Gorostidik “Importancia de las lenguas regionales” (1886) artikulua interesgarria, non txekiera, galesera, okzitaniera eta flandesera hizkuntzen egoerak euskararenarekin alderatu baitzituen.

dik erabiliagoak izango ziren gaztelaniazko hitzak haur euskaldunen buruan sarrarazteko.

(3) Eskolatzea erdarazko “murgiltze-sistema” moduan ulertzen zen, gehien-gehien adostasunarekin, ikusi bezala, eta sistemaren eragin-kortasuna bermatzeko haurrek egun osoa erdaraz emango zutela ziurtatu nahi zuten. Zigorrek hor zuten beren tokia. Adibidez, Donostiako eta Tolosako frantses ikastetxetan —frantsesezko murgiltze-sisteman—, gaztelania (eta euskara) zigortzeko erabiltzen zen eraztuna (Aranzadi 1919: 376, 1. oin-oharra; Garate 1976: 381)

(4) Beste herri askotako zigorren eredia: eskola eraztunaren parekoak nonahi eta garai desberdinetan aurkitzen ditugu, ez bakarrik Euskal Herrian. Ikerketa sistematikorik egin gabe, Euskal Herriko egoeraren parekotasuna duten hainbat testigantza<sup>266</sup> esanguratsu bildu ahal izan ditut irakurketa orokorretatik.

### *Herri hizkuntzen aurkako zigorren ohitura*

Aurrekari gisa *Cambridge*-ko Queensí College aipa daiteke. Kolegioko hizkuntza bakarra latina zen oraindik 1677. urtean eta bere erabilera eskola orduetatik kanpo ere bermatzeko asmoz zelatari bat jarzen zuten ikasleen artean, ingelesez edo bestelako hizkuntzaz mintzatzeko harrapatzen zuena salatu eta zigortua izan zedin: “Schoolboys were often expected to speak Latin in the playground as well as in class, and a «spy» (literally «wolf», *lupus*) might be appointed by the master to ensure that lapses into the vernacular were reported and punished” (Burke 1988: 7).

1837koa da *Balear Uharteetako* Gobernadoreak eskola eraztunaz baliatzeko eman zuen agindua, tresna hori hobekien erabiltzen zuten maisu edo maistrak urteroko ikuskaritza bisitan sarituak izango zirela iragarritz:

Cada maestro o maestra tendrá una sortija de metal que el lunes entregará a uno de sus discípulos advirtiéndolo a los demás que dentro del umbral de la escuela ninguno hable palabra que no sea en castellano so pena de que oyéndola aquel que tiene la sortija se la entregará en el momento y el culpable no podrá negarse a recibirla (...). El celo mejor entendido de los maestros en plantear y sostener esta medida tan sencilla y el adelantamiento de sus discípulos será un mérito particular para unos y otros y un objeto especial de examen en la visita anual que pasará a todas las escuelas de la provincia (...). Dado en la ciudad de Palma, a 22 de febrero de 1837.

(Balear Uharteetako Gobernadora, 1837. In Siguan 1992: 31-2)

---

266. Ikus, orobat, Justo Garatek (1976: 380-1) emandako lekukotasunak.

Neurri hau ohikoa zen XIX. mendeko *Frantziako herri hizkuntzen* aurkako jazarpen politikan (ibid.: 32) eta baita *Erresuma Batuko galesaren* aurkakoan ere (ibid.: 32; Txillardegi 1977: 591).

Frantziako hizkuntzei dagokienez, 1893 eta 1896ko lekukotasun argigarriak eman zituen L.J. Calvetek —“Ese símbolo nos era presentado bajo la especie y apariencia de una arandela de hierro blanco, horadada en medio con un agujero” (Le Braz 1896. Aipatua in Calvet 1981: 164)—, baina horiek errepikatu gabe, *Korsikako* testigantza jasoko dut:

Faut-il rappeler les procédés employés à l'égard des élèves qui spontanément laissaient échapper un mot dans leur langue? Pensums, «piquet», exclusion, port infamant du «signal» ou «symbole» (objet en fer, caillou, jeton, «bûchette»...) à refiler, grâce à la délation encouragée, au camarade qui aurait à son tour commis la même «faute» —le dernier détenteur de l'objet, en fin de journée, était puni—, châtiments corporels: “Il est formellement interdit de parler corse, sous peine de recevoir des coups de baguette” raconte Marie Baldini qui allait [1900] à l'école communale de Lisula.

(Marchetti 1989: 123)

Estatu Batuetako *indioen* aurkako zigorrak, heriotza eragiteraino iristen zirenak, Dell Hymesek (1996: 176-7) aipatu ditu. Umatilla erreserban (Oregon), adibidez, berriemaileari eta bere ikaskide bati xaboi puska bana ahoan sartu ahoan eta estali egin zieten. Ikaskidea hilik geratu zen.

Azkeneko testigantza *Zeelanda Berri*tik datorkigu, J.B. Speedy bertako maisu jubilatua 1994-01-22ko gutunean adierazi zidana. Speedy jauna 1940ko hamarkadan Wai-iti Maori School-en egon zen maisu. Eskola hartan, zuzendariaren semea izan ezik, ikasle guzti-guztiak maoriak ziren, baina debekatuta zuten ama hizkuntzaz hitz egitea: “and yes Xavier, they were not permitted to speak Maori at school. (Not even in the playground). The punishment for breaking this rule was never spell out to me so I ignored it”. Egoera bera aurkitu zuen 1950. urtean Whirinaki Maori School-era aldatu zenean: “The same rules regarding the speaking of Maori at school applied, although I didn't ever punish a child for speaking his own language”.

Speedy bera *Kanada* aldera aldatu zen 1961. urtean, eta han indioentzako St. John's Anglican Indian Residential School-en —Ipar Albertako Wabasca-n— irakastea egokitu zitzaion, eta berriro ere maisu-maistrek haur indioei zigortu behar zietela aurkitu zuen: “Once again I was expected to punish children for speaking their own language. (In this case Swampy Cree)”.

Latina ingelesa edo Erresuma Batuko gainerako hizkuntzen aurka; frantsesa bretoiera, okzitania, euskara eta korsikeraren aurka; gaztelania euskara eta katalanaren aurka; ingelesa galesaren aurka; Zeelanda Berriko zuriak maorieraren aurka; Kanadako zuriak Swampy Cree hiz-

kuntza indioaren aurka... guztietan eskola sistemaren hizkuntz politikarako eredu orokor bera dugu. Nafarroako maisu-maistrak ez ziren oso orijinalak izan eraztunaren zigorra ezartzen zutenean. Mendebaldeko kulturaren —“erdal” kulturen, oro har— herri hizkuntzekiko jarrera edota portaerak aipatu dira behin baino gehiagotan lanean zehar eta, zalantzarik gabe, eskolako zigorrak direla-medio berriro egin dugu topo berarekin.

#### 7.4.6 Diputazioa, udalak eta eskolaren erdaltasuna

Diputazioaren eta udalen eskolaren erdaltasunari buruzko diskurtso nahiz portaeraz argibide ugari eman dut aurreko ataletan eta sintesia egiteko egokieran gaude, baina zeregin horri ekin baino lehen aldi berezi bat aztertu behar dugu: 1896-1897 urteak.

##### *1896-1897ko erabakiak*

Bi urte haietan hiru ekimen interesgarri izan zituen Diputazioak: (1) Euskararen irakaskuntza Euskal Herriko eskoletan gaiari buruz Gipuzkoako diputazioari igorritako txostena (1896-01-11); (2) Irakasle eskolan euskara katedra betetzeko deialdia (1897-03-04); eta (3) Diputazioko idazkariaren txostena, euskara bultzatzeari buruzkoa (1897-03-11). Esanahi handiko gertaerak dira hirurak, ez baita nolana-hikoa Diputazioak euskararen alde horiek bezalako agiriak onartzea, eta merezi du haietan arreta jartzea.

*Euskarazko irakaskuntzari buruzko txostena* (1896-01-11). 1895eko azaroaren 12an txosten bat bidali zion Gipuzkoako Diputazioak Nafarroakoari, Euskal Herriko eskoletan irakatsi behar zuten maisu-maistrei euskaraz jakiteko eskatu behar zitzaizela aldarrikatuz. Nafarren erantzuna ezin beroagoa izan zen, ezaguna egiten zaigun hizkera puztuaz, bestalde:

Esta Diputación se ha enterado con imponderable complacencia del erudito y patriótico Informe (...) referente á que se exija á los Maestros y Maestras que hayan de regentar las Escuelas del país bascongado el conocimiento de la lengua euskara. No podía dar V. E. prueba de solicitud que recayese sobre asunto más grato á la Diputación de Navarra, la cual por la conservación y lustre del milenario idioma bascongado experimenta ese profundo y dulcísimo sentimiento con que los buenos hijos contemplan las cosas que íntimamente tocaron á sus padres y constituyen el tesoro de venerables reliquias familiares.

(NAN, Diputazioaren Aktak, 1896-01-11ko bilera)

Beherago, Euskal Herriak, munduko herri orok bezala, euskara gordetzeko duen eskubidea gogoratu ondoren, Diputazioaren erabakia

zehazten zen: “La Diputación de Navarra (...) ha acordado *gestionar cerca del Gobierno* de S.M. la declaración preceptiva de la enseñanza del vascuence en las escuelas del territorio vascongado” (etzana nirea da) (ibid.).

Argi utzi nahi izan zuten maisu-maistrak izendatzeko eskubidea udalei zegokiela —“dejar en salvo á los Ayuntamientos de la provincia la atribución foral del nombramiento de maestros” (ibid.)—, baina behin eskubide hori argi utzi eta gero, Gobernuari egindako eskariarekin maisu-maistrei euskara exijitzeko bide formala bermatuta geldituko lizatekeela uste zuten:

Con la fórmula adoptada, cualquiera que sea la autoridad revestida con el derecho de nombrar los maestros, autoridad que por fuero tienen aquí los Ayuntamientos, habrá de exigirse á las personas que hayan de regentar las Escuelas, como condición ineludible el conocimiento de la lengua euskara.

(ibid.)

Honaino iristen da Diputazioaren txostena.

Sinatzaileak Ramon Eseverri presidentea, Diputazio osoaren izenean, eta Pedro Uranga idazkaria izan ziren. Nor zeuden 1896ko Diputazioan?: Lau liberal-kontserbadore —Elorz, Eseverri, Gaston eta Gaztelu—, karlista bat —Errea—, liberal bat —Yanguas— eta independente bat —Ariza— (García Sanz 1992: 338-44). Beraz, Nafarroako Diputazioak agian bere historian egin duen euskararen aldeko agiririk sutuena liberal-kontserbadoreen eskutik etorri zen.

Beste ezaugarri bat: hitzak alde batera utzita, onartu zuten neurri bakarra Gobernuari eskaera egitea izan zen. Argumentazioan bereizketa formal bat egiten zen: gauza bat da maisu-maistren zeregina, legez zedarritua dagoena, eta beste bat haien izendapena. Nafarroak maisu-maistrak izendatzeko eskubidea aldarrikatzen du, baina eskubidea aitortuta ere, beren lana legez mugatuta dagoenez, ezin izango dute ezer euskararen alde<sup>267</sup>. Horretarako legea aldatu behar da, eta hori Gobernuari dago-

---

267. Bestelako ikuspegia zuen prentsa foruzaleak, ordea, udalei astindu bat ematearen beharraz mintzatu baitzen:

El día que se devuelva á los municipios navarros su facultad de nombrar los maestros, será ocasión de procurar que usen discretamente de ella, supliéndose omisiones hasta ahora cometidas. Por ejemplo: los ayuntamientos de la montaña deberán de fijar diligentemente su atención en la circunstancia de que el maestro sepa vascuence y no inspire á los niños despego á tan hermosa lengua.

(El espíritu fuerista. *El Aralar*, 1896-01-12)

Araza zera baitzen: eskumenak dituzten arloetan ere hizkuntzarekiko axolagabekeria handia erakusten zuten udal euskaldunek:

kio, ez Diputazioari. Bestela esanda, eskumenak Gobernuak zeuzkanez, Diputazioak gora bidali zuen pilota, bere esparruari begira batere egitasmorik adierazi gabe. Esate baterako, handik lau urtera Iturengo auzia (1900) piztu zen (ikus 7.4.3 atala) eta, aztertzen ari garen akordioa aintzat hartuz gero, espero izatekoa zen Diputazioak zerbait esatea, baina, nonbait, 1896ko agiria ahaztuta zuen jadanik eta isilik gelditu zen.

Azkenik, gogoan izateko izena: Pedro Uranga (Hernani, 1867-Iruñea, 1951) —Diputazioko idazkaria, euskalduna (*El Demócrata Navarro*, 1913-03-05. In Garcia Sanz 1992: 190, 496. oin-oharra), alderdi liberal-kontserbadoreko kidea, 1893-1894ko Gamazadaren bul-tzatzaileetako (Martinez Peñuela 1989: 36)—, 1896-1897 epealdiko ekimenen egiazko erantzulea bera<sup>268</sup> izan baitzen, nire ustez. Antzeko iritzia eman dute Garcia Sanzek (1992: 188, 493. oin-oharra) eta Urmenetak (1997).

*Irakasle eskolan euskara katedra sortzeko deialdia* (1897). Beste batzuetan ez bezala —1887 eta 1888ko aurrekontuetan euskara katedra sortzeko 2.500 pezetako diru kopurua zehaztu zen, baina ez zen ezertan gauzatu (ikus: Acuerdo patriótico. *Lau-Buru*, 1886-07-25; NAN, Diputazioaren Aktak, 108., 109., 110. eta 112. liburukiak)—, egiazko egitasmoa izan zen hau eta betetzeko urratsak egin zituzten, katedra azkenean hutsik geratu bazen ere.

Oraingoan desberdina zen Diputazioaren osaketa, tartean hauteskundeak izan zirelako: hiru kontserbadore —Elorz, Eseverri eta Gaston—, hiru karlista —Errea, Martinez eta Mata— eta integrista bat —Iturria— (Garcia Sanz 1992: 338-344), baina, politikoki desberdina izan arren, aurrekoaren ildo beretik joan ziren euskararen gain.

Lehiaketaren epaimahairako prestakuntza handiko hiru gizon hauek izendatu ziren: Resurreccion Maria Azkue, Arturo Campion eta Damaso Legaz (NAN, Diputazioaren Aktak, 1897-03-04ko bilera). Uztailean sol-dataren kopurua —1.500 pezeta— eta oposiziorako deialdia Nafarroako

---

Y acerca de este punto será preciso, acaso, promover una enérgica campaña para sacudir de su letargo á los pueblos vascongados, los cuales, con indiferencia inconcebible y opuesta á su propia comodidad, ni siquiera procuran que los Médicos y Secretarios de Ayuntamiento de nombramiento exclusivamente suyo, conozcan el idioma de las personas con quienes han de tratar de continuo.

(ibid.)

268. Pedro Uranga Esnaolari buruzko argibide gehiago: Foru zuzenbidean aditua, abokatuen elkargoko dekanoa, epailea 1892. urtean, *Diario de Navarra* egunkariaren sortzaileetako bat, foru diputatua 1913-1917 bitartean alderdi liberal-kontserbadorearen izenean, Eusko Ikaskuntzako bazkidea, eta abar, izan zen (Perez Goyena 1947-64, IX: 178; *GEN* XI: 195; Garcia Sanz 1992 eta 1996). Halaber, maisu-maistrak izendatzeko eskubidea Nafarroari itzultzeko negoziatioak (1914) berak eraman zituen (Echegaray 1934: 109).

boletinean eta gainerako euskal probintzietako —Iparraldekoak barne— egunkarietan paratzea erabaki zuten (ibid., 1897-07-20ko bilera).

Lau lagun aurkeztu ziren lehiaketara: Martin Lampreave, Juan Bautista Gorosurreta, Carlos Esain —Inklusako maisua eta Iturengo maisuaren anaia— eta Serafin Guridi (ibid., 1897-11-06ko bilera). Azterketak azaroaren 3, 4 eta 5ean egin ziren, baina, tamalez, maila baxuegia erakutsi omen zuten hautagaiek epaimahaikoen iritziz:

El Tribunal (...) tiene el sentimiento de manifestar que ambos géneros de conocimientos, el científico y el empírico, no los han reunido los opositores en la proporción suficiente para aprobar sus ejercicios.

(ibid.)

Hutsik geratu zen lehiaketa, beraz: “Y en vista del precedente informe del Tribunal, la Diputación acordó declarar desierto el concurso” (ibid.), eta 1922. urtera arte ez zen beste bat deitu. Erabaki haren ondorioz, nafar euskaltzaleen urtetako ametsak —1877. urtean jadanik hasi ziren euskara katedra eskatzen—, gauzatzeaz zegoela garbi zirudienean, beste mende laurden bat itxaron behar izan zuen. Betiko geldituko zaigun zalantza da ea ez ote zuten oker egin Azkue, Campion eta Legazek lehiaketa hutsik uztean.

Oposaketaren emaitza ezagututa, bere “porrotagatik” poza adierazten zuten iritziak ere irakurri ahal izan ziren. Hona hemen bi, 7.3.3.3 ataleko “Euskararen aurkako arrazoiak” sailean bildu direnen osagarri edo.

Adierazgarria da oso *El Magisterio Navarro* aldizkariaren iruzkina:

*Fracaso.*— (...). Mas vale que el fracaso haya sido oportuno, porque se ahorran los contribuyentes mil quinientas pesetas, cuyo gasto ningún beneficio había de producir á la provincia, por la sencilla razón de que los jóvenes de la ribera no habían de intentar aprender el vascuence, y los de la montaña, lo hablarán con más — menos pureza, lo mismo con profesores que sin ellos.

(*El Magisterio Navarro*, d.g. In *Heraldo de Navarra*, 1897-11-10)

Iritzi berekoa zen *Heraldo de Navarra* egunkari liberala ere: “Creemos que no se ha perdido gran cosa y por el contrario es conveniente que la Diputación se ahorre esos miles de reales consignados para la cátedra de vascuence” (1897-11-06). Alferrikakoa iruditzen zitzaion euskara katedra sortzeko nahia, horren adierazlea irakaslerik aurkitu ez izana omen zen eta, gainera, “menos todavía se encontrarían discípulos si llegara á crearse” (1897-11-09). Iritzi hauen aurka *El Pensamiento Navarro* egunkari karlista atera zen (De lesa patria, 1897-11-09).

*Diputazioko idazkariaren txostena, euskara bultzatzeari buruzkoa* (1897-03-11). Euskara katedrarako deialdian oinarrituta, euskara bul-



tzatzeko bitartekoei buruzko txosten orokorra goa aurkeztea erabaki zuen Pedro Uranga Diputazioko idazkariak:

Acordada la creación de una cátedra de bascuence en la Escuela Normal. deber del que suscribe es someter á la consideración de V. E. los medios de llevar á ejecución ese acuerdo, pero es más interesante todavía estudiar un sistema que complete el pensamiento de restaurar y dilatar el conocimiento del idioma bascongado, anhelo ferviente de todos los buenos navarros.

(Pedro Urangaren txostena. In NAN, Diputazioaren Aktak, 1897-03-11ko bilera)

Zentzuzkoa zen oso Urangaren gogoeta, eta neurriak hiru atal nagusitan bildu zituen: (1) irakaskuntza, maisu-maistren euskarazko prestakuntza nola bultzatu eta hizkuntzarekiko jarrera nola hobetu zehaztu nahian; (2) Elizaren erantzunkizuna; eta (3) euskararen aldeko elkarte baten sorrera. Proposamenak Arturo Campion eta Euskara elkarteko kideek hainbat aldiz aldarrikatutakoen parekoak ziren eta ez ditut hemen errepikatuko, kasu honetan azpimarragarriena txostena idazkariak aurkeztu eta Diputazioak aintzat hartu eta zabaldu izana bera baita: “se acordó tomarlo en consideración; que se facilitase á la prensa, y que pasara á la Comisión de Fomento para que estudie su planteamiento” (ibid.).

Bidenabar, esan dezagun Euskara elkartearen desegitearen arrazoi formala Diputazioak euskararen aldeko elkarte berri bat eratzeko proposamena onartu izana izan zela, Euskara elkartearen egitasmoak beste horren baitan jasoko zirelakoan (NAN, “Asociación Euskara de Navarra. Libro de Actas”, I, 1897-04-08ko bilera). Egiatzko arrazoiak, aldiz, elkartearen azken urteetako bizitza gero eta motelagoa izan zelakoan nago, baina horretaz hurrengo kapituluan mintzatuko naiz.

### *Diputazioa, udalak eta eskolaren euskalduntasuna: sintesia*

Orain arteko argibideak gogoan edukita, horrela laburbil daiteke Nafarroako erakundeek irakaskuntzaren alorrean euskarari buruz erakutsitako jarrera eta portaerak:

(1) Izendapena udalen esku egon zenean, XVI. mendetik 1887. urtera arte, ez Diputazioak ez udalek ez zuten erdarazko eskolatzeaz ezer esan, nik dakidala. Eskari eta kritika bakarrak Euskara elkarteko kideek egin zituzten.

(2) Maisu-maistren euskalduntasunaren auzian erabakigarriena udalen jarrerak izan ziren, erabakimena beraiek izan zutelako aldi gehiengotan, 1887 arte eta 1914az geroztik, eta betiere fundazioek kudeatutako eskoletan, Iturenen bezala, eta ez diet inongo mugimendurik ezagutzen. Are gehiago, ezagutu direnak erdararen aldeko jarrerak hartu direlako izan dira.

(3) Izendapena Estatuaren esku egon zen epean (1887-1914) eztabaida latzak izan zituzten Diputazioak eta Gobernuak, baina eztabaidaren gaia izendatzeko eskubidea izan zen batik bat<sup>269</sup>. Hala ere, Diputazioak eskolaren euskalduntasuna aipatu zuen aldi bakarra orduan izan zen, praktikan deus egiterik ez zuenean.

(4) Diputazioaren aldirik emankorrena, mugatuta hala ere, 1896-1897 izan zen, eta, maiz azpimarratu dudan bezala, lagun jakin baten euskararekiko sentikortasunari zor zaio: Pedro Uranga idazkariari. Gainera, eta hau ere ez da kasualitatea, euskalduna zen. Urterik emankorrenak bi horiek, eta ez beste batzuk, izan zitezten, zirikusi txikia izan zuen Diputazioaren osaketa politikoak: 1896.ean liberal-kontserbadorek zuten gehiengo absolutoa eta 1897.ean berdintuta zeuden liberal-kontserbadoreak eta karlistak. Izatekotan, beste gauza bat gertatu zen: alderdi politiko handi ia guztiek euskararen aldeko diskurtso formalak zuten eta, orduan, urrats bat egiteko diskurtsotik tiraka akuilatuko liekeen norbait behar zen, Pedro Uranga gure kasuan.

## 7.5 Erdal hizkuntz komunitatea eta euskara: ondorioak

Erdal hizkuntz komunitatearen izenpean mundu oso bat hartzen da eta bertan hiru multzo hauek biltzen dira behintzat: nafar erdaldunak, orokorrean hartuta; Nafarroako eliteak nahiz erakunde nagusiak; eta, hirugarrenik, Nafarroan eragina izan duten kanpoko beste hainbat lagun edota erakunde: Estatu espainola eta bere administrazioa, elite espainiarak, intelektualak, Europako korronteak...

Azterketan lau atal nagusi bereizi dira: (1) erdaldunen besteekiko harremanei buruzko ikuspegia; (2) erdal munduaren kezak; (3) erdal munduaren euskarari buruzko diskurtsoak; eta (4) irakaskuntza sistema eta euskara. Denbora osoan bi hizkuntz komunitateak elkarrekiko harremanetan zeudela eduki dut gogoan, eta, ondorioz, erdaldunen pentsaera eta jarduerak euskal hizkuntz komunitatean izaten zuten eraginaren aldetik aztertu ditut. Espero dut gauzak gehiegi sinplifikatu ez izana.

*Erdaldunen besteekiko harremanei buruzko ikuskera.* Asimetria zen nagusi, hau da, gauza bat opa zioten beren buruari eta beste bat besteei. Honako ezaugarri hauek aurkitzen ditugu erdal munduan: indoeuroparren hierarkizazio ereduak, hedakortasuna, estatu modernoaren hiz-

---

269. Agertuz joan diren kasu guztiez gain beste bat aipatuko dut: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek, Iruñean bilduta, 1899ko uztailearen 20an, maisu-maistren izendapenaren auzia konpondu nahian euskal unibertsitate barrutia sortzeko eskatuz Gobernuari bidali zioten agiria (Conferencias de las Diputaciones hermanas en Pamplona. *Euskal-Erria* XLI, 1899, 1-8). Maisu-maistrak unibertsitate barrutiko errektoreak izendatzen zituenez, neurri horrekin izendapena Euskal Herrian egitera pasatzea espero zuten.

kuntz politika —Frantziako Iraultzak abiatutakoa— eta nagusitasun sentimendu orokorra.

Nafarroako erdaldunentzat funtsean beraiek ziren gizartea, administrazioa eta beraiei zegokien lurralde osoa. Erdigune geografiko, sozial eta denborazkoan sentitzen ziren erdaldunak, besteak bazter aldeetan irudikatzen zituzten bitartean.

*Erdal munduaren kezken* artean ez zegoen euskara, hizkuntza ofizial bakarra *de facto* gaztelania baitzen. Guztiz ziur eta eroso sentitzen ziren egoera hartan eta arduratzeko motiborik ez zuten. Hizkuntz arazoa agertzen zen uneetan, ordea, erdaldunen kezka eurenari eutsi eta gaztelaniaren nagusitasuna bermatzea izaten zen, lanpostuak jokoan zeudenean edo II. Errepublikako eztabaidetan bezala.

Kezkak beste nonbait zituzten: XIX. mendeko Nafarroako historiek agertzen dituzten arazo orokorretan, eta haietan ez zitzaion euskarari toki handirik uzten, ezta Nafarroak eta Estatuak zentralismoaren arazok —Foruak, eskumenak, maisu-maistren izendapena, e.a.— eztabaidatzen zituztenean ere. Oro har, nafar eliteek Espainiako nazioan txertatuta ikusten dute beren burua XIX. mendez geroztik.

*Erdal komunitatearen euskarari buruzko diskurtsoa.* Diskurtsotzat ideologia, uste edota mentalitate baten adierazpena hartzen dut. Azpimarragarria da diskurtsoen gizarte-eraginkortasuna —zeregin konatibo edo performatiboa—: gizarteko gainerako taldeek ere diskurtso hori onar zezatela bilatzea. Gure kasuan, nafar guztiek, euskaldunek zein erdaldunek, hizkuntz arazoei erdal ikuspegitik begiratzea.

Diskurtsoen azterketan, deskribapena eta azalpena bezain garrantzitsua da azpitik dagoen eta sendotasuna ematen dien zentzu komuna edota mitologia “zentifikaren” elementuak deskodetzea.

Erdaldunen uste edo *mentalitate* orokorra: euskara desagertzen ari zen iraganeko eta menditarren hizkuntza zen; ez zen beharrezkoa eta kulturarako eta zeregin ofizialetarako ez zuen balio; euskaldunek kapritxo edo borondate txarrez hitz egiten zuten euskaraz, denek baitzekiten erdaraz.

Erdal mundutik adierazten ziren eta Nafarroan eragiten zuten *ideologia* edo iritzi arrazoituak:

(a) XIX. mendeko hizkuntz ideologiak: hizkuntz darwinismoa, atalaren teoria: gutxieneko neurri jakin batera iristen ez ziren hizkuntza edo herriak hiltzera kondenatuta omen zeuden.

(b) Espainiatik zetozen iritziak: nazioa Espainia da eta gaztelania bere hizkuntza. Euskararen eta gainerako hizkuntzen debekua esparru ofizial guztietan. Baina aldi berean, behin gaztelaniaren nagusitasuna ziurtatu eta gero, euskararen goresmena. Oso noiz behinka, euskararen aurkako hitzak entzuten ziren.

(c) Unamunok ohiko ideia edo uste arruntak hizkera zientifikoaz jantzita jendaurrean adierazi zituen. Hori izan zen bere orijinaltasuna: askok uste, baina inor esatera ausartzen ez zena, berak aldarrikatu izana.

(d) Nafarroatik bertatik adierazitakoak lau multzotan bildu dira:

-“Isiltasunaren diskurtsoa”: euskararen afera ez aipatzea edo pasatzen uztea, euskara existituko ez balitz bezala. Hau zen diskurtso nagusia euskara funtsean ez baitzen erdaldunentzat existitzen.

-Euskararen goraiapamena. Gaiaz hitz egiten zutenean, euskararen aldeko hitzak irakurtzen zitzaien gehienetan nafar erdaldunei eta beren erakundeiei.

-Aurkako adierazpenak: gutxitan, zeharka eta azpiko mezu gisa, entzulearen edo irakurlearen konplizitatean oinarrituak, baina oso eragin-korrak, izkutuko lehiari bidea ematen ziotelako, Iturengo maisuaren izendapenari buruzko eztabaidan gertatu zen bezala.

-Gutxiengo baten euskaltzaletasuna.

*Irakaskuntza sistema eta euskara.* Erdal komunitatearen euskararekiko mentalitate eta jarrera zehaztu eta gero, portaera moldeak esparru praktiko batean aztertu ditut. Alde horretatik, hezkuntzaren alorrean antzemandako portaera moldeek neurri batean balio orokorra dutela esan daiteke.

Lehentasunezko tokia du irakaskuntzak XIX. eta XX. mendeetako gizartean. Erdal irakaskuntzaren oinarriak Nafarroak jarri ditu mendetako ibilera luzean eta Espainiako gobernuak eskua sartu zuenean, XIX. mendean, batera jardun zuten biek, erdal hizkuntz komunitatearen ize-nean funtsean. Gogoan izan Nafarroak eskumen handiak izan dituela beti irakaskuntzaren alorrean.

Ikasketa planen hizkuntz edukia bera zen Nafarroaren zein Estatuaren ardurapean. Maisu-maistren izendapena, bestalde, nafar udalen esku egon da, 1887-1914 epean izan ezik, eta gehienak nafarrak ziren.

Iturengo maisuaren izendapenaren auzia (1900) Nafarroako irakaskuntzaren euskarari buruzko joera nagusien adierazletzat har daiteke, baldintza guztiak euskaldun bat izendatzeko jarrita zeudenean, maisu erdaldun eta kanpotarra hautatu baitzuen erabakimena zuen Iruñeko udalak. Erdal komunitatearen logika gailendu zen.

Euskararen aurkako zigoren kideak mundu zabaleko beste hainbat hizkuntza ez-ofizialetan aurkitzen ditugu, tokian tokiko “erdaldunen” eskutik. Mendebaldeko kulturaren herri hizkuntzekiko portaerako konstante bat da hori.

Nafar Diputazioak eta udalek, oro har, ontzat ematen zuten eskolaren erdaltasuna eta konponbideak beren esku zeuden egoeretan ez zuten urratsik egiten. Gaia ateratzen zutenean, eta hori ere ez zen oso maiz ger-

tatu, beraiek erabakitzeke ahalmenik ez zutela jakinik eta Gobernuari kritikatzeko izaten zen.

*Ondorioak: euskal hizkuntz komunitateak erdal komunitatetik jasaten zuen eragina*

Hizkuntz komunitatean, gizarte-unitate gisa hartuta, lau atal nagusi bereizten ditut: aparatu sinboliko edo kulturala; egitura soziala; bere gizarte-ekintza: hizkuntz portaera sistema; eta komunitatearen ugalketa. Erdal komunitatearen eragina lau ataletan nabaritzen zen.

*Aparatu sinbolikoa* komunitatearen balore, ezaguera eta ideologiaren multzoa dugu eta hori da, hain zuzen ere, taldearen bizitzari eta ekintzei oinarria ematen diena. Baloreak, zehazki, kolektibitate batek ereduagarritzat jotzen dituen izaera edo ezaugarriak dira.

Erdal komunitateak zabaltzen zituen balore, ezagutza eta ideologiak bere taldeari babesa ematen ziotenak ziren. Balore edo izaera ereduagarria jatorrizko erdaldu landuarena zen —gaztelaniazko AB—, hori zen erdigunea eta gainerako izaera motak ikusgune horretatik epaitzen ziren. Euskalduna izatea ez zen desiragarria eta euskaldunei gaztelania menderatzen zutela frogarazten zitzairen etengabe.

Lantzen zituzten ezaguerak gaztelaniaren gramatika eta literatura eta erdal munduaren geografia eta historia ziren. Euskara eta euskal mundua, berriz, ez ziren batere lantzen.

Ideologia mailan euskarak mundu modernoan zereginik ez zuela argudiatzen zuten.

Erdara eta erdal kultura aldarrikatzen zuten orokorki eta, horrenbestez, taldearen ekintzen oinarria aparatu kultural edo sinbolikoa baldin bada, euskal komunitatea oinarririk gabe uztera jotzen zuen erdal hizkuntz komunitateak. Euskal komunitateak, baina, 6. kapituluaren iradoki dugunez, bazituen bere bideak baloreen mundua eratzeko, maila batean bederen.

*Hizkuntz komunitatearen egitura* tipo linguistikoen bidez islatu dut: AB, BA, A, B eta Ø. Irakaskuntza bidezko B urratsa, bigarren ikaskuntza, zeharo eragozten zitzairen euskaldunei. Beraz, euskal hizkuntz komunitatearen egituratik AB, BA eta B multzoak ezabatuta gelditzen ziren, bakarrik A —familia bidezko eta herri giroko ikaskuntza— edo Ø taldeak utziz, eta hor ere higadura eragiten zen: euskara oztopo bat zela sinestaraziz famili jarraipena ahuldu edo eten egiten zen. Grafikoki, hau genuke:

AB —> A  
 BA —> Ø  
 B —> Ø  
 A —> (A) edo Ø

Erdal komunitatearen eraginak, oro har, euskal hizkuntz komunitatea desantolatu edo desegituratzera jotzen zuela esan dezakegu.

*Hizkuntz portaera sistemarekin* berdin gertatzen zen. Hor hizkuntzaren ezagutza, jarrerak, hautaketak, erabilera eta egoera aldatzera zuzendurik ekintzak bereizten ditut. Erdaldunen eredia, banan-banan, hau zen: gaztelania ezagutzea; gaztelaniaren aldeko jarrera eta euskararekiko desatxikimendua gehitzea; hizkuntza hautatzerakoan lehentasuna erdarari ematea; erabilpenean, hainbat arlotako erabilera murriztea; eta ekintzei dagokienez, euskararen aldeko ekintzak zentzugabekotzat jo eta gaztelaniaren aldekoak, ordea, berrindartzea.

Azkenik, Nafarroako erdal munduaren eraginaren norabide orokorra euskal hizkuntz komunitatearen *ugalketa eragotzi* eta bere hauskortasuna (ikus 6.5 atala) areagotzea izaten zen, eta zeregin horretan bide guztiak erabiltzen zituzten, baita ezarpena eta indarra ere, Uitzin ikusi bezala. Dena dela, horrek ez du esan nahi, ederki dakigunez, erdaldunak euskal hizkuntz komunitatearen desegite lana burutzera iritsi zirenik: bi komunitateen arteko sakoneko lehia batek horrela jokatzeko zuen, baina bestearen ahalmena ere kontuan hartzekoa zen, 5. eta 6. kapituluetan erakutsi bezala. Hurrengo ere, 8. kapitulua, horri buruz arituko da.

## 8. EUSKARAREN ALDEKO LAN ETA MUGIMEN- DUAK

“Euskararen aldeko lan eta mugimenduak” esatean hizkuntz portae-  
ra sistemaren azken atala dut gogoan: hizkuntzaren egoera aldatzera  
zuzenduriko ekintzak. Kapituluko aztergaia, beraz, Nafarroako euskal  
hizkuntz komunitateak bere egoera aldatzeko adierazitako ideiak, egin-  
dako lanak —hizkuntzalaritza eta literatura alorrekoak barne— eta  
antolaturiko ekimenak dira. Honi, baina, bi zehaztapen gehitu behar  
zaizkio.

(a) Euskal hizkuntz komunitatearen mugimenduak diot, baina  
beraieran jatorrizko euskaldunak —Damaso Legaz (Arizkun, 1838-  
Iruñea, 1902), Damaso Intza (Intza, 1886-Iruñea, 1986), Enrique  
Zubiri “Manezaundi” (Luzaide, 1867-Iruñea, 1943)...— ezezik, eus-  
kaldun berriak —Campion (Iruñea, 1854-Donostia, 1937), Pablo  
Fermin Irigaray “Larreko” (Auritz, 1869-Iruñea, 1949), Angel Irigaray  
(Bera, 1899-Iruñea, 1983)...—, euskaltzale erdaldunak —Juan  
Iturralde y Suit (Iruñea, 1840-Bartzelona, 1909), Estanislao Aranzadi  
(Lizarra, 1841-Oñati, 1918)...— eta teoriak euskaltzaleak ziren baina  
praktikan euskara urruti gelditzen zitzairen erdaldunak —Hermilio  
Oloriz (Iruñea, 1854-Madril, 1919)...— ere aurkitzen ditugu.

(b) Euskararen aldarrikapena helburu eta elkarte politiko abertzale  
orokorretan —foruzaletasuna, nazionalismoa— txertatuta agertzen zen  
maiz. Zail da batzuetan euskararen aldeko jarduerak eta politika oroko-  
rrekoak bereizten eta, aldi berean, bien arteko loturak zenbaitetan  
mugak ezarri zizkion euskararen inguruko mezua zabaldu eta antolatzeari,  
beherago ikusiko dugunez, beste zenbaitetan babeseta edo indarra  
eman zion bitartean. Gure eginkizuna ez da abertzaletasunaren historia,  
hizkuntzarena baizik, eta lotura horren aurrean zeregin bikoitza dugu:  
euskararen inguruko ideia eta ekimenak gainerakoetatik bereizi eta aur-  
keztea, eta euskarak sistema politiko orokorrean zuen tokia, kontraesan-  
korra askotan, argitzea.

Bestalde, historiografia zabal samarra<sup>270</sup> dute mugimendu euskaltzale-  
ek, agian heltzeko zailtasun handirik ez duten ageriko lehengaiak —elite  
euskaltzaleen adierazpen idatziak— erabiltzen direlako.

---

270. Jakina denez, Nafarroako mugimenduen ardatza Arturo Campion izan zen  
eta berari eskaini zaizkio azterlan gehienak. Antonio Elorzak (1978) euskal nazionalis-  
moaren aurrekari gisa hartu zituen Campion eta Euskara elkarte, Vicente Huicik

Horregatik, izenak eta ekimenak aipatzeak, edo ezagunak direnen zerrendari beste batzuk gehitzeak, ukaezinezko garrantzia badu ere, arreta beste alderdi berriago batzuetan jarriko dut: ezaugarri orokorren —ideologia, egitasmoak, ekimenak...— azalpena, haien ekarpenak eta gaurkotasuna azpimarratuz; gainerako mugimenduekiko berdintasun eta ezberdintasunak; nafar mugimendu euskaltzaleen eragin txikiaren arazoa eta beren mugei buruzko hausnarketa; eta, azkenik, laburpena eta iritzi orokorra.

Zortzigarren kapituluak, bada, atal hauek ditu:

8.1 Abiapuntua: bi tradizioren uztardura egoera mingarri bati aurre egiteko

8.2 Mugimendu euskaltzaleen ideologia eta programa

8.3 Ekimenak

8.4 Nafar euskaltzaletasunaren mugen arazoa

8.5 Laburpena eta iritzi orokorra.

## 8.1 Abiapuntua: bi tradizioren uztardura egoera mingarri bati aurre egiteko

Nafarroako euskararen aldeko mugimenduen sorrera data 1877-1878 urteetan jar dezakegu, “Nafarroaco Euscarazco Elcargoa-Asociación Euskara de Navarra” izeneko elkarte, Euskara elkarte, alegia, 1877.ean eta berak argitaratutako *Revista Euskara* 1878.ean sortu baitziren. Elkarte bultzatzeko erabakia, 1877ko urriaren 23an Iturralde y Suiten etxean bilduta, honako lagun hauen artean hartu zen: Esteban Obanos, Nicasio Landa, Florencio Ansoleaga, Aniceto Lagarde, Juan Jose Herran, Juan Iturralde y Suit, Guiriorko Markesa, Joaquin Herran, Nicanor Espoz, Antero Irazoqui, Fermin Iñarra, Hermilio Oloriz eta Arturo Campion<sup>271</sup>

---

(1981) Campionen alde ideologiko eta politikoak azpimarratu zituen eta Lopez Antonek (1994. Arturo Campión, entre la historia y la literatura. Doktorego tesi argitaragabea, Universidad de Navarra) historia eta literatura alorretako lanen ikuspegitik heldu zion. Laburra, baina oso iradokitzailea da Caro Barojaren azterketa (1971-2, III: 187-9). Bestalde, urte haietako bilakaera ulertzeko ekarpen baliotsuak ondoko lan hauetan ere egin dira, zerrenda agortu nahi gabe: A. Irigaray (1958, 1974 eta 1980), J.A. Irigarai (1973), Corcuera (1979), Solozabal (1979), Cierbide (1983), Granja Pascual (1983, 1984, 1985a eta b, 1988 eta 1993), Mitxelena (1985a), Larrea eta Díez de Ultzurrun (1987), Zuazo (1988b), Martínez Peñuela (1989), Intxausti (1990a eta b), Pagola (1990), Antoñana (1991 eta 1994), Camino (1992), García Sanz (1992), Chueca (1994), Larrea (1994 eta 1995), Erize (1996), Lopez Anton (1996), Valverde (1996), Jimeno Jurio (1997) eta Urmeneta (1997).

271. Campionek aktekin bat ez datorren beste zerrenda hau eman zuen handik hogeita hamabost urtetara, ez ziurtasun osoz —“Me atrevo á asegurar que asistimos...” (1912: LXII)—: Juan Iturralde y Suit, Esteban Obanos, Nicasio Landa, Aniceto



(NAN, “Asociación Euskara de Navarra. Libro de Actas”, I)<sup>272</sup>.

Bere aurrekari hurbila Juan Iturralde y Suit, Pablo Ilarregui, Nicasio Landa eta Esteban Obanosen 1860ko hamarkadako saio huts egindakoa dugu (ikus 5.2.2.4 atala). Orduan ezin izan zena, ordea, 1877. urtean gauzatuko zen, Campion, Iturralde y Suit eta enparauen eskutik. Ideia Hegoaldeko gainerako herrialdeetara hedatu zen eta berehala antzeko talde eta aldizkariak antolatu ziren Donostia, Gasteiz eta Bilbon, 1936ko gerra arte iraungo zuen mugimendu orokorra abian jarritz, gero *Eusko Pizkundea* izenez —Italiako *Risorgimento*, Kataluniako *Renaixença* edo Galiziako *Rexurdimento*-en antzera— ezagutu dena (Torrealdai 1977, Sarasola 1982, Intxausti 1990a, e.a.).

Nafarroako mugimenduaren hastapenetan, atalaren izenburuan esan bezala, egoera mingarri bat eta bi korronte edo tradizio aurkitzen ditugu elkartuta:

-Egoera mingarria: Nafarroako euskararen atzerakada azkarra eta, oro har, bigarren gerra karlista amaitu eta hiru probintzietako Foruak deuseztatu (1876-07-21eko legea) eta gero Hego Euskal Herriak bizi zuen krisialdia.

Krisialdiari aurre egin nahian bi korrontetatik edan zuten nagusiki:

-Euskal tradizioaren korrontetik: euskararen aldeko aldarrikapenak, apologismoa, eta abar, alde batetik, eta euskalaritza, bestetik. Zubiarena Bonaparte printzeak egin zuen nonbait.

-Nazioarteko korrontetik: herri hizkuntzen aldeko mugimendu eta ideologiak.

Hiru osagaiak zituzten gogoan Campionen eta bere lankideek hasiera-hasieratik —ikus, adibidez, Campionen (1877) eta Iturralde y Suiten (1877) lanak— eta beraien *ekarpena* euskal tradizioan eta Europako hizkuntzen mugimenduetan oin bana jarri eta egoerari aurre egingo zioten sistema ideologiko eta berau bultzatzeko erakundeak lehendabiziko aldiz antolatzea izan zen.

---

Lagarde, Florencio Ansoleaga, Antero Irazoqui, Fermin Iñarra, Salvador Echaide, Estanislao Aranzadi, Hermilio Oloriz, Arturo Campion eta, seguru asko, Joaquin Azcona eta Rafael Gaztelu.

272. Sorrera bileran “Academia Etnográfica de Navarra” izenez bataiatzea bururatu zitzaizen (NAN, “Asociación Euskara de Navarra. Libro de Actas”, I), eta “Asociación Euskara de Navarra” izena urriaren 29ko bileran erabaki zuten, elkartearen alde praktikoa azpimarratzeko asmoz (ibid.: 4). Estatutoak 1877ko azaroaren 10ean aurkeztu ziren Nafarroako Gobernu Zibilean eta 13an onartuak izan ziren (Perez Goyena 1947-64, VIII: 252). Jendaurreko aurkezpena, ordea, 1878ko urtarrilaren 6an egin zuten (Asociación Euskara de Navarra. Programa. *Revista Euskara* I, 1878, 3-7).

### 8.1.1 Egoera mingarria: 1876ko krisialdia eta euskararen atzerakada

Miroslav Hroček hiru aldiko tipologia<sup>273</sup> baten bidez laburbildu du nazio mugimenduen bilakaera (1994a: 106): A aldia, herriaren ezaugarri linguistiko, kultural edota historikoei buruzko ikerketak, jakintsu bakan batzuek eginak; B aldia, nazio edo hizkuntz kontzientzia ernatze-ko agitazioa; C aldia, jendearen adostasuna bereganatu eta masa-mugimendua eratzea.

A alditik B aldira delako herriaren *nortasun krisi* baten ondorioz iragan ohi da (1994b: 57). Euskal Herriari eta Kataluniari dagokienez, krisialdi hori 1870eko hamarkadako ia zela dio Hroček (ibid.: 56-7), eta horretan bat dator ia historialari guztiekin. Dena dela, orduko protagonistek beraiek ere ederki zekiten abiapuntua hortxe zutela: “En España asimismo, el cultivo del bascuence ha sido provocado por la abolición de los fueros. Lo que allí [Iparraldean] fue un movimiento inconsciente, aquí se ha verificado *con pleno conocimiento de causa*, aunque en peores condiciones, por haber avanzado mucho la invasión del castellano” (etzana nirea da) (Campion 1884: LXI, 1. oin-oharra).

Gerra karlistaren osteko giroa hondamendi orokor baten itxuraz agertzen zitzairen Campioni eta Iturralde y Suiti eta, berehala, egoerari kementsu aurre egitea deliberatu zuten. Beren bizipenetatik hiru alderdi nabarmen daitezke: (1) gerra karlista eta bere ondorioen gaitzespena; (2) hainbat ohitura, tradizio eta ezaugarri fisikoren —geografikoak, arkitektonikoak...— desagertzearen sentiberatasuna; eta (3) euskararen atzerakada.

(1) Foruzale liberalak ziren 1876 inguruan —bere burua nafar liberal gisa aurkeztuz “¡FUEROS Y LIBERTAD!” aldarrikatzen zuen Campioneak (1876: 12)<sup>274</sup>— eta bereziki mingarriak suertatu zitzaizkien II. gerra karlista eta haren ondoren Espainian barrena Nafarroa eta gainerako euskal herrialdeen aurka hedatu zen giro erasokorra.

---

273. Tipologia honek izan duen harrera onaz, ikus, besteak beste, Hobsbawm (1991) eta Mees (1991: 17-25).

274. Gaztetan errepublikar federala izan zen —“lo cual según decía Castelar, es miel sobre hojuelas”, zioen Campioneak (Mujica 1962: 166)—. 1870. urtean inguru, hamasei urte zituela, Iruñeko errepublikarren *La Montaña* astekarian idatzi ohi zuen eta 1872.ean, “Voluntarios de la Libertad” izeneko batailoietan engaiatuta, karlisten aurka borrokatu zen Orokieta guduan (ibid.: 169-70). Bi urte beranduago, 1874.ean, federal-foruzaleekin ibili zen (Huici 1981: 650).

Iturralde y Suitek ere liberal jatorria zuen: Iruñeko zinegotzia izan zen 1868ko iraultzaren ondoko udalbatzetan (1868-1872) eta, Campion bezala, 1870. urtean “Voluntarios de la Libertad” batailoiko kide izan zen bera ere (Campion 1912: XVI-XVII). Orobat, bizkaitar foruzaleak ere jatorriz liberal moderatuak izan ziren gehienbat (Corcuera 1979: 131).

Anaien artekoa izan zen gerra karlista beraien ustez:

Siempre es espantosa la guerra; pero cuando tiene lugar entre los que habitan un mismo suelo, y poseen en comun un mismo pasado glorioso, y tienen idéntico destino que cumplir, la guerra es abominable. (...) las victorias de unos y otros, son siempre derrotas para la patria.

(ibid.: 6)

Gainera, gerra espainiarra genuen, karlistek espainol gisa borrokatu baitziren, ez nafar edo euskal herritar gisa, batzuek horrela esaten bazuten ere:

A última hora atribuíase carácter local á un movimiento que nunca lo había tenido. Los carlistas no pelearon como baskos ni como nabarros, sino como españoles que persiguen el bien de España á su manera, sacrificando el bienestar de su tierra nativa con estoicismo merecedor del dictado de sublime, si no mereciera también el de horrendo.

(Campion 1912: LXX-LXXI)

Eta okerrena, interes espainiarren alde sakrifikatu ondoren, ordainez Foruen deuseztapena eta antzerako zigor latzak pairatu behar izan zituzten euskal probintziek Espainiako gobernuen partetik: “nos castigaron durísimamente porque en un momento de generosa alucinación nos olvidamos de que somos baskos y nabarros, para acordarnos exclusivamente de que éramos españoles” (Campion 1976: 34).

Campion ez zen inoiz karlista izan —“¿Y en qué época de su vida fue usted carlista? —Nunca” (Mujica 1962: 178)— eta, orokorki, kupidarik gabe kritikatzan zituen<sup>275</sup>:

El carlismo tiene inmovilizado y paralítico a nuestro país desde el año 1833, y le ha conducido a reiterados fracasos militares, políticos y económicos. Es una de las grandes arterias por donde se difunde el otimismo en Euskaria.

(Mujica 1962: 174)

Handik Campionen egitismo politikoaren ezaugarri nagusia ondorioztatzen zen: Euskal Herriaren batasuna landuko eta Espainiako alderdiekiko bereizita jardungo lukeen mugimendua sendotu beharra.

(2) Sentiberatasun handia erakutsi zuten Nafarroan gertatzen ari zen hainbat ohitura, tradizio eta ezaugarri fisikoren desagertpenarekiko. Arazoa ez zuten soilik Foruetan edo maila politikoan antzematen. Barren-barrenean hunkitzen zituen galera horrek, eta hamaika eratan agertzen zen bilakaera orokorra zen, 1876ko udako arratsalde batean Iruñeko inguruetatik paseatuz, biek, Campion eta Iturraldek, biziki sentitu zuten bezalaxe:

---

275. Ezinikusia, jakina, elkarrekikoa zen: “Los carlistas siempre me han tirado a degüello” (Mujica 1962: 178).

Cuando una tarde del último verano recorríamos juntos las cercanías de esta población, y contemplábamos con tristeza nuestros escuetos montes, y nos lamentábamos de la tala material y moral que sistemáticamente se lleva á cabo en nuestro infortunado país; cuando considerábamos que todo lo que constituye la fisonomía especial de esta noble tierra va desapareciendo; sus selvas majestuosas, sus pintorescos trajes; sus santas libertades y su venerando idioma; (...)

(Iturralde 1877)

Sentikortasun bera izango zuten bizitza osoan zehar, zenbait gaitan gaur egun onarpen handia duten jarrerak agertuz. Adibidez, Iruñeko harresiak zutik utz zitzatela eskatuz eta haien eraispena gaitzetsiz egin zuten deia dugu:

En materia de murallas difiero yo del común sentir de mis convecinos; me parecen pintorescas y las conservaría á título arqueológico, como ha conservado la hermosa ciudad de Nurenberg las suyas, utilizando los fosos para paseos y huertas, y edificando la novísima urbe al otro borde de ellos.

(Campion 1912: XLVI)

Ia bakarrik gelditu ziren harresien defentsan, baina zutik dirauten zatiek egungo Iruñean duten lehentasunezko tokia gogoan izanik, eta harresien esanahiaz gogoeta egin duen Jacques Le Goff historialariaren beheko hitzak aintzat hartuta, argiagoa eta, funtsean, modernoagoa izan zen Campion eta Iturralderen ikuspegia harresien desegitea sutsuki bulztatu eta txalotu zutenena baino:

(...) ha existido un «modernismo» de la ciudad, un vandalismo urbano que ha obligado a la desaparición de vestigios considerados como algo arcaico. La demolición de las murallas se sitúa en el centro de las transformaciones, materiales y simbólicas, de la ciudad moderna y contemporánea.

(Le Goff 1991: 19)

(3) Sakonkien hunkitu zituena, baina, euskararen atzerakada izan zen. Aurreko kapituluetan bilakaera orduan uste zuten baino konplexuagoa eta ez hain alde bakarrekoa izan zela ikusi dugu, baina oraingoz haien bizipenen azalpenean geldituko gara. Hona hemen Campionen hitzak:

En Navarra la muerte del euskara avanza á pasos agigantados: territorios de los más importantes de la provincia han olvidado completamente su idioma en algo más de un siglo. (...) refugiado hoy en los valles de las altas montañas al Norte, Noroeste y Nordeste de Pamplona, llegará pronto la época en que la estúpida obra de destrucción se habrá completamente realizado. El mismo daño amenaza á las otras provincias.

(Campion 1877)

Euskararen galera ez zen nolanhiko arazoa, hizkuntza, erlijioarekin batera, herri baten ezaugarri nagusia baitzen beraien ustez eta, horregatik, Nafarroak, edo Euskal Herriak, burua altxatuko bazuen gakoa euskararen bizkortzean jarri zuten. Eta zentzu berean egin zien Campionek gramatikaren eskaintza “Euskal-Erriko seme on prestuai” (1884): “Zuen lege zar benegarriyak galdu ziñituzten atzo. Zorigaitz aundi bat da galtze au. Ez itzazu, arren, galdu orain zuen izkuntz paregabea”.

### 8.1.2 Euskal tradizioaren korrontea

Euskal nortasunaren eta euskararen aldeko tradizioaren haria ezaguna da eta ez naiz bere azalpenean luzatuko. Bere ezaugarriak laburbiltzeko oso egokiak dira Ruiz Olabuenagaren hitzak:

(...) existen movimientos étnicos vascos, al menos desde mediados del siglo XVI (...). En efecto, de todos ellos puede documentarse:

-La *apología y la promoción* de los valores étnicos del pueblo vasco.

-El *impacto social* de su influjo.

-El *esfuerzo consciente* de reclamar *legitimidad social* para sus ideas.

-La *fijación de metas y métodos* definidos para su actuación.

(Ruiz Olabuenaga 1989: 134)

Lehenengo momentutik mintzatu zen Campion Larramendi eta apologistei buruz eta aipagarria da *Gramática*-ren (1884) hitzaurrean ordura arteko euskalaritzaz egin zuen aurkezpen zehatza, ikertzaile zaharren ekarpenetatik garaiko eskakizunetarako jauzia eman beharra azpimarratuz. Kritikak baztertu gabe —“las GRAMATICAS de Larramendi y Lardizábal (tras de ser de muy difícil adquisición) no responden á las exigencias de la ciencia moderna” (ibid.: 10)—, hauxe zen bere iritzi orokorra:

Reformemos, en cuanto nos parezca necesario, las explicaciones de los antiguos tratadistas, pero no seamos implacables con sus errores, á menudo exagerados y abultados por el mal querer, y no olvidemos tampoco que aun las ciencias que mayor grado de precisión alcanzan en el día, tuvieron su largo período de vacilaciones, errores é hipótesis anti-científicas.

(ibid.: 18)

### 8.1.3 Nazioarteko korrontea: herri hizkuntzen aldeko mugimendu eta ideologiak

XIX. mendea abertzaletasunaren mendea izan zen eta, gure gaiari dagokionez, herri hizkuntzen aldeko mugimenduen mendea. Frantziako Iraultzak nazioa aldarrikatu zuen, baina hortik, estatuek ezezik, estaturik gabeko herriek ere beren irakurketa egiten zuten euren nazioaren

eskubideak aldarrikatuz eta, Frantzia frantsesa bezalaxe, zein bere hizkuntza lantzen eta goratzen hasi ziren.

Hans Kohn klasikoarengandik hasita (1984, baina aurreneko aldiz 1944.ean argitaratua), nazionalismoaren teoriko eta historiagile guztiengandik pasa eta Miroslav Hroch-enganaino (1994a eta b), adibidez, badakigu nazioa ez dela ezaugarri objektibo bakar batean —arrazaz, hizkuntza, lurraldetasuna, nortasun politikoa, erlijioa, historikotasuna...— oinarritzen eta ez dela ezaugarri horien emaitza mekanikoa ere; are gehiago, behin halako aurrebaldintzak izan eta gero, nazio bat eratzeko erabakigarriena biztanleen borondatea dela azpimarratzen da: “No obstante que algunos de estos factores objetivos son de gran importancia para la formación de las nacionalidades, el elemento más esencial es poseer una voluntad de corporación viviente y activa. La decisión de formarla es lo que hace ante todo a una nacionalidad” (Kohn 1984: 26). Baina, aldi berean, ukalezina da hizkuntzak nazio mugimendu askotan, ez guztietan, izan duen lehenatasuneko zeregina. Esate baterako, *hizkuntz nazionalismoaz* mintzatu da Hobsbawm, zera esanez: “Para ellos la lengua era el alma de una nación y, como veremos, de modo creciente el criterio crucial de nacionalidad” (1991: 104), eta, ondorioz, “la etnicidad y la lengua se convirtieron en los criterios centrales, cada vez más decisivos o incluso únicos de la condición de nación en potencia” (ibid.: 112).

Europako gainerako hizkuntza eta herriekiko jakinmina lehen unetik izan zuten Campion eta bere lankideek, eta aipatutako ideiak izan ziren, beraz, burua altxatu eta argibide bila atzerrira begiratzean aurkitu zituztenak.

Hizkuntza eta herri desberdinen aldeko joeren ideologi abiaburua aniztasunaren aldarrikapena dugu eta bere adierazle nagusizat *Herder*<sup>276</sup> (1744-1803) filosofo alemana hartzen da: “The deeper historical roots of Western appreciation for cultural diversity and, therefore, for the need for cultural rights, trace back to Herder” (Fishman 1991: 70, 11. oin-oharra). Zentzu horretan, munduan hizkuntza guztientzako toki duin bat amestu dutenak funtsean Herderren jarraitzaileak, jakinaren gainean nahiz oharkabeak, izan direla esan du Fishmanek eta, noski, bera ere bai. Berdin esan du Isaiah Berlin-ek (1995: 233): “Los regionalistas, los defensores de lo local frente a lo universal, los abogados de las formas de vida con raíces profundas (...); todos ellos son deudores, consciente o inconscientemente, de las doctrinas que Herder (...) introdujo en el pensamiento europeo”.

---

276. Herderri buruzko bibliografia osatzeko asmoz gabe, hona hemen nagusiki erabili ditudan lanak, bere *Obra selecta* (1982) bildumaz gain: Smith (1976), Kohn (1984), Villanueva (1991), Azurmendi (1992a) eta Berlin (1995).

Campion ere Herderzalea izan zen, edo, behintzat, hogeita hiru urte-ekin oraindik Madrilen ikasle zegoelarik, jadanik irakurrita zuen Herderren *Idées sur la philosophie de l'histoire de l'humanité* liburua, Edgar Quinet-en frantseserako itzulpenean, liburudendako 1876ko martxoaren 4ko fakturak (ikus 32. irudia) erakusten duenez —herrien aldeko aldarrikapenei babes ematen zien Tocqueville-ren *L'Ancien Régime et la Révolution* klasikoa ere irakurria zuen bezalaxe (Campion 1876: 22)—. Egia da Campionek eta, oro har, hemengo idazleek gehienbat Humboldtengana jo zutela babes bila, baina biak iritziki-deak<sup>277</sup> (Robins 1987: 176) izaki, hizkuntzei buruzko pentsaeraren historian Herderri aitortzen zaion tokia gogoan hartuta eta Campionek berarengandik edan zuela jakinik, komeni zaigu berari buruz bi hitz esatea.

Zer aurkitu zuen Campionek Herderren irakurketan? Ideia nagusia kultur aniztasunaren baieztapen sakona dugu. Kultura guztiek, bakoitza bere izaera desberdinetik, berezko balio osoa dute denak gizadiaren agerpen baliokideak diren heinean, eta ez dago inolaz ere bata bestea baino gehiago dela esaterik:

Herder vuelve una y otra vez sobre la idea de que no existe ningún ambiente, ni grupo, ni forma de vida, que sea necesariamente superior a cualquier otro; sin embargo, cada uno de ellos es lo que es y como es, y la asimilación a un solo patrón universal que uniformice las leyes, el lenguaje o la estructura social, tal y como defendieron los *lumières* franceses, destruiría lo que hay de más vivo y valioso en la vida y en el arte.

(Berlin 1995: 266)

Antzeko moduan ere laburbildu du Hans Kohnek Herderren ekarpena:


La importancia concedida a la nacionalidad individual y a sus derechos y la alta estima de las tradiciones populares y de lo vernáculo (...), la fe en la síntesis armoniosa de los derechos del individuo, con la lealtad a la comunidad nacional y el reconocimiento de los deberes hacia la humanidad: éstos fueron los elementos nuevos que, gracias a la mente rica y fértil de Herder, influyeron profundamente, a través de diversos conductos, en el nacionalismo de la Europa central de principios del siglo XIX.

(Kohn 1984: 375)

Ilustrazioaren aldekoa zen Herder oro har, ez zen mistiko edo erre-akzionario bat —“Herder era un hijo verdadero de la Ilustración, un

---

277. Sapir-en ustez Humboldten hizkuntzari buruzko ideia anitzen jatorria Herderrengan bilatu beharko genuke: “Quizá tenga razón Sapir al atribuir a Herder muchas de las ideas que sobre el lenguaje tuvo Humboldt” (Robins 1987: 155).



32. irudia. Arturo Campionek Herder-en *Idées sur la philosophie de l'histoire de l'humanité* erosi zueneko faktura (Madril, 1876-03-04).



liberal humanitario” (ibid.: 374)—, baina, hala ere, gauza izan zen pentsamolde horren mugak antzemateko: “Herder percibió, con mayor claridad que cualquiera de sus contemporáneos, la debilidad de los fundamentos de la fe en la Ilustración tan extendida en su época” (Berlin 1995: 296).

Herderren hizkuntz ideiak ildo beretik zihoazen. Pertsona gizartean garatzen den izakia da eta horretarako ezinbestekoa du hizkuntza, giza-kien funtsezko ezaugarria da hizkuntza: “el hombre es una criatura (...) de sociedad. El desarrollo de una lengua le es, pues, natural, esencial, necesario” (Herder 1982: 208). Giza lengoia, ahalmen bakarra bada ere, munduko hizkuntza guztietan gauzatzen da (ibid.: 226). Beharrezkoa da hizkuntz aniztasuna —“Era, pues, necesario que se formaran diferentes lenguas nacionales” (ibid.: 215)— eta begirune osoa zor zaie nazionalitate eta hizkuntza guztiei, eta beren eskubideak estatuaren gainetik daude: “Al respeto por las demás nacionalidades acompañaba el respeto por sus idiomas. Herder fué el primero para quien los derechos de la nacionalidad y del idioma se antepusieron a los del estado” (Kohn 1984: 360). Horregatik, “El desposeer a un pueblo semejante de su idioma o menospreciarlo, significa despojarlo de su única posesión inmortal, transmitida de padres a hijos” (Herder. *Briefe zu Beförderung der Humanität*. Aipatua in ibid.: 361).

Komunitate bakoitzak bere hizkuntzatik bizitzen du mundua, ordezkazina da berarengan ama hizkuntzak betetzen duen zeregina eta, horregatik, berezkoena gurasoek seme-alabei euren hizkuntza transmititza da:

Con la lengua recibe el alma entera, todo el modo de pensar, de sus progenitores; éstos se lo transmiten con gusto precisamente porque lo han pensado sentido, descubierto, ellos mismos. (...). Nuestra lengua materna fue simultáneamente el primer mundo que vimos, las primeras sensaciones que sentimos, la actividad y alegría que primero disfrutamos.

(Herder 1982: 210-1)

Hezkuntza sistemaz ere mintzatu zen Herder. Eskolatzeta herriko hizkuntzan egin behar da:

Si el idioma es el órgano de nuestra fuerza espiritual, es el medio de nuestra educación más profunda, entonces no es posible que se nos eduque en otro idioma que no sea el de nuestras gentes y de nuestro país (...)

(Herder. *Briefe zu Beförderung der Humanität*, 111. Aipatua in Kohn 1984: 361)

Ikasketa programetan, ondorioz, lehenasuna ama hizkuntzari emango zitzaion —“El primer curso de lengua ha de dedicarse por entero a la lengua materna” (Herder 1982: 64)—, gero, atzerri hizkuntza,

frantsesa bere kasuan, zetorren —“A continuación de la lengua materna viene el francés, porque es la lengua más común y más imprescindible en Europa” (ibid.: 68)— eta, azkenik, hizkuntza klasikoak: latina, greziera eta are hebraiera ere (ibid.: 73).

Hauxe da, beraz, Campionek Herder irakurtzean aurkitu zuena, eta, pentsalari alemanaren harreraren historia egin gabe, bere oihartzuna nabaria da Campion eta Iturraldearen sistema ideologikoan.

Laburbilduz, Nafarroako mugimendu euskaltzaleen sorrera azaltzeko egoera mingarri baten eta bi korronteren arteko elkarketa aipatu dut: bigarren gerra karlistaren ondorengo krisialdia, euskararen apologia eta hizkuntzalaritza eta Europako toki hizkuntzen aldeko mugimendu eta ideologiak. Uztardura ez zen oharkabean gertatu. Campion, Iturralde eta beren lankideen aukeraketaren emaitza izan zen, hain mingarria egiten zitzaizen egoerarako konponbide bila bertako tradizioan nahiz kanpoko esperientzietan sakondu eta euskararen beharrei egokitzea erabaki baitzuten.

Campioni aitortu behar zaion merezimendua esandako abiapuntua hartu, sistema ideologiko koherente eta eguneratua aurreneko aldiz itxuratu —geroko mugimendu euskaltzaleen egitasmoen hezurdura, non-bait— eta horren gainean, lehendabiziko aldiz baita ere, ekimen praktikoak aurrera eramango zituzten elkarteak antolatu izana da.

## 8.2 Nafarroako mugimendu euskaltzaleen ideologia eta egitasmoa

### 8.2.1 Ideologia orokorra

Campion eta bere lankideek Nafarroaren eta Euskal Herriaren krisialdiaren erronka orokorrari egin nahi izan zioten aurre, gorago esan bezala, ez bakarrik euskararen egoerari. Horregatik, ideologia eratzerakoan bi helburu izan zuten: Euskal Herriaren —Nafarroa eta Iparraldea barne— nazio izaera finkatzea, izaera hori ezagutzen ez zion ideologia nagusiaren aurrean; eta euskararen baieztapena, hizkuntza baliorik edota tokirik gabe uzten zuen diskurtsoaren aurrean. Hau da, abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna.

Beraz, 7.3 atalean bezalaxe, diskurtsoen eraginkortasunaren arazoa-ekin egiten dugu topo, eta, horren ondorioz, irudikapenen borrokarekin: mugimendu euskaltzaleek sorturiko irudikapena erdal komunitate-arenari buru eginez.

Bourdieu berriro gogora ekarriz, horrela azaldu du autore honek nazio mugimenduen ideologiaren zeregina:

El discurso regionalista es un *discurso performativo*, que pretende imponer como legítima una nueva definición de las fronteras y hacer conocer y reco-

nocer la *región* así delimitada frente a la definición dominante y desconocida como tal —por tanto, reconocida y legítima—, que la ignora.

(Bourdieu 1985: 90)

Eta adibide gisa Okzitaniako kasua aipatu du:

El acto de llamar «occitana» la lengua que hablan aquellos a quienes se llaman «occitanos» porque hablan esa lengua (...) y de denominar «Occitania» —pretendiendo así hacerla existir como «región» o «nación» con todas las implicaciones históricamente constituidas que estas nociones encierran en un momento determinado— a la región (en el sentido de espacio físico) en que esta lengua se habla, no puede decirse que sea una ficción sin efectos.

(ibid.: 90)

Antzeko zerbait bilatu zuten Champion eta bere lankideek eta horretara zuzendu zituzten euren ahaleginak. Haien emaitza abertzaletasuna eta euskalduntasuna batera biltzen zituen sistema ideologiko berria du: *foruzaletasuna*. Bere barruan, *euskarari lehentasunezko tokia* aitortu zioten teoriar behintzat<sup>278</sup>: euskal izaeraren muina.

Euskal abertzaletasunaren adierazpenak XVIII. mendetik bederen zetozen, baina Javier Corcueraen iritziz (1979: 51), agerpen solteak ziren, ezin ditugu jarraitasuna zuen mugimendu bakar baten gisa hartu. Urrats erabakigarria —“la formulación de una política común encaminada, *por primera vez*, a «formar un solo pueblo»” (etzana nirea da) (ibid.: 124)— Champion, Iturralde eta gainerako foruzaleek —Becerro de Bengoa eta Fermin Herran<sup>279</sup> arabarrak, Sagarminaga...— egin zuten, funtsean geroko nazionalismoaren osagaiak jadanik bilduta zituen ideologia eratuz: “en definitiva, su fuerismo apenas se distingue del futuro nacionalismo” (ibid.: 128).

Alde horretatik, Sabino Aranaren zeregina foruzaleen argudioak azken muturreraino eramatea baizik ez zen izan, Corcuera dioenez: “Los argumentos teóricos del nacionalismo se van generalizando antes de que éste se formule: en cierto sentido, Sabino de Arana no hará sino una lectura *consecuente* de las tesis fueristas” (ibid.: 154). Iritzi berekoak dira, halaber, Caro Baroja (1971-2, III: 188), Antonio Elorza (1978: 164) eta Patxi Zabaleta (1993).

Bestalde, aipatu historialariek Campioneek berak jadanik adierazita zuena berretsi dute funtsean:

278. Ikus 8.4 atala, Nafarroako mugimendu euskaltzaileen mugei buruzkoa.

279. Fermin Herran Gasteizko *Revista de las Provincias Euskaras* (1878) aldizkariaren sortzailea izan zen.

Más la importancia y la gloria del Sr. Arana y Goiri nó fluyen de haber inventado á *Euzkera*, *Euzkadi* y los *Euzkos*, sino de haber suscitado el nacionalismo, no ciertamente porque el crease *ex-nihilo* la doctrina nacionalista, ni porque ésta, tal y como la formuló, sea invulnerable en todas sus partes, sino porque á esa doctrina, que es un alma, la encarnó en un cuerpo vivo (...)

(Campion 1907b: 697)

Hiru gune nagusi izan zituen mugimenduak: Nafarroa, Bizkaia eta, kultura mailan, Gipuzkoa. Nafarroan Euskara elkarte dugu, *euskarroak*, Bizkaian Sagarminagaren Euskalerría elkarte, *euskalerrriakoak*, eta Gipuzkoan Jose Manterolak sortutako *Euskal-Erria* (1880-1918) aldizkariaren inguruko taldea. Eredua, garaiko giroan zeuden ideiak baziren ere, nafarrek erakutsi zuten: “En Vizcaya y Guipúzcoa tenía lugar un proceso semejante de imbricación más o menos abierta de literatura y política sobre el modelo trazado por la *Revista Euskara*” (Elorza 1978: 171), eta, oro har, maila intelektual handiagoa aitortzen zaie nafarrei (Corcuera 1979: 132; Mina 1985: 121).

Foruzaleen egitasmu orokorra erlijioaren eta Foruen inguruan eratu zen: “Sus ideas son las del *Lau-Buru*<sup>280</sup>: Dios y Fueros<sup>281</sup>, la tesis católica y la afirmación foral” (Campion 1976: 45). Gehiago zehaztuz, lau ideia nabarmendu zituen Campioneek: Euskal Herriaren batasuna, Espainia mailako alderdiekiko bereiztea, Foruen berreskurapena eta, laugarrena, nafar eta euskal kulturaren defentsa —euskararen aldeko lana laugarren atal honi zegokion— (ibid.: 43). Maiz, Foruen interpretazioa estatuaren esku hartzea mugatzea bilatzen duen federalismo<sup>282</sup> modernoaren ikuspegitik egin zuten (Campion 1876: 22).

280. *Lau-Buru* (1882-1886) Nafarroako euskaroei sortutako hiru egunkarietako bat dugu. Bere lema “Dios y Fueros” zen. Beste biak *El Arga* (1879-1881), “Por Navarra”, “Para Navarra” eta “Unión Vasconavarra” lema erabili zituen, eta *El Aralar* (1894-1897), “Diario católico-fuerista”, izan ziren (Imbuluzqueta 1993).

*El Arga*-ko “Unión Vasconavarra” leloa, bestalde, Sagarminagaren euskalerrrikoekiko kidesuna azpimarratzeko erabili zuten: “fundóse un periódico diario titulado *El Arga*, cuyo lema, para armonizar con el movimiento político bizkaíno dirigido por el insigne Sagarminaga, fué: «Unión basko-nabarra»” (Campion 1976: 40).

281. Euskaroen “Jaungoikoa eta Foruak” eta jeltzaleen “Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra” (azentudun “r” bakuna ezin dudanez erreproduzitu, “rr” idatzen dut) goiburuek bazuten, dena dela, euren baino itzal handiagoko aurrekaria: Erresuma Batuko “Dieu et Mon Droit”, Campioneek berak gogora ekarrita: “análogo a la divisa normanda que ostenta un pueblo insigne, «Dieu et mon droit»” (El Centro Vasco, tributó ayer, un magnífico homenaje a don Arturo Campión. *La Voz de Navarra*, 1931-11-29).

282. Horrela aitortu zuen Campioneek Gregorio Mujicarekin egindako elkarrizketan: “el federalismo (...) es una premisa de la política netamente vasca a que me abracé públicamente el año 1876, cuando contaba veintitún años de edad y estudiaba derecho en Madrid. De esa nueva política, que es la vieja política mía, no me he apartado nunca” (Mujica 1962: 167).

Foruen defentsaren azpian garrantzi handiko ideia bat zegoen: Nafarroaren nortasun historikoaren aldarrikapena: “Navarra era un reino de por sí, distinto en jurisdicción y leyes de los demás” (Campion 1976: 26). Era berean:

Navarra no es una parte del territorio español al que los Reyes de Castilla concedieran privilegios como recompensa de su ayuda en la obra de la Reconquista, sino un Estado con propia y completa personalidad, poseedor de la plena y absoluta soberanía (...)

(Campion 1876: 9)

Nazio-mugimenduek beren eskariei indarra emateko ahaleginetan zein bere historikotasuna erakutsi edo itxuratzeari toki berezia egin badiote<sup>283</sup>, nafarrek ez zuten deus asmatu beharrik euren sustrai historiko sendoeekin topo egiteko. Abertzaletasuna finkatu nahirik, Estatu espainiarraren asmoei Nafarroaren independentzia eta eskubide historikoak kontrajartzen zizkioten. Beren eginkizuna Nafarroaren historia ikertzea eta ezagutzera ematea zen, behin eta berriro azpimarratu zuteenez. Zentzu honetan, eta urrutirago joan gabe, zeharo adierazgarriak dira *Revista Euskara*-ren lehen zenbakian argitaratutako artikuluen izenburuak, non ikerkuntza zientifikoa kutsu erromantiko-historikoko elezahar eta idazkiekin nahasita agertzen den: “Orreaga”, “De la antigua Vasconia y sus límites”, “«Nobleza navarra», leyenda histórica”, “Primeros tiempos de la Monarquía Navarra”, “Tradiciones navarras”, “El Escudo de Navarra”, “Azquen nafartarrac”, eta abar.

Aldi berean, nabarmentzekoa da Campionek Nafarroari Euskal Herriaren historian aitortzen zion lehentasunezko tokia. Idoia Estornesen ustez ezaugarri hau zuen Campionen ideologiak: “un nacionalismo vasco cuya apoyatura natural y obvia era el reino independiente de los antiguos vascones” (1990: 65). Iritzi berekoa da Vicente Huici (1981: 661). Nafarroatik abiatuta, beraz, Euskal Herriaren batasuna irudikatzea iristen ziren (Campion 1912: LXVIII).

*Fuerismo* izenaz deitzen zioten beren mugimenduari, baina jakin bazekiten beraiena abertzaletasun mota bat baizik ez zela, eta beti saiatu ziren gainerako mugimendu abertzalekiko antzekotasunak agertzen. Horrela, 1891. urtean “Lliga de Catalunya”-ren egoitzan emandako hitzaldiari “Regionalismo nabarro” izenburua jarri zion Campionek, Estatu espainoleko beste lurraldeetako mugimenduekiko kidetasuna

283. Nazionalismoaren ikertzaile ia guztiak bat datoz iritzi horrekin eta, adibide moduan, hona hemen Hrochen hitzak: “La «memoria» de una anterior independencia o autogestión, aunque muy alejada en el pasado, pudo desempeñar un importante papel en el estímulo de la conciencia histórica nacional y de la solidaridad étnica. Este fue el primer argumento utilizado en la fase B por los patriotas checos, los de Lituania, Finlandia, Bulgaria, Catalunya, etc.” (Hroch 1994a: 108).

nabarmendu nahian (1976: 45). Hamabost urte beranduago, 1906.ean Donostiako “Centro Vasco” elkartearen emandako hitzaldian, *nazionalismo* hitzaren hedapena kontuan hartuta, bere betiko foruzaletasunari handik aurrera nazionalismo deituko ziola esan zuen:

En los tiempos de mi juventud, cuando el vocablo de *nacionalismo* no había traspuesto los Pirineos con el sentido que hoy tiene (...), la aspiración á reintegrar al país basko en sus seculares derechos recibía el nombre de fuerismo. (...). Puesto que circula un vocablo más gráfico, más intenso y totalmente expresivo (...), sin renegar ni un ápice de mis antecedentes, ni profesar nuevos dogmas, ni adoptar nuevas actitudes, antes bien, continuando mi modesta historia, renuncio al antiguo calificativo, y desde hoy me llamo y llamaré *nacionalista*.

(ibid.: 255-6)

Campion ez zen inoiz independentziazalea izan. Bere ibilbide guztian Euskal Herriaren burujabetasun osoa eskatu zuen eta zentzu horretan ulertzen zuen nazionalismoa ere (1976: 275). 1932. urtean euskal estatutoaren alde agertu zen (Campion. Pro Estatuto. *La Voz de Navarra*, 1932-06-19). Separatismoa, ordea, guztiz arbuiatu zuen, bere asmoa Euskal Herri burujabea espainiar monarkiaren baitan ikustea zela adieraziz:

No sé si existe nacionalismo secesionista; pero declaro con la mayor solemnidad posible que el mío es unionista. Tomo las cosas tal cual me las presentan las manos de la historia de varios siglos: la Monarquía española, y dentro de ella, á ella agregadas, pero con vida propia garantida por solemnes pactos, las naciones baskas, los Estados baskos.

(Campion 1976: 276-7)

Campionen itzala luzea izan zen eta bere ideien isla nabaria da Nafarroako EAJren adierazpenetan. Adibidez, *Napartarra* egunkariaren lehen zenbakiko “A qué aspira el nacionalismo vasco” (1911-01-08) artikuluan alderdiaren ideien aurkezpen orokorra egin zuten, baina Nafarroako mentalitate eta egoerara egokitua. Oro har, Campion eta foruzaleen antz handiagoa zuen bere argumentazioan Sabino Aranarena baino<sup>284</sup>. Helburu politikoak, Hegoalderakoak, 1839ko legearen deuseztapena eskatzera mugatzen ziren (ibid.). Eta, oraindik adierazgarriagoa dena, EAJren “Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra” foruzaleen “Dios y Fueros” goiburua modura azaltzen zuten: “todos unidos luchemos por JAUN-GOIKOA eta LEGE-ZARRA, por DIOS y NUESTROS FUE-

---

284. Antzekotasuna ez da harritzekoa, bestalde, Nafarroako egoera bereziaz gain, lehen Napar Buru Batzarreko lehendakaria Estanislao Aranzadi Campionen adiskide eta lankide mina izan zela (Chueca 1994: 135) gogoan hartzen badugu.

ROS” (ibid.). Horregatik, Iosu Chueca-rekin (1994: 137) batera, “euskal nazionalismoak Nafarroan foruzaletasun eta nafarzaletasunean oinarritu nahi zuela bere eginkizun politikoa” esan dezakegu.

Gainerako Euskal Herrian ez bezala, Nafarroako EAJ separatismoaren aurka agertu zen bere adierazpen gehienetan —ez guztietan—, Elorzak (1978), Minak (1985) eta Martínez Peñuelak (1989) diotenez. Argudiobideak Campionen berberak izango ziren eta adibide gisa separatismoaren salaketei 1917. urtean eman zieten erantzuna aipatuko dut. “No hay separatismo” zioten eta zera gaineratzen zuten: “el nacionalismo vasco aspira, ya se forme en Euzkadi un solo Estado Nacional Vasco, ya tantos Estados nacionales vascos como en la historia se constituyeron, a que éstos o aquél vivan unidos al Estado Español por el vínculo confederativo de los pactos por virtud de los cuales se incorporaron los estados vascos a la monarquía de España y ésta juró respetar” (Réplica a *Diario de Navarra. Napatarra*, 1917-12-08. Jasoa in Martínez Peñuela 1989: 59-60).

Politikan bezala hizkuntz ideien alorrean ere Campionen bidetik joan ziren nafar nazionalistak, baina horretaz beherago mintzatuko naiz.

Dena dela, betiere gogoan izan behar dugu foruzaletasuna *vs* nazionalismoa bereizketak —nahiz eta nazionalista nafarrek funtsean foruzaleen edukiak zabaldu— munta handiagoa duela historia politikoan hizkuntzaren historian baino.

### 8.2.2 Hizkuntz ideiak

Euskaroen asmo orokorrean ohorezko tokia aitortu zioten euskarari hasiera-hasieratik. Ordura arte euskara goratu nahian batik bat bere hizkuntz bikaintasuna erakustera jotzen zuen diskurtsoa zen nagusi. Baina euskararen arazoa gizarte-mailakoa zen, euskara baztertzen zuen gizarte-antolaketa jakin bat, eta euskararen berezko balioa frogatuta ere, egoera berean segitzen zuen hizkuntzak. Campion eta bere lankideen ekarpena diskurtso apologistaren mugez ohartu eta hauek gaintitze aldera hizkuntzaren dimentsio soziala erdigunean zuen diskurtso berria eratzea izan zen.

Abiapuntu filosofikoa, nolabait esanda, *aniztasunaren* ontasunen aldarrikapena dugu, arestian ikusi bezala: “La ley de la naturaleza, es la variedad. (...). La ley de la variedad impera, asimismo, sobre el reino humano” (Campion 1916: 97-8). Horren adierazle hizkuntz aniztasuna da: “La diversidad de idiomas, por tanto, pende de una ley natural, anterior y superior á las leyes de los hombres” (ibid.: 99). Eta esandakoari giza lengoia hizkuntza desberdinetan zatitzeko agindu zuen Jaungoikoaren borondatea gehitzen zaio, Babelgo dorrearen mitoaren interpretazio modernoan —Calvet, Haugen, Sanchez Carrion...— aurrekari gisa:

En la frontera misma de la naturaleza y del espíritu se asienta el lenguaje, pero no el lenguaje único, como sería del gusto de los señores gobernador civil y director de la Academia, sino el lenguaje que experimentó su refracción en idiomas, decretada por el mismísimo creador de los Cielos y de la Tierra.

(ibid.: 99)

Beste aldetik, herriaren izaera eta hizkuntza uztartzen dituen ikuskera dugu. Jadanik 1877. urtean, Campionek eta Iturralde elkarri eskaini zizkioten artikuluetan, finkatuta utzi zuten beren pentsaera: hizkuntza herriaren nortasunaren adierazlerik behinena<sup>285</sup> da —“expresión viva del génio de un pueblo” (Campion 1877)— eta, horregatik, herri batek, bere izaerari eutsiko badio, bere hizkuntza gorde beharko du, eta alderantziz, hizkuntzari eutsiz gero, herriaren izaerak ere iraungo du, Iztueta gogora ekarriz. Iturralderen (1877) hitzak ere —“el idioma de un pueblo es la manifestación más elocuente de su genio peculiar”— Campionenak bezain gardenak ziren.

Horri lotuta, Nafarroa garai haietan pairatzen ari zen krisialdi orokorra (ikus Iturralderen pasarte, 8.1.1 atalean jaso) gainditzeko irtenbidea euskararen sendotzean ikusten zuten: “buscando remedio á tanto mal, conveníamos en que era tal vez el medio más seguro de atajarlo, la conservación y propagación de ese mismo idioma [euskara], monumento grandioso á cuya sombra se han mantenido puras, desde remotísimas edades, las costumbres, las instituciones y las creencias de la libre raza euskara” (Iturralde 1877).

Hizkuntzari buruzko pentsaera azalpena borobiltzeko, hona hemen Campionen gramatikaren hitzaurreko hitzak:

Para nosotros, en efecto, el euskara es algo, mucho más que un instrumento de investigaciones científicas; es la lengua de nuestros padres y á adorarla nos lleva el sentimiento natural del amor hacia las cosas nativas. Es un testimonio vivo y fehaciente de nuestra jamás domada independen-

---

285. Beste pasarte batean erlijioarekin batera aurkeztu zuen hizkuntza Campionek: “La religion y el lenguaje son, en mi concepto, las dos más altas manifestaciones de la originalidad de los pueblos” (1877). Inozoa eta dakigunari ezer gutxi gehitzen diola dirudien aipu honek, ordea, Campion eta Iturralderen hizkuntzari buruzko pentsaeraren barne kontraesan bat ulertzeko bidean jartzen gaitu, beherago aztertuko dugunez. Oroitzen bagara, foruzaleen goiburu nagusia “Dios y Fueros” zen. Hau da, erlijioari teoriarik aitortzen zioten lehentasuna praktikan ere ematen zioten, baina euskarari ez, aitzitik. Ez zuten “Jaungoikoa eta Euskara” aldarrikatzen, baiezta-pen teorikotik ondoriozta zitekeenez, “Jaungoikoa eta Foruak” baizik. Beraz, euskararen ordez erreibindikazio politikoa ipintzen zuten, euskara Foruen atal bat bezala azpiulertuz.

Berdin gertatuko zen Sabino Aranaren “Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra” lemarekin. Ikus 8.4.2 atala.



cia nacional; y es elemento que tiende á diferenciarnos, á dotarnos de fisonomía propia, y por lo tanto, á crear obstáculos á nuestra completa asimilación (...). Por eso dije yo, no hace mucho tiempo todavía, con exageración poética en la forma, pero con incuestionable verdad en el fondo: “cada palabra euskara que se pierde, se lleva un pedazo del alma nacional”.

(Campion 1884: 13-4)

Ikuspegi honetatik, Sabino Aranaren planteamenduari gogor kontrajarri zitzaion, honek Euskal Herriaren muina *arrazo edo odol garbitasunean* —“*pureza de raza* más comúnmente conocida con el nombre de *limpieza de sangre*” (Arana Goiri 1980, I: 545)—, ez hizkuntzan<sup>286</sup>, aurkitzen baitzuen: “De atender á la raza y á la *pureza* de la raza para legitimar la nacionalidad, no admitiríamos la existencia de ninguna nación europea y aplicaríamos la sentencia denegatoria á la nación ó naciones baskas” (Campion 1912: LXIX).

Politikan bezala, gai honi buruz ere, Campionen ildotik jo zuten gehienbat Nafarroako euskaltzaleek, nahiz eta asko EAJko kide izan eta alderdiaren *Napartarra* astekarian idatzi.

### 8.2.3 Euskaltzaletasunerako egitasmoa

Mugimendu euskaltzale berriaren egitasmoaren ardatz nagusiak —lan arloak, antolakuntza, arrazoibideak, salaketak, eskariak...— lehendabiziko urteetatik finkatuta utzi zituzten Campion eta Iturraldeak. Euskara elkartearen sorrera programaren helburu orokorrak, adibidez, hauek ziren:

Euscarazco Elcargoen asmoac diré, gordetzea, galtzera utzi gabe, ta edatzea aldaitequen gucian euscarazco mintzairoa; ongui ezagutzea gure aurrecoac itzcunza eder onequin erran eta eguin dituzten gauza on guztiac; (...)

(ibid.: 5-6)

Garbi izan zuten hasieratik euskararen etorkizuna euskaldunen eskuetan —euskal hizkuntz komunitatearen esku, alegia— zegoela eta

286. Adibidez, Sabino Aranak zioenez, katalanentzat lehena euren hizkuntza zabaltzea zen bitartean, “bizkaitarren” helburuak arraza garbitasunari eustea izan behar zuen. Horretarako, euskara galduko balitz ere, uko egin behar zitzaion “maketoei” euskara irakasteari (ikus, honi buruz, Azurmendi 1979):

Los catalanes quisieran que no sólo ellos sino también todos los demás españoles establecidos en su región hablasen catalán; para nosotros sería la ruina el que los maketos residentes en nuestro territorio hablasen Euskera. ¿Por qué? Porque la pureza de raza es, como la lengua, uno de los fundamentos del lema bizkaino, y mientras la lengua, siempre que haya una buena gramática y un buen diccionario, puede restaurarse aunque nadie la hable; la raza, en cambio, no puede resucitarse una vez perdida.

(Sabino Arana 1980, I: 404)

ezin zela Gobernutik edo Diputaziotik gehiegi espero. Hizkuntzaren egoera larriaren konponbidea euskararen beraren indarretatik bilatu behar zen beren ustez eta horretara zuzendu zituzten ahalegin nagusiak:

Entre los medios que propones para la *restauración* del euskara, el más eficaz y rápido sería, á no dudarlo, la proteccion de la idea por nuestras corporaciones forales; pero, desgraciadamente, tal vez dificulten su realizacion obstáculos que no te se (sic) ocultan. En cambio, nada puede oponerse á la formacion de una sociedad que fomente en el país vasco-navarro la aficion al euskara, y adopte los medios más conducentes para asegurar su existencia.

(Iturralde 1877)

Euskara elkartearen sortzeak berrikuntza kualitatiboa ekarri zion lan euskaltzaleari: lagun edo talde solteen fruitua izatetik elkarte antolatuetan oinarritzera igaro zen.

Argumentazioak beti euskaldunen euren buruaren onarpena, euskararekiko atxikimendua, azken finean, areagotzera bideratzen zituzten. “Respetémonos á nosotros mismos” (Campion 1877) zen mezuaren muina, eta fatalismoan edota kanpoko erasoan salaketan gelditzen zirenen aurrean, egoeraren arrazoen azalpen ahalik eta ulergarriena (ikus 2.1 atala) egiten saiatu eta etorkizunaren giltza euskaldunek beraiek zutela aldarrikatu zuten behin eta berriro:

El bascuence puede salvarse... y salvarnos. Querer es poder. Su muerte no hay que atribuirle á la intervención de una ley fatal, superior á las voluntades de los hombres. (...). Tenemos el derecho de reclamar la derogación de unas leyes que nos arrebatan nuestra misma personalidad. Pero conjuntamente estamos obligados, por piedad filial y honor de raza, á restaurar el imperio del euskara dentro del país euskaro. ¿Cómo han de respetar los agenos aquello que los propios desatienden y abandonan?

(Campion 1884: LXIV)

Era berean, gaztelania eta euskara borrokan zeudela bazekien Campionek, baina, indarrak hain desorekatuak izan arren, gakoa euskaldunen borondatean zegoela esaten zuen, Europako hainbat hizkuntzaren bilakaera gogoraziz:

No es exacto que en la *lucha* entre dos lenguas, culta una y popular la otra, venza fatalmente la primera á la segunda. En los apéndices de mi *Gramática* reuní varios ejemplos memorables que demuestran absolutamente lo contrario. A los ejemplos de Rumania, de Finlandia, de Hungría, de Cracia, de la misma Alemania que allí mencioné, me remito. Mas observad que todos ellos embeben el concepto de lucha por mí expresado; y no la hay cuando una de las partes, ó se resigna muellémente á perder su lengua, ó desea criminalmente perderla. Cuál es el caso del pueblo euskaldún?

(1976: 153-4)

Zentzu horretan, euskararen salbamena euskaldunen baitan kokatuz, eta euskal eta erdal hizkuntz komunitateen artean inplizitoki bereiziz, arreta handia jarri zuten maiz lanak eta proposamenak *euskaldunei*, ez erdaldun eta euskaldunei nahasita, zuzentzeko. Adibidez, Euskal Jaiak, Euskara elkartearen ekimen nagusietako bat, herri euskaldunetan antolatzea erabaki zuten: “Estos juegos deberán celebrarse precisamente en un pueblo del país Vasco-español, donde se hable como lengua propia y dominante el euskara” (Actos y documentos oficiales de la Asociación. *Revista Euskara* II, 1879, 30). Irizpide berean oinarritu zuten euskarazko irakaskuntza ezartzeko eskaera: “Este proyecto, por supuesto, se habría de aplicar *únicamente* en los pueblos *donde se habla* el vascuence, á fin de que la lengua euskara no se pierda en ellos” (Campion 1877). Orobat, berdín egin zuten 1884. urtean ere, Sustapen Ministroari zuzendutako eskariak herri euskaldunetan —“en los pueblos en que se hable el bascuence” (Documento notable. *Euskal-Erria* XII, 1885, 503)— abiatzekoak zirela esanez.

Argi izan zuten beste irizpide bat euskara garai berriei egokitzearen beharra izan zen: “Al conservar el idioma vascongado no buscamos en él una lengua *hierática*, si así puede decirse, que haga á nuestro país impenetrable á toda idea nueva, y refractario á todo progreso” (Iturralde 1877). Horrekin batera, Iparralde, Katalunia eta Galiziarekiko elkarlana eta beren esperientzietatik ikasi beharra zegoen (ibid.).

Behin oinarri ideologikoak eta irizpideak finkatu eta gero, lan arloak eta eskakizun nagusiak zehaztera igaro ziren. Euskararen aldeko propagandaz gain, jorratu beharreko lan alorren artean honako hauek aipatu zituzten jadanik 1877. urtean:

- euskal literatura bultzatzea: argitalpenak, literatur lehiaketak...;
- herri literaturaren bilketa eta zabalpena: kantutegiak, bertsolaritza...;
- euskalaritza zientifikoa eta lagungarri gertatuko zitzaizkion lanabesak: gramatika, hiztegia, euskal biblioteca...

*Erdaldunei begira*, bi alde landu zituzten batik bat: erdaldunen euskararekiko jarrerak eta Gobernuari eta Diputazioari eginiko eskari edota kritikak.

Erdaldunen jarrerei dagokienez, bi xede nagusi zituzten gogoan: haien euskararekiko begirunea piztu edota areagotzea, alde batetik, eta, bestetik, sarri gertatzen ziren euskararen aurkako mesprezu edo erasoei aurre egitea.

Halaber, garrantzi handia ematen zioten orduan erdaldunduta zeuden lurraldeak gutxira arte euskaldunak izan zirela erakusteari —lehenagoko agiri edota lekukotasunak aurkeztuz, toponimia baliatuz...—, Nafarroako euskararen pisu historikoa denen begi-bistan uzteko asmoz (Campion 1884: 27-8).

Bestalde, Gobernuari eta Diputazioari egindako eskariak eta, oro har, euskaltzaleen beraien esku ez zeuden, baina bete behar ziren esparruak ditugu:

-Babes orokorra eskatzen zieten erakundeei. Esate baterako, Sustapen Ministroari egindako eskaria, jadanik aipatua: “Excmo. Sr. Ministro de Fomento. Excmo. Sr.: El que suscribe, á nombre de la *Asociacion Euskara de Navarra* (...) respetuosamente expone: Que, tendiendo á extinguirse con rapidez desconsoladora la vida de uno de los pueblos más antiguos del mundo, llegado parece el momento de que los que pueden evitar que la extincion se consuma, cumplan con tan alta mision” (Documento notable. *Euskal-Erria* XII, 1885, 498). Modu berean zuzendu zitzaizkion Nafarroako Diputazioari ere.

-Euskarazko irakaskuntza bultzatzeko<sup>287</sup> eskariak etengabeak izan ziren:

Conviene que las autoridades forales (...) cambien radicalmente el sistema que dentro de los territorios en que se habla el vascuence hasta ahora se sigue (...). Es preciso que cese el estudio de las materias elementales en exclusiva lengua castellana (...). De esta manera, las escuelas que hoy son un instrumento de muerte contra el vascuence, serían desde aqui en adelante uno de los mas energicos medios de su conservacion.

(Campion 1877)

Halaber, herri euskaldunetako maisu-maistrek euskara gaitasun probak gainditu beharko lituzkete bertan irakatsi ahal izateko, eta beren prestakuntza bermatzeko euskara katedrak sortu beharko lirateke lau hiri-buruetakoa Irakasle eskola eta Institutoetan eta Madrilgo Unibertsitate nagusian (Documento notable. *Euskal-Erria* XII, 1885, 502).

-Elizaren zereginari buruzko kezka ere hasieratik aipatu zuten: “Proscribir de la Iglesia y de la escuela la lengua de un pueblo civilizado, es una amarga injusticia” (Campion 1884, “Addenda et corrigenda”: 58).

-Herri euskaldunetako jarduera ofiziala elebiduna izateko eskatzen zuten: “Los documentos públicos en los pueblos en que se hable el bascuence deberán ser redactados en castellano y en euskaro” (Documento notable. *Euskal-Erria* XII, 1885, 503). Neurria bermatze aldera, herri horietan lan egingo zuten funtzionarioei eta gainerako herri enpresetako langileei euskaraz jakitea eskatuko litzaieke, eta ez zekitenei hiru urteko epea emango litzaieke euskalduntzeko: “Los que aspiren á los destinos públicos en los mismos pueblos, deberán acreditar que conocen perfectamente el euskaro ántes de entrar en el ejercicio de sus cargos: los que en la actualidad los desempeñan y no los tengan en propiedad deberán

---

287. Garai berean, Irlandako gaelikozko irakaskuntzaren 1904-1922 bitarteko saioetarako ikus O'Donoghue (1994).

renunciar á ellos, si en término de tres años no acreditaran poseer dicha lengua” (ibid.: 503).

Aipatutakoak ditugu Campion eta Iturraldek mugimendu euskaltzalearen jarduerarako zehaztu zuten programaren ardatz nagusiak. Ondoren sortuz joango ziren erakunde eta ekimen berriek ardatz berberen inguruan jardun zuten eta berrogeita hamar urte beranduago, 1930. urtean, *Euskal-Esnalea* aldizkariak antolatu zuen ideia lehiaketan ere (Para el euskera... ¡Dos millones de pesetas! Si te entregaran dos millones de pesetas a condición de que los empleases en beneficio del euskera ¿cómo los invertirías? *Euskal-Esnalea* XX, 1930, 4) partehartzaile nafarrek —Manuel Aranzadi, Angel Irigaray, P. Fermin Irigaray “Larreko”, “Sabiaga” izenordeko aita kaputxino bat (Damaso Intza ote?) eta Perpetua Zaragueta— gai berak erabili zituzten, azken garaian agertu berriak ziren bi izan ezik: euskarazko prentsa (egunkaria edo astekaria) eta ikastolak sortzea, azkeneko hau irakaskuntzaren arazoaren haritik tiratuz.

1930eko hamarkadan gorpuztu zen beste berrikuntza bat kontzientzia euskaltzale eta abertzalearen artean bereizi beharra izan zen. Abertzaletasunak euskara salbatuko zuelakoa oso uste zabaldua zegoen mende hasieratik (ikus 8.4.2 atala), baina iritzi horren erdi ustela gero eta nabariago ari zitzairen agertzen nafar euskaltzaleei. Horregatik, euskararen lana aurrera ateratzeko erdaldunengandik nolabaiteko bereizketa egin, abertzaletasunaren munduan ere bai, eta euskaldunen multzotik abiatzea proposatu zuen Angel Irigarayk 1934. urtean<sup>288</sup>:

Abertzaletasunak, politika den aldetik, asko aurreratu du; ez dezakegu berdin erran euskara gure ele hunetaz. (...). Argi aski dakusgu, euskotar euskaldun batengandik eusko erdaldun batenganaino doaien bide luzea; horregatik, abertzale euskaldunak zati berezi batean behar gindezke. Askatasunarekin, euskara berriz laster hedatuko dala diotenei, on izanen zaie, beheko lur hunetan agertzen dana erakustea. Irlandan garrantzi gehiago eman zaio beti politikari mintzairari baino; orai (nere begiekin ikusia) ezin gaizkiago daude, irlandera ezin irakatsiz, irakasleak ezin bilatuz.

(Irigaray, A. Abertzale bai, baino euskaldun. In Larrea 1995: 47)

Euskararen borrokaren berezitasunaren kontzientzia, hala ere, *Euskal-Esnalea* elkartearen sorreratik adierazita zegoen: “Se constituye esta Sociedad con el *exclusivo objeto* de fomentar entre los vascos el amor al Euskera (...). El lema de la Sociedad es: «¡GORA EUSKERA MAITAGARRIA!»” (etzana nirea da) (A los amantes del euskera. *Euskal-Esnalea* I, 1908, 4). Halaber, Damaso Intzak dioenez (1973: 188), euskaltzaleta-

288. Ikus, halaber, 1935eko apirilean *La Voz de Navarra* egunkarian Angel Irigarayk “Etxe-zar” goitzeneko lagun batekin gai berberaz izandako eztabaida.

sunaren berezitasunaren ideia bera zuten 1925.ean sortu zen Euskeraren Adiskideak elkarteko kideek ere: “Etzen «Abertzale» zeritzaien lagun talde bat, baizik abertzale ez giñanena, naiz abertzaleei atea ez ertxi”.

#### 8.2.4 Nafarren hizkuntz irizpideak: euskararen batasuna eta garbizaletasunaren auzia

Gauza jakina da estandarizazioaren eta batasunaren arazoez hizkuntzen bilakaeran zein gizarte-egoeran duten garrantzia. Halaber, ezagunak dira (Zuazo 1988b, esate baterako) euskararen historian gai horiek direla-medio izan diren eztabaidak eta ibili diren bideak. Horregatik, Nafarroako mugimendu euskaltzaleen azterketan, guztiz beharrezkoa deritzot euskararen batasunaren erronkaren aurrean zein irizpidetan oinarritu ziren argitzeari, eta oraindik gehiago istilutsuak suertatu ziren garbizaletasunaren auzia bezalako kasuetan.

Laburbilduz, bi izan ziren nafarren irizpide nagusiak gai horien aurrean, biak gaurkotatzen handikoak: (1) euskararen estandarizazio eta batasuna gogoan izan eta bere alde ahalegindu ziren, nahiz eta euskara baturik ezean nafarreraz idatzi; (2) XX. mendearen lehenengo hamarkadetakoa garbizalekeriari buru eginez, klasikoak eta euskara herritarra iturri zituen ereduak bultzatu zuten.

#### *Euskararen batasunaz*

Campionen lanen abiagunea euskararen berezko batasunaren baieztapena dugu eta euskalaritzaren alorrean izan zuen jarduera etengabea beti berezko batasun hori agerian jarri eta formalki gorpuztea izan zuen gogoan.

Batasunaren aldeko jarrera nabarmena zen jadanik Campionen lehendabiziko idazkietan eta diodanaren erakusle gisa 1884ko gramatika eta beronen prestakuntzarako lanak jaso daitezke.

Gramatika euskarak orduan zuen hutsunerik handienetako bat estaltzera etorri zen, bere garaikideek aitortu zuten:

Si la lengua euskara no ha de morir; si la lengua euskara ha de desarrollarse; si la lengua euskara no ha de renunciar á tener una rica literatura, es preciso que exista una *Gramática*, (...). Pues bien, en España carecemos hoy de esa *Gramática*; las que publicaron el egregio jesuita Larramendi y su imitador Lardizabal han desaparecido ya del comercio; por otra parte, la euskarología ha progresado mucho (...). El vacío señalado, podemos hoy llenarlo; D. Arturo Campión, (...) ha compuesto una *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, que nos proponemos publicar.

(Notas bibliográficas y literarias. *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, por D. Arturo Campión. *Euskal-Erria* X, 1884, 498-9)

Hamabi urte beranduago iritzi berdina adierazi zuen Azkuek ere, Arturo Campioni egindako eskaintza adiskidetsuan:

(...) un joven bizkaino, á quien usted ama, (...) pidió y empezó á leer una titulada *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. La firmaba aquél joven nabarro (...). Aquel nabarro era usted. Aquel bizkaino era yo. Si la circunstancia de ser usted el primero en darme lecciones gramaticales de euskera y la más poderosa, si cabe, de *haber encontrado en usted el modelo que necesitábamos* para que nadie que mire con ojos de cariño la hermosísima lengua de nuestros padres se acoquine, (...)

(etzana nirea da) (Azkue 1896: 3-4)

Gramatikaren bi izenburuetatik hasita, euskararen ezaugarri komunak erakusten saiatu zen Campion. Bi izenburu diot, liburuaren azalak *Gramática Bascongada* baitzioen, nahiz eta barnean adierazitako eta ospea bereganatu duen izenburua *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* izan. Hau da, Campionen *Gramática* ez da euskalki bakoitzaren gramatiken bilduma edo pilaketa, lau gramatika desberdin batean jasota baleude bezala; liburua euskararen ezaugarri komunak aurkeztu nahi dituen gramatika bakarra da, nahiz eta, ulertzekoa denez, Bonaparteren ildoko dialektologiaren oihartzunak nabariak izan<sup>289</sup>. Bestalde, begien bistan daude euskalkien arteko zatiketak azalpen bateratuari ezartzen zizkion zailtasunak.

Zatiketa dialektalaren arazoa saihestu eta batasuna azpimarratzeko asmoz, azalpena gipuzkeratik<sup>290</sup> abiatuta egin zuen, azertuena zelako eta gainerako euskalkien arteko zubiarena egiten zuelako:

Así es que lo primero que hay que hacer, es adoptar un dialecto determinado, que sirviendo de tipo y norma en la exposicion de la doctrina, sirva tambien de término de comparacion con los demás. Nosotros desde luego adoptamos el guipuzcoano: 1º porque ha sido más estudiado que los

289. Bonaparteren eragina garbien agertzen duena 1880ko *Orreaga* (1971) da, baina hor ere euskararen batasun ukazina —“su innegable unidad” (ibid.: 15)— azpimarratu zuen Campionek.

290. Euskara estandarra erabiltzea bilatzen zutenean *gipuzkerarantz* jo ohi zuten nafarrek. Campionen *Gramática*-z gain, *Orreaga* (1971) dugu, non ereduztat gipuzkerazko testua hartu zuen, eta portaera berdina agertu zuten beranduago ere. B. Arrigaraik bere *Euskel-Irakaspidea* (1919) gipuzkeraz idatzi zuen, baina euskalki honen eta lapurtera eta Nafarroako euskalki gehienen arteko antza nabarmenduz: “está escrita principalmente en el dialecto Guipuzkoano o más bien en el llamado *bascón* que comprende el guipuzkoano, labortano y gran parte de los subdialectos nabarros” (ibid.: 6). Berdintsu gertatu zen 1935. urtean, non, Iruñeko apezpikuaren aginduz aita Asteteren dotrinaren euskarazko bertsioa berrargitaratu zenean maiz gipuzkerazko formak hobetsi baitziren (Irigaray, A. *Lenbiziko Jaunartzerako Kristau Ikasbidea*.—*Apez jaun batzuek euskerara itzulia*.— Iruña. 1935. *RIEV* XXVI, 1935, 197-8).

demás; 2º, porque puede considerarse como el anillo que une á los demás dialectos entre sí.

(Campion 1879: 379)

Gipuzkerak bizkaieraren antza zuen baita ere, Campionek geroko hiperbizkaierari aurrea hartu nahi izan balio bezala: “El dialecto guipuzcoano y el bizcaino ofrecen bastantes puntos de semejanza” (ibid.: 379).

Azalpen metodoa, beraz, honako hau izan zen:

(...) expondremos las teorías en su más alta generalización, tomando como tipo el dialecto guipuzcoano y señalando de paso las mayores diferencias que en los puntos más interesantes presentan los otros tres dialectos principales, que son el bizcaino, labortano y suletino (...)

(ibid.: 379)

Gramatikaren atalak beti ikuspegi orokorretik azaldu zituen —“El bascuence posee un artículo” (1884: 133); “Los grados de comparación (...) son tres (...). Veamos como se expresan estos grados en bascuence” (ibid.: 139); “el nombre euskaró” (ibid.: 143), eta abar— eta euskalkika bakarrik paradigma ezberdinak dituzten atalak aurkeztu zituen: aditza, deklinabidea eta erakusleak, batez ere. Baina hauetan ere, azaleko desberdintasunak gorabehera, euskararen barne batasuna nabarmendu nahi izan zuen, zalantza izpirik gabe.

Bakarra da euskal aditz sistema:

El sistema verbal de los cuatro dialectos (que para el caso representan á toda la lengua euskara), es *uno* en su naturaleza y *uno* en sus procedimientos, aunque *vario* en su desarrollo.

(ibid.: 787)

Xede bera zuen deklinabide taulak aurkezterakoan:

Como las variaciones de la sufijación, bajo el punto de vista de los dialectos, están explicadas en la sección destinada á cada uno de los sufijos, no he hecho mérito de ellas en el cuadro, que se propone dar una *idea del conjunto y no de las particularidades*.

(etzana nirea da) (ibid.: 240, 1. oin-oharra)

Aurrerantzean ere batasunaren aldeko jarrera bertsua erakutsiko zuten nafarrek, eta hura bideratzeko ekimen nagusietan parte hartu zuten. Horrela, 1901-1902ko ortografiaren batasunari buruzko batzarretan Arturo Campion —presidenteorde bezala—, Iturralde y Suit, Estanislao Aranzadi eta Damaso Legaz nafarrak aurkitzen ditugu —laurak Euskara elkarteko kide ohiak—, eta berriro 1920. urtean, Euskaltzaindiak aurreneko aldiz euskararen batasunari ekin zioneko



txostena —“Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera” (Campion 1983, XIII: 373-86)<sup>291</sup> — Campioni, Broussainekin batera, egotzi zitzaion. Eskatutako lana, egin, egin zuten, “ederki egin ere” (Mitxelena 1985b: 65), baina ez zuten ondorioz izan, ziur asko jendeen artean gogo handi eta garbirik ez zegoelako: “ez zegoen, ez orduan eta ez frankoz geroago, gogorik, gogo eragingarririk esan nahi nuke, jende samalden artean, harako burutapen hutsalak burutzerara daraman horietakorik” (ibid.: 65).

Beste gai batzuetan bezala, batasunaren inguruan ere jarrera desberdinak izan zituzten Campionek eta Sabino Aranak, honek ez baitzuen euskara baturantz jotzeko premiarik ikusi: “unificar el Euskera, de manera que de todos los dialectos, todos los subdialectos y todas las variedades se extrajese una sola forma, ni conviene (...), ni hay en rigor motivo para ello” (Arana 1980, II: 822). Batua bilatu beharrean euskalki, edo lurralde, mailako batasuna proposatu zuen Aranak: “que dentro del Euskera se construyan, por de pronto, tantos dialectos como regiones hay dentro de Euskeria que han sido políticamente distintas en la historia” (ibid.: 823). Horren ondorioz, Gipuzkoako euskara bakarra, Nafarroako bakarra, Bizkaiko bakarra, eta abar lortuko omen genituzke: “De esta suerte tendríamos un solo Euskera Guipuzkoano, un solo Euskera Nabarro, un solo Euskera Bizkaino, etc.” (ibid.: 822). Koldo Zuazoren iritziz, kaltegarriak suertatu ziren Sabino Aranaren aipatutako proposamenak: “Arana-Goirik euskararen standardizazioari —ortografi arloan egindako urratsak alde batera utziz— erantzun negatiboa ematen diola esango genuke beraz. Ukatu egingo du, alde batetik, euskalki guztien arteko zeinahi batasun motaren beharrezana (...). Honen kariaz, eta Aranak zeukan itzal eta eraginaren ondorioz (...), etenaldi berri bat ezagutuko du standardizazio bilakabideak” (Zuazo 1988b: 216).

1880ko hamarkadatik Euskaltzaindiaren lehenengo urteetara arte batasunaren bidean egin ziren urrats nagusiak *ortografiaren eremuan* gertatu ziren, eta hor ere, behin eredu berriak ezagutu eta gero, aldeko jarrera erakutsi zuten nafarrek.

Hasieran ortografia zaharra erabiltzen zuten, baina berehala oharatarazi zien Duvoisinek Iparraldean egiten ari ziren aurrerapenaz (Observaciones sobre la ortografía vascongada. *Revista Euskara* I, 1878, 172-3). Handik aurrera, orde, Iparraldeko sistema berriari jarraituko zion Campionek, euskararen senari hobekiago zegokiolakoan (Gramática euskara. *Revista*

291. Txostenaren lehen argitalpena: *Euskera* III, 1922, 4-17.

*Euskara* III, 1880, 8). Aldaketaren arrazoi eta aurrekariak —Bonaparte, Duvoisin, Aizkibel...— *Gramática*-n azaldu zituen hobekien:

La reforma ha venido iniciada, justo es confesarlo, por los escritores franceses, bascos y bascófilos. El Príncipe Bonaparte, después de mejorarla, ha contribuido mucho, con sus hermosos trabajos á generalizarla y aclimatarla. En España el primero que llamó la atención acerca de este importante punto, fué mi respetable, sábio y modesto amigo Monsieur Duvoisin (...). El famoso Aizkibel, en su *Diccionario basco-español*, escrito hace ya bastantes años, adoptó de lleno el racional sistema ortográfico moderno; por lo tanto, la actual reforma, que ha sido criticada<sup>292</sup> por muchos apegados á los antiguos y viciosos usos, no carece de respetables precedentes en este lado de los Pirineos.

(Campión 1884: 65-6)

Batasunaren izenean ortografi eredu orokorrak aintzat hartzearen jarrera finkaturik gelditu zen nafarren artean eta, adibide gisa, 1926. urtean Iruñeko Euskeraren Adiskideak elkarteak deituriko euskal literatura lehiaketa aipa daiteke, bere oinarriek lanak Euskaltzaindiaren ortografiaz idatziak izateko agintzen baitzuten (En Pro del Idioma Vasco. Euskeraren adiskideak. *Euskal-Esnalea* XVI, 1926, 47).

Euskaltzaindiari, ortografiaz gain, atxikimendu orokorra agertu zioten nafarrek, Pablo Fermin Irigaray “Larreko”-k *Gure Herria* aldizkarian Euskaltzaindiaren defentsan 1927. urtean idatzi zuen “Euskaltzaindiaz, itz bat” artikulua erakusten duenez:

Ene adiskide maite «Zerbitzari», kopeta ilun eta mindurik eldu zitzaigun *Gure Herriaren* azken zenbakian. «Euskaltzaindia» bizi den bezala ez du begikoa, ez eta gogokoa ere. Bertze aunitzek, arek bezala uste dute, ez dute la euskarak bearrago duena zainek egiten edo eginazten. Nik ez dakit bearrago duena zer den; baño, dakitana da, Euskaltzaindiko jaunak jakintsuak eta langile azkarrak direla.

(Irigaray, P.F. 1992a: 149)

Dena den, euskara baturik ezean, nor bere sorterriko euskaraz baliatzea izan zen nafarren irizpidea, Larrekok 1916.ean aholkatu zuenez, era horretan bizitasuna eta garbitasunaz gain, elkar ulergarritasuna ere bermatuta gelditzen zelakoan:

Jakintsuenak elkar ezin bateratu direlarik, zer egin bear dugu *larrekoak?* (...). Euskaraz idatzi ongienik eta euskeldun guziek aditu gisaz. Ala ba, oitura huni jarrai bakotxak bere itzkelgiz; elkar argituz eginen dugu bide, anartean Jainkoak agian bialiko daku idazle bikañen bat eta unen idazti bidez elkar-

---

292. Kritikak Nafarroan ere sortu ziren. Ikus, esate baterako, Jose Erasunek (1881), Bonaparterentzako itzulpenak egin zituen berak (ikus 5.2.1 atala), ortografia zaharraren alde igorritako eskutitza.

tuko gara, Jainkoak nai badu. (...) baña, beldur naiz, orai gai untaz mintzo garenak ezautu ez dezagun *unificación* delako ori.

(ibid.: 191-2)

Gomendioa Axularren babespean —“eguiçu çuc ceure moldera, eta çure herrian vsatcen eta seguitcen den beçala”— eman zuen (ibid.: 93), honako ondorio honetara iritsiz: “Ala ba, egin zagun obekiena, Nafarroa garaiko edo behekekoa, gipuzkoarra edo bizkaitarra, bat bederak bere gisara, antzora eta moldera” (ibid.: 94).

Nafarrek, honenbestez, bertako euskaraz<sup>293</sup> idatzi zuten batik bat, euskalki jakin bati atxikirik zein atxiki gabe, idazleen arabera: Iparraldeko goi nafarrera estilizatuaz Larrekok (A. Irigaray 1958: 10), zaraitzueraz Ziriako eta Federiko Garralda aita-seeek, hainbat euskalkitan Damaso Intzak, eta abar. Zenbaitetan, goian aipatu bezala, nafarrerari gipuzkerazko formak gehitzen zizkioten. Angel Irigarayk nafarrera eta gipuzkera ez kontrajartzeko gomendatu zuen, nahiz eta lehentasuna nafarrerari eman:

Emen Nafarroan, emengo yendeak aditzeko gisara idatzi behar da; eta emengo gisara idazten ikasten da, Lapurdi ta Benafarroako idazleak irakurriz, (Gure Herria, Eskualduna) ango euskara eta gurea berdintsu baitira (...). Ezta, bertzalde, baztertu behar, Gipuzko-euskara, nafar euskaldun erdiak ortan mintzo baitira.

(Euskara solasa. *La Voz de Navarra*, 1933-02-24)

Horri Nafarroa Beherearekiko, eta, oro har, Iparralde osoarekiko, batasun kontzientzia bizia gehitzen zaio. Iparraldea ez zen sinbolo hutsa nafar euskaltzaleentzat eta, *Eskualduna* astekariaren aipamenez gain, lotura estua zuten hango giroarekin. Kontzientzia hori hobekien adierazi zuena, agian, Manezaundi izan zen. Bere ustez, Iruñeko *La Voz de Navarra* egunkarian Zuberoako euskarari eskainitako artikulua batean, eta Lacombe eta Saroihandyren autoritatean babesturik, Iparraldeko euskalki guztiek, elkarren antz handia izateaz gain, jatorri bera dute eta, funtsean, Nafarroa Garaiko euskararen enbor berekoak dira:

Yaun horrek [Lacombek] erran zakon huni [Iruñeko euskaltzale bati]<sup>294</sup>

293. Orixeren ustez gutxietsia izatetik goraiatua eta, agian, neurritz kanpo erabilia izatera igaro zen nafarrera: “Parece que va pasando de moda la no muy antigua manía de despreciar el *napar-mintzoa* hasta el punto de usar y acaso de abusar de palabras navarras que llenen algunas lagunas de los otros dialectos” (Quæ iam cecidere... Mintto. *Euskal-Esnalea* VII, 1917, 209).

294. Lacomberi buruzko aipamenaren iturria Euskeraren Adiskideak elkarteko kide batzuek Donostian berarekin izan zuten elkarrizketa da. Haren berri 1932ko

Frantzia aldeko eskuara mota guziak Napartarrak zirela. Laphurtar, Xuberotar eta Baxenabartar, denak bat, guziak ama berekoak, ohantze berdinekoak, seaska batekoak. Horra ba, mendiz haindiko, Bidasoz bertze aldeko eskualde guzietako eskuara dena bat, Xuberotarreko hitz zonbait alde utzirik. Beste ohar bat ere egin behar dugu, erranez zer irudi haundi-koak diren Erronkariko eta Saraitzuko eskuarak gure Baxenabarrekoarekin eta Xuberotarrarekin. (...) guziak erro berekoak.

(Manezaundi 1990: 259-60)

Manezaundi, gainerako nafarrak ez bezala, urrutirago joan eta nafarreraren eta gipuzkeraren arteko etena azpimarratzera iritsi zen: “Ba eta, futxo! etzait gauza bera gerthatzen gipuzkoarrarekin, erdizka baizik ezin ulertuz<sup>295</sup>” (ibid.: 259). Nafarroa mailako batasuna ere proposatu zuen Manezaundik: “Zertako ez bateratu Nafarroako mintzaira guziak, eta zertako ikhasarazten dugu gipuzkoarra, hain ederra dugularik etxean, kanporat yuan gabe?” (ibid.: 267)<sup>296</sup>.

Dena dela, badirudi 1930eko hamarkadan, euskara estandarragoa irakastearren-edo, batez ere gipuzkera irakasten zela Iruñeko euskara eskoletan, Manezaundiren kritikatik bertatik uler daitekeenez.

### *Garbizaletasunaren auzia eta bizkuntz eredia*

Egun begien bistakoa dirudien eredia —herri euskararen berezkotasuna eta literatur tradizioa uztartzen dituen, nonbait—, Sabino Arana eta bere segizikiokoen garbizaletasuna zela medio, auzitan jarri zen Hegoaldean mende hasieran. Latzak izan ziren eztabaidak, baina, azkenik, aranazaleak ez ziren gailentzera iritsi eta urak ezagutzen dugun bidetik joan ziren.

---

urtarrilaren 10eko *La Voz de Navarra*-ko “¡Gora Naparroa!” artikuluan eman zuten:

Egun gutxi dira Lakonbe Euskaltzain argiarekin Donosti’an egon gerala. (...). Orduan ark erran zigun: “Gora Naparroa”. “Egiazko euskara, naparrokoa da”. “Frantzia’ko euskalki guziak Naparrokoak dira”.

—Ala uste duzu? erran genion.

—Bo! Bo! nik ez dut dudarik.

Gure euskaltzain onek beren aldeko ta gure aldeko euskalki guziak ikusirik, Naparroari zor zaiola dio beren aldeko euskera. Beren euskalki guzien iturburua gure euskalkietan arkitzen duela.

295. Hala ere, euskalkien arteko aldeaz gain, tartean beste arazo batzuk nahasten zirelakoan nago. Oso gogorra eta ia ulergaitza egiten zitzairen orduko euskal idazkera politikoaren eredia —ikus, adibidez, Larrekoren “Abertzale berrien euskara” artikulua (1992a: 165-8)—, gehienbat Gipuzkoa eta Bizkaitik heltzen zena. Baliteke, Manezaundik, gipuzkera ez zuela ulertzen esatean, hain desatsegin zitzaion euskara eredu “berri” hori izatea gogoan batik bat.

296. Ikus, halaber, Manezaundiren “Unificación del euskera navarro” (*La Voz de Navarra*, 1932-03-03) artikulua.

Esandako aukera —herri euskara gehi literatur tradizioa— izan zen nafarrek<sup>297</sup> aranazaleen<sup>298</sup> aitzinean bultzatu eta euren praktikan bideratu zutena, eredutzat, bestalde, Baionako *Eskualduna* (1887-1944) aldizkariaren moldea harturik (Larreko 1992a: 178).

Esate baterako, Manezaundik oso gogoko zuen Angel Irigarayren euskara, honako ezaugarri hauek zituelako: “garbia, ernea eta bakhuna, hain gisa goxokoa eta argia, nun mendiez bi aldetako eskualdunek ulertzen ahal dutena errexki, dremendenik neketasunik gabe” (Manezaundi 1990: 280).

Literatur euskara kalitatezko eta garbia bilatzen zuten, baina non zegoen, nafarren ustez, garbitasunaren giltza?: Euskara jatorraren senaren eta klasikoen ereduaren araberrako joskera eta esamoldeetan, batez ere, ez hiztegian:

Anitzek uste dute eskuara untsa idazteko aski dutela hitztegiatako hitz guztiak yakinez gogoz edo apuñatik. Eta ez da bathere hala. Ene ustez hitzen ikhastea bezain beharrezkoa da aditza edo verboa, egindura, eta itzuliak eskualdunki ibiltzea (...)

(ibid.: 279)

Euskara jatorra herrietako euskaldunengan bilatu behar da, baina lagun guztietan aberasgarrienak sortzezko euskaldun landuak dira, guk AB deitu diegunak:

Academikoak edo yakintsunak eskuara sortzetik ikhasia balinbadu: ohakoan, amaren bularretan, errainten ohi den bezala, ordian ezbairik gabe hori ditake bide hoberena, zeren eta mintzaiaren yabetasunari elgartzten zaiolakotz yakintasuna (...). Denek, ohakotik dakigunek ala geroago ikhasi dutenek, bethi irakurtu behar ginuke, ahalaz, *sortzez eskualdun direnen idaztiak*.

(ibid.: 284)

---

297. Nafarren jarreraz, ikus, euren jatorrizko lanez eta euskal literaturaren historiez gain, honako lan hauek, besteak beste: Irigaray (1958) —haiei buruzko iritzia finkatu zuena—, Granja Pascual (1984), Larrea eta Diez de Ultzurrun (1987), Pagola (1990), Camino (1992) eta Larrea (1995).

298. Jose Maria Larrearen ustez, funtsean bi korronte kontrajarri ziren: aranazaleen garbizalekeria, batetik, eta ohiko euskaratik abiatuta, Iparraldeko eta Nafarroako idazleena, bestetik:

Euskal nazionalismoa, euskaldunez ez baitzen fidatzen, halako euskara berri bat asmatu zuen, Bilbotik Bizkaiko baserrietara zeramaten “euzkera garbija”, ordura arteko tradizioarekin zer ikusirik ez zeukana (...).

Bazen beste sorterrizaletasun bat, aitzinekoa bezain katolikoa, baina euskararen aldeko jarreran euskaldungoan zentratzen zuela bere sinesmena. Hartako ziren Iparralde eta Nafarroako hainbat idazlari.

(Larrea 1995: 10-1)

Auziak, aldi berean, alderdi gehiago du. Nafarren jokamoldea *Revista Euskara* eta *Euskal-Erria* aldizkariaren tradizio hurbilean txertatzen zen, alde batetik, eta, bestetik, babesa Azkue, Urquijo, Campion, Altube, Txomin Agirre, Orixe eta bestek aranazalekin izandako eztabaidetan aurkitzen zuen (Villasante 1979: 297).

Euskara herritarrak beste alde on bat du: ulergarritasuna, baita euskalki desberdinetako hiztun edo irakurleen artean ere:

Kirikiño zenaren *Abarrak*, Mogelen *Peru Abarka* eta alakoak napar euskaldunek errazki aditzen ditugu. Eta, aldiz Kirikiño zenak, bein baño geiagotan esan zidan; nere irakurgaiak, bizkaitarrek errazki ulertzen edo aditzen zituztela.

(Larreko 1992a: 168)

Literatur tradizioari dagokionez, Iparraldekoa zein Hegoaldekoa, biak maite zituzten. Iparraldekoa horrela aipatzen zuten:

Zein politikak Elissanburu handiaren ipuin eta olerkiak! Ipuinetan politena *Piarres Adame*. Gero daude Adema bi anaien olerki ederrak; Daranatz oroiturilariarenak, Saint Pierre, Oxobi, Elisalde Zerbitzari, Diharassarry, Lafitte, Soubelet eta beste askoren irakurgai mamitsuak.

(ibid.: 178)

Hegoaldeko literatura ere maite zuten:

Ez pentsa gero, mugaz hunaindian ez dugula euskar-idazle onik; huna hemen, Mogel, Lizarraga, Gregorio Arrue, Agirre, Mendiburu, oberenatarik eta azken denboretan, Azkue, Altube, Olabide, Urruzuno, Kirikiño, Orixe, Lauaxeta, Zamarripa, Enbeita, Aranzadi, etc.

(ibid.: 178-9)

Baina, Larrekok adibidez, denetan maiteena Axular zuen (ibid.: 179).

Beren gustuko idazleen zerrenda ikusita, garbi dago euskara erraz eta ulergarriaz mintzatzean ez zirela inolako errazkeriaren aldeko apustua egiten ari, eztabaidaren xedea oso bestelakoa baitzen: zer nolako euskara idatzia eraiki behar zen argitzea: “necesitamos, para los cultivados, escuelas de gramática y literatura euskéricas, para que los escritores clásicos por una parte y los *euskaldun utsak* por otra sean los textos que nos enseñen a escribir correctamente en euskera” (Para el euskera... Dos millones de pesetas. Si te entregaran dos millones de pesetas a condición de que los empleases en beneficio del euskera ¿cómo los invertirías? [Larrekoaren erantzuna]. *Euskal-Esnalea* XX, 1930, 96).

Asmo hori gardentasun osoz agertzen zen hiztegi mailako maileguren arazoari heltzen ziotenean. Haien ustez, kultur euskara garatuko bazen, greziera eta latinetikako maileguak ezinbestekoak ziren, eta *uzkurtza* edo *urritizkina* bezalako hitz asmatu berriak zentzugabekotzat jotzen zituzten (Manezaundi 1990: 294)<sup>299</sup>.

---

299. Baina aldi berean, Iñaki Caminok dioenez, “Larreko euskal irakurle porrokatua zen, eta ez zegoen garaiko literatur mundutik landa; herriarentzat idaztea maite bazuen ere, baziren hitzberriak haren artikuluetan” (1992: XIII).

Aldi berean, euskal hitz jatorrak eskura izanez gero, ahalik eta erdal hitz gutxien erabili nahiago zuten. Irizpide horren arabera jokatu zuen Damaso Intzak *Kristau ikasbidea* (Iruñea. 1927) itzuli zuenean, Lacomberen goraiamena jasoz:

Le P. Intza (...) a courageusement tenté de délatiniser, dans la mesure du possible, ces textes, sans nuire pour cela à leur intelligence. L'entreprise était délicate entre toutes, et l'on peut dire que, dans l'ensemble, le diligent traducteur a parfaitement réussi. Il a bien vu, en effet, qu'il fallait conserver quelques mots tels que *kristau*, *gorputz*, *grazia*, *anima*, *pekatu*, *birjiña*, *ostia*, etc. Et il s'est borné le plus souvent, dans son œuvre puriste, à remplacer tel ou tel mot roman par un synonyme basque. (...) il serait souhaitable que les écrivains basques s'en tinsent, à ce degré de purisme: il est vain d'essayer d'éliminer tout ce qu'il y a de roman dans le basque.

(Lacombe, G. 1927. INTZA'R DAMASO.—*Kristau ikasbidea*. — (Pampelune 1927). *RIEV*XVIII, 726)

Azaldutako jarrerak oso sustraitu eta hedaturik zeuden Nafarroako euskal idazleen artean eta, Larreko, Manezaundi eta Angel Irigaray ezezik, gainerakoak ere joera berekoak ziren. Ez da harritzekoa, horrenbestez, Sebero Altuberen “La vida del euskera” lana ezagutu zutenean nafarrek biziki txalotu izana. Ikus, adibidez, “La vida del euskera” artikulua (*La Voz de Navarra*, 1934-02-24), sinadurarik gabea, eta Manezaundiren “Los puritanos del euskera” (*La Voz de Navarra*, 1934-03-03).

Laburbilduz, klasikoen tradizioa, euskara herritarra eta literatur euskara, euskara baturantz zeramaten bideak ziren nafarrentzat, Angel Irigarayren 1934ko hitz hauek ederki erakusten dutenez:

Gure euskaldun idazti zahar zenbait ere berrekoiztu beharrak dira, euskara atsegina da haiek erabiltzen dutena *aitzinago eta bat-ago* baita euskara. Ez oraiko zenbaitek bezala; iduri leike nahi dutela holakoek euskara zatikatu dagoena baino oraindik gehiago ere eta euskaldun batzu arrotz bilakatu besteentzat.

Asteasuko Agirre, Axular, Mogel, Lardizabal, Detxepare, Oihenart, Haraneder beharrezkoak ditugu berriz orai; orduan ikus dezakete itsu dauden zenbaitzuk *herriko euskara* garbia dela eta, bestalde, euskara baten bidera joan daikela eta joan behar dugula euskara bizirik ikusi nahi badugu behinik-behin. *Euskara literario batera joateko* lehen urratsa, ortografia batasuna.

(etzana nirea da) (Irigaray, A. Abertzale bai, baino euskaldun. In Larrea 1995: 49-50)

Baina, hala ere, Mitxelenak Campion-Broussain txostenari buruz ari zela zioenez, batasunaren arazoaren irtenbidea ez zegoen batere argi eta iritzi kontrajarriak adierazi ziren behin baino gehiagotan —Angel Irigaray

bera ere 1936.ean euskara bateratzearen aurka mintzatu zen— batere erraza ez zela esanez eta bere ordezkari euskalkien bizitasun eta naturaltasuna azpimarratuz (Euskara' ta estatutoa. *La Voz de Navarra*, 1936-06-19).

Orain arte azaldutakoak izan ziren, beraz, nafarren irizpideak garbizaletasunaren eta literatur euskararen auzian.

Iturburua, beste hainbatetan bezala, Arturo Campionengan dago. Larrekok (Euskaraz ongi idazteko; ¿Nola? *La Voz de Navarra*, 1933-02-12) zioenez, euskaraz hobeki idazteko nola egin behar zen galdetuta, honako bi aholku hauek eman zizkion Campionek, gainerako nafarrek beti gogoan izan zituztenak, ikusi dugun bezala: (1) hitz egiterakoan, bakoitzak dakien edo ohi duen eran egin dezala, baina idatzi, guztiak gramatika arauak errespetatuz egin behar dute; (2) euskararen garbitasunean, lehenetsua joserari eman behar zaio, ez hiztegiari.

Geroago erabiliko ziren molde nagusiak 1884ko bere gramatikan zeuden jadanik, Villasanteren arabera: “es una gramática excelente, sólidamente cimentada sobre el vascuence auténtico y real, sin elucubraciones y construcciones a priori, al estilo de los *zetakides*” (1979: 357). Eta bide horretatik segitu zuen bere bizitza osoan. Ezagunak dira alor honetan Sabino Aranarekin izan zituen eztabaidak (Granja Pascual 1984): 1901 eta 1902ko ortografi batasunari buruzko biltzarrak; Euzkadi, euzkera, euzko/Euskal Herria, euskara... auzia; eta, azkenik, garbizaletasunaren arazoa. Haietan oso garbia izan zen Campionen jarrera eta bat zetorren bai bere lehenagoko lanekin eta baita ondoren Nafarroan segituko zen ildoarekin ere.

*Euzkadi* izenari buruzko eztabaidaren azpian aranazaleen eta Campionen arteko ezberdintasun orokorren isla aurkitzen dugu, Campionen arrazoiak, azken finean, euskara biziaren eta literatur tradizioaren autoritatea onartzean oinarritzen baitziren.

Campionek, bere ikuspegi orokorra laburbilduz, bi ideia inguruan eratu zituen bere argudioak (1907a: 218). Batetik, hizkuntzaren izenaren aldaki ezagun guztiak “s” dute, ez “z”: heskuara, eskuara, heuskara, euskara, euskera, eskoara, eskara, uskara, üskara... Bestetik, euskal idazle guztiak ere “s” erabili dute, Etxepare-rekin hasi eta Sabino Aranaren beraren *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*-raino.

*Euzko*-tik sortutako etimologiak funtsik gabekoak ziren eta berez deuseztatuko ziratekeen, Sabino Aranaren alderdiaren babesagatik ez balitz, eta hortxe zegoen, hain zuzen ere, neologismo haien eta beste hainbaten arriskua (ibid.: 241).

Hiru urte beranduago eztabaidaren hari nagusiak bizitasunaz eta ironiaz jaso zituen “Un bautizo” antzezlan laburrean. Eszena taberna bateko terrazan kokatuta dago eta protagonistak Alfredo Camprodon (Arturo Campion), Iñasi zerbitzaria eta Kerken (izena “euskaratu” duen Don Crescente aranazalea) dira. Hona hemen pasarte bat:



(...)

*Camp.* —El nombre! Sábes mi amor al país, mi entusiasmo por los baskos... Y estar condenado á llamarme Alfredo Camprodón, como un maqueto cualquiera! (...). Mil veces me han echado en cara el maldito apellido. (...)

*Iñasi.* —Chocolate, ó así, traeré?

*Camp.* —Nó; lo que me has de traer es un nombre basko. Me ocurre una idea muy luminosa. Haz que vengan tus compañeras: son baskas, verdad? Bueno. Voy á preguntarles como pronunciarían mi nombre en puro vascuence.

(*Kerken se levanta y se acerca, muy fino*)

*Kerken.* —No haga usted caballero. Los baskos no tienen autoridad ninguna en materia de baskuence.

*Camp.* —Diablo!

*Kerken.* —Lo que oye usted caballero. Ellos han estropeado su idioma; la conjugación, los sufijos, la fonética! No son autoridad, son contra-autoridad.

(...)

*Camp.* —Me maravilla usted, caballero. Yo pensaba que del habla de los baskos se había sacado la gramática, el diccionario; que oyendo á los baskos hablar escribió Larramendi su *Imposible Vencido* y el príncipe Bonaparte su *Verbo*, (...). A quien acudir...

*Kerken.* —A la ciencia. La ciencia está aquí, en este librito de 300 páginas. Yo nunca pregunto qué dicen los baskos, sino qué dice este librito (*enseñándolo*). Hemos hecho de la lingüística una rama de las matemáticas, expuesta en método escolástico: definición, división y consecuencia. En este librito está no lo que es, sino lo que debe ser: aquí lo elíptico, lo epentético, lo concisivo y lo metatético; aquí la mar.

(Campion 1910: 324-5)

Eta abar.

Latzak izan ziren, jakina denez, Arana eta bere jarraitzaileek Campionekin izan zituzten eztabaidak, eta hau ez zen isilik gelditzen zirenetakoa, baina Campion Sabino Aranaz begirunez hitz egiten saiatzen zen normalean: “me duele sobremanera verme precisado á combatir opiniones del Sr. Arana y Goiri, á quien por muerto, y por insigne patriota basko, me gustaría alabar siempre” (Campion 1907b: 697). Campionek, gainera, nazionalistatzat jo zuen bere burua 1906az geroztik, arestian aipatu denez, eta elkarlanean aritu zen bai EAJrekin bai alderdiko kide ugarirekin.

Nafarroara, bestalde, ez zen gogortasuna hedatu. Jeltzale nafarrek maisu eta lankidetzat hartu zuten Campion hasieratik, desadostasunak zeudenean Campionen iritzietara lerratzen ziren maiz —“Campionen hizkuntzideiez galbahetua” esan dute Larrea eta Diez de Ultzurrunek (1987: 33)—, eta, batez ere, ez zuten Campionen eta Aranaren artean

hautatzeko beharrik ia inoiz sentitu. Diodanaren erakuslerik argiena Larrekok Sabino Arana eta Arturo Campioni batera eskaini zien “Arana-tar Sabin zenari. Kampion jaunari” (*La Voz de Navarra*, 1931-11-25) artikulua dugu.

### 8.2.5 Ondorioak: Arturo Campionen, Sabino Aranaren eta karlisten arteko erkaketa

Errazenetik hasteko, *Campion eta karlisten arteko konparaketa* dugu. 8.1.2 ataleko ideiak gogoratuz, Campion ez zen inoiz karlista izan eta beti alderdi honetatik oso urruti sentitu zen. Karlistek Nafarroan zuten eragin handia aitortuta ere, arerio politikoak izan ziren —alderdi foruzalearen hondamenaren zergatia (1886) karlisten berragerpenari egotzi zioten— eta beti hitz gogorak izan zituen karlisten aurka: “El partido carlista, sempiterno en su ódio á la libertad, tenaz en sus opiniones, sanguinario en sus procedimientos, (...) ha levantado de nuevo el pendon fratricida, maldecido ayer por nuestros padres, maldecido hoy por las nuevas generaciones, maldecido mañana por la historia” (Campion 1876: 13), “un partido nefasto” (Campion 1976: 276), eta abar. Oinarrian bi arrazoi zeuden: alde batetik, espainoltzat hartzen zuen alderdi karlista: “hay que tener en cuenta que el carlismo no es vasconavarro, que el carlismo es español” (Campion 1876: 17). Bestetik, karlistek zorigatza besterik ez zieten ekarri Nafarroa eta Euskal Herriari, eta zorigaitzik handiena 1872-1876ko gerra izan zen —“un crimen” (Campion 1912: LXX)—, anaien arteko gerra, justifikaziorik gabekoa eta guztiz kaltegarria (ibid.: LXX-LXXI).

Hala ere, egokiera izanez gero, Campionek ez zuen baztertzen karlistekin edo beste alderdi batzuekin, integristekin<sup>300</sup> batez ere, elkarlanean aritzeko aukera: “el nacionalismo debe poseer una escala móvil de simpatías para aplicarla á las fuerzas políticas que con él se ponen en contacto, según sea mayor ó menor la cantidad de euskarismo político y social que contengan. Es mi teoría del paseo acompañado” (Campion 1976: 257).

*Campionen sistema eta Sabino Aranarena.* Bereizketa, berez, karlistekikoa baina konplexuagoa da, ideologi esparru berdintsuan kokatzen zirelako, baina jadanik atal osoan zehar bien arteko ezadostasunak

---

300. Integristekin elkartzeko joera handik euskal alderdi bat eratzea posible ikusten zuelako azaldu zuen Campionek: “supuse que a la larga el integrismo favorecería la formación de un partido netamente vasco” (Mujica 1962: 174). Sabino Aranak ere alderdi espainolen artean gertuena alderdi integrista zela zioen.

nabarmenduz joan garen heinean, haien laburpena egitea baizik ez zaigu gelditzen.

Hizkuntzatik hasita, oso desberdina zen bakoitzaren sistema ideologikoan euskarari ematen zitzaion tokia. Campionen iritziz *euskara* zen euskal izaeraren muina. Sabino Aranaren iritziz, ordea, muina, edo substantzia, *arraza* zen eta gehigarria, edo akzidentea, hizkuntza: “Si nos dieran a elegir entre una Bizkaya poblada de maketos que sólo hablasen el Euskera y una Bizkaya poblada de bizkainos que sólo hablasen el castellano, escogeríamos sin dudar esta segunda, porque es preferible la sustancia bizkaina con accidentes exóticos que pueden eliminarse y sustituirse por los naturales, a una sustancia exótica con propiedades bizkainas” (Árana 1980, I: 404). Campionek, aitzitik, ez zukeen sekula horrelakorik esango, bere kezkabide nagusia, hain zuzen ere, Nafarroa nafar erdaldunduez beterik ikustea izan baitzen.

Dena dela, esan beharrik ez dago euskararen aldeko mugimenduen garapena bien babes eta laguntzapean gertatu zela.

Euskarari dagokionez, bi eztabaidagai nagusi izan zituzten: *garbizaletasuna* eta euskararen estandarizazio edo *batasuna*. Aranazaleen garbizalekeriaren aurrean herriko euskararen eta klasikoen tradizioan oinarritutako eredia proposatzen zuten nafarrek, Iparraldekoekin batera. Bestalde, nafarrak euskararen batasunaren aldekoekin zeuden bitartean, aranazaleek soilik euskalki mailako batasuna proposatzen zuten. Praktikan, dena den, nahasiagoak izan ziren gauzak.

Maila politikora igarota gai hau dugu: Nafarroaren tokia Euskal Herrian. Campionek Nafarroatik —Nafarroa Beherea barne— irudikatu zuen Euskal Herria eta, Nafarroaren euskalduntasuna aldarrikatu zuen bezala, Euskal Herriarentzako egitasmoan lehentasunezko lekua aitortu zion Nafarroari, betiere bere ezaugarriak ezagutuz. Sabino Aranak, berriz, Bizkaitik irudikatu zuen Euskal Herria eta, geroago, lurralde historiko bakoitzari berezko izaera berdintasunean aitortzera iritsi zen. Horrela, ulergarria da Nafarroako EAJk, bizkaitarren mitemismoan eroriko ez bazen, alderdiaren mezua aldatu eta Nafarroako berezitasunei egokitu behar izana.

Campion abertzale sutsua izan zen bizitza osoan eta baita, 1906az geroztik, EAJren aldekoa ere, baina separatismoaren aurka agertu zen beti. Hego Euskal Herriaren burujabetasuna —Foruak, autonomia, erregionalismoa, federalismoa...— Espainiaren baitan kokatzen zuen. Arana, berriz, separatismoaren alde borrokatu zen etengabe, Campionen jarduera politikoa erregionalistatzat joaz gutxietsi egin zuen eta nabarmena da, aldi berean, Espainiari erakusten zion herra.

Goikoarekin lotuta, Campionek eta nafarrek Katalunia eta Galiziarekiko elkarlana bultzatzen zuten bitartean, Arana guztiz aurka agertu zen, Euskal Herriak haiekin batere zerikusirik ez zuela agudiatuz.

## 8.3 Ekimenak

### 8.3.1 Ezaugarri orokorrak


Mugimendu euskaltzaleen ekimen asko aipatuta daude jadanik, eta baita koherentzia ematen zieten ideologia eta jarduera egitasmoa (8.2.1-3 atalak) ere. Oraingo atalean ekimen horien sailkapen eta aurkezpen orokorra egingo dut, jakinik, aldi berean, guztiak aipatzea edo, are gutxiago, haiei buruzko zehaztasunak ematea, ezinezkoa dela: oso zabala da epea —hirurogeita hamahiru urte—, hiru belaunaldik hartu zuten parte —Euskara elkarteak, Euskal-Esnalea eta Euskeraren Adiskideak taldeetakoak, nonbait— eta Nafarroako geografiaren zati handi bat besarkatzen dute.

Hizkuntz komunitatearen portaera sistemaren terminoetan hitz eginenez, alor guztiak landu zituzten Nafarroako mugimendu euskaltzaleek. Bestalde, esanda dugunez, desberdinak izan ziren euskal hizkuntz komunitatearengana zuzentzen zituzten jarduerak eta erdal hizkuntz komunitatearenganakoak. Angel Irigarayren hitzetan, helburu bikoitzarekin lan egiten zuten: “dediquen casi todo su esfuerzo a mantener el euskera *donde aún se halla*, mediante fiestas, premios; y *a excitar su amor* en los demás sitios” (Irigaray, A. Para «Etxe-Zar». *La Voz de Navarra*, 1935-04-26).

Lehentasuna euskaldunen euskararen aldeko *jarrera* sustatu eta areagotzeari eman zioten. Ideologi sistema, argudiobide nagusiak, propaganda, eztabaidak, argitalpenak, ekintzak, eta abar, denak funtsean helburu horren inguruan eratzen zituzten, Campionek, adibidez, Euskal-Esnalearen Auzako (Ultzama) batzarreko (ikus 33. irudia) hitzaldiaren amaieran laburbildu zuenez: “Baño gauza aín okerra [euskararen baztertzea] zuzentzeko, eta zutik jartzeko, lendanez Euskaldunak maite bear dute euskera. Gaur onara etorri geran jaunak, opa ta nai degu Euskaldunak euskaltzaleak izan ditezela. (...). Gora Ulzamako ballea, eta gora euskara maitagarriya, Ulzamako ballean iñoiz, sekulan ilko ez dá!” (La asamblea de Auza. *Euskal-Esnalea* I, 1908, 69).

Jarrerak hobeagotzea bilatzen bazuten, euskaldunek aukera zegoen guztietan *euskara hauta zezaten* izaten zen. Lurrealde euskaldunetan “Eskuara errekarat?” galdetzen zuen Manezaundik, zera gehituz: “Deithoragarri da herri euskaldunetan ikhusten duguna. (...). Ödoleko deiari ukho egiten da eta nolanañi erortzen dira arrotzen azturretan eta mintzoan” (1990: 261). Ederki zekien Manezaundik euskara ez zela berez atzeraka egiten ari, galeraren ibilbideko urrats bakoitza hiztunen hautaketa jakin bati zor zitzaiola, euskaraz jardun beharrean erdara nahiago zuten une edo egoera bakoitzean gertatutakoa, eta horrexegatik “Gauden eskualdun Eskualherrian” (ibid.: 263) erantzuten zuen. Eta Larrekok ere dei bera egiten zuen: “Euskaldun ona... euskaldun” (1992a: 79).

Euskararen *ezaquerari* dagokionez, esana dugu haien ustez gaitasun mailarik handiena herri euskaldunetako jatorrizko lagunek zutela eta, hauen artetik, naturaltasunari euskara landua gehitzen ziotenek. Nafarroako euskaltzaleen ekimenak bi lerroak sendotzera zuzentzen



33. irudia. Euskal-Esnalea elkartearen Auzako batzarra (1908) (Iturria: *Euskal-Esnalea* I, 1908, 68).

ziren. Lehenik, familia bidezko eta herri mailako jarraipena bermatu eta sustatzea bilatzen zuten, Campionek Euskal-Esnalea elkarteak 1910. urtean Lekunberrin antolatu zuen batzarrean bildutakoei eskatu zienez: “beti, echean, kampoan, lanean, jastaketan euskaraz itz egitea. Eskolan, erdara ikasten dute aurrak... baño, ¿zergatik euskara aztu? Gurasuak dute errua, eta erru edo kulpa au, itsusi-itsusia da, mundu guzian beste ait-amak, ait-ama euskaldunak baizik, egiten ezdutenak” (Por el vascuence: el «Batzarre» de Larraun. *Euskal-Erria* LXIII, 1910, 354).

Bigarrenik, euskaldun landuak lortzearen arazoa dugu. Hauek hezitze bide nagusia euskarazko irakaskuntzak izan beharko luke, baina hor zegoen, hain zuzen ere, euskararen hutsunerik handienetako bat. Etengabe lan egin zuten Campion eta bere lankideek euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren alde eta kontaezinak dira xede hori erdiestearren bideratu zituzten eskaera, ahalegin eta ekimenak.

Jatorrizko euskaratik abiatu eta hizkuntza lantzeko euskaldunek zuten beste bide bat euskaraz irakurtzea zen. Hori egiaztatuta zuen Manezaundik Luzaiden, eta Iparralde osoan, *Eskualduna* astekariarekin:

Hori da Baionako Eskualdunak egiten duen lana. Luzaiden (ene sorthe-  
rria) bazterretxe geihenetan, bai eta ere karrikan, irakurtzen dute  
*Eskualduna*, eta hortakotz batere ez dute beharrik kaseta erdaldunak, hare-  
kin baitakite behar dituzten guziak. Beren Ameriketako haurride, seme edo  
ahaideri bethi eskuaraz idazten dute, berari biziki trebetiak baitire. Horra  
nola ez duten eskuara galduko; irakurtzeari esker.

(Manezaundi 1990: 267)<sup>301</sup>

*Revista Euskara*-ren (1878-1883) garaitik saiatu ziren euskarazko irakurgaiak zabaltzen eta XX. mendean finkatu samar gelditu zen praktika hau: *Euskal-Esnalea* (1908-1931) eta Damaso Intzak sortutako *Irugarrengo Prantzisko'tarra* (1913-1936) eta *Zeruko Argia* (1919-1936) aldizkariak, *Napartarra* (1911-1919) egunkariko euskarazko saila, *Diario de Navarra*-koa (1915ean zabaldua), *El Pensamiento Navarro*-koa (1918an zabaldua), *La Voz de Navarra*-koa (1923-1936), eta abar.

*Euskararen erabilera* bermatu eta sustatzea zen ahalegin guztien xedee-tako bat, ardura, beti bezala, lurralde euskaldunetan jarriz. Hori erdieste-arren, orain arte aipatutako lan sailez eta erakundeei amaigabeko eskaki-zunak egiteaz gain, euren esku zegoena egiten ere ahalegintzen ziren Nafarroako mugimendu euskaltzaleak: hainbat herritan antolatu zituzten euskal jaiak, beraietan bertsolaritzari ematen zioten tokia, haur euskaldun-entzako sariak, euskarazko literatura eta kazetaritzaren bultzada, eta abar.

Azkenik, *hizkuntzaren gaineko ekintzak* ditugu. Sail honetan bereziki aipagarriak dira euskalaritza alorreko lanak. Campionek, 1880. urte-

301. Ikus, halaber, Manezaundiren “Temas euskéricos” artikulua (*La Voz de Navarra*, 1933-05-31).

an *Orreaga* baladarekin dialektologia jorratzen hasi zenetik Euskaltzaindiaren sorrera eta garapenean parte hartu arte, dialektologia, fonetika, ortografia, gramatika eta euskararen historiaren arloak bederen landu zituen berak zuzenean, eta hauei besteek jorra zitzaten bultzatu zituenak eransten badizkiegu, kasik esan daiteke ez zela euskalaritzaren esparrurik gelditu Campionek ukitu gabe.

Bestaldetik *erdal komunitateari begira* burututako ekintzak ditugu, 8.2.3 atalean azalduko irizpideen arabera antolatuak.

### 8.3.2 Ekimen nagusien taula

Mugimendu euskaltzaleen ekimenak taula moduan laburtuta aurkezten ditut. Ezagutu ditudan guztiak bertan ageri dira, baina horrek ez du esan nahi ageri ez direnak —ezagutu ez ditudalako, nahi gabe ahaztu zaizkidalako...— ez zirenik izan. Taulako albisteen banan-banako iturriak aipatzen ez badira ere —maiz iturria emateak albistek berak baino espazio handiagoa kenduko luke—, iturri nagusitzat, ez bakarra<sup>302</sup>, garaiko aldizkari eta egunkarien bildumak izan ditudala esan dezaket: *Revista Euskara* (1878-1883), *Euskal-Erria* (1880-1918), *RIEV* (1907-1936), *Euskal-Esnalea* (1908-1931) eta *Euskalerrriaren alde* (1911-1931) aldizkarien bilduma osoak eta *La Voz de Navarra* egunkariaren 1925 eta 1931-1936 urteak. Urte guztiak banaka miatuta daude, eta, beraz, zerrenda osatzerakoan fidagarritasun maila handia lortu da.

Ekimenak asko eta mota desberdinetakoak izan zirenez, aurkezpen modurik errazena haiek zerrenda gisa ematea da, nahiz eta luzea suertatu, bakoitzari buruz honako atal hauek bereiziz: (1) noiz egin zen, (2) non, (3) ekimen mota, (4) parte hartzaileen izen nagusiak eta (5) oharrak.

#### Euskararen aldeko ekimen nagusien taula (1863-1936)

Noiz	Non	Ekimen mota	Izenak	Oharrak
1856-1869	Nafarroa	Bonaparteren ikerketak	Bonaparte eta bere laguntzaileak	Ez zen gauzatu
1866 inguru	Iruñea	Euskararen aldeko elkarte baten saioa	Iturralde y Suit, Ilarregui, Landa, Obanos	
1877-1897	Iruñea	Euskara elkarteak	Iturralde, Campion, Landa, Obanos, Lagarde, Ansoleaga, Irazoqui, Iñarra, Echaide, Aranzadi, Oloriz, Gaztelu, Azcona, Legaz	

302. Urmeneta (1997) lana, adibidez, argibide iturri baliotsua da.

Euskararen Aldeko Lan eta Mugimenduak

Noiz	Non	Ekimen mota	Izenak	Oharrak
1878-1883	Iruñea	<i>Revista Euskara</i>	Campion, Iturralde y Suit, Oloriz	Euskara elkartearen aldizkaria
1878	Elizondo-Iruñea	Euskal Jaiak antolatze saioa	Campion eta Euskara elkarteak	Ez zen gauzatu, dirurik ez zutelako
1879	Elizondo	Hegoaldeko lehen Euskal Jaiak, Euskara elkarteak antolatuak Bertsolariak	Campion, Bruno Echenique, Arrese Beitia, Iparragirre, d'Abbadie	<i>Ama euskeriari azken agurrak!</i>
1880	Iruñea	<i>Orreaga</i>	Campion	Dialektologia
1880	Bera	Euskal Jaiak, Euskara elkarteak antolatuak	Legaz, Gaztañaga, Echaide, Campion, Arrese Beitia	Bertsolariak
1880	Nafarroa	Euskarazko kristau dotrina, Iruñeko Apezpikuaren enkarguz	Itzultzailea: D. Legaz	1927 arte indarrean
1881	Saldias	A.M. Claretin dotrinaren itzulpena	Jose Erasun	Bonaparteren laguntzailea
1882	Iruñea	Iruñeko udalaren literatur lehiaketa, zinegotzi euskaroen gehiengoak bultzatuta	Iturralde y Suit, Legaz, B. Echenique, Campion	Sarituak Nafarroatik kanpokoak ziren: C. Otaegui, Larreta...
1883	Iruñea	Iruñeko udal literatur lehiaketa, euskaroez bultzatuta	Iturralde y Suit	Sarituak Nafarroatik kanpokoak: K. Echeagaray...
1883	Hondarribia	Euskal Jaiak, Nafarroako Euskara elkarteak eta Bilboko Euskal-Erria-k elkarlanean antolatuta	J. Iriarte, Iturralde y Suit, Campion, T. Cortes, Sagarminaga, Arrese Beitia	Elkarte bakoitzak bere lurraldean egin ordez, biak batera erdibideko toki batean egin zuten
1883	Urdazubi	Axularren oroitarria, Euskara elkarteak bultzatuta	Iturralde y Suit	
1883	Iruñea-Donostia	<i>Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua euskara</i>	Campion	
1883	Iruñea	<i>Bai, Jauna, Bai</i>	Serafin Baroja	Astekari elediduna. 6 zenbaki soilik
1884	Iruñea-Tolosa	<i>Gramática Bascongada. Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara</i>	Campion	



Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa

Noiz	Non	Ekimen mota	Izenak	Oharrak
1884	Iruñea	Iruñeko udal literatur lehiaketa, euskarok bultzatuta		Sarituak Nafarroatik kanpokoak: Otaegui, Echegaray
1884	Iruñea-Madril	Sustapen ministroari egindako eskari txostena	Aranzadi	Euskara elkartearen izenean
1885	Iruñea	Iruñeko udal literatur lehiaketa, euskarok bultzatuta	Legaz, P. Sarasate, Zabalza, Campion, Landa	Sarituak Nafarroatik kanpokoak
1886	Iruñea	Iruñeko udal literatur lehiaketa	E. Arrieta, P. Sarasate, Zabalza	Euskarazko sariak hutsik
1886	Iruñea	Euskara katedra sortzeko Diputazioaren akordioa		Ez zen gauzatu. Hurrengo saioa 1897.ean izango zen
1887	Iruñea	Maria Cristina erreginordeari eskari txostena, Iruñea bisitatu zuenean	Aranzadi, Landa, Iturralde y Suit	1884an ministroari egindakoaren errepikapena
1888	Narbarthe-Iruñea	<i>Diccionario de los nombres euskaros de las plantas</i>	J.M. Lacoizqueta	
1889	Doneztebe	Euskal Jaiak	A. d'Abbadie	A. d'Abbadiek antolatuak
1895	Bera	Euskal Jaiak	A. d'Abbadie	A. d'Abbadiek antolatuak
1896-1897	Iruñea	Euskararen aldeko txostenak	Nafarroako Diputazioa, P. Uranga idazkaria	
1897	Iruñea	Euskara katedrarako oposaketa	Epaimahaia: Campion, Azkue eta Legaz	Hutsik utzi zuten, epaimahaiaren erabakiaz
1897	Iruñea	Euskara elkartearen desegitea		Diputazioaren euskararen aldeko jarreragatik argudiatuta
1899	Iruñea	<i>Manual de gramática bascongada</i>	Victoriano Huici	Nafarreraz
1901-1902	Hendaia-Hondarribia	Ortografiaren batasunari buruzko biltzarrak	Nafarrak: Campion, Iturralde y Suit, Aranzadi, Legaz	Eztabaida Sabino Aranarekin
1903	Iruñea	Euskara eskolak	Campion	Ezagutzen ditudan lehenengoak
1906	Iruñea-Alkotz	Asteteren dotrina, Ultzamako euskaraz	Justo Albizu	

Euskararen Aldeko Lan eta Mugimenduak

Noiz	Non	Ekimen mota	Izenak	Oharrak
1906-1912	Iruñea	Euskarazko errosarioa eta gurutze bidea	Esain, Navarro	Garizumetan
1907	Iruñea	Iruñeko udal literatur lehiaketa		Gai bat: Nafarroako Foru Nagusiko euskal hitzen bilduma eta azterketa
1907	Iruñea	Euskara ikastegia		
1907-1931	Donostia	Euskal-Esnalea elkarte eta bere aldizkaria: <i>Euskal-Esnalea</i> (1908-1931)	Nafarrak: Campion, Aranzadi, Echaide, Oloriz, Ansoleaga, Manezaundi, Inarra, Gorosabel, Arraiza, Cunchillos...	Ordezkaritza zabal eta eraginkorra Nafarroan: Iruñea, Baztan, Zangoza, Larraun, Leitza, Irunberri, Ultzama...
1908	Baztan	Euskal-Esnalearen ordezkariak	Cruz Goyeneche, Manuel Irigoyen	
1908	Auza (Ultzama)	Euskal-Esnalearen batzarra	Campion, Goyeneche, Aranzadi	J. Urquijo, C. Echeagaray, S. Mugica eta besteren parte hartzea
1908	Elizondo	Euskal-Esnalearen batzarra	Campion, Goyeneche, Irigoyen, Larreko	Bertsolariak
1909	Iruñea	<i>Euzkel-Iztegitxua</i>	Bera'tar Erroman Aba	Azkueren hiztegiaren plagioa (Urquijok salatua)
1910	Lekunberri	Euskal-Esnalearen batzarra	Campion, Goyeneche	G. Mugica
1910-1912	Iruñea	Euskara eskolak, Diputazioak antolatuak	Juan Manuel Lerchundi	
1911-1919	Iruñea	<i>Napartarra</i> egunkaria (EAJ)	Larrekoen euskarazko artikulatuak. Zuzendaria (1917): J. Agerre.	
1912	Otsagi (Zaraitzu)	Euskal-Esnalearen batzarre saioa	Campion, Z. Garralda	Bertan behera utzi behar izan zuten, propaganda nazionalista zelako salaketengatik
1912	Iruñea	Navas de Tolosako guduaren VII. mendeurrena ospatzeko literatur lehiaketa, Diputazioak deituta	Aranzadi, Altadill, Oloriz	Euskarazko saria hutsik. Espainiako Errekonkistaren goraiamena

Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa

Noiz	Non	Ekimen mota	Izenak	Oharrak
1912	Iruñea	Euskarazko saila <i>El Eco de Navarra</i> -n		Urte berean desagertu zen
1913	Iruñea	<i>Mirentxu</i> euskarazko operaren emanaldia		Sanferminetan
1913-1936	Iruñea	<i>Irugarrengo Prantzisko'tarra</i>	Damaso Intza, Polikarpo Iraizozkoa	Frantziskotarren artean banatzeko. Hedapen handia: 6.000 ale. 3.000 harpidedun 1915.ean
1913	Iruñea	Euskara katedra sortzeko Diputazioaren akordioa		Ez zen gauzatu. Hurrengo saioa 1922.ean izango zen
1913	Iruñea	Euskara eskolak Centro Vasco-n (EAJ)	Jose Agerre	Errepublikara arte irauten zuten
1914	Iruñea-Lekaroz	<i>La conjugación vasca</i>	B. Arrigarai	
1914	Iruñea-(Arakil)-Hiriberri	<i>Euskaldun Guratsoen Arguiya</i>	Blas Ayerra	Asteteren dotrinaren itzulpena
1915	Iruñea	<i>Diario de Navarra</i> -ren euskarazko saila	"Agerre'tar" = Jose Agerre	
1918	Iruñea	Navarro Villosladaren jaiotzaren mendeurrena. Diputazioak antolatutako literatur lehiaketa		Sari bat euskarazko sonetorik hoberenari
1918	Iruñea	<i>El Pensamiento Navarro</i> -ren euskarazko saila	"Lepazar"	
1918	Oñati	Eusko Ikaskuntzaren I. biltzarra	Nafarrak: Diputazioa, Campion, L. Urabayen, Aranzadi (bertan hila), Iruñeko apezpikua	Diputazioa eta apezpikua ez ziren amaiera ekitaldira agertu: hoztasuna
1919	Donostia	Euskaltzaindiaren sorrera	Nafarrak: Campion, J. Agerre	
1919	Lekaroz	Euskara eskolak kaputxinoen ikastetxean		Eusko Ikaskuntzaren biltzarraren ondorioz
1919	Nafarroa-Totana	<i>Euskel-Irakaspidea o sea Gramática del Euskera</i>	B. Arrigarai	
1919-1936	Iruñea	<i>Zeruko Argia</i> aldizkaria	Damaso Intza, P. Iraizozkoa	
1920	Donostia	Euskararen batasunari buruzko txostena	Campion, Broussain	
1920		J. Agerreren dimisioa <sup>303</sup> euskaltzain postutik	Nafar euskaltzain berria: Damaso Intza	

303. Ikus Haritschelhar (1990) eta Zabaleta (1990).

Euskararen Aldeko Lan eta Mugimenduak

Noiz	Non	Ekimen mota	Izenak	Oharrak
1920	Iruñea	Eusko Ikaskuntzaren II. biltzarra	C. Goyeneche, J. Beunza	
1921	Leitza	Euskarazko antzerkia		
1922	Etxarri-Aranatz	Euskaltzaindiak antolatutako lehen Euskal Eguna	D. Intza	Diputazioaren laguntzaz
1922	Iruñea	Euskara katedra bana Irakasle eskolan eta Apaigaitegian, Diputazioaren erabakiaz  Apaizgaitegiko euskal irakasleak: Miguel Inchaurren eta, beranduago, E. Irañeta, B. Fagoaga	Manuel Irujoren proposamenaz.  1936 arte finkatuak	
1923	Iruñea	200 ikasle Irakasle eskolako euskara ikastaroan. Euskara azterketak Apaizgaitegian	Irakasle eskolako euskal irakaslea: Jesus Aranzadi, 1936 arte.	
1923	Etxarri-Aranatz	Euskal Jaiak	D. Intza, Campion	
1923	Doneztebe	Euskaltzaindiak antolatutako bigarren Euskal Eguna	D. Intza, Larreko, G. Goyeneche, A. Irigaray, J. Zalba, J. Fernandez	Diputazioaren laguntzaz. 1926.ean argitaratua. Haur euskaldunen alfabetatzea
1923-1936	Iruñea	<i>La Voz de Navarra</i> egunkaria (EA)	Euskarazko saila: Larreko. Geroago: Manezaundi	
1925-1936	Iruñea	Euskeraren Adiskideak elkarteak	J. Larrache, D. Intza, Inchaurren, Esparza, Valcarlos, Huarte, Beunza, Tirapu, Larreko, A. Irigaray, M.Paz Ciganda, L. Nagore, J. Riezu, B. Alegria	Oso elkarte eraginkorra. Belaunaldi berria
1925	Iruñea	Literatur lehiaketa, Euskaltzaindiak eta Nafarroako Diputazioak antolatuta. Heldu nahiz haurrentzat	Inchaurren, P. Iraizozkoa, Guruceaga, Yurre, Garbizu, B. Fagoaga, Larrache, Esparza, L. Goñi	24 haur aurkeztuta
1925	Auza (Ultzama)	Euskal Jaiak, Euskeraren Adiskideak elkarteak antolatuta	Larrache, Inchaurren, Larreko	Bertsolariak: P. Grajnera, M. Marichalar, Larralde anaiak

Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa

Noiz	Non	Ekimen mota	Izenak	Oharrak
1926	Iruñea	Literatur lehiaketa, Iruñeko udalak antolatuta	Larreko, P. Pastor de Arrayoz, P. Iraizokoia, F. Garralda, Garbizu	
1926	Iruñea	Euskeraren Adiskideak elkartearen literatur lehiaketa	T. Arburua	
1926	Iruñea	Haurrentzako literatur lehiaketa, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta	Irabazleak: M.P. Goñi (Lekaroz), M. Urteaga (Alkotz)	56 haur aurkeztu ziren, 12 herritatik
1926	Auritz	Euskal Jaiak, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta	L. Goñi, R.M. Azkue, F. Urtasun	Bertsolariak
1926	Otsagi	Euskal Jaiak, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta	D. Intza, T. Garralda, S. Napal	Haurrentzako euskara azterketak
1926	Iruñea	<i>La Iglesia y el euskera</i> liburua	M. Inchaurre	
1927	Lekaroz	Euskara ikasturtearen amaierako jaiak, Euskeraren Adiskideak-en laguntzaz	Larrache, Tirapu, Inchaurre	
1927	Berroeta (Baztan)	Euskal Jaiak, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta	Inchaurre, Azcarate	
1927	Leitza	Euskal Jaiak, Euskeraren Adiskideak-ek eta Euskaltzaindiak batera antolatuta	Intza, G. Mujica, Recarte	Bertsolariak
1927	Iruñea	Literatur lehiaketa, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta	Larreko, Esparza, B. Fagoaga, B. Alegria	
1927	Otsagi, Orotz-Betelu	Euskeraren Adiskideak-en saria seme-alabei euskara irakatsi zieten amentzat		Familia bidezko jarraipena
1927	Nafarroa	Mateo Mujica apezpikuaren gutun pastoral elebiduna		
1927	Iruñea	<i>Kristau ikasbidea</i>	D. Intzak itzulia	Euskarazko kristau dotrina ofiziala, D. Legazena ordezkatur
1928	Iruñea	Literatur lehiaketa, Iruñeko udalak antolatuta	Orixe, A. Irigaray, J. Larrache (alkatea eta, aldi berean, Euskeraren Adiskideak-eko burua)	<i>Don Quijote</i> -ren kapitulu baten itzulpena
1928	Iruñea	<i>Método Práctico del Euskera</i>	M. Inchaurre	
1928	Iruñea	<i>Aña Mari</i>	Blas Alegria	Euskeraren Adiskideak-en lehiaketan saritua

Euskararen Aldeko Lan eta Mugimenduak

Noiz	Non	Ekimen mota	Izenak	Oharrak
1928	Mezkiritz, Abaurregaina	Euskaraz zekiten haurrentzako sariak, Euskeraren Adiskideak-ek emanak	Mezkiritzko erretorea, Abaurregaineko maisua	
1928	Lekaroz	Ikasturte amaierako euskal jaia	Larreko, Huarte	
1930	Lekaroz euskal jaia	Ikasturte amaierako	Esparza, Larreko	
1930	Iruñea	Euskeraren eguna, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta	D. Intza, J. Larrache, J. Azcarate	
1931	Lekaroz	Ikasturte amaierako euskal jaia		
1931	Donostia-Erronkari	Erronkari-ko Uskaltzaleak taldearen sorrera		
1931	Lizarra	Junta de Patronato de la Lengua Vasca erakundearen sorrera	F. Aguirre, J.M. Lacarra, A. Ugarte, D. Irujo, Navascues	
1931	Iruñea	Campioni omenaldi erraldoia		Centro Vascok antolatua
1931-1936	Iruñea	Lehenengo euskal eskola	Irakaslea: Maite Miren Saizar. Patronatoko kideak: J. Agerre, Arbea...	Lehenengo ikasturtea: 1931-1932. 30 ikasle. Euskeraren Adiskideak-ek bultzatuta
1932	Lekaroz	Ikasturte amaierako euskal jaia		
1932	Elizondo	"Aur euskaldunaren Eguna", Euskaltzaleak elkarteak antolatuta, Euskeraren Adiskideak-en laguntzaz	B. Fagoaga, Aitzol	
1932	Iruñea	<i>Gure Ama. Estudio Euskerico</i>	Blas Alegria	
1932	Iruñea	Euskara azterketak	Epaimahaia: A. Irigaray, J. Aranzadi, B. Echeagaray	Eusko Ikaskuntzaren Udako Ikastaroen barruan
1932	Iruñea	Euskal eskolaren 2. urtea.		1932-1933ko ikasturtea: 60 ikasle inguru. Bi gela zabaldu zituzten
1932	Iruñea	Euskara eskola partikularrak	Irakaslea: J. Agerre	
1932	Iruñea	Euskal poesia lehiaketa, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta		

Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa

Noiz	Non	Ekimen mota	Izenak	Oharrak
1933	Erronkari	Haur eskaldunentzako sariak, Euskeraren Adiskideak-ek emanak		
1933-1936	Lizarra	Lehenengo euskal eskola	Irakaslea: Petra Azpiroz. Patronatoko kideak: F. Aguirre, Navascues	1. ikasturtea: 1933-1934
1933	Iruñea	Euskarazko misioak	Uriarte, Iruarritzaga	
1933	Abaurregaina	Euskal Jaiak, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta	Elizondo (herriko maisua), D. Intza	
1933	Espartza (Zaraitzu)	Haur eskaldunentzako jaiak, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta	A. Irigaray, M. Paz Ziganda; Archanco eta Viscarret maisu-maistrak	
1933	Iruñea	Euskal eskolaren 3. urtea.		Eskolapioen ikastetxera aldatu ziren, aretoa berriro bikoiztuz
1934	Iruñea	Euskarazko misioak		
1934	Iruñea	<i>Yesu-Kristo gure Yaunaren bizia</i>	Polikarpo Iraizozkoa	
1934	Oderitz (Larraun)	Euskarazko misioak	Urrutia, Iruarritzaga	
1934	Ezkaroze	Haur eskaldunentzako jaiak, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta	D. Intza, M. Paz Ziganda, B. Arbea, Viscarret maistra	12 haur aztertuta
1934	Eiaurrieta	Haur eskaldunentzako jaiak, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta	D. Intza, M. Paz Ziganda, B. Arbea	43 haur aztertuta
1934	Otsagi	Haur eskaldunentzako jaiak, Euskeraren Adiskideak-ek antolatuta	D. Intza, M. Paz Ziganda, B. Arbea	16 haur aztertuta
1934	Iruñea	Euskal eskolaren 4. urtea		
1934	Lizarra	Euskal eskolaren 2. urtea		
1934	Iruñea	Ateneo-ko Euskal Hizkuntza eta Literatura ikastaroa	J. Agerre	
1934	Iruñea	<i>Yesu-Kristo Gure Yaunaren Bizia</i>	P. Iraizozkoa	
1935	Iruñea	<i>Lenbiziko Jaunartzerako Kristau Ikasbidea</i>	B. Fagoaga	Asteteren itzulpen berria, Muñiz apezpikuaren eskakizunaz
1935	Iruñea	“Euskaltzaletasuna eta abertzaleatasuna” gaiari buruzko eztabaida	A. Irigaray/“Etxe-zar”	<i>La Voz de Navarra</i> , 1935eko apirilean

Euskararen Aldeko Lan eta Mugimenduak

Noiz	Non	Ekimen mota	Izenak	Oharrak
1935	Iruñea	“Euskal hitzak Iruñeko gaztelanian” gaiari buruzko artikulua		<i>La Voz de Navarra</i> -n. Egungo kanpainen aurrekaria
1935	Elizondo	Euskal eskolaren lehen urtea		1. ikasturtea: 1935-1936, oztopo handiak gaindituz
1935	Iruñea	Euskal eskolaren 5. urtea		1935-1936 ikasturtean: Diputazioak antolatutakoak bai; Centro Vasco-Euzko Etxea-koen berririk ez dago
1935	Iruñea	Euskara eskolak		
1935	Lizarra	Euskal eskolaren 3. urtea		Iragarrita zegoen, baina egin zelako berririk ez dut
1935	Arakil-Uharte	Euskal Jaiak, Euskararen Adiskideak-ek antolatuta		
1936	Elizondo	Bertsolari eguna, Euskaltzaleak elkarteak antolatuta	Aitzol, Basarri, Larreko, A. Irigaray. Saritutakoak: Iriarte, Mutuberría, Harriet	Nafarroa mailako kanporaketa, Donostiako finalerako
1936	Elizondo	Euskarazko antzerkia		Donostiako Euzko-Etxeko “Cuadro Dramático”-a
1936	Iruñea	Euskarazko misioak, Euskararen Adiskideak-ek bultzatuta	P. Sagastibelza	
1936	Iruñea	Larrekoen “«Pro euskera» leen baño otzago” artikulua	Larreko	<i>La Voz de Navarra</i> , 1936-3-19, euskaltzalearen behera-kada deitoratuz
1936	Iruñea	Euskaltzaindiaren bilera		

### 8.3.3 Euskararen aldeko ekimenak: iruzkina

Bi aro bereiz daitezke bilakabide osoan: 1863-1907 eta 1907-1936. 1907 *RIEV* aldizkariaren eta Euskal-Esnalea elkartearen sorrera data dugu.



1863-1907 bitartekoak sormen handiko urteak izan ziren: euskaltzaletasunaren teoria orokorra orduan asmatu zen (Campion), euskararen aldeko lanerako egitasmoaren ardatz nagusien finkatzea ere ordukoa da eta euskalaritza zientifikoaren oinarrien ezarpena ere bai. Halaber, esandako programan zentzua aurkitzen zuten hainbat ekimen burutu ziren.

1907-1936 aroak ezaugarri desberdinak ditu ordea: teoria jadanik asmatuta zegoen eta euskararen aldeko lanaren ildo nagusiak ere bai. Aldi honetako zeregina euskaltzaletasunaren egitasmoaren berregokitzapena —Eusko Ikaskuntzaren I. biltzarra, 1930eko hamarkadako gogoe-tak...— eta euskalaritza zientifikoaren finkapen edo garapena —*RIEV*, Euskaltzaindia...— izan ziren. Aldi berean, aurreko aroarekin alderatu-ta, ekimenen ugaritzea dugu

Ekinaldien hezurdura *hiru elkarte* ditugu: Euskara elkartea (1877-1897), Euskal-Esnalea (1907-1931) eta Euskeraren Adiskideak (1925-1936). Erakundeek une biziagoak eta une apalagoak izan zituzten beren bilakabidean, eta, alde horretatik, Euskara elkartearen urterik emankorrenak 1877-1887 bitartekoak izan zirela esango nuke; 1880. urtean 400 bazkide inguru izatera iritsi ziren. Euskal-Esnalearen urterik hobere-nak Nafarroan 1908-1912 bitartekoak izan ziren —1908. urtean gu-txienez 92 bazkide zituzten—, baina gero ere eragina izaten segitu zuen: 1921. urtean, adibidez, 60 bazkide zituen Nafarroan —guztira 482 ziren, horrela banatuta: 299 Gipuzkoan, 80 Bizkaian, 60 Nafarroan, 8 Araban, 9 Iparraldean eta 26 kanpoan (Memoria. *Euskal-Esnalea* XI, 1921, 235)—. Azkenik, Euskeraren Adiskideak-ek eraginkortasun maila handia —Azkuek berak gogorarazi zuenez (1927: 179-81)— izan zuen beti, azkeneko bi urteetan doi bat jaitsi arren.

Elkarteekin batera agerkariak ditugu: *Revista Euskara* (1878-1883) eta *Euskal-Esnalea* (1908-1931) aldizkariak eta *La Voz de Navarra* (1923-1936) egunkaria, besteak beste. *Revista Euskara* doahinik bana-tzen zen Euskara elkarteko bazkideen artean.

Pertsonen dagokienez, *hiru belaunaldi* izan zirela esan daiteke: Euskara elkartekoak: Campion, Iturralde, Estanislao Aranzadi, Damaso Legaz, Hermilio Oloriz...; 1910eko hamarkadakoak: Pablo Fermin Irigaray “Larreko”, Cruz Goyeneche, Damaso Intza, Enrique Zubiri “Manezaundi”, Jose Agerre, Ziriako eta Federiko Garralda...; eta Euskeraren Adiskideak-ekoak: Angel Irigaray (Larrekoren semea), Miguel Inchaurre, Blas Fagoaga, Paz Ziganda...

Lehenengo belaunalditik bigarrenera, zubiarena Campion eta Aranzadik egin zuten. Aranzadi 1918. urtean zendu zen, baina Campionek sasoiko jarraitu eta hiru belaunaldietako kideekin batera jar-dun zuen. Bestalde, bigarren eta hirugarren belaunaldiak 1925etik aurrera elkarrekin aritu ziren.

Nabarmentzekoak dira Nafarroako hainbat herritan antolatu zituzten euskal jaiak, euskal hizkuntz komunitatearengana bideratutako saioen ezaugarri ia guztiak beraietan biltzen baitziren: kontzientzia piztea, euskara hautatu eta erabiltzeko bultzada, euskararen transmisioa, herri euskararen eta literatur euskararen uztardura, eta abar. Aldi berean, ospakizunak egokitzen zitzaizkien herrietako lagunek prestakuntza lanetan hartzen zuten parte: batzuetan —Auza (Ultzama) 1908, Elizondo 1908, kasu— talde antolatuak izaten ziren eta betiere Iruñeko guneak eta herri euskaldunak harremanetan jartzeko balio izaten zuten.

Garrantzi handia eman zioten euskararen berezko transmisioa —familia bidezkoa, herri girokoa...— bermatzeari eta horren erakusle bikaina Euskeraren Adiskideak elkartearen herri euskaldunetako haur euskaldunentzako jai eta sariak ditugu.

Gogoan izateko beste sail bat irakaskuntzarena da. Euskal irakaskuntzaren aldeko eginahalak mugimendu euskaltzaleen sorreratik bertatik ditugu eta etengabe errepikatu ziren aztertutako epealdi osoan. Ezagutu ditudan aurreneko euskara eskolak<sup>304</sup> 1903koak dira, Campionek emanak. Centro Vasco-ko euskara eskolak 1914. urtean hasi ziren, Jose Agerre irakasle zela. Diputazioak babestu eta ordaindutako euskara katedrak 1922. urtean zabaldu ziren, Irakasle Eskolan eta Apaizgaitegian. Haurrentzako lehenengo euskal eskola 1931-32 ikasturtean ireki zen Iruñean, Euskeraren Adiskideak elkartearen eskutik; 1933-34 ikasturtean Lizarrakoa zabaldu zen eta 1935-36koan Elizondokoa.

Azterketa osatzeko *bi mapa* gehitzen dira: Campionen gramatikaren harpidedunen banaketa (34. irudia), eta taulan aipatutako ekinaldien kokapena Nafarroan barrena (35. irudia). Euskara elkartearen eragina norainokoa zen ezagutzeko datu zenbakarriak ezagutzen ez dudanez, Campionen gramatikaren harpidedunen zerrendara (Campion 1884, “Lista de los señores suscriptores á esta gramática”, orrialdeak zenbatu gabeko gehigarria) jo dut, bien artean halako parekotasuna ezar daiteke-elakoan. *Gramática* atalka argitaratu zen 1884 eta 1886 bitartean eta, salgai jartzeaz gain, harpidetza bidez jasotzen zen Euskal Herri osoan eta baita interesa zuten kanpotarren artean ere. Nafarroan 108 harpidetza —Julian Gayarrerena barne, bitxikeria moduan aipatuta— egin ziren, 18 herritan banatuta, baina haietatik 81 Iruñekoak ziren, Iruñearen eta herrien arteko desoreka agerian utziz. Gipuzkoan, ordea, 343 harpidetza 79 herritan ditugu, Donostiakoak 112 izanik. Erabat desberdinak ziren,

304. Euskara eskolak egungo esanahian esan nahi dut, euskaraz ikasitako lagunei buruzko lekukotasunak askoz lehenagokoak dira eta. 7.3 atalean aipatutako zenbait apaizek, adibidez, euskara ikasteari ekin zioten lanpostua erdiestearren.



34. irudia. Arturo Campionen *Gramática*-ren harpidetzen banaketa (1884).



35. irudia. Euskararen aldeko ekimenen kokapena (1863-1936).

beraz, Nafarroako eta Gipuzkoako egoerak eta, gutxi gorabehera, horrela jarraitu zuten aztertu dudan aldi osoan.

Bigarren mapak (35. irudia) 1863-1936 bitarteko ekimenen koka-pena jasotzen du. Iruñean 73 antolatu ziren eta Nafarroako herrietan 47.

## 8.4 Nafar euskaltzaletasunaren mugak

### 8.4.1 Mugimendu euskaltzalearen ahultasuna

Nafarroako mugimendu euskaltzaleek ez zuten espero bezainbateko arrakastarik lortu eta beti indarrez zein gizarte-eraginez mugatuta ibili ziren, are gehiago Gipuzkoa eta Bizkaikoekin alderatzen zirenean. Euskara elkarteko lehendariak 1882ko batzarrean esandako hitzek, momentuko egoera ezezik, aztertzen ari garen aldi osoko ajeak agertzen dizkigula esan daiteke:

(...) á pesar de nuestros laudables esfuerzos, limpia historia y singular aceptación alcanzada por nuestra REVISTA, no hemos conseguido todavía todos los resultados que nos prometíamos, sin que las causas que hayan podido contrariar su desarrollo tengan fácil explicación (...). Contrastando con lo que acabo de esponer, se estienden notablemente y echan ondas raíces, aspiraciones análogas á las nuestras en las provincias hermanas, (...)

(Memoria leida por el Sr. Presidente de la Junta Directiva de la 2ª Sección de la Asociación Euskara de Navarra en el Batzarre parcial de 15 de Enero de 1882. *Revista Euskara* V, 1882, 5-6)

Gogo-aldarte gorabeherak izan zituzten beren jarduera luzean, baina beti, etorkizuna baikor ikusteko arrazoiak bazeudela zirudien bakoitzean, mugekin topo egin eta berriro errealitatearen alde iluna agertzen zitzairen, Campioni 1911. urtean bezala:

Que la lengua euskariana cuenta con un número de fervorosos defensores cuyo total, con mucho, excede, al que en cualquiera otra época se haya congregado en torno a ella, me parece punto fuera de discusión; que el conocimiento científico de ella se extiende y populariza (...), tampoco podrá negarlo nadie. Pero ésta es la cara del movimiento baskizador, el cual tiene su reverso, feo y repulsivo. (...) la infección erderizante prosigue su camino, planteándonos un problema por demás angustioso: quién será más fuerte, la catarata devastadora ó el dique de contención que nosotros queremos oponer á sus ondas?<sup>305</sup>

(Campion 1911: 4)

Gizarte-esparru hertsian —esan bezala, *Revista Euskara*, gehienez ere laurehun lagunengana iristen zen eta Euskal-Esnalea elkarateak laurogei-

---

305. Ikus, zentzu berean, Inchaurren (1928a) artikulua.

ta hamar bazkide inguru zituen Nafarroan— mugitzen ziren, elite edo intelektualen eremuan nonbait, eta euren buruari ezartzen zioten erronka giro horretan erroto eta handik eragina gizartera hedatzea zen, maiz helburu politiko eta linguistikoak nahastuz.

Dena dela, lehenengo urratsa egiteko ere zailtasun franko aurkitzen zuten. Horrela, *Revista Euskara*-ren arazo nagusia inguruko ezaxola<sup>306</sup> izan zen eta hori zela-eta gertatu zen Iturralde eta Campionen aldizkarian zituzten arduetatik dimisioa eta handik hilabetera betiko itxiera (Carta del Director y del Redactor de la REVISTA al Sr. Presidente de la Asociacion Euskara. *Revista Euskara* VI, 1883, 319-20).

Joera orokorra gorantzakoa izan bazen ere, ahultasunaren eta emaitza esakasiaren arazoa ez zuten inoiz gainditu. Ez da kasualitatea gure epearen azkenaldian Larrekok 1934. urtean “Gogapen itsak” artikulua idatzi izana. Bertan, hogeie egunetik gora artikulurik idatzi gabe zermatzala esan eta gero, aspertuta edo nekatuta zegoela aitortu zuen, eta zergatien bila, orduko euskaltzaleen artean hedatuta bide zegoen etsipen sentimendua islatuz, gogoeta hauek gaineratu zituen:

Euskararen aldeko langile jarraikienak ere... aspertzen... nekatzen... edo, nik ez dakit zer gertatzen zaigun. Biozmin oketan nagola, nere baitan gogapen ilunak eldu zaizkitala. Geroari buruz, euskararenak iraunen ote du? Edo, abertzaletasuna edatuz bezala, euskararenak tipituz bear ote du? Ez dakit, ez dakit; baño, etsitzen asi naiz; beldur naiz, neri bezala gertatzen baldin bazaie nere lagunkideri... (...)

(Larreko. Gogapen itsak. *La Voz de Navarra*, 1934-07-19)

Larrekoren etsipenaren zioetako bat abertzaletasunaren hedapenak berarekin euskararena ez zekarrela ikustea zen, Angel bere semeari gertatzen ari zitzaion bezalaxe (ikus 8.2.3 atala). Biziki mingarria zen beraientzat orduko abertzaleak ideia politikoak zabaltzen tematuta ikustea euskararekiko sentiberatasuna erabat moteldurik antzematen zitzaien bitartean:

Muchas veces hemos visto pasar a grupos de patriotas, por los pueblos cercanos a Bilbao, o por Zubiri, Lecumberri, o Elizondo sin que les detenga un minuto la atención el hecho de oír a los niños expresarse en castellano: el idioma está luchando en esos pueblos una dura batalla y esos «abertzales» no se enteran siquiera.

(Irigaray, A. Para «Etxe-Zar». *La Voz de Navarra*, 1935-04-26)

---

306. Ezaxola izango zen, baita ere, 1860ko hamarkadako ahaleginen oztopo nagusia, Iturralde y Suitek berak aitortu zuenez “la indiferencia, que hubiera sido probablemente el mayor obstáculo con que entonces hubiéramos tropezado” (Iturralde y Suit 1877).

#### 8.4.2 Ahultasunaren zergatiak

Larreko eta Angel Irigarayren hitzek Nafarroako euskaltzaletasunari jazotakoa ulertzeko bidean jartzen gaituzte eta ildo horretatik sakonduko dut. Mugimendu euskaltzaileen emaitzen azterketa hizkuntzaren eta hizkuntz komunitatearen berezitasunaren ideiatik egiten ari naiz. Alegia, gogoan dudan irizpidea hizkuntz komunitatean eragiteko eta euskararen egoera soziala hobea izateko gauza den mugimendua eratu, sendotu eta hedatzeko ahalmena da. Uitzin ikusi genuen bezala, sendoa, baina aldi berean oso hauskorra zen euskal hizkuntz komunitatearen sistema eta hau indartu nahi izanez gero, premiazko urratsa gunea trinkotuz komunitatearen bere buruaren onarpena bermatzea genuen. Modu honetan ulertuta, euskararen aldeko lanaren zutabeak bi hauek liriateke: hizkuntzaren berezitasuna aitortzea, lehena, eta, bigarrena, eratu nahi zen mugimenduan lehentasunezko tokian hitzun osoak —gaitasuna, jarrera eta erabilera gorenko mailan duten AB eta BA hitzunak— jartzea.

Nire ustez, Nafarroako mugimendu euskaltzaileen ahultasunaren arrazoi nagusia —euskal hizkuntz komunitatea nafar gizarteko gutxiengoa izateak zekartzan oztopo objektiboak eta aitzindarien lanak berez dituen zailtasunak ahaztu gabe— goian aipatutako bi ideiak garbi ez izana da, Larreko eta Angel Irigaray sumatzen iritsi zirenez. Hau da, alde batetik, euskararen aldarrikapena gainerako helburu politiko orokorrek itzalita edota horiekin nahasita agertu zen gehienetan, eta, bestetik, arloak bereizita ez zeuden neurrian, maiz, Campion, Legaz edo Larreko bezalako lagunekin batera, erdaldunak edota euskararekiko ardura handirik ez zuten pertsonak aurkitzen ditugu mugimenduaren gidaritza postuetan.

Aipatutako gaiak zerikusia dute mugimenduaren ikuskerarekin eta, horregatik, arrazoi osoa zuen Weinreichek hizkuntzaren aldeko ahaleginen arrakastak nahiz porrotak ulertzeko beren programetara jotzeko gomendatu zuenean: “ciertos dirigentes con una visión poco común tratan de aumentar la lealtad de sus compañeros de lengua por medio de métodos organizados. Los razonamientos en la base de esos programas, sus triunfos y fracasos, también tienen que ser estudiados” (Weinreich 1974: 214).

*Hizkuntzari bere berezitasuna aitortu gabe, asmo politikoen mende jarri zuten euskara*

Campion eta bere ondorengoen lana mugimendu euskaltzale gisa aztertzen ari naiz, baina hau funtsean nik neuk egindako fokalizazioaren emaitza da, haiek ez baitzuten horrela jardun. Hizkuntzaren arazoa foruzaltetasunaren edota nazionalismoaren borroka orokorrean txertatzen eta haren mende jartzen zuten.

Esan bezala (8.2.1 atala), gaztelaniazko “Dios y Fueros” goiburuen inguruan eratzen zuten foruzaleek beren mezua, hori zen jendeari helarazten ziotena, eta horren alde aritzeko deitzen zituzten nafarrak.

Euskararen defentsa Foruetatik eta Euskal Herriaren batasunetik ondorioztatu eta, askotan, azpiulertu behar zen zerbait zen, nahiz eta ideologi mailan herriaren muina hizkuntzan zegoela aldarrikatu. Planteamendu horrek isla zuzena zuen eguneroko lanean: eginkizun nagusia politikoa zen eta hau alderdi foruzalearen eta gaztelania hutsezko *El Arga* eta *Lau-Buru* egunkariaren bitartez bideratzen zuten. Euskara elkarteak<sup>307</sup> mugimendu orokorraren adar bat besterik ez zen, kultur alorra jorratzen zuena, eta euskara, bere barruan, elkartearen sei sailtako<sup>308</sup> bat dugu, garrantzi handikoa, baina ez bakarra. Euskararen tokia, bada, *Revista Euskara*-n zegoen, ez egunkarietan, nahiz eta hauek hizkuntzaren aldeko ideologia zabaldu. Alde horretatik, argigarria da *Revista* bakarrik elkarteko bazkideei —400 gehien jota—, hasieran, eta harpidedunei, geroago, hilabetero —teorian hilabetero atera behar zuen, baina praktikan oso maiztasun irregularra izan zuen— banatzen zitzaizela jakitea.

Euskarari ematen zioten mendeko tokiaren erakusgarri bikaina Iturralde y Suiten hitzak ditugu. 1901. urtean, ortografiaren batasunari buruzko biltzarren prestakuntza lanetan, “ados egongo al zinateke helburu bakartzat euskararen biziraupena lukeen elkarte bat sortzearekin?” galderari “bai, baina ez” erantzun zion. Ongi zeritzon elkarte eratzeari, baina helburua euskararena baino zabalagoa izateko eskatu zuen, lehenagoko Euskara elkartearen eredia gogora ekarriz hain zuzen: “Apruebo y aplaudo la formación de la Asociación o Liga para la conservación del euzkera, y *quiero* formar parte de ella; pero desearía que el círculo en que gire sea más extenso; es decir, el de nuestra *Asociación euskara de Navarra*” (In Arana 1980, III: 2.111). Arrazoia garbi utzi zuen: hizkuntza herriaren osagai bat da, osagai nagusia, baina herria hizkuntza baino askoz ere gehiago da eta, ondorioz, abertzaleen helburuak herria salbatzea behar du izan, ez soilik euskara: “La lengua es el verbo de la raza; su manifestación más genuina y poderosa; pero no la constituye por sí sola (...). Conservar la lengua y olvidar las creencias, costumbres y tradiciones tiene sólo una importancia *científica*. Conservar éstas y aquélla es *patriótico*. Seamos patriotas euskaros...” (ibid.: 2.111).

307. Elkartearen izena, jakina denez, “Asociación Euskara de Navarra” zen —zenbaitetan “Nafarroaco Euscarazco Elkargoa” itzulpena gehitzen zioten— eta hor, euskara hitzak, erdaraz erabilia, balio polisemikoa izan arren, ez zuen nagusiki hizkuntza adierazten. *Euskara, euskaro*, e.a. egungo *vasca* edo *vasco*-en sinonimoak ziren gehienbat orduko hizkeran.

308. Honako sei hauek ziren Euskara elkarteko sailak: (1) Euskal hizkuntza eta literatura; (2) Etnografia, historia, arte eta legedia; (3) Moralitatea eta irakaskuntza; (4) Nekazaritza; (5) Industria; eta (6) Merkataritza (*Revista Euskara* I, 1878, 9). Beranduago, 1880ko otsailean, bitara bildu ziren sail guztiak: “lehenengo saila” eta “bigarren saila” (*Revista Euskara* III, 1880, 214), eta euskara lehenengo sailaren egitekoen artean gelditu zen.



Mende aldaketarekin batera Nafarroako mugimendu euskaltzaleen ideologi erreferentziak EAJ-ren nazionalismora igaro ziren batik bat, Campionenak baztertu gabe, ondo dakigunez. Euskararen abertzaletasunarekiko mendekotasuna oraindik argiagoa zen Sabino Aranaren sisteman (ikus, orobat, 8.2 atala). Herriaren definizioa arrazan oinarritzen zuen, ez hizkuntzan, Campionek egin zuen bezala, eta, bestalde, “Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra” goiburuaren azalpenean euskara bigarren ataleko laugarren osagaia baizik ez zen:

(...) este término *Lagi-zarra* comprende cuatro cosas, a saber: *las leyes* tradicionales (...); *la raza* tradicional (...); *las costumbres* y *los usos* tradicionales y característicos (...); y *la lengua* tradicional, que es el Euskera bizkaino, como lengua nacional.

(*ibid.*, I: 545, 1. oin-oharra)

Bestalde, arraza kutsatzea bezalako gaitzen aldean, Aranak, aukeran, nahiago zuen arrazari eutsi eta euskara galtzea euskarari eutsi eta arraza nahastea baino (*ibid.*, I: 404), arestian jaso dugunez.

Badaezpada ere, “euzkeltzale bateri” emandako aholkuetan argi eta garbi utzi zuen lehentasun osoa abertzaletasunari —baita euskararik gabeko abertzaletasunari— eman behar zitzaioela, ez berez deustarako balio ez omen zuen euskaltzaletasunari: “Ezta ezebez euzkelduna ixatia, abertzalia ixan ezik. Dana da abertzaletasuna, euzkerea jakin ezik be” (*ibid.*, II: 1.296). Eta, jakina, euskararen salbazioa abertzaletasunaren eskutik etorriko zen: “Zabaldu egixu abertzaletasuna, ta berakin euzkerea be zabalduko da” (*ibid.*, II: 1.296). Azkeneko aholku honen antzutasuna izan zen, hain zuzen ere, 1930eko hamarkadan Larreko eta Angel Irigarayk antzemango zutena<sup>309</sup>.

*Euskararentzako helburu argirik ezean, jarrera maila askotariko lagunak elkartzen ziren mugimenduan*

Euskarari buruzko mezu kontraesankorra zabaldu zuten Arturo Campionek eta Sabino Aranak, esan bezala, baina, zalantzarik ez dago, euren kezketan nahiz lan praktikoetan lehentasunezko tokia eskaini zioten euskarari. Eta, horrexegatik, euskara beraientzat garrantzitsua izan zen hein berean, beraiek ere garrantzi handikoak izan ziren euskararentzat. Ez zen gauza bera gertatu, ordea, haiek bultzatutako mugimenduetan<sup>310</sup>.

309. Esandako arazoak ukitzen ez dituen eta EAJren lan euskaltzalearen alde aterratzen den libururako, ikus Mikel Atxaga (1996).

310. Euskal abertzaletasunaren euskararekiko jarrera kontraesankorraz, ikus, adibidez, Garzia (1993) eta Larrea (1994).

Nafarroara mugatuta, Campionek euskaraz zuen ardura 221, ezin esan daiteke bere lankideek ardura maila bera zutenik. Elkartzen zituen Foruen defentsa zen, ez bereziki euskara, eta mugimendu euskaltzalea baino gehiago mugimendu foruzale orokorra genuen, gehiago erdaldun batek osatuta, non hizkuntzarekiko sentikortasuna kide batzuen sentimendua baitzen, ez guztiena. Halaber, orduko euskaltzaletasunaren hezurdura osatzen zuten lagun haiek ere, ez ziren guztiak euskaldunak eta Iturralde y Suit edo Estanislao Aranzadi bezalako erdaldunak, adibidez, tartean aurkitzen ditugu. Hizkuntzaren irizpidea bakarrik 1925.etik aurrera hasi zen gailentzen, Euskeraren Adiskideak elkarte berriarekin, nagusiki euskaldunez eratutako eta euskararen sustapen lanetan berezitutako elkartearekin, alegia, nahiz eta urrats hau ere teori-zazio nabarmenik gabe egin zuten.

Zer gertatzen zen orduan? Foruzale edota, geroago, nazionalista guztiei euskaltzaletasuna aitortzen zitzaizenez, egiazko euskaldun kualifikatuak, euskararen auzian buruzagitza hartzeko gai ziren bakarrak, itzalita edo oihartzunik gabe gelditzen ziren beste hainbat kideren mesedetan. Eta oraindik itzaliago geratzen ziren Iruñetik ez, baizik eta herri euskaldunetatik zihardutenak. Euskararen erdigunea zirenak mugimenduaren bazter aldean gelditzen ziren eta alderantziz, mugimenduaren erdigunea euskararentzat kanpoaldea zirenek betetzen zuten. Salbuespen ia bakarra Campion bera dugu.

Mugimenduaren ordezkaritza erdaldunek hartzen zutenean, eta hori maiz gertatzen zen, mezua ere itxuraldatuta suertatzen zen, euskarari buruzko alderdiak ahaztuta utziz, nonbait. Adibiderik garbiena Hermilio Oloriz-en *Cartilla Foral* (1986 [1894]) foiletua dugu. Hermilio Oloriz, jakina denez, nafar foruzaleen buruzagirik ezagun, emankor eta gorai-patuenetako bat dugu, baina erdalduna zen. 1894. urtean, Gamazadaren ostean, *La Cuestión Foral* liburua idatzi zuen, Nafarroaren arrazoiak foruzaleen ikuspegitik azaldu nahian, eta liburuari “Cartilla Foral” izeneko erantsi zion gehigarri gisa, Nafarroa osoko eskoletan banatua izateko asmoz: “Este breve opúsculo, dedicado especialmente á la juventud, se debiera leer y estudiar en todas las escuelas municipales de nuestro antiguo Reino: así se robustecería el amor á los Fueros en los navarros del porvenir” (ibid.: 195, 1. oin-oharra). Bertan alderdi foruzalearen programa politikoko gai guztiak, hezkuntza barne, ukitu zituela esango nuke, bat izan ezik: euskara. Hau da, erdaldun batek idatzia zenean, goren mailako asmoak zituen eta belaunaldi berriak Nafarroaren etorkizunerako prestatu nahi zituen idazki batek euskarari buruz ez zuen ezta hitz bat bera ere esan, nahiz eta foruzale guztiak Nafarroaren izaeraren muina eta osagarririk gogoangarriena euskara zela hamaika aldiz aldarrikatuak izan.

Zentzu berean aipa daiteke Eusko Ikaskuntzaren bigarren biltzarrean Joaquin Beunzak eman zuen “La enseñanza primaria en Navarra”

(*Euskalerrriaren Alde X*, 1920, 290-2) hitzaldia, maisu-maistren izendapenaren auziari buruzkoa, zeinak euskararen eta euskarazko irakaskuntza eta maisu-maistren euskalduntasunaren arazoak behin ere aipatu gabe utzi zituen.

*Nafarroaren historikotasunaren argudioa euskararen aurka bihurtzen zen*

Miroslav Hroch-en iritziz (1994a: 104) nazio mugimendu baten finkapenerako ezinbesteko hiru baldintza daude: (1) historikotasuna, (2) hizkuntza edo kultura komunak eta (3) taldeko kideen arteko berdintasuna. Nafarroak (1) eta (3) betetzen zituen, baina ez bigarrena. Campion eta gainerakoen asmoa lehendabiziko eta hirugarren ezaugarrietatik tiratu eta bigarrena, hizkuntza edo kultura komunak, euskararen inguruan eratzea zen, euskal abertzaletasunaren egitasmoa eratzuz. Bertan pisuzko argudioa zen Nafarroaren historikotasuna, arestian esan bezala.

Hain eraginkorra izan zitekeen Nafarroako erresumaren argudioa, baina, euskararen aurka bihurtzen zen jendearen gogoan, nire ustez, denek baitzekiten funtsean Nafarroako erresumako hizkuntza nagusia erdara zela eta bertan euskara ia tokirik gabe eta mendeko egoeran utzia izan zela. Hau da, nafarrei, euskaldunei zein erdaldunei, eredu historiko gisa eta etorkizunerako erreferentziatzat aurkezten zitzairen irudiak, euskara bultzatu beharrean, autoritate-bermea eskaintzen zion bere bazterketari. Nafarroaren historiak hitz egiten entzun eta erdaldunek euren burua sendotuta ikusiko zuten, euskaldunek, aldiz, erdaraz jantzeko beste arrazoi bat aurkituko zuten bitartean.

*Mugimendu euskaltzaleen mugez beste zenbait ohar*

Sorreran Iruñeko elite intelektual txiki baten fruitua izan ziren gehienbat Nafarroako mugimendu euskaltzaleak eta inoiz ez zuten kutsu hori galdu. Zentzu berean, nabaria da Campionen edo Iturralde y Suiten hitzei maiz zerien paternalismo edota elitismo doinua.

Elite kaletar izaerari lotuta, sustrai txikiak zituzten herri euskaldunetan, eta hau ere ezaugarri iraunkorra izan da bilakaera osoan. Eten garbi samarra zegoen populazio euskaldunaren eta mugimendu euskaltzaleen artean. Bide batetik zihoan euskaldunen multzo nagusia eta beste batetik euskararen aldeko mugimendua eta, neurri handi batean, euskararen iraupena euskal hizkuntz komunitatearen berezko faktorei zor zaien, euskaltzaleen eraginari baino askoz gehiago. Ahalegindu ziren herri euskaldunetako gune eraginkorrekin uztartzen eta zenbaitetan, 1910-1912 urteetan Euskal-Esnalearen Baztan eta Ultzamako taldeak antolatu zituztenean, kasu, lortu ere, lortu egin zuten, baina erdigunea beti Iruñean zuten eta nekez iristen ziren eremu euskaldu-

neko bilakaeran eragitera. Hori, ez bazitzaien Uitziko Zacarias Astizekin bezala gertatzen (ikus 6. kapitulua), Euskal-Esnalea elkarte-ko Larraungo dirubiltzaile izendatu eta gero herrian inork ez zuela euskaltzale gisa ezagutzen.

Gainera, ekimen ugari susmopean garatu behar izan zituzten, eta behin baino gehiagotan, susmoak zirela-medio, egin gabe gelditu ziren, Zaraitzuko 1912ko batzarra bezalaxe.

Azkeneko arazo bat hau dugu: euskaltzaletasunaren sustapena erdal-dunen artean. Alor honetan ere, salbuespen mugatu batzuk izan ezik, ez zuten arrakasta handirik lortu, erdal munduak beste nonbait ikusten zituen bere kezkek, ongi dakigunez, eta urratsa egiten zutenak, bestalde, normalean aurretiaz abertzale kontzientzia piztu zitzaielako izaten zen, Campioni berari gertatu zitzaionez: “Entonces me avergoncé de llevar sangre euskara en las venas y de ignorar la lengua nativa de los euskaros” (Campion 1884: 9). Horrela ulertzen dira, halaber, nahiz eta gauzak orduko jadanik konplexuagoak izan, Errepublika garaiko Lizarra eta Iruñeko euskal eskolak bezalako ekimenak. Oro har, dena den, eragin txikia erdietsi zuten nafar euskaltzaleek erdal komunitatean.

## 8.5 Laburpena eta iritzi orokorra

Campion eta bere lankideen ekarpen nagusia, euskarari tokia ukatzen zion erdal diskurtsoari nahiz egoera orokorrari aurre egiteko asmoz, euskararen aldeko tradizioan txertatu, Europako herri hizkuntzen aldeko ideologia eta mugimenduetatik edan eta sistema ideologiko berria sortzea izan zen, eta, aldi berean, lana bideratuko zuten erakundeak antolatzea.

Zehazkiago, beren emaitzak bitan laburbil daitezke: euskararen higaduraren abiadura jaisten laguntzea eta mugimendu euskaltzale moderno oinarriak jartzea.

Bere momentuan ez zuten lortu, ordea, euskaldunengan nahikoa eraginkortasun izango lukeen mugimendu egonkorra sendotzea. Bizitza paralelo eta desberdinak eraman zituzten lurralde euskaldunek eta mugimendu euskaltzaleek, biak elkartzen ziren ukipen uneak zenbaitetan gertatu arren, eta horrexegatik, hain zuzen ere, esan dut euskararen bizirau-penaren arrazoi sakonak euskal komunitatean bertan bilatu behar zirela.

Gure ikuspuntutik aztertuta, honako ideia eta ekimen mota hauek dira interesgarrienak:

(1) Euskal hizkuntz komunitateari begira, maila guztietan —baloreak, egitura, portaera sistema eta ugalketa— bizkortzeko ahalegin eten-gabea. Orobat, euskalaritza berriaren oinarriak jartzen laguntzea.

(2) Biztanle guztiei begira, euskara bazterketatik atera eta zor ziztzaion begirunea eta Nafarroako bizitzan zuen toki edo eragina zabaldu eta indartzea.

(3) Espainiaren burujabe eta euskal kulturari bere baitan zegokion lekua aitortzen zion Nafarroa nahi zuten: Nafarroaren muina euskal kultura zen beraien iritziz.

(4) Esandako ezaugarriak zituen Nafarroa Euskal Herriaren batasunaren ardatz moduan ikusten zuten.

Bereziki nabarmentzekoak dira euskalgintzaren alorrean adierazi zuten egitasmoa eta bultzatu zituzten ekimenak.

Halaber, orduko eztabaidetan —arraz/hizkuntza, garbizaletasuna, euskararen batasuna, literatur klasikoen eta euskara herritarraren zeregina, eta abar— gaurkotasun handiko irizpideak erabili zituzten Campion eta bere jarraitzaileek, haien aurkarienak baino askoz ere argiago eta baliagarriagoak.

## 9. ONDORIOAK

Laburpen edo sintesi hutsetik harantzago joanez, zortzi ataletan aurkezten dira lanaren ondorioak:

- Alde teoriko-metodologikoak
- Euskararen datu demografikoak
- Euskararen bizitza (eta ordezkapena)
- Nafarroako hizkuntz desoreka estrukturala
- Erdal hizkuntz komunitatea euskararen aurrean
- Euskararen aldeko lan eta mugimenduak
- Aurkitutako argibide berriak
- Hurrengo ikerketei begira.

### *Alde teoriko-metodologikoak*

Izenburuak —*Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa (1863-1936). Soziolinguistika Historikoa eta Hizkuntza Gutxituen Bizitza*— dioenez, osotasuna, zabaltasuna eta sakontasuna dituen iker-gaia hartu dut (Nafarroa Beherea kanpo gelditu arren). Euskararen historiari nabarmenena ez da bere higadura edo galera, bere biziraupena eta garai berriei egokitzeko erakutsi duen ahalmena baizik, baita Nafarroan ere. Lanak, aldi berean, herri hizkuntzen bizitza historikoari buruzko gogoeta orokorragoa egiteko aukera ematen digu. Hautatutako gaiak aberastasuna dakar berarekin, baina, horrekin batera, ukazinezko zailtasunak ere baditu. Bere konplexutasunari alderdi anitzeko azterketa eginez, bide berriak ibiliz eta ekimenaren arrisku intelektualak onartuz erantzun nahi izan diot.

*Gaiari buruzko ikerketen egungo egoera.* Aurreko lanen azterketa kritikoa ezinbestekoa baldin bada lan zientifiko guztietan, oraindik gehiago izan zait nire zereginean. Zergatik?: Soziolinguistika historikoa finkatu gabeko eta ia garatu gabeko alorra delako; soziolinguistika orokorra bera ere oso heterogeneoa delako; eta, hirugarrenik, euskararen historia-  
ren orain arteko molde nagusiek ez nindutelako asetzen.

Zientzien filosofian paradigma edo ikerkuntza-programa, zientzia “normala” eta paradigma aldaketa bezalako kontzeptuak erabiltzen dira, besteak beste. Paradigmak, gutxi gorabehera, onarpen orokorreko teoriak, arazoak eta irtenbide-ereduak dira. Zientzia “normala” egitea paradigma horietan mugitzea da. Zientzia normalaren ezaugarri bat ikertzai-

leen gogo bere programako arazoetara mugatu eta bertan agertzen ez diren arazoak ikustezin bihurtzea da.

Euskararen eta herri hizkuntzen historiografian ere ikerkuntza-programa edo paradigma moduko bat egon da indarrean hamarkada askotan zehar. Programa hau atzerakadaren ideiaren inguruan eratu zen eta ikerketa gehienak arazo hori azaltzera bideratu ditu orain arte. Gure artean finkatu zuena Arturo Campion izan zen batez ere. Arazoa ez zen nolana hikoia eta egiazko beharrei erantzuten zien programa horrek sortu zenean —erdararen mundutik oso bestelako interpretazioak ematen zirelako, besteak beste—, eta horregatik ulertzen da izan duen arrakasta. Paradigma horri euskararen edo herri hizkuntzen “heriotzaren paradigma” dei dakiok.

Euskararen historiografia programa horren moldeetan garatu da gehienbat, oharkabean gelditu den Mitxelenaren salbuespenarekin, eta horrela laburbil daitezke bere ezaugarriak:

-hizkuntzaren galera edo atzerakada nabarmentzen da eta hori izaten da ikergai nagusia. Euskararen historia esan eta jendeak euskararen atzerakadaren historia ulertzen du automatikoki;

-bilakaeraren azalpenak ideia hauen artean kokatu ohi dira: baldintza sozio-politiko orokorrak; euskararen aurkako erasoak (gobernuak, eta abar); bertako goi-klaseen erdaltzaletasuna; euskaldunen utzikeria; eta mugimendu euskaltzaleen ahaleginak;

-euskararen iraupena, aipatzen denean, harrigarria dela esan eta inertziaren edo isolamenduaren teorien bidez azaldu ohi da; edo, bestela, euskaltzaleen lanengatik;

-ondorioz, historiaren protagonistak ez dira euskaldunak, beste edozein bat baizik: gobernuak, euskararen aurkako erasoak, mugimendu euskaltzaleak, eta beste.

Herri hizkuntzei buruzko lan orokorrek ere antzeko abiapuntuak izaten dituzte: herri hizkuntzen heriotza, edo heriotza-bidea; hizkuntza hauek iraganarekin eta gizarte tradizionalekin lotzea, hizkuntza nagusiak modernitatearekin lotzen diren bitartean; herri hizkuntzen hiztunak euren hizkuntzaz inongo kontzientziarik ez duten objektu pasibo eta galtzaileak balira bezala hartzea, eta abar.

Errealitatea, berriz, desberdina da. Ordezkapenaren aldeko joerak ukaezinak badira ere, XIX. eta XX. mendeek hainbat eta hainbat herri hizkuntzaren garapena ekarri dute. European, adibidez, 1809-1937ko epealdian hamaseititik berrogeita hamahirura igo zen hizkuntza osatuen —edota osatze bidean zeudenen— kopurua, euskara barne (Deutsch 1977).

Horren aurrean, hizkuntza gutxituen bizitza historikoak ez du iker-tzaileen arretarik merezi izan, Ernest Gellner-en (1988: 86-7) hitzek, adibidez, erakusten dutenez: “Antiguamente no tenía sentido preguntarse si los campesinos amaban su cultura: era una cosa que estaba ahí, como el aire que respiraban, y ninguno de ellos tenía conciencia de ella”.

Hau da, hizkuntza hauen historiaren gunea izan dena, beren hiztunen eguneroko bizimodu eta bizipenak, alegia, ikustezin bihurtzen dute hizkuntzen heriotzaren paradigmapeko ikertzaileek, ez gaiak berez garrantzirik ez duelako, eskematik kanpo gelditzen zaielako baizik.

*Lanaren arazo intelektualak.* Azaldutako paradigmaren aurrean, lanaren arazo intelektual nagusia ikuspuntua finkatzea da: ohiko moldeak gainditu, ikustezina zena ikergai bihurtu eta euskararen historiaren subjektu edo protagonistatzat euskaldunak, euskal hizkuntz komunitatea, hartzea, hizkuntz komunitatea bere bizitza garatzen duen gizarte-unitate bezala aztertuz. Hau da, euskararen historia euskaratik bertatik egitea. Horrela, euskararen biziraupenaren errealitateak abiatu eta euskararen bizitzaren sustrai historikoak ikertzen dira, bide horretatik hizkuntzaren gibelatzearen arazoa ere jorratuko dela jakinik.

Oro har, azterketa hizkuntz komunitateen terminoetan egiten dut: euskal eta erdal hizkuntz komunitateak. Oso-oso argigarria da ikuspegi hau, guztiz desberdinak izan baitziren euskaldunen erdaldunekiko jokalmoldeak eta erdaldunen euskaldunekikoak. Honek komunitate bakoitzaren sakoneko baloreak ezagutzera bultzatzen gaitu. Nafarroako hizkuntz desoreka estrukturala bide horretatik ulertzen da.

Bestalde, arazo intelektual berria adierazi izanak ez du orain arteko galderak baztertu behar ditugunik esan nahi. Alderantziz, ikuspegi aberasgarriago batean kokatzen ditu.

*Hizkuntz komunitatearen azterketarako eredua.* Max Weber eta Bloomfield klasikoekin eta Jose Maria Sanchez Carrion eta Ralph Fasold garaikideekin batera, berezko izaera duen gizarte-egituratzat hartzen dut hizkuntz komunitatea, euskal hizkuntz komunitatea gure kasuan, izaera egituratua inplizitoki bakarrik erdal komunitateari aitortzen dioten azterbideen aurrean. Soziolinguistika eta soziologia arloetako ekarpenak uztartuz, honako eredu hau eratu dut hizkuntz komunitatearen bilakakeraren azterketa bere konplexutasunean egiteko:

#### **Hizkuntz komunitatearen azterketarako eredua**

1. maila: aparatu sinbolikoa, baloreak...
2. maila: hizkuntz komunitatearen egitura
3. maila: hizkuntz portaeraren sistema (hizkuntz komunitatearen gizarte-ekintza)
  - hizkuntzaren ezagutza, edo hizkuntz gaitasuna
  - hizkuntzarekiko jarrerak
  - hizkuntzaren hautaketa
  - hizkuntzaren erabilera
  - hizkuntzaren egoera aldatzeko ekintzak (aldeko zein kontrako mugimenduak, azterketa zientifikoak...)
4. maila: komunitatearen ugalketa



Ereduaren ezaugarrien artean hiru nabarmenduko nituzke: (1) hizkuntzen bilakaeraren alderdi guztien integratzailea da, ohiko azterketak horietako batera edo bestera —erabilera, jarrerak, ekintzak...— mugatzen diren bitartean; (2) toki garbia egiten dio hiztunen hautamenaren ideari: pertsoneri buruz ari gara eta ez dut determinismoan sinisten, hizkuntzaren bilakaera ez baita berez eta abstraktuki gertatzen den zerbait, hizkuntza horretan mintzatzen diren pertsonen hautaketan —edo, hobeto esanda, hautaketa-eredu iraunkorren— emaitza baizik. Gakoa aukeraketen arrazoiak ongi azaltzean dago, noski; (3) euskal hizkuntz komunitateak erdal gizartearekiko elkarrekintzan jasaten zuen eragina ere ereduaren maila guztien arabera azter daiteke.

*Metodologia.* Erronka nagusia euskal hizkuntz komunitatearen iraganeke ezaugarriak ezagutu eta sakonki azaltzeko bide egokiak erabiltzea da. Nahitaez euskaldun xeheen multzo zabalera jo beharra dugu, oso egiteko zaila izan arren, Hobsbawm historialariak eta beste hainbatek aitortu dutenez. Honek berrikuntza metodologikoa eskatzen du. Alegia, euskaldunen historia egin nahi dugu, baina eskura dauden lekukotasunak erdal gizarte eta erakundeek utzi dituzte batik bat, edo elite euskaltzaleek, eta, iturriek baldintzatuta, ikerketa gehienak bide horietatik eramane ohi dira, erraztasunaren trukean prezio handia ordainuz: euskararen historiaren muinari heldu beharrean azalean gelditzea.

Erabilitako metodologiak hiru ezaugarri nagusi ditu: (1) soziolinguistika sinkronikoaren kontzeptuak eta teknikak historiaren azterketa-ara egokitzea; (2) disziplinarrekotasuna, auzo-zientzietara maiz joaz; (3) lan konparatiboa egitea, Nafarroako bilakaera beste hainbat hizkuntzarenarekin alderatuz.

Euskal hizkuntz komunitateari buruzko azterketaren muina Uitziri herriko landa-ikerketa da: bertan 1936 baino lehenagoko garaia bizi izan zuten aiton-amonak bildu eta teknika soziologiko kualitatiboak ahozko historiaren ikuspegitik erabili ziren. Gainerako herri euskaldunen aldean aparteko berezitasunik ez duen heinean, eta ikerketa monografikoek kontrakorik ez dioten bitartean, Uitziko emaitzak besteetara ere hedatzeari zilegi deritzot. Garrantzi handiko beste bi iturri herri literatura eta Bonaparte printzearen eta bere laguntzaileen lekukotasunak izan ditut, Uitziko ikerketaren emaitzak orokorki baieztatzea etorri direnak. Aldi berean: artxibo lana; garaiko prentsa, aldizkariak eta argitalpenak; alderdi kuantitatiboak: errolden gaineko azterketa demografiko eta geografikoak; eta abar.

Bestalde, lan konparatiboa inon argigarria bada, gure kasuan izan da. Dokumentatuak nituen egoeren artean osatuena eta iradokitzaileena Frantziako XVIII. mendeko herri hizkuntzen bilakaera (3. kapitulu) zen, eta bere azterketa guztiz bat dator Nafarroako emaitzekin.

Erdal komunitatearen euskararekiko jokamoldeei dagokienez, hiru atal nabarmendu ditut: iturburu ideologiko eta historikoak, erdaldunen

euskarari buruzko diskurtsoak eta irakaskuntza sistema. Diskurtsoetan ideologi egituratuak eta sakoneko uste edo mentalitateak bereizi dira, horretarako diskurtsoen aztertze eta deskodetze tekniketara joaz. Irakaskuntza sistemari hainbat aldetatik heldu diot, maiz lehen eskuko iturriak erabiliz, eta ohiko uste anitz kolokan jarri edota gezurtatuta suertatu dira.

*Teorien ebaluazioa.* Arazo intelektuala euskararen bizitza historikoa bere hiztunak subjektutzat hartuz azaltzea izanik, teoriaren ebaluazioa helburu hori betetzeko duten egokitasunaren aldetik egin dut. Ekarpenik emankorrenak Jose Maria Sanchez Carrionen —azentua hizkuntz komunitatearen egituraketan eta hizkuntzaren osotasunaren ideian jartzeko duena—, Joshua Fishmanen —hizkuntzen iraupenaren eta ordezkapenaren ikuspegi bateratua; muga etnolinguistikoen ideia— eta Ralph Fasolden —ikuspegi antropolinguistikoen ideia, metodologia orokorra— teoriak egin dizkirate; hirurek, aldi berean, hizkuntz bilakabideen kultur alderdia nabarmentzen dute.

Ordezkapenaren ikuspegitik garatutako teoriak —Louis Jean Calvet frantsesa, Lluís Aracil eta hainbat katalan, Euskal Herriko ohiko moldeak... gehi mundu zabaleko lan gehienen abiapuntu implizitoak—, aitzitik, alde bakarra lantzen dute eta linealegiak gelditzen zaizkit, beren esparruan —ordezkatze prozesuen azterketan— oso baliagarriak izan arren.

Auzo-disziplinatan lagungarrienak mentalitateen historiaren korrantea eta soziologia alorreko Guy Rocher eta Pierre Bourdieu autoreen kontzeptu eta ikuspegiak gertatu dira. Nafarroa mailan, bertako egoera bere konplexutasunean ulertzeko argigarrienak Julio Caro Baroja, Jose Maria Lacarra eta Koldo Mitxelena izan ditut.

### *Euskararen datu demografikoak*

Orduko erroldetatik abiatuta, Nafarroako euskal hizkuntz komunitatearen neurriak kalkulatu ahal izan ditut (4. kapitulua). Hasieran, 1860ko hamarkadan, euskaldunak 90.000 inguru ziren, % 30. Amaieran, berriz, 1930eko hamarkadan, euskaldunak 60.000 inguru ziren, % 17. Beraz, aztertutako epearen bukaeran 30.000 gutxiago ziren Nafarroako euskaldunak, baina kopuru ederra egiten segitzen zuten, eta hasieran baino askoz eraginkorragoak ziren.

### *Euskararen bizitza (eta ordezkapena)*

Nafarroako euskal hizkuntz komunitatearen bizitza historikoaren azterketan zeregin berezia bete du Uitziko landa-ikerketak (6. kapitulua).

Uitzi herri euskalduna izan da beti. 1935. urtean 291 biztanle zituen. Larraun ibarrean dago, Iruñetik 40 bat kilometrotara, Lekunberri eta Leitza lotzen dituen errepidean.

Euskarak Nafarroan iraun badu, Uitzi bezalako herri anitzetako bizilagunek euren hizkuntzari eutsi diotelako izan da, bertako sistema etnolinguistikoak biziraun eta egoera berriei egokitzeko bizitasuna izan delako, beste hitzetan esanda, eta euskararen historiaren erdigunea den gertaera hau da, hain zuzen ere, Uitziko ikerketaz azaldu nahi izan dudana.

Halaber, lan osoaren oinarrian dauden hainbat kontzeptu teorikok —hizkuntz komunitatearen izaera egituratua, muga etnolinguistikoak, *habitus*-a, hizkuntz iraupen eta ordezkapenaren azterketarako ikuspegi antropolinguistikoa— zein euskararen antza duten beste hizkuntzen bilakabide historikoaren azterketak bide horretatik jotzeko eskatu didate.

Ezagutu nahi izan dena, behetik gora adierazita, hau da: Uitziko bizilagunen hizkuntz portaerak, hauek antolatzen zituen arau-sistema eta, hirugarrenik, beraien bidez adierazten ziren kultur eta hizkuntz baloreak, uitziarrek hizkuntzaren erabileraren bidez adierazten zituzten komunitate-partaidetza sentimenduak, alegia.

Uitziko ikerketak, bada, euskal hizkuntz komunitatearen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenaren arrazoi, baldintza eta ahultasunak aztertzen ditu eta, alde horretatik, euskararen iraupena azaltzeko eman izan diren hainbat arrazoiaren froga-harria dugu, eta baita hautatu ditudan erreferentzia teorikoena ere.

Bestalde, iraupena edo bizitza ulertuta, heriotza ere uler dezakegu, eta beherago hitz egingo dut horretaz.

Uitzi garaian garaiko bizimoduan txertatuta egon den herria da. 1847. urtean eskola, posta zerbitzua, gurdi bidezko komunikazioa eta ongi finkaturiko merkataritza harremanak zituen jadanik. Hogeita hamar urte beranduago ederki hornitutako eskolak altxatu ziren Uitzin eta 1880.ean Karidadeko Alaben moja erdaldunek komentua eta neskatuentzako eskola zabaldu zituzten. 1910eko hamarkadan errepidea, burdinbidea eta argi-endarra zituen Uitzik.

Alfabetatzeari dagokionez, Uitzi Nafarroako eta Hego Euskal Herri osoko tasen pare-parean zebilen XX. mendearen hasierako hamarkadetan, eta Nafarroako Erriberakoak eta Espainia osokoak aise gainditzen zituen.

Ikerketaren emaitzen azterketa bi urratsetan egin da. Aurrena, datu edo lekukotasunik esanguratsuenen laburpena; ondoren, lekukotasunen interpretazioa, erreferentziazat hartu ditudan teoriaren argitara: Uitziko euskal hizkuntz komunitatearen sistema.

*Lekukotasun esanguratsuen laburpena.* Honako zertzeladez osatzen dute uitziarrek Gerra aurreko hamarkadei buruzko irudia: orduko bizitza ona zen, gogorra, baina jendea pozik bizi zen eta goserik ez zuten pasatzen. Ez dute, hala ere, iragana idealizatzen, eta horrela diote: “Orain ordun baino hobekiago bizi gara. Diferentzia ederrarekin”. Bizilagunen behar gehienak asetzeko gauza zen Uitziz: jana, dendak, lana, sexuen arteko harremanak, mutikoentzako eta neskentzako eskolak, erlijio bizitza, osasun zainketak, jaiak eta aisialdia, tabernak, kultura orokorra, gizarte-antolakuntzako hainbat erakunde eta portaera, eta abar. Aldi berean, Uitziz ez da herri itxia izan, lotura estuak zituen inguruko herriekin eta, oro har, ongi komunikaturik zegoen eta kanpoko gauzen berri jakiten zuen.

Herriko bizitza osoa euskaraz egiten zen eta atxikimendu garbia erakusten zioten uitziarrek euskarari, berezko atxikimendua, beraien hitzek ere erakusten dutenez: “hemen euskarari beti eutsi zioten jendeek”. Euskaraz kulturizaturiko lagunak, ordea, AB euskaldunak, ez zegoen, apaizak izan ezik, eta hauek ere ozta-ozta. Orduko mugimendu euskaltzaleek ez zuten ia oihartzunik herrian. Gaztelania aspaldidanik zegoen txertatua Uitzizko bizimoduan —eskola, mojen etxea, familiaren bat, azokak, bidaiak...— eta, aldi berean, erdara zela-eta, eskolan eta soldaduzkan batez ere, gorriak pasatu behar izaten zituzten uitziarrek. Izugarriko presioa egiten zien gaztelaniak eta, ondorioz, bere beharra ere aitortzen zuten, baina beti bigarren hizkuntza bezala. Orixeri dago-kionez, denek zekiten haren berri, baina Uitzizko euskararen bilakaeran ez zuen aparteko eraginik izan.

Ikerketak, halaber, herriko bizimodua hezurramitzen zuten hainbat ohitura, gizarte-erakunde eta horrelakoren berri eman zuen eta horietako asko guztiz argigarriak suertatzen zaizkigu uitziarren hizkuntz portarera eta euskararen iraupena ulertzerakoan. Horien artean batzarrea, auzolana, artazuriketa, feriak edo azokak eta ezkontzen errejimena ditugu.

*Lekukotasunen interpretazioa: Uitzizko euskal hizkuntz komunitatearen sistema historikoa.* Hizkuntz komunitatearen sisteman lau maila bereizten ditugu: baloreak, hizkuntz portara, gizarte-egitura eta komunitatearen ugalketa, jakina denez.

Balorea kolektibitate batek erdutzat hartzen duen izateko era bat baldin bada, uitziarren baloreen erdian euskalduna izatea zegoen. Ados zeuden uitziarrak herriko bizimoduarekin, eta baita euskarak bertan betetzen zuen tokiarekin ere. Ez zeuden XIX-XX. mendeetako gizarte-berrikuntzetatik kanpo, baina beren erantzuna beharizan berriei egokitzea izan zen, ez hizkuntza aldatzea. Bat zetozen uitziarren izana eta izan nahia. Hau da, euren pertinentziako taldea eta erreferentziako taldea bera ziren: talde euskalduna, eta horrela ulertzen da euskararekin zuten lotura sakona, euren buruaren onarpenak euskararena ere zekarrelako berarekin.

Uitziko euskal hizkuntz komunitatearen portaera sistema aztertu da: euskararen ikasketa, gaitasun maila, euskararekiko jarrerak, euskararen hautaketa, erabilera eta euskararen egoera aldatzera zuzenduriko ekin-tzak, edo ekintzarik eza.

Egiturari dagokionez, rol edo talde soziolinguistikoen ikuspuntutik aztertuta, sendoa eta hauskorra zen aldi berean Uitziko hizkuntz komu-nitatea. Sendotasuna euskara ama hizkuntza zutenen multzoaren indar edo bizitasunak ematen zion, goiko faktoreez gain, jakina. Hauskortasuna, aldiz, euskarazko kultur garapenik ez izateari zor zi-tzaion: kultur edukiak erdaraz hartu behar izaten zituzten halabeharrez eta, ondorioz, euskara osatuaren ereduarena egingo zuen, komunitatearen balore eta sinboloak irudikatuko zituen eta sistema osoari sustengua emango zion AB gune sinbolikorik gabe gelditzen zen. Gainera, alda-menean eta berarekiko lehian erakarpen indar handiko erdal hizkuntz komunitatea zuen.

Euskararen jarraipena euskal hizkuntz komunitatearen ugalketa edo erreproduzio bezala uler dezakegu, gizarte-unitate baten ugalketa beza-la, alegia. Gizarte-zientzietako teorikoek diotenez, gizarte-egitura baten iraupena berau bultzatzen duten lan edo indar aktiboen emaitza da, ez inertziaren edo kasualitatearen emaitza. Gure kasuan zeregin nagusia familiak eta, oro har, lehen mailako sozializazio agenteek betetzen zuten: herriko seme-alabei goian azaldutako portaera-arauen eta baloreen mul-tzoa —edo habitusa— irakasten zitzaien euskaldunak izaten jarraituko zutela bermatuz.

Bi hitzetan laburbilduta, euskarak iraun du azpian gizarte edo komunitate egituratu bat izan duelako; bertan euskalduna izatea balo-re bat zen, prestigioa zuen, eta, oro har, hizkuntz portaera euskalduna —non erdara bigarren hizkuntza zen— garatzen eta transmititzen zen. Isolamendua eta inertzia baztertu beharreko sasiazalpenak dira nire ustez.

“Hizkuntz harremanen sarea” kontzeptuaren arabera egindako azter-ketak ere ondorio berara eramán nau.

*Euskal hizkuntz komunitatearen hauskortasuna eta euskararen atzera-kada.* Euskararen ordezkapena, gertatu den tokietan, Uitzin aurkituta-koaren bidetik ulertzen da. Euskararen galera hizkuntz komunitatea puskatzen denean gertatzen da. Esan bezala, sendoa eta hauskorra zen aldi berean euskal hizkuntz komunitatea eta erdal komunitatearen izu-garrizko eragina jasaten zuen etengabe, Uitzin bertan ikusi ahal izan denez: presio ideologikoa, ezarpena, isekak, zigorrak, bildurra, erdal gizartearen pisu orokorra, eta abar. Horrela, ulergarria da hainbat toki-tan jendeak konfiantza galdu, euskararen baloreei muzin egin, errefe-rentzi mundu kontzeptualtzat erdararena hartu eta gaztelaniaren aldeko apostua egin izana. Erdigunean, hortaz, pertsonen edo giza-taldeen por-

taerak eta erabakiak aurkitzen ditugu, maiz eredu kolektibo iraunkorren modura egituratuta.

Euskararen atzerakadaren azalpenaren ardatza hor kokatzen dut, beraz, eta ardatz horren inguruan antola daitezke erdalduntze bilakaeran eragina izan duten faktore guztiak: historiografiak erakutsitakoak; iraupen luzeko gaien azterketan, lanaren 3. kapituluan, aurkeztutakoak; eta erdaldunen euskararekiko jarrera eta portaeren azterketan, 7. kapituluan, ekarritakoak.

### *Nafarroako hizkuntz desoreka estrukturala*

Gizarte kulturalki konplexua da Nafarroa erresumaren lehen garaietatik eta bertan bi mundu geografiko-kultural desberdin izan dira historian zehar: euskal mundua eta erdal mundua, gehi bien arteko ukipen-eremu zabal eta aldakorra. Hala ere, Nafarroa erdal komunitatetik eta linguistikoki bere zerbitzura antolatutako estatu edo egitura politikosoziala izan da nire ustez. Mendeetan zehar iraun duen gertaera honi “Nafarroako hizkuntz desoreka estrukturala” deitzen diot (3.5 atala). Euskararen bazterketaren sustraiak hor bilatu behar ditugu nagusiki.

Bilakaeraren oinarriak neurri handi batean jadanik ezarrita zeuden XI-XII. mendeetako Leireko monastegiko eta San Migel santutegiko agiriek euskaldunak bazterreko baserritartzat —euskarazko hitzak *rustico vocabulo, vocabulum sortitum, lingua navarrorum...* baino ez omen ziren— agertzen zituztenean, agirien egileak *Nos* ziren bitartean, beren burua latinetik zetorren kultur munduan kokatuz. Gauzak garbi zeuden 1329ko Gorteetan, non “geure” hizkuntza aipatu zuten: *lengoage de Navarra*, hau da, erromantzea.

Gero Nafarroa Garaiaren 1512ko konkista eta ondorengo gorabehera politikokoak etorri ziren: erregeordetza, Foruen aldakuntza, Espainiako Estatu modernoaren garapena, gerra karlistak, eta abar. Baina hizkuntzari dagokionez, hautu nagusiak orduko eginak zeudela esango nuke nik. Bestelakoa izan zen Nafarroa Behereko bilakaera.

Euskara baztertzearekin batera, erdarari bere garapen soziolinguistiko osoa bermatzen zion Nafarroak eta nafar gizarteko integrazio-baldintza erdaraz jakitea zen: euskaldun huts batek gutxi egin zezakeen nafar gizartean barrena. Bere burua nafartzat jotzen zuen orok, eta badi-rudi Nafarroaren ideiak onarpen maila handia erdietsi duela aspalditik, oso barneratua izango zuen erdaraz jakin beharra, edo, bederen, erdaraz jakiteak ez ziola kalterik egingo, berari edo bere ondorengoei.

Aldi berean, honekin arazoa uste den baino sakonagoa dela ikusten dugu: euskararen bilakaera baldintzatu duena, nagusi sentitu dena, ez da bakarrik klase bat edo erakunde bat izan, erdal mundua bere osotasunean baizik. Ulertu behar duguna ez da politika jakin bat, erdal komunitatearen portaera eta mentalitate orokorra baizik.

*Erdal hizkuntz komunitatea euskararen aurrean*

Erdal komunitatea osorik hartzen dut eta honek berrikuntza bat du egin ohi den ikerketen aldean: hauetan sakabanatuta ukitzen diren gaiak beren sakoneko lotura agerian dutela azaltzen dira hemen: nafar erdaldun guztien multzoa; Nafarroako eliteak nahiz erakunde nagusiak —Diputazioa, irakaskuntza, alderdi politikoak...—; eta, azkenik, Nafarroan eragina izan duten kanpoko beste hainbat lagun edota erakunde: Estatu espainola eta bere administrazioa, Armada, Espainiako eta nazioarteko elite eta intelektualak, eta abar. Gainera, berrikuntza ezezik, onurak ere baditu ikuspegi honek, hainbat erakunderen azterketan bestela oso zail eta kontraesankorrak lirerateken korapilo asko askatzen laguntzen baitigu.

Lau atal aztertu dira:

- erdaldunen besteeikiko harremani buruzko ikuskera
- erdal munduaren kezka
- euskarari buruzko diskurtsoa
- irakaskuntza sistema eta euskara.

*Erdaldunen besteeikiko harremani buruzko ikuskera.* Oinarrizko ideia hau da: aztergaia erdaldunen besteeikiko jokamoldea dugu, ez euren buruarekikoa, eta bertan asimetria zen nagusi, ez baitzuten inolaz ere gauza bera egiten beren buruarekin eta arrotz eta gutxiagotzat jotzen zituzten euskaldunekin. Nagusitasun konplexuarekin jokatzaren zuten. Erdaldunen ikuskeraren iturriak oso gogoko dudana 3. kapituluan aztertu dira: XIX. mendeko joera orokorrak, Frantziako Iraultzaren hizkuntz politikaren eredia, Nafarroako erresumaren hizkuntz tradizioa eta, muin-muinean dagoena, erromatarren eta indoeuroparren gizarte-hierarkizazioaren eta hedakortasunaren ideologia.

Bestalde, *erdal munduaren kezken artean* ez zegoen euskara, hizkuntza ofizial bakarra *de facto* erdara baitzen; eztabaidak sortzen zirenean, berriz, orduan ardura nagusia gaztelaniari lehentasunezko tokia bermatzea izaten zuten. Egia da zentralismoaren aurkako klabeetan irakur daitezkeen hainbat tirabira izan zituela Nafarroako Diputazioak Estatuarekin —Foruak, maisu-maistren izendapena, Gamazada...—, baina bi aldeak erdaldunak izanik eztabaida haietan ere euskara bere hartan uzten zuten.

*Diskurtsoen* atalean erdal hizkuntz komunitateak euskarari buruz adierazi zituen mentalitate eta ideologiak landu ditut. Diskurtsoek eraginkortasun soziala bilatzen dute, jendeari errealitatea modu jakin batean ikustaraztea, alegia. Gure kasuan, diskurtsoen helburua nafar guztiei, euskaldunei zein erdaldunei, euskararen egoera erdaldunen modura ikustaraztea zela esango nuke.

Erdaldunen diskurtsoen azterketan bi maila bereizi dira: mentalitate edo estereotipo orokorrak, alde batetik, eta ideologia edo iritzi arrazoi-

tuak, bestetik. Mailarik sakonena eta eraginkorra mentalitatearen maila da, errotuena delako eta maiz ideologiari ere oinarria ematen ziolako. Erdaldunen hizkuntz mentalitatea argitu nahian hainbat iturri erabili dut, denak Nafarroan sortuak.

Garaiko hainbat testuren azterketak erakusten digunez, estereotipoz josita zegoen erdal mentalitatea eta hauek ziren bere osagai nagusiak: gaztelaniari buruz nazio-hizkuntza (Nafarroakoa zein Espainiakoa), ofiziala, modernoa, idatzia, latindar jatorrikoa, Nafarroako errege-erreginek erabilia, bertako hizkuntza, eta abar zela esaten zuten. Hau da, erdaldunen sakoneko ustea Nafarroako gizartea beraiekin berdintzen zela zen, beraiek omen ziren Nafarroaren erdigune edo zilbor (Mircea Eliadek zioenaz oroitu) sozial, geografiko eta denborazkoa

Euskarari eta euskaldunei buruz, aldiz, hau esaten zuten: menditarren hizkuntza zela, eta, bide batez, gaineratu soldadu tradizionalistek Bordel bertsolariari “Montañesak oro traidoriak” zirela aurpegiratu ziotela; euskaldunak kanpotarrak zirela; iraganeko hizkuntza eta zaharren hizkuntza zela, edo eskolatu gabeko haurrena; ezjakintasunaren emaitza; desagertzen ari zela; sekulan ez dela nazio-hizkuntza izan; bitxi eta aldrebesa; zorigaitz handia; euskaraz kapritxo, ohituraz edo borondate txarrez hitz egiten zutela, eta abar.

Adibide bat jartzearen, Nafarroako historiografian ohorezko tokia duen Jose Yanguas y Mirandak bere *Diccionario de antigüedades del reino de Navarra*-n esandakoa aipa daiteke. Objektibotasunaren itxurapean ohiko usteak errepikatu ondoren, zera gaineratu zuen hiztegiaren gehigarrian (1964, III: 469): “VASCUENCE. Existen palabras de este idioma notables por su prodigiosa extensión y dificultad de pronunciarlas”. Esate baterako: “Azpilcueta garaycosaroyaren berecolarrea: en castellano, Campo bajo del sel alto de Azpilcueta”.

Pasarte bitxi hau erdal mentalitatearen erakusle garbi-garbia da, eta oso eraginkorra. Ez da harriztekoa erdaldunek beren zeregina euskaldunak euskararen kausetik gaztelaniaren kosmos edo gardentasunera eramatea zela uste izatea.

Ideologiaren mailara igaroz, nafar eliteen unibertso ideologikoa ulertzeko XIX. mendeko hizkuntz ideiak, Espainiatik jasotzen ziren iritziak eta Nafarroan bertan sortutakoak aztertu ditut. Horiei buruz, bi ohar besterik ez. Aurrena, Stuart Mill, Engels, Meillet, Unamuno eta punta-puntako beste hainbat intelektualen adierazpenak irakurrita, deigarria da ideia hauen eta nafar erdaldunen mendeetako batez besteko mentalitatearen arteko antzekotasuna. Zaila da askotan zer egiten ari ziren jakitea, zientzia ala denen gogoan zeuden ohiko uste arruntak hizkera zientifikoaz jantzi, eguneratu eta errepikatzea.

Bigarrenik, Nafarroan, eta baita Espainian ere, oso gutxitan idazten ziren euskararen aurkako iritziak. Agertu bai, noizbehinka agertzen ziren, baina diskurtso ofiziala bestelakoa zen. Nagusi isiltasuna zen, “isil-



tasunaren diskurtsoa” deitu dudana, euskarari buruz ez hitz egitea, alegia, euskara erdaldunentzat ia existitzen ez zen neurrian, berari buruz hitz egin beharrik ere ez baitzuten. Baina hitz egiten zutenean euskararen goresmen hitzak erabiltzen zituzten nonahi, bai prentsan bai Diputazioaren adierazpenetan eta baita Canovasen edo errege-erreginen kasuetan ere. Hona hemen, adibide moduan, *Diario de Navarra*-tik hartutako zati txiki bat:

(...) nuestro venerando idioma que todos amamos con efusión, porque él es la reliquia que nos legaron los siglos, el habla de nuestras pretéritas generaciones (...), la gallarda expresión de nuestra raza legendaria.

(*Diario de Navarra*, 1915-05-08)

Praktikan, ordea, hoztasuna zerien Diputazioari eta mundu erdaldunari, eta, bestalde, ulertzekoa da: inork ez luke erlikia batengatik gehiegi egingo.

*Irakaskuntzari* dagokionez, berebiziko eragin erdalduntzailea izan du, hori gauza jakina da, eta erdal gizartearen jokabide guztiak han islatzen ziren, baina topikoz jositako ideiak transmititu zaizkigula esan beharra dago. Erdarazko irakaskuntzaren erroak Nafarroan bertan daude, eta baita, aldi berean, Mendebaldeko kultur ingurune osoan ere. Eskola eratzunaren pareko lekukotasun ugari jaso ditut: latina ingelesaren edo Erresuma Batuko gainerako hizkuntzen aurka; frantsesa bretoiara, okzitaniera, euskara eta korsikeraren aurka; gaztelania euskararen eta katalanaren aurka; ingelesa galesaren aurka; Zeelanda Berriko zuriak maorieraren aurka; Estatu Batuetako eta Kanadako zuriak hizkuntza indioen aurka, eta abar.

Nafarroara itzuliz, erdarazko irakaskuntzaren garapena ere nafarrek, Nafarroako udalek eta Diputazioak, kudeatu dute ia beti. Hezkuntzaren hizkuntz erduan bi faktore dira nagusi: ikasketa-planak eta irakasleak. Ikasketa-planak beti erdarazkoak izan dira Nafarroan eta Moyano Legearekin Estatuaren esku hartzea areagotu zenean, eskutik hartuta joan ziren Nafarroa eta Espainiako Estatuak. Irakasleei dagokienez, maisu-maistra gehien-gehienak nafarrak ziren, udalek izendatzen zituzten, 1887-1914ko tartean izan ezik, eta, hainbat herritan jaso ditudan argibideen arabera, esan ohi den maisu-maistra espainol erdalduntzaileen etorrera jendetsua mito bat da.

Oro har, eta salbuespenak salbuespen, *izugarrizko presioa egiten zuen erdal komunitateak* euskal hizkuntz komunitatean, bere maila guztietan: baloreen mailan, euskalduna izatea gutxietsiz; komunitatearen egituran, bere hauskortasuna aeragotuz eta euskal hizkuntz komunitatea desegituratzera joaz; hizkuntz portaera sisteman, gaztelaniaren ikasketa, hautaketa eta erabilera bultzatuz; eta, azkenik, hizkuntz komunitatearen ugalketa edo jarraipena eragotziz.

Gauza bat da, hala ere, erdaldunen jokamoldea esandakoa izatea eta beste bat, guztiz desberdina, lana burutzera iristea, euskarak bizirik iraun baitu, euskal hizkuntz komunitatearen berezko bizitasuna aztertzean ikusia dugunez.

### *Euskararen aldeko lan eta mugimenduak*

Atal honetan euskal hizkuntz komunitateak bere egoera aldatzeko adierazitako ideiak, egindako lanak —euskalaritza eta literatura alorrekoak barne— eta antolaturiko ekimenak aztertzen dira. Ziur asko iturriak eskuraerazak izateagatik, historiografia zabal, eta klasiko, samarra dute nafar mugimendu euskaltzaleek, Arturo Campion eta bere kideek bereziki. Arreta alderdi berriago batzuetan jartzen saiatu naiz.

Nafar euskaltzaleen ekarpenen artean hauek nabarmenduko nituzke:

- euskal tradizioa eta nazioarte mailako herri hizkuntzen aldeko mugimendu eta ideologiak uztartuz —1876an Herder eta Tocqueville jadanik irakurrita zituen Campionek— euskararen aldeko ideologia modernoa eratzea;

- euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna lotzen zituen eta Nafarroatik pentsatuta zegoen sistema ideologiko berria adieraztea;

- mugimendu euskaltzaleen egitasmoa eta bideak finkatzea;

- euskalaritzari alor guztietan eman zioten bultzada eta erabili zituzten irizpideak.

Hurrengo belaunaldiek programa edo egitasmoa egina aurkitu zuten eta, gehienbat, bide horretatik segituko zuten. Historiografian, ordea, sarritan Campion ondorengoan aurrekari hutsa izan balitz bezala aztertzen zaigu.

Arturo Campionen, Sabino Aranaren eta karlisten arteko erkaketa eginez, aldeak nabarmenak dira. Sabino Aranaren kasuan, ideologia orokorra alde batera utzita, Campionekin eztabaidatu zituen gai linguistiko gehienetan —araza/hizkuntza, euskararen arazoak...—, egungo ikuspegitik askoz gaurkotasun handiagoa du Campionek Aranak baino. Hizkuntz irizpideei dagokienez, euskararen batasunaren alde agertu ziren nafarrak eta garbizaletasunaren auzian, aranazaleen aurrean klasi-koen tradizioa eta euskara herritarra uztartzea bultzatu zuten, Iparraldeko *Eskualduna* aldizkariaren eredia gogoan edukita.

Mugei dagokienez, begi-bistakoak dira nafar euskaltzaletasunak denboran zehar izan dituen mugak. Zergatien bila, arrazoi objektiboak eta subjektiboak daude. Objektiboen artean nagusia hau da, nire ustez: nafar gehienak erdaldunak ziren, erdal mundukoak, eta gogoia euren hizkuntzan —gaztelanian— eta, politikoki, Nafarroako eta Espainia mailako politikagintzan zuten gehienbat. Nekez bereganatuko zuen orduko nafar gehienek borondatea euskara, Espainiarekiko bereizketa —baina independentziara iritsi gabe— eta Euskal Herriaren batasuna aldarrika-

tzen zituen korronte batek, gune erdaldun euskaltzale batzuk sortu baziren ere.

Muga objektiboekin batera, ordea, planteamendu-arazoak ere aurki daitezke. Hiru bereziki. Aurrena, ez zioten hizkuntzari bere berezitasuna aitortu eta bai foruzaleek bai nazionalistek asmo politikoen mende jarri zuten euskara, 1930eko hamarkadan Larrekok eta Angel Irigarayk sumatu zutenez. Bigarrena, ez zieten euskaldun osoei —gaitasuna, jarra eta erabilera goren mailan zituzten lagunei— lehentasuna eman mugimenduan, buruzagitza guneetan erdaldunak eta euskaldunak eta euskararekiko oso sentikortasun desberdinetako kideak nahasiz. Hirugarren arazoa Nafarroaren historikotasunaren argudioaren erabilpean zegoen nire ustez. Alegia, Nafarroaren independentzia historikoa aldarrikatzeak indar handia zuen Madrilen aurrean abertzaletasunaren aldetik, baina, aldi berean, argudio hau euskararen aurka bihurtzen zen, nafar guztiek baitzekiten funtsean Nafarroako erresuma eta erdararen nagusitasuna sinonimoak zirela.

### *Aurkitutako argibide berriak*

Maiz aurkikuntza berriak egin ote dituen galdetzen zaio ikertzaileari. Lanaren oinarri teoriko eta metodologikoetan nahiz gai bakoitzaren tratamenduan berrikuntza nabarmenak egiten saiatu naiz, eta horixe zen garrantzitsuena nire ustez. Baina, aldi berean, euskararen historiako axola handiko argibide berriak ere, oker ez banago, aurkitu edota garatu ditut. Hona hemen horietariko batzuk:

-euskaldunen euskararekiko atxikimendu historikoaren lekukotasun eta frogak;

-irakurtzen eta idazten jakitea —erdaraz, azpiulertzen da— Nafarroan ere eskatu zitzaizen herriko alkategai eta gainerako administrazio postuetarako hautagai guztiei: 1628ko Gorteak;

-euskararen eta erdararen demografia historikoak: 1863. eta 1935. urteetako kopuruak;

-Bonaparte printzearen hamaika lankide nafar berriren izenak; gehi bederatzi lagun gehiagorenak, egiazko lankidetzat jotzeko zalantzagarriak direnak;

-irakaskuntzaren arloan: maisu-maistra espainol erdalduntzaileen etortze/ekartzeko jendetsuaren gezurtapena;

-mugimendu euskaltzaleen ekimenen zerrenda zabala, osatu samarra.

### *Hurrengo ikerketei begira*

(1) Euskararen heriotzaren ikerkuntza-programa oso interesgarria izan zen bere momentuan, baina egun nahiko agorturik dagoela uste

dut. Oro har, Campionek zabaldutako, Angel Irigarayk jarraitutako eta gaur egun arte iritsi den bide horrek —euskararen geografia historikoa, atzerakadaren arazoak, Nafarroako erakundeen erantzunkizun historikoa, Espainiako Estatuarenak... eta horren inguruko galderak eta eztabaidak— bere fruiturik hoberenak emanak ditu dagoeneko eta, mota bereko albiste edo azterketak gehitzea beti onuragarria bada ere, berrikuntza eta emankortasuna beste galdera batzuen inguruan daude.

Era berean, beti izango da beharrezkoa erdaldunen euskararekiko jokamoldeak aztertzea, eta emaitza polit eta argigarriak lor daitezke, lan honetan bertan egin den bezala, baina gogoan izan behar dugu euskararen historia euskaratik bertatik egiten dugula, ez erdaratik.

Biderik oparoenak euskararen bizitzaren ingurukoak dira. Lanaren mamia euskararen —eta herri hizkuntzen— bizitza historikoa izan da, eta bilakaeraren protagonista euskararen hizkuntz komunitatea.

Landu ditudan arloak eta ireki diren bideak kontuan hartuta, ondoko ideia hauek nabarmenduko nituzke hurrengo ikerketetarako:

-Euskal hizkuntz komunitatearen mundu sinbolikoa, gune sinbolikoa, sakoneko baloreak, usteak, eta abar. Hor dago bere biziraupenaren giltzarria, eta baita bere etorkizunarena ere. Gai hau, aldi berean, ikeritzeko zailena da eta metodologia bereziki zorrotza prestatzea eskatzen du.

-Euskal hizkuntz komunitatearen osagaien bilakaera historikoa: jadanik aipatutako mundu sinbolikoaz gainera, gizarte-egitura, hizkuntz portaera sistema —bere atal guztiekin: ezagutza, jarrerak, hautaketa, erabilera eta egoera aldatzeko ekimenak— eta ugalketa bideak. Bai monografiak bai azterketa orokorrak.

-Uitzikoa bezalako landa-ikerketak beste hainbat herri euskaldunetan.

-Nafarroako hizkuntz aniztasun historikoa, bere sustrai kulturalak eta adierazpen ideologikoak, hizkuntz komunitateen elkarrekiko portaera eta jarrerak...

-Nafarroako euskararen aldeko mugimenduak, euskalaritza, euskal literatura, eta abar.

-Hizkuntz komunitatea gizarte-unitate bezala aztertzeko oinarri kontzeptual eta metodologikoak.

-Ikertzaileen prestakuntza zientifikoa: soziolinguistika eta, oro har, hizkuntzalaritza ezinbestekoak dira, baina gero eta beharrezkoagoa da auzo-zientzietan ere jantzita egotea. Disziplinartekotasuna, hitz batean. Orobat, Nafarroa, bere historia eta aztertutako garaiak ahalik eta hobekien ezagutzea. Pertsonen portaerak eta motibazioak ulertu nahi ditugu azken finean eta zeregin horretan aurreratzen dugun guztia beti gutxi izango da.

(2) Nafarroako euskararen 1863-1936 bitarteko bilakabidearen irakaspentatik, “historiaren irakaspenez” mintzatzea zilegi bada, hiru nabarmenduko ditut.

Lehenik, euskararen biziraupenaren gakoa familian, lagunartean, herrian eta lurralde euskaldunetako eguneroko bizimoduan zuen indarrean eta euskaldunek, ohartuta nahiz oharkabean, erakusten zioten atxikimenduan egon da; euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenean lehentasunezko zeregina izan dute lehen mailako sozializazio agenteek. Transmisio naturala, hitz bitan. Halaber, ahalmen berezia izan du euskal komunitateak XIX-XX. mendeetako gizarte-aldaketei egokitu eta, modernitateari uko egin gabe, bere izaerari eusteko. Egun posible da euskararen ikasketa naturalari bigarren mailako ibilbidea gehitzea —eta lehenengo urratsak ezagutu ditugun euskaltzaleei zor zaizkie—, etxeko euskara garapen landuarekin osatzen duten belaunaldi berriak prestatuz. Euskararen kalitatea, eredia eta etorkizun kualitatiboa pertsona edo gune hauengan dago, AB pertsonengan, eta dagokien tokia aitortu behar zaie euskararen inguruko jardueretan.

Bigarrenik, Nafarroako hizkuntz desoreka estrukturala aipatu da maiz. Bi komunitateen arteko harreman zuzen eta orekatuen ametsa, euskal hizkuntz komunitatearen garapen osoa bermatuko eta babestuko lukeena, gauzatu gabe dago oraindik eta hori izan da, hain zuzen ere, erdal komunitatearen historikoki gainditu gabeko ikasgaia. Denon esku dago urrats hori egin, huts egite historikoak zuzendu eta Nafarroan bi hizkuntz komunitatei, ez bakarrik erdal hizkuntz komunitateari, beren osaketa ziurtatzea.

Eta hirugarrenik, mugimendu euskaltzalearen ezaugarriak. Larrekok eta Angel Irigarayk, ordura arteko esperientziak gogoan edukita, itxaropenak neurri handi batean erakunde eta helburu politikoetan jartzen zituen euskaltzaletasun motaren mugak garbi ikusi zituzten. Eta, aldi berean, mugimendu euskaltzaleak behar zituen ezaugarri berriak ere sumatzera iritsi ziren: euskal hizkuntz komunitatearen beharren ikuspegitik jardutea, mendekotasun politikoetatik aske eta bide politiko hutsetatik gehiegi espero gabe, euskaldun osoen (AB+BA) gune sendoen inguruan eratuta eta lehentasuna komunitatearen beraren eraginkortasuna areagotzeari emanaz. Orduan igarri baizik egin ez zutena garbiago ikusten da perspektiba historikoaz eta, nire ustez, beren gogoetek indar osoa gordetzen dute.

## ERANSKINAK

### 1. taula. 1863ko eremu euskalduna udalerrika

Taula osatzeko irizpideez, ikus 4.2 atala. Zenbakiak herriz herri atera dira, baina udalerrika bilduta aurkezten dira.

Udalerrria	Biztanleak 1863	Euskaldunak 1863	% euskaldun 1863
ABAURREGAINA	448	404	90
ABAURREPEA	245	221	90
ADIOTZ	366	54	14
AGOITZ	1137	445	39
ALTSASU	1436	1293	90
AÑORBE	761	88	11
ANTSOAIN	1336	655	49
ANUE	1160	1044	90
ARAITZ	2031	1828	90
ARAKIL	2377	2140	90
ARAKIL-UHARTE	950	855	90
ARANGUREN	1046	362	34
ARANO	456	411	90
ARANTZA	1172	1055	90
ARBIZU	783	705	90
ARESO	582	524	90
ARIA	230	207	90
ARIBE	126	114	90
ARRUAZU	323	291	90
ARTAZU	443	62	13
ARTZIBAR	1627	1191	73
ATARRABIA	624	254	40
ATETZ	729	657	90
AURITZ	353	318	90
BAKAIKU	477	430	90
BARASOAIN	682	74	10
BASABURUA	1666	1500	90
BAZTAN	10260	9234	90
BELASKOAIN	323	122	37
BERA	1966	1770	90
BETELU	624	562	90

## Eranskinak

Udalerria	Biztanleak 1863	Euskaldunak 1863	% euskaldun 1863
BIDANKOZE	347	313	90
BIDAURRETA	308	123	39
BIURRUN-OLKOTZ	679	84	12
BURGI	671	87	12
DONAMARIA	733	660	90
DONEZTEBE	652	587	90
EGUESIBAR	1647	639	38
EIAURRIETA	519	468	90
ELGORRIAGA	264	238	90
ELORTZIBAR	1267	158	12
ENERITZ	421	36	8
ERATSUN	576	519	90
ERGOIENA	1273	1146	90
ERROIBAR	2411	2170	90
ERRONKARI	498	449	90
ESPARTZA	348	314	90
ESTERIBAR	2177	1828	83
ETXALAR	1720	1548	90
ETXARRI	260	91	35
ETXARRI-ARANATZ	1226	1104	90
ETXAURI	655	234	35
EZKABARTE	1125	676	60
EZKAROZE	456	411	90
EZKURRA	641	577	90
GALAR	1663	610	36
GALOZE	424	178	41
GARAIOA	388	350	90
GARDE	463	348	75
GARES	3015	478	15
GARINOAIN	391	59	15
GARRALDA	527	475	90
GESALATZ	2816	945	33
GIRGILLANO	820	174	21
GOIZUETA	1284	1156	90
GOÑERRI	989	742	75
GORZA	249	225	90
HIRIBERRI	535	482	90
IBARGOITI	922	114	12
IGANTZI	706	636	90

Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa

Udalerrria	Biztanleak 1863	Euskaldunak 1863	% euskaldun 1863
IMOTZ	1178	1061	90
IRAÑETA	395	356	90
ITUREN	692	623	90
ITURMENDI	479	432	90
ITZA	1423	1152	80
ITZAGAONDOA	1074	166	15
ITZALTZU	172	155	90
IZABA	973	876	90
JAITZ	609	457	75
LABAIEN	808	728	90
LAKUNTZA	827	745	90
LANTZ	372	335	90
LARRAUN	3732	3359	90
LEGARDA	394	60	15
LEITZA	1679	1512	90
LEOTZ	1303	47	3
LESAKA	2328	2096	90
LIZOAINIBAR	1111	610	54
LONGIDA	1386	200	14
LUZAIDE	996	897	90
MURUZABAL	467	59	12
NABASKOZE	1022	7	0
OBANOS	1361	176	12
ODIETA	867	781	90
OITZ	190	171	90
OLAIBAR	343	309	90
OLAZTI	784	706	90
OLORITZ	715	61	8
OLTZA	2078	1559	75
OLLARAN	1071	804	75
ORBAIZTA	769	693	90
ORBARA	289	261	90
ORISOAIN	266	45	16
ORONTZE	125	113	90
OROTZ-BETELU	623	561	90
ORREAGA	104	94	90
OTSAGI	1225	1103	90
SALDIAS	431	388	90
SARTZE	204	184	90



## Eranskinak

Udalerria	Biztanleak 1863	Euskaldunak 1863	% euskaldun 1863
SUNBILLA	1160	1044	90
TIEBAS-MURU ARTEDERRETA	296	119	40
TIRAPU	233	28	12
UHARTE	717	288	40
UKAR	425	65	15
ULTZAMA	2650	2385	90
UNTZITI	797	127	15
UNTZUE	465	58	12
URDAZUBI	643	579	90
URDIAIN	822	740	90
URRAUL GOITI	1017	74	7
URROTZ	418	377	90
URROTZ (hiria)	706	269	38
URZAINKI	285	257	90
UTERGA	551	91	16
UZTARROZE	638	575	90
XULAPAIN	761	685	90
ZABALTZA	572	320	55
ZIORDIA	532	479	90
ZIRITZA	195	99	50
ZIZUR	1845	646	35
ZUBIETA	604	544	90
ZUGARRAMURDI	585	527	90
<b>Guztira</b>	<b>124587</b>	<b>84620</b>	<b>% 68</b>

## 2. taula. 1935eko eremu euskalduna udalerrika

Taula garden samarra bada ere, komeni da konzeptu batzuk argitzea. Udalerriak Angel Irigarayk (1956) marraztutako barruti euskaldunekoak dira. Biztanleen kopurua 1930 eta 1940ko erroldetako batez-beste-koa da (Yrizar 1981). Euskaldunen kopurua neuk atera dut, eta kalkulu egiteko “Irigarayren sailkapena” eta “% euskaldun 1935” zutabeetako irizpidez baliatu naiz, Pedro Yrizarrek aipatu lanean egin zuen bezala.

Angel Irigarayk sailkapena egin zuen herri euskaldunen artean, adin taldeak eta euskararen ezagutza eta erabilera gurutzatuz. Zazpi maila proposatu zituen:

I. maila: herritar guztiek, haurrak barne, ezagutzen eta erabiltzen dute euskara

II. maila: 30 urtetik gorakoek erabiltzen dute, haurrek ez

III. maila: 30 urtetik gorakoek badakite, baina ez dute erabiltzen

IV. maila: 50 urtetik gorakoek erabiltzen dute, 50-30 bitartekoek ez

V. maila: 50 urte bitartekoek eta 30ekoek ere badakite, baina ez dute erabiltzen

VI. maila: 50 urtetik gorakoek badakite, baina ez dute erabiltzen

VII. maila: zaharrek bakarrik dakite, baina erabili gabe.

Beraz, “Irigarayren sailkapena” izeneko zutabeen udalerrri bakoitzari dago(z)kion maila(k) paratu d(ir)a. Kontua da Irigarayk herriz herri egin zuela bere sailkapena, eta, orduan, sarritan udalerrri batek herri bat baino gehiago duenez, udalerrri bereko herriak egoera desberdinetan egonez gero, maila bat baino gehiago agertuko da dagokion laukitxoan.

Irigarayren sailkapena abiapuntutzat hartuta, euskaldunen kopuruak ateratzeko koefizienteak ezartzeko irizpidea proposatu zituen Pedro Yrizarrek (1981: 247) eta horietan oinarritu naiz “% euskaldun 1935” zutabea betetzeko<sup>311</sup>. Guztira, herri bakoitzari buruz eman ditudan urrats logikoak, honenbestez, hauek izan dira: 1935. urteko biztanleria, Irigarayren sailkapena, koefizientea eta, azkenik, euskaldunen kopurua. Gero, udalerrika bildu ditut herrietako emaitzak.

---

311. Ez beti, beste batzuetan, mugan zeuden euskalkietako herrien kasuan, hain zuzen ere, euskaldunen kopuru zehatza atera zuelako Pedro Yrizarrek, eta, orduan, bere zenbakiak hartu eta euskaldunek biztanle guztien aldean egiten zuten portzentaia kalkulatu baizik ez baitut egin.

## Eranskinak

Udalerria	Biztanleak 1935	Irigarayren sailkapena	% euskaldun 1935	Euskaldunak 1935
ABAURREGAINA	343	I	90	309
ABAURREPEA	137	I	90	124
ALTSASU	3335	I, VI	50	1668
ANUE	981	I, IV	70	687
ARAITZ	1317	I	90	1186
ARAKIL	2113	—, III, IV, VI	17	360
ARAKIL-UHARTE	744	I	90	670
ARANO	411	I	90	370
ARANTZA	1091	I	90	982
ARBIZU	836	I	90	753
ARESO	443	I	90	399
ARIA	160	I	90	14
ARIBE	168	VI	18	3
ARRUAZU	316	I, II	80	253
ARTZIBAR	1122	III, IV, VI, VII	23	262
ATETZ	578	I, IV, V	50	289
AURITZ	432	IV	40	173
BAKAIKU	406	I	90	366
BASABURUA	1597	I, II	90	1438
BAZTAN	10499	I, II	90	9450
BERA	2527	I, II	70	1769
BETELU	466	I	90	420
BIDANKOZE	297	VII	4	12
DONAMARIA	629	I	90	567
DONEZTEBE	830	I, II	90	747
EIAURRIETA	479	I	90	432
ELGORRIAGA	181	I	90	163
ERATSUN	442	I	90	398
ERGOIENA	1098	I	90	989
ERROIBAR	2126	I, II, III, IV, VI	55	1181
ERRONKARI	685	VII	4	28
ESPARTZA	271	I	90	244
ESTERIBAR	2261	I, II, V, VI	49	1121
ETXALAR	1351	I	90	1216
ETXARRI-ARANATZ	1521	I	90	1369
EZKABARTE	1092	I, VII	0	9
EZKAROZE	455	V	30	137
EZKURRA	503	I	90	453

Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa

Udalerrria	Biztanleak 1935	Irigarayren sailkapena	% euskaldun 1935	Euskaldunak 1935
GARAIOLA	287	IV	40	115
GARRALDA	410	II	70	287
GOIZUETA	1270	I	90	1143
GORZA	262	VI, VII	11	29
HIRIBERRI	372	I	90	335
IGANTZI	628	I	90	566
IMOTZ	1037	I, II	90	934
IRAÑETA	360	I	90	324
ITUREN	534	I	90	481
ITURMENDI	435	I	90	392
ITZA	1235	I, III, VI	11	145
ITZALTZU	177	V	30	54
IZABA	860	VI	18	155
LABAIEN	623	I	90	561
LAKUNTZA	690	I	90	621
LANTZ	293	II	70	206
LARRAUN	3195	I	90	2876
LEITZA	1560	I	90	1404
LESAKA	2896	I	90	2607
LIZOAINIBAR	798	—, III, VII	1	12
LUZAIDE	960	I	90	864
ODIETA	627	I, III, IV, V	32	203
OITZ	214	I	90	193
OLAIBAR	252	VI, VII	7	19
OLAZTI	1653	I, —	50	827
ORBAIZTA	577	IV	40	231
ORBARA	148	I	90	134
ORONTZE	116	II	70	82
OROTZ-BETELU	558	IV	40	224
ORREAGA	149	IV	40	60
OTSAGI	1112	V	30	334
SALDIAS	285	I	90	257
SARTZE	172	VII	4	7
SUNBILLA	1007	I	90	907
ULTZAMA	2338	I, II, IV	70	1637
URDAZUBI	565	I	90	509
URDIAIN	757	I	90	682
URROTZ	330	I	90	297

Eranskinak

Udalerria	Biztanleak 1935	Irigarayren sailkapena	% euskaldun 1935	Euskaldunak 1935
URZAINKI	274	VII	4	11
UZTARROZE	604	III	50	302
XULAPAIN	746	II, V, VI	13	102
ZIORDIA	496	II, VI	40	199
ZUBIETA	575	I	90	518
ZUGARRAMURDI	519	I	90	468
	<hr/>		<hr/>	<hr/>
Guztira	77199		% 69	53483

## 3. taula. 1863ko eta 1935eko egoeren arteko alderaketa udalerrrika

Udalerrria	Bizt. 1863	Eusk. 1863	% eusk. 1863	Bizt. 1935	Eusk. 1935	% eusk. 1935	Eusk. aldea (1935-1863)
ABAURREGAINA	448	404	90	343	309	90	-95
ABAURREPEA	245	221	90	137	124	90	-97
ADIOTZ	366	54	14	301	0	0	-54
AGOITZ	1137	445	39	1512	0	0	-445
ALTSASU	1436	1293	90	3335	1668	50	375
AÑORBE	761	88	11	695	0	0	-88
ANTSOAIN	1336	655	49	2791	0	0	-655
ANUE	1160	1044	90	981	687	70	-357
ARAITZ	2031	1828	90	1317	1186	90	-642
ARAKIL	2377	2140	90	2113	360	17	-1780
ARAKIL-UHARTE	950	855	90	744	670	90	-185
ARANGUREN	1046	362	34	929	0	0	-362
ARANO	456	411	90	411	370	90	-41
ARANTZA	1172	1055	90	1091	982	90	-73
ARBIZU	783	705	90	836	753	90	48
ARESO	582	524	90	443	399	90	-125
ARIA	230	207	90	160	144	90	-63
ARIBE	126	114	90	168	31	18	-83
ARRUAZU	323	291	90	316	253	80	-38
ARTAZU	443	62	13	322	0	0	-62
ARTZIBAR	1627	1191	73	1122	262	23	-929
ATARRABIA	624	254	40	1798	0	0	-254
ATETZ	729	657	90	578	289	50	-368
AURITZ	353	318	90	432	173	40	-145
BAKAIKU	477	430	90	406	366	90	-64
BARASOAIN	682	74	10	646	0	0	-74
BASABURUA	1666	1500	90	1597	1438	90	-62
BAZTAN	10260	9234	90	10499	9450	90	216
BELASKOAIN	323	122	37	217	0	0	-122
BERA	1966	1770	90	2527	1769	70	-1
BETELU	624	562	90	466	420	90	-142
BIDANKOZE	347	313	90	297	12	4	-301
BIDAURRETA	308	123	39	191	0	0	-123
BIURRUN-OLKOTZ	679	84	12	542	0	0	-84
BURGI	671	87	12	653	0	0	-87
DONAMARIA	733	660	90	629	567	90	-93
DONEZTEBE	652	587	90	830	747	90	160

## Eranskinak

Udalerria	Bizt. 1863	Eusk. 1863	% eusk. 1863	Bizt. 1935	Eusk. 1935	% eusk. 1935	Eusk. aldea (1935-1863)
EGUESIBAR	1647	639	38	2045	0	0	-639
EIAURRIETA	519	468	90	479	432	90	-36
ELGORRIAGA	264	238	90	181	163	90	-75
ELORTZIBAR	1267	158	12	1409	0	0	-158
ENERITZ	421	36	8	337	0	0	-36
ERATSUN	576	519	90	442	398	90	-121
ERGOIENA	1273	1146	90	1098	989	90	-157
ERROIBAR	2411	2170	90	2126	1181	55	-989
ERRONKARI	498	449	90	685	28	4	-421
ESPARTZA	348	314	90	271	244	90	-70
ESTERIBAR	2177	1828	83	2261	1121	49	-707
ETXALAR	1720	1548	90	1351	1216	90	-332
ETXARRI	260	91	35	106	0	0	-91
ETXARRI-ARANATZ	1226	1104	90	1521	1369	90	265
ETXAURI	655	234	35	466	0	0	-234
EZKABARTE	1125	676	60	1092	9	0	-667
EZKAROZE	456	411	90	455	137	30	-274
EZKURRA	641	577	90	503	453	90	-124
GALAR	1663	610	36	1503	0	0	-610
GALOZE	424	178	41	355	0	0	-178
GARAIOA	388	350	90	287	115	40	-235
GARDE	463	348	75	409	0	0	-348
GARES	3015	478	15	1955	0	0	-478
GARINOAIN	391	59	15	387	0	0	-59
GARRALDA	527	475	90	410	287	70	-188
GESALATZ	2816	945	33	1931	0	0	-945
GIRGILLANO	820	174	21	455	0	0	-174
GOIZUETA	1284	1156	90	1270	1143	90	-13
GOÑERRI	989	742	75	661	0	0	-742
GORZA	249	225	90	262	29	11	-196
HIRIBERRI	535	482	90	372	335	90	-147
IBARGOITI	922	114	12	622	0	0	-114
IGANTZI	706	636	90	628	566	90	-70
IMOTZ	1178	1061	90	1037	934	90	-127
IRAÑETA	395	356	90	360	324	90	-32
ITUREN	692	623	90	534	481	90	-142
ITURMENDI	479	432	90	435	392	90	-40

Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa

Udalerrria	Bizt. 1863	Eusk. 1863	% eusk. 1863	Bizt. 1935	Eusk. 1935	% eusk. 1935	Eusk. aldea (1935-1863)
ITZA	1423	1152	80	1235	145	11	-1007
ITZAGAONDOA	1074	166	15	772	0	0	-166
ITZALTZU	172	155	90	177	54	30	-101
IZABA	973	876	90	860	155	18	-721
JAITZ	609	457	75	343	0	0	-457
LABAIEN	808	728	90	623	561	90	-167
LAKUNTZA	827	745	90	690	621	90	-124
LANTZ	372	335	90	293	206	70	-129
LARRAUN	3732	3359	90	3195	2876	90	-483
LEGARDA	394	60	15	282	0	0	-60
LEITZA	1679	1512	90	1560	1404	90	-108
LEOTZ	1303	47	3	811	0	0	-47
LESAKA	2328	2096	90	2896	2607	90	511
LIZOAINBAR	1111	610	54	798	12	1	-598
LONGIDA	1386	200	14	1057	0	0	-200
LUZAIDE	996	897	90	960	864	90	-33
MURUZABAL	467	59	12	301	0	0	-59
NABASKOZE	1022	7	0	851	0	0	-7
OBANOS	1361	176	12	957	0	0	-176
ODIETA	867	781	90	627	203	32	-578
OITZ	190	171	90	214	193	90	22
OLAIBAR	343	309	90	252	19	7	-290
OLAZTI	784	706	90	1653	827	50	121
OLORITZ	715	61	8	443	0	0	-61
OLTZA	2078	1559	75	1894	0	0	-1559
OLLARAN	1071	804	75	900	0	0	-804
ORBAIZTA	769	693	90	577	231	40	-462
ORBARA	289	261	90	148	134	90	-127
ORISOAIN	266	45	16	189	0	0	-45
ORONTZE	125	113	90	116	82	70	-31
OROTZ-BETELU	623	561	90	558	224	40	-337
ORREAGA	104	94	90	149	60	40	-34
OTSAGI	1225	1103	90	1112	334	30	-769
SALDIAS	431	388	90	285	257	90	-131
SARTZE	204	184	90	172	7	4	-177
SUNBILLA	1160	1044	90	1007	907	90	-137



## Eranskinak

Udalerrria	Bizt. 1863	Eusk. 1863	% eusk. 1863	Bizt. 1935	Eusk. 1935	% eusk. 1935	Eusk. aldea (1935-1863)
TIEBAS-MURU							
ARTEDERRETA	296	119	40	334	0	0	-119
TIRAPU	233	28	12	169	0	0	-28
UHARTE	717	288	40	951	0	0	-288
UKAR	425	65	15	253	0	0	-65
ULTZAMA	2650	2385	90	2338	1637	70	-748
UNTZITI	797	127	15	618	0	0	-127
UNTZUE	465	58	12	292	0	0	-58
URDAZUBI	643	579	90	565	509	90	-70
URDIAN	822	740	90	757	682	90	-58
URRAUL GOITI	1017	74	7	687	0	0	-74
URROTZ	418	377	90	330	297	90	-80
URROTZ (Hiria)	706	269	38	624	0	0	-269
URZAINKI	285	257	90	274	11	4	-246
UTERGA	551	91	16	283	0	0	-91
UZTARROZE	638	575	90	604	302	50	-273
XULAPAIN	761	685	90	746	102	13	-583
ZABALTZA	572	320	55	392	0	0	-320
ZIORDIA	532	479	90	496	199	40	-280
ZIRITZA	195	99	50	114	0	0	-99
ZIZUR	1845	646	35	2038	0	0	-646
ZUBIETA	604	544	90	575	518	90	-26
ZUGARRAMURDI	585	527	90	519	468	90	-59
	_____	_____		_____	_____		_____
Guztira	124587	84620	% 68	115992	53483	% 46	-31137



## Gares. Nesken eskola.

Noiz	Izena emandakoak	Jaioterria	Nondik zetozen	Hautatua	Oharrak
1840	T. Aranegui E. Zugarrondo Maria Horrillo F. Estanga Gregoria Martin Blasa Yoldi	Gares Iruñea Mañeru — — Añorbe	Gares Alesbes Añorbe Arakil-Uharte Iruñea Añorbe	T. Aranegui	
1841	Manuela Ibañez Blasa Yoldi Mercedes Perez Maria Horrillo Brigida Sanchez Ramona Merino	Iruñea Añorbe Tutera Mañeru — Iruñea	Citruenigo Iruñea Zirauki Añorbe Artaxona Oteitza	M. Ibañez	
1857	Candida Beunza B. Palacios J. Isturiz	— — —	— — —	C. Beunza	
1862	Dionisia Gelos Petra Gascue Cristeta Leturia Sandalia Ochoa	Gares Gares Falces Iruñea	Berastegi (G) Izaba Pitillas Iruñea	Dionisia Gelos	
1862	Luisa Senosiain Sandalia Ochoa Gabriela Muro	— Iruñea —	— Iruñea —	L. Senosiain	
1866	M. Ilarregui Petra Gascue R. Echeverria M. Llorente	Iruñea Gares — Valladolid	Berriatua (B) Izaba Muneta Murchante	M. Ilarregui	
1869	B. Alegria Isidora Ayerra P. Monente M. Madariaga Ulpiana Diaz	Iruñea — — Iruñea —	Iruñea — — Tafalla Funes	B. Alegria	

(3) *Irurtzun (Irurtzun, Etxeberri eta Aizkorbe batera)*. Mutikoen eskola.

Noiz	Izena emandakoak	Jaioterria	Nondik zetozen	Hautatua	Oharrak
1840	T. Aranegui	Gares	Gares	T. Aranegui	
—	Antonio Arce	—	—	Antonio Arce	
1850	Juan J. Aldaz	—	Arruatzu	Juan J. Aldaz	
	Andres Lander	Zaragoza	Iruñea		
	Fermin Campos	Illarregi	Gulia		
	Domingo Muniain	—	Urantzia		
	F. Oyanburu	Lakar	Corella		
1851	Jose F. Andueza	—	Egillor	J. F. Andueza	
	Pedro J. Andueza	Altsasu	Oderitz		
	Martin Ilarregui	Muskitz	Iltzarbe		
	Miguel Equiza	Eriete	Rocafort		
	Antonio Juquera	Falces	Idozin		
1860	Juan M. Astiz	Atondo	Ihaben	Juan M. Astiz	
	Gregorio Inchusta	Gorza	Zolina		
	Basilio Barrena	Artzkotz	Muniain		

(4) *Leitza*. Mutikoen eskola.

Noiz	Izena emandakoak	Jaioterria	Nondik zetozen	Hautatua	Oharrak
1841	Antonio Tirapu	Espartza	—	Antonio Tirapu	

*Leitza*. Nesken eskola.

Noiz	Izena emandakoak	Jaioterria	Nondik zetozen	Hautatua	Oharrak
1838	Josefa Erburu	Eguarats	—	Josefa Erburu	1843an kargugabetua
—	J. Apestegui	—	—	J. Apestegui	1872.ean Ziraukira aldatu zen
1872	Fermina Garcia	—	—	F. Garcia	1872an Konstituzioaren zina egin zuen
	Estefania Osinaga	—	—		
	Leonarda Romero	—	—		
	Claudia Yerro	Lerin	—		

(5) *Otsagi*. Mutikoen eskola.

Noiz	Izena emandakoak	Jaioterria	Nondik zetozen	Hautatua	Oharrak
—	Juan M. Marco	Otsagi	Otsagi	J. M. Marco	Bonaparteren laguntzailea
1842	F. Archanco	—	—	F. Archanco	
1855	Jose Mendia	—	Beuntza	Jose Mendia	
1860	Pedro Almandoz	—	Miranda de Arga	P. Almandoz	
	F. Armisen	—	Zaragoza		
	Manuel Aguirre	—	Alberite (Err.)		

*Otsagi*. Nesken eskola.

Noiz	Izena emandakoak	Jaioterria	Nondik zetozen	Hautatua	Oharrak
—	Nicasia Pascual	—	—	Nicasia Pascual	
1834	Victoria Juanco	Otsagi	Otsagi	Victoria Juanco	Juan M. Juancoren alaba
1856	Gregoria Andres	Otsagi	Otsagi	Gregoria Andres	
1856	Benigna Palacios	Eneritz	Andosilla	Benigna Palacios	
	Aniceta Irisarri	—	Erronkari		
	M. Echeberria	—	Iruñea		
	Luisa Echevoyen	Iruñea	Iruñea		
1860	Placida Madariaga	—	Iruñea	Placida Madariaga	B. Palacios Cascantera aldatu zen
	Cristeta Leturia	Falces	Pitillas		P. Madariaga aldatu zen
1860	Rufina Irisarri	—	Elizondo	Rufina Irisarri	
	J. Apesteguia	—	Zirauki		
	Juana Buldain	—	Ororbia		
1861	C. Guendulain	—	Iruñea	C. Guendulain	
	Sandalia Ochoa	Iruñea	Iruñea		
	Teresa Gorria	—	Arronitz		
1862	Gabriela Muro	—	—	Gabriela Muro	
	Sebastiana Berro	—	—		
	Petra Gascue	Gares	—		
1862	Josefa Argonz	—	Otsagi	Josefa Argonz	G. Muro Ablitsera aldatu zen
	Telesfora Ripero	—	—		
	Sandalia Ochoa	Iruñea	—		
1871	Angela Sola	—	—	Angela Sola	Josefa Argonzek ez zuen 1870ean Konstituzioaren zina egin nahi izan
	Juana Roldan	—	—		
	Pascasia Monente	—	—		

## BIBLIOGRAFIA

- ABAD, M. (1994). *El cambio de lengua en Orihuela. Estudio sociolingüístico-histórico del siglo XVII*. Murtzia: Universidad de Murcia-Caja Rural Central de Orihuela.
- AGIRREAZKUENAGA, J. (1993). Europan galtzear ikusten zen orduan Euskal Herria (A. Ugaldek egindako elkarrizketa). *Egunkaria*, 1993-11-18.
- (1995). Euskal Abertzaletasunaren sorrera. *Egunkaria*, 1995-07-30.
- AIKIO, M. (1992). Are women innovators in the shift to a second language? A case study of Reindeer Sámi women and men. *IJSL* 94, 43-61.
- AIZPURUA, X. (1995). *Euskararen Jarraipena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ALEGRIA, B. (1928). *Aña Mari*. Iruñea: Euskeraren Adiskideak.
- (1932). *Gure Ama. Estudio Euskerico*. Iruñea: Patronato de la Biblioteca Olave.
- ALEJANDRIA, P. (1863). *El pamplonés. Guía de la ciudad y manual de curiosidad*. Iruñea: Imprenta de Sisto Diaz de Espada.
- ALTADILL, J. (d.g.). *Geografía general del País Vasco-Navarro. Provincia de Navarra* (2 liburuki) (Francisco Carreras y Candí, zuz.). Bartzelona: Editorial Martín.
- ALVAR, M. (1984). La lengua y la creación de las nacionalidades modernas. *Revista de Filología Española* LXIV, 205-38.
- ALVAREZ ENPARANTZA, J.L. (1977). Estudio crítico de algunas lenguas minoritarias. In *Euskaltzaindia*, 547-614.
- (1992). Hizkuntz berreskurapena Fishmanen arabera. *Bat* 6, 115-22.
- (1993). Aintzin solasa. *Bat* 10, 7-8.
- (1996). *Lingua navarrorum*. Donostia: Orain.
- ALZOLA, N. (1958a). El traductor del «Benedicite» al vascuence de Bera, para el príncipe Bonaparte. *BAP* XIV, 465-7.
- (1958b). Una carta de D. Pedro José Samper, Vicario de Jaurrieta, dirigida al Príncipe Luis Luciano Bonaparte. *Príncipe de Viana* XIX, 165-6.
- (1963). Echenique. *BAP* XIX, 282-4.
- (1965). Pedro Prudencio de Hualde Mayo. *BAP* XXI, 91-2.
- (1967a). Elizondoko Damaso Etxeberria. *Egan* XXVI, 106-7.
- (1967b). Los «Erreguzko kantatxoak» a San Francisco Javier, de Dámaso de Echeverría. *BAP* XXIII, 241-2.
- (1968a). Dámaso de Echeverría, de Elizondo. *BAP* XXIV, 252-3.
- (1968b). Sobre la carta de Samper a Bonaparte. *BAP* XXIV, 102.
- (1981). Euskal bibliografía (Aita Polikarpo Iraizozkoa). *Euskera* XXVI-1, 497-506.
- AMMON, U., DITTMAR, N. eta MATTHEIR, K.J. (arg.) (1988). *Sociolinguistics. Soziolinguistik* (bi liburuki). Berlin-New York: Walter de Gruyter.
- ANDRES GALLEGO, J. (1982). *Historia contemporánea de Navarra*. Iruñea: Ediciones y Libros.
- ANTOÑANA, M. (1991). P.F. Irigaray «Larreko»-ren obraren azterketa estilistikoa. *FLV* XXIII, 58, 207-26.

## Bibliografia

- (1994). Fermin Irigarai «Larreko»: Euskararen maitale. *FLVXXVI*, 66, 337-47.
- APALATEGI, M.J. (1990). Pedagogia - Soziolinguistika - Haur hezkuntza. *Huarte de San Juan* 2, 87-97.
- (1994). Eskola erakuntza eta hololinguistika. Doktorego tesi argitaragabea, EHU. Filosofi eta Hezkuntz Zientzien Fakultatea, Donostia.
- (1995). Eskola erakuntza eta euskal irakaskuntza bidegurutzean. In *XII Congreso de Estudios Vascos: Estudios Vascos en el Sistema Educativo = Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 661-8.
- APAT-ECHEBARNE, A.: ikus IRIGARAY, A.
- ARACIL, L.V. (1982). *Papers de sociolingüística*. Bartzelona: La Magrana.
- (1986). «Lengua nacional»: ¿una crisis sin crítica?. In Ruiz Olabuenaga eta Ozamiz (arg.), 443-58.
- (1987). Euskal Herria eta Soziolinguistika: bi zalantza eta apostu bat. *Jakin* 42/43, 143-57.
- (1992). Història de les llengües d'Europa. *Noves SL* 16, 5.
- ARACIL, L.V. eta LARRAÑAGA, I. (1984). *Euskara gizarte bizitzan ("Tolosan Euskaraz" Ihardunaldiak)*. Tolosa: Tolosako Udala.
- ARANA GOIRI, S. (1980). *Obras completas* (hiru liburuki). Donostia: Sendoa.
- ARANA MARTIJA, J.A. (1991). Bibliografía bonapartiana. *Euskera XXXVI-1*, 127-297.
- (1992). Bonaparte, Europako dialektologia eta euskalkiak. In *Euskaltzaindia, Iker-7*, 3-15.
- (1994). Bruno Etxenike, Bonaparteren itzultzaile eta bidelagun Nafarroan zehar. *Euskera XXXIX-2*, 435-40.
- ARANZADI, T. (1919). Etnografía. In *Primer Congreso de Estudios Vascos*, 364-82. Bilbo: Bilbaina de Artes Gráficas.
- ARRAIZA, E. (1993). El mito del euskera (II). *Aldizkaria* 3, 9-11.
- ARRAIZA, J. (1991). Martín de Osambela. Un navarro en el comercio de Lima (1751-825). *Príncipe de Viana LIII*. Anejo 13. *Segundo Congreso General de Historia de Navarra*, 2. Comunicaciones, 271-81.
- ARRIGARAI, B.: ikus CAPARROSO, C.
- ARTOLA, K. (1993). Euskaldun galduaren bila (A. Barandiaranek egindako elkarrizketa). *Nafarkaria. Egunkaria*-ren Nafarroako gehigarria, 1993-09-03.
- ARTOLA, M. (1973). *La burguesía revolucionaria (1808-1869)*. Madril: Alfaguara-Alianza Editorial.
- ASHER, R.E. eta SIMPSON, J.M.Y. (arg.) (1994). *The Encyclopedia of Language and Linguistics* (10 liburuki). Oxford-New York-Seul-Tokio: Pergamon Press.
- ASKOREN ARTEAN (1966 [1960]). *Geografía histórica de la lengua vasca (Siglos XVI al XIX)*. Donostia: Auñamendi.
- (1976). *El marxismo y la cuestión nacional*. Bartzelona: Avance.
- (1977). *Iruñerria. La cuenca de Pamplona*. Iruñea: Caja de Ahorros Municipal de Pamplona.
- (1981). *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak.
- (1985). *Aingeru Irigarayri omenaldia*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de sección. Hizkuntza eta Literatura.
- ATXAGA, M. (1996). *EAJ eta euskara (Ehun urteko bide malkartsua)*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- AUSTIN, J.L. (1990 [1962]). *Cómo hacer cosas con palabras*. Bartzelona: Paidós.

- AZAOLA, J.M. (1976). *Vasconia y su destino II. Los vascos ayer y hoy I*. Madril: Revista de Occidente.
- AZKUE, R.M. (1896). *Método práctico para aprender el euskera bizkaitno y gipuzkoano*. Bilbo: José de Astuy.
- (1927). Aezkera edo Petiriberro-inguruetakoa mintzaera. *Euskera* VIII, 179-300.
- (1931). Particularidades del dialecto roncalés. *Euskera* XII, 207-406.
- AZURMENDI, J. (1976). *Zer dugu Orixeren kontra?* Arantzazu: Jakin.
- (1977). *Zer dugu Orixeren alde?* Arantzazu: Jakin.
- (1979). *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa*. Donostia: Hordago.
- (1987). Diskurtso berria mintzaira zaharraren baitatik. *Jakin* 42/43, 119-41.
- (1992a). Esencia y esencialismo: análisis de un concepto. Notas para una relectura de Herder. In Palacios (arg.), 163-220.
- (1992b). *Espainolak eta euskaldunak*. Donostia: Elkar.
- AZURMENDI, M.J. (1982). Soziolinguistika. In UZEI. *Hizkuntzalaritza/1 Hiztegia*. Donostia: Elkar, 383-92.
- (1987). *Psicosociolingüística. Fundamentación histórica*. Donostia: Publicación Nº 3 del Departamento de Psicología Social y Metodología de la Universidad del País Vasco/EHU.
- BADIE, B. (1992). Análisis comparado y sociología histórica. *Revista Internacional de Ciencias Sociales* 133. *La sociología histórica. Debate sobre sus métodos*, 341-50.
- BARANDIARAN, J.M. (1972). *Diccionario ilustrado de mitología vasca, Obras completas I*. Bilbo: LGEV.
- BEC, P. (1986 [1963]). *La langue occitane*. Paris: Presses Universitaires de France.
- BEDARIDA, F. (1989). Las ciudades. Población y explosión urbana. In Briggs (zuz.), 146-83.
- BELASKO, M. (1994). Aproximación a la toponimia de la Ribera. *Merindad de Tudela* 6, 59-78.
- (1996). [Nafarroako euskal eta erdal toponimia txikiaren banaketaren mapa]. Argitaratu gabea. Egileak emana.
- BELTRAN, M. (1991). *Sociedad y lenguaje. Una lectura sociológica de Saussure y Chomsky*. Madril: Fundación Banco Exterior.
- BERLIN, I. (1995 [1965]). Herder y la Ilustración. In *Antología de ensayos* (J. Abellán, ed.), 185-296. Madril: Espasa Calpe.
- BERRIOCHOA, H.V. de: ikus ALZOLA, N.
- BERTAUX, D. (1989). Los relatos de vida en el análisis social. *Historia y fuente oral* 1, 87-96.
- BLOOMFIELD, L. (1973 [1933]). *Language*. Londres-Aylesbury: Unwin University Books.
- BONAPARTE, L.L. (1863). *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euskara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*. Londres: Stanford's Geographical Establishment.
- (1869). *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara: le guipuscoan, le biscain, le haut-navarrais septentrional, le haut-navarrais méridional, le labourdin, le bas-navarrais occidental, le bas-navarrais oriental et le souletin; avec les différences de leurs sous-dialectes et de leurs variétés*. Londres.
- (1872). *Études sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribé, à Jaurrieta et à Vidangoz*. Londres.
- (1876). *Remarques sur plusieurs assertions de M. Abel Hovelacque concernant la langue basque, accompagnées d'observations grammaticales et bibliographiques*.



## Bibliografía

- (Extrait de la *Revue de Philologie et d'Ethnographie*. Publiée par Ch. E. de Ujfalvy. Tome deuxième, No. 3. Paris, 1876), Londres.
- (1877). *Remarques sur certaines notes, certaines observations et certaines corrections, dont M. J. Vinson a accompagné l'Essai sur la langue basque par F. Ribáry* (Extrait des "Actes de la Société Philologique". Tome VII, N° 2. Paris, 1877), Londres.
- BOTTI, A. (1992). *Cielo y dinero. El nacionalcatolicismo en España (1881-1975)*. Madril: Alianza.
- BOURDIEU, P. (1972). *Esquisse d'une théorie de la pratique, précédé de trois études d'ethnologie kabyle*. Geneva-Paris: Librairie Droz.
- (1985 [1982]). *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madril: Akal.
- eta PASSERON, J.C. (1970). *La reproduction. Éléments pour une théorie du système d'enseignement*. Paris: Les Éditions de Minuit.
- BOURHIS, R.Y., GAGNON, A. eta MOISE, L.C. (1996 [1994]). Discriminación y relaciones intergrupales. In Bourhis eta Leyens (arg.), 139-69.
- BOURHIS, R.Y. eta LEYENS, J.P. (arg.) (1996 [1994]). *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos*. Madril: McGraw-Hill/Interamericana de España S.A.
- BREUILLY, J. (1990 [1985]). *Nacionalismo y estado*. Bartzelona: pomares-corredor.
- BRIGGS, A. (1989). Perfil del siglo. El hombre en la encrucijada de la historia. In Briggs (zuz.), 11-56.
- BRIGGS, A. (zuz.) (1989). *Historia de las civilizaciones: 10. El siglo XIX*. Madril: Alianza/Labor.
- BRUNOT, F. (1967-9 (1905-37)). *Histoire de la langue française des origines à nos jours* (13 liburuki). Paris: Armand Colin.
- BUNGE, M. (1995 [1993]). Realismo y antirrealismo en las Ciencias Sociales. *Mientras Tanto* 61, 21-47.
- BURKE, P. (1987 [1980]). *Sociología e historia*. Madril: Alianza.
- (1988 [1987]). Introduction. In Burke eta Porter (arg.), 1-20.
- (1996 [1993]). *Hablar y callar. Funciones sociales del lenguaje a través de la historia*. Bartzelona: Gedisa.
- eta PORTER, R. (arg.) (1988 [1987]). *The Social History of Language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- CALAME-GRIAULE, G. (1982 [1965]). *Etnología y lenguaje. La palabra del pueblo Dogon*. Madril: Editora Nacional.
- CALVET, L.J. (1981a). *Les langues véhiculaires*. Paris: Presses Universitaires de France.
- (1981b (1974)). *Lingüística y colonialismo*. Madril: Júcar.
- (1987). *La guerre des langues et les politiques linguistiques*. Paris: Payot.
- (1993a). *La sociolinguistique*. Paris: Presses Universitaires de France.
- (1993b). *L'Europe et ses langues*. Paris: Plon.
- CAMINO, I. (1992). Sarrera. In P.F. Irigarai 1992a eta b, VII-XL.
- (1997). *Aezkoako Euskararen Azterketa Dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- CAMPANILE, E. (1995 [1993]). Antigüedades indoeuropeas. In Giacalone eta Ramat (arg.), 27-56.
- CAMPION, A. (1876). *Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra*. Madril: Gregorio Juste.
- (1877). El euskara. A mi querido amigo Juan Iturralde. *El Eco de Navarra*, 1877-06-02tik 8ra.
- (1879). Gramática euskara. Introducción. *Revista Euskara* II, 338-48, 371-80.

- (1881). Geografía lingüística del euskara. *Revista Euskara* IV, 242-50, 289-98.
- (1883). *Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua euskara*. Donostia: Hijos de R. Baroja.
- (1884). *Gramática Bascongada. Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Tolosa: Eusebio López.
- (1890). Apuntes necrológicos. D. Claudio de Otaegui. *Euskal-Erria* XXII, 82-9.
- (1907a). Defensa del nombre antiguo, castizo y legítimo de la lengua de los Baskos contra el soñado EUZKERA. *RIEVI*, 217-41.
- (1907b). Segunda defensa del nombre antiguo, castizo y legítimo de la lengua de los Baskos, contra el soñado EUZKERA. *RIEVI*, 673-98.
- (1907c). Sobre el nuevo bautizo del País Basko. *RIEVI*, 148-53.
- (1910). Un bautizo (“Uchin de Mendaur” ezizenaz). *RIEVI*, 324-6.
- (1911). El euskara en Sarasaitzu. *Euskal-Esnalea* I, 2-6, 17-24.
- (1912). Don Juan Iturralde y Suit. In *Obras de D. Juan Iturralde y Suit* I, V-CCIV. Iruñea: Imprenta y Librería de J. García.
- (1916). Discurso leído por don Arturo Campión en el batzar que la Sociedad «Euskal-Esnalea» celebró la mañana del día 2 de Abril, en el Teatro de los Campos Elíseos de Bilbao. *Euskal-Esnalea* VI, 96-105.
- (1918). El baskuenze en Galdiano. *Euskal-Esnalea* VIII, 45-7.
- (1934 [1899]). *Blancos y negros*. Donostia: Euskaltzaleak.
- (1971 [1880]). *Orreaga (Roncesvalles). Balada escrita en el dialecto guipuzcoano por Don Arturo Campión. Acompañada de versiones á los dialectos bizcaino, labortano y suletino y de diez y ocho variedades dialectales de la region bascongada de Navarra desde Olazagutía hasta Roncal*. Bilbo: LGEV (berrarg. faksim.).
- (1976 [1907]). *Discursos políticos y literarios*. Bilbo: LGEV (berrarg. faksim.).
- (1983). *Obras completas* (13 liburuki). Iruñea: Mintzoa.
- CANOVAS DEL CASTILLO, A. (1873). Introducción. In Rodríguez Ferrer, XI-LIX.
- (1944). *Cánovas del Castillo (antología)* (Luis García Arias, arg.). Madril: Ediciones Fe.
- CAPARROSO, C. (1919). *Euskal-Iraskapidea o sea Gramática del Euskera*. Totana: Tip. San Buenaventura.
- CARO BAROJA, J. (1971-2). *Etnografía histórica de Navarra* (3 liburuki). Iruñea: Aranzadi-Caja de Ahorros de Navarra.
- (1976 [1975]). *Los Pueblos de España* II. Madril: Istmo.
- (1978 [1949]). *Los vascos*. Madril: Istmo.
- (1980 [1973]). *Sobre la religión antigua y el calendario del pueblo vasco*. Donostia: Txertoa.
- (1985a [1969]). *La hora navarra del XVIII*. Iruñea: Comunidad Foral de Navarra.
- (1985b). *Los Vascones y sus vecinos*. Donostia: Txertoa.
- (1986 [1944]). *De la vida rural vasca (Vera de Bidasoa)*. Donostia: Txertoa.
- (1988). *Sobre el mundo ibérico-pirenaico*. Donostia: Txertoa.
- (1990 [1945]). *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Donostia: Txertoa.
- (1995 [1969]). Las bases históricas de una economía «tradicional». *Homenaje a Caro Baroja. Príncipe de Viana* LVI, 206, 837-56.
- CARRASCO, J. (1987). Temas y problemas de la Historia bajomedieval navarra. *Príncipe de Viana* XLVIII-anejo 6, *Primer Congreso General de Historia de Navarra*, 145-65.

## Bibliografía

- CASTELLS, L. (1987). *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración (1876-1915)*. Madril-Leioa: Siglo XXI-Euskal Herriko Unibertsitatea.
- CAZDEN, C.B. (1994). Socialization. In Asher eta Simpson (arg.), VII, 4.004-5.
- CERTEAU, M., JULIA, D. eta REVEL, J. (1986 [1975]). *Une politique de la langue. La Révolution française et les patois: l'enquête de Grégoire*. L.g.: Gallimard.
- CHABOT, J.L. (1986). *Le nationalisme*. Paris: Presses Universitaires de France.
- CHUECA, I. (1994). Nafarroatik Euskadira. 100 urte euskal nazionalismoaren historian barrena. *Gerónimo de Uztariz* 9/10, 133-148.
- CIERBIDE, R. (1983). Posicionamiento de Arturo Campión ante el tema lingüístico y la pérdida de los Fueros en el País Vasco en 1876. *FLVXXV*, 41/42, 5-15.
- (1986). El Romance Navarro Antiguo. In Cierbide (zuz.), 125-50.
- (1990). Plurilingüismo histórico en Euskal Herria. *FLVXXII*, 56, 149-64.
- (1991). Documentos inéditos occitano-navarros procedentes de las parroquias de San Pedro, San Miguel y San Juan de Estella (1254-1369). In Lakarra eta Ruiz Arzalluz (arg.), 41-65.
- (zuz.) (1986). *Lengua y literatura románica en torno al Pirineo*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostiako udako IV ikastaroak.
- COBARRUBIAS, J. (1986a). La glotopolítica y el euskara. In Ruiz Olabuenaga eta Ozamiz (arg.), 191-7.
- (1986b). Status de las lenguas minorizadas. In Ruiz Olabuenaga eta Ozamiz (arg.), 185-90.
- COHEN, M. (1973 [1947]). *Histoire d'une langue: le français (des lointaines origines à nos jours)*. Paris: Éditions Sociales.
- (1974 [1956]). *Manual para una sociología del lenguaje*. Madril: Fundamentos.
- COLECTIVO IOE (arg.) (1990). *Metodología cualitativa en la investigación social. El grupo de discusión*. Madril.
- COLLINS, R. (1989 [1985]). *Los vascos*. Madril: Alianza.
- COMITI, J.M. (1992). *Les corses face à leur langue. De la naissance de l'idiome à la reconnaissance de la langue*. Ajaccio: Edizione Squadra di u Finusellu.
- CORCUERA, J. (1979). *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*. Madril: Siglo XXI.
- Cuadernos de las leyes y agravios reparados por los tres estados del Reino de Navarra II* (1896). Iruñea: Excma. Diputación Foral y Provincial de Navarra.
- DARANATZ, J.B. (1928-31). Correspondence du Capitaine Duvoisin. *RIEV* XIX, 58-70, 425-33, 449-92; XX, 152-81; XXI, 70-97, 334-68; XXII, 44-73, 310-37.
- DE BLAS GUERRERO, A. (1994). *Nacionalismos y naciones en Europa*. Madril: Alianza.
- DE ESTEBAN, J. (1990 [1981]). *Las Constituciones de España*. Madril: Taurus.
- DE LA TORRE, J. (arg.) (1994). *Navarra siglo XIX*. Iruñea: Geronimo de Uztariz Institutua-Euskadiko Kutxa-Institución Príncipe de Viana.
- DEL BURGO, J.I. (1968). *Origen y fundamento del Régimen Foral de Navarra*. Iruñea: Diputación Foral de Navarra-Aranzadi.
- DEUTSCH, K.W. (1977 [1942]). The Trend of European Nationalism. The Language Aspect. In Fishman (arg.), 598-606.
- DHAOUADI, M. (1996). Un essai de théorisation sur le penchant vers l'accent parisien chez la femme tunisienne. *IJSL* 122, 107-25.
- DIRECCION GENERAL DE ESTADISTICA (d.g.). *Censo de la población de España según la inscripción de 31 de diciembre de 1940*. Madril: Barranco.

- DIRECCION GENERAL DEL INSTITUTO GEOGRAFICO Y ESTADISTICO (1891). *Censo de la población de España según el empadronamiento hecho en 31 de diciembre de 1887*. Madrid: Imprenta de la Dirección General del Instituto Geográfico y Estadístico.
- (1902). *Censo de la población de España según el empadronamiento hecho en la península é islas adyacentes el 31 de diciembre de 1900*. Madrid: Imprenta de la Dirección General del Instituto Geográfico y Estadístico.
- DRESSLER, W.U. (1996). Language Death. In Singh (arg.), 195-210.
- DUARTE, C. eta MASSIP, A. (1991 [1981]). *Síntesi d'història de la llengua catalana*. Bartzelona: Edicions de la Magrana.
- DUBY, G. (1980 [1978]). *Los tres órdenes o lo imaginario del feudalismo*. Bartzelona: Petrel.
- DUCROT, O. eta SCHAEFFER, J.M. (1995 [1972]). *Nouveau dictionnaire encyclopédique des sciences du langage*. L.g.: Éditions du Seuil.
- DUMEZIL, G. (1977 [1968]). *Mito y epopeya* I. Bartzelona: Seix Barral.
- (1981 [1973]). *Mythe et Épopée* III. Paris: Gallimard.
- (1982 [1971]). *Mythe et Épopée* II. Paris: Gallimard.
- ECHENIQUE, M.T. (1987 [1984]). *Historia lingüística vasco-románica*. Madrid: Paraninfo.
- EGIA, M.L. (1990). Emakumearen aldaketa psikosozialaren eta euskararen galeraren arteko interferentziak. *Jakin* 60, 115-35.
- ELGOIBAR, E., ZUBIZARRETA, B. eta GAMINDE, I. (1987). *Euskararen galera Nafarroan (1587-1984)*. Iruñea: Pamiela.
- ELIADE, M. (1981 [1949]). *Tratado de historia de las religiones. Morfología y dinámica de lo sagrado*. Madrid: Ediciones Cristiandad.
- (1982 [1951]). *El mito del eterno retorno*. Madrid-Buenos Aires: Alianza-Emecé.
- (1984 [1962]). *Mefistófeles y el andrógino*. Bartzelona: Labor.
- ELORDUI, A. (1996). Mailakako hizkuntz desagertzea: eragile soziologiko eta ezaugarri soziolinguistiko nagusiak. *Bat* 19, 11-35.
- ELORZA, A. (1978). *Ideologías del nacionalismo vasco*. Donostia: L. Haranburu.
- (1996). El discreto encanto de la burguesía. *El País*, 1996-04-04.
- ERASUN, J. (1881). Ortografía euskara. Carta de D. José Erasun. *Revista Euskara* IV, 216-9.
- ERIZE, X. (1992). Euskararen egoera soziolinguistikoa Nafarroa Garaian, Bonaparte printzearen lanetan. In *Euskaltzaindia*, Iker-7, 699-707.
- (1996). Euskararen aldeko lehen mugimenduak Iruñean: XIX. mendearen bigarren aldia. In *Iruña eta Euskara*. Askoren Artean, 69-80. Iruñea: Iruñeko Udala.
- ESTEBAN, A. eta FONQUERNE, Y.R. (arg.) (1986). *Los Pirineos. Estudios de antropología social e historia*. Madrid: Universidad Complutense.
- ESTORNES LASA, J. (1984). Mendigatxa'k Azkue'ri kartak, 1902-1916, eta Erronkari'ko uskaratik utzulpen ta goarpenak. *FLVXVI*, 55-128.
- ESTORNES ZUBIZARRETA, I. (1990). *La construcción de una nacionalidad vasca. El Autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- ETXEBARRIA, J.M. (1992). 1913ko Vienako euskal grabaketak, III. Erronkariera. In *Euskaltzaindia*, Iker-6, 161-76.
- ETXEGARAI, B. (1934). Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco. *Yakintza* 7, 33-42; 8, 104-11, 194-202.
- ETXEGOIEN, J.C. (1994). Paper zahar gehiago. *Nafarkaria. Egunkaria*-ren Nafarroako gehigarria, 1994-06-24.
- EUSKALTZAINDIA (1977). *El libro blanco del euskara*. Bilbo.

## Bibliografía

- (1979). *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (SIADECO egindako txostena). Bilbo.
- (1992a). *Luis Villasanteri omenaldia*. Bilbo: Iker-6.
- (1992b). *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*. Bilbo: Iker-7.
- EUSKALTZAINDIA-NAFARROAKO GOBERNUA (1990). *Nafarroako herri izendegia-Noménclator euskérico de población de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA eta EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA (1997). *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta. 1996. Euskararen Jarraipena II*. Gasteiz.
- FAGOAGA, B. (1962). Datos para la geografía histórica del euskera en Navarra. *Euskera* VII, 205-13.
- FAIRCLOUGH, N. (1989). *Language and Power*. London-New York: Longman.
- FASOLD, R. (1992 [1984]). *The Sociolinguistics of Society*. Oxford (EB)-Cambridge (AEB): Blackwell.
- (1993 [1990]). *Sociolinguistics of Language*. Oxford (EB)-Cambridge (EEBB): Blackwell.
- FERGUSON, C.A. (1990 [1959]). Diglossia. In Giglioli (arg.), 232-51.
- FERNANDEZ, S. (1990). La ideología Social y Política de Raimundo García «Garcilaso» (1903-1929). *Príncipe de Viana* LI, 189, 211-61.
- FERRER, M. (1992). *Elecciones y Partidos Políticos en Navarra durante la segunda República*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- FERRO, M. (1990 [1981]). *Cómo se cuenta la historia a los niños en el mundo entero*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- FISHMAN, J. (1964). Language Maintenance and Language Shift as a Field of Inquiry. *Linguistics* 9, 32-70.
- (1986). *Introduction to sociolinguistics, I: The sociolinguistics of society*. By RALPH FASOLD. (Language in society, 5). Oxford & New York: Blackwell, 1984. Pp. xiii, 335 (liburuaren erreseina). *Language* 62:1, 188-9.
- (1988a). Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika. *Jakin* 48, 5-21.
- (1988b [1972]). *Sociología del lenguaje*. Madril: Cátedra.
- (1989). *Language and Ethnicity in Minority Sociolinguistic Perspective*. Clevedon-Filadelfia: Multilingual Matters.
- (1990 [1969]). The Sociology of Language. In Giglioli (arg.), 45-58.
- (1991). *Reversing Language Shift*. Clevedon-Filadelfia-Adelaide: Multilingual Matters.
- (1994). Critiques of Language Planning: a Minority Languages Perspective. *JMMD* 15:2-3, 91-9.
- (1996 [1995]). Einar Haugen. *Bat* 18, 57-64.
- (arg.) (1977 [1968]). *Readings in the Sociology of Language*. Haga: Mouton.
- et al. (1985). *The Rise and Fall of the Ethnic Revival: Perspectives on Language and Ethnicity*. Berlin-New York-Amsterdam: Mouton.
- FLORISTAN, A. (1994). *Historia de Navarra III. Pervivencia y renacimiento (1521-1808)*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- FLORISTAN, A. eta MARTIN DUQUE, A. (1977). *Atlas de Navarra*. Bartzelona-Iruñea: Diáfora-Caja de Ahorros de Navarra.
- FORD, R. (1845). *A Hand-Book for Travellers in Spain and Readers at Home*. Londres: John Murray.

- GAL, S. (1978). Variation and Change in Patterns of Speaking: Language Shift in Austria. In *Linguistic Variation. Models and Methods*. D. Sankoff (arg.), 227-38. New York-San Francisco-Londres: Academic Press.
- (1979). *Language Shift. Social Determinants of Linguistic Change in Bilingual Austria*. New York-San Francisco-Londres: Academic Press.
- (1984 [1978]). Peasant Men Can't Get Wives: Language Change and Sex Roles in a Bilingual Community. In *Language in Use. Readings in Sociolinguistics*. J. Baugh eta J. Sherzer (arg.), 292-304. New Jersey: Prentice-Hall.
- GARATE, J. (1976). El Anillo Escolar en la Proscripción del Euskera. *FLV* VIII, 24, 367-87.
- GARCIA DE CORTAZAR, F. eta LORENZO ESPINOSA, J.M. (1994). *Historia del País Vasco*. Donostia: Txertoa.
- GARCIA MOUTON, P. (1992). El atlas lingüístico y etnográfico de Andalucía. Hombres y mujeres. Campo y ciudad. In *Euskaltzaindia*, Iker-7, 667-85.
- GARCIA NEGRO, M.P. eta BAS, B. (1986). Kultura galegoa. *Jakin* 39, 37-54.
- GARCIA SANZ, A. (1990). *Las elecciones municipales de Pamplona en la Restauración (1891-1923)*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- (1992). *Caciques y políticos forales. Las elecciones a la Diputación de Navarra (1877-1923)*. Iruñea: egilearen argitalpena.
- (1994). *Intransigencia, exaltación y populismo*. Donostia: Txertoa.
- (1995). Un testimonio sobre el límite meridional y la situación de la lengua vasca en la mitad occidental de Navarra en 1878. *Huarte de San Juan* I. *Hizkuntzalaritza eta literatura*, 207-12.
- (1996). *Diccionario Biográfico de los Diputados Forales de Navarra (1840-1931)*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- GARMENDIA, P. (1933). La colección de manuscritos del Príncipe Luis Luciano Bonaparte en la Diputación de Guipúzcoa. *RIEV* XXIV, 138-49.
- GARMENDIA, V. (1976). *La Segunda Guerra Carlista (1872-1876)*. Madril: Siglo XXI.
- (1985). *La ideología carlista (1868-1876). En los orígenes del nacionalismo vasco*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, J. (1984). *Carnaval en Navarra*. Donostia: Haranburu.
- GARZIA, P. (1993). Euskara: nazionalismoaren ahulezia historikoa? *Larrun* 16, 31-41.
- Gaurko literatura (mahai ingurua) (1991). *Hegats* 4, 257-66.
- GELLNER, E. (1988 [1983]). *Naciones y nacionalismo*. Madril: Alianza.
- GIACALONE, A. eta RAMAT, P. (arg.) (1995 [1993]). *Las lenguas indoeuropeas*. Madril: Cátedra.
- GIDDENS, A. (1993 [1989]). *Sociología*. Madril: Alianza Universidad.
- GIGLIOLI, P.P. (1990 [1972]). Introduction. In Giglioli (arg.), 7-17.
- (arg.) (1990 [1972]). *Language and Social Context*. Londres: Penguin Books.
- GILES, H., COUPLAND, J. eta COUPLAND, N. (arg.) (1991). *Contexts of Accommodation. Developments in applied sociolinguistics*. Cambridge-New York-Melbourne-Paris: Cambridge University Press-Editions de la Maison des Sciences de l'Homme.
- GILES, H. eta JOHNSON, P. (1987). Ethnolinguistic identity theory: a social psychological approach to language maintenance. *IJSL* 68, 69-99.
- GIMENO, F. (1995). *Sociolingüística histórica (siglos X-XII)*. Madril: Visor-Universidad de Alicante.
- GOBIERNO DE NAVARRA: ikus Nafarroako Gobernua.
- GOIHENETXE, M. (1989). Frantziako Iraultza eta Euskal Herria. *Jakin* 51, 55-67.

## Bibliografia

- GOMEZ, R. (1989). Bonaparte Printzearen inguruko hizkuntz eztabaidak. *ASJU* XXIII-2, 355-92.
- GONZALEZ ECHEGARAY, C. eta ARANA MARTIJA, J.A. (1989). *L.L. Bonaparte. Eskuizkribuak-Argitarapenak. Manuscritos-Publicaciones*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- GONZALEZ OLLE, F. (1972 [1970]). *Vascuence y romance en la Historia lingüística de Navarra*. Iruñea: Cofradía del Pimiento Seco.
- (1978). El establecimiento del castellano como lengua oficial. *Boletín de la Real Academia Española* 58, 229-80.
- (1989). *Introducción a la historia literaria de Navarra*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- GOÑI GALARRAGA, J.M. (1987). Eliza Euskal Herrian absolutismo antiliberalaren, liberalismo katolikoaren, nazionalismoaren eta sozial-demokraziaren garaian (1808-1936). In *Euskal Herriaren Historiaz III. Kultura eta portaera erlijiosoa Euskal Herrian historian zehar*. R. Lopez Atxurra (arg.), 143-80. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- GOROSTIDI, M. (1878). Leyendas vascongadas. *Revista Euskara* I, 177-84, 209-16.
- (1883). El enjuiciamiento criminal en sus relaciones con el catalán y el bascuence. *Euskal-Erria* VIII, 298-305.
- (1886). Importancia de las lenguas regionales. *Euskal-Erria* XIV, 135-41.
- (1902-3). El catecismo en las escuelas. *Euskal-Erria* XLVII, 593-7; XLVIII, 1-5, 33-7.
- Gran Enciclopedia de Navarra* (11 liburuki) (1990). Iruñea: Caja de Ahorros de Navarra.
- GRANJA PASCUAL, J.J. (1983). Proyección literaria de la primera obra de Arturo Campión: «Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra» (1876). In *Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak-Antecedentes próximos de la Sociedad Vasca actual. Siglos XVIII y XIX*, 439-41. Bilbo: Eusko Ikaskuntza.
- (1984). Divergencias lingüísticas y literarias entre Arturo Campión y Sabino Arana. *FLVXVI*, 43, 155-79.
- (1985a). Arturo Campión y la Sociedad de Estudios Vascos. *Eusko-Ikaskuntza. Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura* 5, 73-93.
- (1985b). La Gramática de Arturo Campión y Luis Luciano Bonaparte. *Euskera* XXX, 31-49.
- (1988). Arturo Campión y la historia. *Príncipe de Viana* XLIX, Anejo 10, *Primer Congreso General de Historia de Navarra. 5. Comunicaciones. Historia Contemporánea*, 169-82.
- (1993). Presentación de *Bidegileak: Koldo Eleizalde y Arturo Campión*. *Euskera* XXXVIII, 663-7.
- GREIMAS, A.J. eta COURTES, J. (1982-91 [1979-86]). *Semiótica. Diccionario razonado de la teoría del lenguaje* (bi liburuki). Madril: Gredos.
- GRINNELL, G.B. (1990 [1892]). *Historia y Leyendas de los Indios Pies Negros*. Madril: Miraguano.
- GUIBERT, M.E. (1982). Las Escuelas Normales de Primeras Letras de Navarra. *Príncipe de Viana* XLIII, 165, 371-84.
- HAGEGE, C. (1994 [1992]). *Le souffle de la langue. Voies et destins des parlers d'Europe*. Paris: Editions Odile Jacob.
- HARITSCHELHAR, J. (1990). Jose Agerre eta M. J. Urmenetaren omenez. *Euskera* XXXV, 103-4.
- HARRIS, M. (1993 [1983]). *Antropología cultural*. Madril: Alianza.

- HARTSUAGA, J.I. (1987). *Euskal mitologia konparatua*. Donostia: Kriselu.
- HARWOOD, J., GILES, H. eta BOURHIS, R.Y. (1994). The genesis of vitality theory: historical patterns and discorsal dimensions. *IJSL* 108, 167-296.
- HAUGEN, E. (1987 [1982]). *Blessings of Babel. Bilingualism and Language Planning*. Berlin-New York-Amsterdam: Mouton de Gruyter.
- (1996 [1972]). Elebitasunaren estigmak. *Bat* 18, 65-79.
- HERDER, J.G. (1982). *Obra selecta*. Madril: Alfaguara.
- HERMAN, S.R. (1977 [1961]). Explorations in the Social Psychology of Language Choice. In Fishman (arg.), 492-511.
- HOBBSAWM, E.J. (1991 [1990]). *Naciones y nacionalismo desde 1780*. Bartzelona: Crítica.
- HOFFMAN, Ch. (1991). *An Introduction to Bilingualism*. Londres-New York: Longman.
- HROCH, M. (1994a (1993)). Del movimiento nacional a la nación constituida. *Viento Sur* 13, 103-18.
- (1994b). La construcción de la identidad nacional: del grupo étnico a la nación moderna. *Revista de Occidente* 161, 45-60.
- HUDSON, R.A. (1981 [1980]). *La sociolingüística*. Bartzelona: Anagrama.
- HUICI, V(icente) (1981). Ideología y política en Arturo Campión. *PV* 41, 163, 641-87.
- , SORAUREN, M. eta JIMENO JURIO, J.M. (1982). *Historia contemporánea de Navarra*. Donostia: Txertoa.
- HUICI, V(ictoriano) (1899). *Manual de gramática bascongada*. Iruñea: Erice y García.
- HUMBOLDT, W.F. von (1975 [1801]). *Los vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*. Donostia: Auñamendi.
- HYMES, D. (1990 [1964]). Toward Ethnographies of Communication: The Analysis of Communicative Events. In Giglioli (arg.), 21-44.
- (1996 [1983]). Report from an Underdeveloped Country: Toward Linguistic Competence in the United States. In Sengh (arg.), 151-93.
- IBÁÑEZ, J. (1991). *El regreso del sujeto. La investigación social de segundo orden*. Santiago (Txile): Amerinda.
- (1992 [1979]). *Más allá de la sociología. El grupo de discusión: Técnica y crítica*. Madril: Siglo XXI.
- IBÁÑEZ, T. (1996). La ideología y las relaciones intergrupales. In Bourhis eta Leyens (arg.), 307-25.
- IBARRA, O. (1995). *Ultramako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- (1996). Bonaparterren sailkapena eztabaidatuz. *FLVXXXVII*, 71, 71-86.
- IDOATE, F. (1969). Una carta del siglo XV en vascuence. *FLVI*, 2, 287-90.
- (1977). *La comunidad del Valle de Roncal*. Iruñea: Excma. Diputación Foral de Navarra.
- IMBULUZQUETA, G. (1993). *Periódicos navarros en el siglo XIX*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- INCHAURRONGO, M. (1926). *La Iglesia y el euskera*. Iruñea: Imp. Federación C.S.M.
- (1928a). El euskera en Navarra. *Diario de Navarra*, 1928-02-26.
- (1928b). *Método Práctico del Euskera*. Iruñea: Librería José Aramendía.
- Indice de los libros y papeles adquiridos por la Excma Diputación de Navarra de la testamentaría de S. A. el príncipe Luis Luciano Bonaparte (1913). *RIEV* VII, 186-91.
- INTXAUSTI, J. (1978). Abertzaletasun katalana eta hizkuntza. *Jakin* 7, 5-46.



## Bibliografía

- (1989). Iraultzaren hizkuntz politika. *Jakin* 51, 69-86.
- (1990a). *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- (1990b). Nafarroako euskararen historiaz. *Jakin* 56, 7-33.
- (1996). Eliza eta euskal kultura. *Jakin* 95, 39-63.
- INTZA, D. (1926). Euskal-Egunak eta Euskal-Jaiak Doneztebe'n. In *Euskaltzaindia. Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak*. Bermeo, VII-XIII.
- (1973). «Larreko» Irigaray'tar Fermin goresgarriaren omenez. *Euskera* XVIII, 187-90.
- (1974). *Nafarroa-ko euskal-esaera zarrak*. Iruñea: Diputación Foral de Navarra.
- IRAIZOZKOA, P. (1934). *Yesu-Kristo gure Yaunaren bizia*. Iruñea: Iruñeko Kaputxinoak.
- IRIBARREN, J.M. (1984 [1952]). *Vocabulario navarro* (R. Ollaquindia, arg.). Iruñea: Comunidad Foral de Navarra.
- IRIGARAI, J.A. (1973). *Euskera eta Nafarroa*. Iruñea: Aranzadi.
- (1977). Aspectos de antropología socio-cultural en la evolución diacrónica del euskara. *Munibe* XXIX, 3-4, 275-303.
- (1988). *Euskara bizitzaren kenkan*. Iruñea: Pamiela.
- IRIGARAY, A. (1956). Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935. *Euskera* I, 41-6.
- (1958). *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca. XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak*. Iruñea: Diputación Foral de Navarra.
- (1966 [1935]). Documentos para la geografía lingüística de Navarra. In *Askoren Artean*, 67-103.
- (1970). La carta euskérica de 1415. *FLV* II, 4, 135-6.
- (1971). *Noticias y viejos textos de la "Lingua Navarrorum"*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- (1974). *Una Geografía Diacrónica del Euskara en Navarra*. Iruñea: Ediciones y Libros.
- (1980). *Escritores navarros en «Euskara»*. Iruñea: Diputación Foral de Navarra.
- IRIGARAY, P.F. (1992a). *Lekukotasuna* (I. Camino, ed.). Donostia: Sendoa-Euskal editoreen elkarte-Klasikoak.
- (1992b). *Nafarroatik* (I. Camino, ed.). Donostia: Sendoa-Euskal editoreen elkarte-Klasikoak.
- IRIGOIEN, A. (1957). Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue. *Euskera* II, 119-70.
- ITURRALDE Y SUIT, J. (1877). La lengua vascongada. A mi querido amigo Arturo Campión. *El Eco de Navarra*, 1877-05-19.
- (1879). Contestación al periódico llamado *Asociación del Magisterio* de Huesca por sus censuras á los señores Maestros de Escuela que hubiesen trabajado en pró del Euskara. *Revista Euskara* II, 317-20.
- JAKOBSON, R. (1985 [1963]). *Ensayos de lingüística general*. Bartzelona: Planeta-Agostini.
- JIMENO JURIO, J.M. (1991). El vascuence en Urraul Alto (1785). *FLV* XXIII, 58, 227-45.
- (1992a). El vascuence en Gallipienzo y la Val de Aibar (1571). *FLV* XXIV, 60, 271-75.
- (1992b). El vascuence en Aoiz (siglo XVII). *FLV* XXIV, 59, 71-96.
- (1992c). El vascuence en Aoiz (siglos XVIII-XIX). *FLV* XXIV, 61, 457-80.
- (1993a). El P. Moret confesor en vascuence. *FLV* XXV, 62, 157-62.

- (1993b). Escuelas de primeras letras en Estella (siglos XVI-XIX). *Príncipe de Viana* LIV, 199, 431-51.
- (1993c). Salazar/Almiradío. Muga lingüística (1605). *FLVXXV*, 63, 235-52.
- (1994a). Arqueta 'Los Arcos' (Fuero de Estella). *FLVXXXVI*, 65, 121-38.
- (1994b). Causas del retroceso del euskera en el Valle de Allín (Navarra). *FLVXXVI*, 67, 467-86.
- (1994c). El vascuence a las puertas de Pamplona (1790). *FLVXXXVI*, 66, 327-35.
- (1995a). *Historia de Pamplona y de sus lenguas*. Tafalla: Txalaparta.
- (1995b). Las lenguas escritas y habladas en Pamplona. *FLVXXXVII*, 68, 51-68.
- (1995c). Pamplona. El vascuence en San Cernin (siglo XVII). *FLVXXXVII*, 70, 487-514.
- (1996). La crisis del euskera en el Valle de Egüés (Siglo XIX). *FLVXXXVIII*, 72, 269-85.
- (1997). *Navarra. Historia del euskera*. Tafalla: Txalaparta.
- JOVER, J.M. (1991). *La civilización española a mediados del S. XIX*. Madrid: Espasa Calpe.
- JUARISTI, J. (1987). *El linaje de Aitor*. Madrid: Taurus.
- JULIA, S. (1989). *Historia social/sociología histórica*. Madrid: Siglo XXI.
- JUNTA GENERAL DE ESTADISTICA (1863). *Censo de la población de España según el recuento verificado en 25 de diciembre de 1860*. Madrid: Imprenta Nacional.
- JUNYENT, C. (1996). Hizkuntzen bizitza eta heriotza. *Bat* 19, 37-48.
- KACHRU, B.B. (1994). Speech Community. In Asher eta Simpson (arg.), VIII, 4.176-8.
- KOHN, H. (1984 [1944]). *Historia del nacionalismo*. Mexiko-Madrid: Fondo de Cultura Económica.
- KUHN, T.S. (1995 [1962]). *La estructura de las revoluciones científicas*. Madrid: Fondo de Cultura Económica.
- LABOV, W. (1983 [1972]). *Modelos sociolingüísticos*. Madrid: Cátedra.
- (1996 [1994]). *Principios del cambio lingüístico I* (bi liburuki). Madrid: Gredos.
- LACARRA, J.M. (1957). *Vasconia medieval. Historia y Filología*. Donostia: Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo de la Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa.
- (1963). Estructura político-administrativa de Navarra antes de la Ley Paccionada. *Príncipe de Viana* XXIV, 92-93, 231-48.
- (1975). *Historia del reino de Navarra en la Edad Media*. Iruñea: Caja de Ahorros de Navarra.
- (1982 [1971]). *Estudios de historia navarra*. Iruñea: Ediciones y Libros.
- (1983). *Investigaciones de historia navarra*. Iruñea: Ediciones y Libros.
- LACOIZQUETA, J.M. (1888). *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos*. Iruñea: Imprenta provincial.
- LACOMBE, G. (1920). A. MEILLET.— *Les langues dans l'Europe nouvelle*.—Paris (Payot), 1918, in-8, 343 p. et 2 cartes (liburuaren erreseina). *RIEV* XI, 68-70.
- (1924). La langue basque. In Meillet eta Cohen (zuz.), 319-26.
- (1932-3). Lettres du Prince Louis-Lucien Bonaparte à Don Arturo Campiñón. *RIEV* XXIII, 192-8; XXIV, 304-13.
- LAKARRA, J.A. eta RUIZ ARZALLUZ, I. (arg.) (1991). *Memoria L. Mixelena Magistri Sacrum* (2 liburuki). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. *ASJU*. Gehigarriak, XIV.

## Bibliografía

- LAPESA, R. (1981 [1942]). *Historia de la lengua española*. Madril: Gredos.
- (1997). España, creadora de una lengua universal. In *España. Reflexiones sobre el ser de España*. Askoren Artean, 499-533. Madril: Real Academia de la Historia.
- LAPESKERA, R.: ikus MORENO, V.
- LARRAÑAGA, I. (1990). Nafarroako egoera demolinguistikoa. *Jakin* 56, 35-72.
- LARRAÑAGA, K. (1977). Los factores económico-sociales y el euskara. In *Euskaltzaindia*, 219-99.
- LARREA, J.M. (1994). *Euskaldungoa erroizturik*. Iruñea: Pamiela.
- (1995). *Nafarroako euskal idazleak* II. Iruñea: Pamiela.
- LARREA, J.M. eta DIEZ DE ULZURRUN, P. (1987). *Nafarroako euskal idazleak* I. Iruñea: Pamiela.
- LARREKO: ikus Irigaray, P.F.
- LE GOFF, J. (1988 [1978]). La nueva historia. In Le Goff, Chartier eta Revel (zuz.), 263-94.
- (1991 [1989]). Construcción y destrucción de la ciudad amurallada. Una aproximación a la reflexión y a la investigación. In *La ciudad y las murallas*. C. De Seta eta J. Le Goff (arg.), 11-20. Madril: Cátedra.
- , CHARTIER, R. eta REVEL, J. (zuz.) (1988 [1978]). *La nueva historia*. Bilbo: Mensajero.
- LECA, J. (1992). Epílogo: la sociología histórica ¿regresa a la infancia? O «cuando la sociología claudica ante la historia». *La sociología histórica. Debate sobre sus métodos*. *Revista Internacional de Ciencias Sociales* 133, 429-42.
- LECUONA, M. (1966 [1933]). El euskera en Navarra a fines del siglo XVI. In Askoren Artean, 127-37.
- LERTXUNDI, A. (1995). Oinaren neurriko. *Egunkaria*, 1995-05-21.
- LEVI STRAUSS, C. (1993 [1952-1983]). *Raza y cultura*. Madril: Cátedra.
- LOPEZ ANTON, J.J. (1996). «El último tamborilero de Erraondo»: la aculturalización psicológica y física de Navarra. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* XXVIII, 67, 103-13.
- LOPEZ MORALES, H. (1993 [1989]). *Sociolingüística*. Madril: Gredos.
- MACALEVEY, W.F. (1996). W.P. Roberts: su papel en el cartismo y los sindicatos como militante y abogado. Una historiografía socio-lingüística de las relaciones sociales. *Historia contemporánea* 13-14, 87-109.
- MACKAY, W. (1976). *Bilinguisme et contact des langues*. Paris: Klincksieck.
- (1991). The Ecology of Plurilingual Societies. 1991ko abenduaren 16-17ko “Estat i Població Plurilingüe” sinposiumean aurkeztutako txostena, Bartzelona: Universitat de Barcelona.
- (1994a). Hizkuntz gaitasuna da faktore erabakitzailea (elkarrizketa), *Bat* 13/14, 93-100.
- (1994b). La politique linguistique dans l'évolution d'un État-Nation. In *Langues et sociétés en contact*. P. Martel eta J. Maurais (arg.), 61-70. Tübingen: Max Niemeyer.
- MADOZ, P. (1845-50). *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar* (16 liburuki). Madril.
- MADRAZO, P. (1886). *España. Sus monumentos y artes-Su naturaleza é historia*. Navarra y Logroño I. Bartzelona: Daniel Cortezo y C.
- MANEZAUNDI: ikus Zubiri, E.
- MANTEROLA, J. (1883). Las literaturas regionales en la Academia Española. *Euskal-Erria* VIII, 220-4.

- MARCHESE, A. eta FORRADELLAS, J. (1986 [1978]). *Diccionario de retórica, crítica y terminología literaria*. Bartzelona: Ariel.
- MARCHETTI, P. (1989). *La corsophonie*. Paris: Albatros.
- MARTIN DUQUE, A.J. (1987). Horizontes de la investigación en Historia altomedieval navarra. *Príncipe de Viana XLVIII*-anejo 6. *Primer Congreso General de Historia de Navarra*, 125-43.
- MARTINELL, E. eta PIÑOL, M.C. (1996). *La conciencia lingüística en Europa. Testimonios de situaciones de convivencia de lenguas (ss. XII-XVIII)*. Bartzelona: PPU.
- MARTINEZ BELOQUI, M.S. (1983). Las relaciones entre la Diputación navarra y las provincias vascongadas en 1866. In *Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa*, 463-5. Bilbo: Eusko Ikaskuntza.
- MARTINEZ CUADRADO, M. (1974 [1973]). *La burguesía conservadora (1874-1931)*. Madril: Alianza-Alfaguara.
- MARTINEZ PENUELA, A. (1989). *Antecedentes y primeros pasos del nacionalismo vasco en Navarra: 1878-1918*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- MARX, K. eta ENGELS, F. (1977 [1972]). *Correspondencia*. Mexiko: Ediciones de Cultura Popular.
- MCKENZIE, D.F. (1988 [1987]). The Sociology of a Text: Oral Culture, Literacy and Print in Early New Zealand. In Burke eta Porter (arg.), 161-97.
- MEES, L. (1991). *Entre nación y clase. El nacionalismo vasco y su base social en perspectiva comparativa*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- MEILLET, A. (1918). *Les langues dans l'Europe nouvelle*. Paris: Payot.
- eta COHEN, M. (zuz.) (1924). *Les langues du monde*. Paris: Librairie ancienne Édouard Champion.
- MENENDEZ PELAYO, M. (1956 [1880-1882]). *Historia de los Heterodoxos Españoles* (2 liburuki). Madril: BAC.
- MENENDEZ PIDAL, R. (1950 [1926]). *Orígenes del español. Estado lingüístico de la Península Ibérica hasta el siglo XI*. Madril: Espasa-Calpe.
- (1952 [1918]). Sobre las vocales ibéricas e y o en los nombres toponímicos. In *Toponimia prerrománica hispana*, 7-48. Madril: Gredos.
- (1985 [1904]). *Manual de gramática histórica española*. Madril: Espasa-Calpe.
- MIKELARENA, F. (1992). Nafarroan bi herri daude (Alberto Barandiaranek egindako elkarrizketa). *Nafarkaria. Egunkaria*-ren Nafarroako gehigarria, 1992-11-06.
- (1993). Estructuras familiares y sistemas sucesorios en Navarra: una aproximación crítica desde las ciencias sociales a las perspectivas tradicionales efectuadas desde el campo del derecho (jatorrizko idazlanaren fotokopia, egileak emana).
- (1994). Evolución demográfica y emigración. In De la Torre (arg.), 159-77.
- (1995). *Demografía y familia en la Navarra tradicional*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- MILROY, L. (1989 [1980]). *Language and Social Networks*. Oxford-New York: Basil Blackwell.
- (1994). Social Networks. In Asher eta Simpson (arg.), VII, 3.986- 91.
- MILL, J.S. (1985 [1861]). *Del Gobierno representativo*. Madril: Tecnos.
- MINA, M.C. (1981). *Fueros y revolución liberal en Navarra*. Madril: Alianza.
- (1985). Elecciones y partidos en Navarra (1891-1923). In *La España de la Restauración: política, economía, legislación y cultura*. J.L. García Delgado (arg.), 111-29. Madril: Siglo XXI.
- MITXELENA, K. (1964a). *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Auñamendi (orain in *SHLVI*, 1-73).

## Bibliografía

- (1964b). *Textos Arcaicos Vascos*. Madril: Minotauro.
- (1969). Notas lingüísticas a «Colección diplomática de Irache». *FLV* I, 1-59 (orain in *PT*, 87-140).
- (1971a). Lengua y Cultura. In *I Semana de Antropología Vasca*, 307-30. Bilbo (orain in *LH*, 143-62).
- (1971b). Notas sobre las lenguas de la Navarra medieval. In *Homenaje a Don José Esteban Uranga*, 199-214. Iruñea (orain in *PT*, 73-85).
- (1971c). Urquijo y la Sociedad de Estudios Vascos. *ASJUV*, 3-22 (orain in *LH*, 97-112).
- (1974). Las lenguas y la política. In *Doce ensayos sobre el lenguaje*, 119-37. Madril: Publ. de la Fund. Juan March (orain in *LH*, 178-90).
- (1976a). Lenguas indígenas y lengua clásica en Hispania. In *Travaux du VIe Congrès International d'Études Classiques*, 41-51. Bukarest-Paris (orain in *LH*, 201-12).
- (1976b). Onomástica y población en el antiguo reino de Navarra: la documentación de San Millán. In *XII Semana de Estudios Medievales. 1974*, 49-71. Iruñea (orain in *PT*, 59-72).
- (1978a). Euskararen bide luze bezain malkarrak. In *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzaindia, 15-28. Bilbo (orain in *SHLV* II, 1.011-23).
- (1978b). Iztueta, testigo político de su época. In *Euskal Herria (1789-1850)*. *Actes du Colloque International d'Études Basques*. Bordeaux 1973, 167-79 (orain in *PT*, 349-61).
- (1978c). Sobre bilingüismo. In *Estudios y trabajos del Seminariu de Llingua Asturiana*, 29-36 (orain in *LH*, 191-200).
- (1981a). Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak. In Askoren Artean, 259-78 (orain in *SHLV* II, 680-93).
- (1981b). Lengua común y dialectos vascos. *ASJUXV*, 291-313 (orain in *PT*, 35-55).
- (1982a). La normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco. *Revista de Occidente* 10-11. Extraordinario II: *El bilingüismo: problemática y realidad*, 55-75 (orain in *LH*, 213-28).
- (1982b). Mendibururen hizkeraz hitz bi. In *Mendibururen Idazlan Argitaragabeak* I. P. Altuna (ed.), lxxix-lxxxii. Bilbo: Euskaltzaindia (orain in *SHLV* II, 916-19).
- (1982c). Sobre la historia de la lengua vasca. *ASJU XVI*, 143-56 (orain in *PT*, 9-21).
- (1982d). Sobre la lengua vasca en Alava durante la Edad Media. In *Vitoria en la Edad Media*, 297-306. Gasteiz (orain in *PT*, 169-81).
- (1983a). Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880). In *Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa*, 237-50. Bilbo (orain in *SHLV* II, 948-64).
- (1983b). [Gamizen olerkiei sarrera]. In *Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo, poeta bilingüe alavés del siglo XVIII*. J. Goikoetxea (ed.). Gasteiz: Foru Aldundia (orain in *SHLV* II, 929-31).
- (1985a). Campionen «Gramática» eta beste. *Euskera* XXX, 63-70 (orain in *SHLV* II, 965-71).
- (1985b). *Lengua e historia*. Madril: Paraninfo (=LH).
- (1986 [1963]). *Lenguas y protolenguas*. Salamanca, Universidad de Salamanca-Universidad Autónoma de Barcelona.
- (1987a). *Palabras y textos*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea (=PT).
- (1987b [1984]). Presentación a la primera edición. In M.T. Echenique, 11-3.

- (1988a). *Euskal idazlan guztiak* (9 liburuki) (B. Urgellek et al. prestatuta). Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- (1988b (1960)). *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.
- (1988c). *Sobre historia de la lengua vasca* (2 liburuki) (J.A. Lakarra, arg.). Donostia: Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” 10 (=SHLV).
- MOLLA, T. eta PALANCA, C. (1989 (1987)). *Curs de sociolingüística* I. Alzira: Bromera.
- MOLLA, T. eta VIANA, A. (1989-91). *Curs de sociolingüística* II-III. Alzira: Bromera.
- MONREAL, G. (1990). La oficialidad del euskara en Navarra. In *Euskararen lege-arau-bideari buruzko jardunaldiak*. E. Cobreros (bateragilea), 115-63. Oñati: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
- MORALES, J.F. eta PAEZ, D. (1996). Estereotipos, discriminación y relaciones intergrupos en España y en Latinoamérica. In Bourhis eta Leyens (arg.), 1-22.
- MORENO, V. (1996). *De aquellos Barros... Prensa navarra y nacionalidad vasca*. Tafalla: Txalaparta.
- MORET, J. (1890-2 [1684]). *Anales del Reino de Navarra* (12 liburuki). Tolosa: Eusebio López.
- MORIN, E. (1993 [1977]). *El Método. La naturaleza de la Naturaleza*. Madril: Cátedra.
- MUJICA, G. (1962). *Los titanes de la cultura vasca. Entrevistas*. Donostia: Auñamendi.
- NAFARROAKO GOBERNUA (1982). *Foruaren hobeagotzea. 1841-1982*. Iruñea.
- (1988). *Distribución de la población navarra según el nivel de euskara (Padrones municipales de habitantes al 1/4/86)*. Iruñea.
- (1993). *Población de los ayuntamientos y concejos de Navarra al 1/1/1992*. Iruñea.
- NAGORE, L. (1964). *Apuntes para la historia. 1872-1886*. Iruñea: Diputación Foral de Navarra.
- NINYOLES, R.LI (1975). *Estructura Social y Política Lingüística*. Valentzia: Fernando Torres.
- NOMBELA, J. (1868). *Crónica general de España. Navarra*. Madril: Rubio, Grillo y Vitturi.
- Novísima recopilación de las Leyes del Reino de Navarra hechas en sus Cortes Generales desde el año de 1512. Hasta el de 1716 inclusive* (1735). Iruñea: Joseph Joachim Martinez.
- O'DONOGHUE, T.A. (1994). Bilingual Education at the Beginning of the Twentieth Century: the Bilingual Programme of Instruction in Ireland 1904-1922. *JMMD* 15:6, 491-505.
- O'RIAGAIN, P. (1994). Language Maintenance and Language Shift as Strategies of Social Reproduction. *JMMD* 15:2 eta 3, 179-97.
- OCHOA, T. (1842). *Diccionario geográfico histórico de Navarra*. Iruñea: Imprenta del autor.
- ODRIOZOLA, J.M. (1992). Euskal pentsakera soziolinguistikoari ohar kritikoak. Normalizazioaren filosofiaz. *Larrun* 14, 19-28.
- (1992-3). Koldo Mitxelena-ren ekarpena soziolinguistikaren arloan. *RIEV* XL, 37-2, 393-420; XLI, 38-1, 73-106.
- OLENDER, M. (1990). [Aurkezpena]. *Le genre humain* 21. *Les langues mégalomanes*, 7.
- OLORIZ, H. (1986 [1894]). *Cartilla Foral*. Gehigarria in *La Cuestión Foral. Reseña de los principales acontecimientos ocurridos desde Mayo de 1893, á Julio de 1894*. Iruñea: Imprenta Provincial (berrarg. faksim.).
- ONDARRA, F. (1981). Policarpo aitak zituen euskal esku-idatziz zaharren aurkezpena. *Euskera* XXVI-2, 633-49.
- (1993). Goñerrin aurkitutako testuak (X). *ASJU* XXVII-3, 903-47.

## Bibliografía

- eta SAN MARTIN, J. (1981). Aita Polikarpo Iraizoz (1897-1980). *Euskera* XXVI-1, 495-6.
- ONSALO, F. (1898). *Manual del maestro. Compendio de legislación de primera enseñanza*. Iruñea: Nemesio Aramburu.
- ORELLA, J.L. (1977). *La universidad vasca*. Donostia: Erein.
- ORIXE: ikus Ormaetxea, N.
- ORMAETXEA, N. (1976 [1950]). *Euskaldunak-Los vascos*. Donostia: Auñamendi.
- (1987 [1950-4]). *Quito-n arrebarekin*. Donostia: Ibaizabal, Euskal editoreen elkarte, Klasikoak.
- OROZ ARIZCUREN, P. (1991). Rastreando en el archivo parroquial de Beriain. Beriain y su situación diglósica en 1276. In Lakarra eta Ruiz Arzalluz (arg.), 67-77.
- OROZ ZABALETA, L. (1917-23). *Legislación administrativa de Navarra* (bi liburuki). Iruñea: Artes Gráficas .
- ORTI, A. (1990 [1986]). La apertura y el enfoque cualitativo o estructural: la entrevista abierta semidirectiva y la discusión de grupo. In Colectivo Ioé (arg.), 76-108.
- ORTIZ OSES, A. (1993). *Las claves simbólicas de nuestra cultura*. Bartzelona: Anthropos.
- (1996). *La Diosa Madre. Interpretación desde la mitología vasca*. Madril: Trotta.
- eta MAYR, F.K. (1981). *El matriarcalismo vasco*. Bilbo: Publicaciones de la Universidad de Deusto.
- OTEIZA, J. (1984 [1965-6]). *Ejercicios espirituales en un túnel*. Donostia: Hordago.
- (1994 [1963]). *Quousque tandem...!* Iruñea: Pamiela.
- (1995). *Nociones para una filología vasca de nuestro preindoeuropeo*. Iruñea: Pamiela.
- OTXANDORENA, T. (1997). Don José Erasun (1821-1894). *FLVXXIX*, 74, 93-98.
- OYHARÇABAL, B. (1992a). Euskararen mugez egin lehen mapak (1806-1807). In Euskaltzaindia, Iker-6, 349-66.
- (1992b). Lehenbiziko inkesta geo-linguistikoak Euskal Herrian frantses lehen inperioaren denboran: ipar aldean bildu dokumentuak. In Euskaltzaindia, Iker-7, 285-98.
- PAGOLA, R.M. (1990). Enrike Zubiri Gortadi «Manezaundi». In Zubiri, 7-23.
- et al. (arg.) (1995). *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak: Iparraldeko goi-nafarrera* (3 liburuki). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- et al. (arg.) (1996). *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak: Hegoaldeko goi-nafarrera* (4 liburuki). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- PALACIOS, X. (arg.) (1992). *Etica y nacionalismo*. Gasteiz: Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua.
- PAN-MONTOJO, J. (1990). *Carlistas y liberales en Navarra (1833-1839)*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- PATLAGEAN, E. (1988 [1984]). Historia de lo imaginario. In Le Goff, Chartier eta Revel (zuz.), 302-23.
- PEREZ GOYENA, A. (1947-64). *Ensayo de bibliografía navarra* (9 liburuki). Burgos: Diputación Foral de Navarra-Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
- PERURENA, P. (1995). Euskalduntasunak iraungo badu lurralde animikoa sortu behar du (A. Barandiaranek egindako elkarrizketa). *Egunkaria*, 1995-12-06.
- (1996). *Leitzako errege erreginak (Ahoz belarrirako urre altxorretan)*. Bilbo: Euskaltzaindia-Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa.
- PETSCHEN, S. (1990). *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: documentos (1492-1989)* (2 liburuki). Gasteiz: Eusko Legebiltzaria.
- PI Y MARGALL, F. (1936 [1877]). *Las Nacionalidades*. Madril: Librería Bergua.

- POLIAKOV, L. (1990). Rêves d'origine et folie des grandeurs. *Le genre humain* 21, 9-23.
- POPPER, K.R. (1992 [1982]). *Teoría cuántica y el cisma en Física. Post Scriptum a la Lógica de investigación científica* III. Madril: Tecnos.
- PUJADAS MUÑOZ, J.J. (1992). *El método biográfico: El uso de las historias de vida en ciencias sociales*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- RAMOS, R. (1995). *Nafarroako euskararen egoera demolinguistikoa eta funtzionala*. Bergara: Bergarako Udala.
- RECLUS, E. (1929 [1867]). Los vascos. Un pueblo que se va, por Eliseo Reclus (1867). *RIEVXX*, 57-83.
- REGUERA, I. (1992). Mística revolucionaria y nacionalista. In Palacios (arg.), 153-62.
- RENFREW, C. (1990 [1987]). *Arqueología y lenguaje. La cuestión de los orígenes indoeuropeos*. Bartzelona: Crítica.
- RIBARY, F. (1877 [1866]). *Essai sur la langue basque* (Julien Vinsonek hungarieratik itzulua). Paris: F. Viewg libraire-éditeur.
- RIEZU, R.P.J. (1958). El príncipe Luis Luciano Bonaparte. *Príncipe de Viana* XIX, 149-64.
- ROBERTS, J. (1989). Revolución y progreso. La política y la sociedad desde 1789 hasta 1851. In Briggs (zuz.), 57-109.
- ROBINS, R.H. (1987 [1967]). *Breve historia de la Lingüística*. Madril: Paraninfo.
- ROCHER, G. (1990 [1973]). *Introducción a la sociología general*. Bartzelona: Herder.
- RODRIGUEZ, F. (1996). Ez dok hamairu... hamalauan baizik. *Egunkaria*, 1996-12-14.
- RODRIGUEZ FERRER, M. (1873). *Los vascongados, su país, su lengua y el príncipe L. L. Bonaparte*. Madril: J. Noguera.
- ROMAINE, S. (1988). Historical Sociolinguistics: Problems and Methodology. In U. Ammon et al. (arg.), II, 1.452-69.
- (1994). Sociolinguistics. In Asher eta Simpson (arg.), VII, 4.005-14.
- (1996 [1994]). *El lenguaje en la sociedad. Una introducción a la sociolingüística*. Bartzelona: Ariel.
- ROSDOLSKY, R. (1981 [1964]). *El problema de los pueblos "sin historia"*. Bartzelona: Fontamara.
- ROTAETXE, K. (1988). *Sociolingüística*. Madril: Síntesis.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I. (1989). Reproducción étnica en el País Vasco: dinámica y proceso. In *Sociología del Nacionalismo*. A. Perez-Agote (arg.), 131-9. Bilbo: II. Euskal Mundu-Biltzarra, Euskal Herriko Unibertsitatea-Eusko Jaurlaritza.
- eta OZAMIZ, J.A. (arg.) (1986). *Hizkuntza minorizatuen soziologia. Sociología de lenguas minorizadas*. Donostia: Ttartalo.
- RUJULA, P. (1994). Acerca de la especificidad del carlismo. *Gerónimo de Uztariz* 9/10, 119-32.
- SAGARNA, A. (1984). Euskara XVIII. mendean. *Hizkuntza eta literatura* 3, Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de sección, 17-114.
- SALABERRI, P. (1994). *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*. Bilbo: Euskaltzaindia, Onomastic Vasconiae 11.
- SALABURU, P. (1980). *Baztango euskalkiaz (I) (Bruno Echenique-k egindako itzulpenak Bonaparteren eskakizunez)*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak.
- (1996). Baztango hizkeraz hitz pare bat. In *Baztango Hiztegia*. M. Izeta, 15-22. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- SAMPER, P.J. (1883). Curiosidades euskaras. Carta escrita en el sub-dialecto salacenco al Príncipe Luis Luciano Bonaparte, por D. Pedro José Samper, Abad de Jaurrieta, acompañada de notas gramaticales redactadas por aquel ilustre bascófilo. *Revista Euskara* VI, 332-6.



## Bibliografía

- SAN MARTIN, J. (1985). Puntualizaciones sobre el euskara de Urraul Alto (Navarra). In Askoren Artean, 237-44.
- SANCHEZ CARRION, J.M. (1972). *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*. Iruñea: Diputación Foral de Navarra.
- (1980). *Lengua y pueblo*. Donostia: Elkar.
- (1981a). *El espacio bilingüe*. L.g.: Eusko Ikaskuntza.
- (1981b). La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka). Estudio antropolingüístico de una comunidad euskaldún. *FLV* XIII, 37, 19-97.
- (1985). La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas. In Askoren Artean, 327-45.
- (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*. Donostia: egilearen argitalpena.
- (1992). Las lenguas vistas desde la historia versus la historia vista desde las lenguas (o el giro copernicano de un nuevo discurso social). In *XI Congreso de Estudios Vascos: "Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa"*, 89-143. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- (1993). Panorama actual del conflicto. *Pamiela* 15, 47-56.
- SAPIR, E. (1991 [1921]). *El lenguaje*. Madril-Mexiko-Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- SATYANATH, S. (1994). RAJEND MESTHRIE, *Language in indenture: A sociolinguistic history of Bhojpuri-Hindi in South Africa*. London & New York: Routledge, 1992 (liburuaren erreseina). *Language in Society* 23-4, 591-5.
- SATRUSTEGI, J.M. (1965). *Bordel bertsularia*. Tolosa: Auspoa.
- (1987). *Euskal testu zaharrak I*. Iruñea: Euskaltzaindia.
- (1989). *Antropología y Lengua*. Iruñea: egilearen edizioa.
- (1991). El euskera en Tierra Estella. Evolución histórica. *Euskera* XXXVI-1, 93-124.
- (1994). Arturo Campionen itzala. *Euskera* XXXIX-2, 407-16.
- SAUSSURE, F. (1980 [1916]). *Curso de lingüística general* (Mauro Armiño arg.). Madril: Akal.
- SAYAS ABENGOECHEA, J.J. (1994). *Los vascos en la Antigüedad*. Madril: Cátedra.
- SCHUCHARDT, H. (1909). Briefe des Prinzen L.-L. Bonaparte an H. Schuchardt. *RIEV* III, 133-9.
- SCHUDSON, M. (1994). La cultura y la integración de las sociedades nacionales. *Revista Internacional de Ciencias Sociales* 139, 79-100.
- SEATTLE Buruzagi Nagusia (1992 [1855]). *Nosotros somos una parte de la Tierra*. Palma: José J. de Olañeta.
- SIGUAN, M. (1992). *España plurilingüe*. Madril: Alianza.
- SINGH, R. (arg.) (1996). *Towards a Critical Sociolinguistics*. Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- SMITH, A.D. (1976 [1971]). *Las teorías del nacionalismo*. Bartzelona: Ediciones Península.
- SOLE TURA, J. (1985). *Nacionalidades y nacionalismos en España*. Madril: Alianza.
- SOLOZABAL, J.J. (1979). *El primer nacionalismo vasco*. Donostia: L. Haranburu.
- SUBDIRECCION GENERAL DE ESTADISTICA (1935). *Censo de la población de España de 1930. Región de Vascongadas y Navarra*. Madril: Augusto Boué Alarcón.
- TANCO, J. (1974). *Historia de la enseñanza*. Iruñea: Diputación Foral de Navarra, Temas de Cultura Popular.

- TEA (1918). Congreso de Estudios Vascos. Oñate 1918. *Euskal-Erria* LXXIX, 209-30.
- TEJERINA, B. (1992). *Nacionalismo y lengua*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas-Siglo XXI.
- TESTAUT, C. "Arako" (1947). *Dialogando*. Iruñea: Editorial Leyre.
- THOMPSON, F.M.L. (1989). El campo. La revolución en la agricultura mundial. In Briggs (zuz.), 184-224.
- TILLY, Ch. (1992). Prisioneros del Estado. *Revista Internacional de Ciencias Sociales* 133. *La sociología histórica. Debate sobre sus métodos*, 351-65.
- TITO LIVIO (1989 [K.a. I. m.]). *Los orígenes de Roma (Libros I-V)* (Maurilio Perez Gonzalez, arg.). Madril: Akal.
- TORREALDAY, J.M. (1977). *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas*. Oñati-Arantzazu: Jakin.
- TOVAR, A. (1980). *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Madril: Alianza.
- TRUDGILL, P. (1992). *Introducing Language and Society*. Londres: Penguin.
- TUNON DE LARA, M. (1976 [1960]). *La España del siglo XIX* (2 liburuki). Bartzelona: Laia.
- (zuz.) (1990 [1981]). *Revolución burguesa, oligarquía y constitucionalismo (1834-1923)*. *Historia de España* VIII. Bartzelona: Labor.
- TXEPETX: ikus Sanchez Carrion, J.M.
- TXILLARDEGI: ikus Alvarez Enparantza, J.L.
- UGALDE, M. (1979 [1966]). *Unamuno y el vascuence*. Donostia: Ediciones Vascas.
- ULAYAR, E. (1983). Blas Alegria euskal idazlearen bizitza eta lanak. *Euskera* XXVIII-2, 315-34.
- UNAMUNO, M. (1968). *Obras completas* IV. *La raza y la lengua*. Madril: Escelicer.
- URMENETA, B. (1997). *Navarra ante el vascuence. Actitudes y actuaciones (1876-1919)*. Iruñea: Gobierno de Navarra.
- URQUIJO, J. (1908-10). Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte á algunos de sus colaboradores. *RIE* VII, 215-21, 655-9; IV, 233-97.
- VALLVERDU, F. (1984). A Sociolinguistic History of Catalan. *IJSL* 47, 13-28.
- (1986). La lengua catalana desde una perspectiva sociolingüística. In *Las lenguas minoritarias y la educación. X Seminario sobre «Educación y Lenguas»*. M. Siguan (koord.), 103-19. Bartzelona: ICE-P.P.V.
- VALVERDE, L. (1996). Introducción. In *Revista Euskara* I (berrarg. faksim.), IX-XLVI. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- VAN DIJK, T.A. (1995 [1980]). *Estructuras y funciones del discurso*. Mexiko-Madril: Siglo XXI.
- VELASCO, L. (1879). *Los euskaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. Sus orígenes, historia, lengua, leyes, costumbres y tradiciones*. Bartzelona: Oliveres.
- VENDRYES, J. (1924). Langues indo-européennes. In Meillet eta Cohen (zuz.), 19-79.
- VILALLONGA, J. (1953-7). Introducción a un estudio sobre Luis-Luciano Bonaparte y sus trabajos. *Eusko-Jakintza* VII, 39-68.
- VILAR, P. (1984). Estado, nación, patria en España y Francia. 1870-1914. *Estudios de Historia Social* 28-29, 7-41.
- (1994). *Iberica* 4 (Nouvelle Série). *Nations, nationalismes et questions nationales*. Université de Paris-Sorbonne.
- VILCHES, C. eta COSIN, J. (1995). *Euskara Nafarroan zertan den. Investigación sociológica sobre el euskera en Navarra*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- VILFAN, S. (arg.) (1993). *Ethnic Groups and Language Rights. Comparative Studies on Governments and Non-dominant Ethnic Groups in Europe, 1850-1940*. Volume III.

## Bibliografía

- Hants-New York: European Science Foundation-Dartmouth-New York University Press.
- VILLANUEVA, J. (1991). *Diccionario crítico de la autodeterminación. Pensamiento europeo (1750-1919)*. Donostia: Gakoa.
- VILLAR, F. (1991). *Los indoeuropeos y los orígenes de Europa. Lengua e historia*. Madrid: Gredos.
- VILLASANTE, L. (1966 [1956]). Una lista de pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra de principios del siglo XIX. In Askoren Artean, 44-60.
- (1979 [1961]). *Historia de la literatura vasca*. Arantzazu: Editorial Arantzazu.
- VILLENA, J.A. (1992). *Fundamentos del pensamiento social sobre el lenguaje (Constitución y Crítica de la Sociolingüística)*. Málaga: Agora.
- VINSON, J. (1877). Avant-propos. In Ribary, F., v-xxv.
- (1879). El método científico y la lengua euskara. *Revista Euskara* II, 144-8.
- (1882). *Les basques et le Pays Basque. Mœurs, langage et histoire*. Paris: Léopold Cerf.
- (1983 [1891-8]). *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* (bi liburuki). Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína (berrarg. faksim.).
- VIÑES, H. (1977). *Hablar navarro en el Fuero General*. Iruñea: Editorial Gómez.
- VOVELLE, M. (1985 [1982]). *Ideologías y mentalidades*. Bartzelona: Ariel.
- WEBER, M. (1993 [1922]). *Economía y sociedad*. Madrid-Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- WEINREICH, U. (1974 [1953]). *Lenguas en contacto*. L.g.: Ediciones de la Biblioteca de la Universidad Central de Venezuela.
- WILLIAMS, G. (1996). Language Planning As Discourse. In Singh (arg.), 281-304.
- XAMAR: ikus Etxegoien, J.C.
- YANGUAS Y MIRANDA, J. (1964 [1840]). *Diccionario de antigüedades del reino de Navarra* (hiru liburuki). Iruñea: Diputación Foral de Navarra.
- YRIZAR, P. (1981). *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* I. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- YZERBYT, V. eta SCHADRON, G. (1996 [1994]). Estereotipos y juicio social. In Bourhis eta Leyens (arg.), 113-37.
- ZABALETA, F. (1995). *Euskara Nafarroan. 1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren datu soziolinguistikoak*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- (1997). *Nafarroako Mapa Soziolinguistikoa. 1991. Biztanleria euskaldunaren dinamika eta bilakaera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- ZABALETA, P. (1990). Jose Agerreren omenez. *Euskera* XXXV, 105-13.
- (1993). La Gamazada y Sabino Arana. *Egin*, 1993-12-31.
- ZABALZA, A. et al. (1994). *Navarra 1500-1850 (Trayectoria de una sociedad olvidada)*. Iruñea: Ediciones y Libros.
- ZALBIDE, M. (1990). Euskal eskola, asmo zahar bide berri. In *Euskal eskola publikoaren lehen kongresua* I, 211-71. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- ZAVALA, A. (1991). *Frantzesteko bertsoak* I. Tolosa: Auspoa.
- (1992). *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*. Tolosa: Auspoa.
- ZUAZO, K. (1988a). Diglosia dela eta. *Jakin* 47, 105-14.
- (1988b). *Euskararen batasuna*. Bilbo: Euskaltzaindia, Iker-5.
- (1991). Euskararen egoera Bonaparte-ren garaian. *Jakin* 66, 11- 43.
- (1995). The Basque Country and the Basque Language: An overview of the external history of the Basque language. In *Towards a History of the Basque*

- Language*. J.I. Hualde, J. Lakarra eta R.L. Trask (arg.), 5-30. Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- (1997). Euskara Araban. *Uztaro* 21, 79-95.
- ZUBIRI, E. (1990). *Artikulu bilduma* (R.M. Pagola, ed.). Bilbo: Labayru, Euskal editoreen elkartea.
- ZULAIKA, J. (1996). *Del Cromañon al Carnaval*. Donostia: Erein.